



KARDABERAZ BILDUMA 32

ERROMA'KO ELEIZAREN
ARAUDIA

A. IPOLITO LARRAKOETXEA

KARDABERAZ BILDUMA

<p>1 KARDABERAZ AITARI OMENALDIA (Zenbait idazle) 1972. 198 of.</p> <p>2 NEURRIZTIA (Luis Egia) 1972. 323 "</p> <p>3 SUGE GORRI (François Mauriac - "Uxola") . 1973. 169 "</p> <p>4 EZPALAK ("Uxola") 1973. 191 "</p> <p>5 AITONAREN IPUIAK (Ramón Murua) 1974. 140 "</p> <p>6 ERREKA ZULOAN ETA... (Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1974. 339 "</p> <p>7 SHAKESPEARE - KOMEDIAK, I (Larrakoetxea'tar Bedita) ... 1974. 322 "</p> <p>8 LANDARE-JAKINTZA (Botánica) (Larrañaga, Gillermo) 1975. 183 "</p> <p>9 GARTZI-XIMENO, eta... (Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1975. 258 "</p> <p>10 EUSKALERRIA ETA ERIOTZA (Anastasio Arrinda Albisu) ... 1974. 290 "</p> <p>11 SHAKESPEARE - KOMEDIAK, II (Larrakoetxea'tar Bedita) 1975. 271 "</p> <p>12/13 SHAKESPEARE - DRAMAK, I-II (Larrakoetxea'tar Bedita) 1977. 468 "</p>	<p>14 SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, I (Larrakoetxea'tar Bedita) 1976. 358 of.</p> <p>15 SHAKESPEARE - TRAJEDIAK, II (Larrakoetxea'tar Bedita) 1976. 293 "</p> <p>16/17 GRAMATICA VASCA (Dos vols.), ("Umandi") 1976. 584 ta 208 "</p> <p>18 TXIRULIRUKA-OLERKIAK (Loidi'tar Paben) 1977. 145 "</p> <p>19 LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-NEZKO IDAZKI-BILDUMA, I 1977. 341 "</p> <p>20 LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-NEZKO IDAZKI-BILDUMA, II 1977. 323 "</p> <p>21 LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-NEZKO IDAZKI-BILDUMA, III 1977. 396 "</p> <p>28 EUZKAL-BETEKIZUNAK ("Umandi") 1977. 222 "</p> <p>29/30 COMPLEMENTO GRAMATICA VASCA (Dos vols.), ("Umandi") 1978. 584 "</p> <p>31 LAS ETIMOLOGIAS VASCAS EN LA OBRA DE LUIS MICHELENA (Juan José Arbeláiz) 1978. 156 "</p> <p>32 ERROMA'KO ELEIZEAREN ARAUDIA (A. Ipolito Larrakoetxea) 1978. 472 "</p> <p>33 IZTUETA'REN OLERKIAK (Juan Garmendia Arruebarrena) 1978. 192 "</p>
--	---

KARDABERAZ

<p>1 KARDABERAZ, 1 (Zenbait idazle) 1971. 34 of</p> <p>2 UME TXIKIENTZAKO SOINKETA (Marrezki ugariz ornitua) ... 1973. 19 "</p> <p>3 EUSKALERRI GARREKO JAINKO TXIKIAK (A. Arrinda) 1973. 19 "</p> <p>4 KARDABERAZ, 2 1973. (Zenbait idazle) 1975. 110 "</p> <p>5 KARDABERAZ, 3 1974. (Zenbait idazle) 1975. 14/ "</p>

LIBURUXKAK

<p>6 AMEZKETA'KO PERNANDO (Albisu ta Ayerdi'tar Anastasio) 1975. 77 of.</p> <p>7 KARDABERAZ, 4 1975. (Zenbait idazle) 1975. 84 "</p> <p>8 "PAKEAREN-ERREGIÑA" - MEZA (Pildain Araolaza'tar Joakin) 1974. 43 "</p> <p>9 20 IPUI ETA... antzerkitxo bat ikastolarako (A. Albisu) 1975. 145 "</p> <p>10 KARDABERAZ, 5 1976. (Zenbait idazle) 1977. 109 "</p>

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteiz'ko Apolzagallegian. Euskeraren alde.

1936'an birrindua. 1970'an berpiztua.

Zertarako? Euskera jator batean, kristau-burubide barruan (esi zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume): bazkidezia irixteko sarrrera-sariz, milla peseta ordaintzen dute. Iru bazkide-mota dira gero:

- A) Urteko milla pesetako bazkide-saria ordaintzen dutenak Kardaberaz "urterako" liburuxka, utsean duan jasoko dute. K. B.'k irarriak dituan eta irarriko dituan idazkietatik, ala nai izanik, nai dituztenaz erosteko eskubide dute, irar-sariaz ordaindurik.
- B) Urteko bi milla pesetako bazkide-saria ordaintzen dutenak. Kardaberaz "urteroko" liburuxka, utsean duan jasoko dute. K. B.'k irarriko dituan idazkiok, irar-sariaz ordaindurik, urteko milla peseta bitarteko kopuruz ditezkenak jasotzeko eskubidea dute, ezer geiago ordaindu gabe.
- D) Urteko bi milla pesetatik gorako bazkide-saria ordaindu nai dutenak, Bazkunari guzizko ordaintzetan bereziki lagundu nairik, idazki banaketan ongi goan izango ditu mola ontako bazkideak K. B.'k.

Arpidedunak. Irartzen jungo diren idazkiak jasoko dituzte ahdiko aldian, jaso ala, arpidedun-sariaz ordaindurik.

KARDABERAZ BAZKUNA

San Francisco, 1 - Apdo 83 - Tel. 55-11-40 - **TOLOSA**



KARDABERAZ BILDUMA - 32

A. IPOLITO LARRAKOETXEA

ERROMA'KO ELEIZEAREN ARAUDIA

(CODEX JURIS CANONICI)

ERROMA'KO
ELEIZEAREN
ARAUDIA

•
(EUSKERAZ)
•

A. IPOLITO LARRAKOETXEA
KARMELDARRA



KARDABERAZ BILDUMA



A. IPOLITO LARRAKOETXEA

KARMELDARRA

Traductor: A. Ipolito Larrakoetxea
Edita: Librería Técnicas de Difusión - Tolosa
Imprime: Gráficos ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal VI 111 - 78
I. S. B. N. 84-85416-00-7

Larrakoetxea Agirrezabala Aita bizkaitarra genduan. 1892'n Zeanuri errian jaioa eta Markiñan 1976'gn illa, urtarrillaren 25'n. Bataioan Alexander ipiñi eutsen izena eta Ipolito karmeldarren soñekoak jazkeran. Izkuntzetarako zaletasuna ekarren gazterik, baiña abadetu-barritan, nagusiak esan eutsan: "Zuok, arratiarrok, legeetarako daukazue aparteko sena ta zu lege-gizon izateko aukeratu zaitut". Praille gazteak andik aurrera legeai ekingo eutsen, baiña izkuntzak, batez be euskerea, bertan bera itxi barik.

EUSKAL-IDAZLE. "Legoaldi" ezizena artuta asi zan euskeraz idazten: Sari bi be irabazi zituen Cervantes-en ipui batzuekin. GRIMM ANAYEN IPUINAK atera zituenan arrerarik onena izan eban. Beste lanik be itxi dau argitaratu barik: Jon Gurutzekoaren liburu bi euskeraz, Itun barria, Giputz-aditza, eta oraingo au, gitxienez.

LEGE-GIZON. Alditxo bat Euskalerrian ikasten eta irakasten emonda gero, Erroma'ko ANGELICUM Ikastetxe Nagusian eleiz-legeetan irakasle agiria atera eban eta gai batzuk sakontzen ROTA ROMANA-ko eskolan eta beste baten jarraitu; 1928'n, Sortaldeko Eleizen arazoetarako onulari aurkitzen dogu; 1930'n, Sortaldekoen legeak aztartzeko Batzordeko eta Batzorde orren idazkari, eta 1935'n, Sortaldekoen legeak barritzau bear zituen Batzordearen Onulari. Erroma'k ainbeste arazo ipiñi zituen, gaitiera, Aita Larrakoetxea'ren eskuetan, bai Italia'n, bai Amerika'n, Portugal'en, España'n. Aita onen eretxi eta epaiak pisu andia euken Erroma'n eta non-nai. Il-bezperatxoan berak autortua: "Erroma'k arazo asko ipiñi ditu nire eskuetan eta, Jainkoari esker, nik erabagia ondo artu daust beti". Erroma'ren aurka zanean be bai, azkenengo urteko arazo bategaz jazo jakon lez. Orraitio politikeri zantarraren eruz, Erroma'tik alde egin bearra jazo jakon urte batzuetarako, Euskalerriko diputatuen alde egin ebanagaitik. Orduan Frantzia'n egin zituen amar urte, Euskalerrira etorteko ateak zabaldu jakozan arte.

Karmeldar euskaldunak iru aldiz autu eben euren nagusi: 1933'n (Erroma'n bearrago zalako ez eutsen itxi nagusitza artzen), 1948'n, eta 1957'n; 1960'n, barriz, Erroma'n karmeldar guztien Nagusiaren lenengo laguntzaille. Azkenengo aldian azter-lan andiak egiten ziarduen Santa Teresa'ren egunetako arazo asko argitzen, eta batzuk, bai prantzesez eta bai gaztelez, argiraratuta itxi ditu.

ELEIZ-ARAUDI AU. Lege-gizona eta euskal-idazlea, biak batu eta alkartu dira emen. Gaztetako lana da, izan, 1924 inguruan amaitua. Orduko euskal-giro eta bihurtaldi baten agergerri ederra. Eleizalde-tar Koldobika zanaren asmoai jarraituz ibilli zala dirudi, Jaun onek Bizkaiko Aldundiak ainbat lan egin eta eragin izan eban euskerea edozertarako gai egin-naiez, edozein gaitarako testoak atera gurez. Eleizalderen eriotzeak eta 1923'ko zapalketa-aitzeak ondatu eben dana. Orduan egindako lan askoren azterrenik ez da gelditu. Zorionez, Aita Larrakoetxeak egiña, Eleizearen lege barriak euskal-soñekoz jaztea, ez zan galdu. Eta azken-urteetan Erroma'ra bialdu jakon eta berak makiñaz jo eta arean (zerbait) orraztu egin eban. Lan au amaitu ta laster il zan bera, Markiña'ra atsedan billa etorrita.

Eta ara bere lana. Bear bada, bizi izan balitz, argitaratzekoan, beste ikuturren batzuk geiago egingo eutsazan, orraztuz eta erraztuz. Bego dagoan lez, orain irurogetaka urte illunpean gelditutako, ixilpean egindako lan au, orduko giroaren agergerri eta aldi bateko Eleizearen lege batzuen lekuko.

AGUR IRAKURLE JAUN-ANDREAK

Nire euskerea Bizkaiko euskalkia izango. Orixe da nik ume-ume nintzala ikasia eta ondoen dakidana. Iturriari ura darion lez, niri be orexek berez-berez eriongo. Bizkaiko euskalkian zabalen erabilia izan dana: Arratia'n, Txorierrin eta Nerbion-ibaira euren urak bialtzen dabean lurretan erabilia izan dana. Au da, Bizkayaren arlorik andienean egiten zana. Ganera berau dozue berben yatorrizko antza gitxienez aldatu dauana.

Orixe da nik amaren altzoan ikasia. Nire euskal-irakaslerik lelen-goak eta onenak, ama ta amama. Ez bata ez bestek ezekien erderarik arean be. Baña gura eben edozer esateko ezeben erderara yo-bearrik asmetan. Ezta erderarik ezekielako ixildu-bearrik bez.

Garai artan Zeanuri'ko etxerik geyenak nire etxearen antzekoak zirean. Erri osoa euskaldun utsa. Ama ta amamaren urrengo nire euskal-irakaslerik onenak neure ume-lagunak. Ezkenkien inork euskeraz baño, baya ezkendun ixilik egoteko gogorik.

Ikastola edo eskolara ibilia nozue. Nire umaroan Zeanuri'n lau ikastola egozan: bina mutilentzat eta neskatoentzat. Gure maixua (irakaslea) euskalduna zan eta erriko semea, erdalzale beroa. Erderea irakasteko alegin guztiak egiten ebazan: lelengo, goitik aginduten eutsena egin bear ebalako, eta gero, berak be erdera barik ezkontzazala inorako buruan sartuta eukalako. Idazki edo kartarik be euskeraz idatzi zeitekenik ezeban uste. Aren alegin guztiak arlo onetan alperrikoak izan zireala esan bearko. Bera be etsita egoan. Ni eskolara asi ezker ezeban erabilli arako elestun edo anillorik; eta eskolatik urten ezker ezkinduzan erderaz egiten beartuten eta guk ezkendun gogorik ixilik egoteko. Egia esateko eneban nik Undurraga'ko ikastolan erderarik arean be ikasi, eta ara ibiliak ezeutsan nire euskereari kalterik ekarri.

Ori yazo zala irurogeta amar urte yoanak dira. Arrezkero Zeanuri'n bertan be erdereak euskerea baztertuz daroa bertakoak konturatu barik. Yo nau esanbearean yo daust; laster ikusiko gara, alkar laster ikusiko

dogu esan-bearrean; ni ta urlia *idazten gara*, nik eta urliak alkarrerri idazten dautsagu; *barriro* esan bear eta *barriz* esan, eta abar.

Nire asmua lan au egitorduan erderarik eztakien euskaldunentzat egitea da; erdereak dakienak eztauke onen bearrik, nik euskeraztuten dodan liburu au aspaldian erdera orreitara ederto itzulita daukelako. Itz edo berba barririk alik gitxien sortuko dot; iñoiz baña sortu bearke, orain arteko euskaldunak zer batzuk adierazoteko berba egokirik asmau ezta-belako. Esaterako bizkaitarren *abadea* ta gipuzkoarren *apaiza* erderazko sacerdote *adierazoteko*; erri-abade-apaizak bakarrik artzen dabezalako. Orregaitik *yaupari*-itza artubearra izan dot. Bardin erriaren *fraile-mojakaz*. Berba biok eztira naikoa eurotariko guztiak euren barruan sartzeko; oregaitik *Jaunzale*-berbea sortu bear izan dot, guztiok bere barruan sartzeko.

Jaungoikoaren ordez *Jauna*-berbea erabiliko dot. Lelengo berezko egiari lotuago ibiltarren. Benetako gure Jaun ori goikoa bakarrik barik, beko ta erdiko Jauna be bardin dalako. Orregaitik zuzen dagoz Liburu santuak Jaun izen ori eztautsagula beste iñori emon bear dirauskunean. Jaungoikoa berba ori euskereari baño erdereari lotuago dagoalako be, erriak barregarritxo aldatu dau. Zeanuri'n bertan Jaungoikoa barik, Jaungoikoa esaten da; beste toki batzuetan *Jainkoa*. Euskera yatorrean Jaungoikoa barik Goiko-Jauna esan bear eben. Laterea ikasi ta euskerea aiztu eben gure eleiz-gizonak sortua dala emoten dau. *Aita Gurea zeruetan zagozana* asmau ebenak eurak.

Beste ziyo bat be izan dot aldakuntza ori egiteko. Jauna nai Yauna berbea egokiago dalako beragandik sortuko direan berben susterra izateko, esaterako: *yauretsi* = adorar, adoración; *yauresketa* = culto divino; *yaureskera*, *yaurespide* = liturgia eta abar.

Gauza yakiña da nik erabiliko dodan Bizkayerean eztana ezagun eztarriagaz esaten dan espainarren *jota* oneixek berba biotan baño: Jauna ta Jaungoikoa. Nire eritxiz ikastoletan ikasiko gizakumek ekarrita; erdeldunen sí, Señor; no, Señor euskeraz be esateko. Ostantxean erriko geyenak baño obeto yantzita eta esku-lan gogorrik egin barik ederto bizi direanak Zeanuri'n *Yaunak* zirean.

Gu arratiarrok baño *jota* orren arerioagoak dozuez Naparroa'ko Lesakarrak; orreik eztautse *jota* orreri ate-zulorik be zabaldu; Jaungoikoa ta Yauna esaten dabe. Yota jota baño zarragoa ete dogun nago euskerean. Ebertarrak yotagaz eukan itz berbera eta esangura bardin-bar-

dinekoa daukagu Arratia'ko eukalkian: YABE, YABEA. Gure Yaunak berak esan eutsan Moises'eri Isrrael-erria berea zala, Bera zala aren *Yabea*. Edonork ikusi dagiken zera da YABETASUNA, Jauntasunik beteena dana. Arrezkero Jauna YABE esaten eben.

H'ri buruzko auzi orretan nik eztot auzilari izan nai. Nik neuk noiz erabili bear dan be eztakit eta ikasteko gogorrik be eztaukat. Euskal-erri geyenak ezagun eztauan zerbait nai ta ez erabili-eragitea eztot ikusten nondik zuritu leiteken. Euskereak lendik be arerio naikoa dauko beste barri bat ezarri barik be.

GURE ARAUDIAREN ARPEGIA

Gure Eleiz-Araudiak, txoriak lez ganetik egaz goakiozala begiratuta erakusten dauskun ARPEGIA.

Bost *arlotan* bananduta agiri yaku. Arlook *Idazti* edo *Liburu-izena* dauke. Araudi onen aurretiko. Elxearen legetzeak lez, Idaztiok, lelengo ez besteok, *Zatituta* agiri dira = *Partes*. Zatiok batzuetan *Zatikietan* (Secciones) barriro zatituta. Idazti, Zati ta Zatiakiak Idazpuruetan (Títulos) barriro zatituta. Idazpuruok baña Zati ta Zatikien konturik euki barik Idazti edo Liburu bakotxaren asieratik ta Zatikien konturik euki barik Idazti edo Liburu bakotxaren asieratik atzeneraño euren kontakera berezia yagoten dabe.

Idazpuruok geyen baten *Ataletan* (Cápita) eta Atalkietan (Artículos) zatituta agiri dira.

Zati guztiotan bananduta agiri dira *arauak* edo legeak. Baña Araudiaren esandako zatiketeari yaramonik egin barik, Arauak, le lengotik atzeneraño, euren arteko zeinbakarretasuna baño eztabe aintzat artzen; eta orregaitik, Araudi onetako araua edo legea aitatu ten danean, naikoa da arau orren zenbakia esatea.

Arauok 2.414 dira.

Arauok sarri dabez euron zatikiak. Bitarikoak. Batzuk legea bakotxak bere erara artu daroa; eta ori arauaren zenbakiari § ezarrita azaltzen da. Beste batzuetan lege berbera bat baño geyago direala esateko; eta ori zenbakiari zeinbakarren dan ezarrita egin daroa: 1.º, 2.º, 3.º...

LELENGO IDAZTIA

ZER ASKOTARAKO ARAUAK

1g. araua. Araudi onetan Sorkaldeko Elexearen jardunbidea be aitatu arren, Sorkaldeko edo Latel-Elexea bakarrik begiratuten dau, ta Sorkaldekoa eztau lotuten alango legeen baten mamiak Sorkaldekoa be bardin lotu ezpalegi.

2g. araua. Araudi onek geyen baten eztau ezer aginduten yaupa oso santua zelan egin, ikurtonak eta ikurton-antzekoak zelan emon eta beste Jauresketak zelan egin Latel-Elexeak ontzat emondako liburuak zaindu bear direala aginduten dabezan legeai buruz. Beraz Jaureskuntzeari buruzko lege guztiak len besteko indarra izango dabe, bat edo bestea beren-beregi aldatu ezpalegi.

3g. araua. Araudi onetako erabagiak eztabez ilten Aita Santuak Laterriakaz egindako itunbenak, ezta eurai ezertariko ikuturik egin be; orregaitik len besteko indar osoa izango dabe Araudi onetako aginduak gora bera.

4g. araua. Norberenak egindako eskubideak eta Aita Santuak orain artean berezko nai legezko norbaitzui emondako kutun-legeak eta eskupekoak, oraindiño zutunik eta kendu barik balegoz, bizirik yarraituko dabe Araudi onetako arauak agirian kendu ezpalegiz.

5g. araua. Arauon aurka orain artean bizi izan direan ekanduak, bai edonongoak direala bai nonbaitekoak direala, arauok txartzat emon balegiez, zuzenaren ustela direalakoan kendu bediz naita zar-zarrak izan, eta etxakie barriro biztuten itxi bear; ostantxean, eun urtekoak edo zarraren-zarrez noiztikoak direan be inork eztakienak balira, bizirik itxi daitezke, nongoak eta nortzuk ikututen dabezan begiraturik, bertako Goterkizafiak ezin kendu leikezala uste balegie. Ostantxeko guztiak kendutzat emon bediz Araudi onek beren-beregi besterik erabagi ezpalegi.

6g. araua. Araudi onek geyen baten orain artean bizi izan dan jardunbidea yagon daroa, naita aldakuntza egokiak noizean-beinka ekarri. Beraz:

1.º—Edozein lege, bai edonongoa dala bai nonbaitekoa dala, Araudiaren aginduen aurkakoa il egiten dau, nonbaiteko legeen bateri buruz besterik oartu ezpalegi;

2.º—Lege zarra osoan dakarren arauak lege zarraren indarragaz neurtu bear dira, beraz lengo gizon yatorrak azalduten ebezan eritxiak ontzat artuta;

3.º—Lege zarragaz zati baten bakarrik batera datorzan arauakaz batera datorzan zatian lege zarraren neurria erabili bear da, batera eztatorzan zatian barriz euron esakeratik neurtu bear dira.

4.º—Arauen aginduen batek lege zarragandik alde egiten ete dauan ez ete dauango ezpayan, lege zarretik ezta alde egin bear.

5.º—Araudi onetan aitaturten eztirean zigor-legeak, nai arimeari nai gorputzari buruzkoak, osagarriak nai zigor-garbiak, emondako nai emoteko epaiezkoak direala, guztiak ildakotzat euki bediz;

6.º—Orain artean bizi izan dan yardunbideari buruzko legeen bat ez agirian ez estalduta ezpalego Araudi onetan, ontzat emondako Jauresketeari buruzkoetan ezpalego, edo Jaunaren legea, nai yatorrizkoa nai ostantzekoa ezpalitz, bere indar osoa galdu dauala esan bear da.

7g. araua. Araudi onetan Beldu-Aulkiaren edo Aulki Santuaren izenagaz adierazoten da ez bakarrik Erroma'ko Obispoa, baita Erroma'ko Obispo orrek Elexa osoko arazoak ebazteko ta erabagiteko daukazan Bazkunak, Epaitegiak eta Landolak be.

(Oarra: Orreik esakerok itxita, nik *Aita Santua* izena erabiliko dot beti; irakurle euskaldunak errazago ulertu daian. Larrakoetxea).

I IDAZPURUA

Eleiz - Legeak

8g. araua. § 1.—Legeak sortu iragarten direanean sortuten dira.
§ 2.—Legea ezta nortarra, nondarra baño, ostantzekorik argi ezpadago.

9g. araua. Aita Santuak emondako legeak *Actorum Apostolicae Sedis* Aldizkarian argitaratuta iragarten dira, alangoen baten beste iragarpide bat erabagi ezpalegi; eta eürak bete-bearra *Actorum* orren zenbakiari ezarri yakon egunetik asita iru illabete igazita gero asten da, gayaren zerak bertatik lotu ezpalegi, edo legean bertan epe laburragoa nai luzeagoa beren-beregi ezarri ezpalegi.

10g. araua. Legeak etortekoak begiratu daroez, ez yoanak, yoanai buruz beren-beregi zerbait oartu ezik.

11g. araua. Gauzaezkarriak edo gaiezkarriak egiña utsa edo norbait zerbaiterako eztala gai garbi edo gauza berbera esaten daben itzen bidez diñoen legeak bakarrik dira.

12g. araua. Elexeak bere eskubide utsez emondako legeak eztabe bete-beartuten ugutza oraindiño artu bakoa; ezta bein-beinean ezaguera naikoa eztauan ugutzatua be; ezta ezaguera elduak izan arren, orain-

diño yayotzatic zazpigarren urtea bete eztabenak be, legeak berak besterik agirian oar ezpalegi.

13g. araua. § 1.—Edonorako legeak emon yakezanak ludi osoan lotuten dabez.

§ 2.—Barruti berezi baterako emondako legeak: emon yakezanak eta erabatera euren bizi-etxea edo bizi-etxe-antzekoa bertan daukenak eta ganera bertan une atan dagozanak bete-bearrera lotuten dabez; alan be 14g. arauko aginduaren kalte barik.

14g. araua. § 1.—Arrotzak:

1.º—Eztagoz euren barrutiko lege bereziakaz lotuta, bertatik alde eginda dagozan bitartean, edo eurok austeak euren barrutian kalte egin edo legeak nortarrak ezpalediz;

2.º—Ezta dagozan tokiko lege bereziakaz be, agiriko erri-yardunbidea zain-zekoak edo legezko itunbenen bat zelan egin aginduten dabenak ezpalira;

3.º—Edonongo legeak ostera lotuten dabez naita euren barrutian indarrik izan ez; ez orraitio dagozan tokian indarrik ezpalebe.

§ 2.—Edonongoak lotuta dagoz dagozan tokiko lege guztiakaz, bai edonongokoakaz bai bertakoakaz.

15g. araua. Legeak, gauzaezkarri nai gaiezkarri izan arren, legeari buruzko ezpaya danean ezta iñor lotuten; ezpaya egitekoari buruzkoa danean barriz, Gorzaniak eskubidea dauko azke emoteko, Aita Santuak azkatuten dauanetarikoa baledi.

16g. araua. Lege gauzaezkarri nai gaiezkarrietatik eztau yakin-ezak azkatuten, yakin-eza edozelangoa dala, legeak berak agirian besterik oar ezpalegi.

§ 2.—Nai legeari buruz nai norberak egiñari buruz yakin-eza nai uste okerra eztira geyen baten egitzat emotekoak; agirikoak eztirean iñoren egiñai buruz bai egitzat emoten dira, osterantzekoa erakutsi arte.

17g. araua. § 1.—Legeari egizkotzat artu bear dan azalpena emon dagi-keo: legegilleak berak, aren ondorengoak eta batak edo besteak azaltzeko eskubidea emon dautsanak.

§ 2.—Azalpen siñeskarriak, legea bera lez iragarria baledi, legeak berak añako indarra dauko; eta benetan ezagunak direan itzak argiagotu baño besterik ezpalegi, eztago agirian iragarri-bearrik eta atzeko egiñai be ezarri bear yake; legea estutu nai nasaitu, edo bai-ezpadakoa atzalduten dauana, etxakie atzekoai ezarri bear, eta erriari legea bera lez iragarri bear yako.

§ 3.—Auzi-epayan edo norbaiten itaunari idatzizko erantzunean emondako atzalpenak eztauko lege-indarrik, eta eztauz lotuten auzilariak eta bertan epaitu direan epaikizunak baño.

18g. araua. Eleiz-legeak itz bakotxaren eta alkarren arteko esan-gurea begiratuta ulertu bear dira; ilun eta ez bai ez ezetz esateko utzi bazaitue, yo egikezu gai berbera ukututen daben Araudi onetako beste tokietara, alangorik balego; baita legea zertarako, nork, noiz eta nortzui emona izan dan eta legegillearen asmua zein izan aztertzeraz.

19g. araua. Zigorrak ezarten dabezan legeak, nai eskubideak erabiltea es-tututen dabenak, nai legearen aurka norbaiteri emoten yakon azkatasuna estu ulertu bear dira.

20g. araua. Zerbaiteri buruz agiriko erabagirik ez guztientzako ez nor-baitzuentzako ezta zerbaitzuentzako legeetan be ezpalego, zigor-kontua ezpaledi, yardunbidea artu bedi antzeko arazoetarako emondako le-geetatik, edozein legeren oñarri direan egietatik, Eleiz-zuzenbidearen errukiz bi-gunduta, Aita Santuaren Landolaren yardunbidetik, yakitun geyenen eta betiko irakatsietatik.

21g. araua. Guztiontzako arriskutik zaintzeko emondako legeak bete-bea-rrerakoak dira alango baten arriskurik egon ez arren be.

22g. araua. Geroagoko legeak, atarako bear besteko aginpidea ebanak emona baledi, lenagoko legea il egiten dau:

1.º—ori agirian badiño, edo;

2.º—aurka-aurkakoa balitz, edo;

3.º—baita lengo legeak zaintzen eban arazoa barriro zelaz zaindu osoan ebatzi balegi be;

4.º—baña bigarren arauaren lelengo (1.º) zenbakian esanaren kalte barik, edonorako legeak eztautse ikuturik egiten nonbaiterako edo norbaitzuentzako legeai, legeak berak besterik agirian oar ezpalegi.

23g. araua. Ezpayan ezta egitzat emon bear aurreko legearen eriotzea; okerretatara, geroagoko legeak lenagoko legeakaz adiskidetu ta, al dala, eurokaz bakez konpondu bear dira.

24g. araua. Bakotxari emondako aginduak, emon yakezanak edonon lo-tuten dabez; baña ezin leitekez auzibidez bete-erazo; eta agintzallearen aginpidea amaitu ezkerro, eurak be amaitu egiten dira, legezko agiri bidez edo lekuko biren aurrean ezarriak ezpalira.

II IDAZPURUA

Ekandua

25g. araua. Ekanduak, lege-indarra, Elexako Nagusi egokiaren bayetzatik bakarririk artu daroa.

26g. araua. Gitxienez eleiz-legea artzeko gai dan gizabatzak sortu dagike lege-indarra daukan ekandua.

27g. araua. § 1.—Jaunaren legea, nai yatorrizkoa dala, nai bere oldez geroagoan emona dala, ezdagike iñongo ekanduk makaldu; ezta eleiz-legeari be ezdagikeo kalterik ekarri berez arteza ta sortu zan ezkerro berrogei urte osoak eta etenbakoak ezpaditu; bere aurkazko ekandurik sartzea galazoten dauan eleiz-legearen aurka ekanduak lege-indarra izateko, lelengo sent-zunezkoa izan bear dau, eta gero eun urte edo iñork eztakian beste urte izan bear ditu.

§ 2.—Legeak okerra dala diñoan ekandua ezin leiteke iñoz arteza izan.

28g. araua. Lege-ganetiko ekanduak, gizabatzak zer egiten eban kontura-tuta betebeartuteko asmuagaz zaindu dauanak, lege-indarra artzen dau erabatera bidezkoa izan eta berrogei urte oso ta yarraituan bizirik iraun balegi.

29g. araua. Ekandua, legearen azalpenik onena.

30g. araua. 5garren arauan aginduaren kalte barik, legearen aurkazko nai kanpotiko ekandua bere aurkazko ekanduak nai legeak il da-roa; orraitio legeak eztauz ilten eun urtekoak edo oroigatzak direan ekanduak beren-beregi aitatu ezpalegiz. Ezta edonorako legeak nonbaiteko ekanduak be.

III IDAZPURUA

Aldi-epeak zelaz neurtu?

31g. araua. Jaureskuntzeari buruzko legeak alde direala, aldi-epeak urren-go arauak erabagiten daben lez neurtu bear dira, ostantxe-korik beren-beregi esan ezik.

32g. araua. § 1.—Egunak ogeta lau ordu daukaz, gaberditik asita bitarte barik; asteak, zazpi egun.

§ 2.—Legeai buruzko zeretan illebeteak esan nai dau (30) ogeta amar egu-neko epea; urte beteak (365) irureun eta irurogeta bost eguneko epea, illea ta urtea egutegian datorzan lez artu bear direala esan ezik.

33g. araua. § 1.—Eguneko orduak kontakeran zagozan tokiko erriak da-rabilenari yarraitu bear dautsazu; baña norberak meza ixila emoten, nai eguneko alako orduetan Elexeak agindutako otoitzak esaten, yau-nartzean eta barau ta aratuzte-legea betetean, zagozan tokiko erriaren kontakerea bestelakoa izan arren, eskubidea daukazu ordu-kontu orretan, yarraituteko nai

toki bertako benetakoari, nai gitxi gora-berakoari, edozein dala, nai Erri-alde osoarena nai beste edozein.

§ 2.—Itunbenetako egin-bearrak noiz beteko, egin dabezanok beste neurrien batzuk erabagi ezpalegiez, Laterriko legeak agindua izan begie neurri.

34g. araua. § 1.—Illa ta urtea euron izenagaz edo bardin litzaken beste itzen bategaz aitatu baledi, esaterako: *Zezeillean, urrengo datorren urtean*, egutegian datorzan lez neurtu bear dira.

§ 2.—Epearen asikaldia ez bere izenez ez antzekoagoaz esan ezik, esaterako: *Meza emotea galazota illabetean edo urte bitan, urtero iru illabeteke oporra*; epea neurtu bear da unetik unera; eta etenbakoa litzakenean, orko lelengo esaterakoan lez, illa ta urteak egutegiak dakarrezan lez kontau bear dira; etena balitz, astea zazpi eguneko, illa-betea ogeta amar eguneko ta urtea 365 eguneko litzakez.

§ 3.—Epea illabete nai urtebete bategaz edo askogaz, astebete bategaz edo askogaz osotua balitz; asi-unea bere izenez nai bardin diñoen itzez izentautu balego:

1.º—Illak eta urteak egutegian dagozan lez artu bear dira;

2.º—Asi-unea egunaren asiereagaz bat-baterakoa balitz, esaterako: Dagonillaren amabost-garrenetik illa biko oporra; lelengo eguna kontau bear da, ta epea zenbaki bardiñeko atzenengo eguna asi-ala amaitzen da;

3.º—Asi-unea egunaren asiereagaz bat-batera ezpaletor, adibidez: adifñeko amalaugarren urtea; asi-ezi-aroko urtea, Gotzain-Aulkia utsik gelditu zanezkero zortzi-urrena; gora yoteko amar egunak eta abar; lelengo eguna ezta kontetan, eta epea amaitzen da zenbaki bardiñeko atzeneko eguna amaitutorduan;

4.º—Illak ezpaleu zenbaki bardiñeko egunik, esaterako: Urteillaren 30 garrenetik illabete, orduan arazoaren asierea zelangoa, epea amaituko da illa bete orren atzenengo egunaren asierean edo amaieran.

5.º—Garai izentatuetan barriztau bear direan zerbaitzuk direanean, esaterako: betiko Jaunzaletzea egiteko, bein-beinekoa egin zanezkero iru urte; auteskunde barria egiteko iru nai beste onenbeste urte, eta abar; epea amaitzen da arazoa asi zaneke egunari dagokion egun berberean; eta barriro egin leiteke egun orren edozein ordutan.

35g. araua. *Gauza dan epea* esaten yako legearen agindua eztakianari edo erabilli ezin dauanari yoaten etxakona; *etenbakoa*, bitarte utsik eztauanari.

IV IDAZPURUA

Erantzun idatziak

36g. araua. § 1.—Bai Aita Santuaren bai beste edozein Gotzaiñaren erantzun idatziak beren-beregi galazoten etxaken guztiak daukie eskubidea eskatzeko.

§ 2.—Aita Santuak emondako edozein mesede nai legazka zigor sendagariakaz yota dagozanai be gauza yakiez, 2265g. ar. § 2, 2275g. ar. 3.º ta 2285g. arauetan esaten direanak ezpalira.

37g. araua. Erantzun idatzia iñorentzat beronen bayezko barik be eskatu daiteke, erantzunaren bidez emona ez erabilteko eskubide osoa izan arren; erantzunak bera artu aurretik dauko bere indarra, erantzunak berak dakarzan itzetatik besterik agertu ezik.

38g. araua. Erantzun idatziak bete erazteko iñor barik emoten dauana, erantzuna emon zala idatziak diñoan eguna ezkeron emonda dago beste barik; besteak, bete-erazoten direan ezkeron.

39g. araua. Erantzunaren baldintzak nai ta nai ez egi izan bear dabe, *ba, baldin ba* edo orrean antzeko beste itzen bat ezarten yakozean.

40g. araua. Idatzizko erantzun guztietan, esan ez arren be, baldintzau daukiela ezarrita yakin bear da: *eskarian esaten dana egia dala*.

41g. araua. Bitarteko betetzallerik eztaukien idatzizko erantzunetan eskariak egi izan bear dabe erantzuna emotorduan; besteetan, betetorduan.

42g. araua. § 1.—Eskarietan egia ixiltzeak, lateraz *subreptio* esaten danak, eztautso erantzunari kalterik ekarten, erantzunak emoten dauzan Idazkolaren yardunbideak nai ta nai ez eskatu daroana ixildu ezpalegie.

§ 2.—Guzurra esateak, lateraz *obreptio*, be eztautso erantzunari kalterik, agertutako ziyo bakarra egia danean; ezta, ziyoak bat baño geyago direanean, erantzulea bayetz erantzutera benetan ekarri dauan bat egia izan baledi.

§ 3.—Egia ixiltzeak edo guzurra esateak erantzunaren zati baten, beste zatia-ri eztautso kalterik ekarten, idatzizko erantzunean gauza asko emoten direanean.

43g. araua. Aita Santuaren Landoletako Bazkun Gurenen batek edo beste Lantegien batek ukatutako eskaria alperrik eskatuko yako beste Bazkun Guren edo Lantegi bateri, edo norbere Obispoari ta onen morroia, naita eskariari bayetz erantzuteko ala euki, eskaria ukatu eban Bazkunaren edo Lantegiaren bayezko barik, orraitio Aita Santuaren Autortegi Gurenaren esku-bideai kalterik ekarri barik.

44g. araua. § 1.—Norbere Gotzaiñak ukatutako gauzea ezpegi iñork beste Gotzaineri eskatu lenagoko ukapena ixilduta; esan balegi barriz, ezpegi bigarren orrek eskatua emon, lelengo Gotzaiñak ukatutako izan ebazan ziyoak yakin barik.

45g. araua. Norbaitek eskatutako idatzizko erantzunari *Motu proprio* ezarten bayako, emona benetan emonda dagoke, ostantxean esan bearko litzaken egia ixildu arren; ez orraitio zertarako bear leuken diñoan ziyo bakarra guzurra balitz; alan be 1504g. arauan aginduten danaren kalte barik.

46g. araua. *Motu proprio-dun* idatzizko erantzunak be utsak dira, emona artzekoa guztientzako legez artarako gauza ezpalitz; bardin nunbaiteko legezko ekandu nai aginduen baten edo iñork beretutako eskubideen baten aurka litzakena be, erantzunak eragozpen guztiok baztertzen dauzala beren-beregi ezpadiño.

47g. araua. Idatzizko erantzunak eztabez alperriko egiten emon dauanaren nai emon yakonaren, nai au bizi dan tokiaren nai eskuarteko arazoaren izeneko okerrak, Gotzafiaren eritxiz ez nori ez zeri buruz ezpairik ezpalego.

48g. araua. § 1.—Arazo berberari buruz, alkarregaz konpondu ezin leitekezan erantzun bi emotea yazo baledi, zerbaiterakoak geyago egiten dautso danerakoari banan-banan aitaututen direan zeretan.

§ 2.—Zabal nai estuan alkarregaz bardiñak balira, zarragoak gazteagoari geyago egiten dautso gazteagoan zarragoa aitatu ezpaledi, edo zarragoa artuak maltzurkeriz nai arlotekeriz emon yakon eskubidea ezpalerabil.

§ 3.—Erantzun biak egun berean emonak balira, ta ezin yakin zein izan dan lenago emona, biak dira utsak eta al bada ta gure badabe, yo begie barriro erantzuleagana.

49g. araua. Idatzizko erantzunen itzak bakotxak berea dauan esan-gurean ta erriak ulertuten dauzan lez ulertu bear dira, eta eztira nasaitu bear beste zeretara.

50g. araua. Zalantzan, auziai buruzkoak, beretutako iñoren eskubideak ukututen dautsenak, edo bakotxaren aldez legearen aurkakoak direanean, edo Eleiz-bizibideen bat lortzeko emonak direanean, estu ulertu bear dira; ostantzekoak, nasai.

51g. araua. Bitarteko betetzallerik ezpalego, Erroma'tiko idatzizko erantzuna Gotzafiari urrengo yazokunetan bakarrik erakutsi bear yako: erantzunean bertan alan aginduten danean; erri-aurrean zerbait egiteko danean; baldintzen batzuk egi badira ala ez egiztau bear danean.

52g. araua. Aurkeztuteko eperik ezarri etxakon erantzuna betetzalleari noiz gure aurkeztu leitekio, baña maltzurkeri ta gaiztakeri barik.

53g. araua. Idatzizko erantzunaren barria erantzulearen aginduz yakin-erazo ezpayako, erantzunaren betetzalleak bere egitekoa alperrik egingo dau, aren idazkia artu ta bere siñeskarritasuna ta osotasuna egiztau arte.

54g. araua. § 1.—Erantzuna bete-bearra bakarrik emon bayako, betetzalleak ezin dagike egiteko ori ukatu, egia ixildu nai guzurra esanagaitik erantzuna utsa izan dala agiriko gauzea ezpaledi; edo erantzunean ezarten direan baldintzak bete eztireana; edo erantzuna artu dauana, betetzallearen eritxiz bertan emoten yakona artzeko eztalako iñor erriari ikara txarra emon barik. Au arzenengo au yazo baledi, betetzalleak, bere egitekoa luzatuta, zer yazoten dan esanaz idatzi begio erantzuleari.

§ 2.—Erantzunari nai bai nai ez erantzuteko eskubidea emoten bayako betetzalleari erantzunean, berak ikusi bear dau zein erantzun emon.

55g. araua. Betetzalleak aginduten yakon bidetik yoan bear dau; aginduan ezarritako baldintzak bete ezpalegiz, eta ebazkeran nai ta ez yoan bear eban bidetik yoan ezik, betetzea utsa litzake.

56g. araua. Erri-aurrean egiteko arazoai buruzko erantzunak betetzea idatiz egin bear da.

57g. araua. § 1.—Alan zuzen baderitxo eta ordeztutea galazo ezpayako edo nor ordeztu izentau ezpayako, erantzunaren betetzalleak eskubidea dauko bere egitekoak iñori ezarteko.

§ 2.—Berak bere-berea dauan trebetasunagaitik aukeratu izan baledi, ezin dagikeo bere egin-bearra iñori leporatu, epai-aurretik egin bear direan zerbaitzuk izan ezik.

58g. araua. Betetzalleak bere-berea dauan gaitasunagaitik aukeratua izan ezpalitz, edozein idatzizko erantzun bete legike nai nausitzean nai zeregiñean betetzallearen ondorengo danak.

59g. araua. § 1.—Betekeran oker egin baleu, betetzalleak eskubidea dauko erantzuna barriro betetako.

§ 2.—Erantzunak betetzeagaitiko lan-sariari buruz 1507 § 1g. arauaren agindua zaindu bedi.

60g. araua. § 1.—Nagusiaaren berarizko erabagiz kendutako erantzunak eukanari kendu yakola iragarri arte irauten dau.

§ 2.—Aurkazko legeak eztau idatzizko erantzunik kentzen legean bertan kentzen dauala argi ezpadiño, edo legea erantzulearen nagusiak emona ezpalitz.

61g. araua. Erantzunik ezta ilten emon eban Aita Santuaren nai Obispoaren aulkia utsik gelditu dalako, idatzizko erantzunak olango-

rik esan ezpalegi, edo bertan izentatzen direan norbaitzui maite-erakutsien bat emoteko urliari emoten yakon eskubidea balekar erantzunak, eta arazoa oindiño asi barik geldi balego.

62g. araua. Idatzizko erantzunak emon garbia bakarrik barik, kutun-lege (pribilejio) edo legazkaren bat balekar, urrengo arauak agin-
dua be bete bear da.

V IDAZPURUA

Kutun-legeak (Pribilegioak)

63g. araua. § 1.—Kutun-legeak norberetu leitekez ez bakarrik atarako gauza dan Nagusiak berari artez emonda edo iñori emonen yabe eginda; baita legeko ekanduren edo legeak eskatuten dauzan urteetan aren yabe lez yokatuta be, au da erderaz *prescripción* esaten dan bidez be.

§ 2.—Eun urteko edo iñork noizdanikoa danik eztakian antxiñaoko yabeteak kutun-lege ori bidez emona dalakoaren legeko eritxia sortarazoten dau.

64g. araua. Iñoren kutun-legeen yabe-lagun eginda, naita yatorrizko yabearen neurrikoa izan, norberetu leitekezan kutun-legeak, lengo yabeari berari betiko emonak bakarrik dira, ra ganera nor-nor edo nongoa zanik edo bere-berea litzaken beste zerbaitegaitik emonak direan kutun-legeak; eta ganera kontuan euki bear da yabegai barri orren atarako gaitasuna be.

65g. araua. Yatorrizko yabeari emondako kutun-lege berbera beste norbaiteri nai norbatzuei emotea yazo baledi, lengo yabeagan izango leukezan gora-bera guztiak yabe-lagunotan be izango leukez: nai azi, nai txikitu nai galdu. Olangorik ezta yazoko yabe-lagunotan, bardiña bai, baña lege berbera barik, beste bat emon bayake (1).

66g. araua. § 1.—Nai betiko nai esaten dan eperako nai arazo batzuetarako emoten direan eskubideak zuzenbidearen ganetikiko kutun-legeen senide egiten dira.

§ 2.—Eurak emotorduan emoten yakozan norbaiten antze berezia begiratu ezpalitz edo ostantxean beren-beregi esan ezik, Aita Santuak Obispoari ta 198g. arauan izentauriko beste Gotzafñai emondako eskubide iraunkorrak eztira ilten

(1) Lateraz ori esaten dabe: *in forma accessoria* ta *aeque principaliter*; euskeraz oindiño argiago esan dodala deritxat. Irakurlea, epaikari. Lelengoa yazoten da, yabe guztiak daben kutun-legea bakarra dalako; bigarrena barriz yazoten da, legeak edo geyago edo yabeak aña direalako. Bataren gora-berak eztira besteakama zabaltzen.

emon yakozan Gotzafñaren agintzea amaitu arren, naita bera eskubideok erabilten asita egon; okerretara, aren agintzean yarraituko dautsanagana igaroten dira; baita Obispoari emonak bere Danerako Ordezkoari be badagokioz.

§ 3.—Emondako eskubideak bera erabillteko bear direan al guztiak daroaz; orregaitik pekatuak parkatzeko eskubideak aurka legokezan eleiz-zigorrak baztertuteko eskubidea be bertan daroa, naita pekatu-parkatutearen ondorenak irabazteko bakarrik izan.

67g. araua. Kutun-legea bere esakeratik ulertu bear da, ez nasaitu ez estutu barik.

68g. araua. Ezpaya balego, 50g. arauan erabagiten dan lez azaldu bear dira kutun-legeak; orraitio legegñiak bere kutunari zerbait emon dautsala kontuan euki bear dau azaltzalleak.

69g. araua. Beste nonbaitetik bete-bearra agertu ezik, eztauko iñork norberetzat bakarrik emondako kutun-legea bete-bearrik.

70g. araua. Ostantxekorik agiri ezik, kutun-legea betikotzat euki bear da.

71g. araua. Guztientzako legeak Araudi onetako kutun-legeak ilgo leukez; besteai buruz 60g. arauko erabagia da lege.

72g. araua. § 1.—Nagusi egokiak ontzat artu balegi kutun-leggedunak egin dautsan ukoa, kutun-legearen atzena.

§ 2.—Norbere onerako bakarrik emondako kutun-legeari edonork uko egin dagikeo.

§ 3.—Alkargo, nagusitza nai tokien bateri emondako kutun-legeari ezin legikeo uko egin norbaitek bakarrik.

§ 4.—Alkargoak berak be ezin legikeo uko egin kutun-legeari, benetako legea lez emona balitz; edo uko egitetik Elexeari edo beste norbaiteri kalte baletorkio.

73g. araua. Emon ebanaren aginpidea amaitu arren eztira amaituten kutun legeak *ad beneplacitum nostrum* (neuk gura izango dodan arte) edo esangura bardiñeko beste esakera bategaz emonak ezpalira.

74g. araua. Norbaiteri emondako kutun legeak, beti bera lagun; norbait ori il ezkeru, kutun-legea be il.

75g. araua. Zerbaiteri ezarritako kutun-legeak, gauzea nai tokia osoan galdu balira, eurak be galtzen dira; orraitio tokiari ezarritako kutunlegeak, toki ori berrogeta amar urte barruan birreragi ezkeru, kutun-legeak be barriro biztuten dira.

76g. araua. Kutun-legeak eztira makaltzen erabili-egaitik; ezta euren aurka yardunagaitik be, iñorentzat nekegarri eztireanean; iñorentzat nekegarri direanean bai galtzen dira, norberak uko egin dautsalako edo iñork legezko azkatasuna lortu daualako.

77g. araua. Kutun-legea baita ilten da Nagusi egokiaren eritxiz lege ori erabiltea kaltegarri egiteraño gauzak aldatu balira be, edo pekatu izateraño; baita ezarri yakon bizi-epea amaitu yakolako be; eta baita izentau yakozan yazokizunak amaitu direalako be.

78g. araua. Kutun-lege bidez emondako eskubidea lerabilkenak lege ori kentzea irabazten dau kutun-legea benetan oker balerabil; orregaitik norbaitek Aita Santuak emondako kutun-legea oker-bide balegi, Gotzañak iragarri begio Aita Santuari yazoten dana, baiña 207, § 2 arauan esanari ezer kendu barik.

79g. araua. Aita Santuagandik yadetsitako kutun-legeak artu dauzanak benetan erabilteko eskubidea dauko euki; orraitio eskubide ori ezin legike iñoren aurka auzian erakutsi, kutun-lege ori emon dautsela bear dan lez erakutsi ezik.

VI IDAZPURUA

Legazkatzea

80g. araua. Lege-azkatzea, au da legea alango baten azkatzea, legegñak, onen ondorengoak edo Nagusiak egin dagike; ta baita euro-tarikoen batek atarako eskubidea emon dautsanak be.

81g. araua. Erroma'ko Gotzañaren (Aita Santuaren) azpiko direan beste Gotzañak ezin dagikie azkatu Elexa osoarentzat emondako legerik, ezta bein be, atarako eskubidea beren-beregi nai beste edozelan emon ezpayake, edo Aita Santuaganaño yotea gatx izan eta erabatera legea azkatzea atzeratutetik kalte andia etorteko zoria izan eta ganera Aita Santuak azkatzen dauanetariko legea danean baiño.

82g. araua. Obispoak eta beste Goterkizañak azkatu dagikiez: a) goterkiko legeetatik; b) baita Erkiko nai Erki askoko Batzarrean 291g. arauan esaten dan lez emondako legeetatik be; baiña ez barruti orreitarako Aita Santuak beren-beregi emondako legeetatik, 81g. arauan agindutako Yardunkerea erabilia baiño.

83g. araua. Parroki-zañak eztauke legerik azkatzeko eskubiderik, ez Elexa osoarenik ez nonbaitekorik, atarako eskubidea iñoiz beren-beregi emona ezpalebe.

84g. araua. § 1.—Ezpedi iñor Elexako legepetik azkatu atarako ziyo zuzen eta susterreko barik, azkatu nai dan legearen garrantzia begiratuta gero. Bestela, emondako azkatasuna gaiztoa ta alperra litzake.

§ 2.—Ziyorik naikoa ete dagoanean, azkatzea erru barik egin daiteke; eta baita legez eta erru barik erabili be.

85g. araua. 50g. arauan aginduten dana kontuan artuta neurri estua ezarri bear yako, ez bakarrik Legazkatzeari, baita izentauta emoten dan yazokunean azkatzeko emoten dan eskubideari berari be.

86g. araua. Egite baterako barik, bata bestearen urrengo yazoten direanetarako emondako legazkatzea kutun-legeak langoxe erataro amaitzen da; ganera, agiri-agirian eta osorik legazkatzea emoteko ziyoa amaitu baledi be bai.

BIGARREN IDAZTIA

NORTZUK

87g. araua. Gizasemea Elexan norbait ugutzak egiten dau kistarren eskubide ta eginbear guztiakaz, eskubideai buruz Elexako alkar-bizitzearen batasuna eragozten dauan zerbait berak egin edo Elexeak zigor osagarrien bat ezarri ezik.

88g. araua. § 1.—Ogetabat garren urtea bete dauan gizakumea *nausia* da; gazteagoa, *txikia*.

§ 2.—Txikia, mutilla bada, amalau urte ezkeroko *ezkongaitzat* emoten da; neskea balitz, amabi urte bete ezkeroko.

§ 3.—Oraindiño ezkongai eztireanok zazpi urte bete artean *umeak*, zer gaizto ta zer on dan berezteko bururik oraindiño eztaukielakoak dira; zazpi urteak beteak izan ezkeroko barriz orretarako burua badabelakoa uste izaten da; umetzat artu bear dira betiko *sen-bakoak*.

89g. araua. Nausi dan edonork bere eskubideak erabilteko yabetasun osoa dauko; txikia, ostera, bere eskubideak erabiltean gurasoen edo gurasoen ordekoen menpean dago, menpetasun orretatik legeak atera dauzan eskubideai buruz izan ezik.

90g. araua. § 1.—Seme nai alabea, naita nausi zala ugutzatua izan, yayotzez nongoa dan yakiteko, yayo zanean bere aitak legezko bizilekua non eukan begiratu bear da; eta bizilekurik ezpaeban, bizi-leku-antzekoa; edo sasikumea edo ama alargunagandik yayoa, amaren bizilekua ta bizi-leku-antzekoa.

§ 2.—Edonongoaren seme-alabea balitz, yayotzez yayo zan tokikoa da; urikoa balitz, aurkitu eben tokikoa.

91g. araua. Bizitokiari buruz gizakumeak daukazan izenak: 1.º bizitokia dauan bertan, *bertakoa*; 2.º bizitoki-antzekoa dauan tokian, *etorri-barria*; 3.º oraindiño berea dauan bizitoki nai bizitoki-antzekotik alde bizi danak: *arrotza*; 4.º ez bizitokirik ez bizitoki-antzekorik inon eztaukanak: *edonongoa*.

92g. araua. § 1.—Bizitokia norberetzen da parrokiaren edo parroki-antzekoan edo bein-beinean goterkian biziteagaz, ezerk alde egin-bearrik ekarri ezik bertan beti biziteko asmuagaz, edo amar urtean bertan biziagaz.

§ 2.—Bizitoki antzekoa be urliak berea egin daroa bertan biziten yarri ezker, urte beteren geyena ezerk galazo ezik, bertan emoteko asmoagaz, edo ostantxean urterik geyena bertan benetan bizita.

§ 2.—Parroki nai parroki antzeko bizitokiari *parroki bizitokia* deritxo; goterki berean bai-, baña parrokitik kanporakoari *goterki-bizitokia* deritxo.

93g. araua. § 1.—Senarragandik legez aldendu bako emazteak nai ta ez senarraren bizitokia dauko; zoroak bere zafiarena; txikiak, men egin bear dautsan nausiarena.

§ 2.—Ume-arotik urtendako txikiak bizitoki-antzekoa euren eskuratu dagine; baita senarragandik legez aldendu bako emazteak be; legez aldenduak, barriz, benetako bizitokia be bai.

94g. araua. § 1.—Bai bizitokiaren bai bizitoki-antzekoaren bidez edonork bere parroki-zaña nai goterki-zaña lortu daroa.

§ 2.—Edonongoaren parroki-goterki-zaña legoken lekukoa bertakoa bera da.

§ 3.—Goterki-bizitokia nai bizitoki-antzekoa bai, baña parroki-bizitokirik ez bizitoki-antzekorik eztabenen parroki-zaña uneko dagozan tokikoa bera da.

95g. araua. Bizitokia nai bizitoki-antzekoa galtzen da bertara barriro ez etorteko asmuagaz andik alde egiten danean, 93g. arauan agindutakoaren kalte barik.

96g. araua. § 1.—Senidetasuna lerroka ta mallaka neurtuten da.

§ 2.—Lerro artezean senaltzak beste, edo, erroa kenduta, lagunak beste malla dira.

§ 3.—Zearretarako lerroetan lerro biak luze-bardiñak balira, lerro baten beste malla dira; lerro biak bardiñak eztireanean, lerro luzeanean dagozan senaltze beste malla.

97g. araua. § 1.—Aidetasuna legezko ezkontzatik sortzen da, senar-emazteak aragiz bat egin-ezkeron nai egin ez.

§ 2.—Senarraren eta emaztearen senideen artean, eta emaztearen eta senarraren senideen artean bakarrik dauko indarra.

§ 3.—Euron mallak onantxe neurtuten dira: senarraren senideak lerro ta malla bardinean dira emaztearen aide; eta emaztearen senideak senarraren aide.

98g. araua. § 1.—Katoliko yaureskeren artean norbait zein yaureskerako dan yakiteko zein yaureskerako yardunbidea erabilli zan norbait ori ugutzau ebenean begiratu bear da; norbait ori arakoxe yaureskerakoa da,

urrengo okerren bat izan ezpalitz: 1.º berea etzan yaureskerako eleiz-gizonak maltzurkeriz ugutzau baleu; 2.º edo ezin bestean norbere yaureskerako eleiz-gizonik zuzendu ezinean; 3.º Aita Santuak norbaiteri iñoren yaureskeran ugutzau emotea ontzat emon dauanean; baña ugutzatua arako yaureskerako egin barik.

§ 2.—Eleizgizonak ezpediz ausartu lateldarrak sorkaldeko yauresketara eroaten, ezta sorkaldetarrak latel-yaureskerara ekarten.

§ 3.—Yaureskera batetik bestera igarotea Aita Santuak bakarrik itxi dagine; bardin legez igaroari barriro lengora etorten.

§ 4.—Beste yaureskera bateko emazteari zillegi yako senarraren yaureskerara igarotea bai ezkontzaldian, baita ezkondata gero be; ezkontzea amaituta barriz eskubide osoa dauko ezkontza-aurretiko bere yaureskerara barriro itzuliteko, bestelako legezko eragozpideen batek galazo ezik.

§ 5.—Iñoren yaureskeran yaunartzeko ekanduak, nai ta luzarokoa izan, ezta yaureskuntzea aldatuteko indarrik.

99g. araua. Berezko azur eta mamizko lagunez ganera badira Elexan beste legezko norbaitzuk be atarako gauza dan agintariak sortuak. Eta bitarikoak dira: giza-batzazkoak eta ostantzekoak: esaterako: elexea, ikas-tertxea, bizibideak eta abar.

100g. araua. § Ludi osorako sortua dan Elexeak eta Erroma'ko Aita Santuaren Aulkiak Jaungoiko berberak emonda daukie legezko nortasun ori; beste beragoko legezko nortzuk Elexan euron nortasuna artzen dabe, edo Elexearen legetan alantxe erabagita dagoalako, edo atarako gauza dan Elexako Nagusiak alantxe argi esaten dauan aginduan emonda. Agindu orrek, bidezkoa izateko, xede au bear dau: edo Jaungoikoa gorestea edo geure anai-arrebai maiteerakutsiak emotea.

§ 2.—Legezko giza-batzazko norbait sortuteko gitxiendik iru gizakume bear dira.

§ 3.—Legezko norbaitzuok, nai giza-batzazkoak nai ostantzekoak direala, gizakume txikien antzekoak dozuz legezko yardukeran (1).

101g. araua. § 1.—Legezko giza-batzak batzarrean ebatziaz buruz:

1.º Ostantzekorik guztientzako edo norbaitentzako legean beren-beregi aginduta ezpalego, legezko indarra eukiko dau, txantel alperrak baztertuta, txantela bota dabenen geyenak ontzat emonak; edo alperriko txantelaldi biren ostean txantelik geyen bere alde izan dauzanak; txantelok erdi bana bananduta agertuko balira, batzar-buruak bere erabagiagaz ebatzi begi; baña auteskundea balitz eta batzar-buruak nai ezpaleu bere autarkiagaz bardintasuna kendu, legez aututzat emon bear da bien artean zarrena nai eleiz-gizontzean, nai yauntzaletzean nai yayotzaz.

2.º Baña zerbait guztiak bakotxaren zeretan yoten dauzana balitz, guztiak batera ederretsi bear dabe.

(1) Zerbait egiteko iñor bear.

§ 2.—Gizabatzako ezterean legezko norbaitzuk balira, zaindu bediz bako-
txaren legeak eta baita onetariko norbaitzuk guztientzat emondako legeak be.

102g. araua. § 1.—Legezko norbait, bere izatez, betikoa da; ilten da,
orraio, atarako gauza dan nagusiaren aginduak alan eragabi
balegi; baita eun urte ezkeru bizi izan danik erakutsi ezpaleu be.

§ 2.—Legezko giza-batzako norbaiten bazkide bakarra geldu baledi, bazki-
de guztien eskubideak bereak ditu.

103g. araua. § 1.—Norbaitek gogor ezin egin dautsan iñoren indarrez
egina, norbait ori nai berezkoa nai legezkoa dala, ez egi-
nikotzat emon bear dira.

§ 2.—Bildur larri-okerrez nai iruzurrez egiten direanak, badaukie berez
legezko indarra, legeak berak okerretara erabagi ezpalegi; baña artatik kaltea
artuak eskatuta, edo zuzenari eginiko okerra arteztutearren, epaikariak gauzeztu
legikez 1684-168g. arauetan erabagita dagoanaren arauz.

104g. araua. Norbere eritxi okerra egiten dauanaren izatasunari buruz-
koa danean, edo nai ta nai ez bete bear zan baldintzaren
baten utsa legokenean, egin dana ezta benetan egin; ostantxean egiten dana
benetan eginda legoke, legeak okerretara erabagita ezpaleuko; alan be itunbe-
netako eritxi okerrak itunbena bera, legeak erabagita daukan lez, gauzeztuteko es-
karia bidezko egin daroa.

105g. araua. Nagusiak zerbait egiteko iñorbatzuen bayetza edo eritxia
bear dauala legeak agindu balegi:

1.º Bayetza bear dauanean, euron ezetzaren aurka egingo leukena utsa litza-
ke; eritxia eskatutea bakarrik agindu balegi, esaterako urrengo itzen bidez:
onularien eritxia entzunda, edo Batzarra edo parroki-zaina entzunda ta abar,
Nagusiak egiten dauana legezko indarduna litzake, norbaitzuok entzun baditu;
baña euren eritxiari, nai ta guztiak eritxi batekoak izan, eztauko makurtu egin-
bearrik; orraio entzun-bearrekook bat edo bi baño geyago direanean, eta
guztiak eritxi batekoak, yaramon andia egin bear dautse, ta bakarrik berak ikus-
ten dauan zerbaitegaitik eztautso arein eritxiari yarraituko.

2.º Bat edo biren eritxia barik, askorena ta batera emon bear dabena
litzakenean, Nagusiak, legeak aginduten dauan lez, batzarrera deitu bear ditu
162g. arauaren § 4 agindua zutunik dala, eta euron eritxia eskatu ta entzun begi;
ganera Nagusiak ebazkizun dan arazoaren garrantziak alan eskatzen dauala uste
izan ezkeru, beartu legikez ebazkizuna ixilik yagoteko zin egitera.

3.º Bayetza nai eritxia eskatu yakien guztiak euren eritxia bear dan besteko
lorsa-zindo ta zintzotasunagaz agertu begie.

106g. araua. Nai berezko nai legezko nortzuen artean nor aurrerago li-
tzakenari buruzko ebazkizunetan bete bediz urrengo arauok,
gero beste nonbaitzuetan emongo direan arauen kalte barik:

1.º Iñoren ordezkioak ordeztuaren mallan dauko bere tokia; baña Eleiz-Batzar
nagusietan eta beste antzeko batzarretan iñoren ordezkio datorzanak yezarri bear
dabe norbere izenean datoñan guztien ostean;

2.º Norbaiteri, nai berezkoa nai legezkoa dala norbait ori, aginduteko es-
kubidea daukan orreri bere agindupekoak baño aurrerago yartea dagokio;

3.º Eleiz-gizonen artean, iñork iñoren gain aginpiderik eztaukienean: agin-
pidezko malletan goragoko mallakoa beragokoa baño aurrerago, orretan malla
bardiñekoak direanean; baña yaurespide-malletan gorago legokenak aurea ar-
tzen dautso malleta orreitan berago legokenari; baña bitariko malleta orreitan
malla bardiñekoak balira, aurea artzen dautso aginpide-malletako mallara beran-
duago eldu danari; erabatera elduak balira, yaurespide malletara lenago eldua
aurrerago, geroago eldua Aita Santuak berak yaurespide-malletan yaria ezpalitz;
yaurespide-mallan erabatera yariak balira, aurrerago da yayotzez zarragoa.

4.º Nor-aurrerago-auzi onetan eztauko zer ikusirik nor zein yaureskerako
danari buruzko auziak.

5.º Nor litzaken aurrerago yarteko eskubidea leukakena ari ta malla bar-
diñeko legezko nortzuen artean ebatzi bear da bein-beinean, auzia sortu arte zein
yarten zan aurrerago begiratura, eta itxi bakean okerra argi-argi erakutsi ezik;
olangorik agiri ezpalitz, auzia sortu zan tokian lenago eregia; nor aurrerago-
-atzerago litzaken giza-batzako bazkideen artean gizabatzak berak leukakezan le-
geen bidez erabagi bear da; eta lege berezirik ezean, auzia sortu arte izan dauan
ekandutik; eta orren ezean, Elexeak alango norbaitzuentzat emondako legeetatik.

6.º Goterki-zafiari dagokio bere bafutian nork aurrerago nork atzerago yari
bear dauan erabagitea, Elexa osoko legeak zer aginduten daben, goterki bertako
legezko ekanduak zer erakusten daben, eta bakotxari ezarri yakon egitekoa be
gogoan dabezala; baita nor aurrerago edo atzerago danari buruzko eztabaidetan,
luzatuteko astirik eztagoanean ebatzia emoteko be, baita auzilariok menpeko
etxakozanean be menpeko yakozanakaz batera yon bear dabenean; eta ebatzi
ori bein-beinean bete egin bear da; goragoko epaikariagana auzia eroateko es-
kubidea kendu ez-arren, bein-beinean guztiak bete-beartzen ditu.

7.º Aita Santuaren etxeko direalakoen artean nor litzaken aurrerago nor
atzerago bertako lege bereziak erabagiten dabe.

107g. araua. Jaungoikoak berak berezi dauz eleiz-gizonak erri-gizonakan-
dik, naita eleiz-gizon guztiak izan ez Jaungoikoaren legeak
sortuak; bitzuok izan leitekez *yaun-zaleak*.

LELENGO ZATIA

Eleiz-gizonak

LELENGO TXATALA

Eleiz-gizon guztiak buruzkoa

108g. araua. § 1.—Lelengo ule-moztearen bidez beintzat Jaunaren morroi
biziteko lege berezia leporatuten dauan gizasemeak eleiz-
-gizon-izena artzen dau.

§ 2.—Eztagoz guztiak malla baten; malletan bananduta dagoz ta batzuk beste batzuen nagusi dira.

§ 3.—Jaunak berak yarrita: yaureskerako malletan iru malla oneik dagoz: obispoak, yaupariak, otseñak (diakonoak); aginpideari buruzko malletan, malla biok: guztien ganeko Obispoa (Aita Santua), beste Obispoak; Elexeak sortuta, badira beste malla batzuk be.

109g. araua. Elexearen malleta orreitan ezta iñor yarten ez erriak ez erriko agintarien batek gura izan dabelako edo ezarri daualako, yaureskuntzeari buruzko malletan arako malla bakotzeko Elexeak dauan yaureskuntzearen bidez baño; guztien ganeko Obispautzean, Jaunak berak alantxe erabagita, legezko autespenak izentau dauanak autespen ori ontzat artuagaz beste barik; aginpide-malletako beste malletan eleiz-legeak aginduten dauan lez bertara aginduta.

110g. araua. Naita *Praelatus*-izena iñoiz Aita Santuak emon eleiz-gizon norbatzuei ezertariko agintza barik, kutun-ezaugarritzat bakarrik, benetan *Praelatus* izen ori emoten yake agiriko bizikeran Obispoen neurriko aginduteko eskubidea daukien eleiz-gizonai, erritarrak direala, yaun-zaleak direala.

I IDAZPURUA

Zein goterkiko eleiz-gizona?

111g. araua. § 1.—Eleiz-gizon guztiak goterki edo yaun-zaletza bateri erantsiak izan bear dabe; edonongo eleiz-gizonik ezin legoke.

§ 2.—Lelengo ule-moztearen bidez eleiz-gizona bere morroi izateko artu dauan goterkian bertako eginda gelditzen da.

112g. araua. 114g. arauan eta 641, § 2g. arauan esaten dana alde, beste goterkiko iñor benetan goterkiko eleiz-gizon egiteko bere Gotzañaren idatzizko baimena bear dau eta bertan esan zelan bere goterkitik betiko ta baldintza barik ateraten dauan; eta bardin beste alderdiko Gotzañak be idatziz esan bear dau zelan betiko ta baldintza barik artzen dauan.

113g. araua. Orreik idatzizko erabagiok ezin dagikez emon ez Danerako Ordezkoak, atarako beren-beregiko eskubidea Gotzañak emon ezpalegio, ezta Batzar-Ordezkoak be Gotzain-aulkia utsik zala urtea bete ezpalitz eta Batzarraren bayezko barik.

114g. araua. Orixe goterki batetik urten eta bestean sartze ori egiten da, eleiz-gizonak beste goterki baten ango Gotzañagandik lortu balegi bertan bizi-bearra ekarriko dautsan bizibidea, bere lengo Gotzañaren ida-

tzizko baimenagaz, edo goterkitik betiko alde egiteko idatzizko bayezkoagaz.

115g. araua. Jaunzaletzakundeagaz be, betikoa danean, egiten da norbait goterkitik arrotz.

116g. araua. Bidezko ziyo barik ezin leiteke alde egin norbere goterkitik; eta ezta benetan egiten beste goterki baten bertakotu arte; orregaitik, goterki-barri-zañak goterki-zar-zañari, aldaketa ori burutu ezker, len baño len yakin-erazo begio.

117g. araua. Eleiz-gizon arrotza bere goterkiko egitera ezpedi eldu goterkizaña, urrengo bidea ibili barik:

1.º Goterkiaren bearrak edo irabaziak alantxe eskatzen daualako, eta ganera kontuan eukita eleiz-gizonduten danean eleiz-gizonaren bizibideari buruz egiteko legeak aginduten dauana.

2.º Legezko idazki-bidetik yakinda lengo goterkitik legez arrotz eginda da-goala; ganera arrotz dauan Goterki-idazkolatik euki bear ditu urrengo barriak: yatorri, bizitza ta bizikera eta ikasketai-buruzko barriak; batez be bere goterkiko egin gura dauan ori beste mintzoera ta laterriko semea baledi; bear balitz, billatu begiz barriok arazoa ixilik yagoteko baldintzapean; arrotzuteko baimena emoten dautsan goterki-zañak, pekatu larririk egin nai ezpadau, begiratu begi emoten dauzan barriak egizkoak izan daitezala.

3.º Eleiz-gizonak, zin eginda, agertu begi goterki-zain berberorren aurrean, eleiz-legeak aginduten dauan lez bere bizitzaldi osoan goterki barriko izateko ta bertan lan egiteko benetako asmua daukala.

II IDAZPURUA

Eleiz-gizonen eskubide ta kutun-legeak (privilegia)

118g. araua. Eleiz-gizonak bakarrik dira gauza yaurespide nai zainbide-ala nai eleiz-bizibideak eurenak egiteko.

119g. araua. Kistar guztiak lotsea zor dautse eleiz-gizonai bakotzak leu-kaken malla ta aginpidearen neurrian; eta euron gorputzari min emoteko zerbait egingo baleutse, gauza santuen aurkako pekatua legikie eta gauza santuari irañia.

120g. araua. (Auzitegiari buruzko kutun-legea). § 1.—Nonbaiten lege yatorraren bidez ostantxekorik erabagita ezpalego, eleiz-gizonak, euren auzi guztietan, nai eskubideai buruzkoetan nai lege-auziai buruzkoetan, eleiz-epaikariaren aurrera deitu bear dira.

§ 2.—Kardenal Jaunak, Aita Santuaren Ordezkoak, Obispoak, naita goterki bakoak izan, Goterki-zañak, Obispo izan ez-arren be, Aita Santuaren arazoak bear dan lez aztertu ta erabagiteko Erroma'n yarrita dagozan Bazkuna Santueta-ko bazkide Nagusiak euren egitekoai dagokiezan auzietan ezin leitekez erriko

auzitegira deitu Aita Santuaren baimen barik; kutun-lege au daukien ganekoak, auzia epaitu bearko leuken tokiko Goterkizañaren baimen barik. Goterkizañak ezpegi geyen baten baimen ori ukatu, batez be auzia imiñi dauana erri-gizakumea danean; eta oraindiño gitxiago, eztabaidea bakean konpontzeko alegiñak egin eta alperrikoak izan badira.

§ 3.—Orraitio, iñolako baimen barik auzitegira deituak balira, besterik ezin eta txarragorik jazo eztaikien, yoan leitekez auzitegira, baimena eskatu bear yakon eleiz-Nagusia yakitun eginda.

121g. araua. Eleiz-gizon guztiak gudaritzatik eta erriak zaintzeko erritarren zeregiñak litzakezenetatik eta eleiz-gizonai eztagokiozanetatik azke dagoz.

122g. araua. Zorrai erantzun-bearrean, eleiz-epaikariaren bidezko eritziz ganoraz biziteko bearko dauzan ondasunak itxi bear yakoz eleiz-gizonari; ezpegi aitzu, baña, zorrari leen baño len erantzunbearra daukana.

123g. araua. Esandako kutun-legeai uko egiteko eskubiderik eztauko eleiz-gizonak; baña erritartua balitz edo eleiz-gizonen jantzia erabilteko eskubidea betiko kenduta baleu 213g. arauaren § 1 eta 2304g. arauaren neurrian, galdu egiten ditu kutun-legeok; bereak barriri egingo ditu, zigorra parkatzen bayako edo barriri eleiz-gizonen artean sartu balegie.

III IDAZPURUA

Eleiz-gizonen egin-bearrak

124g. araua. Eleiz-gizonak erritarrak baño bizikera santuagoa, bai ixilekoa bai agirikoa, bizi bear dabe, ta erritarrak benetako santutasunez eta on egitez erakutsi ona emon.

125g. araua. Goterki-zañen ardurea izan bedi:
1.º Eleiz-gizon guztiak autortza-ikurtonaren bidez barruko loyak sarri garbitu dagiezan;

2.º Eleiz-gizonak egunero otoitz ixilari ekin dagioen; eleian euron zain daukien Gure Jaunari ikustalditxo bat egin, Jaunaren Ama garbiari agurtzea esanda seme yatorrari dagokion lez egunero agur egin, eta bakotxak bere barrua arakatu dagien.

126g. araua. Jaun-zale eztirean yaupari guztiak, gitxiendik iru urte-urten bakotxean, Goterkizañak erabagiko dautsezan egunetan go-go-iñarkunak egiten ekin begie atarako egoki litzaken eta Goterki-zain berberak izentauriko etxean, eta lege onetatik ezpedi iñor azke emon iñoiz, atarako ziyo berezien bat esandako Goterkizañak onetsia izan ezik.

127g. araua. Eleiz-gizon guztiak, baña batez be yaupariak, euren Goterki-zañari lotsea ta esanekotasuna erakutsi-bear berezia daukie.

128g. araua. Legezko eragozpideen batek galazo ezik, eleiz-gizonak bakotxaren Goterkizañaren ustez Elexearen bear-izanak eskatzen dauan artean eta eskatzen dauan guztietan, Goterki-zain orrek ezarten dautsen zeregiña artu ta zintzo bete-bearra dabe.

129g. araua. Legezko ikastaroa amaitu dauala-ta, ezpegiz eleiz-gizonak yauparitu ezkeru ikasketak baztertu, teologiari buruzkoak alan be. Jaunari buruzko gayetan asabak irakatsia ta Elexeak geyen baten ontzat artutako yakituri yatorrari eutsi begio, itzen barrikeri ta sasi-yakintza arroari arrera txeratsurik egin barik.

130g. araua. § 1.—Legezko ikastaroa amaitu ezkeru, yaupari guztiak, nai ta parroki nai kanonigo-bizibidea lortu, Goterki-zañak bidezko zerbaitegaitik azkatu ezpalegiz, urrengo iru urteetan urtero erakutsi bear dabe euren yakituria Goterki-zain berberak aurretik izentauko dautsezan teologiarloetan.

§ 2.—Eleiz-zeregiñak eta bizibideak emotorduan, beste zeren artean, kon-tuan euki bear dabez azterketa orreitan ikasienak agertu direanak.

131g. araua. § 7.—Goterki-zaña bizi dan urian eta parroki-zain-buru bakotxaren barrutian eta urtean bein baño sarriago, Goterkizañak izentauriko egunetan batzarrak euki bear dabez zelan bizi ta zelan yauretsi ikaskizunai buruzkoak; gai orren ganetik ikaskizun izan leitekez Goterkizañak eleiz-gizonen yakituriari ta santutasunari lagun egingo dautsela uste izango dituan beste zer batzuk be.

§ 2.—Olango batzarrak egitea gatx balitz, Goterkizañak ezarriko leukezan itaunai idatzizko erantzunak bialdu bear dabez.

§ 3.—Goterki-zañak garaiz egin-bear orretatik azkatu ezpalegiz, batzar orreitara yoan eta, batzarrik ezean, ebazkizunai idatzizko erantzuna bialdu bear dabe jaun-zale eztirean yaupari guztiak; eta baita jaun-zaleak be, naita Goterkizañaren menpetik azkatuak izan, arima-zañak balira; eta ebazkizunari erantzuteko batzarrik euren etxean egingo ezpalebe, autortzak entzuteko baimena Goterki-zañagandik izan daben jaun-zale guztiak.

132g. araua. § 1.—Goiko malletan dagozan eleiz-gizonak ezin leitekez ezkondu eta garbitasunari buruzko legea bete bear dabe. Ostantxean zer santuen aurkazo pekatua be egingo leukie, 214g. arauaren § 1'an esaten danaren kalte barik.

§ 2.—Beko malletako eleiz-gizonak ezkondu egin daitekez benetan, baña eurok atara indarrez edo bildur larriz beartuak izan direalak ezkontzea alperria izan ezpalegiz, eleiz-gizonen malletatik beste barik yausiko litzakez.

§ 3.—Norbaitek, ezkondata dagoala, Aita Santuaren baimen barik, goiko malletako eleiz-gizontzea artu balegi, uste onez egin baleu be, emon dautsen eskubidea erabiltea galazota dauko.

133g. araua. § 1.—Bebiz kontuz eleiz-gizonak susmo txarrari bide emon legikeon emakumerik ez izateko etxe-lagun; baita alangoa-gana ezertara be sarri yoaten nai norbere etxean alangoa artzen.

§ 2.—Berez zillegi yakie alkarren senidetasunak susmo txarrari nondik etorri izten eztautsenean emakume etxelaguna eukitea; esaterako: ama, arrebea, izekoa edo onetariko beste norbait, edo baita urtez eldua ta ekanduz garbia dala edonork dakiana be.

§ 3.—Geyen baten susmo txarrrik emoten eztabenatariko emakumeen bat be etxe-lagun izateko edo beragaz artu-emon sarria eukiteak susmo txarrari bidezko atea zabalduen ete dautsan ebaztea Goterkizañari dagokio; baita berari dagokio, arriskua lekuskenean, eleiz-gizonari alangoagaz biziten ni artu-emon eukiten galazotea be.

§ 4.—Galazo arren men egin gure eztaben eleizgizonak sasi-ezkondutzat emon beitez.

134g. araua. Eleiz-gizonak alkarregaz batera bizitea txalogarri ta ontzat emotekoa; orretariko ekandua dagoan lekuetan al dan bes-tean yagon.

135g. araua. Goiko malletako eleizgizonak, 213 ta 214. § 2g. arauetan aitaturten direanak ezpalira, egunero egin bear dabez Ele-xeak aginduten dautsezan eguneko orduak santutzeko otoitzak, baktxaren yau-reskerako idaztietan dagozan lez.

136g. araua. § 1.—Eleiz-gizon guztiak eurotarikoen yantzi berezia, toki baktxeko ekanduak eta Goterkizañiak aginduren dabena berabile; eta dagozan tokiko ekanduak besterik agindu ezik, eleiz-gizonen ule moztua be bai eta ulearen kontu larrrik ez.

§ 2.—Elestunik ezperabile, legez nai kutun-legez bera erabilteko eskubidea emon ezipayake.

§ 3.—Euren oldez eta bidezko ziyo barik eleiz-gizonen yantzia ta buruko moztua itxi dabezan beko malletako eleiz-gizonak. Gotzañiak oartuta, illabete barruan bide onera etorri ezpalira, beste barik eleiz-gizontzea galdu egiten dabe.

137g. araua. Iñoren zorrari erantzuteko bearrrik zin eginda ezpegie artu, ezta euren-eurenak litzakezan ondasunekaz be, Goterkizaña yakitun egin ta aren bayezko barik.

138g. araua. Eleiz-gizonak ezpegie ezer euron izakereagaz ondo emoten eztauanik; berez garbitzat emoten eztauan bizibiderik ez artu ez erabilli; dirurik ez yokatu irabazi nai galdu egin leitekezan yokoetan;

izkillurik ezpegie aldean erabilli bildur izateko bidezko ziyoa dagoanean baño; eizan ezpegie sarri egin; ots andikoa egundo bez; ardanetxeetan eta euron antzeko beste etxeetan sartu be ez, ezin bestean edo Goterkizañiak ontzat emondako beste ziyoen bategaitik izan ezik.

139g. araua. § 1.—Lotsagarri izan ez arren, eleiz-gizonaren bizikereagaz ondo alkartzen ez tireanetatik be alde egin bear dabe.

§ 2.—Aita Santuaren baimen barik ezpegie osalaritzeari eta ebagiketeari ekin; zinaidaritzeari be ez, Elexearen auzitegietan eta landoletan baño; erri-yaur-biderik ta erri-zaintzea nai erriaren onerako yarrita dagozan beste zeregiñik ezpegie artu eleizgizonak.

§ 3.—Goterkizañiaren baimen barik ezpegie artu iñoz erritarren ondasunak zaintzerik, ezta bere egin-bearra zelan bete dauan gero zuritu-bearra lekarkion zerbait egiterik be; iñoren ordezkolari nai aldezlari ezpediz izan Elexearen auzitegietan baño, edo erriko auzitegietan, edo norberena edo Elexearen auzia litzakenean izan ezik; lege-ausiari buruzko auzietan lege-auslearen aurka aren gorputza zigor astunagaz yoteko arriskua legokenean, eleiz-gizona ezpedi nastu, ezta lekuko lez be, atarako beartuta baño.

§ 4.—Latterria zaintzetik, al dala, begoz alde eleiz-gizonak: a) legegintzea dagokien batzarretako bazkide izateari buruz, edozein dala, ez euren alegiñez eskuratu, ezta iñork emonda artu be ez. Aita Santuaren baimen barik beronek galazota daukazan errietan; eta beste tokietan be ezpegie olango bazkide izateko alegiñik egin norbere Goterkizañiaren eta auteskundera egingo dan tokiko Goterkizañiaren baimen barik.

140g. araua. Eleiz-gizonentzat lotsagarri litzakezan ikuskizun, yantza ta ostantxeko erritarren yaletara, edo eleiz-gizonak bertan ikusiak iñori ikara txarra egingo leuskion iñora ezpediz yon, batez be erriarentzako antzokietara.

141g. araua. § 1.—Gudari be ezpediz euren oldez izan, legezko gudari-tzatik lenago azke gelditzearen Goterkizañiaren bayezkoagaz ezipalegie; eta ezpediz nastu norbere erri-barruko gudaketan ezta erriko bake bizitzearen aurkako matxinkerietan be.

§ 2.—Berengo malletako eleiz-gizonak or goiko aginduaren aurka gudari bere burua egin balegi, beste barik bere eleiz-gizon izatea galdu egiten dau.

142g. araua. Bai euren bai iñoren irabazirako garazketan eta saldu-erosketan bai eurak bai iñoren bidez ekitea galazota daukie eleiz-gizonak.

143g. araua. Naita nonbaiteri, lotuten dauzan bizibiderik edo zeregiñik izan ez, eleiz-gizonak ez dagikie euren goterkitik alde egin luzarorako, euren Goterkizañiaren bayezko barik, gitxiendik badaukielakoan.

144g. araua. Bere Goterkizañiaren baimenagaz iñoren goterkira dana, baña oindiño bere goterkiari lotuta legoken eleiz-gizona beartu daiteke bere goterkira atzera etorten, atarako bidezko ziyorik bada ta alik eta

kalterik gitxien egiten yakola. Baita berea eztan goterkizañak be ukatu dagikeo edozein bidezko ziyoz goterki atan bizitea, bertan bizibiderik emon ezpaleutso.

IV IDAZPURUA

Eleiz-zeregiñak

145g. araua. § 1.—Eleiz-zeregiña, esangura zabalean, santutzeari lagun egiteko sortu ta erabilten dan edozein eginkizun da; esangura estuan auxe dozu: Jaunaren nai Elexearen lege-bidez betiko sortua dan zeregiña, eleiz-arauak erabagiten daben lez emon bear dana ta edo yaurespideari edo zaintzeari buruzko Elexearen almen-zatia gitxienez daukana.

§ 2.—Esakerearen esan-guratik besterik agertu ezik eleiz-zeregiña estu ulertu bear da.

146g. araua. Eleiz-gizonen bizibideari buruzko zeregiñak direanean, urrengo arauon ganera kontuan euki bear da 1409g. eta urrengo arauetan erabagiten dana be.

I Atala

Eleiz-zeregiñak zelan emon

147g. araua. § 1.—Eleiz-zeregiña ezin leiteke norberena egin, eleiz-arauak erabagiten daben lez emona ezpalitz.

§ 2.—Arauzko emotearen izenagaz eleiz-nagusi egokiak eleiz-legeak erabagiten daben lez eleiz-zeregiña emotea ulertzen da.

148g. araua. Eleiz-zeregin ori emotea askotara egin daiteke:

1.º eskubidea daukan Nagusiak beste barik emonda;

2.º Patroyak edo beste norbaitek izentaua eleiz-Nagusiak ontzat artu ta zeregiña emonda;

3.º atarako eskubidedunak auteskundez izentaua balitz, eleiz-Nagusiak autespina ontzat emonda;

4.º Iñork legez eskatua danean. Nagusiak eskariari bayetz erantzunda;

5.º Atzenengo, legezko auteskundez, auteskundeak Nagusiak sendetsi-bearrik eztaukanean.

§ 2.—Or goyan 2.º zenbakian esaten dan eraz zeregiña eleiz-Nagusiak emoten dauanean, bete bediz 1448-1471g. arauak aginduten dabezanak.

149g. araua. § 1.—Eleiz-zeregiñetarako autetsiak, eskatuak, aurkeztuak nai izentauak Aita Santuaren azpiko dan Nagusik ezpegiz sendetsi arotsi ezarri. bakotxaren Goterkizañak atarako gai direala aurreztik egiztau barik baita azterketa bidez be. nai legeak nai ezarri gura yakon zeregiñak alan aginduten dabenean, edo Goterkizañari berari egoki baleritxo.

150g. araua. § 1.—183, § 1g. arauaren arauz oraindiño utsik elegoken zeregiña iñori ezartea alperrikoa litzake, eta gauzazko ezta egiten gero ustu-arren.

§ 2.—Edonork emona izanda be, zeregiña gero emoteko itzak be eztauko legezko ondorenik.

151g. araua. Legezko yabe barik legoken zeregiña, baña yabe eztanen norbaitek baleuko, ezarri leitekeo bere yabe izango danari, legeak aginduten dauan lez orain daukanak atarako eskubiderik eztaukala erakutsi ezker. Erakutsi ori yabe barriari emoten yakon agiriak ezarrita bekar.

I Atalkia

Nagusiak beste barik emonda

152g. araua. Ostantxekorik legez erakutsi ezik, Goterkizañak eskubidea dauko bere barrutian zeregiñak ezarteko. Aren Danerako Ordezkoak, baña, eztauko eskubide ori, Goterkizañak beren-beregi emon ezpautso.

153g. araua. § 1.—Utsik legoken zeregiña emongo yakonak eleiz-gizon izan bear dau eta bai edonorakoak bai bertarakoak eta baita zeregiña eregi ebanak ezarri eutsazan euki-bearrak daukazana.

§ 2.—Zer guztiak begiratuta, egin-bearrak betetako gaiena danari emon bekio zeregiña.

§ 3.—Zeregiña emon yakonak ezpalitu agindutako euki-bear guztiak, edozein legek edo zeregiña sortukeran ezarri eutsezan lege bereziak alan esango balebe, emona alperrikoa litzake.

154g. araua. Bai agiriko bai ixileko auzitegian, arima-zaintzea daukan zeregiñik ezin leiteko emon oraindiño yaupari elitzakenari. Bestela egiña alperrikoa litzake.

155g. araua. Lege bereziak noiz emongo agindu ezik, zeregiña emotea ezpedi atzeratu utsik gelditu zan ezkeretik sei illabete baño geyago. Sei illabeteok zeregiña utsik gelditu zala Goterkizañak yakin eban ezkerokoak eta ganera 458 arauko eragozpen bakoak izan bear dabe.

156g. araua. § 1.—Ez ezarri iñori alkarregaz ezin bizi direan bi zeregiñik.
§ 2.—Alkarregaz bizi-eziñak dozuz bien egin-bearrak batera bete-eziñak direanean.

§ 3.—188, 3.ºg. arauan esaten danaren kalte barik, Aita Santuak emongo leuken zeregiña, eskatu dautsanak lendik eukanagaz alkarregaz eztaukala balitz, eleuke onek benetan berea egingo eskarian esan ezpaleutso zeregin barri orregaz alkarregaz ezin dan zeregiña daukala, edo Aita Santuaren erantzunean aurkako edozein lege kentzen dauala esango ezpalitz.

157g. araua. Yabeak itxi daualako edo legezko epai-bidez utsik legoken zeregiña, yabearen iztea ontzat artu edo epaya emon dauan Goterkizañiak ezin legikeo emon ez bere ez itxi dabenaren etxeokoi, nai senideai edo aideai, bigarren mallarañoakoak balira.

158g. araua Iñoren alperkeri nai ezin-egiñaren orde zeregiña emoten dauanak, eztau ortik ezertariko eskubiderik irabazten zeregiña emon dautsanari buruz; onen legezko izakerea zeregiña betiko legez artuarena langoxea izango da.

159g. araua. Edozein zeregin emotea idatziz egin bedi.

II Atalkia

Autespena

160g. araua. Aita Santuaren autespina 1904garreneko Lotazillaren 25garrenean Pi X "VACANTE SEDE APOSTOLICA" idazkian erabagiten dan eraz bakarrik egin bear da; ganeko eleiz-auteskunde guztiak egin bediz urrengo arauak eta zeregin bakotxerako balegokezanak be aginduten daben eraz.

161g. araua. Zeregiñen bateko jabea autestea batzarren baten eskubidea balitz, ostantxekorik legez erabagita ezpalego, auteskundea ezpedi iñoiz luzatu zeregiña utsik gelditu zan ezkeru iru illabete azkeak baño geyago; epe ori alperrik amaitu baledi, autespina sendesteko, edo batzarren urrengo zeregiña emoteko eskubidea daukan eleiz-Nagusiak berak gura dauanari emon begio.

162g. araua. (Batzarrerako deya). § 1.—Bere lege nai ekanduen kalte barik batzar-buruak legez aginduta legoken lez eta autesleentzat erazko litzakezan toki ta garayan batzeko deya egin bear dautse; ta deya bakotxari banan banan egin bear yakonean, naikoa da nai bizitokian nai bizitoki-antzekoan nai orduan legoken tokian egitea.

§ 2.—Deitutekoan bat deitu ezik, eta agaitik batzarreratuko ezpalitz, autespina ezta berez utsa; baño baztertu orrek dei-eza erakutsi ezkeru ta autespenbatzarrean agaitik etzala egon, eta agaitik egindako autespina alperrikotzat emotea eskatu balegi, legezko Nagusiak egindako autespina, sendetsita balego be, ausi egin bear dau, autespenaren barria euki eban ezkeru iru egunen barruan, legeak aginduten dauan lez, gora yo ebalu erakutsi ezkeru.

§ 3.—Autesleen irurena baño geyago deitu barik itxi balira, autespina berez da alperrikoa.

§ 4.—Batzarrerako deirik ez egiteak ezta kalterik, deituak izan ez arren autesle guztiak batzarrean izan balira.

§ 5.—Autuak bizitza osorako daukan zeregiña balitz, aren tokia utsik yari aurretik egingo litzaken batzar-deyak eztauko ezertariko legezko indarririk.

163g. araua. Batzar-deya legez egin ezkeru, autespidea deyak izentauriko egunean *bertan* legokezanai dagokie; kenduta dago ez bakarrik idazkiz autarkia emoteko eskubidea, baño baita norbere ordekoaren bitartez emotekoa be, lege bereziak bestela erabagi ezik.

164g. araua. Norbere izenez autarkia emoteko eskubide bat baño geyago euki arren, autesleak ezin legike autarki bakarria baño emon.

165g. araua. Erritarrak eleiz-auteskundearen azkatasun osoaren aurka edo zelan nastuko balira, auteskunde ori beste barik alperrikoa litzake.

166g. araua. Ezin leitekio bazkide eztanari autarkia emoten itxi, kutunlege berezien bat ezpaleu; ostantxean auteskundea beste barik utsa litzake.

167g. araua. § 1.—Eztira gai autesteko-autarkia emoteko:

1.º sen bakoak;

2.º Ezkongai eztireanak (mutiko-neskatoak);

3.º Zigor osagarriak nai legezko izengaiztoak yota dagozanak, zigor ori legezko epai-bidez ezarria balitz;

3.º Siñeskintzaren nai Elexearen batasunaren ausle litzaken giza-batzen bateri euren izena agirian emonak;

5.º Nai epaikariaren legezko epai-bidez nai lege orokarraren edo bereziaren aginduz autesteko eskubiderik eztaukienak.

§ 2.—Orretarikoen bateri autarkia emoten itxi ezkeru, aren autarkia utsa da benetan, baño autespina elitzake utsa, autarki ori kendu arren, autuak bear ebazanak ez ebazala izan argi agiriko ezpalitz; edo baita zelangoa zan yakinda, legezko epai-bidez Elextatik arrotuari autarkia emoten itxi eutselako.

168g. araua. Autesleen bat auteskundea egiten dan etxean balego, baño gexoagaitik autespina egiten dan tokira yoan ezin balitz, autespenaren aztertzeak yoan bekioz autarki eske, nai legez nai bidezko ekan-duz bestela erabagita ezpalego.

169g. araua. § 1.—Autarkia ezta gauza, ezpada:

1.º Azkea (au da iñork beartu barik norberak gure dauanari emona); beraz utsa litzake autarkia bildur larriz nai aizerikeriz, artez nai zearretara izentauriko norbait edo norbaitzuen arteko bat autesten beartuarena bada;

2.º Ixilekoa, au da, berak baño beste iñork eztakiana;

3.º Izen bakarria daukana;

4.º Baldintza bakoa;

5.º Nori emona argi diñoana.

§ 2.—Autespen-aurrean ezarritako baldintzak ez ezarrikotzat emon bear dira.

170g. araua. Inork ezin dagikeo autarkia bere buruari emon.

171g. araua. § 1.—Batzar bakotxaren legez aurretik izentauta ezpalegoz, autespena egiten asi baño lenago bazkideetatik aztertzele bi txantel ixilakaz izentau bear dabez; ta eurok maipuruagaz batera, au be bazkide balitz, batzarraren lege nai legezko ekandu bereziak aginduten daben lez euren egitekoa zintzo beteko dabela, ta batzarrean egingo danari buruz, auteskundera amaituta gero be, ixila yagongo dabela ziñ eginda agindu begie.

§ 2.—Aztertzele zeregiña da:

1.º Autesle bakotxak bere autarkia ixilik, zoli, banan-banan eta batac bestearen urrengo legez bakotxari dagokionez emon dagian ardurea artu;

2.º batzarraren lege bereziak nai legezko ekanduak aginduten daben lez maipuruaren aurrean begiratu begie: a) txantelak autesleak aña direan; b) txantelok zabaldu ta barruan zer diñoen; d) izentau bakotxak zeinbana autarki daukien.

§ 3.—Txantelak autesleak baño geyago balira, ezta ezer egin.

§ 4.—Autesketa bakotxaren ostean txantelak erre egin bear dira; baño autesketa bat baño geyago yezarraldian egin balediz, yezarraldiaren ostean.

§ 5.—Batzarreko zifaldari egiten dauanak auteskundera buruzko agiri guztiak zeatz idatzi ta ezarri begiz; ta gitxienez zifaldariak berak, maipuruak eta aztertzeleak euren izenak bertan ezarri idatzita ta batzarraren agiritegian zoli zaindu bediz.

172g. araua. § 1.—Autespena, bidezko zuzenbideak besterik oartu ezik, itunbidez izentauriko ordezkoen bidez be egin leiteke; baño ori egiteko bazkide autesle guztiak idatzitako bayezkoa emon bear dabe.

§ 2.—Auteskunde-batzarra eleiz-gizonezkoa balitz, ordezkook be yaupariak izan bear dabe; ostantxean autespena utsa litzake.

§ 3.—Autespena gauzakkoa izango bada, ordezkook agindua emon eutsenak ezarritako baldintzak bete bear dabez guztientzako legearen aurkakoak ezpazirean; baldintzarik ezarri ezpaleutse, guztientzako legeak aginduten dauana bete bear dabe; guztientzako legearen aurka ezarritako baldintzak ez ezarrikotzat begiratu bear dira.

§ 4.—Autesleak ordezkotasuna norbait bakarrari emon baleutse, ez dagike orrako orrek bere burua autu; ordeztuak asko balira, eurotariko inork ezin legike bere autarkiagaz osotu bera izentau daben zentakia, autespena egiteko.

173g. araua. Ordeztutasuna amaitu ta auteskundera egiteko eskubidea ordeztutasuna emon ebenakana dator atzera:

1.º Ordeztuok euren lana asi orduko ordetzalleak emondako eskubidea kendu balegitse;

2.º Ezarritako baldintzaren bat bete eztablelako;

3.º Auteskundera egindakoan, utsa izan balitz.

174g. araua. Aututzat emon bedi ta batzarreko maipuruak alantxe iragarri begi 101, § 11g. arauan esaten dan beste autarki izan dauzana.

175g. araua. Autespena bertatik iragarri bear yako autua izan danari, eta onek, barria artu ezkeroko zortzi egun barruan, erantzun bear dau bai ala ez artzen dauan bere alde egindako autespena, epe orretan erantzuna emotea eragotzi ezpaleutse.

176g. araua. § 1.—Ezetzta emon balegi, autuak autespenetik etorritako eskubidea galduta dauko, gero ezetzta emonagaitik damutu-arren; alan be autu dagikie barriro be; autesleen batzarrak, barriz, ezetzta yakin eta illabete barru autespen barria egin bear dau.

§ 2.—Bere alde egindako autespena autuak artzen dauala erantzun ezkeroko, inork sendetsi-bearrik ezpadau, bertatik beretuten dau eskubide osoa; ostantxean sendetsia izateko eskubidea baño eztau artzen.

§ 3.—Autua izan dalata, sendespena artu-aurretik etxako zillegi zeregiñaren egitekoetan, ez arimako ez lurrekoetan nastutea; lege onen aurka legikena legez utsa litzake.

177g. araua. § 1.—Autespenak sendetsi-bearra badau, autespena ontzat artu ezkeroko gitxiendik zortzi egun barru, autuak, berberak edo inoren bitartez, Nagusi egokiari sendespena eskatu bear dautso; ostantxean sendespena eskatzea bidezko eragozpenen batek galazo eutsala erakutsi ezik, ezertariko eskubide barik gelditzen da.

§ 2.—Nagusiak autua atarako gai dala ta autespena legez eginda dagoala ikusi balegi, ezin legike sendespena ukatu.

§ 3.—Sendespena idatziz emon bear da.

§ 4.—Sendespena artu ezkeroko, autuak eskubide osoa eskuratuten dau, legeak bestera agindu ezik.

178g. araua. Autespena agindutako epe-barruan egin ezpalitz, edo batzarra aututeko eskubidea zigorrez kenduta balego, zeregiña ezarteko eskubide osoa autespena sendesteko eskubidea daukan Nagusiak leuka-ke; eta autespenak sendetsi-bearrik ezpaeban, autesle-batzarraren ordeztu zeregiña nori ezarri legokion Nagusiak.

III Atalkia

Eskatzea

179g. araua. § 1.—Autesleak atarako ontzat eta obetzat daukenak azkatu dagiken eta azkatu egiten dan eragozpenen bat baleu, legeak bestera oartu ezik, euren autarkien bidez Nagusi egokiari *eskatu* legikioe, naita bertaroko autuak sendetsi-bearrik eztauken zeregiña izan.

§ 2.—Ordeztuak ezin dagikie eskatu, autesle-batzarrak atarako eskubidea beren-beregi emon ezik.

180g. araua. § 1.—Eskariak, legezko indarra izateko, batzarreko autarkirik geyenak bere alde euki bear ditu; ganera autespengaz burrukan danean, batzarreko autarkietatik iru zatitik bi bear ditu bere alde.
§ 2.—Eskari-autarkia *eskatzen dot* edo esangura bardiñeko beste itz baten bidez agertu bear da; *autu edo eskatzen dot* edo esangura bardiñeko beste itzakaz agertuten dan autarkia gauza da, autespenerako eragozpiderik ezpadau; eskarirako, eragozpena baleu.

181g. araua. § 1.—Eskaria autespina sendestea dagokion Nagusiari beranduenez zortzi egun barru bialdu bear yako, eragozpena azkatzeko alik badau; ostantxean, Aita Santuari edo atarako eskubidea daukan beste norbaiteri.

§ 2.—Eskaria agindutako epe-barruan bialduko ezpalitz, beste barik ausita gelditzen da, eta autesleak beste bat autesteko nai eskatuteko eskubidea galduta gelditzen dira oraingo zeregiñaren utsaldian, eskaria garaiz bialdu-eziña izan ebela erakutsi ezik.

§ 3.—Eskariak ezta kartso ezertariko eskubiderik eskatuari; Nagusia azke da ezetz erantzuteko.

§ 4.—Nagusiari aurkeztutako eskaria ezin dagikie auteslariak atzeratu Nagusiaren ederra barik.

182g. araua. § 1.—Nagusiak eskariari ezetz erantzun ezker, autesteko eskubidea batzarreko autesleekana dator atzera, autesleak yakiñez ganera azkatu ezin dan edo azkatu oi eztan eragozpenen bategaz lotutakoa eskatu ezpaeben; olangorik yazo balitz, zeregiña ezarteko eskubidea Nagusiari dagokio.

§ 2.—Eskariari bayetz erantzutea, erabagi ezker, eskatuari iragarri bekio, eta onek 175g. arauan aginduten dan lez erantzun bear dau.

§ 3.—Eskeñia artzen dauala erantzun ezker, zeregiñaren eskubide guztiak bereak egiten ditu.

II Atala

Eleiz-Zeregiñok zelan galtzen direan

183g. araua. Eleiz-zeregiña galtzen da:

1.º yabeak itxita;

2.º iñork kenduta;

3.º iñork alde eraginda;

4.º izentauriko epea amaituaz.

§ 2.—Zeregiña ezarri eutsan Nagusiaren aginpidea edozelan amaitu-arren, eleiz-zeregiña ezta galtzen legeak alan esan ezik, edo Nagusiak zeregiña ezarke-
ran nai geroagoan *bere ederra eban arteraño* (ad beneplacitum nostrum) edo beste antzeko esanen bat yarri ezpaleu.

184g. araua. Bere senean dagoan edonork itxi dagike eleiz-zeregiña, izte ori beren-beregi galazota ezpadauko.

185g. araua. Izte ori gauza izateko, izten dauanak idatziz edo lekuko bien aurrean itzez, edo beren-beregiko agintzadun ordezkoren bitartez egin bear dau; eta iztearen idatzizko agiria Idazkolako agiritegian zaindu bear da.

186g. araua. Oker sartutako bildurraren bildurrez, iruzurrez edo mamizko uste okerreiz nai simonkeriz egiñiko iztea berez da utsa.

187g. araua. § 1.—Iztea gauza izateko, geyen baten ontzat artu bearko dauan Nagusiaren eskuetan egin bear da; ta iñork ontzat artu-bearrik eztaukanean, zeregiña ezarri eutsanaren edo aren ondorengoaren eskuetan.

§ 2.—Orregaitik zeregiña norbaitek sendetsita, bayetz erantzunda ezarrita artu ebanak izte au legezko eskubidez sendespena nai ezarpena egitea dagokion Nagusiaren eskuetan egin bear dau.

188g. araua. Legeak berak egindakotzat emoten dauan izteagaitik eleiz-zeregiñak beste barik utsik gelditzen dira, aren yabeak:

1.º Jaun-zaleen bizikerea agirian artu balegi; alan be, eleiz-bizibidea be ba-direan zeregiñak, 584g. arauan esaten dan lez;

2.º Legez izentauriko edo lege-ezean Goterkizañak izentauriko epe-barruan ezarri yakon zereginaren yabe egitea alperrik atzeratu balegi;

3.º Norbaitek lendik daukan zeregiñak laguntzat artu ezin dagiken beste zeregin bat artu balegi eta beronen yabe be egin baledi;

4.º Katolikotasuna agirian itxi balegi;

5.º Naita laterriko legearen arauazkoa baño izan ez, ezkondu danak;

6.º 141, § 1g. arauaren aginduaren aurka guda-gizondu baledi;

7.º Eleiz-gizonen yantzia bere oldez ta bidezko ziyo barik erantzi balegi ta Goterkizañak bere asarrea erakutsi arren, oarpena artuta illabete barruan soñeko ori barriro yantzi ezpalegi;

8.º Bertan bizi-bearra daukan tokitik alde egin baleu, ta Goterkizañak oartuta, bidezko eragozpenik izan ez arren, Goterkizañak izentauriko bidezko epe-barruan ez agindurik egin ez erantzunik emon ezpalegi.

189g. araua. § 1.—Nagusiak ezpegi iztea ontzat emon atarako legezko ta neurriko ziyo barik.

§ 2.—Goterki-zañak iztea illabete barruan ontzat edo txartzat emon bear dau.

190g. araua. § 1.—Zeregiña utsik, yabe barik gelditzen da, iztearen barria artu ta ontzat emonda itxi dauanari bere eskaria ontzat artua izan dala iragarrita gero.

§ 2.—Zeregiña itxi dauanak atan yarraitu bear dau, arik eta izte ori Nagusiak ontzat emon daualako barri ziur jakin arte.

191g. araua. § 1.—Zeregiña iztea bein legez egin ezker eztago damututerik, baiña beste bide batez barriro lortu lei zeregin ori itxi dauanak.

§ 2.—Ontzat artutako iztea garaiz yakin-erazo bedi zeregiñari yabe barria emoteko eskubiderik daukienai.

192g. araua. Zeregiña norbaiteri kentzea yazo leiteke, bai legeak berak alan erabagiten daualako, bai legezko Nagusiak kendu dautsalako.

§ 2.—Zeregiña kendu-gatxa balitz, eztagike Goterkizañak bere yabea bera gabetu legeak atarako yarten dautsan auzibidez baño.

§ 3.—Aldakorra balitz, Goterkizañak bera kentzeko, bere eritxi zurrak esaten dautsana entzunda, edozein bidezko ziyoz erabagi dagike, baita lege-ausirik ezpalego be; ta berezko zuzenak aginduten dauana yagon ezker, eztauko ebazpide izentaurik artu ta ibilli-bearrik, kendu nai dan zeregiña parroki-zaintzea ezpalitz; alango bat balitz, eleiz-legeak aginduten daben bidea artu bear dau; kentzeak eztauko indarririk arik eta Nagusiak iragarri arte; eta Goterkizañaren erabagiaren aurka eskubidea dago Aita Santuagana yoteko; orraitio, Goterkizañaren erabagia bete egin bear.

193g. araua. § 1.—Zeregin batetik bestera aldatu, bai izteari bayetz erantzuteko, bai daukan zeregiñatik aldentuteko, bai barria emoteko eskubidea daukanak bakarrik dagike.

§ 2.—Eleiz-gizonaren ederragaz batetik bestera aldatzeko edozein bidezko ziyo da naikoa; eleiz-gizonaren ezetzagaz balitz, iya kentzeko bear direan langoxe ziyok bear dira ta bide bardiñetatik yoan-bearra be bai. Parroki-zañaren buruzkoa balitz, 2162-2167g. arauetan agindua bete bear.

194g. araua. § 1.—Aldakuntzea danean, eleiz-gizonak bigarrenaren yabetea artzen dauanean, lelengoa utsik gelditzen da, legeak ostantxeko oarra emon nai legezko Nagusiak alan erabagi ezik.

§ 2.—Lelengo zeregiñagandiko mozkiñak eleiz-gizon aldatuak bigarrenaren yabetea artu arte bereak ditu.

195g. araua. Eleiz-gizona zeregiñerako autu nai eskatu nai aurkeztu ebena eztaukie eskubiderik zeregiñori ez kentzeko, ez beste batera aldatuteko.

V IDAZPURUA

Norbere-norberena dan eta iñok bere ordezkoa egiteko emona dan alaz

196g. araua. Jaunak Elexea sortu ebanean, bere seme-alabak zaintzeko emon eutsan ala bitarikoa da: bata agiriko auzitegian erabiltekoa; bestea ixilekoan erabiltekoa; ixileko auzitegi ori nai ikurtonezkoa nai ostantxekoa dala.

197g. araua. § 1.—Elexea zaintzeko ala bitarikoa da: bata legeak berak zeregiñari ezarria (*ordinaria*); au zeregiñagaz batera artzen

da); bestea zeregindunak norbaiteri zeregin barik zerbait egiteko *emona* (delegata).

§ 2.—Zeregin-bidezko ala be bitarikoa da: bata yatorrizkoa (*propria*); bestea yatorrizkotik zabaldua (*vicaria*). (1).

198g. araua. § 1.—Eleiz legeai buruzko gaietan, ostantxekorik argi agiri ezik, gure ARAUDI onk laterazko *Ordinarius*, nik euskeraz *Gotzain* esango dodana, urrango Nagusiak ezarten dautse:

1.º Aita Santuari;

2.º Bere barrutirako, Obispoari ta Danerako bere Ordezkoari (*Vicarius Generalis*);

3.º Edonongo Obisporen barrutitik kanpoko eleiz-arloaren Nagusi litxakezan Lekaipuru ta Nagusiari (*Abbas et Praelatus nullius*) eta euron Danerako Ordezkoai;

4.º Aita Santuaren Zain, Ordezkarri ta Jagoleai (*Administrator, Vicarius et Praefectus Apostolicus*);

5.º Orretariko baten nai batzuen utsean, euron barrutiak zaintzen euren Ordezko egiten dabenai;

6.º Euren menpekoai buruz, Obispoen menpetik ateratako Jaunzaleen Buru Nagusiak (*Nagusienak eta Erki-Nagusiak Generalis et Provincialis*).

§ 2.—*Goterki-zain* (*Ordinarius loci*) esanaz, Jaun-zaleen Nagusiak kendu ezker, or goyan esandako Nagusi guztiak ulertzen dira.

199g. araua. Zeregin-bidezko zaintza-ala daukanak, nai zatia nai dana beste norbaiteri emon dagikeo, legeak nozean bein argi eragotzi ezik.

§ 2.—Aita Santuak norbaiteri emondako zaintza-ala daukanak, barriro beste bateri, nai dana nai zatia, emon dagikeo, ori egiterik galazo ezpaleutso edo norbait bera dalako bakarrik izentau izan ezpalitz.

§ 3.—Erabagikizun guztietarako zeregin-bidezko ala dauan Aita Santuaren azpiko edonork, ebazkizun bakotxa ebazteko ala iñori emon dagikeo.

§ 4.—Ganeko yazoeretan iñork emondako zaintza-ala barriro beste norbaiteri emon legikeo, orretarako beren-beregiko eskubidea emon balitzakio; alan be agintzarik bear eztan zerbait egiteko eskubidea edonork emon legike, naita atarako al berezirik artu ez.

§ 5.—Birritan emondako alik ezin iñoz oraindiño beste norbaiteri emon, bigarren ordeztuari atarako eskubidea beren-beregi emon ezpadautse.

200g. araua. § 1.—Zeregin-bidezko norbere zaintza-ala eta ebazkizun guztietarako emona, zabal ulertu bear da; beste guztiak, estu; alan be, zerbait emoten danean, ezarten yakon egitekoa bear dan lez egiteko eskubide guztiak emon yakozala ulertu bear da.

§ 2.—Norbaitek bere ordezeko egin dauala diñoanak, ordezkotasun ori erakutsi-bearra dauko.

(1) Izenok iragarten dauan lez, onetarikoak Aita Santuari, Obispoari ta parrokiak lagun egiten dautsen zeregindunak.

201g. araua. § 1.—Zaintza-ala menpekoai buruz bakarrik erabiltekoa da.
§ 2. Auzietarakoa, nai norbere zeregin-bidezkoa izan nai iñok emona izan, ezin leiteke erabili norbere auziak ebazteko, ezta iñoren barrutian be, 401, § 1, 881, § 2 ta 1637g. arauetan esaten danaren kalte barik.

§ 3.—Gaiaren izakeratik edo legeak argi esanetik besterik agiriko ezpalitz, auzi-buruzko ezturean erabazkizunai buruz zaintza-ala erabili leiteke norbere onerako be, eta baita norbere barrutitik kanpoan, nai barrutitik kanpoan dagoan norbere menpekoari buruz be.

202g. araua. § 1.—Agiriko auzitegirako emondako zaintza-alagaz, nai norbere zeregin-bidezkoa dala nai iñork emona dala, egin dana, zuzen eginda dago; ez baña okerretara egia (1).

§ 2.—Zein auzitegirako emoten dan argi esan ezik, ala auzitegi bietarako emona dala uste izan bear da, arazoaren izakereak berak bestera ulertu bear dala erakutsi ezik.

203g. araua. Nai zeri nai nori buruz emondako zaintza-alaren mugarriak baño arago egiten dana alperrikoa da.

§ 2.—Ezta, orraitio, uste izan bear mugarriak baño arago yoan danik, ordeztuak auzia ordetzalleak uste eban lez ebatzi eztaualako, zelango ebatzia emon bearko eutsan esan ezpaleutso, ta, izan be, emoten eutsan eskubidearen baldintzea lez.

204g. araua. Beragokoa itxita goragoko Nagusiagana yoteak beragoko Nagusiaren zaintza-ala eztau lotuten, edozertariko dala, nai bere zeregin-bidezkoa nai iñork emona.

§ 2.—Alan be goragokoagana eroandako arazoan ezpedi beragokoa nastu atarako ziyo aztun eta esturik ezpadau; eta egitekoan, goragokoa yakitun bertatik egin begi.

205g. araua. Arazo berbera ebazteko eskubidea artuak bat baño geyago balira, eta vakin ez eskubide ori banazean ala guztiak batera erabiltekoa litzakenik, auzibidez ebaztekoa danean, guztiak batera ebaztekoa dala uste izan bear da; banazean ebaztekoa, ostantxekoa danean.

§ 2.—Banazean ebazteko batzuk balira izentauak, ebazkizunari eskua lelen-go ezarten dauksanak besteak baztertu egiten ditu, geroagoan bere egitekoa burutu-ezina ezpaleutorkio, nai atarako gogoa galdu.

§ 3.—Alkarregaz batzar-legea ebazteko izentauak balira, ebatzia gauzakzkoa izateko, ebazkizuna guztiak batera ebatzi bear dabe, mandatu-agiriak besterik ezpadiño.

(1) Au da, ixileko auzitegirako emondako alagaz agiriko auzitegiko ebazkizuna erabagi balegi.

206g. araua. Batzuok bata bestearen urrengo ordeztuak balira, ebazkizuna ebatzi bear dauana lenago izentaua da, geroagokoaren aginduak lengoarena austen dauala esan ezpalegi.

207g. araua. § 1.—Ordeztuaren ala amaitzen da:

1.º agindua bete ezkerro;
2.º izentauriko epea bete ezkerro;
3.º izentauriko ebazkizunak ebatzi ezkerro;
4.º Ordezketasuna emoteko Nagusiak izan eban ziyoa amaitu bada;
5.º Ordetzalleak ordeztuari emon eutsan ala kendu dauksala iragarten dauksanean;

6.º Ordeztuak ordetzalleari emon eutsan agindua betetako gogorik eztaukala ta beste norbait atarako izentatzeko esaten dauksanean eta ordetzalleak uko egite ori ontzat artzen dauksanean;

7.º Ezta amaitzen barriz ordetzallearen aginpidea amaitu arren, 61g arauan esaten direan zer bietatik bata beintzat yazoko ezpalitz.

§ 2.—Orraitio ixileko auzitegirako emondako eskubideagaz, konturatu barik, erabagi balegi eskubidea erabilteko epea yoanda gero edo izentetan yakozan ainbeste ebazkizunak beteta gero, bere erabagia oraindino gauza litzake.

§ 2.—Guztiak batera ekiteko izentauak balira batzuk, batek uts egin ezkerro beste guztien eskubideari be atzena datorkio, ostantxekorik agirian esan ezpalegi ordeztu ebazanen agiriak.

208g. araua. 183, § 2 arauan esaten dan lez ezta amaitzen norbere zeregin-bidezko ala berari erantsita daukan zereginia emon eutsanaren aginpidea amaitu dalako; amaitzen da bai:

a) zereginia galdu balegi;
b) lo legoke kentzen eutsan epaiaren aurka goragoko epaikariagana yota balego; baña gora yote orrek epaya benetan lotu egiten dauksanean, ez auzia barriro ebazten dan bitartean epaya bete-bearra atzeratuten eztauksanean, 2264 ta 2284g. arauetan aginduaren kalte barik.

209g. araua. Uste okerra esaterako guztiena danean eta baita nai legerai nai yazoari buruzko ezpaya susterduna danean, Elexeak betetzen dau egillearen ala-eza, bai ixileko bai agiriko auzitegian.

210g. araua. Eleiz-gizontzeari buruzko ala, legeko Eleiz-Nagusiak nai zereginari ezarria nai norbaiteri emona, ezin leiteke iñoren ganatu orretarako eskubidea edo legeak berak edo beren-beregiko Nagusiaren eskubideak emon ezpalegie.

VI IDAZPURUA

Eleiz-gizonen erri-gizontzea

211g. araua. § 1.—Eleiz-gizontze santua; bein benetan artua, iñoiz ausiezina izan arren, eurretarikoen bat daukan eleiz-gizona Aita

Santuaren erabagiz, edo baita 214g. arauak yarten dauan bidez emondako auzi-epayaren bidez, eta atzenean eleiz-gizonen malletatik yaurtitzten dauan zigorra ezarri dautselako, erri-gizonduta gelditzen da.

§ 2.—Beko malletako eleiz-gizona erri-gizondu daiteke:

1.º berez, beste barik, legeak alan erabagiten dauan zerbeit balegi;

2.º Goterkizaña bere erabagiaren yakitun eginda, berak alantxe erabagi daualako.

212g. araua. § 1.—Edozergaitik erri-gizondu dan beko malletako eleiz-gizona barrero eleiz-gizonen artean artzeko eleiz-gizondu zanean bertakotu zan Goterkizaren bayezkoa bear dau; onek baña eztautso emongo bayezko ori, aren bizikera ta ekanduai buruzko azterketa arduratsua egin eta oindiño gero benetan ondu dala erakutsi barik.

§ 2.—Goiko malletako eleiz-gizon erri-gizondua barrero eleiz-gizonen artean artzeko Aita Santuaren bayezkoa bear da.

213g. araua. § 1.—Eleiz-gizonen bizikeratik erri-gizonenera eratziaik nai euren oldez yatzi direanak, beste barik, galtzen dabez Elexeagandiko zeregin, bizibide, eskubide ta kutun-legeak; eta eleiz gizonen yantzia ta elestuna erabilteko eskubidea be galdu egiten dabe.

§ 2.—Goiko malletako eleiz-gizon erri-gizondua ezta azkatuten ezkontzea galazoten eutsan legetik. 214g. arauan erabagiten dana bere alde ezipadua.

214g. araua. § 1.—Iñork bildur larriak eraginda goiko malletako yaureskizunen bat artu baleu, eta gero bildur barik erabili bai, baña erabili orregaz eleiz-gizonen egin-bear berezia leporatuteko gogo barik, eztauko benetan eleiz-gizonen egin-bearrak bete-bearrak; eta oker beartuta izan zala ta eztauala berak oker ori iñoiz ontzat emon bidez erakutsi balegi, errigizonen mallara eratzita, eleiz-gizonen egin-bear berezi guztietatik azke dala iragarri bear da, ezkondu-eziñetik eta orduetako otoitzak egin-bearretik be bai.

§ 2.—Egin eutsen indarra ta irain ori berak eztauala iñoiz ontzat emon 199-5-1998g. arauak aginduten daben lez erakutsi bear dira.

BIGARREN TXATALA

Eleiz-gizon bereziai buruzkoa

215g. araua. § 1.—Gorengo mallako eleiz-gizonari, au da, Aita Santuari dagokio: a) Obispo-buru-erkiak eregitea (provincias ecclesiasticas) eregitea;

b) goterkiak (dioeceses, abbatias vel praelaturas *nullius*, vicariatus apostolicos, praefecturae apostolicas) sortu, euron mugak aldatu, zatitu, batu, iltea.

§ 2.—Zuzenbidean, Goterki-izenaz bere Buru Obispoa dauan barrutiaz ganera, bere mallako direan iñongo Obispo-barrutiren zati ezterean, baña 198,

§ 1 arauak erabagiten dauan lez euren Nagusiak Goterkizain-izena daukien eleiz-barruti guztiak ezagututen dira, gayaren mamiak edo legearen esakereak ostan-txekorik erakutsi ezik.

216g. araua. § 1.—Goterki baktzeko barrutia ataletan zatitu bedi; atal baktxari bere eleiz-etxe berezia eta erria ezarri bekioz; eta eleiz-zain berezia be bai, benetako artzain onaren antzean atal ori zaindu dagian.

§ 2.—Goterki guztietan egin bear da ori, naita goterki-burua Obispoa izan ez.

§ 3.—Arau onen § 1 aitatuten direan goterki-atalok parroki-izena daukie;

§ 2garrenekoak, baktxari nork zaindu emon bayake, *parroki-artzeko* dabe izena.

§ 4.—Aita Santuak beren-beregi emondako baimen barik ezin eregi leitekez uri nai erri bateko lurretan bizi direan lagunentzat mintzoera edo enda banakoak aña parroki; ezta lagun eta sendi batzui parrokiaren zati bat berezi be, Aita Santuaren baimen barik. Lenagotik eginda balego, ez ikuturik egin Aita Santua yakitun egin barik.

217g. araua. § 1.—Obispoak zatitu begi bere goterkia parroki batzuk osotuten dabezan txataletan; txatalok lateraz izen oneik dabez: *vicariatus foraneus*, *decanatus*, *archipresbyteratus*, etc. (1).

§ 2.—Zatiketa ori nonbaiten eta noizbait eziña nai kaltegarri litzakela baleritxo Goterki-zañari, yo begi onek Aita Santuagana, bere eritxia ta eritxiaren zioyak erakusten dautsazala, lendanik eginda ezipalego.

VII IDAZPURUA

Eleaxako gorengo alari eta eleiz-legez bere zatiren bat daukienai buruzkoa

I Atala

Erroma'ko Obispoa edo Aita Santua

218g. araua. § 1.—Erroma'ko Obispoak, lendakaritzan Pedro Santuaren ordorengoak, ez bakarrik aurrengo agertuteko lendakari-tzea, baita Elexa osoari buruz, bai sineskizunai eta egikizunai buruz eta baita lur osoan zabaldua dagoan Elexea zaindu ta yaurritzeari buruzko zeretan be gorengo zaintza-ala dauko.

§ 2.—Al ori, benetako Gotzafiarena, berezkoa ta bitarte bakoa dau bai Elexa osoari buruz, bai kistar baktxari buruz; nai Gotzafiñai nai kistar guzti-ai buruz eta baktxari buruz be, edozein giza-aginpidetik azkea; kistar guztiak aren menpeko, bera iñoren ez.

(1) Parroki-batza esan dagikegula deritxai.

219g. araua. Aita Santuak, legez autua izan ezkerro, ta autepenari bayetz erantzun ezkerotixe, Jaungoikoak emondako eskubidez Eleiz-zaintzeari buruzko al osoa berea egiten dau.

220g. araua. Bai euren izakereak, bai edozelan sortutako legeak aginduta Aita Santuak bakarrik ebatzi leikezan arazoai *ebazkizun nausiak* izena emoten yake.

221g. araua. Aita Santuak bere zeregiñari uko balegio, eztauko iñork ontzat emon-bearrrik ez Kardenalek ez beste iñork.

II Arala

Elexa osoaren batzarra

222g. araua. § 1.—Aita Santuak deitu gabeko batzar orokarrrik edo Elexa osoarenik ezin leiteke izan.

§ 2.—Aita Santuari dagokio, edo berberak edo iñoren bitartez, Batzar orokarraren maipuru izan eta egitea, bertan ebatziko direan zerak izentau, Batzarra bera beste nonbaiteira aldatu, amaitutzat emon eta aren ebatzi-erabagiak sendestea.

223g. araua. § 1.—Batzar orokarrera deitzen dira ta bertan ebazpide-indarrezko eritxia agertuteko eskubidea daukie:

1.º Erroma'ko Elexa Santuaren Kardenalak, naita obispo izan ez;

2.º Erkabak (Patriarchae), Gotzain-Lendakariak (Primates), Obispo-buruak (Archiepiscopi), goterkidun Obispoak, naita oraindiño obispotze-ikurtona artu bakoak izan;

3.º Lekaipuru-Lendakaria (Abbas primas), Lekaidetxe-Batzen Lekaipuruak (Abbates superiores Congregationum monasticarum), Goterkizañen menpetik aterata dagozan eleiz-gizonezko Jaun-zaleen Nagusienak (supremi Moderatores religionum clericalium exemptarum) eta ez ostantzeko Jaun-zaleen Nagusienak, Batzarrerako deya egiten dauan idazkiak besterik esan ezik;

§ 2.—Goterkirik eztauken Obispoak be, batzarrera deituak balira, ebatziai erabagi-indarra emoteko eskubidea daukie, deitu dauzan idazkiak besterik esan ezpalegi.

§ 3.—Teologoak eta lege-gizonak, Batzarrera deituak izan arren, eztaukie eskatzen dautsenean euren eritxia emoteko baño beste eskubiderik.

224g. araua. § 1.—223, § 1g. arauan izentatzen direanetarikoen batek Batzarrera yoan-eziña baleu, bialdu begi bere ordezkoa ta agertu bere eragozpena.

§ 2.—Ordezko orrek, batzarkideen bat balitz, eztauko autarki bi emoteko eskubiderik; batzarkide ezpalitz, guztientzat ateak zabalik egiten direan batzarretara bakarrik elduteko eskubidea dauko eta autarki barik; alan be, batzarra amaitzen danean aren erabagiai bere izena ezarteko eskubidea be badau.

225g. araua. Batzarrera etorri bear dauan iñori etxako zillegi Batzarra legez amaitu baño lenago alde egiterik, Batzar-maipuruak alde egiteko ziyoa yakin, ontzat emon ta bere bayezkoa emon barik.

226g. araua. Aita Santuak aurkeztutako ebazkizunai batzarkideak beste batzuk be generatu dagikiez, baño orraitio batzar-maipuruak aurrezтик ontzat emonak izan bear dabe.

227g. araua. Batzarraren erabagiak eztauke betiko beartuteko indarrrik Aita Santuak sendetsi ta bere aginduz Elexa osoari iragarri arte.

228g. araua. § 1.—Batzar orokarrak Elexa osoarentzat danik eta indarrrik andiena dauko.

§ 2.—Aita Santuaren erabagietatik eztago Batzar orokarrera yoteko eskubiderik.

229g. araua. Batzarraldian Aita Santua iltea yazo baledi, Batzarra beste barik etenda gelditzen da, Aita Santu barriak barriro asi ta ekiteko agindu artean.

III Arala

Erroma'ko Elexa santuaren Kardenalak

230g. araua. Erromako Elexa santuaren Kardenalak Aita Santuaren aolkaribatza egiten dabe, eta Elexea zaintzean bere aolkari ta lagun yatorrenak dira.

231g. araua. § 1.—Kardenal-batza santua (lateraz Sacrum Collegium) iru mallako bazkideak osotzen dabe: Ielengoa, Obispozkoena: Erroma'ren auzoetako urietako Obispo direan seiak; bigarrena, yauparizkoena, berrogeta-amarrek egiten dabe; irugarrena, yaupari-otseñezkoena (diakonoak), amalauk betetzen dabe (1).

§ 2.—Jaupari ta Jaupari-Otsein-Kardenalai Aita Santuak izena emongo dautsan Erroma-uriko elexa bat izentatzen dautso.

232g. araua. § 1.—Aita Santuak ludi osoan, iñork zetan sartu eztaukala, berak gure dituanak egiten ditu Kardenalak, gitxienez yaupari direanak eta yakituriz, Jaun-zaletasunez eta arazoak bear dan lez burutzen euren zurtasuna nabari dabenen artean artuta.

§ 2.—Kardenalen artean eztaukie non sartu:

1.º Sasi-kumeak, naita aita-amaren geroko ezkontzaz legezkotuak izan; beste ainbeste edozergaitik lateraz *irregularis* esaten dautsen utsen bat dabena; au da, agiriko yaureskizunak bear dan lez egiteko gauza eztereanak. Kardenalak

(1) Olantxe zan Araudi au egin zanean; oraintsu asko aldatuta dago.

orban bakoak izan bear dabe; orregaitik olango akazdunak eztira gauza Kardenal izateko, ezta Aita Santuak yaureskizunak egiteko euken eragozpidea kendu baleutse be;

2.º Legezko ezkontzatikoa balitz be, umeen bat nai euren seme-alaben bategandiko illobeen bat daukenak be ez;

3.º Bizi dan Kardenal bategaz leleno edo bigarren senitarteko mallan senide danak.

233g. araua § 1.—Kardenalak Aita Santuak Kardenalakazko Batzarrean izentau ta argitaratu daroaz; eta olan sortu ta iragarriak Aita Santuaren autespenerako eskubidea ta 239g. arauan izentatzen direan kutun-lege guztiak daukez.

§ 2.—Kardenalen Batzar orretan Aita Santuak Kardenal egin dauala esango baleutse, baña aren izena kolkoan ixilik yagoten dauala, olan sortuak eztauko bein-beinean Kardenalen eskubiderik ez kutun-legerik; baña Aita Santuak aren izena agertu ezkeru, eskubide ta kutun-legeok bereak egiten ditu bere izena argitaratu dan ezkeru; eta Kardenalen artean non yezarriko Aita Santuak bere kolkoan sortu eban ezkerotik ebazten da.

234g. araua. Erroma'tik urrin bizi direan Kardenal sortu-barriak txapel gorria artukeran zin egin bear dabe, legezko eragozpiderik izan ezik, Aita Santuagana elduko dala.

235g. araua. Alango baten atarako ziyo bereziak direalako Aita Santuak bestela erabagi ezpalegi, Kardenal sortu-barriak beste barrik galtzen dauz lendik eukazan nausigo, zeregin eta bizibideak; baita Elexeagandiko ordainsariak be.

236g. araua. § 1.—Aita Santuak Kardenal guztiakaz nozean bein egin daroan Batzarrean Kardenalen batek orain artean izan dauan bere elexatik alde egin eta beste batera aldatu gurea ager balegi, eta Aita Santuak ontzat emon, aldatu leitekez euren mallako beste elexa batera; ta yaupari-otseñen mallako direanak malla orretan amar urte egin ezkeru, eskubidea dabe, yaupari-Kardenalen mallara igoteko.

§ 2.—Jaupari-otseñen mallako kardenalak, or esan dan lez yauparien mallara igonak. bere ostean sortutako Kardenal yaupariak baño gorago yarteko eskubidea dauko.

§ 3.—Erroma-auzoetako Obispo-aulkien bat utsik geldi baledi, yaupari-mallako Kardenalak, utsaldia yazo danean Erroma'n balego, edo Erroma'tik alde Aita Santuak ezarritako zereginen bategaitik eskubidea dabe elexa ori eskatuteko esandako Kardenalen Batzarrean. bere mallakoetan aurrerago sortuakandik asita.

§ 4.—Erroma-auzoko Obispo-elexaren bat ezarri yaken Kardenalak eztaukie beste batera aldatzeko eskubiderik; baña Zarrena izateraño eldu dan onerari-koari, lendik eukan elexeaz ganera, Ostiakoaz ezarten yako. Ostiakoaren legea da gaur bategaz biar beste bategaz bat eginda egotea Kardenal Zarrenaren lepoan.

237g. araua. § 1.—Kardenalen Batzar Santuaren buru Zarrena da, au da, Erroma-auzoetako goterkien batera aurrenen izentaua. Buru izate orrek eztauto orraitio beste Kardenalai buruz aginpiderik arean be emoten; bakarrik gorengo aulkian yezarteko eskubidea.

§ 2.—Zarrenaren tokia utsik gelditu ezkeru, beste barik aren utsa urrengoak beteko dau nainon dagoala, nai Erroman bertan nai Erroma-auzoko bere goterkian, edo Erroma'tik alde Aita santuak agindutako zereginen bat burutzen.

238g. araua. § 1.—Kardenalak Erroman bizi bear dabe, eta Aita Santuaren baimen barik eztaukie eskubiderik bertatik alde egiteko, arau onexen § 3g. esaten danean izan ezik.

§ 2.—Agindu onek Erroma-auzoetako Obispo-Kardenalak be lotuten dauz; alan be, baña, bakotxari ezarrita dagoan goterkira yoateko noiz gura, eztauke baimenik eskatu-bearrik.

§ 3.—Erroma'ko auzoetatik alde beste goterkien baten Obispo direanak eztauz azpian artzen Erroma'n bizi-bearra dakarren lege onek; baña Erroma'ra datozen bakotxean Aita Santuagana eldu bear dabe, eta ezpegie bertatik alde egin Aita Santuaren baimena eskatu ta lortu barik.

239g. araua. § 1.—ARAUDI onetan beste tokietan aitatuten direan kutun-legeez ganera, Kardenalak, Batzarrean sortuak izan zirean ezkeru eskubidea dabe ta ala:

1.º—Edonon edonoren autortzak entzuteko eskubidea, gizonezko nai andrazko Jaunzaleak kendu barik, eta pekatu ta zigor osagarri guztiak parkatzeko, norbaitentzat baztertuak balira be; oneixek urrengook ezingo dabez parkatu: Aita Santuarentzat beren-beregi baztertutako zigor osagarriak eta Zeregin Santua deritxon ixil-legearen zapaltzalleen aurka ezarritako zigor osagarriak;

2.º—Beretzat eta bere etxeoentzat autor-entzule-yauparia aututeko; ta yaupari orrek ezpaleu pekatuak parkatzeko eskubiderik, eskubide ori izentauagaz batera artzen dau pekatu ta zigor osagarri guztiak buruz, ortxe aurreko zenbakian esanak bakarrik izan ezik;

3.º—Jaunaren itza edonon aldarrikatzeke;

4.º—Eguen Gurenean meza bat esateko ta Gabon-gabaz iru meza esateko edo bera bertan dala beste norbaiteri meza esateko eskubidea emoteko;

5.º—Aita Santuak ezarten dautsezan nekazka (indulgentzi) guztiak eskuagaz kurutze-ikurra eginda beste barik nainon ezarteko agurtzai (errosarioai) ta beste otoitz-kontakizun, kurutze, santuen irudiai; Aita Santuak ontzat emondako kutunak onesteko eta eurak inoren izena idatzi-bear barik ezarteko.

6.º—Onespen bakarragaz elexetan eta otoitztegitan, naita norbaitena ta norbaitzuentzat bakarrik litzakena izan, eta beste edozein otoitz egiteko tokitan Kurutz-bidearen geldi-uneak eregiteko, inarkun au egiten dabenai emoten yakezan nekazka guztiakaz; ganera gexoagaitik nai beste ganerazko zerbaitegaitik Kurutz-bidea eregita dagoan tokiko geldi-uneak ibili-eziña dauken guztientzat kurutzea onesteko, kurutz-bideari Aita Santuak ezarten dautsazan nekazka guztiak irabazteko gauza egiten dauala.

7.º—Baterik bestera erabilteko arri ganean meza emoteko, ez bakarrik

norbera bizi dan etxean, baita nainon legokezan tokian be; ta eurak bertako direala, beste meza bat esateko baimena iñori emoteko;

8.º—Ezer okerrik yazo eztakion bear direan neurriak artuta, itxasoan mezea emoteko;

9.º—Elexa ta otoiztegi guztietan mezea norbere egutegiaren legez emoteko;

10.º—Kutun-legezko nekazkadun altarea izateko, mezea emoten dauan nainon;

11.º—Bera bizi dan uri nai erriko edozein elexa nai otoiztegiara eldutea eskatzen daben nekazka guztiak norbere etxe-otoiztegiara elduta irabazteko; eta eskubide ori emoten yake Kardenalaren etxe-lagun guztiak be;

12.º—Erria edonon Obispoen antzera onesteko; Erroma'n orraitio eleketan, otoiztegiatan eta kistar-pilloa legoken beste edozein tokitan bakarrik;

13.º—Obispoak lez paparrean kurutzua, mitra deritxona buruan ta artzain-makillea eskuan erabilteko;

14.º—Edonoren otoiztegiaren bere yabearen eskubidearen kalte barik mezea emoteko;

15.º—Bertako Obispoaren antzera eleizkizunak egiteko Obispo Jaunai dagokiezan yezar-aulki ta aulki-ganeko estalgiagaz, Erroma'tik kanpora elexa guztietan; baña Gotzain-elexea balitz, berau aurretik yakitun eginda;

16.º—Elduko litzaken edonon bertako Gotzainari egiten dautsezan latsa-erakutsiak izateko;

17.º—Aita Santuak berari agoz esanak bere esanagaz bakarrik egizat emoteko;

18.º—Bertako Gotzainak ikusi-bearrik eztaukan otoiztegia etxean izateko;

19.º—Bere eleiz-bizibidetiko irabaziaz buruz berari deritxona egiteko; baita bera il-ondoan eurokaz zer egingo aginduteko be, 1298g. arauaren erabagiaren kalte barik;

20.º—Elexak, yaupa-mayak (altarak) eta yaureskeretan erabilten direan zer guztiak bai gurenesteko (consecrandi) bai onesteko eskubidea, Lekaipuruaren onspena ta beste antzekoena edonon egiteko. Obispo balitz, guzti ori berak dagike. Obispo ezpalitz, ez dagike berak orretariko gureneskundetan erabilten dan orioa gurendu (consecrare) eta Obispoen batek gurendua erabilli bear dau. Kardenalak eztagoz zer onetan 1157'g. arauak ezarten dauan eragozpenagaz lotuta;

21.º—Beste edozein eleiz-jaun baño, Erkabak eurak baño be goragoko mallan yarteko; baita Aita Santuaren Ordezkoa baño be, Ordezko ori Kardenal ezpalitz eta bere Ordezkoatasunaren barruti-barruan ezpalego. Aita Santuaren *a latere* esaten dautsen Ordezkoa dan Kardenalak beste guztien aurretik agertuteko eskubidea dauko;

22.º—Lelengo ule-moztutzea ta berengo malletako yaureskuntzak emoteko, yauresteoak euren Gotzainaren idatzizko baimena badabe;

23.º—Sendotza-ikurtona emoteko, baña sendetsiaren izena legeak aginduten dauan lez idatziz ezarrita;

24.º—Nekazkak emotekoari buruz: a) berreun egunekoak, baita nekazkea irabazteko agindutako zera egin ezker, egiten dan baxotxean irabaztekoak, berak

zaindu bear dauzan toki ta laguntzai eta bertako lagunentzat; b) baita beste edozein tokitan irabaztekoak be, baña baxotxean bertan legokezanak irabaztekoak.

§ 2.—Kardenal Zarrenaren eskubide berezia da Aita Santu barria yaupari ta obispo egitea, ez bata ez beste ezpalitz; ori egitekoan *pallium* deritxon idunekoa erabilli bear dau. Zarrena bertan ezpalego, aren eskubide ori Zarrenaren urrengoari dagokio. Biok uts egin ezker, Erroma-auzoko Obispoetan aurrenengo dan Kardenalari dagokio.

§ 3.—Amaitzeko, yaupaltsein (diakono)-Kardenalen artean Obispo-buru atarako eskubide berezia leukien Gotzainari edo euren Ordezkoai, Aita Santuaren izenean, idun-estunak (*pallia*) ezarten dautsez; eta Aita-Santu autubarriaren izena erriari iragarri be bai.

240g. araua. § 1.—Erroma-auzoko Gotzain-aulkira yasotako ta bere yabetzea legez artu dauan Kardenala bertako benetako Obispo da, ta bertan goterkidun Obispoak euren goterkietan daben al osoa dauko.

§ 2.—Ganeko Kardenalak, izena emoten dautsen elexan, baxotxak berean, aren yabetzea legez artu ezker, Goterki-zainak euren menpeko eleketan dagikena dana dagike. Ez orraitio auziaz buruzkorik, ez erriarrak zaintzeari buruzkorik; alan be, bere elexa-barruan badauko eskubidea gauzak zelan egin aginduteko, ta okerrak arteztuteko.

§ 3.—Yauparien lerroko Kardenalak, izena emoten dautsen elexan, eskubidea dau Obispoarenak direan eleizkizunak euren Aulki ta aulkiganekoagaz egiteko; Yaupaltsein-lerrokoak direan Kardenalak olango eleizkizunetan Obispoak egoten direan lez egon daitezke; eta bertako Kardenalaren baimen barik eztauko iñork an eleizkizunik egiteko eskubiderik; Erroma'ko beste eleketan eztaukie Kardenalak eskubiderik Yaun-aulkia ta aulkiganekoa erabilteko Aita Santuaren baimen barik.

241g. araua. Aita Santuaren aulkia utsik danean, Kardenalen Bazar Santuak eta Erroma'ko beste lantegiaren eztabe beste esku-biderik 1904garreneko Lotazillaren 25garreneko Pio X *Vacante Sede Apostolica* legean erabagiten dana baño besterik.

IV Atala

Aita Santuaren lantegiak

Aita Santua Erroma-uriko Obispoa da, eta Erroma-uriko Obispoa dalako Kisto-Yesuk sortu eban Elexa osoaren Buru. (Araudi onek Atal onetan Aita Santua Elexa osoaren Obispo lez begiratzen dau, eta Elexa osoa zaintzeko lanean nortzuk, zertzuk eta zelan lagun egiten dautsen irakasten dausku (Larrakoe-txearen oarra).

242g. araua. Aita Santuaren lantegiak *Baxkun Gurenak, Epaitegiak eta Landolak dira.*

243g. araua. § 1.—Bazkun Gurenok, Epaitegiok eta Landolok bakotxak Aita Santuak aginduten dautsan yardunbidetik yoa bear dabe, ta izentau dautsezan lege bai orokar bai berezien arauz erabagi bear dabez ebazkizunak.

§ 2.—Aita Santuaren Bazkun, Epaitegi ta Landoletako langille direanak orretariko lantegi bakotzeko legeak aginduta dauken neurrian ixila yagoten beartuta dagoz.

244g. araua. § 1.—Bazkun, Epaitegi ta Landola oneitan, euren Buru egiten dabenak aurreztik Aita Santua aren yakitun egin barik, ezpedi zer aztunik erabagi.

§ 2.—Landolen, Bazkunen eta Buru egiten dabenai emon yakezan eskubide berezietarikoak ezpalira eta Aita Santuaren Epaitegien epayak izan ezik, euron edozein emonak nai erabagiak Aita Santuak edertzat emon-bearra dauke.

245g. araua. Aita Santuaren lantegietako Bazkun, Epaitegi, ta Landolen artean zerbait erabagitea zeñena litzaken eztabaidea sortuko balitz, ori ebaztea Aita Santuak izentauko dauzan Kardenalen egitekoa izango da.

I Atalkia

Bazkun gurenok

246g. araua. Bazkun bakotxaren buru Kardenal Lendakaria da; edo euren Buru Aita Santua berbera danean, Idazkari-izeneko Kardenalak egiten dau Lendakari-lana; bazkide dira Bazkun bakotxari ezarten yakozan beste Kardenal batzuk, bear direan beste langillekaz batera.

247g. araua. § 1.—Zeregin Santuarena deritxon Bazkunak Aita Santua euren Buru Aita Santua berbera danean, Idazkari-izeneko ri buruzko Jaunaren irakaskintzea zaintzea da.

§ 2.—Berari dagokio bere lege bereziak emoten dautsan indarrez berak bakarrik ebatzi dagikezan lege-ausiai epaya emotea. Eta eskubide ta egin-bear ori dagokio ez bakarrik lege-ausiok Goterkizañen epaitegietatik gora yota datorkio-zana buruz, baita oraindiño iñork epaitu bako auziak be, beragana artez dakarzanean.

§ 3.—Beroneri bakarrik dagokio kistarren baten ezkontzeak aren siñesmena galtzeko zorian noiz dagoan ebaztea be:

a) kistartu-aurretik ezkondu zireanen artean, bata bakarrik kistartu baledi eta beste ezkontideak kistar bizikerea biziten bakean itxi ez, Paul Santuaren bidez Jaunak emondako eskubidez Elexeak ezkontza ori osoan ausi dagike, ezkonduai ezkontza barria egiteko azkatasuna emonagaz. Orretariko ezkontzea austeari buruzko eskubidea gure Bazkunari dagokio;

b) ezkongayak, biak kistar ugutzatuak, baña bata katolikoa ta bestea ez, ezin leitekez alkarregaz ezkondu Elexean olangoai buruz ezarritako eragozpidea

kendu ezik. Eragozpen ori kentzeko eskubidea be Bazkun oneri bakarrik dagokio;

d) Ezkongayak bata kistar katolikoa, bestea kistar eztana direanean be eragotzita dauko Elexeak ezkontzea eragozpen ori kendu ezik. Eragozpen orreri buruzko auzia ikusi ta eragozpena kentzeko eskubidea be gure Bazkun onena bakarrik da.

§ 4.—Ganera salatutako idaztiak zeatz aztertutea, ta bear danean eurak irakurtea galazotea be beroneri dagokio. Baita eurok irakurteko baimena emotea be. Ganera, iñork salatu ezarren be idazti kaltegarririk argitaratu ete dan begiratztea be, eta Goterkizañai gogora ekartea zeinbestean beartuta dagozan idazti kaltegarriai gogor egiten eta 1397g. arauak aginduten dautsen lez Aita Santuari salatuten.

§ 5.—Berari bakarrik dagokio yaupariak mezea emoteko bete bear daben baraulegeari buruzko erabagiak emotea be.

248g. araua. § 1.—Kardenal-Batza-Bazkun Gurenaren (S. C. Consistorialis) Buru be Aita Santua bera da. Beronen bazkidetarikoak dira: Zeregin Santuaren Bazkunaren Kardenal Idazkaria; Jaupari-gayak azi-eziteko etxeai ta Ikastetxe Nagusienai buruzko Bazkunaren Buru litzaken Kardenala; eta Aita Santuak Laterriakaz dauzan arazoai buruzko Landolaren artezkari egiten dauan Kardenala. Bazkun onen aolkarietakoak dira beti Zeregin Santuaren Kardenal Idazkariaren urrengo lateraz ADSESSOR esaten dana; nozean-beingo arazoai buruzko Bazkunaren Idazkaria, eta yaupari-gayak azi-eziteko etxeai ta Ikastetxe Nagusienai buruzko Bazkunaren Idazkaria.

§ 2.—Bazkuna oneri dagokio: ez bakarrik Kardenalen Batzarretan aztertu ta ebatzi bear direan arazoak gertatzea, baita Sineskintzaren zabaltzeari buruzko Bazkunaren ezterean tokietako goterki ta goterki-batzak eregitea be; bardin naiz gotzain-elexan naiz ostantzekoan yaupari-batzarrak eregitea; lendanik eregita dagozan goterkiak zatitzea; Obispoak, Aita Santuaren ordezkari Goterki-zañak; Obispoen bai Ordezkoak bai Laguntzalleak zeintzuk izentau Batzar Nagusiari aurkeztutea, atarako eleiz-legeak aginduten dauzan zer guztiak badabezan jakiteko bear dan legezko azterketa eginda gero; eta euron jakintzea norañokoa dan begiratzea, 225g arauak agindua aitzu barik.

§ 3.—Bazkun oneri dagokioz goterkien eregiteari, eta bizitzeari buruzko egin-bear guztiak betetzen direan ala ez eta zelan betetzen direan begiratzea; Obispoak euren goterkien osasunari buruz idatziz esan dabena begiratzea; Aita Santuaren izenean egiteko azterketak agindutea, eta egiñak begiratzea; nai batean nai bestean beste Bazkun Gurenai dagokiaz azterketa orreitatik agertutako arazoak bakotxa lege dagokionari bialduko ditu.

249g. araua. § 1.—Ikurtonak zelan emon, zelan artu aginduten dabean legeak zelan betetan direan zaintzea da Ikurtonai buruzko Bazkun Gurenaren egitekoa. Ikurtonai buruzko irakaskintzea, 247g. arauan esanda dagoan lez Zeregin Santuaren Bazkunari dagokio, eta Ikurtonak zelan egin, emon eta artu, Egikera Santuai buruzko Bazkunari.

§ 2.—Bardin berak eta benetan berak bakarrik dauko eskubidea ezkontza-ikurtona nai beste edozein ikurton emotorduan zer emon zer ukatu bear dan ebazteko; bai mezea-emoteari buruz be, beste Bazkun bateri dagokion zer bait ezpalitz.

§ 3.—Beroneri eta benetan beroneri bakarrik dagokio senar-emazteak aragiz bat eginda euren ezkontzea burutu ete daben ala ez-ari buruzko auzia epaitzea, eta ezkonduok alkarregandik bananduteko ziyorik naikoa balego-epalego begiratu ta ebaztea, eta auzi orreri legokion dana egiteko eskubidea. Eskubidea dau orraitio Aita Santuaren ROTA deritxon auzitegira bialtzeko auzi ori, alan deritxonean. Auzitegi orretara bialdu dagikez benetako ezkontzarik izan bada-epadari buruzko auziak epaitzea be. Eta auziok bere eritxiz zeatzago aztertu bearra dakarrenean, eurok epaitzeko eskubidea daukan epaitegira bialdu begiz. Baita beroneri dagokio yaureskuntzako goiko malletan yarri danari yazokun orretatik sortu yakozan egin-bearrai buruzko ebazkizunak ebaztea be; baita yaureskuntzea bera gauzazkoa izan dan ala ez sortutako eztabaidea begiratu ta ebaztea be, epaitzeko eskubidea legez daukan epaitegira bialdu nai ezpadau.

250g. araua. § 1.—Batzar-Bazkunaren eskuetan eleiz-gizon erritarren eta kistar-erri osoaren bizikereari buruzko arazoak dagoz ezarrita.

§ 2.—Beraz beroneri dagokio kistarren bizikereari buruzko aginduak bete daitezcan zaintzea. Eskubidea be berak dauko zuzen litzakezan legazkak emoteko. Parroki-zañai ta kanonigoai buruzko ebazkizunak ebaztea. Bardin kistar lauak euren Jaunagazko artu-emonak obeto yoan daitezcan alkarrerri lagun egiteko Eleiz-Nagusi egokiak eregitako nai onetsiko bazkunak zaintzea. Eta ori, kistar lauen Jaunzaleena bada be ta baita elezan yarriak balira be, badagokio. Jaunaren maitez, il-burukoetan aginduak, edonon kistar gogoz sortutako zerak, Meza-sariak, bizi-bide ta zeregiñak. Elexearen ondasunak: direala erabillkorrak direala erabili-eziñak, Goterkietako ordaindu-bearrak, Goterkizañen landoletako lan-sariak edo onetariko beste zerak, Eleiz-bizibideak emotea Goterkizañai dagokienean, irabazpideok eurenak egin gura izango leukiezanai atarako bear direan zer batzuen eragozpena kentzea be berari dagokio. Elexearen ondasunak lapurtu ebezanak ostutako dana atzera emon-beartu barik, adiskideen arteko ituna egitera artu, ondasunok Jaun-zaleenak izan balira be. Laterriak Elexeari ostutako ondasunen yabe egitea Elexearen seme-alabai iztea be bai.

§ 3.—Baita beroneri dagokio Elexearen azkatasunari buruzko auzietan zer egingo ebaztea be. Baita Eleiz-batzarretan nor aurrerago ete danezko eztabaidak entzun eta ebaztea, Jaun-zaleai ta Egikerai buruzko Bazkun Gurenaren eskubideen kalte barik.

§ 4.—Baita beroneri dagokio Eleiz-batzarrai buruzko zer guztiak zaintzea: a) noiz eta zelan egingo; b) eginda gero, bertako erabagiak aztertu ta onetsi nai txarretsi nai aldatu; baita be, beroneri dagokio Elexearen edonongo Gotzañiak alkartuta egin dabezan batzarrai eta bertan artzen dabezan erabagiak buruz bere eritxia emotea be, kistar-Siñeskintzea-Zabaltzeari buruzko Bazkun Gurenaren menpeko eztreanean Gotzañok.

§ 5.—Bazkun onen eskubidea da berari dagokiozan zera buruz eztabaidak sortu balediz, eta auzira yo barik ebaztea erabagi balegi, eztabaidoi atzena emotea; berak ebatzi gura eleukezanak, bialdu begiz auzitegi egokira.

251g. araua. § 1.—Jaun-zaleai buruzko Bazkun Gurenak bere-berekotzat daukoz Jaun-zale guztien arazoai buruzko ebazkizunak:

a) nai gizonezkoak nai andrazkoak direala; berba emote ospetsua nai laua emonak direala;

b) berba emote ospetsua nai laua egiñak direala;

d) berbarik emon ez arren, Jaunzaleen antzera alkarregaz batera bizi direanak;

e) baita erriko laguneren artean bizi direan irugarren mallako Jaun-zaleak be, Siñeskintzea zabaltzearen agindua daukan Bazkun Gurenaren eskubidearen kalte barik;

f) guzti orrei buruz dagokio gure Bazkunari begiratu ta erabagi egokiak artzea: yaurribidea, bizikera, ikasketak eta kutun-legeak.

§ 2.—Beraz, auzi-bidez ebaztekoak auzitegi egokiari itxita, eta Zeregin Santuaren eta Batzar-Bazkun Gurenai euroi dagokiezan ebazkizunak bialduta, gure Bazkun oneri dagokio bere arloko direan ebazkizun guztiak auzi barik erabagitea; alan be eztabaidea Jaun-zalearen eta erritar norbaiten artekoa danean, gure Bazkunak eskubidea dauko, alan baderitxo, ebazkizuna beste Bazkun batera nai auzitegira bialtzeko, batez be erritarrak alan eskatu balegi.

§ 3.—Amaitzeko, Bazkun oneri bakarrik dagokio kistar guztientzako legeari buruz legazkak Jaun-zaleai emotea, 247, § 5g. arauan esaten danaren kalte barik.

252g. araua. § 1.—Siñeskintzea zabaltzeko lanaren buru dan Bazkun Gurenak auxe dau bere egiteko berezia: Kisto'ren Barri Ona ta Eleza katolikoaren irakatsia aldarrikatzeke sortuta dagozan Misiolarien buru egin, eta misiolariak bear direan tokietara bialdu ta aldatu; ta eskubidea dauko arazo oneri buruz bearreke ta egoki litzakezanak ikusi, aztertu ta erabagiteko.

§ 2.—Bere aginpidean dagozan lurretan Batzarrak bear dan lez egin eta bertan artuko litzakezan erabagiak, aztertuta gero, bete daitezcala arduratzea berea dau.

§ 3.—Bazkun onen agintzea Elexeak bere malla guztietako Nagusiak oindio yarri barik daukazan eta misio-errikotzat dagozanetan erabilten dau. Orregaitik Bazkun onen menpean dagoz, malletan banandutako Nagusiak izan arren be, oindio yarri-barriak daukiezan lur-aldeak. Baita Bazkun onen menpeko dira atzerrietako misiolariak azteko sortzen direan eleiz-gizonezko laguntzak edo misiolariak azi-eziteko ikastetxeak, batez be euren lege, diru-kontua ta ikasleen yauparitzeari buruzko zeretari.

§ 4.—Alan be Bazkun onen egin-bearra da eurai dagokiezan arazoan ebazkizunak beste Bazkunetara agindutea; batez be siñeskintzea ta ezkontzak eta Jaunari gurtza egitekereari buruzkoak direanak.

§ 5.—Jaun-zaleai buruz, barriz, misiolari direan aldetik zaintzea dagokio Bazkun oneri, bai misiolari bakotxa bai guztiak batera direala; Jaunzale direan al-

detik begiratu ezkerro, barriz, bai bakotxa bai guztiak batera, Jaun-zaleen Bazkunari dagokioz.

253g. araua. § 1.—Otoitz eta otoizkera santuai buruzko Bazkunak Latel-Elexearen otoitz eta otoizkera yatorrak zaindu ta atarako bear litzakezan erabagiak artu ta bete-erazoteko eskubidea dauko; ez baña otoitz eta otoizkerok zearretara gitxi-geyago yoten dabezanak: esaterako, Elexearen agiriko otoizketetan bakotzak noren aurretik edo atzetik yoateko eskubideari buruzko ebazkizunak norik erabagiko.

§ 2.—Beroneri batez be dagokio agiriko otoitzak eta otoizkerak zoli egin daitezkan kontua erabiltea: meza, ikurtonak emokeran, Jaunaren aintzazko otoitzak egikeran. Itz baten Latel-Elexean Jaunaren ederragaitik egiteko aginduta daukazan legeai buruz legazka adiñonak emotea; baita nai lagunai nai tokiai, otoitz eta otoizkerai buruz kutun-legeak emotea, nai betikoak nai bein-beñekoak. Baita atzenengo zer oneri buruz geyekeririk sortu eztadin zur yardutea be.

§ 3.—Atzenengo, Jaunaren maitez aren agindu guztiak zeatz bete ebezan gizakumeak santutzat emoteko lanak egitea eta santuen gorpuzkiñai buruzko legeak zaindu-eraztea.

254g. araua. Egitekerai buruzko Bazkunari dagokiona:

1.º Aita Santuaren otoiztegiaren eta yauregiaren egin bear direan zer guztien egikereari buruzko legeak zaintzea ta zaindu-eraztea;

2.º Kardenalak Aita Santuaren otoiztegitik kanpoan egiten dabezan egikerai buruzko legeak be zaintzea ta zaindu-eraztea;

3.º Baita Bazkun onen egitekoa da bai Kardenalen bai Laterriak Aita Santuagana bialtzen dabezan Ordezkoen artean zein lenago-atzerago danari buruzko eztabaidak ebatzea be.

255g. araua. Nozean-beingo Eleiz-arazoai buruzko Bazkunari dagokio: 1.º Goterki barriak sortu, nai lendik sortuak zatitu, eta utsik gelditu direanai atarako gizon yatorrak izentau, onetariko zerbait egiteko Laterriko agintariakaz aitu-bearra dagoanean.

2.º—Ganera berari dagokio Aita Santuak bere Laterri-Idazkariaren bitartez aztartzea aginduten dautzazan ebazkizunak aztartu ta zein ebatzi emon bear yaken esatea, batez be Laterri-legeakaz gitxi-geyago nastuta dagozanakaz eta Laterriokaz egindako itunbenai buruzkoak direanean.

256g. araua. § 1.—Jaupari-gayen azi-ezi-etxeen eta Elexearen gorengo Irakastetxeen Bazkun Gurenaren egitekoa da:

1.º Jaupari-gayon etxeoi buruz euren yaurbidea, bizikerea, diruen erabilteza eta ikasketai buruzko zer guztiak zelan diarduen yakitea ta zaintzea, Sifeskintza Zabaltzeari buruzko Bazkunaren eskubideen kalte barik;

2.º Baita berari dagokio Elexearen gorengo Irakasteak zaintzea be, bai irakasteari bai bizikereari buruz. Onetariko etxeak, Jaun-zaleenak badira be, Bazkun onen ardurapean dagoz;

3.º Onetariko etxe barriak sortu nai dabezanean, beroneri dagokio egoki dan ala ez begiratzea ta, alan baderitxo, ontzat emotea; berak emoten dautse onango irakastetxeai euren ikasleai yakitun-agiriak emoteko eskubidea; eta norbaiten yakitura benetan, guztien agoz bikaña danean, yakitun-agiri ori Bazkunak berberak emon daike.

§ 2. Bazkun Guren onetako bazkide dira, besteen artean, Batzar Nausien Bazkunako Kardenal Idazkaria, eta aolkariaren artean, Bazkun berberorren Aolkaria.

257g. araua. § 1.—Sorkalde-Elexeari buruzko Bazkunaren Buru Aita Santua bera da, ta beronek zaindu bear dituanak dira:

Sorkaldeko Elexai buruzkoak direan zer guztiak: direala lagunai buruzkoak, direala legeak, direala otoitzak eta otoizkerak; baita nastekoak direanean be, au bai norgaitik bai zergaitik bitzuenak, au da sorkaldetarrak eta lateldarrak, direanean.

§ 2.—Sorkaldeko Elexai buruz Bazkun onek Elexa lateldarrentzako Bazkun guztien eskubideak berak bakarrik daukaz. Zeregin Santuaren Bazkunaren eskubideak bakarrik eztaukie olango mugarririk.

§ 3.—Bazkun onek auzi barik ebatzeko eztabaidak ebatzi daroaz; auzi-bidez ebatzekoak beroneri deritxon auzitegira aginduko dauz.

II Atalkia

Aita Santuaren Erromako Epaitegiak

258g. araua. § 1.—Bitarikoak dira Epaitegiok: lelengoa, ixilekoa: bakotzak biotza ikusten dautsan Jaunagaz daukazan artu-emonai buruzko utsak dauz bere ebazkizun. Lateraz *Sacra Poenitentiaría* (euskeraz *Autortegi Santua* esango neunke). Bere Buru Kardenal bat, *Poenitentiaríus Maior* deritxona. (Euskeraz *Autortza-entzule Nagusia* esango neunkena). Izan be bere egitekorik andiena errudun edo pekatarien autortzak entzun eta parkatzea da-ta. Zeregin ori bakotxaren barruko epaitegiok zera da. Bitara egin daiteke bai autortzea bai parkatzea: ikurtonezko autortzan, nai ostantzeko autortzan. Baña dana dala, kistarrak autortzen dautsezkan erru-pekatuen eta eurakaitik leporatu dabezan zigorren parkeske doakioz Autortza-entzule Nagusi orreri. eta berak parkatu ezkerro, parkatuta gelditzen dira Jaunaren aurrean. Baña epaitegi onetako epayak ixilean emonak direalako, eztaukie indarririk agiriko auzitegiaren, beste gizakumen aurrean. Orregaitik auzitegi onek emoten dauzan epayak, direanak direala, eztaukie agirian erabilteko indarririk: maitezko emonak, legazkape-nak, ordezipenak, egin utsen sendespena. zorrak parkatzeak. Egitekoren bat zillegi ete-dan ala ez-ko ebazkizunak sortu ta ebatzea be gure epaitegi oneri badagokio.

§ 2.—Beronen eskubidea ta egin-bearra da Parkamenai buruzko eztabaidak ebatzea be: naita eurok emoteari nai irabazteari buruzkoak izan; baña Zeregin Santuaren Bazkunari dagokion arloan sartu barik. Orregaitik eztagokio auzitegi oneri parkamenoai buruz sifeskintzak zer irakasten dauan ebazterik; ezta otoitz eta otoizkera barriak onak direan ala ez ebazterik.

259g. araua. Auzi-bidez eta agiriko epaitegian ebatzi bear direan arazoak Erroma'ko Elexearen *Rota* eta *Signatura Apostolica* deritxoan epaitegietan epaitu bear dira Araudi onetako 1598-1608g. arauetan erakusten dan bidetok yoanda. Orraitio Zeregin Santuaren eta Otoitzai eta otoizkerai buruzko Bazkunak, bakotzak bere bide berezia dau bakotxaren ebazkizunak ebazteko.

III Atalkia

I Aita Santuaren etxeko-Idazkoleak

260g. araua. § 1.—Lateraz "Cancellaria apostolica" esaten dautsen Idazkoleak Burutzat Kardenal bat dau. Idazkola onen zeregiña Aita Santuaren erabagi ta legerik garrantzitsuenak idatziz yartea da berak orretarako daukazan lege ta ekanduak yagonda: esaterako Kardenalen Batzar Nagusian Aita Santuak emoten dauzan eleiz-bizibideak, Goterki ta Goterki-batzak eregitekoa; baita Gotzainai euren egitekoan lagun egiteko abade-batzarrak eregitea ta Elexako beste garrantzi andiko zerak erabagitekoak.

§ 2.—"Cancelleriak" emoten dauzan agirioi *bullas* esaten yake, eta ezpediz emon Batzar Nagusiari buruzko Bazkunaren agindurik artu arte, Bazkun orreri dagokiozan zertzui buruzkoak badira; ostantxeko zerbaiteri buruzkoa balitz, Aita Santua berberaren agindua barik. Eta euren agirian beti zintzo ezarri bear dabe Nagusiok agindu dautsena.

261g. araua. "Dataria apostolica" deritxon Idazkolearen Buru Kardenal "Datario" da. Idazkola oneri egitea dagokiona:

1.º Esandako Batzar Nagusiari eztagokiozan bizibideak emoterakoan eurak emotea Aita Santuaren eskubidea danean, bizibideon eske datozanak gai direan ala ez begiratzea.

2.º Bizibideok emoteko agiria idatzi ta bialtzea; agirioi "Brevia apostolica" deritxe, bularen ondoan laburrak izaten direalako.

3.º Bizibideok emotorduan emoten dautsenak leukakezan eragozpideetatik azkatzeko eskubidea dauko, bizibideok emotea Goterki-zainari eztagokionean;

4.º Bizibideok emotorduan Aitan Santuak ezarriko ordain-bearrak bete dai-tezan kontua erabilli.

262g. araua. Aita Santuaren etxeko ondasunak zaintzea Kardenal Etxezainari dagokio. Beronen zeregiña da ondasunok eta euroi buruzko ezkubideak zaintzea. Beti zoli egin bear dauan lan ori zoliago baño eztau egin bear Aita Santuaren Aulkia utsik dagoanean; bete begiz beraz zeatz 1940garreneko Lotazillaren 25teko "Vacante Sede Apostolica" legeak aginduten dautsana.

263g. araua. Laterri-Idazkaritzearen Buru Laterri-Idazkaritzako Kardenala da, eta iru zatik osotuten dabe:

1.º Lelengo zatiak bere Buru dan nozean-beingo eleiz-arazoen Bazkunaren Idazkaria dau, eta bere zeregiña 255g. arauak aginduten dauan lez, Bazkunak

berak erabagi bear dauzan ebazkizunai ekitea da, ganekoak bakotxa berari legokion Bazkunera bialduta.

2.º Bigarren zatiaren zeregiña eguneroko ebazkizunai ekitea;

3.º Irugarren zatiaren Buru *Breves* esaten yaken idazkien Idazkaria da; ete bere zeregiña *Breves* esaten yaken idazkiok idatzi eta bear direanai bialtzea. (Oarra- *Breves*, *laburrak* esan nai dau euskeraz. Eta Idazkioi izen ori emon dautse arako *Bullaen* ondoan laburrak izaten direalako).

264g. araua. Laterrien Nagusientzako idazkiak eta Laterazko idazkiak idazteko Idazkarien zeregiña Aita Santuaren egifak lateraz idaztea da.

V Atala

Aita Santuaren Ordezkoak

265g. araua. Aita Santuak, Erroma'ko Obispoa dalako, eskubidea dauko, Laterrietako Nagusien baimen barik, ludiko edozein aldera bere Ordezkoak berari deritxon lez, eleiz-yaurbideagaz nai utsik bialtzeko.

266g. araua. Albotiko Ordezkoa (Legatus a latere), izen onegaz Aita Santuak, berbera balizkoan, bialtzen dauan Ordezko Kardenalari deritxo, eta Aita Santuak agindu dautsana bakarrik egin dagike.

267g. araua. § 1.—Nunzio nai Internunzio-izenagaz bialtzen dauzan Ordezkoen zeregiñak:

1.º Aita Santuak emon dautsazan irakatsiai yarraituta, Elexearen eta Laterriaren arteko adiskidetasuna berotuteko alegiñak egin;

2.º Bakotxari izentau yakon barrutian Elexea zelan bizi dan begiratu ta Aita Santua yakitun euki;

3.º Berezko eskubide bi onein ganera, geyen baten beste eskubide batzuk be emoten yakez. Alan be eskubide guztiok dozuz inork *emonak* (delegados).

§ 2.—*Aita Santuaren Ordezko* (Delegati Apostolici) izenagaz bialtzen direanak arau onexen 1.º zenbakian esandako eskubidea berezkoa lez daukie; ganekoak Aita Santuak emongo dautsezanak.

268g. araua. § 1.—Ordezkoen zeregiña eta emon dautsezan eskubideak ez tira amaitzen Aita Santuaren Aulkia edozelan utsik gelditu-arren, izentau ebezan idazkien olangorik argi esanda ezpalego.

§ 2.—Amaitzen da barriz:

1.º Agindu eutsana burutu balegi;

2.º Ordezkaritzea kendu ezkerok, kentze ori berari iragarri ezkerok;

3.º Ordezkoak berak itxi balegi eta Aita Santuak izte ori ontzat emon.

269g. araua. § 1.—Ordezkoak ezpegioe eragozpenik yarri Goterkizainai euren zeregiña betetzean.

§ 2.—Ordezkoak, bat edo bat yaureskunder gotzaindua izan ez arren, Kardenal ezturean Goterkizain guztiak baño aurrerago yezarteko eskubidea daukie.

§ 3.—Jaureskuntzaz Obispo direan Ordezkoak, Goterki-zañari baimenik eskatu-bear barik, eskubidea dabe edozein elezan, Obispo-elezan izan ezik, erria onetsi ta eleizkizunak Obispoen erara egiteko, Obispo-Aulki ta aulki-ganekoagaz.

270g. araua. Obispoaren batzuk, dauken Goterkia dabelako Aita Santuaren Ordezko-izena euki-arren, eztabe izen orretatik ezertariko eskubiderik.

VI Atala

Erkabak (Patriarchae), Lenengoak (Primates), Obispo-Buruak (Archiepiscopi, Metropolitanæ)

271g. araua. Erkaba ta Lenengo-izenak, izenaren ederraz ganera eta beragoko 280g. arauak ezarten dautsen tokian beste Obispoak baño gorago yezartekoa izan ezik, eztautse aginpide berezirik emoten, baten edo besterentzat lege berezien batek emoten ezpadautse.

272g. araua. Goterki-batzaren Burua da Obispo-Burua eta izen ori Aita Santuak ezarri edo gitxienez ontzat artu dauan goterkiagaz bat eginda dago.

273g. araua. Urrango 275-280g. arauetan aginduaren kalte barik, Obispo-buruaren eskubideak bere goterkian edozein Obispok daukazan berberak dira.

274g. araua. Bere menpeko goterkizañen goterkietan Obispo-Buruak urrango zerak bakarrik dagikez:

1.º Eleiz-zañak (patroyak) eleiz-bizibideren baterako aurkeztuak bakotxa bere bizibidearen yabe egin, bere Goterkizañiak legeak agindutako epe-barruan, bidezko eragozpen barik, egin ezpaleu;

2.º Eun eguneko nekazkak (indulgentiak) bere goterkian lez emon;

3.º 432, § 2g. arauan agintzen yakon lez, Batzar-Ordezkoa izentau, Batzarrak legeak emoten dautsan epe-barruan autu ezpalegi;

4.º Begiratu sineskintzea ta bizikerea ondo yagoten direan, eta okerrik agertuko balitz, Aita Santua yakitun egin;

5.º Eleiz-legeak aginduten dauan azterketea egin, Aita Santuak ontzat emondako ziyoen bategaitik eta bertako Goterkizañiak legeak aginduten dautsan epe-barruan egin ezpaleu; eta zeregin ori betetan dauan artean eskubidea dauko bertan itzaldiak egiteko, autortzat entzuteko ta Goterkizañarentzat berezita legokezan pekatuak be parkatzeko; eleiz-gizonak zelango bizikerea egiten daben, eta izen gaiztoa leukakenak euren Goterkizañai zigortu dagiezan salatzeke; esaterako, ezagun dabezan lege-asiak, nai berari nai beste edonori egiñiko bide baga argi, ezagunak bear dan lez zigortzeko, baita zigor-osagarriak ezarri bear balira be;

6.º Eleza guztietan, baita Goterkizañaren menpetik aterata dagozanetan be, ta Goterkizañaren elezean bertan balitz Goterkizaña aurretik yakitun eginda, bere barrutian Obispoak egin daroan lez erria onetsi, bere aurrean kurutzeta yasota batetik bestera ibili; ez baño aginpidea bear dauan beste zerik egiteko;

7.º Bere Menpeko Goterkizañen auzitegietan emondako azken-epayetatik, edo azken-epayaren indarra dauken bein-beñeko epayetatik gora yota datorkiezan auziak 1594, § 1g. arauan esaten dan lez artzeko;

8.º 1572, § 2g. arauan esaten direan auziak lelengo mallan epaitzeko.

275g. araua. Obispo-buruak Obispo-yaureskuntzea artuta iru illabete-baruru, edo lendik Obispo-yaureskuntzea artua balitz, Kardena-len batzarrean lege izentaua izan zanezkero iru illabete-barruan, berberak edo legeko bere ordezkoaren bidez, Obispo-buruaren ezaugarri dan lepo-idunekoa eskatu bear dautso Aita Santuari.

276g. araua. Orregaitik lepo-iduneko ori yantzi barik, Aita Santuak eskubide berezien bat beren-beregi emon ezik, oker egingo leuke Obispo-buruaren egitekoa danik lepo-iduneko ori artu baño lenago egin balegi; edo Obispoen egitekoa danik, yaurespide-legeak Obispo-buruak zerbait egitorduan lepo-iduneko ori yantzi bear dabela aginduten dabenean.

277g. araua. Obispo-buruak lepo-iduneko ori euren Obispo-buruko erriko elezetan erabilli dagikie, baita Obispo buruaren menpetik aterata dagozanetan be, Meza nagusian Pontificale Romanum dalakoan izentauriko egunetan eta bakotxari emon yakozan beste egunetan be; ez orraitio Obispo-buru-erriaren mugarrietatik aragoan bertako Goterkizañaren baimen barik.

278g. araua. Obispo-buruak lepo-iduneko ori galdu balegi, edo beste Obispo-buru-erkira aldatua baledi, lepo-iduneko harria eskatu bear dau.

279g. araua. Lepo-iduneko ori ezin legikeo iñori emon; ezta eriotzaldian iñori itxi; Obispo-buruak izan ebazan guztiak bere gorpua lurpean sartzen dabenean aldean eroan bear ditu.

280g. araua. Erkaba Gotzain-lena baño aurrerago, Obispo-burua Obispoa baño aurrerago, baño 347g. arauan aginduten danaren kalte barik.

VII Atala

Batzarrak: a) Beteak; b) Obispo-buru-erlikoak

281g. araua. Obispo-buru-erki askotako Gotzaiñak Batzar betea egiteko batu daitekez, Batzar orretara deituteko ta bertan maipuru

izateko bere Ordezkoa izentauko dauksen Aita Santuaren baimena eskatu ta artuta (1).

282g. araua. § 1.—Batzar betera bertako ebazkizunak eta aginduak erabagi ta emoteko indarra daukan autarkiagaz deitu bear dira ta eldu bear dabe:

- 1.º Aita Santuaren Ordezkoak;
- 2.º Obispo buruak;
- 3.º Goterkizañak; (2)
- 4.º Aita Santuak ezarrirako Goterkien bein-beñeko Zañak;
- 5.º Oarra- Lateraz emen datozenak 3.º zenbakian esanda dagoz, goterki-zain baitira).
- 6.º Goterkiko Gotzain-elexako Batzarraren ordezkoa (goterkia Gotzain barik legokenean).

2.º ta 3.º zenbakietan izentauak, eurak batzarrera yoan-eziñean eskubidea dauke euren Ordezkoa nai Laguna (badaukie) bialtzeko.

§ 2.—Goterkirik eztauken Obispoak be Batzar onetara yoan daitezke eta yoan bear dabe, Aita Santuaren Ordezkoak, Erroma'tik alan aginduta, deitu balegiz; eta batzarreratu ezkerero, euron autarkiak Goterkizañien añako indarra dauko. ostantxekorik egin dauksen deyak argi ezpadifio.

§ 3.—Ganeko eleiz-gizonak, nai erritarrak nai Jaun-zaleak direala, Batzarrera deituak izan arren, eztauke beste eskubiderik eskatzen dauksenean euren eritxia agertuteko baño.

283g. araua. Obispo-buru-erki bakotxean erki orretako batzarra gitxienez ogei urtero egin bear da.

284g. araua. Obispo-buruak, eta bera eragotzita balego, edo Obispo-buruerkia buru barik, erki orretako goterkien batera lenago agindua izan dan Obispoak:

1.º Obispo-buru-erki-muga barruan. Batzarrera ebazpide-indarragaz euren eritxia emoteko eskubidea daukenak entzunda gero. Batzar-tokia autuko dau. Benetako eragozpenik ezpalego. ezta batzerrean itxi bear Obispo-buruaren elezea;

2.º Batzarra deitu ta bertan maipuru egin.

285g. araua. Euren ganeko Obispo-bururik eztauken Goterkizañak, iñongo Obisporren menpeko eztirean goterkidun Lekaipuruak eta Nagusiak, eta nori agindu eztauken Obispo-buruak, lendik eginda ezpadaukie, autu begie bein eta betiko, Aita Santuaren ederra eskatu ta lortuta, zein Obispo buru-erkiko Batzarrera yoango direan; eta bertan erabagi ta aginduten direanak bete ta bete-crazo begiez.

(1) Orixe da **Batzar betea** esaten doguna; lateraz **Concilium plenarium**.

(2) 198, § 1 arauan esanda daukat Goterki-zañak nortuk direan; ez ezarrirako Goterkizun Obispoak.

286g. araua. § 1.—Or aurreko 285g. arauan aitatu ez ganera, Obispo-buru-erkiko Batzarrera erabagiak emoteko indarra daukan autarkiagaz Obispo-buru-erkiko goterki-zain guztiak deitu bear dira.

§ 2.—Batzar-buruak, erabagiteko indarrezko autarkia dauken bazkide guztien ederragaz, Obispo buru-erkian bizi direan goterki bako Obispoak deitu daginez eta deituak baletorz, erabagiteko indarra leukaken autarkiagaz, batzar-deyan ostera oartu ezik.

§ 3.—Gotzain-elexetako Batzarrak eta arau onen § 1 esaten dan legez Batzar onetara etorri bear daben Goterkizain guztien aolkariak be deitu bear dira; eta deituak izan ezkerero, eurotariko bi, guztion batzarrean autuak bialdu bear dabez; baño euron eritxiak eztauko iñor legez lotuteko indarrik.

§ 4.—Jaun-zaleen Buru nagusiak eta Lekaide-Bazkunen Buruak be, Obispo-buru erkian bizi direanak, deitu bear dira, ta deituak, eragozpenik ezpadabe, etorri egin bear dabe batzarrera; eta eragozpena izatekotan, Batzarrari agertu bear dautse. Eurok, baño, Batzarrera deituak izan direan beste mota bietako eleiz-gizonen antzean, eztaukie euren eritxia agertuteko baño beste eskubiderik.

287g. araua. § 1.—Batzar Betera nai Obispo-buru-erkikora ebatzi-indarrezko autarkiagaz eldu bear dabenak, bidezko eragozpidean lotuta balegoz, euren ordezkoa bialdu ta eragozpena benetakoa dala erakutsi bear dabe.

§ 2.—Ordezkoak, ebatzi-indarra daukan bazkideen bat balitz, eztauko autarki bi emoteko eskubiderik, bat baño; ta bazkide ezpalitz, aolku-eritxia emoteko eskubidea baño eztauko.

288g. araua. Batzar Betean nai Obispo-buru-erkikoan, ebazkizunak zeintzuk izango direan eztabaidetan beñiñago, eta Batzarra noiz asi, beste toki batera aldatu, luzatu, amaitu, gongoterkikoa balitz eta bere lagunak ontzat emon ezkerero, Maipuruak erabagiten dau.

289g. araua. Batzarra, bai Betea bai Obispo-buru-erkikoa, bein asi ezkerero, Aita Santuaren Ordezkoak edo Obispo-buru-erkikozañak bazkideak bidezkotzat emongo daben ziyo barik, etxako iñori zillegi alde egiterik.

290g. araua. Batzar Betean nai Obispo-buru-erkikoan batu direan Eleiz-yaunak zoli ekin begie ebazkizunak aztertzen eta erabagiten siñesmena biziagotzeko, bizikerea obetzeko, okerrak arteztuteko, eztabaidak ixiltzeko eta guztientzat bizibide bakarra ta bardiña yarteko euron eritxiz onenak litzakezan aginduak emonik.

291g. araua. § 1.—Batzarra, nai Betea nai Obispo-buru-erkikoa, amaitu ala, maipuruak agindu begioz Aita Santuari Batzarrak egiñak eta erabagiak, eta ezpediz argitaratu Erroma'ko Batzar-Bazkunak begiratu ta ontzat emon artean. Erriari zelan yakinerazo Batzar-Jaunak eurak erabagi bear dabe; baita bertan aginduak bete-bearra noizdanik asiko dan be.

§ 2.—Batzar, nai Beteak nai Obispo-buru-erkikoak aginduak, bein jakin-erazo ezker. Batzarreko izan direanen barruti guztietan dakarre eurak bete-bearra, eta Goterkizañak eztira gauza euroi buruz legazkapena emoteko nozean bein ta ganorazko ziyoa dabela baño.

292g. araua. § 1.—Toki berezi batzuetarako Aita Santuak bestela erabagi ezpalegi, Obispo-buruak, eta onen utsean Obispo-buru-erkiko Goterkizain zarrenak, au da, Obispo-buru-erkiko goterki batera lenago izentau izan dan Goterkizañak emen goratxoagoko 284g. arauak erabagiten dauan lez, beuko gogoan goterkizain guztiok, gitxienez bost urtetik bost urtera Batzarrera deituteko, guztiok batera alkarren eritxiak yakinda, kistar bizikerea sendogotuteko zertzuk egin bear direan begiratzeko ta urrengo Obispo-buru-erkiko ebazkizun izango direanak ikasten asteko.

§ 2.—Batzartxo onetara 285g. arauan aitatu direan Gotzañak eta ganekoak deitu bear dira ta deituak eldu-bearra dauke.

§ 3.—Baturiko Goterki-zañok urrengo batzarraldiaren tokia izentau bear dabe.

VIII Atala

Aita Santuaren Ordezkoak eta Erki-Buruak

293g. araua. § 1.—Oraindifio bere Obispoa dauan mallara eregi barik dagozan Elxearen barrutiak, Aita Santuaren Ordezko Erki-Buruak bitartez zaintzen dira. Guztiok Aita Santuak izentatzen dauz.

§ 2.—Aita Santuaren Ordezkoak eta Erki-Buruak bakotxa bere barrutiaren yabe egiten dira onantxe: Ordezkoa Aita Santuaren Idazkia, Erki-buruak Siñeskin-tza-zabaltzearen lanari buruzko Bazkunaren Lendakaria dan Kardenalaren idazkia erakutsirik arako Eleiz-barrutia 309g. arauak agintzen dauan lez zaintzen dauanari.

294g. araua. § 1.—Aita Santuaren Ordezko ta Erki buruok eurentariko bakotxaren barrutian goterkidun Obispo bakotxari bere goterkian dagokiozan eskubide ta al guztiak daukez, Aita Santuak zerbait eztautsala emoten esan ezik.

§ Yaureskuntzaz Obispo eztireanak be euren barrutiaren mugabarruan eta euren zeregiña dauken artean. benetako Obispoak direan onepen guztiak emon dagikiez, axe Obispo onespina deritxona izan ezik; yaupa-ontzi, patelak eta batetik bestera erabilteko yaupa-arriak santutu benetako Obispoak onetsitako orioagaz; berrogeta amar eguneko parkamenak emon; sendespen-ikurtona, eleiz-gizonai ule-mozketea egin eta berengo malletako yaureskuntzeak 782, § 2 eta 957, § 2g. arauetan esaten dan lez.

295g. araua. § 1.—Aita Santuaren Ordezkoak eta Erki-buruak belguntzari (Misiolari) guztiak baita Jaun-zaleak be nork norako ta zertarako bialduak direan difioen idatzizko agiriak erakusten beartuteko esku-

bidea dauke; ta norbaitek erakutsi nai ezpalegi, eleiz-gizonari dagokion ezer egi-tea eragozteko eskubide osoa dabe.

§ 2.—Belguntzari guztiak, baita Jaun-zaleak be, eleiz-gizonen zeregiñari buruzko edozer egiteko baimena Aita Santuaren Ordezko edo Erki-Buruari eskatu bear dautse; eurok, baña, eztautse ukatuko baimen ori, bat edo bateri benetako ziyo aztunez baño.

296g. araua. Belguntzari guztiak, naita Jaun-zaleak izan, Aita Santuaren Ordezko edo Erki-buruaren benetako menpeko dira, eta onek bakotxari zer egin aginduteko, agindutako lana zelan egiten dauan begiratzeko ta egiten dabezan okerrak arteztuteko eskubidea daukie urrengo zer guztiak buruz: belguntza-lanari, arima-zaintzeari, ikurtonak emoteari, ikastolak zuzentzeari, belguntzeari lagunduteko asmoagaz emondako eta azken-naietan itxilako ondasunai buruz.

§ 2.—Benetan Aita Santuaren Ordezko ta Erki-buruak eztauke eskubiderik eta ezertara be eztabe nastu bear Jaun-zaleen bizikereari dagokiozan zeretan noibaiti legeak atarako eskubidea argi emon ezpalegio, eta zer ori euren Nagusien ardurapean itxi bear dabe; orraitio iñoiz Aita Santuaren Ordezko nai Erki-buruaren eta Jaun-zaleen Nagusiaren artean eztabaidarik balitz or goragoan aitatu-tako zerai buruz, lelengoaren eskubidea beñagoa da ta bein-beñean berak erabagiten dauana egin bear da, naita bidea zabalik egon auzia Aita Santuagana eroateko. Baña gora yote orrek eztau kentzen bein-beñean bertoko Eleiz-nagusiak agindua bete-bearra. Ganera kontuan euki bear dira auzi oneri buruz, balegoz, Aita Santuak emondako lege bereziak.

297g. araua. Erri-gizonetzko yaupariak naikoa ezpalira, Aita Santuaren Ordezkoak eta Erki-buruak eskubidea dauke, euren nagusiari esanda, edozein jaun-zale, ostantxean euron menpeko eztireanak be, baña euron barrutian bizi direanak, parrokiak nai parroki-antzekoak zaintzea artzen beartuteko, Aita Santuagandiko lege bereziak eskubide ori kentzen ezpadautse.

298g. araua. Arima-zaintzeari buruzkoetan eztabaiden batzuk sortzea yazo baledi, bai belguntzari bakotxaren artean, bai Jaun-zale ta Erki-buruak begie al dabena eztabaidok len baño len ixildu daitezkan; eta bakes ixildu ezin dabezanak, agintza-bidez ixildu begiez. Euron aginduak eztautse auzilarioi Aita Santuagana yoteko eskubidea kentzen; baña Erroma'tiko ebatzia etorri artean gure Nagusien epaya lege dabe.

299g. araua. Aita Santuaren Ordezkoak Erroma'ra Aita Santua ikusten yoanbearra goterkidun Obispoai 341g. arauak aginduten dautsen lez egin bear dabe legez; orraitio eurok yoateko eragozpide aztunik balebe, Erroma'n bertan bizi dan ordezkoaren bitartez bete dagike egin bear ori.

300g. araua. § 1.—340g. arauan aginduten dan lez, gure Ordezko ta Erkiburuak beartuta dagoz euren gogo-zaintzeari buruzko

txosten oso ta zeatza Aita Santuari emotera. Txosten orretan Aita Santua yakitun egin bear dabe:

- 1.º Euron zeregiña betetzea zelan doakien;
- 2.º Bakotxaren barrutiari buruzko zerak zelan doazan:
 - a) Barrutia bera;
 - b) belguntzariak;
 - d) Jaun-zaleak. Jaunzaleai buruz: zeinbat eta zelangoak direan euren bizikereari buruz;
 - e) errikoen yardunbideaz;
 - f) ikastoletarako yoakereaz;
 - g) atzenez, eurok zaindu bear dabezanok zerurako bidetik aurrera yoateko zer egiten dan eta kistar-erriak zelan erantzuten dautsen.

Txosten ori Ordezkoak nai Erki-buruak idatzi bear dau, eta izenpetu berak eta ganera 302g. arauan aitatuten direanetariko aolkarietatik gitxienez batek.

§ 2.—Ganera, urtero urtearen atzenean beste txostentxo bat bialdu bear dautse Aita Santuari urtean kistartuak, ugutzatuak zeinbat izan direan, eta beste ikurtonetara zeinbesteko yokerea izan dan, eta azkenez yakingarrien guztiak esateko.

301g. araua. § 1.—Bakotxa ezarri dautsan barrutian bizi bedi, eta ziyo azun eta estu barik eta Aita Santua yakitun egin barik luzarorako andik alde egiterik etxako zillegi.

§ 2.—Eurai ezarritako barrutia bear dan guztietan arakatu bear dabe, al dala eurak, ta, eurak benetan eragotzita balegoz, ifloren bitartez, eta siñeskintzeari, bizikereari, ikurtonak emon-ukatuari, Jaunaren itza aldarrikatzeari, yai-egunak yagoteari, Jaunari zor yakona erakusteari, gaztediaren azi-ezikereari ta Elexeak agindutako bizikereari buruzko zer guztiak begiratu bear ditu.

302g. araua. Gitxiendik iru belguntzari zar eta zurrenakaz osotutako Aolkari-Bazkuna sortu bear dau, eta ebazkizun garrantzi andiko nastuxeak daukazanean euron eritxia eskatu begi. Batera batu eziñean, idazkiz beintzat emon bear dautse euren eritxia.

303g. araua. Al dala ta al danean, gitxiendik urtean bein, belguntzari guztiak, bai erritarrak bai Jaun-zaleak, eta guztiok ezin balitz, bikañenak beintzat batzarrera deitu begiz, bakotxari lanak eta buruak irakatsi dautsenetik gauzak zertan obeto eratu atarateko.

304g. araua. § 1.—Agiritegia yarteari buruz Obispoak beartzen dabezan legeak, non eta nortzukaz bizi direan kontuan eukita, gure Nagusiok be beartzen dabez.

§ 2.—Bardin Batzar beteai nai Obispo-Buru-erkikoai buruz 281-291g. arauak aginduten dabena, Siñeskintzea Zabaltzearen ardurea daukan Kardenal-Bazkunaren menpean dagozan alderdietan be, al dan bestean, bete bear da. Goterkiko batzarrari buruz 356-362g. arauetan aginduten dana Aita Santuaren Ordezkoaren barrutian be egin bear da; orraitio batzarrok noiz egin ezta eperik

izentetan; batzarrotan emondako legeak eztabez iragarriko Siñeskintzea Zabaltzeko Kardenalen Bazkunak begiratu ta ontzat emon artean.

305g. araua. Yakini begie gure Eleiz-Nagusiok euren ardurapeko barrutietan yayo ta bizi direanen artetikoetatik eleiz-gizon eta yaupari yatorrak azteko al izango daben guztia egiteko beartuta dagozala.

306g. araua. Gure Nagusiok leporatu dautsezan errien alde mezea emon bear dabe gitxienez urrengo egunetan: Jesukristoren Yayotza, Agerkunde, Berkizkunde, Zerura Igokunde, Gorputz-egunean, Espiritu Santuarenean, Andra Mari'ren Sorkunde ta Yasokunde-egunean, Yoseba Santuarenean, Pedro ta Paul Santuenean, Santu guztienean 339 § 2 ta urrengoetan arau orrek aginduten dauanaren arauz.

307g. araua. § 1.—Gure Nagusiok ezin legikioe, Aita Santuari ezer esan barik, beronek bialdutako belguntzari baimenik emon euren ardurapeko barrutitik betiko alde egiteko; ez beste nunbaitera aldatuteko, ezta bertatik jaurtigiteko be.

§ 2.—Orraitio norbaitek gaiztakerien bat agirian balegi, gure Nagusiok, euren aolkarien eritxia eskatuta, ta Jaun-zalea balitz okerra egin dauana, onen Nagusia be, al dala, entzunda gero, alde eragin dagikeo dagoan tokitik, baña len baño len yakitun egin bear dau Aita Santua.

308g. araua. Gure Nagusiok benetako Obispo balira, Goterki barik Obispo-izena daukienai dagokiezan edergarriak eta kutun-legeak dagokiez eurai be. Obispo ezpalira barriz, daben zeregin ori daukien artean eta zaintzen daben barruti-barruan Aita Santuaren gorengo mallako Aita Santuaren Ziñaldari-Buruai ta benetako arteko bazkideai dagokiezan edergarriak eta kutun-legeak dagokiez.

309g. araua. § 1.—Euren utsean bertako Nagusi izateko eskubideagaz Aita Santuak berak Lagunen bat emon ezpadautse, gure Nagusiok zaindu bear daben barrutira lenengoz eldu-alean, euren ordezkoa egiteko yaupari bat, nai erritarra nai Jaun-zalea, izentau begie.

§ 2.—Lagun orrek, Nagusia bizi dala eztauko ezer egiteko alik, Nagusiak zerbaite egiteko emon ezpadagio; baña bere Nagusiaren utsean, edo 429 § 1g. arauan esaten dan lez bere zeregiña bete eziña dauanean, Aita Santuak besterik aginduten eztauan artean, bere Nagusiaren eskubide guztiakaz zaindu bear dau barrutia.

§ 3.—Nagusi-ordezko onek be bere zeregiñaren yabe egin-ala, bere utsean barrutia zainduko dauan eleiz-gizona izentau bear dau.

§ 4.—Iñoiz yazoko balitz ez Nagusiak ez Nagusi-ordeak bere utsean zuloa nork beteko ez izentatzea, barrutian bertan dagoan eta aurrenen bertarako agiria erakutsi ebana dauko ordezkozat Aita Santuak lege onen bidez eta barrutia zaindu-bearra ezarten dautso. Eta Barrutira etorrietan ezpadadago iflor lenago

etorririk, batera etorriak baño, orduan yauparitzan zarragoak artu bear dau zeregin ori.

310g. araua. § 1.—309g. arau orrek aginduten dauan lez barrutia zaintzea leporatu yakonak len baño len yakitun egin bear dau Aita Santua.

§ 2.—Erroma'tiko erantzuna etorri artean gure Nagusien eskubide guztiak daukaz: bai 294g. arauan izentetan direan lege-berezkoak, eta bai lege-ganetik emonak. Ez orraitio Nagusiari urlia zalako emonak.

311g. araua. Gure Nagusiotarikoan bat epe jakinerako izentaua balitz, epea bete dauala ta beste barik eztau alde egin bear. Osetera, bertan yarraitu bear dau eskubide guztiakaz bere urrangoak toki ta zeregiñaren yabetzea artu artean.

IX Atala

Aita Santuaren bein-beñeko Goterkizañak

312g. araua. Legez eregitako Goterkia zaintzea, bertako Gotzain-aulkia nai beterik nai utsik dala, artarako ziyo aztunak eta bereziak dituala iñoiz Aita Santuak berak izentatzen dauan norbaiteri emoten dautso, batzuetan eperik izentau barik; beste batzuetan epe neurturako.

313g. araua. § 1.—Gure Goterki-zañak bere zeregiñari asierea emoten dautso:

a) Bizi balitz eta bere senean eta Goterkian balego, Obispoari berari izentapenaren agiria erakutsita.

b) Gotzain-elexako yaupari-batzarrari be bai, 334, § 3g. arauan aginduten dan lez.

§ 2.—Aulkia utsik balego edo Obispoa bere senean eta goterkian egon ez, Obispo barriak Goterkiaren yabetzea 334, § 3g. arauan aginduz artzen dauan lez.

314g. araua. Gure bein-beñeko goterki-zañaren eskubide, eginbear eta kutun-legeak izentaua dala erakusten daben agiririk yakin bear dira. Baña bertan ostantxekorik agertu ezik, urrango arauok aginduten dabenetik.

315g. araua. § 1.—Epe neurtu barik izentauak Obispoaren eskubide, kutunlege ta egin-bearrak dabez.

§ 2.—Epe neurturako emonak:

1.º Goterkiko Danerako Ordezkoak daukazan eskubide ta egin-bearrak daukaz; alan be, Obispoatren aulkia beterik dagoanean, goterkia zelan dagoan begira dagike eta Mezea erriaren alde emon-bearrak eztauko, ori Obispoari dagokiolako.

2.º Eder-erakutsiai buruzko kutun-legeai dagokanez 308g. arauan esana egin

bedi; baña beste goterki batera aldatuak bein-beñean lengoa zaintzea be baleuko, goterki zarrean be bertakoa zanean eukazan eskubide guztiak daukaz.

316g. araua. § 1.—Bein-beñeko Goterkizaña Obispoa daukan goterkiari emona balitz, Obispoaren eta bere Danerako Ordezkoaren aginpidea etenda gelditzen da.

§ 2.—Gure Goterki-zañak bertako Obispoa bertan egon ez arren, eztau nastu bear Obispoari buruzko arazoetan; ez aren Danerako Ordezkoaren aurka auzirik yarri be, ez zigorketarik ezarri bera etorri baño lenago egiñakaitik.

317g. araua. Aita Santuaren bein-beñeko Goterkizañaren lana eragotzita geldi baledi edo Goterki-zaña bera il baledi, len baño len yazo danaren yakitun egin bedi Aita Santua; ta bitartean, goterkia utsik balego, edo Obispoa bere senean ezpalego, 429 ta urrango arauak aginduten dabena egin bedi; ostantxean Obispoak berak zaindu begi goterkia, Aita Santuak bestela aginduta ezpadauko.

318g. araua. § 1.—Aita Santuaren bein-beñeko Goterki-zañaren aginpidea ezta amaitzen Aita Santua il dalako.

§ 2.—Amaitzen da barriz Obispo barriak 334, § 3g. arauak esaten dauan lez Goterki utsaren yabetzea artzen dauanean.

X Atala

Eleiz-Nagusi Apalagoak

319g. araua. Iñongo Obispodun goterkiren zati ez tirean lurraldeak bertan bizi direan gizakume ta eleizgizonakaz lateraz *nullius* (*diocesis*) dabe izena, eta lurraldeok zaintzen dauzanak Obispo-izenaren ordez Lekaipuru edo Lendakari dau izena; Lekaipuru, Jaun-zalea bada; Lendakari, erritarra bada.

§ 2.—Orretariko Eleiz-zatia, gitxienez iru parroki ezpaditu, bere-bereak dauzan legeak erabagiten daben lez zaindu bear da, eta ez beste bere senideen legeak aginduten daben lez.

320g. araua. § 1.—Onetariko Eleiz-buruak Aita Santuak izentau eta ezarten dauz, baña iñork baleu autu nai aurkeztuteko eskubiderik, eskubide orren kalte barik. Iñork eskubide ori dauanean, Aita Santuari dagokio autespena ontzat emon eta aurkeztuari zeregiña emotea.

§ 2.—Gure Eleiz-buruok Obispo izatekoak bear dabez legezko zer guztiak euki bear dabez.

321g. araua. Batzarren bateri balegokio gure Nagusienarikoan bat aututzeko eskubidea, autespentak, gauza izateko, autarki utsak kontuan artu barik, autarkirik geyenak bere alde izan bear ditu; baña autarki geyago eskatzen dauan legearen kalte barik.

322g. araua. § 1.—Gure Nagusiok ezin leitekez euron barrutiok zaintzen ez artez ez oker nastu, ez eurak ez inoren bitartez, euren zeregiñaren yabetzea legez artu baño lenago.

§ 2.—Gure Nagusiok, nai Aita Santuaren aginduz nai euren Lekaidetzako legez onetsi-bearra daukienok, Aita Santuaren idazkia artu ezkeru iru illabete-barruan, eragozpiderik ezpadabe, eurak gure daben Obispoaren onespena artu bear dabe.

323g. araua. § 1.—Gure Nagusiok bakotxak bere barrutian Goterkidun Obispoak daukiezan eskubide ta eginbearrak dabez.

§ 2.—Obispo-yaureskuntzarik ezpaleu, baña artu-bearra leukaken onespena artuta balego, 204, § 2g. arauan aitaututen direan zeren ganera, elexa ta altara aldagatxak be orio santuz santutu dagikez.

§ 3.—Danerako Ordezkoari buruz 336-371g. arauak aginduten dabena begie.

324g. araua. Gure Nagusion Batzarra Jaun-zalezkoa balitz, euren legeak aginduten dautsen lez yardun bear dau.

325g. araua. Gure Nagusiok benetan Obispoak izan ez arren, bakotxak zaindu bear dauan barrutian Obispo-yantziak erabilli dagikez eta eleketan Obispoak lez aulki ta aulki-ganekoagaz eleizkizunak egin; bularrean kurutzea, atzamarrean elestun bitxiduna ta buruan txapeltxo baltzerana edonon erabilli dagikiez.

326g. araua. Nausitzea erritarra balitz eta lagun egiteko Batzarrik ezpaleu, autu begiz aolkariak 423-428g. arauak aginduten daben lez.

327g. araua. § 1.—Gure Nagusion Aulkia utsik gelditu ezkeru, Jaun-zaleena balitz, barrutia euron Batzarrak zaindu bear dau, euren legeak besterik erabagita ezpadauke; erritarrena balitz ostera, Nagusi-elexako legezko Batzarrak; baña 432g. arauak eta urrengoak aginduten daben lez, aulkia utsik geldituta zortzi egun barruan Nausi-ordea autu bear dabe, eta Nagusi barria barrutiaren yabe egin artean bera zaintzea Nagusi-orde orreri dagokio.

§ 2.—Gure edozein Nagusik eragotzita baleu bere zeregiña betetzea, egin bedi 429g. arauak aginduten dauana.

328g. araua. Aita Santuaren etxeokoi buruz, Nagusi-izena nai izan nai izan ez, egin bedi Etxe orretako lege bereziak aginduten dabena.

VIII IDAZPURUA

Obispoen nagusitzea ta bera daukienci buruzkoa

I Atala

Obispoak

329g. araua. § 1.—Obispoak Apostoluen ondorengoak dira ta Jaunak berak aginduta elexa berezien buru dira ta eurok Aita Santuaren agintza-pean benetan euren daben alagaz zaintzen dabe ezarri yaken elexea.

§ 2.—Obispoak Aita Santuak nor gura egiten ditu.

§ 3.—Alan be, Obispoa aututeko eskubidea eleiz-batzarren bateri emon balenio, 321g. arauak agindua da lege.

330g. araua. Norbait Obispo autu-aurretik, Aita Santuak aginduta daukan lez artarako gai dala yakin bear da.

331g. araua. § 1.—Or ba, inor artarako gaitzat emoteko, izan bear dau:
1.º—Legezko ezkontzatik yayoa; ezta naikoa sasikume yaya geroko ezkontzaz legezkoa;

2.º Yayotza-ezkeru gitxienez ogeta amar urtekoa;

3.º Yauparitu ezkeru gitxienez bost urte dauzana;

4.º Ekanduz garbia, Jaun-zalea, arimazalea, sentzun andikoa ta ezarri nai yakon Goterkia zaintzeko aukerako egiten daben beste zer guztiak dauzana;

5.º Irakastetxe nagusien baten ikasketak eginda edo Teologian edo Eleiz-legeetan *Irakasle*-agiria artua; edo Irakasle-agiririk ezpaleu, inori irakasteko baimena artua; edo gitxienez gai bioi buruz benetan yakituna; Jaunzaletarikoak balitz, beuko yakintza-agiri bardiña bere Nagusienak emona; eta agiririk ezean, benetan yakituna dala diñoenen agiria.

§ 2.—Autu, aurkeztu nai izentatzeko eskubidea Aita Santuak emonda daukienak autu, aurkeztu nai edozelan izentauak be emen goragoan esan doguzan zer guztiak euki bear dabez.

§ 3.—Inor gai ete dan ala ez ebatzea Aita Santuari bakarrik dagokio.

332g. araua. § 1.—Obispo egin gura dan edonori, naita legez autua, aurkeztua edo Laterriko Buru nagusienak izentaua izan, bearreko yako zeregin ori Elexearen eskutik artzea, eta Elexan emoteko eskubidea Aita Santuak bakarrik dauko.

§ 2.—Eleiz-legeak aginduten daben lez norbait Obispo egin orduko 1406-1408garren arauak dakarren siñeskintza-autortzaz ganera, zin egin bear dau Aita Santuaren menpeko zintzoa izango dala.

333g. araua. Obispo izateko autuak, Erroma'ko Kardenal bada be, legezko eragozpenik ezpadau, Aita Santuaren agiria artu ta iru illa-

beteren barruan, jaureskuntzea artu bear dau, eta lau illabete barru, bere goter-kira joan, 238, § 2g. arauak agindua aurka ezjala.

334g. araua. § 1.—Goterkidun Obispoak eurai ezarritako goterkietan yatorrizko eskubidez dira bitarte bako artzañiak.

§ 2.—Orraitio goterkia zaintzen ez berbera ez iñoren bitartez, ez edozergaitik ezin leiteke sartu, goterkiaren yabe egin baño lenago; alan be, bertako Obispo izentau aurretik batzar-Ordezko, epaikari nai diruzain izentaua izanak zeregin ori yagon eta betetzen yarrai dagike, Obispo izentaua izan arren.

§ 3.—Goterkidun Obispoak goterkiaren yabe onan egiten dira: nai eurak nai euren ordezkioak Obispo-elexako eleiz-gizonezko batzarrari batzar orren zadorlaria edo Obispo-etxeko zifaldaria bertan dagoala eta bere aurrean egiten danaren barri idatziz ezarten dauala, bertako Obispo egiten dauan Aita Santuaren idatzizko agiria erakutsita.

335g. araua. § 1.—Eskubidea ta egin-bearra dau Goterkia zaintzeko, bai gogozkoai bai soñezkoai buruz. Orretarako ala emoten yako legeak egiteko, betetzen badabez ezpadabez epaitzeko, eta euren oldez bete nai eztabezanak artara beartzeko.

§ 2.—Obispoaren legeak bete-bearra iragarri-ala dakarre, legeak berak besterik esan ezpalegi. Zelan iragarri Obispoak berak erabagiko dau.

336g. araua. Beragoyoe Obispoak Elexearen legeak zintzo bete daitezkan; eta Elexa osoarentzako legeetatik azkatzeko, 81g. arauaren neurrian baño eztaukie eskubiderik.

§ 2.—Berabille begia bizkor Elexearen bizikeran okerrik sartu eztaiten, batez be urrengo zerai buruz: Ikurtonak eta ikurton-antzekoak emon-artukeran; Jaunari ta Santuai lotsea erakuskeran, Jaunaren itza irakaskeran, nekazkai buruzkoetan, Jaunaren maitez Elexeari emondako diru nai ostantzeko ondasunak zain-tzean ongilleen asmua betetzeari buruz; ekin begie siñeskintzaren garbitasuna bai eleiz-gizonen bai erritarren artean yagon daiten; ume ta nagusien yakin-ezari gogor egiten, batez be kistar-ikasbidea irakasteko alegiñak eginda; ikastoletan ume ta gazteen irakaskintzea Elexa katolikoak irakasten dauanagaz batera datorrena izan daiten.

§ 3.—Elexetan bertan Jaunaren Itza aldarrikatu-irakatsiari buruz egin bedi 1327g. arauak agindua.

337g. araua. § 1.—Obispoak bere goterkian edonon, bai bere menpetik ataratakoetan be, eleizkizunak Obispoari dagokiozan lez egiteko eskubidea dauko; ez ostera goterkitik kanpoan bertako Gotzañiaren bayezko barik, edo beren-beregi emona edo emoten dautsalako susterreko ustea daukala; edo Gotzañaren menpetik ateratako elexan balitz, bertako nagusiaren bayezkoagaz.

§ 2.—Gotzainkizunak egiteak lege-autuetan auxe esan nai dau: yaureskuntzalegeak, Obispo-soñekoak, au da, Obispo-makillea ta burukoa erabiltea aginduten dabezan eleizkizunak egitea.

Obispoak iñori Obispo-eleizkizunak egiteko baimena emotorduan, Gotzain-aulkia ta aulki-ganekoa erabilteko baimena emon legikeo.

338g. araua. Obispoak, Obispo-laguna eukita be, bakotzak bere goterkian bizi-bearra dauke.

§ 2.—Goterkitik alde yoañ daitekez: 1.º Legeak aginduta yoañ bear dabe-nean: a) Aita Santua ikusten; b) Eleiz-batzarretara, bazkide dalako; c) bere elexeari legez ezarritako Laterriaren zeregiñagaitik;

2.º Beste bidezko ziyoz be bai, ez baño illabete bi baño geyago edo geyenez be urtean iru illabete baño geyago, nai erabatera nai zatika, eta berak alde egite orrek goterkiari kalterik eztautsala ekarriko begiratuta gero. Ganera oneik opor-egunok eztauz artu bear bitarte barik goterkitik legez ateraten daben egunen ostean, esaterako: a) Obispo egin ebenean emon eutsen epeagaitik; b) Aita Santua ikusten yoañ-etorrienak; d) Batzarrean emonakaz; e) urrengo urteko opor-egunakaz.

§ 3.—Obispo-elexatik ezpegi alde egin Abendu ta Garizuman, ez Gure Jaunaren Yayotza, Berbizkunde ta Gorputz-egunean, ez Espiritu Santuaren egunean be, ziyo aztun eta estu barik.

§ 4.—Legezko ziyo ta baimen barik sei illabete baño geyago goterkitik alde balego, Obispoa balitz, Obispo-buruak 274g. arauak aginduten dautsan lez, ta erruduna Obispo-buru balitz, bere menpeko Obispo zarrenak Aita Santuari salatu begio.

339g. araua. § 1.—Obispoak, goterkiaren yabetzea artu ezkerro, ez etor-pide urriagaitik ez beste ezelango atxakiz itxi barik, igande ta beste legezko yai-egunetan (baita oraintsu kenduetan be), mezea euren erriaren alde emon bearra dauke.

§ 2.—Jaunaren Yayotza-egunean eta yai-egunen bat igandean yausi baledi, naikoa dabe erriaren alde meza bakarra emotea.

§ 3.—Yayen bat beste egun batera aldatzen danean, eta egun orretan erriak be yai balegi mezara yoañ ta morroi-lanik egiten eztauala, erriaren aldeko mezea egun orretan emon bear dau. Ostantxean yai-egunean berean.

§ 4.—Esandako egunetan mezea erriaren alde Obispoak berak emon bear dau. Legezko meza-emon-eziña baleu, iñoren bitartez. Eta ori be ezin baleu, edo berak edo iñoren bitartez len baño len emon bear dau.

§ 5.—Obispoak goterki bi nai geyago batera zaindu-bearra daukanean, goterkiok edozelan batuta dagozala, erriaren alde meza-emon-bearra meza bakarra-gaz kituten dau.

§ 6.—Arau onen aurreko txatalean azaldu dan egin-bearra bete barik baleuko Obispoen batek, erriaren alde emon barik daukazan mezok len baño len emon begiz.

340g. araua. § 1.—Bost urterik bost urtera Obispo guztiak bakotzak bere goterkiaren gora-beren yakitun egin bear dabe Aita Santua, beronek agindu dautsezan itaunai zintzo erantzunik.

§ 2.—Bost urte-urrenok beti epe berean betetzen dira, eta 1911garren ur-

taillaren lenengo egunetik asita zenbatzen dira. Bost urreneko lenengo urtean txostena bialdu bear dabe: Italia, Korzega, Zerdefia, Sizilia, Malta ta beste inguruko ugarte txikietako obispoak; bigarrenean: Espafia, Portugal, Frantzia, Beljika, Holanda, Ingelanda, Eskozia ta Erin'go ta inguruko beste Ugarteetako Obispoak; irugarren urtean beste Europa'ko ta alboko Ugarteetako Obispoak; laugarren urtean Amerika osoko ta inguruko Ugarteetako Obispoak; boskarrenean Aprika, Asia, Australia ta ludiko zati onein ondoko Ugarteetako Obispoak.

§ 3.—Txoxten ori emoteko urtea, nai osorik nai txatalen baten, Obispoak bere goterkiaren zaintzea artu ebanetik lenengo urte bietan yausi baledi, txosten ori egin eta emotea urrengo bost-urte-urrenerako itxi legike.

341g. araua. § 1.—Obispo bakotxak eta guztiak txosten ori emon bear daben urtean Erroma'ra Kepa ta Paul Santuen il-obiak ikusi ta Aita Santuagana agertu bearra daukie.

§ 2.—Baña Europa'tik alde dagozan Obispoai bigarren bost-urte-urrenean, edo amar urterik amar urtera, Erroma'ra yoan bear ori ezarten yake.

342g. araua. Esandako egin-bear ori Obispoak, Obispo-lagunik ezpadau, berak egin bear dau, edo goterkian bertan bizi dan yaupari baten bitartez, Aita Santuak ontzat emondako zertzukaitik Obispoak berak yoan-ezifia baleu.

343g. araua. § 1.—Irakaskintza katolikoa yagoteko, ekandu onai indarra emoteko, okerrak arteztuteko, bakeari, zintzotasunari, Jaunagazko seme-alaba yatorren artu-emonai, ta zuzenbideari eleiz-gizonen eta erritarren artean indarra emoteko eta Jaunari buruzko arazoai lagun etorteko, Obispoak urtero goterki osoa edo bere txatal bat ikusi bear dau, bost urte barruan goterki osoa ikusteko, al dala, berberak; berak ezifian, bere Danerako Ordekoaren edo beste norbaiten bitartez.

§ 2.—Goterkia ikusten daragoyonean Obispoak bere lagun eta laguntzalletzat yaupari bi artu ta erabilteko eskubidea dauko, bere Obispo-elexako nai beste edozein elexako batzarreko bazkide direanetatik berak guren dabezanak artuta. Zer oneri buruz Obispoaren azkatasunaren aurkazko edozein ekandu, okerra dalako, kendu egin bear da.

§ 3.—Egin-bear larri oneri Obispoak uts balegio, 274 § 3 ta 4g. arauan aginduten dana egin bear da.

344g. araua. § 1.—Obispoaren legezko ikusi-agindu onen menpeko dira goterki-barruko lagunak, zerak eta otoiz-toki guztiak; bai ta aren menpetik ateratakoak be, Aita Santuak ikusi onetatik azke beren-beregi emon ezpalitu.

§ 2.—Alan be, Obispoak ezin dagikez ikusi Jaun-zale azkatuak, legeak atarako eskubidea beren-beregi emoten dautsanean baño.

345g. araua. Ikusleak, bere zeregifari dagokiozan zeretan, aitazurrean yardun bear dau; beraz, aren agindu ta erabagien aurka

eztago gora yoteko eskubiderik, agindu ta erabagiok goitiko erantzuna etorri artean bete-bearra kentzeko indarragaz; Obispoak erabagia goyan ontzat emon ezpalegie, yakiña, erabagi orrek eztauko gerorako indarririk. Beste zereginetan, obispoak, ikustaldi egunetan be, auziak auzilegez aztertu ta epaitu bear ditu.

346g. araua. Alperriko astiro ekite eta diru eralgiketa barik iñori bear dan baño aztunago ez egiteko, begiratu begie Obispoak zeregin au zoli burutzen. Eta ikuste au dala bide Obispoak eurak edo euren lagunen batek nai norberetzat nai norberekoentzat edozertariko saririk ez eskatu ez artu ezpegie egin. Lege onen aurkako edozein ekandu txartzat emoten da. Obispoari berari ta bere lagunai yan-edana emoteari buruz eta biderik-bide ibilteagaitik zer emon bear yakon, goterki bakotzeko legeak erabagi begie.

347g. araua. Obispoak bere goterkian beste edozein Obispo edo Obispo-buru baño aurrerago yarteko eskubidea dauko. Toki ori bakarrik itxi bear dautse Kardenalari, Aita Santuaren Ordezkoari ta bere Obispo-buruari. Goterkitik alde legokenean, 100g. arauan emonda dagozan legeak bete bear ditu.

348g. araua. § 1.—Izen utsezko Obispoak eztauke ezer egiteko eskubiderik izena emoten dautsen tokian. Benetan aren yabe ez tira izan be ta.

§ 2.—Orraitio eleukie okerririk egingo nozean bein mezea aren alde emonagaz; baña ezertariko egin-bear barik.

349g. araua. § 1.—Obispoak, bai goterkidunak, bai izen utsezkoak, Obispo egin dabela legezko bidetik yakin ezkerotik:

1.º Araudi onen beste toki batzuetan emoten yakezan kutun-legeez ganera, eurenak dabez 239g. § 1, 7.º-12.º arauan ezarrita dagozanak; bardin 2.º zenbakikoa, bai bertako Goterkizañarentzat baztertuta dagozan pekatuai buruzkoa be; 4.º zenbakikoa be bai, Obispo-elexan mezea emon-bearra ezpada be; 5.º ta 6.º zenbakikoak be bai, baña Elexeak atarako aginduta daukazan otoitzakaz.

2.º Obispo-ezaugarriak yaureskuntzeari buruzko idaztiak aginduten daben lez erabilteko;

§ 2.—Goterkiaren yabetzea artu ezkeroko eskubidea dabe ganera:

1.º Gotzain-bizibiderako izentauta dagozan ondasunen mozkiñak eurentzat artzeko;

2.º Berak zaindu bear dauzan toki guztietan 50 eguneko nekazkak emoteko;

3.º Bere goterkiko elexa guztietan Obispo-aulkia dagokion ganeko estalgiagaz erabilteko.

II Atala

Obispoen Lankide ta Laguntzalleak

350g. araua. § 1.—Aita Santuak bakarrik dauko eskubidea Obispoari Obispokidea ezarteko.

§ 2.—Obispokidea geyen baten, bere ondorengo izateko eskubideagaz ezarten yako Obispoari; noizbait baña goterkiari emoten yako.

§ 3.—Obispoari berari bere ondorengo izateko eskubide barik emoten yakon Lankideari *Obispo-laguntzaille* izena emoten yako.

351g. araua. § 1.—Obispoari berari ezarritako Kidearen eskubideak atarikitat ezarten dauan Aita Santuaren idazkitik ikasi bear.

§ 2.—Idazki orretan bestera oar ezik, osoan gauza eztan Obispoari ezarten yakon Kikeak Obispo-eskubide ta egin-bear guztiak daukaz; oraindik lan egiteko gauza dan Obispoari emondako Lagunak, Obispoak berak emoten dautsazan eskubideak bakarrik.

§ 3.—Lagunak egin al eta nai dauzanak ezpegioz Obispoak beste ifiori egiteko ezarri.

§ 4.—Bidezko eragozpideak lotuta ez-legoken Lagunak Obispoak agintzen dautsan guztietan Obispoak berak egin legikezan Obispokizunak eta ganeko zer guztiak egin bear ditu.

352g. araua. Goterkiari berari emondako Obispokideak, yaureskuntzaz be Obispo balitz, bertako Obispoak dagiken dana dagike; ostantxean, Aita Santuak nai Obispoak egiteko esan dautsena.

353g. araua. § 1.—Edozein Obispo-lagunek bere zeregiñaren yabe egiteko, alangoa izentau dauan Aita Santuaren idazkia Obispoari erakutsi bear dautso.

§ 2.—Obispoaren ondorengo izateko eskubideagaz izentautako Kideak eta Goterkiari berari emonak Aita Santuaren idazkia Obispo-elexako Batzarrari be erakutsi bear dautso 334. § 3g. arauan aginduten dan lez.

§ 3.—Zer egiten dauan konturatu-eziñeraño galdu balegi burua Obispoak, arau onen § 1 esana egin barik, Lagun guztiak § 2 aginduten dana bakarrik begie.

354g. araua Edozein Laguntzallek, Obispoak berak lez, goterkian bizi bear dau eta bertatik alde egiterik etxako zillegi epe laburrerako ta Lagun yakon Obispoaren baimenagaz baño; orraitio 338, § 1g. arauan emonda dagozan opor-egunak izateko eskubidea daukie.

355g. araua. § 1.—Obispoaren ondorengo izateko eskubidea daukan Laguntzallea, Obispo-aulkia utsik gelditu ezkeru, bertatik ango Obispo eginda gelditzen da, ortxe 353, § 2g. arauan esaten dan lez aren yabetza artuta balego.

§ 2.—Obispoaren zeregiña edozelan amaitu ezkeru, Obispo-Lagunarena be amaituta dago, izentau eban Aita Santuaren idazkiak ostantxekorik esan ezik.

§ 3.—Laguntzallea Obispo-aulkiari emona balitz, aulkia utsik gelditu arren ezta aren kargua amaitzen.

III Atala

Goterki-batzarra

356g. araua. § 1.—Goterki bakotxean amar urte-urren bakotxean Goterki-batzarra egin bear da. Bertako ebazkizun bakarrak eleiz-gizonai ta erritarrai buruzkoak.

§ 2.—Obispoak goterki bat baño geyago zaindu balegiz, nai eskubide bardiñakaz betiko bat egiñak, nai bat egin barik, beste goterkia be zaindu-bearra ezarri baleutse, zaintzen dauzan guztientzat Batzar bakarra dagike.

357g. araua. § 1.—Batzarrerako deya egin eta Batzar-buru izatea Obispoari dagokio; ez, ostera, danerako Ordezkoari ezta Batzar-Ordezkoari be.

§ 2.—Obispo-elexan egin bear da, bidezko zerbaitek beste nonbaiten egitea eskatu ezik.

358g. araua. § 1.—Batzarrera deituak izan eta bertara etorri bear dabe:

1.º Danerako Ordezkoak;

2.º Obispo-elexako Batzarraren bazkideak eta goterkiko Aolkariak.

3.º Goterkiko yaupari-gayen azi-ezi-etxeko Jaurleak. Orretariko etxe bat baño geyago balegoz, gitxienez Nausienarenak;

4.º—Parrokizain-buruak.

5.º Eleiz-gizonezko Batzarraren elexa bakotxaren ordezkoak, Bazkunaren bazkideak aututa;

6.º Batzarra egiten dan uriko parroki-zañak.

7.º Parroki-zain-burutza bakotxetik gitxienez parroki-zain batek, bertan arima-zaintzea dauken guztiak autuak; parroki-zain autua dan orrek, parrokitik alde izango dan eperako bere ordezkoa yarri bear dau 465, § 4g. arauan esaten dan lez.

8.º—Benetako etxe-zain direan eta Lekaipuru (Abbas) izena dauken Jaun-zaleen Nagusiak; ganera, goterkian legokezan eleiz-gizonezko Jaun-zaletza bakotxeko bat euren Erkabak izentauak, Erkabak goterkian bizi dala-ta berberak yon naiago ezpaleu.

§ 2.—Obispoak, alan baderitxo, oraindiño beste norbaitzuk be deitu dagikez batzarrera: esaterako eleiz-batzarreko bazkide guztiak, parroki-zañak, Jaun-zaleen Nagusi guztiak; baita goterkiko abade erritar bakotxa ta guztiak be, arimak zaintzeko bear izango direanak izan ezik; eta deitu guztiak eskubide bardiña dabe ebazkizunak ebazketan, Obispoak berak deyan bertan ostantxekorik esan ezik.

359g. araua. § 1.—Batzarrera etorri bear dabenak, benetako eragozpidea balebe eurak yoateko, eztauke eskubiderik euren ordezkoarik bialtzeko; baña zer yazoten yakenaren yakitun begie Obispoa.

§ 2.—Nagikeriz eztatorzanak zigortu dagikez Obispoak, bere menpetik aterata dagozan Jaunzaleak ezpallira.

360g. araua. § 1.—Obispoak, ondo baleritxo, Batzarreko deya egin-aurretik izentau dagikez bat nai geyago, Batzarrean ebaztekoak gertatu dagiezan.

§ 2.—Batzarreko ekitaldi bakotxaren aurretik ebazkizuna zer izango dan yakin erazoteko ardurea artu bear dau Obispoak.

361g. araua. Ebazkizun guztiak, Obispoa berbera edo bere Ordezkoaren bitartez buru dala, atzenaren aurretiko batzaraldietan, bazkideen azkatasun osoko ezta-baideari egotzi bear yakoz.

362g. araua. Batzar onetan legegin bakarra Obispoa da; beste guztiak bakotxak bere eritxia emoteko baño beste eskubiderik eztauke; orregaitik, Obispoak berak bakarrik ezarten dautse bere izena Batzarreko erabagiai. Bertan aginduak, batzarrean iragarri ezkeru, bete-bearra berealaxe sorzen dabe, ostantxekorik oartu ezik.

IV Atala

Obispoaren etxeokak

363g. araua. § 1.—Obispoaren etxeokak dozuz Obispoari nai Obispoaren ordezkotzari osoa zaintzen lagun egiten dautsen guztiak.

§ 2.—Beraz, etxeokak dira: a) Danerako Ordezkoa; b) epaikaria; d) Idazkaria; e) Zuzenaren Aldezlaria; f) Ezkontzearen aldezlaria; g) Batzarreko epaikari ta azterkariak; i) parroki-zain-aolkariak; j) epaikari-lagunak; k) Ziñaldariak; l) mandatariak; m) amabiak.

364g. araua. § 1.—Zeregiñok betetzeko izentatzea idatziz egin bear da 159g. arauan aginduten dan lez.

§ 2.—Izentauok barriz egin bear dabe:

1.º Bakotxari ezarri yakon zeregiña zintzo, norkeririk barik, egingo dabelako zin-itza emon Obispoaren eskuetan.

2.º Bakotxak dagokiozan arazoak Obispoaren menpean burutu.

3.º Ixilik euki legeak nai Obispoak ixilik eukiteko aginduten dabezanak.

365g. araua. Epaikariari, zuzenaren aldezlariari, ezkontzearen aldezlariari, Batzar-epaikariari, epaikari-lagunai, mandatariari ta amabiari buruz egin bedi 1573-1593g. arauak aginduten dabena; Danerako Ordezkoari, Idazkariari ta beste Ziñaldariari, Batzar-aztertzaileari ta parroki-zain-aolkariari buruz egin bedi urrengo arauak agindua.

I Atalka

366g. araua. § 1.—Goterkia ondo zaintzeko bearrekoa dala ikusi ezkeru, Obispoak bere Danerako Ordezkoa, au da danerako eskubidea izango dauan bere Ordezkoa izentau bear dau. Onen zeregiña da legeak berak emoten dautsan alaren bitartez Goterki osoan Obispoari lagun egitea.

§ 2.—Danerako Ordezkoa Obispoak izentatzen dau berak nor gura; kendu be berak noiz gura.

§ 3.—Bat bakarra izan bedi, yaureskera banak edo Goterkiaren zabalak bat baño geyagoren bearra izan ezik; baño Danerako Ordezkoa Goterkitik kanpora yoan dalako edo bere lana egin-eziñean, Obispoak, aren ordezkoa egiteko, beste norbait izentau dagike.

367g. araua. § 1.—Danerako Ordezkoak izan bear dau:

1.º Erri-abadea; 2.º gitxiendik ogeta amar urteduna; 3.º Jaunari buruzko edo Eleiz-legeari buruzko yakintzan Irakasle-izena daukana, edo bein-beinean bata nai bestea irakasteko baimenduna edo yakintza-gai biotan benetan yakituna, yatorra, yakintzaz, sentzunez eta arazoak burutzeko zurtasunez aintzat artua.

§ 2.—Goterkia zaintzea Jaun-zaleen-Bazkunen bateri emonda balego, Danerako Ordezkoa eurretarikoa izan daiteke.

§ 3.—Danerako Ordezko ezpedi izentau Obispo-elexako Batzarreko bazkide dan autortza-entzulea, ezta Obispoaren senide danik be, batez be lelengo nai bigarren mallako litzakenik; ezta, ezin bestean ezpalitz, parroki-zain edo arima-zaintzea daukan beste iñor; etxako eragozten, baño, Obispoari Danerako Ordezkoa goterki bertako eleiz-gizonetatikoa egiterik.

368g. araua. § 1.—Bein izentauta egon ezkeru, ta bere zeregiñak emoten dautzan eskubidez, Danerako Ordezkoari goterki osoan bai lurreko bai zeruko arazoari buruz Obispoari berari dagokion eginpide osoa dagokio, Obispoak berak beretzat baztertu dauazanak edo legeak berak Obispoaren baimen berezia eskatzen dabenerarikoen bat izan ezik.

§ 2.—Ostantxekorik argi oartu ezik, Danerako Ordezkoari bere Obispoari nai aurreko Goterki-zañari agindutako Aita Santuaren idatzizko erantzunak egiteko esaten dautsena egitea dagokio, eta geyen baten berari be badagokio Aita Santuak Obispoari sarri ebatzi bearke dauzan arazoak agertu-alean ebazteko emoten dautsan eskubidea, 66, § 2g. arauak oartzten dauan lez.

369g. araua. § 1.—Danerako Ordezkoak yakinerazoz begioz Obispoari Obispo-etxeok lantegietan egin dan guztia, eta beti be yakitun euki bear dau bai erritarrak bai eleiz-gizonak kistarrak lez bizi daitezkan zer egin dan eta zer egiteko direan.

§ 2.—Kontuz ekin begio beti bere eskubideak erabiltzean Obispoaren eritxi ta gurearen aurka iñor ez egiteko, 44, § 2g. arauan erabagita dagoana aitzu barik.

370g. araua. § 1.—Obispoa bertan dagoala be Danerako Ordezkoak goterkioko eleiz-gizon guztiak baño goragoko mallan yarteko eskubidea dauko, bai guztien aurrean, bai batzuen aurrean; Obispo-elexako Batzarreko edozein bazkide baño be gorago, naita batzar-tokian bertan bazkideak batzarrean egon. Bera baño gorago yarten eztautso iñori itxi bear, bestea eleiz-gizon obispotua ezpalitz eta bera ez.

§ 2.—Danerako Ordezkoa yaureskeraz Obispo balitz, izen utsezko Obispoen lotsa-erakutsi ta kutun-legeak daukaz; ostantxean, oraingo zeregiña daukan artean Aita Santuaren Ziñaldari-izena daukienen ezaugarriak eta eskubide bereziak.

371g. araua. Danerako Ordezkoaren zeregiña 188-191g. arauak erabagiten dabenean lez amaitzen da: 1.º Ordezkoak berak itxita; 2.º Obispoak kentzen dautsanean kentze ori iragarten dautsenean; 3.º Obispoari edozelan gotzaintzea amaitzen yakonean. Eten egiten yako, Obispoaren goterki-zaintzea eten baledi.

II Ataldea

Idazkaria (Zadorlaria) ta beste Ziñaldariak eta goterkiko agiritegia

372g. araua. § 1.—Obispo guztiak bere etxean abade izan bear dauan Idazkaria (Zadorlaria) izentau begi; beronen zeregiñik beñena Obispo-etxeko lantegietan idazten direan idazkiak Goterkiko agiritegian yagotea da, noiz idatziak begiraturik, bakotxa bere tokian; lenago idatziak aurrerago, geroago idatziak atzerago.

§ 2.—Bear izan ezkeru, laguna be emon legikeo; onen izena Idazkari-ordea nai agiritegi-zain-ordea litzake.

§ 3.—Gure Idazkari au berez dozu Ziñaldari.

373g. araua. § 1.—Idazkariaz ganera, izentau dagikez Obispoak beste ziñaldari batzuk be eurak idatzi nai atzenean euren izena ezarrita idatziaren egizkotasuna siñeskarri egiteko.

§ 2.—Ziñaldariok izentau leitekez edo edozein arazorako edo auzi-arazoetarako bakarrik; edo baita auzi nai ostantxeko arazo bakarretako be.

§ 3.—Eleiz-gizonik ezean, errikotarretatik be izentau leitekez; orraitio eleiz-gizonen okerren bateri buruzko auzian ziñaldariak abadeak izan bear dau.

§ 4.—Idazkariak eta ganeko ziñaldariak izen onekoak eta susmo txarrari nondik sartu izten eztautsenak izan beitez.

§ 5.—Guztiok kendu nai epe baterako lotu dagikez sortu ebazanak edo onen ondorengoak edo Nagusiagoak; ez baña Batzar-Ordezkoak, Batzarraren baimenagaz ezpaltiz.

374g. araua. § 1.—Ziñaldarien egitekoa da:

1.º Auziai buruzko erabagiak, egin-bearrak, deyak eta iragarpenak, epayak idaztea ta euren bearra daukien beste zer guztiak idatziz egitea;

2.º Euren aurrean egiten dana, non eta noiz egiña dan esaten dabela, zintzo zintzo idatzi; zein urteko ta illabeteko egunean egiña izan dan;

3.º Legezko eskubideagaz agirien bat eskatzen dauanari agiritegiokoaren birridazpena emon eta birridatzi ori agiritegian yagonda dagoan yatorrizko idatziaz bardin dalako autor-itza emon.

§ 2.—Ziñaldariak eztauko legezko indarra izango dauana idazteko eskubiderik izentau eban Obispoaren barrutian baño; eta arazoen baterako izentauak, arazo orreri buruzkoetan baño.

375g. araua. § 1.—Goterkiko agiritegia Obispoak toki seguru ta ero-soan yari bear dau; ta bertan yagon bediz betiko ta orain-go bizitzeari buruzko Goterkiaren eskubide-egin-bearrai dagokiezan agiriak, bakotxa bere tokian eta giltzeri ondo itxita.

§ 2.—Zoli ta ayola osoagaz egin bedi agiritegian dagozan idatzi guztien billabidea be, agiri bakotxak zer diñoan labur esanik.

376g. araua. § 1.—Urtero lelengo illabete bien barruan aurreko urtean egindakoak, eta baita zabarkeriz bertan sartu barik gelditu zirean agiri guztiak agiritegian sartu ta billabidean izentautu itxi bediz.

§ 2.—Gotzaniak zoli billatu begiez edozelan beste nonbaitera eroanak eta agiritegitik alde gelditu direan idatzizko agiriak, eta bear litzakezan bide guztiak egin agiriok agiritegira ekarteko.

377g. araua. § 1.—Agiritegiak giltzez itxita egon bear dau eta etxako iñori zillegi bertan sartzerik Obispoaren edo Danerako Ordezkoaren eta Idazkariaren baimen barik.

§ 2.—Bere giltzea Idazkariak bakarrik dauko.

378g. araua. § 1.—Ezta zillegi agiritegitik agiririk ateraterik Obispoaren edo Danerako Ordezkoaren baimen barik; eta eurok iru egun barru atzera euren agiritegiko tokira ekarri bear dira. Gotzaniak badau benetan epea luzatuteko eskubidea; baña luzatze onek beti neurrizkoak izan bear dau.

§ 2.—Agirien bat agiritegitik ateraten dauanak urlia agiria berak eroan dauala bere eskuz idatzita itxi bear dautso agiritegi-zañari.

379g. araua. § 1.—Obispoak beuke ganera beste agiritegi bat be, edo gitxienez esandako agiritegian itxi-itxita bere giltza berezia dauan arasa nai kutxa bedegarra eta dagoan tokitik aldagatxa. Bertan yagon bediz zoli be zoli ixilik eukiteko idatzizko agiriak; baña urte bakotxaren asieran len baño len erre bediz bertako errudunak il badira, edo amar urte direala erruduntzat emon eban epayagaz amaitu zan auziari buruzkoak, auziaren edesti laburra epayagaz batera bertan yagonda.

§ 2.—Ixileko agiritegi nai arasearen billabidea be 376, § 2 arauak diñoan lez egin bedi.

§ 3.—Alkarren artean bardiñak ezterean giltza bigaz zabaldu bedi agiritegi edo arasa au; bata Obispoaren edo Aita Santuaren bein-beñeko Goterki-zañaren eskuetan, bestea Danerako Ordezkoaren edo au ezean, Obispo-etxeko Idazkariaren eskuetan yagon bediz.

§ 4.—Obispoak nai Aita Santuaren bein-beñeko Goterki-zañak, bigarren giltzea eskatuta iñor lagun eztauala, berak bakarrik, ixileko agiritegia edo arasea zabaldu ta begiratu dagike, eta gero giltza biakaz itxiko dau.

380g. araua. Obispo-aulkia utsik gelditzen danean, goterkiaren yabe eginda bertatik, Obispoak berak eukan ixileko agiritegi edo arasearen giltzea artu bear dauan abadea izentau begi.

381g. araua. § 1.—Aita Santuak Goterkia bein-beinean norik zaindu emon ezpadutso;

1.º 429, § 1g. arauak diñean lez aulkia eragotzita gelditu baledi, eta goterkia zaintzea Obispoak izentau eban eleiz-gizonak baleu, Obispoak bere giltza-zain izentautako abadeak aldean daukan giltzea berealaxe berorreri emon bear dautso; baña giltzea Danerako Ordezkoak baleu, ezpegio iñori emon, berak euki baño.

2.º 420, § 3g. arauak diñean lez Obispo-aulkia utsik edo eragotzita balego, gure giltza-zain abade orrek bemoyo berak daukan giltzea Batzar-Ordezkoari izentaua izan dana yakinda bertatik; Danerako Ordezkarriak edo agiritegi-zañiak eurotariko batek eukan giltzea bemoyo Obispo-elexako Bazkunaren Buruari edo goterkiko Aolkari zarrenari.

§ 2.—Or arau onen lelengo atalean esaten direnait giltzok emon artean, Danerako Ordezkoak eta agiritegi-zañiak eta Obispoak esan dan lez izentauak, ixileko agiritegi nai kutxea Obispo-erxeke ikurtzakaz barriro itxi begie.

382g. araua. § 1.—Agiritegia edo arasea ezpediz iñoiz zabaldu ta ikurratzak be ezpediz kendu bear estuak eraginda baño, ta Batzar-Ordezkoak berberak, zabalduko dau, agiritegiko idatzirik ostu eztagian begiratu bear daben Obispo-elexako Batzarren bazkide edo Goterkiko Aolkari biren aurrean; Batzar-Ordezkoak bakarrrik, baña, Batzarreko bazkide bi edo goterkiko aolkari bi bertan direala begiratu ta aztertu dagikez agiritegian zainduta dagozan agerkayak, ez baña orraitio andik atera. Eta agiritegi-ikusketa ori egin-dakoan, barriro itxi ta ikurraztu bear da.

§ 2.—Obispo barria datorrenean, ikurratzak kendu badira ta agiritegia edo arasea zabaldu, Batzar-Ordezkoak zein bear estuk eraginda ori egin eban erakutsi begi.

383g. araua. § 1.—Obispoak arduratu beitez Obispo-Elexako Batzarrak, beste eleiz-batzarrak, parroki-elexak, eta kistar-bizikerea guriago biziteko kistar-erriak sortuta daukazan bazkunak, bakotzak bere agiritegia euki eta bertako agiri guztiak birritan idatziak izan daitezkan, eta iyeki bata goterkiko agiritegian yagon, 470, § 3, 1522, 2, 3.º, 1523, 6.º arauetan aginduaren kalte barik.

§ 2.—Jatorrizko agiriak ezpediz agiritegiotatik atera 378g. arauak aginduten dauan lez baño.

384g. araua. Parroki ta Goterkietako agiritegietan ixil-legepean eztagozan agiriak ikusi-gura bidezkoa daukan edonori zillegi yako eurok ikustea; baita, arako lana bear dan lez ordaindu ezkerro, agiri baten nai batzuen birridazpena eskatutea be.

§ 2.—Obispo-etxeetako agiritegi-zañiak, parroki-zañiak eta ganeko agiritegi-zañiak agiriok iñori erakusteari ta birridazteari ta iñori emoteari buruz legeko Nagusiak emondako arauak bete begiez; eta zer egin eztakienean, yo begie Goterkia-zañagana.

III Atalkia

Batzar-aztertzaileak eta parroki-zain Aolkariak

385g. araua. § 1.—Goterki bakotxean begoz Batzar-aztertzaileak eta parroki-zain-Aolkariak; guztiak goterki-batzarrean Obispoak aurkeztuta, batzarrak ontzat emonak.

§ 2.—Obispoari bear izango direala deritxoanek beste izentau bediz; baña gitxienez lau, ta geyenez amabi.

386g. araua. § 1.—Batzar batetik bestera il direan edo ostantxean euren lana edozelan ezin-egiña agertua yaken batzar-aztertzaile nai parroki-zain-Aolkariak, bere elexako Batzarra entzunda gero, Obispoak ordezkoak izentau begioez.

§ 2.—Olantxe yokatu bear dau Obispoak aztertzaile ta aolkariok izentatzeari buruz Goterki-batzarrik eztagoanean.

387g. araua. § 1.—Aztertzaile ta parroki-zain-aolkariok izentau ebezan ezkerro amar urte yoan badira, euren zeregiña galdu egiten dabe, eta baita lenago be, bitartean beste goterki-batzar bat egin baledi; baña eskua ezarrita eukan ebazkizuna burutu dagikie eta bai batzar barri orretan barriro izentauak izan be.

§ 2.—Bitartean uts egin daben aztertzaile ta parroki-zain aolkarien ordez izentauak, ordeztu dabezanak iraungo eben artean bakarrrik irauten dabe.

388g. araua. Obispoak eztagikez kendu ziyo astunagaz eta Obispo-elexako Batzarren eritxia entzunda baño.

389g. araua. § 1.—Batzar-aztertzaileak euren lana zoli begie, batez be parroki-zañiak gai badira-ezpadira yakiteko egin bear direan alegiñetan eta 2.147g. eta urrengo arauak zuzentzen dabezan ebazkizunai buruz.

§ 2.—Norbait eleiz-gizontzeko edo yaureskuntza malletan gorago yarteko, kistarren autortzak entzuteko baimen-eske datorzan yaupariak nai Jaungoikoaren itza aldarrikatzeko eskubide eske datorzanak aztertzeko eta 130g. arauak aginduten dauzan azterketak egiteko, Obispoak bere aukeran dauko edo oneik gure aztertzaileok erabili edo berak naiago leukezan beste norbaitzuk.

390g. araua. Bat bera izan leiteke batzar-aztertzaile ta parroki-zain-aolkari; ez alan be ebazkizun berberean.

V Atala

Legezko eleiz-gizonezko Batzarrak

391g. araua. § 1.—Obispoaren elexan eleiz-gizonezko batzarrak egon bear dau Jaunari zor yagon yaureskuntzea argiago ta dotoreago egiteko, ta Obispoari bere zeregiña burutzen lagun egiteko ta Obispoaren utsean aren ordez Goterkia zaintzeko sortua.

§ 2.—Goterkiko beste elexa batzuetan be baleiteke egotea legez sortutako eleiz-gizonezko batzarra. Onen zeregin bakarra Jaunari yauresketea andikiro egitea.

§ 3.—Onetariko batzuk *ospe-andiko*-izena dauke Aita Santuak emonda, baña berez izen orrek eztautse eskubide berezirik ekarten.

392g. araua. Eleiz-gizonezko Batzarrok eregitea, barriztutea ta kentzea Aita Santuaren eskubide bakarra da.

393g. araua. § 1.—Onetariko Batzarretan bitariko bazkideak dagoz edonon: Jaunak (dignitates) eta lauak (canonici simplices); bitzuen artean bananduten dira Batzarraren zeregiñak; bizibide apalagokoak be egon leitezke eta oneik be batzuk goragoko beste batzuk beragoko malletan bananduta.

§ 2.—Batzar onetan bazkide esandako Jaunak eta lauak dira, Jaunai buruz bazkunaren legeak bestera erabagi ezpalegie; eztira bazkide bizibide apalagodu-nak; orreik bazkideen laguntzaille egiteko dira.

§ 3.—Bizibiderako ondasunik gabeko bazkidetzarik ezpedi eregi Aita Santuaren baimen berezi barik.

394g. araua. § 1.—Onetariko Batzarrean zeinbat bazkide izan bear daben erabagita dagoanean, bizibide aña bazkide izan bediz; zeinbat bazkide izan bear dabenik erabagita eztaukenen Batzarretan, batzarraren ondasunen mozkiñak ganoraz ordaindu dagikezan beste lagun izan bediz. Obispoari dagokio, Batzarra entzunda gero, zeinbat izango direan ebaztea.

§ 2.—Nausigoak eregitea Aita Santuaren eskubide bakarra da; baño beñolako Nausigoak barriri biztutea Obispoari dagokio, Batzarrak bayetz erantzun ezkerro; Obispoaren eskubidea da Batzarrean dagozan bazkideai barriak ezartea be, artarako bear dan ondasuntzea aurkitu ezkerro. Bere eskuan dago ondasuntza-mozkiñagaz Batzarrari bazkide barria ezartea, bai bazkideen laguntzaille bat edo geyago emotea.

§ 3.—Obispoaren elexan eta batzar-elexa bikañetan bazkideen bizi-bearrari ganoraz erantzuteko beste emongo ezpalebe euron bizibiderako yarrita dagozan ondasunak, ez eguneroko lan-sariak ganetik ezarrita be, Obispoak, batzarra entzunda gero ta Aita Santuaren baimena eskatu ta lortuta, il begiz bizibide utsak direan batzuk eta euron ondasunak bazkideen bizibide direan ondasunai generatu begiez; eta ori ezin egin al baledi, patroedunak balira, patroyaren baimenagaz, bazkidego batzuk ilda, euron ondasunen urteko irabaziak eguneroko lan-sariari ezarri begioz. Begiratu begi, baña, elexako yauresketak ganoraz egiteko beste bizirik itxi bear direala.

395g. araua. § 1.—Eguneroko lan-saririk eztagoanean edo, egon arren, urriegia balitz areri yaramonik egiteko, Batzar-elexan legokezan bizibide guztietatik artzen direan irabazietatik irurena banandu begi Obispoak eta eguneroko lan-saritzat emoteko izentau.

§ 2.—Lan-sarizko banaketak edozergaitik sartu-eziña balego, Obispoak bazkide ta lagun alperrak diruzko zigorrakaz yo begiz eta zigorketa orretatik batzen dan dirua lan-saritzat banandu bedi.

§ 3.—Lan-sari banaketea zolien alde zintzo egin bedi ta alperrak parkatu barik, eta bazkide Nagusiak beste bazkideen diruetatik alde baleukiez eurenak, eurotarikoak galdutako lan-saria, eurotariko zolientzat izan bedi; eurotariko guztiak uts egin balebe, barriz, Batzar-elexeari berari ezarri bekio, aren bearrik baleu; ostantxean Obispoari deritxon Jaun-arren eregitako beste zer bateri.

§ 4.—Gure Batzarrotatik bakotxak, bere legeak aginduten daben legez, bat edo geyago begiratzalle izentau begiz, euren zeregiña zintzo beteko dabela zin egindakoak; eta zeregin ori artarako izango daben idaztiñoan korura eztatorzaren izenak idatziz yartea da; euroi Obispoak beste bat ezarri dagikie; eta orretariko guztiok uts balegie, Batzarrak beste norbaiteri ezarri begio orrein lana.

396g. araua. § 1.—Bazkide Nagusiak izentatzea, bai Obispo-elexan bai ostantzeko batzar-elexetan Aita Santuaren eskubidea da.

§ 1.—Bazkideak daukena baño obetzat dauken beste bat eskatutea eragortzita dauke, ta, iñon olango ekandurik balego, okertzat emoten da; alan be zutunik yarraituko leuke eskubide orrek bizibidea sortukerako legeak emona balitz.

§ 3.—Obispo-elexako batzarreko Nagusien burua gitxienez, al dala ta ostantzeko zeretari bardiña izan ezkerro, Jaunari buruzko yakintzean edo Eleiz-legeetan irakasle-izenduna izan bedi.

397g. araua. Batzarraren legeak ostantxekorik erabagita ezpaleukie, Nausi ta bazkideak eskubidea ta eginbearra dabe, nor lenago litzaken neurrian:

1.º Urteko yai-egunik andienetan eleizkizunetan Obispoaren ordezkia egiteko;

2.º Obispo-eleizkizunak egiten daragoyon Obispoari elexarako sarreran ur onetsia eskeintzeko ta gero yaupari-lagun egiteko.

3.º Obispoari gexorik dagoanean elexakoak emoteko; il ezkerro, bidezko eleizkariak egiteko.

4.º Bazkideak batzarrera deituteko ta batzarrean maipuru izateko ta batzarraren otoizketan zer ta zelan egingo dan erabagi ta aginduteko, baña Nagusia bazkide izatekotan.

398g. araua. § 1.—Ezpego Obispoaren elexarik bazkide teologo barik, ez, al dala, bazkide autortza-entzule barik be.

§ 2.—Beste, batzar-elexetan be, bikañetan batez be, bazkide teologoaren eta autortza-entzulearen zeregiñak izango dabezan bazkideak yari leitezke.

399g. araua. § 1.—Bazkide teologo ta autortza-entzule autu bediz an tokian euren zeregiña betetako egokienak agertu direanak;

baña, bardinean, izentau bediz irakasle-izendunak; bazkide-teologoak teologian; autortza-entzulea, edo teologian edo Eleiz-legeetan. Orrez ganera, bazkide autortza-entzulea ondo izango da ogeta amar urteak bete izatea.

§ 2.—Teologo ta autortza-entzulearen bizibideak ezpediz iñori emon, lenago euren bizitza, bizikera ta yakiturari buruz azterketea eginda gero, dana ondo daukiela jakin barik, nor ohea litzaken legearen kalte barik, lege ori legoken tokian.

§ 3.—Bazkide autortza-entzuleak eragotzita dauke agiriko auzitegian iñori aginduteko eskubidea daukan zeregiñik artzea naiz erabiltea.

400g. araua. Bazkide teologoaren zeregiña da, batzarraren eritxia entzunda gero Obispoak izentauko dautsazan egun eta orduetan Obispoaren elexan bertan erriari Liburu Santua atzaldutea; baña Obispoari baleritxo on geyago egingo leukela beste gai batzuk elexan irakatsita, agindu legikeo ori egiteko.

§ 2.—Bazkide teologoak bere zeregiña berak bete bear dau; baña sei illa-bete baño luzarago berberak bete-eziña baleu, beronek ordainduta, Obispoak izentauriko beste norbaitek bete bearko dau.

§ 2.—Ziyo aztunik artarako izan ezkeru, Obispoak agindu dagikeo elexan barik abadegayen azi-ezi-etxean bere irakaskizunak emotea.

401g. araua. Bai Obispoaren elexako bai beste batzar-elexako bazkide autortza-entzuleak legezko ala dauko Obispoarentzat berezita dagozan pekatu ta zigorrak parkatzeko; goterkian, arrotzai be bai; eta goterkikoai goterkitik kanpoan be bai. Al ori, baña, ezin legikeo beste iñori emon.

§ 2.—Autortzak entzuteko batzar-elexan izentauta daukan bere aulkian bego Obispoaren eritxiz ara letorkezan kistarrentzat erosoenak litzakezan orduetan, naita bere bazkide-lagunak otoizketeari ekin.

402g. araua. Batzarra bera balitz parroki-zaña, zeregin ori bere ordekoaren bitartez bete begi, 471g. arauak aginduten dauan lez.

403g. araua. Nausitzeak izan ezik, batzar-elexa guztietako eleiz-bizibide ta bazkidetza bakotxa ta guztiak, batzarra entzunda gero, emoteko eskubidea Obispoak dauko, Obispoaren eskubide orren aurkako edozein ekandu txartzat emonda eta edozein lege kenduta. Zutunik yarraituko dau, orraitio, bizibidea nai bazkidetzea sortukeran ezarri eutsen legeak.

404g. araua. § 1.—Bazkide begiz Obispoak yakituriz eta santutasunez argi egiten daben abadeak.

§ 2.—Norbait bazkide egitorduan, beste zer guztiak begiratuta gero, autu bedi nai Jaunari nai Eleiz-legeai buruzko yakintzean gorengo mallako Irakas-tetxean Irakasle-izena artu dabenak; edo eleiz-gizonai dagokien lana egiñak edo irakaskintzeari ekin dautsenak 131, § 2g. arauaren kalte barik.

405g. araua. § 1.—Nagusi, bazkide, ta beste bizibidedunak, bakotxak 1443-1445g. arauk erabagiten daben legez bere bizibidearen yabetzea artu ezkeru, berealaxe bere mallako ezaugarri ta eskubideez ganera, eskubidea dauko koruan bere aulkian yezarteko, bizibidearen mozkiñak eta eguneroko lan-sariak artzeko ta Batzarraren erabagietan ebazle izateko.

§ 2.—Yabe-izatera eldu aurretik egin bear daben siñeskintzaren autortzeari buruz begie 1406-1408g. arauak aginduten dabena.

406g. araua. § 1.—Obispoak, eta ez Danerako Ordezkoak, ezta Batzar-Ordezkoak be, eskubidea dauko bazkide izen utsezkoak egiteko, nai bere goterkikoa dala nai beste goterki batekoa, olango bazkidea ezarten yakon Batzarra entzunda gero; eskubide au, baña, meatz berabil.

§ 2.—Iñoren goterkiko abadea izen utsezko bazkide egiteko, bere batzarraren eritxiaz ganera, izentatzeakoak nagusi dauan Gotzafiaren baimena be bear dau; baimen ori barik izentatzea alperrikoa litzake; ganera, izen utsezko bazkide orren Gotzafia yakitun egin begi izentatu orrek erabili al izango dauzan ezaugarri ta eskubideai buruz.

§ 3.—Izen utsezko bazkideok eta goterkitik kanpoan bizi direanak, benetakoz bazkideen irurena baño gitxiago izan bediz.

407g. araua. § 1.—Erroma'ko Basiliken baten edo beste batzar-elexen baten izen utsezko bazkide litzakezanak, bazkide-ezaugarriak eta eskubide bereziak antxe Basilika-barruan edo Basilika-kume litzaken beste elexan bakarrik erabili dagikiez; Erroma'tik kanpoko elexen baten direanak, izentauta dagozan goterkian bakarrik, eta ez arako goterkitik kanpoan 409, §r. arauaren neurrian baño.

§ 2.—Izen utsezko bazkideok euren ezaugarri ta eskubide bereziez ganera, koruan bakotxak bere aulkia be badauko.

408g. araua. § 1.—Obispo-elexako Batzarrak goterkiko beste edozein elexako batzarrari aurrea artzen dautse, besteon euren elexa-barruan be; batzar bikañak aurrerago dira bikañak eztireanak baño; Nagusiak, alkarren artean euren legea yagonda, aurrerago dira bazkideak baño; bazkide zarragoak, au da, bazkidetzaren yabe lenago egiñak aurrea artzen dautse abade baño eztirean nausi ta bazkideai.

§ 2.—Bizibideak, batzuk abadeentzat, beste batzuk diakonoentzat, eta beste batzuk diakono-azpikoentzat bereziak litzakezan elexan, zein aurrerago zein atzerago litzaken orritxe eleiz-gizontze-mallatik ebatzi bear da; eta malla bardiñekoan artean, malla orretara nor lenago igona danetik, ez batzarrera noiz sartu zantetik.

409g. araua. § 1.—Edozein batzar-elexan, nai Obispoarena dala nai osantzekoa dala, Obispo-mallakoak Obispo-soñekoak yantzi-ta begoz koruan; nausi-bazkide ta bizibide laukoak batzarra sortu eban legeak aginduten dauana edo Aita Santuak emona eroan begie; olan yantzi barik yoango litzakezanak ezpediz artu bertan dagozanetarikotzat.

§ 2.—Koru-soñeko ori nai beste ezaugarri bereziak batzarraren goterki osoan erabili dagikiez; baña ostantxeko ekandua txartzat emonda ez goterkitik kanpoan, Obispoari lagun ezpadoaz edo eleiz-batzarretara edo beste antzeko zeretara Obispoaren orde zyoan ezik.

410g. araua. § 1.—Batzar bakotzak nausi, bazkide ta bizibidedun guztiak zoli-zoli bete bear dabezan bere lege bereziak bekoz.

§ 2.—Batzar-legeak, batzarrak berak sortuak, Obispoak ontzat emon-bearra dauke; ta gero, Obispoaren baimen barik, ezin leitekez ez kendu ez aldatu.

§ 3.—Legeok egiteko Obispoak agindu balegi, ta batzarrak egin ez, agindua emonda sei illabete yoan ezkeru, Obispoak berak begiz legeok eta batzarrari ezarri.

411g. araua. § 1.—Erabagitako garayan eta tokian batu bediz bazkideak euren elexeari ta batzarrari buruzko arazoetan ondo litzakezan erabagiak artzeko; lege agindutako batzarrez ganera beste batzuk be izan dagikiez nai Obispoari nai batzar-buruari nai bazkiderik geyenai alan deritxoenean.

§ 2.—Legeak agindutako batzarrak egitorduan eztago bazkideak beren-beregi deitu-bearrik; bai, baña, ostantxekoa egiteko, eta batzar beraren legeak aginduten daben lez egin bear dira.

§ 3.—Batzarrotan ebatzeko indarra dauan autarkia benetako bazkideak dauke, ez barriz izen utsa daukenak, eta nausiak, 393, § 2 esaten dan lez, bazkideakaz batera batzarreko badira.

412g. araua. Obispoaren elexako nai beste batzar-elexako bazkideak Meza nausia emotorduan nai beste Obispo-eleizkizunak egiten dauzanean Obispoari lagun eta otsein egin bear dautse Obispoaren elexan nai beste batzar elexan, baita uriko edo uri-ondoko elexen baten egiten dauzanean be, Obispoaren eritxiz oraindiño Obispoaren elexan bazkide ta ostantxekoen artean bertako bearrak egiteko naikoa gelditu balediz; ganera, Obispoaren elexara datorrenean eta bertatik doanean Obispoari lagun egin bear dautse, Obispo-eleizkizun-idaztiak diñoan lez.

§ 3.—Obispoak eskubidea dauko nai Obispoaren elexako nai ostantzeko batzar-elexako bazkide bi artu ta beragaz eukiteko, goterkia zaintzeko lanean lagun izan dakiozan.

413g. araua. § 1.—Eleiz-batzar guztiok Elexeak aginduten dauzan oititzak egunero koruan egiteko beartuta dagoz.

§ 2.—Agindutako oititzak dira; eguneko ordu batzuetarako aginduta dagozan abesti ta ostantxeko agozko oititzak esatea, eta batzar-mezea abestutea, ta Elexearen oititz-legeak edo batzarrari bere sortukeran ezarri eutsezan beste meza batzuk esatea.

§ 3.—Batzar-meza ori abestu barik ixilik emotea zillegi da, elexan bertan Obispoak berak edo beste norbaitek Obispoaren orde Obispo-mezea emon balegi.

414g. araua. Legez koruan oititz egin bearra dauken bizibidedun guztiak eta bakotzak oititzok egunero koruan bertan egin bear ditu, oititzok orduka, alkarren artean txandaka bananduta egitea Aita Santuaren lege bereziak edo batzarren bateri bere sortukeran emondako legeak ontzat emon ezpalegi.

415g. araua. § 1.—Obispoaren elexea nai beste batzar-elexea parroki-elexea be balitz, batzarraren eta parroki-zañaren arteko artu-emonak urrengo arauak erabagiten daben lez zaindu bear dira, ostantxekorik Aita Santuak beren-beregi emondako legeak, edo parrokia eregikieran egindako eta Obispoak ontzat emondako itunbenak ezpadiño.

§ 2.—Parroki-zañari dagokio:

1.º Erriaren alde eta bear dan garayan mezea emon eta Jaunaren itza aldarrikatu ta kistarrai Kristok irakatsia irakatsi.

2.º Parroki-liburuak zaindu eta eurotatik barriro idatzitako agiriak emon.

3.º 462g. arauak diñoan lez parroki-eleizkizunak egin. Elexan bertan egin bear direan legeko eleizkariak, il ondoko mezea bertan dala, egitea batzarrari dagokio batzarreko nausi, bazkide, naita izen utsezkoa izan, eta bizibidedun batenak direanean bakarrik.

4.º Beste eleizkizunak egitea, nai ta bete-betean ez izan parrokiarenak, baña beste parroketan be egiten direanak badira, koruko eleizkizunai kalterik ez ekartekotan, eta batzarrak berak eleizkizunok ez egitekotan.

5.º Maitezko emonak parrokiarren alde eskatu, nai artez nai zearka emonak artu, zaindu ta emon dabezanen nayaren arauz banandu.

§ 3.—Batzarri dagokio:

1.º Gure Jauna zaintzea; baña gure Jauna dagoan kutzako atearen bigarren giltzea parroki-zañak euki bear dau.

2.º Begiratu parroki-zañak elexan egiten dauzan eleizkizunetan yaureskeralegeak bete daitezcan.

3.º Elexea zaindu eta bere ondasunak, ilondoetako aginduakaz batera, ondo yagon.

§ 4.—Ez parroki-zañak batzarrarenak ez batzarrak parroki-zañaren eleizkizunak eztitu eragotzi bear; euron artean istilluen bat sortu baledi, Gozterkizañak ebatzi begi eztabaidea; beki baña erriari kistar-ikaskizunak irakastea ta Barri-ona siñestunentzako ordurik egokienetan aldarrikatzea beñena dana.

§ 5.—Ezta naikoa batzarrak parroki-zañaren egin-bearrak ez galazotea; bekie ganera bazkideok, parroki-zañak nork lagundu ezpaleu, eurok lagundu bear dautsela Goterkizañak erabagiko dauan eraz.

416g. araua. Batzarrak bere legeetan erabagita beuko bakotzak txandaka zelan bete koruko ta altarako egin-bearrak; orraitio diakono-bearrik egiterik eztabe izango nausiak eta bazkide Jaunari buruzko yakintza-irakasleak eta autortza-entzuleak; eta bazkideok bardina ez tirean malletakoak balira, abade-malletakoak eztabez euron otseñen malletakoen bearrak egingo.

417g. araua. § 1.—Batzar-mezea ongille guztien alde izan bedi.
§ 2.—Gexorik egonda Batzar-mezea emon eta ongilleen asmoa bete-eziña dauan bazkideak eztauko bere ordezkoa egiten dauan bazkideari meza-saririk emon-bearrik, batzarraren legeak edo ekanduak alangorik agindu ezpalegi.
§ 3.—Batzar-mezea emoten dauanari meza-saria emoteko ekandua yagon leiteke edo guztien artean bananduten dan dirutzatik edo bakotxaren bizibidetik artutako dirutik.

418g. araua. § 1.—Ostantzeko ekandua txartzat emonda, egunero korura yon bearra dauken bazkide ta bizibidedunak urtero iru illabeteko oporra artu dagikie ta ez geyago. Iru illabeteok nai etenak nai eten bakoak izan daitekez norbere elexako lege nai ekandu bereziak oporraldi laburragoa emon ezpalegi.

§ 2.—Bidezko ziyoa ta Obispoaren baimen berezirik izan ezik, ezin leiteke ez oporraldirik artu Berrogeikaroan eta Elkarroan edo 33, § 3g. arauan izentatzen direan yai-egunetan; ezta bazkideen irurenak baño geyagok erabatera opor egiterik be itxi.

§ 3.—Oporraldian edozertariko lan-sariak galtzen dira, naita lanean yarratzen dabenak eurok be bertakotzat emon gura; baño nonbaiten gure bazkideen lan-sari osoa egunero egiten dan banatzea balitz, opor-egunetan sariaren iruren bi baño eztabez eurenak.

419g. araua. § 1.—Bazkide guztiak korura egunero yoaten ez tirean elextetan, bertara yon-bearra daukienak ezin dagikie egin bear ori beste baten bidez bete noizik bein baño ta bidezko ta ganorazko ziyogaz, eta ordezkook ezta izan bear berak yon bearra daukanik; eta bazkidearen ordezkook bazkide izan bear dau, ta bizibidedunaren ordezkook, bizibideduna bera be; korura yon-bearrik eztaukienak, korura eztoazan egunetan, eztauke bizibide-tokian egon-bearrik.

§ 2.—Norbaitek egun berean erriaren aldekoa ta batzar-mezea emon-bearrik balitu, bata berberak emon begi ta bestea iñoren bitartez, edo berberak biaromonean.

420g. araua. § 1.—Korura yon-bearretik azkatuta dagoz, baño bizibidearen mozkiñak eta eguneroko lan-sariak be irabazten dabez:

- 1.º 422, § 2g. arauaren lege zartzaroko atsedena emon yaken bazkideak.
- 2.º Bazkide teologoak bere zeregiña betetzen dauan egun bakotxean.
- 3.º Bazkide-autortza-entzuleak lagunak koruan direanean autortzak entzuten daragoyonean.
- 4.º Parroki-zain-ordezkoak edo beste edozein bazkidek, Obispoak parroki-zain nai aren lagun egiñak parroki-lanari daragoyon artean.
- 5.º Gexorik nai beste gorputzeko zerbaitek korura yoatea eragotziak.
- 6.º Nonbaiten Aita Santuak ezarritako zeregiñari daragoyenak edo berari morroi egiten dautsenak.

7.º 126g. arauaren neurrian gogo-iñarkunai daragoyenak; urtean bein baño.

8.º Obispoagaz edo bere orde z legeak agindutako agerraldia egiteko Aita Santuagana yon danean.

9.º Obispoak edo Batzarrak Eleiz-batzar batera bialduak: batzarra nai Eleixa osoarena, nai bete nai Obispo-buru-erikioa nai goterkioa dala.

10.º Obispoak txartzat emon barik batzarrak eder emonda batzarraren edo euren elexearen onerako lanari daragoyelako korura eztoazanak.

11.º Eleizkizunetan 412, § 1g. arauaren lege Obisporari lagun egiten dautsenak.

12.º Goterkia ikusten daragoyonean Obispoari lagun egiten dautsenak edo Obispoaren orde goterkia ikusten daragoyenak.

13.º 199g. eta urrengo arauetan azaltzen direan auizai buruzko lanetan daragoyenak, edo eurotan lekukotzat deituak izan direanak be bai, lan orretan emoten dabez egun eta orduetan.

14.º Parroki-zain aolkariak eta batzar aztertze ta epaikariak euren zeregiñari ekin bear dautsenean.

§ 2.—*Bertan izan direanen artean* banandu bear direan lan-sariak artzeko oneixek bakarrik daukie eskubidea or § 1an aitatuetatik: 1.º, 7.º, 11.º ta 13.º aitatuak.

421g. araua. § 1.—Korura yon-bearrik eztaukie, baño euren bizibidearen mozkiñak bakarrik irabazten dabez, ez eguneroko lan-sariak:

1.º Goterki-zañaren baimenagaz Elexeak onetsiko irakastoletan erriari Jaunari buruzko yakitekoak irakasten dautsezanak.

2.º Goterki-zañaren baimenagaz Elexeak legekotzat emondako ikastoletan Jaunari buruzko yakingarriak edo Eleiz-legeak ikasten daragoyenak.

3.º Goterkio Batzar-Ordezkoak, Danerako Ordezkoak, Epaikariak eta Idazkariak euren zeregiñai daragoyenean.

4.º 412, § 2g. arauaren arau Obispoari lagun egiten dautsen bazkideak.

§ 2.—Bizibidearen irabazi guztiak eguneroko banaketatikoak balira, orduan or aitatuako guztiok eguneroko banaketan iruren bi bakarrik artzen dabez, bizibidearen mozkiñakaz eta eguneroko banaketakaz pilo bakarra eginda.

422g. araua. § 1.—Gure eleiz-langilleok zartzaroko atsedena saria Aita Santuagandik bakarrik lortu dagikie elexa bereberean edo uri bateko elextetan edo goterki batekoetan 40 urtean uts barik lan egiñak bakarrik.

§ 2.—Zar-sari ori artuak, naita bizi ez bizibidearen tokian, bereak ditu bizibidearen mozkin guztiak eta baita lan-saritzat bertakoen artean bananduten direanak be, aurka ezpadaukoz edo dirutzea emon ebanen naimena edo bertako elexearen legeak edo ekandua.

§ 3.—Zartzaroko atsedena artutako bazkideak ez tira gauza beste tokiren bat obesteko, naita ostantzeko bazkideak eskubide ori euki.

VI Atala
Goterki-aolkariak

423g. araua. 391-422g. arauetako Batzarra yarri edo biryarri-eziña daben goterkietan, Aita Santuak beste era batera erabagi ezpalegi, Obispoak *goterki-aolkariak* izentau bear ditu, Jaun-zaletasunez, bizi-keraz, yakintzaz eta sentzunez argiak.

424g. araua. 426g. arauaren aginduaren kalte barik, aolkariak Obispoak izentatzen ditu.

425g. araua. § 1.—Goterki-aolkariok gitxienez sei izan bear dabe; baña abade gitxi direan goterkian gitxienez lau; guztiok Obispoaren urian edo urrean bizi direanak.

§ 2.—Onetarikoak euren zeregiña betetzen asi-orduko norkeri barik, zintzo beteko dabela zin egin bear dabe.

426g. araua. § 1.—Aolkarien zeregiña iru urterako da.
§ 2.—Iru urteok bete ezkeroran, Obispoak edo beste batzuk euren orde zientau edo eurok berberok beste iru urterako bertakotzat emon begiz; bardin begi urrengo iru-urte-urrenean be.

§ 3.—Edozelan dala, iru-urte-urrenean aolkarien batek uts balegi, Obispoak, beste aolkariak entzunda gero, aren ordekoa izentau begi; eta onek be beste lagunen iru-urte-urrena amaitu arte iraungo dau bere zeregiñean.

§ 4.—Obispoaren aulkia utsik dala iru urte-urrena amaitu baledi, aolkariak Obispo barria etorri arte iraun begie; Obispo barriak bere zeregiñaren yabetzea artu ezkeror, sei illabete-barruan arau onexek erabagiten dauan lez bete begi aolkarioi buruzko bere egin-bearra.

§ 5.—Obispoaren aulkia utsik dala aolkarien bat il baledi, edo bere zeregiña itxi balegi, Batzar-Ordezkoak, beste aolkarion bayetzagaz aolkari barria izentau begi; onek, baña, bere zeregiñean yarraitzeko, Obispo barriak ontzat emon-bearra dauko.

427g. araua. Goterki-aolkari-batzak Obispoaren elexako Batzarraren orde egiten dau eta beronen zeregiña bete be bai Obispoa aolkatzeari buruz; beraz goterkia zaintzeari buruzko arauak Obispo-elexako Batzarrari ezarten dautsezan eskubide ta egin-bearrak gure goterki-aolkarientzat be gauza dira.

428g. araua. Artarako bidezko ziyo barik eta beste aolkariak entzun barik epezid aldatu, zeregiña dauken artean.

VII Atala

Obispo-aulkia eragotzi edo utsari eta Batzar-Ordezkoari buruzkoa

429g. araua. § 1.—Obispoa atxilotu, nonbaitera baztertu, arrotzu dabelako, edo gaitz larrien batek yota, idazki bidez be goter-

kia zaintzeko gauza ez izaterano Obispo-aulkia eragotzita balego, goterkia zaintzea, Aita Santuak bestera erabagi ezik, Obispoaren Danerako Ordezkoagan edo Obispoak ordeztutako beste eleiz-gizon baten eskuetan bego.

§ 2.—Olango zerbait yazo daitenean, artarako ziyo aztunik balego, eskubide dauko Obispoak ordezkoak bat baño geyago izentatzeko, bata bestearan utsa bete dagian.

§ 3.—Orreik guztiok uts emon balegie edo, goyan esan dan lez, eragotzita balegoz, Obispoaren elexako Batzarrak here Ordezkoa autu begi, eta onek Batzar orren aginpideagaz goterkia zaintzea bere zeregintzat artu begi.

§ 4.—Goyan esan dan lez, goterkia zaintzea artu dauanak yazo danaren yakitun egin begi len baño len Aita Santua Obispo-aulkia eragotzita artu dauan ardureari buruz.

§ 5.—Obispoa arrotzute edo erapozpen edo eten-zigorpean yausi baledi, aren Obispo-Buruak len baño len yo begi Aita Santuagana, onek erabagiak artu dagiazan. Obispo-Bururik ezpalego edo Obispo-Burua bera izan oker ori egiña, Obispo-Buru-erkiko Obispo zarrenari dagokio Aita Santua yakitun egitea; 285g. arauan aitaturten danetariko Obispoen bat balitz, legez autua izan dan Obispo-Buruaren zeregiña da Aita Santua yazo danaren yakitun egitea.

430g. araua. § 1.—Obispoaren aulkia utsik gelditzen da: a) Obispoa il ezkeror; b) Obispoak bere zeregiña itxi-gurea erakutsi ta Aita Santuak aren gurariari bayetz erantzun ezkeror; c) Obispoa beste aulki batera aldatu ezkeror; d) Obispoari aulkia kendu ezkeror. Obispo-aulkia atzenengo era biotan utsik gelditzen da, edo beste aulki batera aldatu dabela edo berea kendu dautsela legez iragarten dautsenean.

§ 2.—Alan be, eleiz-zeregiñak eta bizibideak emotea izan ezik, Obispoaren eriotzearen barria ziur yakin arte Danerako Ordezkoak egingo leukezan zer guztiak guaza litzakez eta baita Obispoak edo Danerako Ordezkoak Aita Santuaren erabagi orren barri ziurra yakin arte egingo leukiezan zer guztiak be.

§ 3.—Aldatzearen barri ziurra artu ezkeror, Obispoak lau illabete barruan *norako* goterkiratu bear dau ta bere yabetzea legez artu 333-334g. arauak aginduten daben lez, eta yabetzea artutako egunetik aurrera *nondiko* goterkia guztiz utsik gelditzen da; bitartean (au da, aldatu dabela yakinda bigarren goterkiaren yabetzea artu artean) Obispoak bertan:

1.º Batzar-Ordezkoaren eskubide ta egin-bearrak artzen ditu, baña Danerako Ordezkoaren aginpide osoa amaituta.

2.º Goterkiko Obispoaren lotsa-erakutsiak eta kutun-legeak eztitu galtzen.

3.º 194, § 2g. arauak diñoan lez Obispo-maiko irabaziak osorik bereak ditu.

431g. araua. § 1.—Aulkia utsik gelditu ezkeror, Aita Santuaren bein-beñeko Nagusien bat ezpaleuko edo Aita Santuak beste era batera erabagi ezpalegi, goterkia zaintzea Obispo-elexako Batzarragana datorke.

§ 2.—Nonbaiten Aita Santuaren beren-beregiko erabagiaren indarrez Obispo-Buruak nai beste Obispoen batek izentau balegi goterkia bein-beñean nork

zaindu, onek Batzar-Ordezkoaren eskubide ta egin-bearrak bakarrik izango ditu, eta, okerrik egin ezkeru, zigorrak be bardin.

432g. araua. Obispo elexako Batzarrak, Obispoaren aulkia ustu ezkeru, utsaldiaren barri izan eben ezkeru zortzi egun barru bere orde zoterkia nork zainduko dauan Ordezkoa autu, ta goterkiaren ondasunen irabaziak eskuratzea be berari balegokio, diruzain bat edo batzuk zoli izentau-bearra be badauko.

§ 2.—Obispo-elexako Batzarrak edozergaitik agindutako epe-barru orretan bere Ordezkorik edo ondasun-zañik izentau ezpalegi izentatze ori Obispo-buruaren eskubideko egiten da; baña Obispo buru-elexea bera balitz utsik dagoana, edo bai Obispo buruarena ta bai Obispoarena biak batera, Obispo zarrenari legokio utsa betetzeko eskubidea.

§ 3.—285g. arauan aitaturten direan goterki edo Lekaidepuru-erki edo Nagusi-erkiak utsik gelditu ezkeru Batzarrak arrezkeru zortzi egun barruan Ordezkoa ta ondasun-zaña autu ezpalegiz, arau orrek esaten dauan lez aututako Obispo-buruak izentau begiz, iñongo goterkiko eztan Lekaipuruari buruz euren legeak beste erara erabagita ezpalebe.

§ 4.—Batzarrak Obispoaren il-barria ta gero batzar-Ordezkoak bere auteskundera, Aita Santuari len baño len iragarri bear dautse.

433g. araua. § 1.—Batzar-Ordezko bakarria izentau bedi, ostantzeko ekandua txartzat emonda; lege onen aurkako legea utsa litzake.

§ 2.—Batzar-Ordezkoaren eta ondasun-zañiaren auteskundera Batzarrak batzarrean egin bear dau 160-182g. arauak erabagiten daben lez, atal onetako arauak erabagiten dabenaren kalte barik; autespena gauza izateko, autarki utsak baztertuta, autuak autarkirik geyenak bere alde bear ditu.

§ 3.—Batzar-Ordezko ta Ondasun-zain berbera izentau leiteke.

434g. araua. Batzar Ordezkotzat ezin leiteke autu oraindiño abade eztan eleiz-gizonik edo yayo zan ezkeru ogeta amar urte bete eztauzanik, edo aulki uts bertarako autua, izentaua edo aurkeztua izan danik. Olango norbaiteri emondako autarkiak utsak litzakez.

§ 2.—Ganera Batzar-Ordezkoak Jaunari buruzko yakintzea edo eleiz-lege-etan Irakasle-agiria daukana edo irakasteko gai dala esaten dauan agiriduna izan bear dau edo gitxiendik yakintza biotan benetan yakituna dana ta ganera benetan zindoa, Jaun-zale, yakintza yatorrekua eta erabagietan sentzun andikoa.

§ 3.—Arau onen lelengo txatalean aginduari yaramonik egin barik, norbait izentau balebe, Obispo buruak egindakoaren egia ondo jakinda gero, oraingoan izentau begi berak gure Ordezkoa; eta okerra egiña elexako Batzarra balitz, begi beste ainbeste Obispo buru-erkiko zarrenak; eta Batzarrak autuak egindako zer guztiak alperrikotzat euki bediz.

435g. araua. § 1.—Ordezkoa autu arte Batzarrak lez, autespena egin ezkeru Batzar-Ordezkoak Obispoaren eskubide guztiak dau-

kaz bai gogozkoai bai gorputzezkoai buruzkoak, legeak beren-beregi eragozten dautsazanak izan ezik.

§ 2.—Orregaitik, lelengo Batzarrak eta gero Batzar-Ordezkoak 368, § 1g. arauan aitaturten direan zer guztiak dagikiez; bardin goterkian edozein Obispori Obispo-eleizkizunak egiten izteko eskubidea dauko; eta Batzar-Ordezkoa, Obispo balitz, Obispo-eleizkizunak berberak be badagikez egin; alan be, Obispo-aulki ta aulki-ganekoa barik.

§ 3.—Batzar-Ordezkoari ta Batzarrari etxake zillegi goterkiari edo Obispoaren eskubideai kalterik lekarkien ezer egiterik; baña beren-beregi galazota dauke bai Batzar-Ordezkoak bai beste edonork, bazkide dala edo eztala, eleizgizona dala edo erri-gizona dala eurak euretara nai iñoren hitartez gotzain-idazkolatik edozein idatzi nai ostu, nai ausi, nai ostondu nai aldatutea.

436g. araua. Aulki-utsaldian ezpedi ezer aldatu.

437g. araua. Ordezkoa aututorduan ezin legike Batzarrak beretzat ezer baztertu; ezta Ordezkoak be bere zeregiñak noiz arte iraungo dauan erabagi nai beste edozein neurri ezarri.

438g. araua. Batzar-Ordezkoak, 1406-1408g., arauak aginduten daben siñeskintzaren autortzea egin ezkeru, bere zeregiñaren yabe bertatik egiten da, bere autespena iñork sendetsi-bear barik.

439g. araua. 370g. arauan Danerako Ordezkoari buruzko erabagiak Batzar-Ordezkoari buruz be erabagitzat zaindu bediz.

440g. araua. Batzar-Ordezkoak goterkian bizi-bearra dauko ta 338-339g. arauak erabagiten daben erriaren alde mezea emon-bearra be bai.

441g. araua. Legez bestera erabagi ezik:

1.º Batzar-Ordezkoak eta Ondasun-zañiak euren lan-sari egoikiaren eskubidea dauke; lan-sari ori Obispo-buru-erkiko batzarrak nai aspaldiko ekanduak erabagita daukana izan bedi, Obispoaren maiko ondasunen irabazieta-tik edo beste irabazietariko.

§ 2.—Ganeko irabaziak, Obispo-aulkia utsik dagoan artekoak, geroko Obispoari goterkiaren bear izanetarako yagon bediz, aulkia utsik eztagoanean Obispoarenak balira.

442g. araua. Ondasun-zañiak, Batzar-Ordezkoaren menpean, elexearen gauzen eta irabaziñ ardurea ta zaintzea dauko.

443g. araua. § 1.—Batzar-Ordezkoa ta ondasun-zaña kentzea Aita Santuari dagokio; eurok euren oldez zeregiñok iztea erabagi balebe, naita erabagi orreik Batzarrak ontzat emon-bearrik izan ez, Batzarra ya-

kitun egin bear dabe; eurok itxita, il direalako edo legez kendu dautselako, euren tokiak utsik geldituak barrero betetzea Batzarrari dagokio, 432g. arauak aginduten dauan lez.

§ 2.—Euron zeregiña amaitzen da, ganera, Obispo barriak goterkiaren yabetea 334, § 3g. arauak diñoan lez artuagaz batera.

444g. araua. § 1.—Obispo barriak Batzarrari, Batzar-Ordezkoari, Ondasunzañari ta aulki-utsaldian goterkian zeregiñen bat izan daben guztiai egin dabenari ta eztabenari buruz bakotxak bere burua zelan garbitzen dauan eskatu bear dautse, eta errudun agertuko litzakezanak zuzenak eskatzen dauan lez zigortu, naita Batzarrak edo Batzarrak izentauriko epaikariak errubakotzat emonak izan.

§ 2.—Orreik guztiok jakitun egin bear dabe Obispo barria euren eskuetara eldu yakezan eta elexeari dagokiozan idatzizko agiriai buruz.

VIII Atala

Parroki-zain-buruak

445g. araua. 217g. arauan dan parroki-batzaren buru Obispoak izentauri ezarten dautsagu Parroki-zain-buru-izena.

446g. araua. § 1.—Obispoak Parroki-zain-burutzarako artarako egokiena deritxon abadea izentau begi, geyen baten parroki-zain artekoa.

§ 2.—Parroki-zain-buru ori Obispoak noiz eta zelan gura kendu dagike.

447g. araua. § 1.—Parroki-zain-buruak Obispo-buru-erkiko nai goterkiako Batzarrak damotsezan eskubideez ganera, eta batzarrotan legez erabagitako arauen neurrian, eskubidea ta egin-bearra dauko batez be:

1.º Bere ardurapeko barrutian bizi direan eleiz-gizonak eleiz-legeak aginduten daben lez bizi direan eta euren egin-bearrak zoli betetzen ete dabezan begiratzea; batez be bakotxa bere zeregin-tokian bizi dan, Jaunaren itza aldarrikatzen dauan; ume ta nausiai kistar-ikasbidea irakasten dautsen, gexoai lagunduten dautsen.

2.º Ikertaldian Obispoak emondako aginduak egiten ete direan.

3.º Mezako ogi-ardaoari buruz bear besteko ardurea artzen ete dan.

4.º Elexan eta elexako yantzi-ontzietan, Gure Jauna zaintzean eta meza-emokeran batez be bear dan besteko garbitasuna ta araztasuna erabilten ete dan; eleizkizunak yaurespide-legeak aginduten daben lez egiten ete direan; eleizearen ondasunak zoli zaintzen ete direan eta eurai ezarritako egin-bearrak zintzo egiten ete direan; parroki-idaztiak (liburuak) bear dan lez idatzi ta yagoten ete direan.

§ 2.—Zer guztioi buruz yakitun egiteko parroki-zain-buruak Obispoak izentautako garayetan bere barrutiko parrokiok ikusi bear ditu.

§ 3.—Parroki-zain-buruari dagokio here barrutiko parroki-zañen bat gexorik

asarre dagoala yakin orduko areri bai gogoari bai gorputzari buruzkoetan lagun egitea, ta il ezkeror zor yakon illeta barik izan eztaiten al dauana egitea; eta gexorik edo ilda dala, elexeari buruzko idatzi, agiri ta yantzi-ontziak eta beste zerak galdu nai iñork ostuak izan eztaitezan arduratu.

448g. araua. § 1.—Parroki-zain-buruak, Obispoak izentautako egunetan bere barrutiko abade guztiak 181g. arauan esaten dan batzarrera deitu eta bertan izango direan ekiñetan maipuru egin bear dau; eta onetariko batzarrak toki baten baño geyagotan egingo balira, legeak aginduten dauan lez egin daitezkan ardurea artzea berari dagokio.

§ 2.—Bera parroki-zain ezpalitz be, bere ardurapean dagoan barrutian bizi bear dau edo bertatik urrean, Obispoak emongo dautsan aginduaren arauz.

449g. araua Urtean bein gitxienez parroki-zain-buruak barrutiari buruzko txostena emon bear dautso Goterkizañari, ez bakarrik urte-barruan ondo egiñen barri emoteko, bai epe orretan agertu direan okerrena emoteko be, agiriko egin gaiztorik izan dan eta eurok ekarriko kalteak osatuteko zer egin dan eta bere eritxiz zer egin bear dan.

450g. araua. § 1.—Parroki-zain-buruak beuko bere zeregiñaren ikurratz berezia.

§ 2.—Bere barrutiko parroki-zain eta beste abade guztiak baño aurrerago edo gorago yezartea dagokio.

IX Atala

Parroki-zañak

451g. araua. § 1.—Parroki-zañia, Obispoaren menpeko dala, ta bertako lagunak zeruratzeko bear direanak egiteko eskubideagaz, parroki berekotzat emoten yakon abadea nai legezko beste norbait da.

§ 2.—Parroki-zañen bardintzat artzen dira, parroki-zañen eskubide ta egin-bear guztiakaz, eta legezko zeretan parroki-zañen izenak bere barruan artzen dauz:

1.º 216, § 3g. arauak aitaturten dauzan parroki-antzekoen buru direan parroki-zain-antzekoak.

2.º Parroki-zain ordezkoak, parroki-zañen eskubide guztiak badabez.

§ 3.—Gudari-zain direan abadeai buruz, edozein mallakoak direala, legez zer direan eta bakotxak zer al dauan egin yakiteko Aita Santuaren beren-beregiko erabagiak gorde bear.

452g. araua. § 1.—Aita Santuak artarako eskubidea emon ezik, ezin leitekio parrokirik osoan ezarri legezko norbaiteri, 1.425, § 2g. arauan azaltzen dan lez legezko norbait ori aren parroki-zain dala.

§ 2.—Parrokia osoan ezarrita daukan legezko norbaitek arimak zaintzeko eskubidea euki bai badauko, baño berak ezin dau erabilli 471g. arauak oartzen dauan lez.

453g. araua. § 1.—Edozeñek, parroki-zañi baliozko eran izango bada, abadetzea artua izan bear dau.

§ 2.—Ganera, ekandu onez, jakintzaz, arima-zaletasunez, zurtasunez, eta utsik dagoan parroki txalogarriro eroateko eleiz-legeak, bai oizkoak eta bai be-reziak eskatzen dabezan ontasunez eta gaitasunez ornidua izan bedi.

454g. araua. § 1.—Parrokia bere jabe-antzean zaintzeko ezarten yakozanak bertan aldatu barik yarraitu bear leukie; baña legeak eztau galazoten, bidezkoa danean, edonor aldatzea.

§ 2.—Legearen erabagiz ezтира parroki-zain guztiak bardiñak dauken parrokitik aldagaiztasunari buruz; sendoena daukienak, aldakaitzak esaten dira; makala dabenak, aldakorrak.

§ 3.—Parroki aldakaitzak ezin leitekez aldakortu Aita Santuaren baimen barik; aldakorrak aldakaiztu, Obispoak bere Batzarraren eritxia entzunda gero, ez baña Batzar-Ordezkoak; sortzen direan barriak aldakaitzak izan bediz, Obispoak, zer guztiak astiro begiratura eta bere Batzarraren eritxia entzunda gero, aldakortasuna obeto dala ebatzi ezpalegi.

§ 4.—Parroki-antzekoak, guztiak dira aldakorrak.

§ 5.—Parroki-zain Jaun-zalea, edonor dala, aldakorra da, ta bai Goterki-zañiak aren nagusia oartuta, ta bai bere Nagusiak Goterki-zaña oartuta, bata bestearen bayezkoaren begira egon bear barik, kendu dagike; eta bata besteari bere aburuaren ziyook agertu-bearrik eztaukie eta oraindiño gitxiago ziyook egi direala erakutsi-bearrik. Itzulbilde-indarragaz Aita Santuagana yoteko atea beti zabalik dabe.

455g. araua. § 1.—Parroki-zañiak izentau ta ezarteko eskubidea Goterki-zañari dagokio, Aita Santuak beretzat artutako parrokiak izan ezik; eskubide orren aurka legoken ekandua txartzat emoten da; baña norbaiteri balegokio parroki-zaña autesteko nai aurkeztuteko eskubidea, eskubide ori Batzar-Ordezkoari edo goterki legez zaintzen dauan beste edonori dagokio:

1.º Parroki-zain-ordezkoak 472-476g. arauen erara izentatzea.

2.º Autespena sendestea edo parroki utserako aurkeztua onartzea edo aurkeztuari parrokiaren yabetza emotea.

3.º Beste iñor nastu barik Goterki-zañiak emon dagikezan parrokiak, gitxienez urte bete ezkeru utsik dagozan aulkiak bete.

§ 3.—Onetariko ezer eztagokio Danerako Ordezkoari, beren-beregiko eskubidea emon ezpadautse ta 429, § 1 arauan esaten dana yazo ezpaledi.

456g. araua. Jaun-zaleai emondako parrokiatarako euren legeen arauz legokion Nagusiak bere menpekoetariko egoki deritxon yauparia aurkeztu begio Goterki-zañari, eta onek 459, § 2g. arauak aginduten dauana eginda, parrokizaintzea bemoyo.

457g. araua. Erri-gizonen artetiko parroki-zain-antzekoak baktxaren goterki-zañiak, 302g. arauan aitaturako Aolkari-batzarra entzunda gero, izentatzen dauz.

458g. araua. Goterki zañiak, 155g. arauak aginduten dautsan lez, len baña len parroki utsa betetzeko alegiña begi, bertako zerak eta nortzuk begiratura epea luzatzea ezpaleritxc.

459g. araua. § 1.—Beki Goterki-zañiak parroki utsa, norkeriak bazterturik, bera zaintzeko gayena danari emon bear dautsala. Ostantxekorik balegi, bere okerraren erruagatik Jaunari erantzun bearko dautso.

§ 2.—Autespen onetan eztautso begiratu bear batzuen eta bestetzuen yakiturari bakarrik; baita parroki uts ori zaintzeko bear direan beste zerai be.

§ 3.—Orregaitik Goterki-zañiak:

1.º Izentatzeko eleiz-gizonari buruzko agiriak, balegoz, Idazkolako agiritegitik atera barik ezpegiz itxi, ta berari buruzko barriak, ixilekoak balira be, billatu begiz, alan baderitxo, goterkitik kanpoan be.

2.º Ezpegi aitzu 130, § 2g. arauaren agindua be.

3.º Parroki-zain egiteko daukanaren yakituria aztertu begi, batzar-aztertzalleak lagun dauzala; orraitio azterketa ori egin-bearrik eztauko artarako daukan abadearen Jaunari-buruzko yakintza ezaguna danean.

§ 4.—Parroki-zaintzea nor geyagoka bidez emoten dan tokietan, 1742g. Lotazillaren 14garreneko "Cum Illud" Benito XIVg. legeak aginduten dauan lez, parroki baktxerakoa izan, nai edozein parrokirakoa izan, bete bedi lege ori, Aita Santuak besterik agindu arte.

460g. araua. § 1.—Parroki-zañiak parroki bakarra beuko 156g. arauak aginduten dauan lez, bi bata besteari eskubide bardiñakaz alkartuak ezpalira.

§ 2.—Parroki baten parroki-zain bakarrari, ostantxeko edozein ekandu txartzat emonda eta edozein lege ausita, berari dagokio bertako arima guztiak zaintzea.

461g. araua. Parroki-zañiak bertakoen arimak zaindu-bearra 1443-1445g. arauak aginduten daben parrokiaren yabetzea artuezkero berea egiten dau; eta yabetza ori artu aurretik nai artukeran bere sifieskeraren autortzea egin bear dau, 1466, § 1, 7.ºg. arauak aginduten dauan lez.

462g. araua. Legez besterik ebatzita ezpalego, parroki zañari berekotzat emondako eskubideak dira:

1.º Elexeak atarako aginduta daukan lez Ugutza emotea.

2.º Parrokiaren muga-barruan gexoai Gure Jauna agirian eroatea.

3.º Gure Jauna nai agirian nai ixilean atzenengo Bide-lagun izan dakien gexoai eroatea, eta eriotzako-zorian dagozanai azkenengo Igurtzia emotea 397, 3.º, 514, 484, § 2g. arauak aginduten dabenaren kalte barik.

4.º Beingoan egiteko direan eleiz-gizontzeak eta eskontzak iragartea; ezkontzaldian bertan izatea eta ezkontza-onespena emotea.

5.º Norbait il-ondono 1216g. arauak aginduten dauzan eleizkariak egitea.

6.º Larunbata Gurenean nai beste egun baten parrokiko etxeak onestea.

7.º Larunbata Guren egunean Ugutza-iturria onestea (bedeinkatutea), ba-

tetik bestera agirian elexatik kanpoan egiten direan ibilteen buru egitea; elexatik kanpoko onespina ots andiarekin emotea; zer guzti ori dagokio parroki-zañari, elexea Obispoaren elexea ezteanean eta bertako Bazkide-Batzarrak eleizkizunok egiten eztauzanean.

463g. araua. § 1.—Parroki-zañak eskubidea dauko ekandu yatorrak eta 1507g. diñoan legez ezarritako ordain-saria artzeko.

§ 2.—Sari aziagoak eskatuko leukezanak atzera emon-bearra leukake.

§ 3.—Parroki-zañaren egitekoen bat iñork egin arren, saria parroki-zañarena da, lan-saririk ganerakoa emolleak lan egin dauanarentzat dala esan ezpalegi.

§ 4.—Lan-saria ordaintzeko gauza ezteanean ezpegioe parroki-zañak bere lana bardin egifia ukatu.

464g. araua. § 1.—Parroki-zañak bere zeregiñak beartuta parrokiko guztiak zaindu bear ditu euron betiko osasunari buruzkoetan, nonbait edo nonbaitzuk aren ardurapetik atarata ezpalegoz.

§ 2.—Obispoak artarako bidezko ziyo aztuna izan ezkeru atara legikez parroki-zañaren menpetik parroki-barrutian legokezan Jaun-zaleen eta ostantzeko Jaunaren aldeko zerbaitek egiteko etxeak.

465g. araua. § 1.—Parroki-zañak parroki-zain-etxean eta bere elexearen ondoan bizi-bearra dauko; baña Goterki-zañak, bidezko zi-yorik baleu, itxi legikeo beste nonbaiten biziten, parroki-zañaren egin-bearrak betetzeari kaiterik ekarteko bestean urrin ez izatekotan.

§ 2.—Urtero geyen baten illabete bi, nai etenak nai eten bakoak, parrokitik alde yoateko eskubidea dauko, Goterki-zañaren eritxiz ziyo larrien batek opor luzeagoa nai laburragoa eskatu ezpalegi.

§ 3.—120g. arauko gogo-iñarkunetan parroki-zañak emongo leukezan egunak ez tira opor-eguntzat artuten, urtean bein badira.

§ 4.—Nai etenik bakoak nai etendunak oporraldiko egunak, parrokitik alde egitea aste bete baño luzarogorako balitz, parroki-zañak, legezko ziyoaren ganera, Goterki-zañaren idatzizko bayetza be bear dau, ta bere tokian Goterki-zañak ontzat emondako ordezkoa itxi; parroki-zaña Jaun-zalea balitz, bere Nagusiaren bayezkoa be bear dau, ta ordezkoa bai Goterki-zañak bai Nagusiak ontzat emona itxi bear

§ 5.—Ziyo aztuna ta bidezkoa hida dala, parroki-zañak alde egin eta aste bete baño luzeago urrin egin-bearra baleu, zergaitik alde egin dauan eta ordezkotzat nor yaupari itxi dauan Goterki-zañari laster-laster idatziz agertu begio, eta Goterki-zañak aginduten dautsana begi.

§ 6.—Epe laburragorako alde egiten dauanean be, bere ordezkoa bere seme-alaben deyai nork erantzungo dautsen izentauta gero egin bear dau alde.

466g. araua. § 1.—Parroki-zañak, 335g. arauan aginduten dan lez, mezea bere parrokikoen alde emon-bearra dauko; erdi-parroki-zañak, 306g. arauak aginduten dauan lez.

§ 2.—Eskubide bardiñakaz bat egin direan bi nai geyago parroki zaintzen dauzanak edo bere parrokiak ganera beste bat nai beste batzuk bein-beinean zaindu bear dauzanak, bere ardurapean dagozan errien alde agindutako egunetan meza bakarra emonda, mezea-emon-bear-lege ori betetzen dau.

§ 3.—Goterki-zañak-artarako bidezko ziyoa baleu, parroki-zañari baimena emoteko eskubidea dauko, erriaren alde emon bear dauan meza ori legeak agindutako egunetan barik beste egun baten emoteko.

§ 4.—Parroki-zañak erriaren alde emon bear dauan meza ori zeozeren gora-berak beste nonbaiten emotea agindu nai aolkatu ezik, parroki-elexan bertan emon begi.

§ 5.—Parrokitik urrin legez dagoan parroki-zañak erriaren alde emoteko meza ori emon begi bera dagoan tokian, edo bere ordezkoa yaupariaren bidez parrokian bertan.

467g. araua. § 1.—Parroki-zañaren egin-bearrak: a) eleizkizunak egin; b) bere seme-alabak eskatzen dautsezanean Ikurtonak emon; d) bere artaldeko ardiak ezagutu ta ardi galduak billatu ta, al dala, artaldera ekarri; e) txiro ta gexoak aita-maitasarez lastandu; f) ardura andia artu umeak kistar-irakaskintza yatorragaz azi daitezana.

§ 2.—Ekin Jaunagan bere seme-alabai esan eta esaten euren parroki-elexara eldu daitezala bertako eleizkizunetan lagun egiten eta Jaunaren itza entzuten.

468g. araua. § 1.—Zoli be zoli ta maitekora agertu bear yake parrokizaña gexoai (erial), batez be laster ilteko dagozanai elexakoak garaiz emoten dautsezala eta euron arimak Jaunak errukiz atotsi dagizala otoizka.

§ 2.—Bai parroki-zañak bai beste edozein jauparik, gexo asarreai lagun egiten dautsenak, eskubidea dabe il-orduan irabazteko nekazka osoagaz Aita Santuaren onspena emoteko, Elexeak orretarako yarrita daukan otoitzaren bidez. Emon begi, bada, aitzubarik, onspen ori.

469g. araua. § 1.—Bere parrokiko edozein ikastoletan kistar-siñeskin-tzaren eta ekandu onen aurkatzorik irakatsi eztaiten zoli begiratu begi parrokizañak eta alkar maite izateari, siñeste yatorrari ta Jaunagazko artu-emonai lagun egiteko yarrita legokezan lanai al giñoan lagundu, eta, ezpalegoz, sortu.

470g. araua. § 1.—Edozein parroki-zañak parroki-idaztiak (liburuak), au da, ugutzatuena, sendatuena, ezkontzena ta ilena beukoz, eta bere parrokian zeinbat gizakume eta zertarikoak direan esaten dauan idaztia eukiteko be alegiñak begiz; idazti guztiok Elexeak emondako edo bere Goterki-zañak agindutako eraz idazti ta zoli zaindu begiz.

§ 2.—Ugutzatuen idatzian ganera ezarri bear dauz: ugutzatuaren bizitzako gora-bera onen oarra: a) sendespenarena; b) 1107g. arauak diñoana ezpalitz, ezkontzearena; d) goiko malletako berengo mallan ezarriarena (subdiakonotzea); e) Jaun-zaletza nagusiarena; —oarrok guztiok be idazti bearko dira nonbaiten ugutzaren agiria eskatzen dabenean.

§ 3.—Parroki-zañak idazti guztion bir-idazpena zeatz egiña urte bakoaren atzenean Obispoaren Idazkolarako bialdu begi; ez orraitio parroki bizi-lagunena.

§ 4.—Parroki-zañak beuko ta berabil bere ikurratza; beuko bere agiritegia be, eta bertan zaindu bear ditu emen goragoan aitatutako idazti guztiak, eta ganera Obispoaren idazkiak eta zaindu bear edo egoki litzakezan beste idazkiak batera. Zer guztiok Goterkizañak nai bere ordezkooak parrokia-ikustaldian nai beste edozein ordutan ikusi begiz, eta zoli be zoli begiratu begi beste ifloren eskuetaratu eztaitez.

X Atala

Parroki-zain-ordezkoak

471g. araua. § 1.—Jaun-zale-etxeari, Batzar-elexeari nai beste edozein legezko norbaiteri parrokia erantsi ezker, parroki orretako gizakumak parroki-zain lez zaintzeko, legezko norbait orrek bere ordezkooa bear dau, azur-mamizko laguna, parrokiaren ondasunetatik Obispoari deritxon lan-saria ezarririk.

§ 2.—Ordezko ori onan izentau bear da: a) parrokia ezarri yakon etxea Jaun-zaleena baledi, Jaun-zaleon Nagusiak aurkeztuten dautso Goterkizañari parroki-zain-ordezko egingo dauana; b) Bazkide-Batzarrarena nai beste edozein legezko norbaitena balitz parrokia, Batzarrak edo beste legezko norbaitek aurkeztuten dautso Goterki-zañari, ta beti oneri, Goterkizañari, dagokio 459g. arauak erabagiten dauan lez parroki-zain-Ordezkoa egitea. Beren-beregiko legeak nai ekanduak nai Obispoak ordezkooaren lan-saria yarri balegi, Ordezkoa berak, iflor bitarteko barik, berak gure dauana izentatzeko eskubideagaz, orduan Goterkizañak berak nai dauana izentauko dau.

§ 3.—Ordezko ori Jaun-zalea balitz, 454g. § 5g. arauko Jaun-zale-parroki-zaña aldatu leiteke; beste Ordezkoak kentzeko eskubiderik eztauko aurkeztu ebanak; Goterki-zañak aldatu dagikez, aurkeztu cutsona yakitun eginda, parroki-zañak aldatu dagikezan lez.

§ 4.—Parrokitarrok zaintzea Ordezko oneri bakarrik dagokio benetako parroki-zañen eskubide ta egin-bearragaz, guztientzako ta bertakoentzat bakarrik emonda legokezan legeen neurrian.

472g. araua. Parrokia nork zaindu barik gelditu baledi:

1.º Goterki-zañak len baño len yarri begi norbait parroki ori bein-beinean zaintzeko, lan saria be izentaut; Jaun-zaleena balitz, euren Nagusiaren bayezkoagaz.

2.º Bein-beineko zain ori yarri artean parroki-zaintzea, bestera erabagita ezpalego, Ordezkoaren lagunak egin begi; eta lagunok bat baño geyago balira, lelengoak; onetarik lagunik iflor izan ezpaleu, urrengo parroki-zañak; amaitzeko utsik gelditu dan parroki ori Jaun-zaleena baledi, etxeko Nagusiak; besteari buruz zein parroki dan urrengoa Goterki-zañak garaiz Eleiz-batzarrean edo bestela, erabagita beuko.

3.º Or 2.º zenbakiko legez utsik gelditu dan parrokia zaintzea bein-beinean artu dauanak, zein parroki utsik gelditu dan len baño len iragarri begio Goterkizañari.

473g. araua. § 1.—Bein-beineko Ordezko onek parroki-zañaren eskubide berberak daukaz eta egin-bear berberak lotuten dabe; etxako, orraitio, zillegi parroki-zañaren eskubideai eta bizibideari kalterik lekarkionik egiterik.

§ 2.—Gure Ordezko onek parroki-zain barriari nai bere tokia artuko dauanari Parroki-zain-buruaren edo Goterkizañak izentauriko beste abade baten aurrean agiritegiko giltzea ta parrokiaren liburu, agiri ta beste zer guztiak eta parrokia zaindu dauan artean diruari buruz izan dauzan emon-artuen kontu emon bear dautso.

474g. araua. 465, § 4,5 eta 1923, § 2g. arauetan esaten dan lez, Ordezko-ordezkuak arima-zaintzeari buruz parroki-zañaren eskubide guztiak daukaz, Goterki-zañak nai parroki-zañak zerbait kendu ezpadautse.

475g. araua. § 1.—Aguratu dalako, burua galdu daualako, bear danik eztakialako, itsutu dalako nai luzaroko beste eragozpideen batek bere zeregiña bete-eziñik yarri balegie, Goterkizañak bere ordea egiteko Ordezko laguntzallea bemoyo; parrokia Jaunzaleena balitz, Ordezko-laguntzalle onek euren Nagusiak aurkeztua izan bear dau; ordeko-laguntzalleau Jaunzalea ezteanean, Goterki-zañak parrokiaren irabazietatik bemoyo lan-sari egokia.

§ 2.—Ordezko-laguntzalleari, parroki-zañaren bearrak osoan balegiz, parroki-zañaren eskubide ta egin-bear guztiak dagokioz, mezea erriaren alde emon-bearra kendu ezker; aren ordeko zer batzuetan baño ezpalegi, bere eskubide ta egin-bearrak ordeko izentau ebeneko idatzitik agertuko dira.

§ 3.—Parroki-zaña bere senean balego, laguntzalleak bere lana aren menpean egin bear dau Goterkizañaren idatzia esango dautsen neurrian.

§ 4.—Baña parrokitarren arimak ordeko laguntzallearen bitartez bear dan lez zaindu ezin balediz, 2147-2161g. arauak erabagiten daben lez, parroki-zain bera kenduteko eskubidea legoke.

476g. araua. § 1.—Zaintzekoak larregi egin direalako edo beste ziyo batzukaitik Goterkizañaren eritxiz, parroki-zain bakarrak ezin baleu, bear dan lez, zaindu parrokia, ordeko laguntzalle bat nai batzuk, lan-sari egokia izentaurik, emon begioz.

§ 2.—Ordezko laguntzalleak nai parroki osorako nai parrokiaren zati berezirako izentau daitekez.

§ 3.—Ordezko laguntzalleak izentatzea eztagokio parroki-zañari, Goterkizañari baño, parroki-zaña entzunda gero.

§ 4.—Ordezko laguntzalle Jaunzaleak izentatzea be Goterki-zañari dagokio, baña euren legeen arauz dagokion Nagusiak parroki-zaña entzunda gero, aurkeztua.

§ 5.—Ordezko laguntzalleak goterkiko legeen nai ekandu txalogarrien nai Obispoaren aginduaren arauz parrokiaren barrutian bizi bear dau; ganera, 134g. arauak gure dauan lez parroki-zain eta ordezko guztiok parroki-etxe berean guztiak batera bizi daitezcan alegiñak egin bediz.

§ 6.—Ordezko onein eskubide ta egin-bearrak goterkiko erabagietatik, Goterkizafiaren idatzietatik eta parroki-zañak berak ezarten dautsezcan eskubide ta egin-bearretatik jakin bear dira; baña ostantxekorik oartu ezik, bere zeregiña parroki-zaintza osoan lagun eta ordezko egitez da, mezea erriaren alde emotea kendu ezker.

§ 7.—Parroki-zañaren menpeko da; parroki-zañak arimak zaintzeari buruz aitak semea lez argitu ta arteztu begi, begipean beuko; eta gitxienez urtean bein bere lagun onen yardun-bideari buruz yakitun egin begi Goterkizafiña.

§ 8.—Ordezko laguntzalleon bidez be kistarren bearrak bear dan bestean erantzun ezin balitz, 1427g. arauak esaten dautsan osapidea artu begi Obispoak.

477g. araua. 472-476g. arauotan aitaturatuko parroki-zain-ordezkoak, Jaunzaleak balira, 454, § 5g. arauaren neurrian kendu leitekez; ostantxekoak, bai Obispoak bai Batzar-Ordezkoak noiz gura; ez orraitio Danerako Ordezkoak, artarako beren-beregiko eskubidea emon ezpayako.

§ 2.—Ordezkozta bizibidezkoa balitz, Ordezko laguntzallea kentzeko, legeak ezarrira daukan auzi-bidera yo bear da; baña Ordezko ori kentzeko parroki-zaña kentzeko naikoa direan ziyoez ganera, ordezko-iñarkunetan parroki-zañari zor dautsan menpeko agertu-bearrean uts andiak egitea be naikoa da.

478g. araua. § 1.—Obispoaren elexako parroki-zañak lez, Obispoaren elexako parroki-zain-ordezkoak be goterkiko beste parroki-zain eta ordezkoak be aurea artzen dautse; bein-beineko parroki-zañok nor gorago yarri 106g. arauak emoten dauzan ebazpideakaz erabagi bedi.

§ 2.—Ordezko ordeztuak eta laguntzalleak, zeregin ori dauken artean, aurea artzen dautse ordezko lankide edo laguntzalleai; eta oneik beste abadeai.

XI Atala

Eleiz-zañak

479g. araua. § 1.—Eleiz-zain-izenagaz ez parroki-elexea, ez batzar-elexea ez Jaunzaleen etxeari erantsitako eztan elexea zaindu-bearrak ezarten yakon abadea ulertzen dogu.

§ 2.—Andrazko Jaunzaleen, eleiz-gizon ez tirean gizonezko Jaunzaleen, kistarren anai-arreba-batzaren nai beste edozein alkargoren eleizkizunak egiteko dagoan abadeak, *Araudi* onetan bakotxarentzat bere tokian ezarten direan lege bereziak daukiez.

480g. araua. § 1.—Goterkizafiñak berak nortzuk gura izentatzen ditu Eleiz-zañak, norbaitek aututeko nai aurkeztuteko eskubiderik ezpadau. Iñork olangorik baleu, Goterkizafiñaren zeregiña da bata ta bestea, eragozpiderik ezpadabe, ontzat emon eta izentatzea.

§ 2.—Elexea Obispoaren menpetik ataratako Jaunzaleena izan arren, Jaunzaleen Nagusi egokiak aurkeztu bai, baña Eleiz-zaña egitea Goterkizafiñarena da.

§ 3.—Abade-gayen etxeagaz edo eleiz-gizonak zaintzen daben beste ikastetxe bategaz bat eginda balego elexea, abade-gayon edo beste ikastetxearen Nagusia bera da Eleiz-zaña be, Goterkizafiñak bestera erabagi ezpalegi.

481g. araua. Eleiz-zain onek bere ardurapeko eleiz orretan ezin legike egin parroki-eleizkizunik.

482g. araua. Bidezko sortarauak alde eta parroki-eleizkizunai kalterik ez ekartekotan, Eleiz-zañak bere elexan eleizkizun ospetsuak be egin badagikez. Zer orreri buruz eztabaiden batzuk sortu balediz, Goterkizafiñari dagokio eztabaidea ebatzi ta aurrerantzean zer egingo agindutea.

483g. araua. Eleiz au parroki-elexatik naikoa urrin balego eta bere ondoan bizi direanentzat parroki-elexara eta bertako eleizkizunetara yoatea neketsuegi balitzakie:

1.º Goterkizafiñak eleiz-zañari agindu dagikeo: a) eleizkizunak erriarentzat egokienak litzakezan orduetan egitea; b) bertara doazanai yai ta barau-egunak iragartea; d) kistar-ikasbidea irakastea ta Barri Ona aldarrikatzea; bear izan ezker, agindu yakona egin ezpalegi, zigor gogorra erabiliko dauala esanik.

2.º Parroki-zañak eskubidea dauko bertan legoken Gure Jauna artzeko gexoai eroateko.

484g. araua. Eleiz-zañaren edo beste legezko Nagusiaren bayezko barik, edo gitxienez alan bidez uste izanda izan ezik, eztauko iñork elexa orretan meza emoterik, ezta ikurtonak emon nai beste edozein eleizkizunik egiteko eskubiderik; bayezkoa emon nai ukatu Elexearen legeak erabagita daukan lez egin bear da.

§ 2.—Elexa orretan egiteko itzaldiai buruz 1337-1342g. arauak aginduten dabena egin bedi.

485g. araua. Goterkizafiña nagusi dauala ta legez agindutako zer guztiak neurri dauzala, Eleiz-zañak zoli beragoyo eleizkizunak, eleiz-legeak aginduten daben lez, ganoraz egin daitezcan; legezko egin-bearrak zintzo bete; elexearen ondasunak ondo erabili; elexako ontzi-yantziak eta elexea bera be garbi ta ondo zaindu daitezcan, tokiaren santutasunari ta Jaunaren etxeari zor yakon lotsea galtzekorik ezer egin ez daiten.

486g. araua. Eleiz-zaña, iñork autua nai aurkeztua izan arren, Goterkizafiñak berari deritxonez edozein bidezko ziyoz kendu dagike; eleiz-zaña Jaunzalea balitz, bera kentzeari buruz 454, § 5g. arauak erabagiten dauana zaindu bedi.

BIGARREN ZATIA

Jaun-zaleak

487g. araua. Jaun-zaleen bizikerea, au da, kistar guztientzako aginduez ganera Kisto'ren Barri-Onak esaneko, txiro ta gizkarbi bizi-teari buruz emondako aolkuak be euren bizi-lege eginda batera bizi direanen bizikerea, edonork zer bikaintzat emon bear dau.

488g. araua. Urrengo arauetan erabiliko direan berba batzuk zer adierazoten daben:

1.º *Jaun-zaletza*: Kisto'k egitez eta berbaz irakatsitako santutasuna yadesteko sortua ta Elexeak ederretsitako gizabatza, bazkideak bere legeen arauz eta erriaren aurrean esaneko, garbi ta pobre biziteko berbea Jaunari santutasun orren billa emoten dautsela. Berba ori edo betiko, edo epe izentaurako izan daiteke, baña epea bete orduko barriro egiteko asmuagaz (1).

2.º *Lekaidi nai Lekaidetza*: Berba emote ospetsuak egiten direan Jaunzaletzea.

3.º *Lekaidetxe-bazkuna*: euren buruaren yabe direan lekaidetxe batzun alkarregaz bat egitea, bazkuna orren Buru bakarraren menpean.

4.º *Jaunzaletza azkatua*: Goterki-zañaren agintzapetik ateratako Jaunzaletzea.

5.º *Jaunzaletza nai Bazkuna*-izen bakarrak: nai betiko nai epe neurturako itz-emon lauak bakarrik egiten direan Jaunzaletzea.

6.º *Aita Santuaren legezko Jaunzaletza*, Aita Santuagandik ederrespena edo gitxienez gorespen-agiria izan dauana.

7.º *Goterki legezko Jaunzaletzea*: oraindiño or esandako zerik Aita Santuagandik izan eztauan Jaunzaletzea.

8.º *Eleiz-gizonezko Jaunzaletza*: bere bazkide geyenak yaupari badira edo izan bear badabe.

9.º *Erri-gizonezko Jaunzaletza*, bazkiderik geyenak yaupari ezpadira.

10.º *Jaunzale-etxea*: Jaunzaleen edozein etxe.

11.º *Lekaidetxe*: Lekaiden etxea.

12.º *Etxe osoa*: gitxienez bertan sei Jaunzale badira eta, eleizgizonezko Jaunzaletza balitz, zeiretatik gitxienez lau yaupari badira.

13.º *Erkia*: Jaunzaletza berberaren etxe batzuen alkarregazko bazkuna, guztion Nagusiaren menpean eta Jaunzaletza osoaren zatia baño eztana.

14.º *Jaunzale*: edozein Jaunzaletzaren bazkide dana.

15.º *Itz-emon laudun Jaunzalea*: edozein Jaunzaletzan itz emotea egiaña.

16.º *Lekaide*: lekaidien bateko Jaunzalea.

17.º *Aizta*: Berba emote laua egindako andrazko Jaunzalea.

(1) Emondako berbea bitariko izan daiteke: **ospetsua** ta **laua**. Ospetsuak berbearen aurka legez gauza litzaken ezer egiteko gaitasuna be kendu egiten dau; lauak emondako berbearen aurka ezer egitea galazo bai ta pekatu barik ezin daiteke ausi; baña legez gauzo litzakena egiteko gaitasuna ezta kentzen. Lelengo ezta gauza ezkonduko; bigarrena bai.

18.º *Lekaikea*: berba emote ospetsua dauan Jaunzaletzako andrazko bazkidea.

19.º *Buru Nagusiak*: izen orrek urrengoak adierazoten ditu: a) Nagusi guztien Nagusia; b) Lekaidetxe-bazkunaren Burua; d) edozein Lekaretzeko Nagusia, naita Lekaretxe ori Lekaretxe-Bazkunaren bazkide izan; e) Jaunzaletzaren Erkiburua.

489g. araua. Jaunzaletza bakotxaren arau ta legeak, bereziak balira be, Araudi onetakoen aurkakoak ezpadira, euren betiko indarra yagoten dabe; aurka legokezanak ausita dagoz

490g. araua. Jaunzaleai buruzko legeak gizonezkoai bakarrik emonda dagozalakoen antza ekarri arren, andrazkoak be bardin yoten dabez, esakeratik eta gayaren zertasunetik argi agiri ezpaledi andrazkoentzat eztana.

491g. araua. § 1.—Jaunzaleak erritarrak baño lenago artzen dabe lekua; eleiz-gizonezko Jaunzaleak erri-gizonezkoak baño lenago; Lekaide kanonigoak beste lekarotiak baño lenago; Lekarotiak beste lekaideak baño; lekaideak berba emon lauak dabezan Jaunzaleak baño; Aita Santuak eskua ezarrita dauken Jaunzaletzak oraindiño goterkikoak bakarrik direanak baño lenago; malla berberakoak direanean zein aurrerago litzakenari buruz ausia sortu baledi, 106g. arauak emoten dauzan legeetatik ebatzi bear da.

§ 2.—Baña eleiz-gizon erritarrak aurea dauke erritarrari eta edozein Jaunzaleai buruz be onein elextatik kanpoan; eta bai, euren elextetan be, Jaunzaleok eleiz-gizon eztiarean; Obispo-elexako nai beste elexako Batzarrak Jaunzaleai aurea artzeko eskubidea edonon dauke.

IX IDAZPURUA

Jaunzaletzea bera ta aren erki ta etxeak zelan sortu ta il

492g. araua. § 1.—Obispoak, ez euren Danerako Ordezkoak, ez Batzar Ordezkoak be, eregi dagikez Jaunzaletzak; ezpegiez baña eregi, ez eregiten itxi Aita Santuagaz arazoari buruz itzik egin barik; eta batera bizi direan irugarren mallakoak balira, lelengo mallako Lekaidiaren Nagusiak Lekaidiari erantsi barik.

§ 2.—Goterki-legezko Jaunzaletzeak urteak yoanaz goterki askotara zabaldu arren, Aita Santuaren ederrespena nai gorespen-agiria lortu arte, goterkia dirau, Elexearen legeen neurrian Goterkizañen menpeko.

§ 3.—Legez eregita bizirik dan Jaunzaletzaren ez izenik ez soñekorik ezin dagike artu legez aren bazkide eztiareanak, ez beste Jaunzaletza batek be.

493g. araua. Edozein Jaunzaletza, nai-ta goterki legezkoa izan, bein legez sortua izan ezkerro, nai-ta etxe bakarra euki, Aita Santuak bakarrik ausi dagike; eta Aita Santuari berari dagokio aren ondasunakaz zer egingo erabagitea, ondasunok emon dabezanen gurarien kontua eukita.

494g. araua. § 1.—Baita Aita Santuari dagokio: a) legezko Jaunzaletzea Erkietan zatitutea; b) yarritako Erkiak alkarregaz batutea

nai beste era batera mugarritzea; d) Erki barriak eregi nai eregitakoak austeia; e) bere buruaren yabe dan Lekaretxea Lekaretxe-Bazkunatik berezi ta beste bateri erantsitea.

§ 2.—Erkia ausi ezkeru, aren ondasunai buruz, zuzenaren legeak eta ondasun emoilleen gogoak beteta, erabagitea, Jaunzaletzaren legeak bestela agindu ezpalegie, Batzar-nagusienari dagokio, eta Batzar-alditik kanpora, Nagusienari bere Aolkariakaz.

495g. araua. § 1.—Goterki-legezko Jaunzaletzak ez dagike beste goterki baten etxerik eregi Goterki-zain bien baimen barik, bai Jaunzaletzaren buru egiten dauan goterkizañarena, baita etxe barri ori eregi gure daben goterkizañarena; bere goterkitik urten nai dabenai ango goterkizañak ezpegie baimena ukatu ziyo aztunik ezpadau.

§ 2.—Beste goterki batera nai batzuetara zabaldua balitz, bere legeetatik ezin leiteke pitzik aldatu euren goterkietan etxeak daukiezan goterkizañak, guztiak eta bakotzak, bere baimena emon ezik, 492, § 1g. arauan esaten dan lez, Aita Santuari iragarriak ikutu gabe.

496g. araua. Ezpedi Jaunzaletzaren etxe barririk eregi, edo lendik leukezan ondasunen mozkiñetatik edo oi direan ukarretatik edo beste bide batetik bazkideak bizitoki ta azkurri egokiak izango dabezalako itxaropena dagoanean baño.

497g. araua. § 1.—Jaunzaletzaren etxe azkatua, osoa dala osoa ezjala, nai lekai-me-etxea, nai Siñeskintza-Zabalkuntzarako Bazkun Gu-renaren menpean dagozan lurretan edozein Jaunzaletzaren etxe eregiteko, Aita Santuaren baimena eta idatziz emondako goterkizañaren bayezkoa bear dira; ostantxean naikoa da goterkizañaren bayezkoa.

§ 2.—Eleiz-gizonezkoena danean, etxe barria eregiteko baimenak etxeari erantsitako elexea edo agiriko otoiztegia eukiteko baimena be badaroa 1162, § 4g. arauak erabagiten dauanaren kalte barik; eta bete-bearrak bete ezkeru, legezko eleizkizunak egiteko eskubidea; eta Jaunzaletza guztientzat, bere-bereak litzakezan Jaunaren aintzazko zeregiñak burututeko be bai, etxea eregiteko baimenean beren-beregi ezarritako baldintzen kalte barik.

§ 3.—Ikastetxe, arrotzetxe edo onetarikoko beste etxeen bat Jaunzaletzaren euren etxetik alde eregiteko, naita etxe azkatua izan, bearreko ta naikoa dabe goterkizañaren idatzizko baimena.

§ 4.—Eregitako etxea beste zeregin batzuetarako aldatu daiteke arau onen § 1 esan direan egin-bearrak barriro eginda; ez, orraitio, aldakuntzok etxe-barruko bizikereari buruzkoak baño ezpalira; eta beti gogoan euki bear da etxea eregitorduan ezarri ta artutako baldintzak zintzo betetakoak direala.

498g. araua. Jaunzaletzaren etxerik, osoa dala osoa ezjala, Jaunzaletza azkatuarena bada, ezin daiteke ausi Aita Santuaren bayezko barik; azkatua barik Aita Santuaren legezko Jaunzaletzarena balitz, Nagusienak, Goterki-zaiña atara balego, ausi dagike; goterki-legezko Jaunzaletzarena balitz, Goterki-zaiñak, Jaunzaletzaren Nagusienaren eritxia entzunda, beste barik ausi

dagike; Jaunzaletzaren etxe bakarria balitz, 493g. arauan esana gogoraturik, Aita Santuari bakarrik ausi dagike; ganera, Jaunzaletzaren etxeak ausitzeari buruz, eskubidea emoten dau legeak ausia Aita Santuagana eroateko, ta Erroma'tiko erantzuna etorri arte ezin leiteke bete Goterkizañaren erabagia.

X IDAZPURUA

Jaunzaletzaren

I Atala

Nagusia ta Batzarrak

499g. araua. § 1.—Jaunzaletzaren guztiak, euren Buru nagusienari lez, Aita Santuari men egin-bearra daukie, eta aren esanera egon bear euren Nagusiar esaneko izango zireala emondako itzaren indarrez be.

§ 2.—Jaunzaletza bakotxaren Kardenal Yagoleak, alangoen baten beren-beregi artarako eskubidea emon ezik, ez Jaunzaletza osoari ez bazkide bakotxari ezer aginduteko eskubiderik eztauko; Jaunzaletzaren bizikereari ta ondasunak zaintzeari buruz be eztau nastu bear; bere zeregiña ezta besterik Jaunzaletzaren ona onu ta bear leuken laguntzearen bidez aldeztutea baño.

500g. araua. § 1.—Jaunzaletzaren Guztiak, euren buru nagusienari lez, Aita Santuagandik azkatasun-legea artutakoak ezpadau; eta azkatasun ori lortuta gero be. Elexearen legeak goterkizañari Jaunzaletzaren buruz emoten dautsezan eskubideak zutunik yarraitzen dabe.

§ 2.—Euren legeen aginduz Jaunzaletzaren Nagusien menpean bizi direan lekai-meak Eleiz-legeak aginduten dauanean bakarrik yakoz menpeko Goterkizañari.

§ 3.—Gizonezko Jaunzaletzak ezin dagike bere menpekotzat euki andrazko Jaunzaletzarik, ez eurok zaintzea berari bakarrik ezarritotzat euki.

501g. araua. § 1.—Nagusia ta Batzarrak euren lege bereziak eta Jaunzaletzaren guztientzako Elexearen legeen neurrian euren menpekoai buruz etxe-yaunak bere etxe-koai buruz dauan aginpidea daukie; eleiz-gizonezko Jaunzaletzetan, bai ixileko bai agiriko auzitegian, Elexearen aginpidea be badaukie.

§ 2.—Euren Nagusia guztioi Zeregin Santuarena deritxon Erroma'ko Bazkunaren arazoetan nastutea garratz galazoten yake.

§ 3.—Lekarotien artean ez Nagusien-Nagusienak ez Lekaretxe-Batzaren Nagusiak eztaukez Elexearen legeak beste Jaunzaletzetako Buru Nagusiar emoten dautsezan al eta eskubide guztiak; eurok zer dagiken yakiteko euren legeak eta Aita Santuaren erabagi bereziak begiratu bear dira, 1594, § 4g. arauak erabagiten dauanaren kalte barik.

502g. araua. Jaunzaletzaren Nagusienak Jaunzaletzaren erki, etxe ta bazkide guztiak buruz dauko eurok zaintzeko eskubidea euren

legeak erabagiten daben neurrian; beste Nagusiak bakotzak bere zeregiñaren muga-barruan.

503g. araua. Eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatutako Buru Nagusiak ziñaldariak egiteko eskubidea be badabe; orraitio euron Jaunzaletzako eleiz-arazoetarako bakarrik.

504g. araua. Adin elduagoa ta ostantzeko zeretan be geyago eskatzen daben Jaunzaletza bakotzeko legeak bete-bearra zutunik itxita, Buru Nagusi izateko eztira gauza:

1.º Jaunzaletzako bazkide egin zan ezkerko amar urte bete bakoak; urteok lelengoz bazkide zuan ezkerokoak izan bear dabe.

2.º Sasi-kumeak.

3.º Oraindiño yayotzatik berrogei urte bete bakoak, Nagusia nai Lekaimetxeko Nagusia izentatzea bada; ogeta amar urte, Buru Nagusia izateko.

505g. araua. Jaunzale-Buru Nagusiak, euren legeak bestera agindu ezik, epe neurturakoak izan bediz; etxe bakotzeko Nagusiak ezpediz izentau iru urte baño epe luzeagorako; epe au bete ezkerko, Jaunzaletzako legeak alan itxi ezkerko. autu leitekez bariro bertako Nagusi izateko, ez baño etxe bererako irugarrenez yarrayan.

506g. araua. § 1.—Gizonezko Jaunzaletzetan Buru Nagusienaren autespena egitorduko bazkide guztiak eta bakotzak zin egin bear dautsa Jaunari zeregiñerako gaiena dala deritxona autuko dauala.

§ 2.—Lekaimen etxeetan Etxeko-Andrearen auteskundearen batzarreko maipuru Lekaimenok balitu, Goterkizaña izango da. baño Lekaimen etxe-barrura sartu barik eta autarkiak aztartzeko abade bi lagun dauzala; menpeko eztauzanean be, naita euren Nagusi dan Lekaideburuak auteskundera eldu bear, auteskunde orren yakitun egin bear dau Goterkizaña, auteskundera zein egunetan eta zein ordutan izango. nai badau bertaratu daiten; eta etorri baletor, auteskundearen maipuru egitea berari dagokio.

§ 3.—Autarkien aztartzalzetat ezpediz artu Lekaimen noiz gurako autor-tzaentzuleak.

§ 4.—Lekaimen ezteirean andrazko Jaunzaleen Nagusienaren auteskundearen maipuru auteskundera egiten dan tokiko Goterkizaña izan bedi, nai berbera nai bere ordekoaren bitartez; eta Jaunzaletzea goterki-legezkoa balitz, egindako autespena sendetsi nai ausi egiteko eskubide osoa dau, bere barruak esaten dau-tsana entzunda beste barik.

507g. araua. § 1.—Batzarrak egingo dabezan auteskundeetan lege izango dabe lelengo Elexa osoaren auteskundetarako 160-182g. arauak aginduten dabena; ta gero arau orreñ aurka ez legokezan Jaunzaletzaren lege bereziak.

§ 2.—Bebiz gero kontuz iñork ez norberetzat ez iñorentzat autarki-billa ez ekiteko.

§ 3.—Legezko eskea noz edo beiñeko baten bakarrik egin leiteke eta Jaunzaletzako legeak ez galazotekotan.

508g. araua. Nagusiak bizi bediz bakotxa bere etxean eta ezpegie bertatik alde egin euren legeak izten dauksen lez baño.

509g. araua. § 1.—Edozein Nagusik zoli ekin bear dautso bere menpekoak Aita Santuak Jaunzaletzetat emondako legeak yakin eta bete dagiezan.

§ 2.—Etxe bakotzeko Nagusiak begiratu begie:

1.º Gitxienez urtean bein, izentauta dagozan egunetan, guztien aurrean eta guztiak batera dagozanean irakurri daitezcan Jaunzaletzako legeak eta Aita Santuak guztien aurrean irakurteko aginduagaz emongo leukezanak.

2.º 565, § 2g. arauaren aginduari ezer kendu barik, gitxienez illero birritan berengo mallako Jaunzaletzetat eta etxeko otseñentzat kistar-ikasbidearen irakatsia eurak ulertzeko eraz egiñ dedin; eta batez be guztiak erri-gizon direan Jaunzaletan, guztiak santutasun-bidean bizkor yoan daitezcan entzuleak berotuteko itzaldia.

510g. araua. Lekarotien Nagusien-Nagusienak, Lekarotxe-Bazkunaren Buruak eta Aita Santuaren legezko edozein Jaunzaletzaren Nagusienak, bost urtetik bost urtera, eta baita sarriago be legeak alan agindu ezkerko, Jaunzaletzari buruzko txostena Aita Santuari agindu bear dautse berak eta bere aolkariak izenpetuta; eta Jaunzaletzea andrazkoena balitz, Nagusia bere aolkariakaz bizi dan tokiko Goterkizaña be izenpetu bear dau.

511g. araua. Zeregin onetarako euren legeak izentauriko Jaunzaletzaren Buru Nagusiak euren legeetan ezarritako epeetan menpeko dabezan etxe guztiak ikusi-aztertu bear dabez, al dala, eurak; ori ezin balebe, iñoren bitartez.

512g. araua. § 1.—Bertako Goterkizaña, berberak edo iñoren bitartez, bost urtetik bost urtera ikusi bear ditu:

1.º Berari nai Aita Santuari bitarteko barik menpeko yakezan lekaimen-etxe guztiak.

2.º Goterki-legezko Jaunzaletza guztien etxeak, bai gizonezkoenak, bai andrazkoenak.

§ 2.—Bardin epe orretan ikusi bear ditu:

1.º Lekaideen menpean dagozan lekaimen etxeak atek itxita bizi-bearrari buruz; eta bai beste zer guztiak buruz be, bost urte ezkerko Lekaide-Nagusiak ikusi ezpalitu.

2.º Eleiz-gizonezko ta Aita Santuaren legezko Jaunzaletzea izan arren be, elxeari, sakristiari, erriarentzat zabalik daben otoiztegiari, autortegiai buruzkoetan.

3.º Aita Santuaren legezko erri-gizonezko Jaunzaletzaren etxe guztiak, ez

bakarrik or onen aurreko zenbakian esandako zerai buruz, baita euren etxe-barruko bizikereari buruzkoetan be; alan be 618, § 2, 2.º esaten dan neurrian.

§ 3.—Ondasunak zaintzeari buruz 532-535g. arauetan aginduten dana bete bedi.

513g. araua. § 1.—Ikusleak berari deritxozan Jaunzaleak deitu ta itanduteko, eta egitekoari dagokiozan zer guztiak jakiteko, eskubidea ta eginbearra dauko; eta Jaunzale guztiak egia erantzun-bearra dauke; eta Nagusiak ezin dagikie inor egia ixiltzera ekarri, ezta edozelan Ikuslearen elburua eragotzekorik ezer egin.

§ 2.—Ikuslearen aginduetatik eztago inora gorago yoteko biderik arek agindua makaltzeko; bein-beinean bete egin bear da, auzi-bidez yokatu ezpadau.

514g. araua. § 1.—Eleiz-gizonezko Jaunzaletza guztietan Nagusiak eurak euren eskuz nai inoren bitartez gexo Jaunzaleai ta Jaunzale-gayai ta otsein direalako nai azi-eziteko nai aterpe-billa etorrita nai osasun txarragatik etxean gau ta egun legokezan guztiai elexakoak emoteko eskubidea ta eginbearra dauke.

§ 2.—Lekaime-etxeetan eskubide ta egin-bear ori euren eguneroko autortzulearena edo bere ordezkioarena da.

§ 3.—Beste erri-lagunezko Jaunzaleen etxeetan eskubide ta egin-bear ori bertako parroki-zañari dagokio, edo Goterkizañiak 464, § 2g. arauaren neurrian parroki-zañaren ordezkioa egiteko emon dautsen yaupariarena da.

§ 4.—Il-ondoko eleizkariak buruz 1221 ta 1230, § 5g. arauetan agindua egin bedi.

515g. araua. Jaunzaleen artean izen utsezko Nagusiak zeatz galazota dagoz; euren legeak galazo ezpalegie, bakarrik itxi leiteke benetako Buru Nausietariko izanai izana gogoratzen dautsen izena emotea.

516g. araua. § 1.—Jaunzaletzako Nagusienak, Lekaretxe-Bazkunaren Buruak, eta edozein Jaunzaletzako etxeke Nagusiak, gitxienez etxe osokoak. beuko bakotxak bere Aolkari-batza, Jaunzaletzaren edo Elexearen legeak aginduten dautsenean bere baimena edo eritxia emongo dautsena.

§ 2.—Begoz ondasunak zaintzeko diru-zañak be: orokarra, Jaunzaletza osoaren ondasunak zaintzeko; erkikoa, erkiaren ondasunak zaintzeko; etxeke, etxe bakotxarenak zaintzeko. Diruzañok euren zeregiña bete begie bakotxak bere Nagusiaren menpeko.

§ 3.—Diru-zain orokarra nai erkikoa ezin leiteke izan Nagusia berbera; etxeke diru-zaintzea be oba da Nagusiak berak ez egitea, baña itxi leitekio, artarako gauza dan beste inor ezpalego.

§ 4.—Diru-zañok izentatzeari buruz, Jaunzaletzako legeak ezer erabagi ezpalegie, Buru Nagusiak bere batzarragaz batera autu begiz.

517g. araua. § 1. Aita Santuaren legezko Jaunzaletza guztiak bakotxak bere arazo-zaiña beuko; berau Jaunzaletza bakotxaren legeen

arauz izentaua izango da, ta bere zeregiña Jaunzaletzaren arazoak Aita Santuaren aurrera eroan eta andik ekarteko da.

§ 2.—Jaunzaletzako legeak izentatzen dautsen epea bete arte ezpegie kendu, Aita Santuari ezer esan barik.

II Atala

Autortza-entzuleak eta eleiz-zañak

518g. araua. § 1.—Eleiz-gizonezko Jaunzaletzako etxe bakotxean autortzule batzuk izentau bediz, gitxi-geyago, etxekeak zeinbat direan begiratuta, legez ontzat emonak; eta Jaunzaletza azkatua balitz, Jaunzaletzan edonork azketsi eztagikezan pekatuak azkesteko be eskubideagaz.

§ 2.—Jaunzaleen Nagusiak, autortzak entzuteko eskubidedunak, bete-bearrak beteta, euren kabuz eskatuten dautsen menpekoen autortzak entzun dagikiez; baña ziyo aztun barik, ezpegiez sarri entzun.

§ 3.—Alde egin begie Nagusiak, ez euren ez besteren bitartez, indarrez, bildurrez, eskatu ta eskatuz edo beste edozelan euren menpekorik eurai pekatuak autortzera ekartetik.

519g. araua. Autortza epe izentautan autortza-entzule izentauari egiteko agindu nai aolkatzen daben legeak ez kendu ez makaldu barik, edozein Jaunzalek, azkatua balitz be, bere barruko bakearen billa, tokiko Goterki-zañak ontzat emondako autortza-entzuleagana badoa, nai ta autorza-entzule ori Nagusiak izentaurikoen artekoa izan ez, autortzea, aurkako edozein lege berezi ausita, legezkoa ta ona da; autortza-entzule orrek Jaunzaletzan berezitako pekatuak eta zigor osagarriak be azketsi dagikez.

520g. araua. § 1.—Andrazko Jaunzaleen etxe bakotxari etxeke guztien autortzak entzun bear dauzan autortza-entzule bakarra emon bekio, batentzat larregi direalako edo bidezko beste ziyoen bategaitik beste baten nai batzuen bearra ezpaleu.

§ 2.—Jaunzaleen batek bere barruaren bakerako, nai Jaunaganako bidean bizkorrago yoateko autortza-entzule nai arima-zain berezia eskatu balegi, Goterki-zañak erraz bemoyo; orraitio, Goterki-zañak zur egon bear dau emote orretatik nasterik etorri eztaiten; eta etorri baletor, kontuz ta zur kendu begiz, barruen azkatasunaren kalte barik.

521g. araua. § 1.—Andrazko Jaunzaleen etxe bakotxari nozean beingo autortza-entzulea be emon bekio; berau urtean gitxienez lau bider eldu bedi Jaunzaleen etxera, ta etxeke guztiok eldu bear dabe bera-gana, gitxienez bere onespina artzeko.

§ 2.—Andrazko Jaunzaleen etxeak dagozan tokietako Goterki-zañak etxe bakotxerako yaupari batzuk izentau begiz bertako etxekeak euron autortza entzuten etorteko deitu dagikiezan, bearra daben bakotxean Goterki-zañagana yo bear barik.

§ 3.—Jaunzaleen batek onetariko autortza-entzulea eskatu ezkeror, etxeke Andreari etxako zillegi, ez berak ez beste inoren bitartez zergaitik eskatzen dauan

yakin-gurarik erakusterik, ez eskariari itzez nai egitez gogor egiterik nai edo-
zelan txarto deritxola erakusterik.

522g. araua. 520 ta 521g. arauetan erabagi danaren kalte barik, andrazko Jaunzaleen batek bere barruaren bakerako bertako Goterkizañak emakumeen autortzak entzuteko ontzat emondako autortza-entzuleen bategana yo balegi, autortzea edozein elexan nai otoitzegian, nai ta erdi-agirikoa baño izan ez, autortza ori baliozkoa ta bidezkoa litzake, eskubide onen aurkako edozein lege be ausita; eta Jaunzaleen edozein Nagusik ezin legike eskubide au erabilterik galazo ez zearka be agaitik itaunik egin: eta menpekoak eztauke Nagusiari garbitasunik emon bearrik.

523g. araua. Edozein andrazko Jaunzalek, gexorik asarre balego, nai ta oraindiño ilteko-zorian egon ez, andrazkoen autortzak entzuteko ontzat emonda dagoan edozein yaupari, andrazko Jaunzaleentzat izentau ta ezpalego be, deitu dagike, eta berari gexo asarreak dirauan artean noiz gura autortza egin; ta etxeko-Andreak ez artez ez zearka ezin legikeo galazo.

524g. araua. § 1.—Andrazko Jaunzaleen autortza-entzuleak, bai noiznaikoak bai noizean-beingoak, ekanduz garbiak ta zurtasunez nabariak direan yaupariak, nai erritarrak nai euron Nagusiaren baimenagaz Jaunzaleak izentau bediz; ganera yayotzatik berrogei urte beteak dabezanak, gazteagoa izentatzeko ziyoa dagoala uste izan ezik Goterkizañak; ganera, andrazko Jaunzaleon ganean eta agiriko auzitegian aginduteko ezertariko eskubiderik eztaukenak.

§ 2.—Noiz-naiko autortza-entzulea ezin leiteke noizean-beingo autortza-entzule izentau, ezta 526g. arauan aitaturten direan yazokunetan izan ezik, etxe bererako noiznaiko be izentau, bere zeregiña beteta urte bete yoan artean; noizean beingo oster, bere zeregiña bete ala izentau leiteke noiznaiko.

§ 3.—Andrazko Jaunzaleen autortza-entzulek, noiznaikoak nai noizean-beingoak, ezpediz nastu ezertara etxe-barruko nai kanpoko arazoetan.

525g. araua. Andrazko Jaunzaleen etxea Aita Santuaren nai Goterkizañaren menpeko balitz, yaupari autortza-entzuleak, bai noiznaikoa bai noizean-beingoak izentatzea Goterkizañari dagokio; Lekaipuruaen menpekoa balitz, oneri dagokio autortza-entzuleak Goterkizañari aurkeztutea, eta lekaimeen autortzak entzuteko eskubidea emotea Goterkizañari dagokio, eta bai, bear izan ezker, Lekaipuruaen nagikeriaren utsa betetea be.

526g. araua. Andrazko Jaunzaleen noiznaiko autortza-entzuleak ezpegi bere zeregiñean iru urtetik aurrera yarraitu. Noizen-beingo barriz bigarren eta irugarren urte urrenerako be sendetsi leiteke bai zeregin onetarako gai direan yauparien urritasunagaitik bestera ezin yokatu dai-
tekelako, edo bai andrazko Jaunzalerik geyenak, arazo onetan ostantzeko zere-
tan autarkirik eztaukienak be autortza-entzule berberaren sendespena autarki

ixilez eskatu dabelako; alan be beste eritxikoak direanai, gura badabe, beste bat emon bear yake.

527g. araua. 880g. arauaren erabagiaren indarrez, Goterkizañak, artako ziyoz aztunik baleu, andrazko Jaunzaleen autortza-entzulea, bai noiznaikoa, bai noizen-beingo kendu legikez, naita lekaimeak Lekaideen menpekoak izan eta baita yaupari autortza-entzulea be lekaide; ta zergaitik kendu dauan iñori esan-bearrik eztauko Aita Santuari ezpada, beronek agindu balegio. Lekaimeak lekaideen menpeko balira, Lekaipurua egindakoaren yakitun egin bear dau.

528g. araua. Gizonezko erritar Jaunzaleen etxeetan be, 874, § 1 eta 875, § 2g. arauen neurrian, noiznaiko ta noizean beingo autortza-entzuleak izentau bear dira; ta Jaunzaleok berarizko autortza-entzulea eskatu balegie, Nagusiak, zergaitik eskatu dauan yakiteko alegiñik egin barik, edo etxakola begiko erakutsi barik, bemoyo.

529g. araua. Jaunzaletzea azkatu bako erritarrena balitz, eleizkizunak euroi egingo dautsezan yauparia izentatzea Goterkizañari dagokio; bardin eurari itzaldiak egitekoa ederrestea; azkatuak balira, Jaunzaleen Buru egiten dauanak izentatzen dauz yaupariok, eta Goterkizañak arek egin eztauanean.

530g. araua. § 1.—Jaunzale Nagusi guztiai euren menpeko iñor bere barrua agertzen ez beartzeko agindu larria emoten yake.
§ 2.—Menpekoai, baña, euren oldez ta iñork beartu barik bakotxak bere barrua Nausiari agertuteko eskubidea etxake kentzen; guztiz ontzat emoten da menpekoak euren Nagusiakana yotea eta eurari, yaupariak balira, euren barruko kezak eta ezpayak agertzea.

III Atala

Ondasunak eta eurak zaintzea

531g. araua. Ez bakarrik Jaunzaletzea, baita bere erkia eta etxe bakotxa be ondasunak euren mozkiñakaz euren duta euren jabe lez eskutiko gai dira, gaitasun ori euren arau ta legeetan ukatu nai moztu ezpalegi.

532g. araua. § 1.—Bai Jaunzaletzearen, bai erki ta etxe bakotxaren ondasunak legeen arauaz zaindu bediz.

§ 2.—Ondasunak ondo zaintzeko iya egunero egin bear direan eralgiketak eta legezko beste zerak, Nagusiez ganera, artarako legeen arauz izentatzen direan beste zeregindunak be, bakotxak berari dagokion arloan, egin dagikiez.

533g. araua. § 1.—Dirua ezartean be 532, § 1g. arauaren agindua bete bedi; baña aurretik Goterkizañaren baimena eskatu ta lortu bear dabe:

2.º Aita Santuaren legezko Jaunzaletzako Nagusiak, ezarteko dirua Jaunzaleen bizitza-saria balitz.

3.º Gizonezko nai andrazko Jaunzaletzako Nagusiak, ezarteko dirua an bertan eleizkizunak egiteko nai beartsuai lagun egiteko emondako ondasunen diruak balira.

4.º Edozein Jaunzalek, nai ta lekaidea izan, parroki nai belguntza bateri emona danean dirua; edo Jaunzaleai parroki nai belguntzeari lagun etorteko asmuagaz emon danean.

§ 2.—Guzti ori egin bear da diruaren ezarpena aldatzen dan baktotxean be.

534g. araua. 1531g. arauaren aginduaren kalte barik, berez balio andiko direan gauzak eta ogeta amar mille lauerlekotik gora balio daberen ondasunak iflorenak egin edo ogeta amar mille lauerlekotik gorako zorra egin edo beste edozein erantzun-bearra lekarken itunbenen bat egin bale-di, itunbena utsa litzake aurretik Aita Santuaren baimena lortu ezpaledi; ostantxean legezko Nagusiaren idatzizko baimena bere aolkariak autarki ixilez emon-dako bayezkoagaz bear da eta naikoa be bada; baña itunbenok Lekaimiak edo goterki-legezko andrazko Jaunzaleak lotuko balebez, bertako goterkizafiaren idatzizko baimena bear da, ta baita Lekaipuruarena be, lekaimeak bere menpeko balira.

§ 2.—Zorrak egiteko nai erantzun-bearrak artzeko bayetzaren eske doanak, legezko norbaitek: Jaunzaletzak, erkiak, etxeak ordurako lepoan daroazan beste zor eta erantzun-bearrak agertu bear dauz; ostantxean, emongo leuskion baime-na utsa litzake.

535g. araua. § 1.—Edozein Lekaimie-etxetan, baita azkatuan be:

1.º Ondasun-zaintzeari buruzko egiñen barri, urzurik eskatu bear dana, urtean bein, eta euren legeetan alan aginduta balego, sarriago, etxeko-Andreak bemoyo Goterkizafiari; eta baita legezko Lekaipuruari be, lekaime-etxea onen menpeko balitz.

2.º Ondasun-zaintzeari buruzko kontuak beteko ezpalebe Goterkizafiña, gaxok sendatzeko osabideak agindu dagikez, bear izan ezkerro, ondasun-zafiña ta lagunak euren zeregiñetik kenduta be; ta Lekaimie-etxea Lekaipurupekoa balitz, Goterkizafiñak zer yazoten danaren yakitun begi Lekaipuruua, okerrok arteztu dagizan; ta Lekapuruua nagi agiri bale-di, Goterkizafiñak berak agindu begiz osapideak.

§ 2.—Beste andrazko Jaunzaleen etxeetan Jaunzale baktotxaren bizi-sariari buruzko diruak zelan direan erakutsi bear dautse Goterkizafiñari, etxea ta etxeakoak ikusten datorrenean; eta sarriago be bai, Goterkizafiñak alan agindu balegi.

§ 3.—Goterkizafiñak badau eskubidea oraindik geyago yakiteko be:

1.º Goterki-legezko Jaunzaleen etxeetako ondasun-zaintzea.

2.º 533, § 1, 3.º, 4.ºg. arauan esanda dagozan lurrai ta ondasunai buruzkoak.

536g. araua. § 1.—Legezko norbaitek (Jaunzaletzak, erkiak, etxeak) zorrak egin eta erantzun-bearrak artu balitu, naita Nagusiaren baimenagaz, berea dau arei erantzun-bearra.

§ 2.—Lekaideak bere Nagusien baimenagaz egin-artu balitu, baimena emon eben Nagusien legezko norbait orrek erantzun bear dau; Berba-emon laudun Jaunzalea balitz, berak erantzun bear dau, Nagusiaren baimenagaz Jaunzaletzaren zerbait erabilli ezpaleu.

§ 3.—Nagusien ezertariko baimen barik edozein Jaunzalek egin balitu, berak erantzun bear dau ta ez Jaunzaletxeak, ez erkiak, ez etxeak.

§ 4.—Orraitio, egiune-bidez gauzea berea egin dauanaren aurka auzitegira yo leiteke.

§ 5.—Bergia bizkor berabille Jaunzaleen Nagusiak zorrik egiten iflori ez izteko; eguneroko irabaziakaz zorraren mozkiñak ordaindu ta zorrezko dirutzea bera be epe luzeegian barik zor osoa ordaintzeko gai direala ziur jakin ezik.

537g. araua. Etxearen, erkiaren eta Jaunzaletzaren ondasunetatik diru-emonak egiterik ezta zillegi ukar-zurrean edo beste bidezko ziyoen bategaitik baño, eta legezko Nagusiaren bayezkoagaz eta legearen neurrian.

XI IDAZPURUA

Jaunzaletzako zelan egin

538g. araua. Ezertariko eragozpenik galazoten eztautsan eta asmo arteza dakarren eta Jaunzaletzako zamak eroateko indarra daukan edozein kistar katoliko artu leiteke Jaunzaletzean.

I Atala

Jaunzale-ate-aurrekoak

539g. araua. § 1.—Betiko berbea emoten dan Jaunzaletzan andrazko guztiak, eta gizonezkoetan bigarren mallako izatekoak legezko azi-ezi-aroari asierea emon baño lenago, eske-maillako aldia egin bear dabe, gitxienez sei illabetekoa; epe neurtuko berbea emoten daberen Jaunzaletzetan eske-aldiari buruz, bai egin-bearrari buruz, bai epeari buruz, Jaunzaletza baktotxaren legeak aginduten dabena egin bedi.

§ 2.—Legeak agindutako epe ori Jaunzaletzako Buru nagusiak luzatu dagike; ez, orraitio, beste sei illabete baño geyago.

540g. araua. § 1.—Eske-aldi au edo Jaunzale-geyak azi-eziteko etxean bertan edo Jaunzale-bizikerea zeatz egiten dan beste etxe baten egin bear da, Jaunzale yatorrak zainduta.

§ 2.—Jaunzalegeyak soñeko apala yantzi begie, eta azi-ezitaroan dagozanen bardifiña ezdana.

§ 3.—Lekaimie-etxeetan eske-aldiko lekaimiegyak itxita bizi-beartzen dauzan legearen azpian dagoz.

541g. araua. Jaunzale-geyok azi-ezitaroa asi orduko gitxienez zortzi egu-
neko gogo-ñarkunai ekin bear dautse, eta autortza-entzule
zurraren eritxiari yarraituz, ordurarteko bizitzeari buruzko autortza osoa egin.

II Arala

Azi-ezitaroa

I Atalkia

Azi-ezitarora artzekoak zertzuk bear dabezan

542g. araua. 539-541g. arauetan agindua eta Jaunzaletza bakotxaren le-
geak aginduten dabena be zutunik direala:

- 1.º Alperrik artuko litzakez azi-eziteko:
 - a) Katoliko eztan gizabatza bateko bazkide dana.
 - b) Azi-ezitarorako bear direan urteak eztaukazana.
 - d) Jaunzaletzan ñörk indarrez, bildurrez edo iruzurrez beartuta sartzen direanak, edo Nagusiak alan beartuta artuko leukezanak.
 - e) Senar-emazteak, ezkontzeak dirauan artean.
 - f) Jaunzale direanak edo izan direanak.
 - g) Legeen bat ausi dabelako zigor aztuna artzeko zorian direanak, salatuak izan badira edo izateko badira.
 - i) Obispoak, nai goterkiduna nai izen utsezkoa izan, Aita Santuak izentaua balitz.
 - j) Aita Santuaren legez euren Goterkiaren edo Belguntzaren alde lan egiteko zin-itza emonda dagozan eleiz-gizonak, zin-itza bete-bearrak dirauan artean.
- 2.º Oker artuak bai, baña alperrik artuak elitzakez:
 - a) Goiko malletako eleiz-gizonak, Goterkizañiak yakin barik edo ezetz esanda, eurok alde egitetik bestela eragotzi ezin dan kalte andia goterkiari letorkio-
kelako (Oarra: gaur eztago goiko malletako eztan eleiz-gizonik).
 - b) Zorra ordaintzeko gauza ez tirean zorpekoak.
 - d) Izan dabean zeregifaren garbiketak emon-bearra daukienak, edo Jaun-
zaletzeari auzi ta lorrak ekarri legiokezala bildurra emoteko erri-garazetan nas-
tuta dagozanak.
 - e) Bear andian dagozan gurasoak, au da: aita ta ama, aitaita ta amama
zaindu bear dabezan seme-alabak; eta umeak azteko nai eziteko bearrekoak direan
gurasoak.
 - f) Jaunzaletzan yaupari izatekoak artatik legeen aurkako okerren batek nai
beste zerbaitek alde eragiten dautsenak.
 - g) Sorkaldetarrak Latel-elexearen Jaunzaletzetan Sorkalde-elexearen Bazkun
Gurenaren idatzizko baimen barik.

543g. araua. Azi-ezi-arora ta urrengo Jaunzaletutera, nai bein-beinekora
nai betikora, norbait artzea Jaunzaletzako Buru nagusiari
bere aolkarien edo Batzarraren autarkiagaz Jaunzaletza bakotxaren legeen arauz
dagokio.

544g. araua. § 1.—Edozein Jaunzaletzan Jaunzale-geirik bertakotzat artu
orduko, onek bere ugutzaren eta sendatzaren agiriak eraku-
tsi bear ditu.

§ 2.—Gizonezko Jaunzale-geyak, ganera, sorterriko eta amalau urte ezkerro
esateko urte bete baño geyago bizi izan direan toki guztietatiko Goterkiko zaña-
ren idazkiak, zelango bizikerea egin dabean esaten dabena, ekarri bear dabez.
Lege onen aurkako edozein lege kenduta dago.

§ 3.—Abade-geyak azi-eziteko etxean, ikastetxean nai Jaunzaletza baten
eske-aldiko nai azi-ezitekoak izandakoak, ganera, etxe orreitan zelango bizikerea
izan dabean idazkiak, abadegeitegiko edo ikastetxeko Buruak, Goterki-zaña en-
tzunda gero, edo Jaunzaletzako Buru nagusiak emonak, ekarri bear dabez.

§ 4.—Eleizgizonak artzeko, yaureskuntzearen agiriak ganera naikoa dau
yareskuntzea ezkerro urte bete baño geyago egin dauan tokietako Goterkizañaren
idazkia erakustea, or § 3garrenean esaten danaren kalte barik.

§ 5.—Jaunzale Jaunzaletuak, Aita Santuaren baimenagaz beste Jaunzaletza
batera igaroten danak naikoa dau lengo Jaunzaletzako Buru nagusiaren idatziz-
ko agiria.

§ 6.—Legeok aginduten dabezan agiriez ganera, eurok artu bear dabezan
Nagusiak, emen legeak aginduten dauanaz ganera, eurok bearreko nai egoki
dala deritxoen guztia eskatuteko eskubidea dauke.

§ 7.—Amaitzeko, andrazkoak ezpediz artu zelango izakerakoak eta bizikera-
koak direan yakiteko alegiñak egin barik, § 3garrenean esana be aitzu barik.

545g. araua. § 1.—Legearen aginduz zinañtza-agiriok emon bear dabe-
zanak ezpegiez emon eurak eskatu dautsezanari Jaunzale-
tzako Buruari baño, eta urrurik eta bakotxak bere ikurratzagaz itxita eskatu ya-
kezanetik iru illabete barruan emon bear dautsez; eta Jaunzale izan gure dauana
abadegeitegian, ikastetxean edo Jaunzaletzako Jaunzalegei edo azi-eziteko etxean
egona balitz, etxe orreitako Nagusiak zin-eginda emoten dauan zinañtzea.

§ 2.—Ziyo aztunagaitik ezin dabela erantzun baderitxe, epe berberaren
barruan agertu begioez Aita Santuari ezin orren ziyoak.

§ 3.—Jaunzale izan gure dauana ezabela naikoa ezagun erantzun balegie,
Jaunzale-Buruak billa begi beste azterketa baten bidez zinañtza siñeskarria.

§ 4.—Idazkietan, gauzak benetan zeatz yakiteko alegiñak, ixileko bideetatik
be, eginda gero, euren erantzunean egia esan-bear larria dabela yakitun direala
urrengo zerai buruzko itaunai erantzun bear dautse:

Jaunzale izateko gogoia erakusten dauan orren:

- 1.º *Jayotzari buruz*: legez ezkonduen seme-alabea ala sasikumea dan.
- 2.º Ekanduai buruz: ona ala gaiztoa.
- 3.º *Buruz*: argia ala motela.
- 4.º *Bizikeraz*: ona ala okerra.
- 6.º *Izakeraz*: burrukaria ala baketsua.
- 7.º Zer ikasia dan.
- 8.º Oker-egiñagaitik erri-zañak aren atzean dabilzan.
- 9.º Elexearen zigorkaden batek yota ete dagoan.

10.º *Yaupari izatekoa balitz*, artarako legezko eragozpiderik badau-ez-padau.

11.º Etxekoak aren bearrik badabe ezpadabe.

12.º Eleiz-gizonen azi-ezite-etxean egona balitz, nai beste azi-ezite-etxetan edo beste Jaunzaletzako etxeen baten eurak be Jaunzale-gei lez egonak balira, erantzunean esan begi zergaitik bialdu eben etxera ala bere oldez berak alde egin ete eban.

546g. araua. Esandako barriok artu dabezan guztiak barrioi buruz eta emon dabezanai buruz ixil andia zaindu bear dabe.

547g. araua. § 1.—Lekai-me-etxeetan lekai-me-geyak legeak edo legezko ekanduak erabagitako bizi-saria bekarre.

§ 2.—Sari ori lekai-me-etxeari lekai-me-soñekoa yantzi-aurretik eskuratu bear yako; gitxienez beintzat legezko indarra leukaken eraz zerbait eginda, bizi-sari emona izango danari buruz ezpedi ezpaibiderik gelditu.

§ 3.—Berba emote laueko Jaunzaletzetan Jaunzale bakotxaren bizi-sariari buruz Jaunzaletzako legeak erabagiten dabena egin bedi.

§ 4.—Aita Santuaren legezko Jaunzaletzea baledi, Aita Santuaren baimen barik legeak izentautako bizi-saria, ez osoa ez zatia, ezin leiteke parkatu; Goterkizañaren baimen barik, Jaunzaletzea goterki-legezkoa baledi.

548g. araua. Andrazko jaunzalearen eriotzeagaz, naita il dana epe neur-turako bakarrik bere berbea emona izan, bizi-saria lekai-me-etxearena edo Jaunzaletzarena egiten da betiko.

549g. araua. Andrazko Jaunzalearen lelengo jaunzaletzearen ondoren, etxeko Andreak bere aolkariakaz batera eta, Goterkizañaren eta lekai-me-etxea lekai-deen menpeko balitz, ganera Lekaipuruaren baimenagaz, bizi-sari ori galtzeko arriskurik eztaukien eta alan be irabazia emoten daben diru-ordeko agiritan ezarri bear dau, eta latz galazoten yake andrazko jaunzalearen eriotza-aurretik bizi-sari ori edozelan eralgitea; ezta etxe barria eragiteko edo zorrak ordaintzeko balitz be.

550g. araua. § 1.—Bizi-sariak Lekai-me-etxean bertan (eta Lekai-me-ek ez-tireanean) Jaunzaletzaren Nagusia edo Erkiko Andre Nagusia bizi direan etxean, zoli ta osorik zaindu bear dira.

§ 2.—Goterkizañiak begiak bizkor berabillez emakume Jaunzaleen bizi-sariak ongo yagonda egon daitezcan, eta legezko ikustaldietan Nagusi ta diru-zañok bizi-sariok zaintzeari buruz zer egin daben esaten beartu begiez.

551g. araua. § 1.—Betiko berba emote ospetsua egiña dala, berba emotea laua egiña dala, edozergaitik Jaunzaletzatik alde egiten dauan andrazko Jaunzaleari bizi-sari ori osorik emon bear yako ordurarteko mozkiñak barik.

§ 2.—Andrazko Jaunzalea Aita Santuaren baimenagaz beste Jaunzaletza ba-

tera yoan baledi, 570, § 1g. arauan erabagiten danaren kalte barik, azi-ezitaroan sariaren mozkiñak emon bear dautsoz; bigarren Jaunzaletza orretan berbea emotearen bidez bertakotu baledi, bizi-saria bera emon bear dautso Jaunzaletza orreri; Lekaidi berberaren etxe batetik bestera aldatzen dan lekai-me-ari bizi-saria igaroten dan eguna ezkeron emon bear dautso.

552g. araua. § 1.—Emakume Jaunzalearen Nagusiak, azkatuetakoa balitz be, gitxiendik ille-bete bi aurrerago Goterki-zaña yakitun egin bear dau bai azi-ezitarora, bai Jaunzaletutera, nai bein-beinean nai betiko, berba emote ospetsuagaz nai lauagaz, laster norbait edo norbaitzuk artzeko direala.

§ 2.—Goterkizañak, edo bera bertan eztagoalako nai eragotzita dagoalako, berak bere ordez izentauriko yaupariak azi-ezitaroa asi baño lenago edo Jaunzaletutea egin baño gitxienez ogeta amar egun aurrerago zoli ta urrurik, eta legez itxitako etxearen zatian sartu barik, bata nai bestea egin gure dauan emakumea aztertu begi ia iñork beartuta edo guzurrekaz atzipetua izan ete dan, zer egiteko dan ete dakian; eta argi agiri baledi gure emakumeak badakiala zer egiten dauan eta berak gura dualako egingo duala egiteko dana, orduan emakume ori artu daiteke nai azi-ezitarora nai Jaunzaletutera.

I Atalkia

Jaunzalegeyen azi-ezikerec

553g. araua. Azi-eziarori asierea soñeko berezia yantziagaz edo legeak erabagiten dauan beste zerbait eginda emoten yako.

554g. araua. § 1.—Jaunzale-geyak azi-eziteko etxea legeak aginduten daben lez egiña izan bedi; baño Aita Santuaren legezko Jaunzaletzarena balitz, bera eregiteko Aita Santuaren baimena bearreko da.

§ 2.—Jaunzaletzea erkietan zatituta balego, erki bakotxean azi-eziteko etxe bat baño geyago ezin daiteke yarri ziyo aztunaz ta aita Santuaren baimen bereziagaz baño.

§ 3.—Azi-eziteko eta ikasketak egiteko etxeetan ezpegiez Nagusiak biziten yarri, Jaunzaletzako legeak agindutako bizikerea zintzo bizi ta gazteai erakutsi ona emongo dautsenak baño.

555g. araua. § 1.—Azi-ezi-aroa gauza izateko 542g. arauan aginduta dagozanez ganera, egin bear da:

1.º Gitxienez amabostgarren urtea beteta gero.

2.º Urte oso ta eten bakoan.

3.º Azi-eziteko-etxean bertan.

§ 2.—Azi-eziteko Jaunzaletzako legetan epe luzeagoa agindu baledi, azi-eziarora gauza izateko ezta bearrekoa epe ori, Jaunzaletzako legeak alantxe argi ta garbi esan ezpalegie.

556g. araua. Azi-ezia-aroa barriro asi ta dana barriro bete-bearreraño austen da: a) Jaunzale-geyak, Nagusiak egotzita, etxetik

urten badau; b) edo Nagusi orren baimen barik etxea atzera ez etorteko asmuagaz berak utzi baleu; c) edo atzera etorteko asmuagaz eta Nagusien baimenagaz izan arren, ogeta amar egun baño geyago, yarraituak nai etenak direala, etxetik kanpoan emon balegiz.

§ 2.—Amabost egun baño geyago, ez baño ogeta amar egun baño geyago, nai ta yarraituak izan, Jaunzale-geyak Nagusien baimenagaz edo indarrez egoztita azi-eziteko etxearen barrutitik kanpoan emon balitu, azi-ezi-aroa gauza izan dakion bearreko ta naikoa da olan emondako egunen utsa betetea; amabost egun baño geyago izan ezik, Nagusiak agindu dagikeo euron utsa bete dagiala, ezta baño bearrekoa azi-ezi-aroa betetzat emoteko.

§ 2.—Ziyo bidezko ta aztunagaitik izan ezik azi-eziteko etxetik kanpoan egoteko baimenik Nagusiak ezpegie emon.

§ 3.—Jaunzale-geya Nagusiak eurak aldatu balegie Jaunzaletza berberaren azi-ezitetxe batetik bestera, azi-ezi-aroa ezta etetzen.

557g. araua. Tokietako izakera bereziak galazo ezik, azi-ezi-aro osoa legeak Jaunzale-geyentzat aginduten dauan soñekoagaz yanzita egin bedi.

558g. araua. Mota bitariko bazkideak direan Jaunzaletzetan mota baterako egindako azi-ezi-aroa ezta gauza beste motarako.

559g. araua. § 1.—Jaunzalegeyak azi-eziteko Irakasle egokia bear da. Egokia izateko euki bear ditu:

- 1.º Yayo zan ezkeroko gitxienez ogeta amabost urte.
- 2.º Jaunzale dan ezkeroko gitxienez amar urte.
- 3.º Zurra, biozperera, Jaunkoya, legezale ezaguna izan.
- 4.º Eleiz-gizonezko Jaunzaletzan, yaupari izan.

§ 2.—Irakasle bakarrarentzat Jaunzalegeyak larregi balira edo beste edozein bidezko ziyogaitik emon legikeo bere menpeko izango yakon laguna. Lagun onek gitxienez yayotzatik ogeta amar urte, eta lelengoz Jaunzaletu zan ezkeroko gitxienez bost urte izan bear ditu, bere zeregiña ondo betetzeko bear dituan beste zerakaz.

560g. araua. Jaunzalegeyen Irakaslea ta bere laguna legeak erabagita daukan lez izentau bediz, eta legeok ezer esango balebe euren zeregiñean iraun bear daben epeari buruz, epe barru orretan epezid aldendu ziyo bidezko ta aztunagaz baño; ostera, biok be barriro izentau leitekez.

561g. araua. § 1.—Jaunzalegeyen azi-ezikuntzeari ekiteko eskubidea ta egin-bearra Irakasleak bakarrik dauko, ta berari bakarrik dagokio Jaunzalegeyok zaintzea; legeak izten dautsen Nagusiak eta legezko Ikusleak alde, azi-ezi-zeregin orretan nastuterik etxako iñori zillegi; etxe osoa zaintzeari buruz, baño, Irakaslea ta Jaunzalegeyok be etxeko Nausiaren menpeko dira.

§ 2.—Jaunzalegeya Irakaslearen eta etxeko Nausiaren menpean dago eta bion aginduak egin bear ditu.

562g. araua. Jaunzalegeyen Irakasleak legeen eta 565g. arauaren neurrian bere ikasleak Jaunzaletzako bizikerea biziten ikasi dagien ekinalak egiteko bear aztuna dauko.

563g. araua. Azi-eziaro-urtean Jaunzalegei bakotxaren yardukerearen txostena Irakasleak etxeko batzarrari edo Erkabari, legeak aginduten dautsenari, emon bear dautso.

564g. araua. § 1.—Jaunzalegeyok biziteko tokia, al dala, Jaunzale direan nakandik alde dagoana izan bedi, ta ziyo bereziagaz eta etxe osoko Nausiaren edo Irakaslearen baimen barik Jaunzalegeyok eztabe ezertariko artu-emonik izan bear Jaunzaletuakaz, ezta oneik Jaunzalegeyokaz be.

§ 2.—Jaupari izango ezteirean Jaunzalegeyak etxeko beste toki baten bizi bediz.

565g. araua. § 1.—Jaunzale-geyen azi-eziaro-urte onek auxe lortu bear dau: Irakaslearen eskolan bera bide-zain dabela ikasleok Jaunzaletzaren arau ta legeak ikasi dagiezala. Jaungoikoari buruzko zeretaren oldozketan eta eten gabeko otoizketan. laster egiteko berba emonak zer direan eta zertara beartuko dabezan eta ekandu onak zelan irabazi ta galtzen direan ikasten ekin dagiela; ekiñaldi egokiz oitu daitezala ekandu gaiztoren susterrak be ateraten, bakotxaren barruko griñak ezten eta ekandu onak norberenak egiten.

§ 2.—Jaupari izateko ezteirean. guzti orren ganera. kistar-ikasbidean ondo irakatsiak izan bediz, gitxienez astean bein irakastaldi berezia eurari emonik.

§ 3.—Urte onetan ezpegiez erabilli Jaunzalegeyok erriari itzaldiak egiten, ez autortzak entzuten, ez Jaunzaletzako etxetik kanpoko egitekoetan, ezta benetak ikastaroko ikasketak egiten be direanak direala; esku-lanetarako direanak euretarikeen lanai etxe-barruan ekin legikie, ez orraitio eurak irakasle bailirean, eta euren azi-ezi-aroko egitekoetarako eragozgarri izango ez dabezan neurrian.

566g. araua. § 1.—Andrazko Jaunzalegeyen etxeetan yaupari-autortza-entzuleai buruz 520-527g. arauetan aginduak bete bediz.

§ 2.—Gizonezko Jaunzaletzetan 519g. arauan aginduaren kalte barik:

1.º Noiznako autortza-entzule bat edo batzuk izentau bediz, Jaunzalegeyek asko-gitxi direan neurrian. 891g. arauak aginduten dauanaren kalte barik

2.º Noiznaiko autortza-entzuleek eleiz-gizonezko Jaunzaletzetan Jaunzalegeyok bizi direan etxean bertan bizi bediz; eleiz-gizonezkoak ezteireanean, gitxienez sarri etorri bediz Jaunzalegeyon etxera autortzak entzuteko.

§ 3.—Noznaiko autortza-entzuleez ganera, yazoera berezietan beste autortza-entzule batzuk izentau bediz. Jaunzalegeyak areingana aukeraz yoan daitezana eta euron Irakasleak orretarikoagana yotea etxakola gogoko ezpegi erakutsi.

§ 4.—Gitxienez urtean lau bider Jaunzale-geyoi noizbaiteko autortza-entzulea emon bear yake, eta Jaunzale-gei guztiok eldu bear dabe beragana gitxienez onespina artzeko.

567g. araua. § 1.—Jaunzaletzeari emondako emaitz eta arimeari buruzko kutun-legeak Jaunzale-geyok be eurentzakontzat euki ta erabilli dagikiez; eta il ezker, Jaunzaletzentzat aginduta dagozan otoitzetan kide izateko eskubidea dauke.

§ 2.—Azi-ezitaroan dagozanak ezpegiez eleiz-gizondu.

568g. araua. Azi-ezitaroan Jaunzale-geyak bere bizibidea edo ondasunak iñori emon balegiz edo edozelan lotu balegiz, emote ta lotze ori ez bakarrik txarto egifa, utsa, baliobakoa be balitzake.

569g. araua. § 1.—Jaunzalekuntza lauaren aurreztik, nai epe izentaurako dala, nai betikoa dala, berba emon lauakaz lotuta egongo dan epe osorako bere ondasunak zaintzea berak nai dauanari emon bear dautso, eta Jaunzaletzako legeak bestera agindu ezik, eurok nork erabilli eta euron gozamena nork izango erabagi.

§ 2.—Orreik zerok orduan, ondasunik ez ebalako egin ezpalitu, baña egiñarren be, etorri balekioz ondasunen batzuk, egin begi bein edo barriro bere ondasunoi buruzko egitekoa, § 1, n. esan dan lez, Jaunzalekuntza txikia eginda egon arren.

§ 3.—Berba emote lauak baño eztauzan Jaunzaletzako Jaunzale geyak epe neurturako Jaunzaletu baño lenago daukazan eta izango dauzan ondasun guztiai buruz bere azken-naya berak gura dauan lez egin begi.

570g. araua. § 1.—Azkurri (jan-edanen) eta soñekoen ordez lelengo sarreran edo Jaunzale-gei izango dan arorako zerbait ordaindu-bearra legeetan nai itunbenez ezarriko ezpalitz, nai lelengo sarreran nai gero azi-ezi-aroan eralgiaren ordez ezin leiteke ezer eskatu.

§ 2.—Jaunzale izan-nayak ekarriak eta erabilliaz bertan amaitu etzireanak berari atzera emon bear yakoz, Jaunzaletu baño lenago Jaunzaletzatik alde balegi.

571g. araua. § 1.—Jaunzale-geyak noiz gura itxi dagike Jaunzaletzea, ta legeen arauz eta edozein bidezko ziyogaitik Jaunzaletzako Nagusiak nai Batzarrak be atzera bialdu dagike, Nagusiak nai Batzarrak bialduari zergaitik bialtzen daben esan bear barik.

§ 2.—Azi-ezi-aroa amaitu ezker, eta artarako gaitzat emona izan ezker, Jaunzaletutera artu bedi; ostantxean bialdu begie atzera bere etxera; gai ete dan ez ete dan balegoz, Buru Nagusiak luzatu dagikie azi-ezi-aroa; ez orraitio beste sei illabete baño geyago.

§ 3.—Jaunzaletu baño lenago gure Jaunzale-geyak gitxienez zortzi egun osoko gogo-iñarkunak egin bear ditu.

III Atala Jaunzalekuntzea

572g. araua. § 1.—Edozein Jaunzalekuntza gauza izateko bearrekoak dira:

1.º Bera egitekoak 573g arauak aginduten dauzan urteak izatea.
2.º Legearen arauz legezko Nagusiak Jaunzalekuntzea egiteko eskubidea emotea.

3.º 555g. arauak aginduten dauan lez azi-ezi-aroa yator eginda eukitea.

4.º Jaunzalekuntzea indar-bildur andi nai iruzur barik egitea.

5.º Agirikoa izatea.

6.º Legeen arauz legezko Jaunzale-Buruak nai berak nai iñoren bidez Jaunzaletzearen ordez artzea.

§ 2.—Betiko Jaunzalekuntzea gauza dana egiteko, ospetsua nai laua dala, bearrezkoa da ganera 574g. arauaren aginduz bein-beineko Jaunzalekuntza laua aurreztik egitea.

573g. araua. Jaunzalekuntzea egiteko, nainork yayotza ezker amasei urte beteta izan bear ditu, bein-beinekoa danean; ogeta bat beteta, betikoa bada, nai ospetsua nai laua.

574g. araua. § 1.—Bai gizonezko bai andrazko edozein lekaidetzan eta betiko berbea emotea dauken edozein Jaunzaletzan, Jaunzaletzeyok azi-ezi-aroa egin daben etxean bertan betiko itz-emotea, ospetsua nai laua egin baño lenago, 634g. arauak agindua alde, iru urterako, edo itz-emoteko adiña norbaitek arago baleuko, luzarogorako gauza izango dan itz-emote txikiagazko Jaunzalekuntzea egin bear dabe, Jaunzaletzaren bateko legeak urtean-urteango Jaunzalekuntzak agindu ezpalegiz.

§ 2.—Epe ori, Jaunzaleak itz-emotea barriztuta, legezko Nagusiak luzatu dagike, ez orraitio beste iru urte baño geyago.

575g. araua. § 1.—Bein-beineko Jaunzalekuntzearen epea bete ezker, 637g. arauak erabagiten dauan lez, egin begi betiko Jaunzalekuntzea, nai ospetsua nai laua, Jaunzaletzako legeen arauaz, edo itzuli bedi gizartera; baña bein-beineko itz-emonaren epe-barruan be, betiko itz-emotea egiteko laingotzat eztaukena, artarako legezko litzaken Nagusiak, 647g. arauak erabagiten dauan lez, bere etxera bialdu legike.

§ 2.—Batzarraren nai Aolkari-bazkunaren autarkia lelengo Jaunzalekuntzarakoan Nagusia lotu egiten dauana da aren aurka ez ebazteko; urrengo betiko Jaunzalekuntzarakoan, naiz ospetsua naiz laua dala, Nagusia argitu bakarrik egiten dau, eta ez beartu.

576g. araua. § 1.—Jaunzalekuntzea egikeran Jaunzaletzako egikerak dakarzan idaztiak dakarrena erabilli bedi.

§ 2.—Egindako Jaunzalekuntzearen agiria Jaunzaletuak berak eta egitor-
duan bertakotzat egon danak euren izenak ezarrita Jaunzaletzako agiritegian zaindu bedi; eta ganera, Jaunzalekuntza ospetsua balitz, itz-emonak artu dautsazan Nagusiak yakitun egin begi Jaunzaletuaren ugutza-elexako parroki-zaña, 470g. § 2g. arauan esaten dan lez.

577g. araua. § 1.—Emondako berbearen epea bete ezker, barriro egitea ezpedi luzatu.

§ 2.—Jaunzaletzako Nagusi egokiak badabe, alan be, eskubidea itz-emonak barriztutea bidezko edozein ziyoz aurreratuteko, illabete baño geyago ez izatekotan.

578g. araua. 574g. arauan aitaturten direan bein-beineko itz-emonako Jaunzaleak:

1.º Itz-emote ospetsuko nai itz-emote lau-betiko Jaunzaleak beste nekazka, kutun-lege ta arimeari buruzko emonak irabazi dagikiez, eta, il ezker, otoizketa bardiñak zor yakez.

2.º Jaunzaletzako arau ta legeak bete-bear bardiña dabe; baña koruan eleiz-otoitzak esan-bearra dauken Jaunzaletzetan eztauke otoitzok bakarrean esan-bearrik eleiz-gizontzako goiko malletan yariak ezpalira edo euron Jaunzaletzako legeetan otoitzok bakarrean be esan bear dabezala aginduta ezpalego.

3.º Iñor aututeko nai autuak izateko eskubiderik eztauke, euren legeetan bestera aginduta ezpalego; eskubide ori izateko legeak ezarten daben epea, lengo Jaunzalekuntzatik asita neurtzen da.

579g. araua. Jaunzalekuntza lauak, nai bein-beinekoa nai betikoa izan, itz-emonaren aurka egiñak txartzat emoten ditu ezpai barik, eztauz baña beste barik utsak egiten, beren-beregi argi ezpadiño; Jaunzalekuntza ospetsuak barriz legez utsak be egiten ditu.

580g. araua. § 1.—Betiko nai bein-beineko berba emote laukodun edozein Jaunzalek euren legeetan bestera erabagita ezpalego, bere ondasunen yabe yarraitzen dau. eta ondasun barriak bereak egiteko gaitasunagaz, 569g. arauan esaten danaren kalte barik.

§ 2.—Bere lanagaz edo Jaunzale dalako irabazten dauana Jaunzaletzarentzat irabazten dau.

§ 3.—569, § 2g. arauan aitaturten direan emona ta agindua ezin legike Jaunzaletuak berak zelan gura aldatu, eskubide ori Jaunzaletzako legeak emon ezpalegie, bere Nagusienaren bayezkoagaz baño; edo Lekaima balitz Goterkizañaren baimen eta Lekaimetxea lekaideen menpeko balitz, Lekaipuruaren baimenagaz, aldakuntzea zerbaiteko zatian Jaunzaletzaren alde ez izatekotan; Jaunzaletzatik urten ezker, emoteko agindu ori ezertariko indar barik gelditzen da.

581g. araua. § 1.—Itz-emon laukodun Jaunzaleak ezin dagike lenago legez egin, baña Jaunzalekuntza ospetsua baño aurreragoko irurogei egunetan Aita Santuak emondako legeak alde, garai artan bereak dauzan ondasun guztiak gure dauanari emon bear dautsaz, beingoan egiteko dan Jaunzalekuntzea baldin balegi.

§ 2.—Iñorenak egite orrek legezko indarra izan dagian bearrezko direanak berba emote ospetsuaren ostean begiz.

582g. araua. Jaunzalekuntza ospetsuaren ostean, Aita Santuak emondako aurkako legeak bardin alde direala, edozein bidetik lekaide-lekaimeari letorkiezan ondasun guztiak:

1.º Jabe izateko gai dan Lekaidian Lekaidiaren, erkiaren, lekaretxearenak izango dira, Lekaidiaren legeak erabagiten daben lez.

2.º Jabe-gai eztan lekaidian, Aita Santua da euren yabe.

583g. araua. Itz-emote lauak baño eztauzan Jaunzaletzan Jaunzaletuari etxako zillegi:

1.º Bizi dala bere ondasunak iñori urrurik emotea.

2.º 560, § 3g. arauaren arauz egindako il-ondorako ondasunai buruzko erabagia aldatzea Aita Santuaren baimen barik; eta estualdi batek Aita Santuagana yoteko astirik emon ezpalegi, Buru nausienaren baimen barik; eta orretarako be astirik ezpalego, bertako etxeko Nausiaren baimenaz.

584g. araua. Edozein Jaunzalekuntza eginda urtea bete ezker, Jaunzaletuak leukakezan parroki-bizibideak galtzen ditu; iru urte bete ezker, beste bizibideak be bai.

585g. araua. Betiko Jaunzaletuak, Itz-emonak ospetsuak nai lauak direala, Jaunzaletu orduko eukan goterkia galtzen dau.

586g. araua. § 1.—Berez agirikoa dan eragozpenagaitik gauza eztan Jaunzalekuntzea ezta gauzako egiten, Jaunzaletuen bizikera bizita; bearreko da, ostera, edo Aita santuagandik utsa zan Jaunzalekuntzea betekotzat emotea lortu, edo utsa izan zala konturatuta eta eragozpena kenduta, barriro bear dan legez egin.

§ 2.—Orraitio, azalez Jaunzaletu zanak an bere barru ixilean Jaunzaletuteko asmurik ez eukiagaitik utsa izan balitz, uts egin eban asmu ori yarri balegi, gatxa osatuta gelditzen da, Jaunzaletzaren aldetik urli ori etxekotzat artzeko go-go bitartean aldatu ezpaledi.

§ 3.—Jaunzalekuntzea gauza izan bazan-ezpazan ezpaya susterreko ziyoen bategaitik argi ebatzi ezin baledi, eta Jaunzaletuak nai ez, bada-ezpada be, Jaunzalekuntzea barriro egin, ez sendetsi dagiala Aita Santuari eskatu, ebazkizuna Aita Santuagana eroan bedi.

XII IDAZPURUA

Eleiz-gizonezko Jaunzaletzetako ikasketak

587g. araua. § 1.—Edozein eleiz-gizonezko Jaunzaletzak Batzar Nagusienak nai Nagusiak onetsiko ikastetxeak beukoz, 554, § 3g. arauan agindua aitzu barik.

§ 2.—Ikaste-etxeetan guztien baterako bizikerea egin bedi; ostantxean ezin leitekez ikasleok eleiz-gizondu.

§ 3.—Jaunzaletzeak nai erkiak ezin balitu ondo yarritako ikaste-etxeak euki, edo, eukiarren, Nagusien eritxiz eurtora yoatea gatx balitz, Jaunzale-ikasleok edo ondo yarritako Jaunzaletzako beste erkiko ikaste-etxera, edo Go-

terkiko azi-eziteko Ikastoletara, edo guztientzako zabalik dagoan gorengoetariko ikastetxe katolikora bialdu bediz.

§ 4.—Ikasketakaitik euren etxetik urrin bialtzen direan Jaunzaleai etxake zillegi edozelango etxeetan biziterik; bearrekoa dabe edo euren Jaunzaletzako etxean bizi, edo, ori ezina zalitz, beste gizonetzko bazkun baten etxean, edo Goterkiko azi-eziteko etxean, edo eleizgizonak zaintzen daberen Elexako legez ontzat emondako etxean.

588g. araua. § 1.—Ikasketari daragoyoen aldi osoan begoz Jaunzaleak izango da zaindu bear dituanok oar, irakatsi ta egite egokien bidez Jaunzale yatorraren bizitza bizitera berotutea.

§ 2.—Buru edo Gogo-irakasle orrek 559, § 2, 3g. arauak azi-ezi-aroko Jaunzale-geyen Irakasleagan eskatuten dauzan zer guztiak euki bear dauz.

§ 3.—Nagusiak barriz 595g. arauan Jaunzale guztientzat aginduak ikaste-txeetan inon baño zeatzago bete daitezzen begia zur berabille.

589g. araua. § 1.—Beko malletako ikasketak ondo gertauta legokezan Jaunzaleak gorengo yakintzea (Filosofía) ikasteari gitxienez urte bitan ekin bear dautse, eta Teologia ikasteari gitxienez lau urtez Tomas Santuaren irakatsiai 1366, § 2g. arauan aginduten dan lez elduta, Aita Santuaren irakatsien bidetik doazala ekin bear dautse.

§ 2.—Ikastaro osoan ez irakasleai ez ikasleai ezpegiote ezer agindu ikasterik edo ikastolatik alde-eragingo leuskien ezer, ez ikastea nai irakastea galazoko leuskienik ezer; okerretara. Nagusienak eta noizean bein beste Nagusiak be, gauzak zur begiratuta bidezko deritxoenean, irakasleak nai ikasleak Jaunzale guztiak batera egin bear dabezan zer batzutatik azkatu dagikiez, esaterako batarako otoitzetatik, batez be gabaz egitekoetatik, ikasketak ondo egiteko bearreko dala ikusi balegie.

590g. araua. Jaunzale-yaupariak, benetako ziyo aztunagaitik Jaunzale-Buru nagusiak azkatua izan ezik, edo Teologia nai Eleiz-legeak nai Ikastoletako Jakintzea (Filosofía) irakasten daragoyenak izan ezik, legezko ikastaroa amaituta gero, urtero, gitxienez bost urtez, aurreztik garaiz izentauriko Teologi-ikaskizunetan gizon yarri ta yakitunak aztertu begiez.

591g. araua. Gitxienez Jaunzaletzako edozein etxe osotan, gitxienez illean bein, ebazkizun bi aztertu ta ebatzi bear dabez: bata zerbait erru barik egin al baledi ala ezpalediko itaunari buruzkoa; bestea yaurespideari buruzkoa; etxeko Nagusiari ondo baleritxo, ebazkizunoi ganera ezarri legikie sinieskizunari buruzko ikaskizunen bat be; eta Jaunzale-eleiz-gizonak, teologia ikasten daragoyenak eta eragonak guztiak, etxean badagoz, legeak inon azkatu ezik, guztiak eldu bear dabe ikaskizun oneitara.

Jaunzaleen egin-bearrak eta kutun-legeak

I Atala

Eginbearrak

592g. araua. 124-142g. arauetan aitatuten direan eleiz-gizon guztien egin-bearrak Jaunzale guztiak be lotuten dabez, esanaren edo gayaren izanak berak ostantxekorik erakutsi ezik.

593g. araua. Jaunzale guztiak eta bakotxak, agintariak eta menpekoak bardin, ez bakarrik emondako berbak zintzo ta zeatz bete, baita euren arau ta legeak aginduten daberen lez euren bizikerea bizi ta alantxe benetako santuak izateko alegiñak egin bear dabez.

594g. araua. § 1.—Edozein Jaunzaletzan bazkide guztiak baterako bizikera bardiña egin bear dabe, baita yan-edanari, yantziari eta etxeko beste zer guztiari buruz be.

§ 2.—Edozein Jaunzalek, Nagusiak badira be, 580, § 2 eta 582 § 1g. arauetan esaten dan lez eskuratuten dauan ondasuna, dana etxearen, erkiaren edo Jaunzaletzaren ondasunai nastu bekie; eta dirua eta diruaren ordezkoko diren agiriak guztiena dan kutxan zaindu bediz.

§ 3.—Jaunzaleen bizi-bearretarako tresna guztiak Jaunari eskeñi dautsen bizikera txiroari dagokiozanak izan bediz.

595g. araua. § 1.—Begiratu begie Nagusiak, Jaunzale guztiak:

1.º Gogo-inarkunak urtero dagiezala;

2.º Benetako ezin-egiñik ezpadabe, egunero mezea emon edo entzun dagiela; gogozko otoitzari daragoyela, eta bakotxaren Jaunzaletzako legeak aginduten dabezan Jaunagazko maitezko artz-emonak zoli-zoli izan dagiezala.

3.º Autortza-ikurtonera astero eldu daitezala.

§ 2.—Nagusiak indarra bemoye menpekoen artean Jauna sarri artzeari, baita egunero be; sarri, ta baita egunero Jaunartzea be, bear dan lez gerturik dagozan Jaunzalentzat azke bego.

§ 3.—Oraintsuengo ikurton-autortza eginda gero Jaunzaleen batek etxekoai benetan erakutsi txarra emon balegie, edo agirian erru andiko okerren bat egin balegi, Nagusiak galazo dagikeo Jauna artzea ikurton-autortzea barriro egiten yoan dala ikusi arte.

§ 4.—Egun batzuetan Jaunartzea ezarrita nai aginduta dakarrezan legeak, edozein Jaunzaletzakoak direala, emetik atxiña eztauke benetako lege-indarririk.

Jaunzale guztiak bako-xak bere Jaunzaletzako soñekoa yantzita berabille, bai etxe-barruan bai etxetik kanpoan, Buru nagusiaren eritxiz zerbait aztunak eragotzi ezik; Buru nagusiaganaño yoteko astirik ezpalego, naikoa da etxeko nagusiaren eritxia.

596g. araua. Jaunzale guztiak, bai etxe-barruan, bai kanpoan, euren Jaunzaletzako soñekoa berabille, Nausi nausienaren, edo, estualdi baten, etxeko Nausiaren eritxiz, ez erabilteko ziyo aztunik ezpalego.

597g. araua. Lekaide-lekaime-etxeetan, legez yarritakoak badira, txikiak badira be, Aita Santuaren itxi-legea bete bear da.

§ 2.—Itxi-lege orrek bere barruan artzen dau lekaide-lekaime-batza bizi dan etxe osoa, lekaide-lekaimeentzat bakarrik direan ortu-baratzakaz; lege orretatik kanpoko izango dira edonorentzako dan elexea ta berari erantsita dagoan sakristia, arrotzentzako arroztegia, balego, eta yardun-tokia; au, al dala, etxeko ate-ondoan yarri bedi.

§ 3.—Itxi-legearen azpian dagozan tokiak argi iragarrita begoz; itxi-legepean legokezan etxe-zatien mugak ezartea ta legezko ziyoakaitik aldatzea, lekaide-etxeetan Buru Nagusiari edo Batzar orokarrari dagokio, legeak erabagita leukaken lez; Lekaime-etxeetan Obispoari dagokio.

598g. araua. § 1.—Lekaideen itxi-legearen azpian dagozan tokietan ezpedi sartzen itxi ezelango atxakigaz emakumerik, edozein urte, mailla nai jatorrikoa dala.

§ 2.—Eragozpen-lege onetatik azke dagoz Laterriko Jaurburuaren emaztea ta bere lagunak.

599g. araua. § 1.—Lekaideen etxeak baleu berari erantsita bertan bizi direan ikasleentzako edo Lekaidiaren legezko beste lan batzuetarako zatiren bat, zati orretatik bananduta legoken zatia beuko lekaideentzat bakarrik litzaken etxe-zatia, itxi-legearen azpian dagoana.

§ 2.—Itxi-legetik azke ikasleentzat edo langilleentzat dagozan toki orreetan be, ezpegie emakumei sartzen itxi bidezko ziyoagaz eta Nagusiaren baime-nagaz baño.

600g. araua. Lekaimeen itxi-legearen azpian dagozan tokietan ezpekio sartzen itxi iñori ezelango maillako, bizibideko, adiñeko andra ez gizoni, Aita Santuaren baimen barik, urrengoetarikoen bat ezpada:

1.º Goterkizaña nai Lekaiburua, lekaime-etxea ikusteko sartzen direanean, edo eurok ordeztu dabezan ikusleak; orrei zillegi yake Lekaime-etxean sartzea, ain zuzen be itxi-lege au ondo yagoten bada ezpada ikusteko, urtez eldua dan eleiz-gizon edo lekaideen batek lagun egiten dautsela;

2.º Autortza-entzulea edo bere ordezkoa, bear direan neurriak artuta, sartu daiteke lekaime-etxe-barrura gexoai ikurtonak emoteko eta il-zorian dagozanai lagun egiteko;

3.º Lekaime-etxean sartu daitekez Laterriaren Buru direanak eta euren emazteak, lagun daroenakaz; baita Erroma'ko Elexa Santuaren Kardenalak be.

4.º Etxeko Andreaki dagokio, bear litzakezan neurriak artuta, Lekaime-etxean sartzen iztea osagille, ebagiketari eta euren bearra daben guztiai aurrez-tik Goterki-zañaren baimena, gitxienez noizbearko guztietarakoa eskatuta; iñoiz

bear estuak baimenik eskatzeko astirik emon ezpalegi, baimen ori legeak berak emontzat dago.

601g. araua. § 1.—Lekaime batxori be etxako zillegi Jaunzaletu ezkerotetik urteterik, ezelango atxakigaz unetxo baterako be, Aita Santuaren baimenagaz baño, eriotzearen edo antzeko beste gaitz larriren baten arriskurik ezpalitz.

§ 2.—Olango arriskurik litzakenean, astirik emon balegi, Goterki-zañak idatziz egia dala esan bear dau.

602g. araua. Lekaime-etxeak, al dala, begoz onan itxita: kanpokoak etxebarrurik ezin ikusi, eta lekaimeak kanpokorik bere ez.

603g. araua. § 1.—Lekaimeak lekaideen menpeko balira be, itxita bizi bear oneri buruzko legea zaintzea Goterkizañari dagokio; ta lege ori ausiko leukienak, lekaideak balira be, zigorkatu dagikez, baita Elexearen zigor osagarriakaz be.

§ 2.—Lekaipuruari be badagokio bere menpeko direan lekaimeak itxita bizi-beartzen dauzan lege au zaintzea; orregaitik berak be lege au ausiko leukien lekaimeak eta beste bere menpekoak zigortu dagikez Elexearen zigortez.

604g. araua. § 1.—Bai Aita Santuaren bai Goterki-zañaren legezko andrazko Jaunzaletzako edozein etxetan be gizezkorik sartzea galazoten dauan legea bete bear da; eurotan gizezkorik sartzerik ezta zillegi, 598, § 2 eta 600g. arauetan direanak eta Nagusiak sartzen izteko bidezko ziyoak daukezala uste dabenak baño.

§ 2.—599g. arauaren agindua bete bedi bai gizezko bai andrazko Jaunzaletzako etxe guztietan.

§ 3.—Obispoaren eritxiz iñoiz alan egin-bearra balego, eskubidea dauko berak etxe onein itxi-legeori Elexearen zigor osagarriakaz be zaintzeko, eleiz-gizezko Jaunzaletza azkatua ezpalitz; dana dala, beuko legea zintzo bete daiten ardurea ta agertuko litzakezan okerrak len baño len zuzendu begiz.

605g. araua. Jaunzaleak itxita bizi daitezala aginduten dauan lege au zaindu-erazoteko zeregiña daben guztiak begiratu begie arrotzak etorriagaz, alperriko barriketakaz Jaunzaleen bizikerea okertu eta euren Jaunagazko artu-emonak kalterik izan eztagientzat.

606g. araua. § 1.—Nagusi Jaunzaleen egitekoa da begia zoli erabiltea Jaunzaleak etxetik urteteari buruz eta arrotzak etxean artzeari buruz legeak aginduta daukiena benetan bete daiten.

§ 2.—621-624g. arauetan erabagita dagoana alde, Jaunzale Nagusiak eztaukie eskubiderik euren menpekoai norbere Jaunzaletzako etxeetatik alde biziten izteko bidezko ziyo aztun barik; eta orduan alik eta eperik laburrenerako; norbere Jaunzaletzako etxetik kanpora sei illabete baño geyago bizi al izateko, Aita Santuaren baimena bear da, ikasketak egiteko ezteanean.

607g. araua. Bai euren Nagusiak bai Goterkizañak andrazko Jaunzaleak besterik ezin ban baño etxetik bakarrik urten eztagien zoli begiratu begie.

608g. araua. § 1.—Goterkizañak nai parroki-zañak batez be erriaren bearrari erantzuteko euren laguntzea eskatzen dautsenean, Nagusi Jaunzaleak gogoz begie al dabena euren menpeko jaunzaleen bidez laguntza ori emoteko, bai euren elextan edo guztientzako otoiztegietan eta inorenetan be, jaunzale-bizitzearen kalte barik.

§ 2.—Beste aldetik Goterkizañak eta parroki-zañak erraz yo begie Jaunzaleen laguntasunaren eske, batez be goterkian bertan bizi direanean erriari lagun etorteko, batez be autortza-ikurtona emoteko.

609g. araua. § 1.—Jaunzaleak bizi direan etxeko elexea parroki-elexea be balitz, al dan bestean 415g. arauan agindua bete bedi.

§ 2.—Andrazko Jaunzaleen elextan, direanak direala, ezin leiteke parroki-rik eregi.

§ 3.—Euren elextan egiten direan eleizkizunakaz parroki-elextan egiten direan kistar-ikasbidearen irakasteari ta Barri Onaren azalpenari kalterik ekarri eztagien begiratu begie Jaunzaleen Nagusiak; kalterik badakartsela ala ez ebaztea Goterkizañari dagokio.

610g. araua. § 1.—Elexearen agiriko otoitzak koruan esan-bearra dauken Jaunzale-etxeetan, gizonezkoak direala andrazkoak direala, korurako lau lagun bizi direan eta ordu atan eragotzita eztagozan etxe guztietan, eta euren legeak beartuko balebez baita gitxiago direanean be, Elexeak agindutako otoitzak egunero batera esan bear dabez.

§ 2.—Koruko egun bakotxeko otoitzakaz batera datorren mezea be gizonezko Jaunzaleen etxeetan egunero emon bear dabe; baita andrazkoetan be, al dala.

§ 3.—Jaunzale-etxe orreitan bizi direan berba emon ospetsuak dabezan Jaunzaleak, gizonezkoak nai andrazkoak direala, otoitzok koruan besteakaz batera esan ezpadabez, bakotxak bakarrean esan bear ditu, korura yoan-bearrik eztaukenak ezpalira.

611g. araua. Jaunzale guztiak, bai gizonezkoak bai andrazkoak bialdu dagikiez idazkiak itxita eta inori erakutsi-bear barik: Aita Santuari ta Laterrian Aren Ordezko danari, Kardenal Zañari, Jaunzaletzako Buru Nagusiak, etxetik alde legoken etxeko Nausiari, bere menpeko direanak Goterkizañari, Lekaideen menpean legokezan lekaimeak badira, euren Lekaipuru Nausiari be bai; eta bai gizonezkoak, bai andrazkoak guzti oneikandiko idazkiak be inork ikusi barik artu dagikiez.

612g. araua. 1345g. arauaren aginduaren ganera erri osoari dagokien ziyoen bategaitik kanpayak yoteko, otoitz eta eleizkizunak egiteko Goterkizañak agindu balegi, Jaunzale guztiak, baita azkatuak be, men egin bear dautse, alan be bakotxaren legeen eta kutun-legeen kalte barik.

613g. araua. Edozein Jaunzaletzak urrengo kutun-legeak baño eztitu: 1.º Araudi onetan dagozanak;

2.º Aita Santuak berari artez emonak. Emetik atxina inori emonak be norberenak izatea kenduta dago.

§ 2.—Lekaideai emondako kutun-legeak, euren gai izatekotan, Jaunzaletza bereberek lekaimeai be badagokiez.

614g. araua. Jaunzaleak, baita bigarren mallakoak eta azi-ezi-aroko Jaunzalegeyak be, 110-125g. arauetan aitaturten direan kutun-legeak eurenak dabez.

615g. araua. Lekaideak, lekaide-geyak be, bai gizonezkoak bai andrazkoak euren etxe ta elextakaz, Lekaiburuaaren menpean eztagozan lekaimeak izan ezik, Goterkizañaren agintzapetik azke dagoz, legeak izentautako zeretan izan ezik.

616g. araua. § 1.—Legeen aurka euren etxetik kanpoan bizi direan lekaideak, euren lekaipuruagana yoateko atxakiagaz balitz be, eztauke azke izateko eskubide ori.

§ 2.—Euren etxetik kanpoan direala legeen bat ausi balegie, ta etxeratuta gero Lekaipuruak zigortu ezpalitu, Goterki-zañak zigortu dagikez, nai ta etxetik legez urtenak eta etxera itzulita gerokoak izan.

617g. araua. § 1.—Lekaide nai beste Jaunzale azkatuen etxe nai elextan geyegikerien batzuk bertako egin balediz, eta oartua izan arren, Jaunzale-Buruak kentzeko biderik artu ezpalegi, Goterkizañak beingoan yazoten danaren yakitun egin begi Aita Santua.

§ 2.—Osoak ezterean lekaide-etxeak Goterkizañaren ardura berezipean dagoz, eta euroatikoen baten geyegikerien bat sartu baledi eta erriarentzat erakutsi txarra balira, Goterkizañak bein-beineko erabagiak artu dagikez.

618g. araua. § 1.—Berba emote laukodun Jaunzaleak eztauke azkatasun-kutun-legerik, eurotarikoen bateri beren-beregi emon ezpayako.

§ 2.—Alan be Aita Santuaren legezko Jaunzaletzetan Goterkizañari eztagokio:

1.º Legeak edozelan aldatzerik, ezta ondasunak zaintzeari buruzko zeretan nastuterik be, 533-535g. arauetan esaten danean izan ezik.

2.º Etxe-barruko yaurbide ta bizikeran, legeak esaten dauzan yazokunetan izan ezik; alan be erri-gizonezko Jaunzaletzetan eskubidea ez eze, egin-bearra be badau legeak aginduten dautsen lez bizi ete direan begiratzeko; buruak argi ta ekanduak garbi dabezala bizi-ete-direan; itxi-legearen aurkazko pekatuak egiten ete daben; ikurtonak bear dan lez eta aginduta dagoan beste sarri artzen ete dabezan begiratzeko; eta Nagusiak, berak esan arren, egiten dabezan oker andiai ezpaleutse bear dan beste yaramonik egiten, berak erabagi begiz bear

direanak; eta oker azitxoan bat eta beingoan arteztu bear dana aurkitu balegi, erabagi begi berak bear dana, baña gero bialdu begio arazoa Aita Santuari.

619g. araua. Goterkizañak zigortu dagikez Jaunzaleak bere menpeko direan zer guztietan.

620g. araua. Goterkizañak, eskubidea dauala, legeen bat kendu ezkerro, kenduta gelditzen da goterki-barruko jaunzale guztientzat be, jaunzaletza bakotxaren ziñ-itzak eta legeak izan ezik.

621g. araua. § 1.—Yatorriz eskekoak deritxoan eta izan be benetan eskekoak direan lekaideak euren etxea eregita dagoan goterkiaren euren Nagusiaren baimen utsaz ukarra eskatu dagike; goterkitik kanpoan ukar-eske ekiteko bertako Goterkizañaren idatzizko baimena bear dabe.

§ 2.—Baimen ori Goterkizañak, batezbe auzoko Goterkizañak ezpegie ez ukatu ez estu neurtu, eskekoen etxe ori dagoan goterkiko ukarrak Jaunzale-etxeak biziteko naikoa ezpalitu.

622g. araua. § 1.—Aita Santuaren legezko beste Jaunzaletza guztiak Aita Santuaren kutun-lege berezi barik eskean ekitea galazota dauke; baten batzuk kutunlege ori lortu balegie, oraindiño Goterkizañak idatziz emondako baimena be bearko leukie, kutun-legean bertan bestera agirian esan ezpaledi.

§ 2.—Goterki-legezko Jaunzaleak eztagike ukarra aterik-ate eskatu, euren etxea eregita dagoan tokiko Goterkizañak eta ukarra eskatu nai daben tokiko Goterkizañak idatziz emondako baimen barik.

§ 3.—Arau onen § 1 eta 2an aitaturten direan Jaunzaleai ezpegie Goterkizañak emon ukarra eskatzeko baimenik, batez be izenez eta izanez eskekoak direan lekaideen etxeetan beste bizibiderik eztaukan etxearen edo Jaungoikoak onetsitako zerbaiten benetako bearra yakinda gero baño; ta bearrari erantzuteko baño baimen zabalagorik ezpegie emon.

§ 4.—Sorkalde-Elexeari buruzko Bazkun Gurenaren agirian benetakoa ta oraintsukoa litzaken baimen barik Lateldun Goterkizañak ezpegie utzi sorkaldetar iñori, edozein eleiz-gizon-mallako nai nausigoko dala, euren goterkietan eskean ekiten eta euren menpekorik be ezpegie bialdu eskean ekiteko sorkaldetarren goterkietara.

623g. araua. Etxake zillegi Jaunzale-Buruai eskean bialtzea urtez eta goz elduak direan jaunzaleak baño, batez be andrazkoak direanean; iñoiz bere ez, barriz, oraindiño ikasketai daragoyenak.

624g. araua. Eskean daragoyenean yagon bear daben ganoreaz eta eskekoak egin bear daben bizikereaz gizabietako Jaunzaleak zeregin oneri buruz Aita Santuak emondako irakatsiak yarraitu bear dabez.

625g. araua. Iñor zaintzeko eskubidedun Lekaipurua, legeaz autuak, autespenaren osteko iru illabete barruan etxea dagoan go-

terkiko Obispoagandik onespena artu bear dabe; onespena artu ezkerro 964, § 1g. arauaren erabagiz eleiz-gizonduteko eskubideaz ganera, 325g. arauan izentautako eskubideak be bereak ditu, txapeltxo baltzerana eroatekoa izan ezik.

III Atala

Elexeko Nagusitzen baterako edo parrokiaren bat zaintzeko izentaua izan dan Jaunzalearen eginbearrak eta eskubideak

626g. araua. § 1.—Aita Santuaren baimen barik ezin leiteke Jaunzalerik Jaunzaleen bizikereagaz alkatu ezin direan Nagusitza, yaurbide edo bizibidetara yaso.

§ 2.—Batzarren batek legeaz autuak ezin legike autespena edertzat emon bere Nagusiaren baimen barik.

§ 3.—Nagusitzarik ez artzeko berbea emona balitz, Aita Santuak beren-be-regi legazkatu-bearra dauko.

627g. araua. § 1.—Jaunzalea, nai Kardenal nai Obispo izentaua izan, bai goterkidun bai izen utsezkoa dala, Jaunzale gelditzen da, bere Jaunzaletzaren kutun-legeen jabe, eta emondako berbakaz eta beste bere Jaunzaletuaren eginbearrakaz be lotuta yarraitzen dau, bere Nagusitzeagaz ezin direala alkatu berak uste dabezanak ezpalira, 628g. arauaren kalte barik.

§ 2.—Alan be Jaunzaletzako Nagusien menpetik aterata dago ta emondako bebarean indarrez Aita Santuari bakarrik men egin bear dautso.

628g. araua. Obispo nai beste Elexako Nagusitzara yasotako Jaunzaleak:

1.º Jaunzalekuntza-bidez bere ondasunen yabetasuna galdua balitz, letorkiozan ondasunak erabili ta zainduteko eskubidea dauko, yabetasuna barriz goterkidun Obispo bada, goterkiak artzen dau; Aita Santuaren Ordezkoa bada, bere ordezko erriak; Aita Santuak Agindua bada, agindutako erriak; ganekoak badira, Jaunzaletzak edo Aita Santuak 582g. arauaren erabagiaren neurrian, 239, § 1, 10.ºg. arauaren kalte barik.

2.º Jaunzaletuagaz bere ondasunen yabetasuna galdu ezpaleu, len eukazan ondasunen erabiltzea, irabazien gozamina ta zaintzea barriro bereak egiten ditu; gero letorkiokezanen yabetasun osoa dau.

3.º Nai batean nai bestean beretzakotzat etxatorkiozan ondasunak emoten dautsezanak gure daben lez erabili bear ditu.

629g. araua. § 1.—Kardenal nai Obispo izatea itxi ezkerro, edo Aita Santuak Jaunzaletzatik kanpoan zerbait egiteko emondako zeregiña amaitu ezkerro, Jaunzaleak bere Jaunzaletzara itzuli bear dau.

§ 2.—Orraitio Kardenal nai Obispo Jaunzaleak bere Jaunzaletzako edozein etxe autu dagike, baña aututeko nai autua izateko eskubide barik.

630g. araua. § 1.—Parrokiaren bat nai parroki-zain izenagaz nai parroki-zain-ordezko izenagaz zaintzen dauan Jaunzaleak Jaun-

zale yarraitzen dau, bere Jaunzale-berba emonak bete ta Jaunzale-bizitza parroki-zaintzeagaz alkartu daitekezan giñoan egin-beartuta.

§ 2.—Beraz Jaunzale-bizikerari dagokiozanetan bere Nagusiaren menpeko yarraitzen dau, eta Nagusi orreri dagokio, ta ez Goterkizañari, Jaunzaletzari buruzko zeretan bera zaintzea ta, bear balitz, okerretan arteztutea.

§ 3.—Zaintzen dauan parrokiagaitik datorkiozan ondasunak, parrokiarentzat artzen ditu; besteak, beste Jaunzaleak lez.

§ 4.—Txiro izateko berbea euki arren, zillegi yako ukarrak parrokiaren alde, edo parrokiari ezarrita dagozan irakastola katolikoan alde edo parrokiari erantsitako Jaungoikoarren eregitako etxe nai lanen alde artu ta eskatutea; baita oldez emoten dabezan ukarrak artu nai billatuteko eta artutakoak eta batutakoak zaintzeko, eta emon dabezanen asmua kontuan eukita, Jaungoikoaren aurrean deritxon lez bananduteko be, zelan diarduan begiratzeko Nagusien eskubidearen kalte barik; baña parroki-elexea egiteko, yagoteko, barriztuteko nai edertuteko ondasunak artu, bere eskuan euki, batu nai zaindu egitea Jaunzale-etxeko Nagusiari dagokio, elexea Jaunzaletzarena balitz; ostantxean, Goterki-zañari.

631g. araua. § 1.—Gure parroki-zain nai parroki-zain-ordezko Jaunzalea, naita Jaunzale-Buru Nagusia bizi dan etxe nai tokian bizi, parroki-zaintzeari buruzkoetan oso-osorik Goterkizañaren menpeko da; eta parroki zelan zaintzen dauan begiratzeko ta bear litzakenean zigortuteko be eskubide osoa dauko Goterkizañak, parroki-zain-erritarrak begiratu ta zigortzen dauzan lez; Goterkizañari eztagokion bakarria Jaunzale-bizitza da.

§ 2.—Beraz Goterkizañak gure parroki-zañak bere zeregiña eztauala bear dan lez bete aurkitu balegi, eskubidea dauko egoki deritxozan erabagiak emon eta irabazi dauzan zigorkadak ezarteko; baña zer onetan Goterkizañaren eskubidea ezta berea bakarrik, Jaunzale-Nagusienagaz baterakoa baño; alan be Goterkizaña ta Jaunzale Nagusia erizkide ez tireanean, Goterkizañak erabagia egin bear da.

§ 3.—Jaunzale parroki-zaña nai parroki-zain-ordezkoa parroki-zaintzetik kentzeari buruz 454, § 5g. arauaren agindua bete bedi, ta ondasunai buruz 533, § 1 4.º ta 535, § 3, 2.ºg. arauena.

XIV IDAZPURUA

Beste Jaunzaletza batera igarotecz

632g. araua. Ezin leiteke Jaunzalea beste Jaunzaletza batera, estuagoa izan arren be, igaro; edo bere buruaren yabe dan Lekaidetxetik beste batera, Aita Santuaren baimen barik.

633g. araua. § 1.—Beste Jaunzaletza batera igaroten danak azi-ezi-aroa egin bear dau; berau bitartean, lengo berbak gauza direala, utzitako Jaunzaletzan eukazan eskubide ta eginbear bereziak etenda daukaz, ta Jaunzaletza barriko Nagusiari ta Jaunzalegeyen Irakasleari esaneko izateko berba bidez be men egin-beartuta dago.

§ 2.—Igaro dan Jaunzaletzan Jaunzaletu ezpaledi, lengo Jaunzaletzara itzuli bear dau, bitartean emondako berbeen epea amaitu ezpayako.

§ 3.—Lekaidi berbereko beste etxe batera igaroten danak ez azi-ezi-aro barririk ez Jaunzalekuntza barririk eztau egin bear.

634g. araua. Berba emote ospetsu nai betiko lauakaz Jaunzaletua beste Jaunzaletza batera igaro baledi, azi-ezi-aro-ostean 574g. arauan aitauten dan bein-beineko Jaunzalekuntzea utzita, edo artzen dabe Jaunzalekuntza ospetsura nai betiko laura, edo lengo Jaunzaletzara itzuli bedi; alan be Jaunzaletzako Nagusiak berau luzaroago azi-eziteko eskubidea dauko; ez orraitio lengo urtea amaituta beste urte bete baño geyago.

635g. araua Lekaidi berbereko beste lekaide-etxera igaroten direanak igaro direan eguna ezkerro, ta beste Jaunzaletza batera igaroak Jaunzalekuntza barria egin ezkerro:

1.º Lengo Jaunzaletzako nai lekaidetxeko eskubide ta egin-bear guztiak galtzen dabez eta bigarreneko eskubide ta egin-bearrak eurenak egiten dabez.

2.º Utzi dauan Jaunzaletzak nai lekaidetxeak, bereak eginda eukazan alde egin dauan onegaitik etorritako ondasunak berekotzat yagoten ditu; Jaunzale bizi-sariari ta bere mozkiñai buruz eta Jaunzaleak leukakezan bere-bere ondasunai buruz 551, § 2g. arauak aginduten dauana egin bedi; amaitzeko, Jaunzaletza barriak azi-ezi-aro urtean egingo leukezan ordain-bearrekoen ordaña eskatzeko eskubidea dauko, 570, § 1-n arauz eskatzea balitz.

636g. araua. Goiko arauok diñoenez, berba emon ospetsua eukan lekaidia berba laudun Jaunzaletzara igaro baledi bertan barriro Jaunzaletu ezkerro, berba ospetsu barik yarten da, Aita Santuaren baimenean osterantzekorik erabagita ezpaletor.

XV IDAZPURUA

Jaunzaletzatik alde egitea

637g. araua. Bein-beineko berbea emonagaz Jaunzaletuak berba orren epea bete ezkerro, Jaunzaletzatik beste barik alde dagikie; bardin Jaunzaletzeak be ziyo zuzen eta bidezkoagaz bein-beineko berbea barriro emotetik nai betiko Jaunzaletutetik baztertu dagike; ez, alan be, osasun-ezagaitik, osasun-eza ori Jaunzaletu-artean maltzurkeriz ixildu edo ostondu ebalá argi erakutsi ezik.

638g. araua. Jaunzaleen etxetik alde biziteko eskubidea, nai bein-beinekoa dala, lateraz *indultun exclaustationis* esaten yakona, nai betikoa, lateraz *indultun saecularizationis* esaten yakona Aita Santuak bakarrik emon dagike Aita Santuaren legezko Jaunzaletzetan; goterki-legezko Jaunzaletzetan, Goterkizañak be bai.

639g. araua. Jaunzale-etxetik alde biziteko eskubidea artu dauana bere berba emonagaz eta bizikera barri orregaz alkatu daitekezan beste egin-beirrakaz lotuta dago; baña Jaunzale-yantzia erantzi bear dau; egoera orretan dan artean eztauko autarkirik emoterik ez artzerik; baña gogozko utsak litzakezan bere Jaunzaletzako eskubideak badaukoz; eta bizi dan tokiko Goterkizañari bere berba-indarrez be men egin bear dautso.

640g. araua. § 1.—Gizarteratzeko eskubidea (*indultun saecularizationis*) artu dauanak Jaunzaletzeari betiko agurra egin dautso:

1.º Bere Jaunzaletzatik aldentuta gelditzen da, ta aren soñekoa erabilteko eskubidea galdu dau, ta mezea emoten eta eleiz-gizonen otoitzak esakeran eta sakramentuak artukeran erritarren legeko eginda yarten da.

2.º Emondako berbatik azkatuta, baña goiko malletako eleiz-gizon balitz, orretarikoen egin-beirrak lotuko dabe; ostantxean eztauko emondako berbeagaitik otoitzik egin-beirrik, eta Jaunzaletzako lege guztietatik azkatuta dago.

3.º Aita Santuaren baimenagaz Jaunzaletzan barriro artuko balebe, azi-ezi aroa ta Jaunzalekuntza barria egin bear ditu, eta Jaunzaletuen artean tokia Jaunzalekuntza barria ezkerokoa izango dau.

641g. araua. § 1.—Eleiz-gizonezko goiko malletan yarritako Jaunzalea, 585g. arauak diñoan lez bere goterkia galdu ezpaleu, berba emona barriztau ezik, edo gizarteratzeko eskubidea lortutakoan bere goterkia itzuli bear dau eta bere Gotzañak bertakotzat artu bear dau; edo goterkia galdu baleu, eleiz-gizonen zeregiñik ezin legike errukiz artzen dauan Goterkizañen bat aurkitu arte edo Aita Santuak besterik erabagi arte.

§ 2.—Obispoak era bitara artu dagike Jaunzalea: edo garbi ta baldintza barik edo iru urterako nor ta zer dan ikusteko; lelengo eraz artu balegi, bertatik goterkiko eginda gelditzen da; bigarren eraz artuaren azterkaldia Obispoak luzatu dagike beste iru urtean; bigarren iru-urte-urrena bete baño lenago goterkitik kanpora bialdu ezpalegi, beste barik goterkiko eginda gelditzen da.

642g. araua. § 1.—Gizartera itzulitako edozein Jaunzalek, naita 641g. arauaren neurrian eliz-gizonen zeregiñak egiten ekin, Aita Santuaren emon berezi barik galazota dauko:

1.º Basilika nausi nai txikietan eta Obispo-elexetan edozein bizibide.

2.º Edozein irakasletza nai zeregin eleiz-gizon geyak azi-eziteko etxeetan edo eleiz-gizonak azi-eziten direan beste ikastoletan; baita Jakitun-agiriak emoteko Aita Santuagandiko eskubidea dauken Irakastetxe gorengoetan eta antzeko beste etxeetan.

3.º Obispo-etxeetako lantegietan nai Jaunzaleen etxeetan bai gizonezkoetan bai andrazkoetan, naita goterki-legezkoak izan, edozein zeregin.

§ 2.—Gebentza oneik indarra dauke bai bein-beineko berba emotea baño egin ez ebenai buruz, bai bertan biziteko zin-itza euren lege berezien arauz emonai buruz, bai euren legeen arauzko beste berba batzuk emon ebezanai buruz be, naita legez azkatu izan, egin-beirrokaz sei urtean lotuta egonak balira.

643g. araua. § 1.—Bein-beineko berba emonen epea bete ezkeron, nai gizartera itzuliteko eskubidea lortuta Jaunzaletzatik urtenak nai egotziak eztauke Jaunzaletzaren alde egindako lanaren ordañez ezer eskatuteko eskubiderik.

§ 2.—Orraitio, andrazko Jaunzalea bizi-sari barik artua izan balitz eta bere ondasunetatik bizibiderik ezpaleu, Jaunzaletzak errukiz bere etxeraño ganoraz yoan daiten bear leukena emon bear dautso, eta berezko zuzenak agintzen dauana emon bear yako norbere lanetik bizibidea zuzendu arte.

644g. araua. § 1.—Jaunzaletzaren *ukatzalle* da Jaunzale-etxetik legearen aurka atzera ez etorteko asmoagaz alde egiten dauan Jaunzalea, nai betiko berba emonak naita berba lauak izan dituala; edo legez urtena izan arren, Jaunzaletzako Nagusiai men egiteko gogorik eztaukalako atzera eztorrena.

§ 2.—§ 1 garreneko asmu oker ori egizkotzat zuzen emoten da, Jaunzaleak ez atzera etorri ez etorteko asmorik Jaunzale-Buruari agertu ezpalegio.

§ 3.—*Iges egiña* da Jaunzale-Buruaren baimen barik etxetik alde egin dauana, baña atzera etorteko asmoagaz.

645g. araua. § 1.—Ukatzallea ta iges egiña eztira lege ta emondako berba bete-beirretik azkatuta gelditzen eta len baño len Jaunzaletzara itzuli bear dabe.

§ 2.—Jaunzale-buruak onetarikoak zoli billatu bear dabez, ta benetako damutuak baletoz atzera etxera artu bear dabez; lekaime ukatzallea nai iges egiñaren itzulia Goterkizañak, eta lekaime-etxea azkatua balitz, Lekaipurua be lortuteko alegiñak zoli begie.

XVI IDAZPURUA

Jaunzaleen yaurtigitzea

646g. araua. § 1.—Jaunzaleak beste barik zuzen yaurtigitzat emongo dira:

1.º Siñeskintza katolikoaren agiriko ukatzalleak.

2.º Andrazkoagaz iges egindako gizonezkoak; edo gizonezkoagaz iges egindako andrazkoak.

3.º Ezkontzen direanak nai atarako alak egiten dabezanak; baita gizartekoa esaten dautsen ezkontzea egiten dabenak be.

§ 2.—Onangorik yazoten danean naikoa da Jaunzale-Buru Nagusiak bere batzarragaz nai onulariakaz egiñaren legezko barri emotea; yazoaren egizpideak zoli billatu begiz eta etxeko agiritegian sartu ta zaindu begiz.

I Atala

Bein-beineko berbea emonak yaurtigitzea

647g. araua. § 1.—Bein-beineko berbea emondako Jaunzalea yaurtigi dagike bai Lekaidietan bai Aita Santuaren legezko Jaun-

zaletzetan Jaunzaletzaren Buru Nagusienak, baita bere buruaren yabe dan lekaidetzeko Nagusiak be, bakotxak bere Batzarrak autarki ixilez emondako bayetzagaz; edo Lekaretxea lekaimeena balitz, Goterkizañiak be bai, eta lekaime-etxea lekaideen menpekoa danean Lekaipuruak, lekaime-etxeko Andreak bere onulariakaz artarako dagozan ziyoi buruz ziyook egizkoak direala idatziz esan balegie; goterki-legezko Jaunzaletzetan jaunzaleen etxea dagoan tokiko Goterkizañiak ezpegi baña bere eskubidea erabili, Jaunzale Nagusiak ezer eztrakiala, ez lege onez erizkide eztureanean be.

§ 2.—Oneik guztiok, pekatu aztuna egiteko arrisku barik, ezin dagike jaunzalerik yaurtigi urrengo zerak bete barik:

1.º Yaurtigiteko ziyook aztunak izan bear dabe.

2.º Bai Jaunzaletzaren bai Jaunzalearen aldetikoak izan daitekez. Ifloren yauspide dan Jaunzale-gogo-eza; uts ori leukakena yaurtigiteko ziyorik asko litzake, bide artezera ekarteko emon yakozan zigorkadakaz batera egin yakozan agirikak alperrikoak izan badira; ez orraitio osasun-eza, Jaunzalekuntza-aurrean maltzurkeriz ixildua edo ostondua izan zala argi agiri ezpalitz.

3.º Yaurtigiten dauan Nagusiari ziyook ezpai barik egizkoak agertu bear yakoz, eztago baña auzibidez erakutsi-bearrik; Jaunzaleari, baña, erantzuteko eskubide osoa emonda, beti agertu bear yakoz; eta bere erantzunak yaurtigitea dagokion Nagusiari zintzo agertu bear yakoz.

4.º Yaurtigi dauan epayaren aurka Aita Santuagana yoteko eskubidea dauko Jaunzaleak; eta auzia aita Santuaren eskuetan dagoan artean yaurtitzen dauan epayak eztauko indarrrik.

5.º Yaurtiglia andrazkoa balitz, 643, § 2g. arauan erabagita dagoana be egin bedi.

648g. araua. 647g. arauak diñoanez yaurtigi izan dan jaunzalea azkatura dago beste barik Jaunzaletzako emondako berba guztietatik; eleiz-gizon goiko malletan yarría balitz, eleiz-gizontza orreri legokiozan egin-bearrak aldean dauzala eta 641, § 1, eta 642g. arauak indarrean geldituten direala; eleiz-gizontzako berengo malletan yarrítako eleiz-gizona, barriz, beste barik erri-gizonduta gelditzen da (1).

II Atala

Betiko berbea emonak eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatu bakoan edo erigizonezkoetan Jaunzaletatik yaurtigiteari buruz

649g. araua. Eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatu bakotik nai erri-gizonezko Jaunzaletzatik betiko berbea emonagaz Jaunzaletua yaurtigi al izateko iru lege-ausi, agirika bi ta ondu-eza, 656-662g. arauetan esanak, bear dira erabagi ori emon al izateko.

(1) Atzeneko zer au gaur alperrikoa da.

650g. araua. Iru gauzok badagozala argi agiri baledi, Jaunzaletzako Nagusienak bere Onularien-batzarragaz, auziaren zer guztiak begiratuta, ebatzi begie yaurtigiteari buruz: bai ala ez.

§ 2.—Bazkideen autarkirik geyenak yaurtigitzearen alde balegoz:

1.º Goterki-legezko Jaunzaletzan auzi osoa eroan bedi auziak yoten dauan Jaunzalea bizi dan tokiko Goterkizañagana; ta auzia onek ebatziko dau bere buru zurrak esaten dautsan lez, 647g. arauak erabagiten dauan neurrian.

2.º Aita Santuaren legezko Jaunzaletzan Nagusienak berak emon begi epaia; betetako, baña, Aita Santuak sendetsi-bearra dauko.

§ 3.—Jaunzaleak eskubidea dauko bere zuribideak azkatasun osoagaz aurkeztuteko, eta bere erantzunak auziaren agirian zintzo ezarri bear dira.

651g. araua. § 1.—Betiko berbea emonak diran andrazko Jaunzaleak yaurtigiteko, emondako berbea ospetsua nai laua dala, ziyoo aztunak eta agirikoak bear dira, ta bide onera ekarteko alegiñak uts emonda, etxeko-Andrearen eritxiz onduko danaren bidezko itxaro-biderik eza.

§ 2.—650, § 3g. arauaren agindua bete bedi andrazko Jaunzalea yaurtigitzean be.

652g. araua. § 1.—Goterki-legezko andrazko Jaunzaleak badira, aizta Jaunzaletuaren etxea dagoan tokiko Goterkizañiaren zeregiña da yaurtigitzeko ziyook aztertu ta yaurtitzen dauan erabagia emotea.

§ 2.—Auzia Lekaimeena balitz, Goterkizañiak egin danari buruzko idatzi guztiak bialdu begioz Jaunzaleai buruzko Bazkun Gurenari bere eritxiagaz batera, ta auziko lekaime-etxea lekaideen menpekoa balitz, bai Lekaipuruaren eritxia be.

§ 3.—Aita Santuaren legezko beste andrazko Jaunzaleak balira. Jaunzaletzako Andre Nagusienak be auzi osoa agindu begio Bazkun Guren berberari, auziari buruzko idatzi guztiakaz; ta Bazkun Gurenak lengoan eta oraingo auzian ondoen deritxona erabagiko dau, 641, § 2g. arauan aginduta dagoanaren kalte barik.

653g. araua. Erriari ikara larria egingo baleutso edo Jaunzaletzeari kalte andia ekarteko arriskua balego. Jaunzalea Jaunzale-soñiekoa bertatik erantzita. geyagoko barik gizartera bialdu dagike Jaunzale-Buru Nagusiak bere onularien bayezkoagaz; eta Buru Nagusiagana be arrisku barik yoteko astirik ezpalego. etxeko Jaunzale-Nagusiak be bere aolkari-batzaren eta Goterkizañiaren bayezkoagaz yaurtigi dagike. baña berealaxe Goterkizañiak berak edo. balego. Jaunzaletzako Buru Nagusiak Aita Santua yazo danaren yakitun egin bear dabe.

III Atala

Eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatuetan betiko berbea nai ospetsua nai laua emondako Jaunzaleak yaurtigiteko ibili bear dan auzibidea.

654g. araua. Nai emondako berba ospetsuakaz nai betiko lauakaz lotutako eleiz-gizonezko Jaunzaletzan Jaunzaletukorik ezpedi

yaurtigi auzi-bidez baño, 646, 668g. arauetan aginduaren kalte barik, baño osantxeko kutun-lege guztiak kenduta.

655g. araua. § 1.—Yaurtitze-epaya emoteko eskubidea Jaunzaletzako Nagusienari, edo Lekaretxe-Bazkunaren buruari dagokio, gitxienez lau bazkidedun aolkari-Bazkunaren edo Batzarraren bayezkoagaz; bazkide batzuen utsak, Batzar-Buruak bere lagunen bayezkoagaz bete begiz, eta guztiok batzar-epaitegia egingo dabe.

§ 2.—Epaikari-batzar-buruak bere lagunen bayezkoagaz lege-zaña izentau begi 1589, § 2g. arauak aginduten dauan lez.

656g. araua. Auzia ezarteraño ezin leiteke eldu aurretik egiñak ezpallira:

1.º Agiriko lege-ausi larriak, edo guztien legearenak edo Jaunzaletzaren lege bereziarena.

2.º Agirikak.

3.º Arteztu-eza.

657g. araua. Lege-austeak gitxienez iru izan bear dabe eta lege berberaren aurkakoak; edo beste lege baten aurkakoak izan arren, egikeratik lege-auslearen barru gaiztoa argi erakusten dabenak; edo lege-ausi bakarra izan arren, eten barik dirauana bada, egin yakozan agiriken bidez irukotxa egin dana.

658g. araua. § 1.—Agirika egiteko, bearrekoa da edo lege-ausia agirikoa izatea, edo errudunen auzitegitik kanpoko autortzetatik edo aurretik egin dan azterpenak aurkitu dauzan egizpideetatik benetan egiña izan dala erakutsia.

§ 2.—Azterkaldian, adiñonak adiñonai erantsirik, bete bediz 1939 ta urren-go arauak aginduten dabezan egin-bearrak.

659g. araua. Agirika au Jaunzaletzako urren-go Buru Nagusiak egin bear dau, edo berberak edo ifioren bidez; baño Buru orrek ezpegi agirika egiteko agindu ori emon, lege-ausia 658, § 1g. arauak aginduten dauan lez benetan egiña dala aurretik yakin barik; orraitio, lelengo agirikea egiteko agindua bigarrena egiteko be gauza da.

660g. araua. Agirikak bi izan bear dabe: au da, bakotxa lelengo lege-ausi bakotxagaitik; eten barik dirauan lege-ausian agirika batetik bestera gitxienez iru egun osoko bitartea bear da.

661g. araua. § 1.—Agirikai generatu begiez Nagusiak bide onera etorteko eskeak eta asarre-erakutsiak lege-auslea bide onera ekarteko ta iñori emondako erakutsi okerrari zerbait erantzuteko zigor batzuk be ezarrita.

§ 2.—Ganera Nagusiak lege-auslea barriro yausteko arriskueterik aldendu bear dau, lege-auslea errazago zaintzeko, ta barriro yaustea zallago izan dakion beste etxe batera aldatu be bai, bear balitz.

§ 3.—Agirika bakotxari yaurtigiteko zemaya ezarri bekio.

662g. araua. Jaunzalea eztala bide oneratu dirudi, bigarren agirikearen ostean beste lege-ausi bat balegi edo lengoan balirau; atzenengo agirikea eginda gero gitxienez sei egun begira egon bear da aurrerantzako bidea artu orduko.

663g. araua. Urren-go Buru Nagusiak, agirikak eta bide artezera ekarteko alegiñak alperrikoak izan direala ikusi ezker, billatu begiz zoli-zoli arazoari buruz egin direanen txostena daukien idatzi guztiak eta agiriak eta bialdu begioz Nagusienari; onek, barriz, lege-zañari emongo dautsaz begiratu ta erakusten dabena iragarri dagian.

664g. araua. § 1.—Lege-zañak, emon dautsezan idatzi guztiak aztertuta gero auzia garbi epaitzeko naikoa eztireala baleritxo, egizpide geyago billatzeko eskubidea dauko; salakuntzea balegi, adiñonak adiñonai ezarrita, Laugarren Idaztiaren Lelengo Zatiko arauak aginduten daben auzi-epaibidea erabili bear da.

§ 2.—Auziaren epaibidetik argi egiztauta agertu bear dabe: gure errudunak lege-ausiak benetan egin ebazala; agirika biak egin yakozala; eta eztala bide artezera etorri.

665g. araua. Auzitegiko epaikariak lege-zañaren eta errudunaren zuribideak begiratuta gero, 664, § 2g. arauan esaten direanak egia direana ondo erakutsita dagoala balekuse, Jaunzaletzatik yaurtigiten dauan epaya emon begie.

666g. araua. Epaia ori ezin leiteke bete Jaunzaleai buruzko Bazkun Gurenak sendetsi barik; orregaitik Epaitegi-Buruak bai epaya bai auziari buruzko idatzi guztiak len baño len bialtzeko ardurea artu begi.

667g. araua. Urrineko errialdeetarako, egunean-eguneango arazoetarako be bai, Jaunzaletzako Nagusienak bere Aolkari-batzaren edo Batzarraren bayezkoagaz iñor yaurtigiteko eskubide au gitxienez iru izan bear daben jaunzale zintzo ta sentzunezkoai emon dagikioe, 663-666g. arauetan agindua makaldu barik.

668g. araua. 654g. arauan esaten dana yazo baledi, Buru Nagusiak, eta geroagorako arrisku barik itxi ezin baledi eta Buru Nagusiagana yoteko astirik ezpalego, etxeko Nagusiak berak be, bere Aolkarien bayezkoagaz, jaunzale-soñekoa bertatik erantzita, yaurtigi dagike errira; eta yaurtigiko jaunzaleari, egiten asi barik balego, berealaxe egin begio Jaunzaletzatik yaurtigiteko auzi-bidea.

IV Atala

Betiko berbea emondako Jaunzale yaurtigiak

669g. araua. § 1.—Betiko berbea emondako Jaunzalea Jaunzaletzatik yaurtiglia Jaunzale-emondako berbakaz lotuta dago, ostan-txean erabagiten daben Jaunzaletzako legeen edo Aita Santuaren lege bereziaren kalte barik.

§ 2.—Eleiz-gizonen beko malletan yezarria balitz, beste barik erri-gizonduta gelditzen da. (Zer zarra).

670g. araua. Goiko malletan yezarritako eleiz-gizonak 646g. arauan azal-tzen direanetariko lege-ausien bat egin balegi, edo guztien-tzako Elexearen legeak legezko izen gaiztoagaz, edo eliz-gizonen artetik yaurti-giteagaz edo eleiz-gizonen malletatik be yaurtigitagaz zigorkatzen dan lege-ausien bat egia balitz, eleiz-gizonen soñekoa erabiltea betiko dauko galazota.

671g. araua. 670g. arauan aitaturten direan baño lege-ausi txikiagoakaitik yaurtiglia baledi:

1.º Beste barik Aita Santuagandik azkespena artu-artean etenda dago.

2.º Alan egoki baleritxo, Bazkun Gurenak, erritar-eleiz-gizonen soñekoa yantza eta zergaitik yaurtiglia izan zan Goterkizañari agertuta, goterki baten biziteko agindu begio yaurtigiari.

3.º Or 2.º zenbakian esandako aginduari yaurtigiak men ezpalegio Jaunzaletzak eztauko berari lagundu-bearrik ta yaurtiglia eleiz-gizonen soñekoa erabilteko eskubidea kenduta bertatik gelditzen da.

4. Bere bizitokitzat izentau dautsen tokiko Goterkizañak bialdu begi gure Jaunzaleau eleiz-gizonen zigor-etxera edo abade Jaunkoi ta sentzun andiko bategana. zaindu dagian; ta gure Jaunzaleak men egin ezpalegio, egin bedi 3.º zenbakian erabagita dagoana.

5.º Jaunzaletzeak yaurtigi orreri bizi dan tokiko Goterkizañaren eskuz biziteko bearko leuken maitezko laguntasuna agindu begio, beste ifondiko bizibiderik ezpadau.

6.º Eleizgizonari dagokion bizikerarik ezpadaoa gure yaurtigiak, urtea yoan ezkerio edo bai lenago be. Goterkizañaren eritxiari yarrai, maitezko biziteko laguntasuna kendu bekio ta yaurtigi bedi zigor-etxetik ta eleiz-gizonen soñekoa erabilteko eskubidea Goterkizañak kendu begio; eta Goterkizañak berak bai Aita Santuari bai Jaunzaletzeari agindu begie gure gizonari buruzko txosten zeatza.

7.º Baña gure yaurtiglia esandako epe osoan benetan bide onerakotutzat zuzen eukiteko bestean txalogarri bizi izan bada, Goterki-zañak eten-zigorra parkatu dagiontzat Aita Santuari gure yaurtigiak egiten dautsan eskaria on-artzekoa dala esan begio; eta arkezpena lortu ekerio. bada ezada ondo deritxen neurriakaz bere goterkian mezea emoteko eta baita eleiz gizonen beste zereginen bat egiteko eskubidea be emon dagikeo, maitsun zurrak erakutsiko dautsan zanak gure gizon orrek nondik bizi irabazi dagian be; Orduan Jaunzaletzeak

eleuke bizi-laguntasuna bialtzen yarraitu-bearrik. Yaurtiglia diakonoa edo diakono-azpikoa balitz, arazoa Aita Santuagana eroan bedi.

672g. araua. § 1.—Yaurtiglia Jaunzaletzan emondako berbetatik azkaltua ezipalitz, Jaunzaletzara atzera etorri-bearrean dago; eta benetan oso ondu dalakoaren egizpideak iru urte urrenean emon balitu, Jaunzaletzak barriro artu bear dau; Jaunzaletzara barriro etorri-bear orren aurka ziyo aztunak balegoz, nai Jaunzaletzaren aldetik nai Jaunzalearen aldetik, ebazkizuna aita Santuagana eroan bedi.

§ 2.—Jaunzaletzan emondako berbak amaituten direanean, baña, Jaunzaleak idoro balegi goterkian errukiz artzen dauan Obispoa, bego Obispo orren menpeko arduraz zainduta 642g. arauaren neurrian; olangorik yazoten ezteanean, ebazkizuna aita Santuagana eroan bedi.

XVII IDAZPURUA

Jaunzaleen agiriko iru gauzak zaintzeko berbarik emon barik batera bizi direan bai gizonetzko bai andrazko alkargoak

673g. araua. § 1.—Bai gizonetzkoen bai andrazkoen alkargoa, batera euren lege berezi onetsien arauz euren Buruen menpean bizirik Jaunzaleen bizikerari antza emoten dautsela, baña onein iru agiriko berbakaz bazkideak lotu barik egiten daben alkargoa, ezta benetan Jaunzaletzea, ta bere bazkideai etxake Jaunzale-izenik emoten.

§ 2.—Onetariko alkargoak be eleiz-gizonetzkoak nai erri-gizonetzkoak izan daitezkez; Aita Santuaren legezkoa nai Goterkiko legezkoa 468, §§ 2, 3g. arauaren arauz.

674g. araua. Alkargoaren eta bere Erki ta etheen sortze ta amayari buruz Jaunzaletzeai buruzko legeak indar bardiña dauke.

675g. araua. Euron zaintzabidea Alkargo bakotxaren legeetan dago erabagita, baña guztietan, adifionak adifionai ezarrita, bete bediz 499-530g. arauak.

676g. araua. § 1.—Alkargoak ta bere Erki ta etxeak ondasunen yabe izateko ta eurak zaintzeko eskubidea dauke.

§ 2.—Zelan zaindu 532-537g. arauak erabagiten dabe.

§ 3.—Bazkideai bazkide direalako datorkien guztia Alkargoarena da; beste ondasunak bazkideak euki, artu, zaindu, Alkargoaren legeak aginduten daben lez.

677g. araua. Bazkide-geyak zelan atotsi Alkargoaren legeak erabagi bear dabe, baña 542g. arauaren agindua zainduta.

678g. araua. Ikasketai eta eleiz-gizontzeari buruzkoetan bazkideak eleiz-gizon erritarren lege berberak lotzen dabez, Aita Santuak emondako lege berezien kalte barik.

679g. araua. § 1.—Alkargoaren bazkideak, bazkide lez euren legeen neurrian beartuta dagozan egin-bearrez ganera, eleiz-gizon guztien egin-bearrakaz be lotuta dagoz gayaren izatasunak edo esakereak ostantxekorik erakutsi ezik; bardin, 595-612g. arauen aginduak be bete bear dabez, euren legeak besterik ezpadifioe.

§ 2.—Euren etxeetan itxita bizi-bearrari buruz, Goterkizañaren menpeko direala, bete begie euren legeak aginduten dautsena.

680g. araua. Eurok, naita erri-gizon izan, 119-125g. arauetako eliz-gizonen kutun-legeak emoten dabezan eskubide bereziak eurenak dabez; bai Alkargoari artez emonak be, ez baña Jaunzaleen kutun-legeak, beren-beregi eurai be emonak izan ezik.

681g. araua. Alkargo bakotxaren legez ganera, beste Alkargo batera nai Jaunzaletza batera igarotzeaz edo baita Aita Santuaren legezko Alkargotik urteteari buruz be, adifionak adifionai ezarrira, 632-635, 645g. arauetan agindua bete bedi; eurok yaurtigiteari buruz barriz 646, 672g. arauak agindua.

IRUGARREN ZATIA

Kistar erritarrak

682g. araua. Kistar erritarrak eskubidea dauke eleiz-gizonakandik, Elexearen legezko bizibidearen arauaz, arimeari buruzko ondasunak, baña batez be zeruko bizitza yadesteko bear dabezan laguntzak artzeko.

683g. araua. Etxake zillegi erritarrak eleiz-gizonen soñekorik erabilerik edo abadegei-etxeko ikasleak, 972, § 2g. arauak diñozan abadetzara igon gure daben ikasleak ezpadira, edo erritarrak elexeari buruzko otsein-lanari daragoyenak, nai elexa-barruan nai elexatik kanpoan, eleiz-gizonen zeregiñen bat egiten dabenean izan ezik.

XVIII IDAZPURUA

Kistar erritarren Alkargo guztiai buruz

684g. araua. Txalogarri dira kistarrak Elexeak eregitako edo beintzat onetsitako Alkargoetan bazkidetzen direanak; alde egin begie ixileko, gaixto, burrukari, oker-susmoa emoten daben Alkargoetatik, edo Elexearen zaintzapetik igeska agiri direanetatik.

685g. araua. 487-681g. arauetan aitaturten direan Jaunzaletza ta Alkargo goez ganera beste Alkargo batzuk be eregi dagikez Elexeak, nai kistarrak dagokien bizikerea beteagoa izan dagien, nai erruki ta senitarteko maite-erakutsiak egiten ekiteko, nai atzenean Jaunari-buruzko maite-erakutsiak Elexearen bidez sendogotuteko.

686g. araua. § 1.—Elexeak eztau berekotzat ezagututen Elexako legezko Nagusiak eregi edo gitxienez ontzat emon eztauan Alkargorik.

§ 2.—Alkargo eregi nai onestea, Aita Santuaz beste, Goterkizañai dagokie, batenbatzuek eregitea Aita Santuaren erabagiz beste norbaitzuei berezia ezpalego.

§ 3.—Aita Santuak emondako eskubide berezia erakutsi arren, eskubide ori emoten dauan agirian bertan alantxe esan ezik, eregiteak legezko indarra izateko beti bear dau Goterkizañaren idatzizko baimena; Jaunzale-etxea eregiteko Goterkizañak emondako baimena naikoa da, orraitio, etxe artan edo etxeari erantsitako elelan eregiteko Jaunzaletza arek bere-berea dauan Alkargoa, bere buruaren yabe lez bizitekoa ezpalitz.

§ 4.—Danerako Ordezkoak danerako aginduagaz bakarrik, eta Batzar-Ordezkoak ezin dagikez Alkargoak eregi, ezta eurak eregiteko nai beste Alkargo bateri erantsiteko baimenik emon be.

§ 5.—Aita Santuaren eskubide bereziagaz Alkargoak eregiten dabezanak artarako idatzia urrurik emon begie, emotearen lanaren zorra ordaintzeko legez ezarria ta dagoana izan ezik.

687g. araua. 100g. arauaren erabagiz kistarren Alkargoak yayo ta legezko nortasuna yadetsi, legezko Eleiz-Nagusiagandik benetako eregi-agiria artzen dabenean egiten dabe.

688g. araua. Zorakeria nai oi eztan barrikerien bat nai Aita Santuak ontzat emon bako yaureskeraren bat entzuten dauanen burura dakarren izenik ezpegie artu Alkargoaren izentzat.

689g. araua. § 1.—Alkargo guztiak beukiez Aita Santuak edo Goterkizañak aztertu ta onetsiko arauak.

§ 2.—Aita Santuak sendetsi bako arauak Goterkizañak zaindu ta zuzendu dagikez.

690g. araua. § 1.—Alkargo guztiak, baita Aita Santuak eregiak be, artarako beren-beregiko eskubiderik ezpadabe, eurok aztertzeko eskubidea ta eginbearra daukan Goterkizañaren zaintza ta ardurapean dagoz.

§ 2.—Baña Aita Santuak emondako eskubidearen indarrez Jaunzaleak euren eleketan eregitako Alkargoak Goterkizañai etxake zillegi aztertzea euren barruko bizikerea nai Alkargoaren arimen-zuzentzeari buruzko zeretean.

691g. araua. § 1.—Legez eregitako Alkargoak, ostantxekorik argi erabagita ezpaleuko, ondasunak euki ta zaintzeko eskubidea dauko, 1525g. arauaren neurrian gitxienez urtean bein zaintze orreri buruzko kontua emon bear dauksan Goterkizañaren menpean, eta ez parroki-zañaren menpean, nai ta parroki-barrutian eregita egon, Goterkizañak berak olangorik agindu ezpalegi.

§ 2.—Emoten dauksenen asmua zein izan dan beti kontuan erabilita, bere legeen neurrian eskeintzen dautsezan emonak artu ta artutakoak alkargoaren elburu onen alde banandu dagikez.

§ 3.—Alkargo batek be ezin legike eskean ekin, edo bere legeak alan ekiteko eskubidea emon ezik, edo bearrak alan eskatu ezpalegi, eta Goterkizañaren bayezkoagaz eta beronek agindutako erea zainduta.

§ 4.—Norbere barrutitik kanpoan eskean ekitoko toki guztietatik Goterkizañen baimena bear dabe.

§ 5.—Nai eskean nai edozelan batua zelán zaindu dauan, Alkargoak Goterkizañari zintzo erakutsi bear dautso.

692g. araua. Alkargoaren eskubide, kutun-lege, nekazka ta beste gogozko emonak norberenak egiteko ta erabilteko bearreko ta naikoa da Alkargoaren legeen neurrian norbera Alkargoaren bazkide benetan izan eta bertatik legez yaurtigi ez izatea.

693g. araua. § 1.—Katoliko eztereanak eta gaiztotzat emondako alkargoen bateri izena emonak, Elexearen zigor-osagarriagaz yota dagozala erriak ezagun dauzanak, eta, itzATEGAZ esateko, erri osoak gaiztotzat daukazanak be ezin leitekez gure Alkargo baten be bazkide; ta olangorik inor bazkidezea alperrikoa litzake.

§ 2.—707g. arauan erabagia zutunik dala, Alkargo askotan bazkidezea azke dago.

§ 3.—Gorputz bat egiten daben alkargoetan ezpedi urrin bizi danik bazkide artu; eta urrekoak ez dauke bazkidezerik, eurak jakin eta nai dabela izan ezik.

§ 4.—704g. arauan agindua alde, euren Nagusien eritxiz Jaunzaletzako legeakaz konpondu-eziñak ezpalira, Jaunzaleak bazkide taitekez kistarren Alkargoetan.

694g. araua. § 1.—Bazkideza ori Elexako legeen eta Alkargo bakotxaren arauak aginduten daben lez egin bedi.

§ 2.—Norbait bazkide ta dala yakiteko bazkide taaren izena Alkargoaren izen-tegian uts barik ezarri bear da; ta Alkargoa legezko norbait egiña balitz, izena ezarte ori bazkide ta bera gauza izateko be bearrekoa da.

695g. araua. Alkargoan bazkide taegaitik ezpedi ez artez ez zearka emonerazo legez ontzat emondako Alkargoaren arauak ezarten dabena baño edo Goterkizañak ziyo berezi-bereziakaitik Alkargoari lagun etorteko izentau-dauana.

696g. araua. § 1.—Legez bazkide taurik ezpedi Alkargotik yaurtigi, ziyo zuzenagaz eta Alkargoren arauak erabagiten daben legez baño.

§ 2.—693, § 1g. arauko okerren baten yausiak, aurretik zemaituta, ta arauak aginduten dabena eginda ta Goterkizañagana yoteko eskubideari ezer kendu barik, bazkideen izentegitik kendu bediz.

§ 3.—Nai ta arauetan ezer esan ez, Goterkizañak Alkargo guztiai buruz, eta Jaunzale-Nagusiak Aita Santuaren eskubidez Jaunzaleak eregitako Alkargoai buruz, bazkideak yaurtigiteko eskubidea dauke.

697g. araua. § 1.—Legez eregitako Alkargoak euren arauen eta Elexearen legeen neurrian batzarrak egiteko, Alkargo berberari legokiozan erabagiak emoteko, ondasun-zañak, zeregindunak eta otseñak 715g. arauaren aginduaren kalte barik aututeko eskubidea dauke.

§ 2.—Batar-deyari ta auteskundeai buruzkoetan 161-182g. arauetan ezarritako zuzenbideari aurkazko ezterean arauak aginduten dabena egin bedi.

698g. araua. § 1.—Goterkizañak edo Aita Santuak eregitako edo ontzat emondako Alkargoetan Alkargo-zañia eta eleizkizunak egiteko jauparia izentatzea Goterkizañari dagokio, Aita Santuaren lege berezietan besterik esan ezik; Aita Santuaren lege bereziz Jaunzaleak euren elezetatik kanpoan eregitako Alkargoetan, barriz, Goterkizañaren baimena bakarrik bear da, Jaunzale-Nagusiak Alkargo-Burua ta eleizkizunak egiteko yauparia erriko eleizgizonetarikoak artuko balitu.

§ 2.—Alkargo-zain eta eleizkizunak egiteko yaupariak euren zeregiñaren epe-barruan Alkargoaren soñekoa nai ezaugarriak, kutunak eta abar onetsi ta bazkideai ezarte ko eskubidea dauke; itzaldiak egiteari buruz bete bediz barriz 1337-1342g. arauetan aginduak.

§ 3.—Alkargo-zain eta eleizkizunak egiteko yauparia kendu, izentau ebaznak eta bere ondorengoak eta Nagusiagoak dagikiez.

§ 4.—Alkargo-zain-eta eleizkizun-yauparia bat berbera izan daiteke.

699g. araua. § 1.—Ziyo aztunak bide direala ta Aita Santuagana yoteko eskubidearen kalte barik, Goterkizañak ausi dagikez ez bakarrik berak nai bere aurretikoak eregitako Alkargoak, baño baita Aita Santuaren lege bereziaren bidez Jaunzaleak Goterkizañaren baimenagaz eregitako Alkargoak be.

§ 2.—Aita Santuak berak eregitako Alkargoak ostera Berak bakarrik ausi dagikez.

XIX IDAZPURUA

Kistarren Alkargo bakotxari buruz

700g. araua. Irutariko Alkargoak berezten dira Elexan: Eren-Jaunzaletzak; Anai-arreba-bazkunak, eta Azku-bazkunak.

701g. araua. § 1.—Kistarren artean kistar-bizitzeari indarra emoteko sortu direan Alkargoen artean zein goragoko zein beragoko mallan legoken auziari buruz, 106, 5.º ta 6.ºg. arauaren aginduaren kalte barik, urrengo malletan dagoz yezárrita:

Gorengoan: Eren-Jaunzaletzak.

Bigarrenean: Anai-arreba-bazkuna-buruak.

Irugarrenean: anai-arreba-bazkunak.

Laugarrenean: Azku-bazkuna-buruak.

Bosgarrenean: Beste Azku-bazkunak.

§ 2.—Jesus'en Gorputzaren anai-arreba-bazkuna Gure Jauna eroaten dan ibillietan Anai-arreba-bazkuna-buruen aurretik yoaten da.

§ 3.—Aurrerago yoteko eskubide ori eztauke, Alkargoak batzarkiro euren kurutzearen nai ikurriñaren azpian eta Alkargoaren soñeko ezaugarriak aldean dabezala doazanean baño.

I Atala

Gizarteko Eren-Jauntzaleak

702g. araua. § 1.—Gizarteko Eren-Jauntzaleak auxe dozuz: Jauntzale-tza batek zainduta ta bere bizikerearen bero bereziak bizkortuta, gizarteko bizikereari dagokion lez Aita Santuak eurentzat ontzat emondako arauen bidetik yoanda kistar-bizitzea osoan biziten daragoyenak.

§ 2.—Errietan Eren-jaunzaletza bazkun askotan bananduta balego, onetari-ko edozeñeri, bein legez eregita egon ezker, *Eren-Jaunzaletza-bazkuna* deritxo.

703g. araua. x 1.—Lekaidi batzuei emondako eskubide bereziaren kalte barik, ezin dagike Jaunzaletza batek Eren-jaunzaletzarik eregi.

§ 2.—Aita Santuak eskubide berezia emonda be, Jauntzale-Buruak bazkide-tu dagikez lagunak banazezan, baño Eren-jauntzale-bazkunik ez dagike eregi Goterkizañaren baimen barik, 683, § 3g. arauaren neurrian.

§ 3.—Eta eurak eregitako Bazkunari be eztagikiõe erri guztientzako eleizkizunetan soñeko berezirik erabilteko eskubiderik emon Goterkizañaren baimen berezi barik.

704g. araua. § 1.—Nai betiko nai bein-beineko berba emotea Jaunzaletza baten egiñikoa ezin leiteke era batera Eren-jaunzaletza bateko bazkide izan, beñola aren bazkide izana bada be.

§ 2.—Emondako berbatik azkatuta gizartera itzuli baledi, beñolako bazkide-tasuna berbiztuten yako.

705g. araua. Eren-jaunzaletzako bazkidea be, Aita Santuak artarako eskubide berezia emon ezik, ezin leiteke bazkide-tu beste Eren-Jaunzaletza baten lengo bazkide-tzea galdu barik; bazkide bakotxari, baño, zillegi yako bidezko ziyoz Eren-Jaunzaletza batetik bestera, nai Eren-Jaunzaletza baten Bazkuna batetik bestera igarotea.

706g. araua. Eren-jauntzaleak erri osoarentzako eleiz-ibiltaldietara, eleizkarietara eta beste eleizkizunetara bat eginda eldu leitez; eztagoz, baño, artara bearturik; eldutekotan, baño, euren ezaugarriak eta euren kurutzearen babespean yoan bear dabe.

II Atala

Anai-arreba-bazkunak eta Azku-bazkunak

707g. araua. § 1.—Jaungoiko-zaletasuna edo anai-maitasuna erakusteko sortzen direan bazkunai Azku-bazkuna izena emoten dautsegu; gorputz biziaren antzean alkarrereri erantsitako atalez eginda dagoalakoa emoten dauanean, lateraz *sodalitio* esaten yake, euskeraz *lagun artea* esango neuke.

§ 2.—Kistar-erriak Jaunari zor dautsazan maite-erakutsiak sarriago ta obeto egiteko sortutako lagun-batzai, *anai-arreba-talde*-izena emoten yake.

708g. araua. Anai-arreba-taldeak ezin leitekez sortu beren-beregi eregi egin dauzala esaten dauan aginduaren bidez baño; Azku-bazkunak sortzeko, barriz, naikoa da Goterkizañak ontzat emotea; ori lortu ezker, nai ta legezko nortasunik izan ez, gauza da arimeari buruzko emonak artzeko, batez be nekazkak (indulgentziak).

709g. araua. § 1.—Anai-arrebak ezin leitekez eleizkizunetan bertakotzat agertu anai-arreba-taldearen soñekoa edo ezaugarriak barik.

§ 2.—Anai-arrebazko taldeetan ezin leitekez andrazkoak bazkide-tu, nekazkak eta anai-arrebai emondako beste arimeari buruzkoak irabazteko baño.

710g. araua. Anai-arreba-taldeai nai Azku-bazkunai izena emoteko, artu bedi edo Jaunari ezarten dautseguzan izenetatik, edo kistar-siñeskintzatic edo Geure Jaunaren edo Andra Mariaren yayetatik edo Santuakandik, edo bazkunaren egikizunetatic.

711g. araua. § 1.—Izen eta izan berbereko anai-arreba-talde ta Azku-bazkuna asko ezpediz eregi ez ontzat emon toki berean, berarizko eskubide ori emon ezpayako edo legez erabagita ezpalego; uri nausietan, baño, zillegi da ori egitea, Goterkizañaren eritxiz egoki balitz.

§ 2.—Goterkizañak alegiñak begiz parroki-elexa guztietan Gure Jaunaren Gorputz eta Kistar-Ikasbidearen anai-arreba-taldeak eregi daitezcan; eurok, legez eregita egon ezker, beste barik erantsita dagoz Erroma'n Aita Santuaren Ordezko Kardenalak eregitako anai-arreba-talde berberari.

712g. araua. § 1.—Anai-arreba-talderik nai Azku-bazkunik ezpedi eregi, elexan edo guztientzako otoiztegian edo gitxienez erdi-guztientzako dan otoiztegian baño.

§ 2.—Batzarraren baimen barik ezpediz eregi Gotzain-elexan nai Batzar-elexan.

§ 3.—Andrazko Jaunzaleen elexetan nai otoiztegietan andrazko-bazkunak edo otoizketan baño ekiten eztautsenak eta arimeari buruzko emonak bakarrik irabazteko Azku-bazkunak eregitia itzi dagike Goterkizañiak.

713g. araua. § 1.—Jaunzaleak eskubidea dauke, eurak eregitako anai-arreba-bazkunai nai Azku-bazkunai Aita Santuagandik arutako eskubideetan agirian eta banan-banan iñori emotekotzat esaten direan arimeari buruzko grazi guztiak emoteko eta eurok bakarrik emon bear dabez; eta eregitorduan 919g. arauaren agindua beteten dabela bakotxari agertu bear yakoz.

§ 2.—Eurok eregitako anai-arreba-bazkunai etxake zillegi eleiz-ibilletan edo beste eleizkizunetan erabilteko direan soñekoa ta ezaugarri bereziak erabilterik Goterkizañaren beren-beregiko baimenagaz baño.

714g. araua. Anai-arreba-bazkunak ezpegiez euren soñeko ta ezaugarri bereziak ez itxi ez aldatu Goterkizañaren baimen barik.

715g. araua. § 1.—Anai-arreba-Bazkunaren batzarretan, Jaunzaleen eleixa nai otoiztegietan egiten direanean be, Goterkizañari dagokio:

1.º Maipuru izatea, nai berbera dala, nai iñoren bitartez egiten dauala.
2.º Aututako agintariak eta ordezkioak, artarako gauza badira, sendestea; eta artarako gauza eztereanak txartzat emon eta kentzea.

3.º Arauz beste erabagiak, Aita Santuak ontzat emonak ezpalira, arteztu ta ontzat emotea.

§ 2.—Noiz gureko batzarrak noiz izango dabezan Goterkizañari nai bere Ordezkoiari garaiz iragarri bear dautsez; ostantxean, Goterkizañiak eskubidea dauko batzarra galazoteko nai bertako erabagiak austeko.

716g. araua. § 1.—Euren elexetan eregitako anai-arreba-bazkunak eta Azkubazkunak, bete-bearrak bete ezkerro, parroki-eleixearnak ezterean eleizkizunak baimenik eskatu-bear barik egin dagikez, parroki-lanari parroki-elexan kalterik ekarri ezik.

§ 2.—Bardin egin bedi, parrokia anai-arreba-Bazkunaren elexan eregita balego.

§ 3.—Anai-arreba-Bazkunaren nai Azku-Bazkunaren eleizkizunak parroki-lanari kalterik egiten ete dautsen ala ez buruzko eztabaidetan ebatzia emotea Goterkizañari dagokio, baita auzilariak bete bearko dabezan aginduak emotea be.

717g. araua. § 1.—Eurenak ezterean elexetan eregita balegoz, euren eleizkizunak eregita dagozan euren eleiz-txokoa nai opalman bakarrik egin dagikez 716g. arauaren eta bakotxaren arauen neurrian.

§ 2.—Eurena eztan edo eurena izan arren parrokia be bertan eregita legoken elexan balegoz anai-arreba-Bazkuna nai Azku-Bazkuna, parrokiaren eta Bazkunaren ondasunak alkarregandik bananduta zaindu bear dira.

718g. araua. Anai-arreba-Bazkunak, Goterkizañiak besterik agindu ezik, betiko ta Goterkizañiak aginduko leukezan eleiz-ibilletara guztiak batera eta bakotxaren ezaugarriakaz eta Bazkunaren ikurrin-pean eldureko beartuta dagoz.

719g. araua. § 1.—Aldatzea legez edo Aita Santuak ontzat emondako arauetan galazota ezpalego, anai-arreba-Bazkuna nai Azku-Bazkuna toki batetik bestera Goterkizañaren baimenagaz aldatu daiteke.

§ 2.—Jaunzaletza batena litzaken Anai-arreba-Bazkuna nai Azku-Bazkuna aldatzeko Jaunzaletzako Nagusiaren baimena bear da.

III Atala

Anai-arreba-Bazkuna-Buruak eta Azku-bazkuna-buruak

720g. araua. Ari bardiñeko bazkunak eurai erantsiteko eskubidea dauken Bazkunak lateraz urrengo izenak daukiez: *archisodalitia*, edo *archiconfraternitates*, vel *piæ uniones*, *congregationes*, *societates primariæ* (1).

721g. araua. § 1.—Bazkun batek Aita Santuak emondako eskubide barik eztagike beste Bazkunarik berari erantsi.

§ 2.—Aita Santuak emonak besterik ezpadiño, Anai-arreba-Bazkun-Buruak nai Azku-Bazkun-Buruak izen eta xede bardiñekoak direan anai-arreba-Bazkunak nai Azku-bazkunak bere buruari erantsi dagikeoz.

722g. araua. § 1.—Erantsiaren bidez erantsiten dauan Bazkun-buruak erantsiari Aita Santuak artez eta bere izenez emongo dautzazan nekazka, kutun-lege ta arimeari buruzko iñori emon leitekiozan graziak emoten dautsoz, aita Santuaren agirian besterik erabagita ezpalego.

§ 2.—Zerok emonetik erantsitzalleak erantsiari buruz eztau ezertariko eskubiderik irabazten.

723g. araua. Erantsite ori gauza izango bada urrengo zerak bear ditu:
1.º Bazkuna legez eregita egotea ta beste Anai-arreba-Bazkunari nai Azku-Bazkunari erantsita ez egotea.

2.º Goterkizañaren bayezkoagaz eta egiten dana idatziz ezartea.

3.º Erantsiaren bidez erantsiari emoten yakozan nekazka, kutun-lege eta arimeari buruzko beste emonak banan-banan esanda betorz Anai-arreba-Bazkun-Buruak emoten dautsazan eta Anai-arreba-Bazkun-Buru dagoan tokiko Goterkizañiak ikusi ta Bazkuna erantsiari emoten dautsan agirian.

4.º Erantsi ori arauetan ezarrita dagoan lez eta betiko egin bedi.

5.º Erantsiaren agiria guztiz urrurik emon bedi, eta oldez eskeñiko esku-

(1) Nik dakidala, etxako iñori iñoiz burura etorri izenok euskeraztutzerik.

pekorik be ezpedi artu. Arau onetako lanak ekarritako diru-eralgiak bakarrik ordaindu-bearra baño eztago.

724g. araua. Anai-arreba-bazkun-buruak eta Azku-Bazkun-Burua toki batetik bestera Aita Santuak bakarrik aldatu dagikez.

725g. araua. Bazkun-Burua nai lelengo mallako Bazkun-izena, izen utsezkoa izanda be, kistar-bazkun bateri Aita Santuak bakarrik emon dagikeo.

IRUGARREN IDAZTIA

ZERTZUK

726g. araua. IDAZTI onetan atzalduten direan eta Jaunak ezarritako egin-bearra betetea Elexearentzat beste ainbeste bide direan zera, batzuk gogozko utsak, beste batzuk gorputzezkoak, eta beste batzuk bitzuetarikoak dira.

727g. araua. § 1.—Gorputzezko ordainbidez berez gogozko utsa dan zerbait esaterako Ikurtonak, Eleiz-zaintzea, Jaureskuntzea, nekazkak eta abar, edo gogozko zerbaiteri gorputzezko zerbait gogozkoagandik berezi-ezin-giñoan erantsita balego, esaterako: Eleiz-bizibidea ta abar, orretariko zerbait diruagaz edo beste gorputzezko zerbaiten ordezi erosi-gurea; edo gogozko zerbait erosketa orren zatia bakarrik balitz be, esaterako: yaureskuntzea, jaureskuntzatutako mezako edan-ontzian yaureskuntzatuta dagoalako garestiago erosi-saldu-gurea, Jaunaren legeak galazoten dauan SIMONKERIA da.

§ 2.—Gorputzezko zerbaitzuk gogozko zerbaitzui, gorputzezko zerbaitzuk erantsita daukezan gogozko zerbaitzuen ordezi aldatutea; edo gogozko zerbaitzuk beste gogozko zerbaitzuen ordezi emotea; edo gorputzezko zerbaitzuk beste gorputzezko zerbaitzuen ordezi emotea, Jaunari buruzko zeretari nastu leiteken lotsabakokeriagaitik Elexeak galazo balegi, Eleiz-legeak galazotako SIMONKERIA egingo litzake.

728g. araua. Simonkeri-auzi onetan saldu-erosi, truk egin eta abar itzak zabal ulertu bear dira, eta benetako simonkeritzat emon, argi esan ez arren, edozein artu-emonaren usaiñik agertuten danean.

729g. araua. Simonkeria egiñikoen aurka emondako zigorrak zutunik yarraitzen dabela, simonkeriak kutsututako itunbena bera be utsa da; ganera eleiz-bizibide, zeregin, nausitzai buruzkoa balitz, gero zeron emotea be utsa izango da, naita simonkeria beste norbaitek, orretariko zerbait artu dauanak ezekiela, egin; ez, baña, orraitio simonkeri ori orretariko zerbait artu dauanari kalte egitearren egiña baledi, edo berorrek iñork bere alde egiten eban ori txartzat emon balegi.

Orregaitik:

1.º Epaikariaren edozein epai-aurretik simonkeriz emondako ta artutako zera, atzera emotekoa balitz eta gogoz zera zor yaken lotseak galazo ezpalegi; atzera emon bear da, eta bizibidea zaintzea nai nausitzea utzi.

2.º Bizibidea simonkeriz artu dauanak eztauz bizibide orren mozkiñak be-reak egiten; euron uste onean artu balegiz, epaikariak nai Goterkizañak, euron eritxi zurrak esaten dautsanez, itxi dagikeo eurok nai osorik nai zatian yagotea.

730g. araua. Eztago simonkeririk bizitza onetako zerbaít betiko bizitza-zerbaiten *ordaintzat* emoten eztanean, betiko bizitza-zerbaiten buruzko zerbaít egitean nai eleizlegeak nai legezko oiturak zuzentzat emoten dauan ziyogaitik emoten danean; bardin, eztago simonkeririk emeko bizitza-zerbaiten orde-zerbaít emeko bizitza-zerbaít beste zerbaít emoten danean, naita onetariko zerak betiko bizitza-zerbaít euki: esaterako mezako edan-ontzi santutua, santutua dalako garestiako saldu ezik.

LELENGO ZATIA

Ikurtonak

731g. araua. § 1.—Lege Barriko ikurton guztiak Kisto Gure Jaunak irasiak, santubide ta zerurako biderik bikañenak direan ezkerero. eurok garaiz eta bear dan lez emon eta artzen alik eta zolien yokatu bear da eta lotsarik andiena erabilli.

§ 2.—Elexearen ikurtonak siñausle ta Elexeagandik banandutakoai emotea galazota dago, baita bide okerretik uste onez doazanai eta ikurtonon eske datozanai be, aurretik euren uste okerra ezagutu ta Elexeagaz adiskidetu arte.

732g. araua. § 1.—Euron oñatza irarrita izten daben ikurtonak. oneik dira: ugutza, sendatza ta eleiz-gizontze-ikurtonak, bein artu ezkerero, ezin leitekez barriro emon-artu.

§ 2.—Benetan edo bein-beinean bear zirean lez emon-artu ete direan ganorazko zalantzarik balego, bada-etzpada ta baldintzapean emon leitekez barriro.

733g. araua. § 1.—Ikurtonak egikeran, emokeran eta artukeran zintzo erabili bediz Elexeak aginduta daukazan otoitz eta legeak, Elexeak berak artarako ontzat argitaratuta daukazan idaztiak dakarrenez.

§ 2.—Bakotxak. barriz, bere yaureskereari eutsin bear dautso, 851, § 2 eta 686g. arauak aginduten dabenaren kalte barik.

734g. araua. § 1.—Ikurton batzuk emoteko erabilten direan orioak urren yoan dan Eguen Gurenean Obispoak santututa egon bear dabe; ta zurrak ezpediz erabili bear estuan baño.

§ 2.—Laster amaitzeko legoken orio santutuari ezkurtezko santutu bako orioa erantsi bekio, bai bein baño geyagotan be, bakotxean baño zati txikiagotan.

735g. araua. Parroko-zañak bere Goterkizañari eskatu bear dautsaz orio santuak eta elexan toki seguru ta egokian giltzapean zain-

du; ezpegiz bere etxean zaindu, ezin-bestean edo beste ostantzeko bidezko ziyoen batek eraginda eta Goterkizañaren baimenagaz baño.

736g. araua. Ikurtonak emotearren ezpegi emolleak ezer eskatu ez artez ez zearka ezelango ziyogaitik; oraindiño gitxiago iñor zerbaít emoten beartu, 1507g. arauan aitaturten direan legezko lan-sariak baño.

I IDAZPURUA

Ugutza (Bateoa)

737g. araua. § 1.—Ugutza, Ikurtonen atea ta oñarria, izatez ta gitxienez opaz guztientzat bearrezkoa zerura yoateko, ezta benetan emoten, agindutako itzak esaten direala baño, benetako ta berezko uragaz garbituta.

§ 2.—Otoitz eta Egikera-idaztietan agindutako otoitz eta egikera guztiakaz danean ugutzari *ospetsua* deritxo; osterantzean, *ospetsu eza* edo *ixila*.

I Auala

Ugutza norik emon?

738g. araua. § 1.—Ugutza ospatsuaren berezko emollea jauparia (abadea) da; baño bera emotea parroki-zañari edo parroki-zañak nai Goterki-zañak norbere orde-zerbaít emoteko egindako yaupariari dagokio; bear litzakenean, orde-zerbaít emoteko emoteko emote berak emoten dau.

§ 2.—Arrotza be bere parroki-zañak eta bere barrutian ospetsu ugutzau begi, erraz eta laster egin al balegi; osterantzean, bertako parroki-zañak bere barrutian edozein arrotz ospetsu ugutzau dagike.

739g. araua. Barrutiko nagusi danaren baimen barik iñoren barrutian etxako iñori zillegi ugutza ospetsua emotea, ezta bere menpekoai be.

740g. araua. Parroki ta parroki-antzekorik be oraindiño eregi eztirean alderdietan agindu bereziak eta ontzat artuta dagozan ekan-duak diñoena begiratu bear da, ugutza ospetsua emoteko eskubidea nai alderdi osoan nai eztabaidea sortu dan tokian, Goterki-zañaz ganera, zein yaupariri legokion ebazteko.

741g. araua. Ugutza ospetsuaren noizean-beingo emollea Diakonoa da. Orraitio onek ezpegi bere ala erabilli Goterkizañaren edo parroki-zañaren eta bidezko ziyoz emon bear dan baimen barik; ugutza-bearra balego ta yauparirik ez, baimena legeak berak emoten dau.

742g. araua. 759, § 1g. arauko ugutza ospetsu-eza edo ixila edonork emon dagike bear direan gaya, itzak eta gogoa erabilli ez-

kero; al dala, baña, begoz bertan lekuko bi edo gitxienez bat, ugutza benetan emona izan dala egiztatzeko.

§ 2.—Alan be yauparirik bertan balego, diakonoa baño beiñago izan bedi; diakonoa diakono-azpikoa baño; eleiz-gizona erri-gizona baño, gizonezkoa andrazkoa baño, lotseagaitik egokiago ezpalitz gizonezkoak baño andrazkoak ugutza emotea, edo andrazkoak obeto yakin ugutza bear dan lez emoten.

§ 3.—Aitari ta amari euren umeari ugutza emotea etxake zillegi, eriotzako zorian ugutza emoteko beste iñor ez-legokenean ezpada.

743g. araua. Parroki-zañak artu begi ardurea ugutza bear dan lez zelan emon bere kistarrai, batez be emagiñai ta osalariai irakasteko.

744g. araua. Lagun elduen ugutza, eroso egin al danean, Goterkizañarentzat utzi bedi, nai baleu, edo berak edo bere Ordezkoak ospetsuago emon dagian.

II Atala

Ugutza nork artu?

745g. araua. § 1.—Ugutza artzeko gauza oraindiño ugutzatu bako zerurako bidean doan edozein gizakume eta bera bakarrik da.

§ 2.—Ugutza artzeari buruzkoetan:

1.º Ume-izenaren barruan, 88. § 3g. arauan esanda dagoan lez, giza-ezaguerarik oraindiño eztaukienak sartzen dira; eta umeen bardin dira umetandik zoroak direanak daukezan urteai yaramonik egin barik.

2.º Arazo onetan nagusitzat emoten dira giza-ezaguereta daben guztiak; eta zer onetan naikoa da bakotzak bere oldez ugutza eskatutea ta emotea.

746g. araua. § 1.—Amaren sabelean itxita dagoala ezpedi iñor ugutzatu, bear dan lez yayota ugutzatua izango dalakoaren itxaropena dagoan artean.

§ 2.—Umeak burua atera balegi, arriskurik balego, antxe bertan ugutzatu bedi eta gero, bizirik yayo baledi, ezta barriro bada ezpada ugutzatu bear.

§ 3.—Beste gorputz-atalen bat erakutsi balegi eta ilteko arriskuan balego, bada-ezpada ugutzatu bedi bertan; baña bizirik yayo baledi, barriro, lengoa bada ezpada gauza izan ezpalitz, ugutzatu bear da.

§ 4.—Ama sein egiteko egoala il baledi, seña, dakienak aterata gero, bizirik ageri baledi, ezereen ezpai barik ugutzatu bedi; bizi bada-ezpadakoan, bada-ezpada ugutzatu bedi.

§ 5.—Amaren sabelean ugutzatutako umea, yayotza ostean bada ezpada barriro ugutzatu bear da.

747g. araua. Iborraldiaren edozein garayan galtzen dan umekia, bizi dala argi erakutsi balegi ugutzatu bedi ezereen ezpai barik; bizi bada-ezpadakoan, bada-ezpada ugutzatu bedi.

748g. araua. Baldarrak eta etxura-txarrekoak, gitxienez bada-ezpada, ugutzatu bediz beti; bakarra ala batzuk ete direnekoan, bat ugutzatu bedi bada-ezpada barik; besteak, bada-ezpada.

749g. araua. Norbaitek nork ikusiko yarritako umeak eta yabe barik aurkituak, artarako alegiñak egin arren ezin yakin izan bada ugutzatuak direanik, bada ezpada ugutzatu bediz.

750g. araua. § 1.—Kistarrak eztireanen umeak ugutzatu leitekez, nai ta bere gurasoak gura ez, giza-ezaguerara eldu baño lenago ilgo dauzanaren zerbaiten arriskuan agiri balira.

§ 2.—Eriotza-arrizku barik katoliko aziko direala seguru agiri ezker, zillegi da ugutzatzea:

1.º Gurasoak nai guraso-ordeak, edo batak beintzat artarako baimena emon balegi.

2.º Gurasorik, au da, aitarik edo amarik edo aitaitarik edo amamarik eta legezko ume-zañik ezpaleu, edo areri buruzko eskubidea galdu balebe, edo esku-bide ori ezertara be erabilli-eziña balebe.

751g. araua. Aita ta ama hiak siñausle nai Elexearen batasunaren urratzalle direanen umeen ugutzari buruz, eta baita katoliko izanda kistar-siñestea nai katolikotasuna nai Elexearen bakartasuna ukatu dabenean, umeen ugutzari buruz arau onen aurrekoan ezarritako legeak zaindu bediz.

752g. araua. § 1.—Lagun nausirik (kontuan euki 745, § 2, 2.ºg. arauan esana) ezpedi ugutzatu berak dakiala ta gure dauala ta ganoraz irakatsita baño; ganera, bere pekatuakaitik damutu daitela eskatu bear yako.

§ 2.—Eriotza-zorian baña siñeskizunik garrantzitsuenak zeatzago irakasteko astirik ezpalego, ugutza emoteko naikoa da eurak egiztat emoten dauzala edozelan erakustea ta Kistar-jaureskuntzako aginduak betetako gogo agertutea.

§ 3.—Ugutza eskatu be ezin baleu, baña lenago edo bertan edozelan ugutza artzeko gogo erakusten ete ebalako bidezko susmoa emoteko zerbait balegi, bada ezpada ugutzatu bedi; gero osatu baledi ta emon yakon ugutzari buruz gauza izan dan bada ezpadazko zalantzarik balego, bada ezpada barriro ugutzatu daiteke.

753g. araua. § 1.—Bai lagun nausiak ugutzauko dauzan yauparia, bai osasunez onik direan lagun nausiak eurak be, baraurik etortea egoki da.

§ 2.—Ziyo aztun eta estuen batek eragotzi ezik, ugutzatu nausia berealaxe eldu bedi mezara eta bertan Gure Jauna artu begi.

754g. araua. § 1.—Zoroak eta ero-suminduak ezpediz ugutzatu, olango gatxak yayotza ezker giza-ezaguerara eldu baño lenago yo ebazala agiri ezpaledi; eta orduan umeen antzean ugutzatu bediz.

§ 2.—Argi-bitarteak balebez baña, euren senean dagozanean ugutzatu bediz, eurak baldin gure badabe.

§ 3.—Eriotza-zoria ganean dabenean be ugutzatu bediz, zoratu baño lenago ugutza artzeko gogoa erakutsi baeben.

§ 4.—Lo-zorroak edo zoraldiak artzen dabezanak itzarrik dagozala eta euren guraz ugutzatu bediz; baña eriotza-zoria bertan balego, § 3garreneko agindua bete bedi.

III Atala

Zelan ugutzatu?

755g. araua. § 1.—Ugutza ospetsu emon bedi, 759g. arauan erabagiten danaren kalte barik.

§ 2.—Ziyo aztun eta bidezkoagaz umeen ugutzarako agindutako otoitz-egikerak nausien ugutzan be erabilten Goterkizañak utzi dagike.

756g. araua. § 1.—Umea gurasoen yaureskeran ugutzatu bedi.

§ 2.—Guraso bata Latel-yaureskerakoa balitz eta bestea sorkalde yaureskerakoa, lege berezien batek bestera agindu ezpalegi, umea aitaren yaureskeran ugutzatu bear da.

§ 3.—Guraso bata baño ezpalitz katoliko, umea katolikoaren yaureskeran ugutzatu bedi.

757g. araua. § 1.—Ugutza ospetsuan artarako onetsitako ura erabilli bear da.

§ 2.—Ugutza-iturriko ura naikoa ez izateko bestean gitxitu baledi, onetsi bako ura nastu bekio baita bein baño geyagotan be, baña bakotxean onetsia baño zati txikiagoa ezarten yakola.

§ 3.—Baña usteldu nai yoan egin baledi, edo edozelan agortu baledi, iturritik ekarri-barrizko urez bete bedi iturria eta artarako idaztiak aginduten daben lez onetsi bedi.

758g. araua. Naita ugutza gauzazkoa izan, nai uretzan murgilduta, nai ura ixuriagaz nai intzatuagaz, lelengo edo bigarren era, edo bietariko, oitura dana erabilli bedi, Elexa bakotxaren yaureskera-idaztiak dakarrenez.

759g. araua. § 1.—Eriotza-zorian uguzkera ixila erabiltea zillegi da; ta ez yaupari ez diakono eztan norbaitek emon balegi, ugutza gauza izateko bear direanak bakarrik begiz; yaupariak nai diakonoak emon balegi astirik balego ugutzari darraikiozan otoitzak eta egiñak be esan-egin bediz.

§ 2.—Eriotza-zoririk ezteanean Goterkizañak eztauko eskubiderik ugutza ixila emoten izteko, bada ezpada, ugutzatuten direanetarikoak adin andiko siñausleak ezpalira.

§ 3.—Ugutza emotorduan edozelan utzi zirean otoitz-egiñak len baño len elexan esan-egin-bediz, arau onexen § 2g. ataltxoan esaten dana yazo ezpaledi.

760g. araua. Ugutza bada ezpada barriro emoten danean, lengo oguzkerean utzi zirean otoitz eta otoizkerak esan-egin bediz 759, § 3g. arauan aginduaren kalte barik; lengo ugutzaldian esan-egin bazirean, bigarren onetan barriro esan-egin leitekez nai esan-egin barik utzi.

761g. araua. Ugutzatuari kistar-izena ezarri dakion al dabena begie parroki-zañak; ori lortu-eziñean, gurasoak ezarriko izenari erantsi begio Santuen baten izena, eta ugutzatuen idaztian begoz izen biok ezarrita.

IV Atala

Aita-amatxiak

762g. araua. § 1.—Elexearen aspaldi-aspaldiko ekanduari yarraturik, ezpedi iñor ospetsu ugutzatu, al dala, aitatxi barik.

§ 2.—Ugutza ixilak be, erraz al bada, beuko bere aitatxia; izan ezpaleu, orduan utzitako ugutza ospetsuaren egitekoak egiten direanean emon bekio; baña onango aitatxiak eztau ugutzatuagaz gogozko senidetasunik irabazten.

763g. araua. § 1.—Ugutza, bada ezpada, barriro emoten danean, al dala, lelengo ugutzako aita-amatxi berbera artu bedi; berbera ez izatekotan, eztago bada-ezpadako ugutzaldian aita-amatxi-bearrik.

§ 2.—Ugutza bada ezpada barriro emoten danean, ez lelengo ugutzaldian izan zan aita-amatxi, ez bigarreanean izanak eztau gogozko senidetasunik artzen, ugutza bietan aita-amatxi berbera artu ezpalitz.

764g. araua. Aita-amatxi bat bakarra izan bedi, naita ar-emekontuan gizonetzkoa nai andrazkoa izatea bardin izan; geyenez be bi bakarrik, gizonetzkoa ta andrazkoa.

765g. araua. Norbait aita-amatxi izateko bear da:

1.º Ugutzatua, giza-egueraduna, aita-amatxi izateko gogoaz.

2.º Siñausleen nai Zatituen taldeen baten bazkidetua ez izatea; ez legezko epai-bidez Elexearen erritik arrotua, edo legezko izen gaiztoagaz balzitua edo legezko zerbait egiterik galazota daukanik.

3.º Ugutzatuaren ez aita ez ama ez ezkontidea ezpedi izan.

4.º Ugutzautekoak berak edo onen gurasoak edo guraso-ordekoak, ta oneik ezean, ugutza emolleak izentaua izan daitela.

5.º Ugutzaldian ugutzatzen danari berberak edo bere ordezkokoak bere eskuakaz benetan eutsin edo ukutu beintzat egiten dautsala, edo iturri santutik bertatik edo ugutzallearen eskuetatik yaso edo artzen dauala.

766g. araua. Aita-amatxitzat norbait pekatu barik artzeko bear da:

1.º Bere bizitzako amalauigarren urtea asitakoa izatea, ugutzalleari bidezko ziyoz ostantxekorik ezpaderitxo.

2.º Erriak dakian lege-ausien bategaitik Elexatik arrotua ezpedi izan, edo legezko egiñak egiterik galazota daukanik; ez legezko izen-gaiztoagaz ezagunik, naita epaikariaren epai barik izan; ez elezan sartzea edo galazota daukanik edo erriak gaizkilletzat daukanik edo agiriko izen txarrekoa danik.

3.º Kistar-sifeskizunetatik andienak beintzat dakizana.

4.º Iñongo Jaunzaletzan ez bazkide ez bazkide-gei ezpedi izan, beste iñor ezean ta Jaunzaletzako Nagusiaren baimenagaz baño.

5.º Ezpedi izan ez yaupari ez eleiz-gizon, bere Goterkizañaren baimenagaz, izan ezik.

767g. araua. Norbait aita-amatxitzat artzeko gauza bada ezpadakoan, parroki-zañak, astirik balego, Goterkizañari itandu begio.

768g. araua. Ugutzatik gogozko seniderasuna ugutzatuagaz ugutza emoten dautsanari ta aita-amatxiri bakarrik datorkie.

769g. araua. Aita-amatxiren zeregiña, artu daben bearragaitik, auxe da: euren gogozko seme-alabea zaindu, ta kistar azi-ezikereari buruz egin al dabena, bere bizitzaldi osoan, ugutzaldian izateko ta egiteko eurak agindu ebena, bete dagian.

V Atala

Ugutza noiz eta non emon?

770g. araua. Señak len baño len ugutzatu bediz; eta parroki-zañak eta sermolariak gogora sarri ekarri begioe kistarrai euron egin-bear aztunau.

771g. araua. Ugutza ixila, bearreko danean, noiznai eta non nai emon daiteke.

772g. araua. Ugutza ospetsua be edozein egunetan emon daiteke; orraitio, egoki litzake antxina-antxiñako Elexearen ekanduari yarraituz, lagun nausien ugutza, egoki egin al baledi, Pazkogaueko eta Pentekostebezperako eleizkizunean emotea, batez be Obispo-buru ta Obispo-elexetan.

773g. araua. Ugutza ospetsua emoteko aukerako tokia elezako nai agiriko otoiztegiko ugutzokia da.

774g. araua. § 1.—Aurkako edozein erabagi nai kutun-lege nai ekandu txartzat emonda, parroki-eleiz guztiak beukie ugutza-iturria, beste elezen batzuk be eurentutako legezko eskubidearen kalte barik.

§ 2.—Ugutza-iturria bertan bizi direan kistarren erosotasunaren alde parroki-barrutiko beste eleza nai guztiéntzako otoiztegiaren be yarriteko eskubidea Goterkizañak emon nai agindu balegi, ondo eginda legoke.

775g. araua. Parroki-elexara nai ugutza-iturriaren eskubidea daukan beste eleza batera tokiaren urrintasunagatik edo beste zerbaitegaitik neke edo arrisku andi barik eldu ezin baledi edo eroan ezin ezpalegie, parroki-zañak ugutza ospatsua emon dagike, ta emon be emon bear dau, parroki-barrutiko urrengo elezan nai erriarentzako otoiztegiaren, nai ta ugutza-iturriarik euki ez.

776g. araua. § 1.—Iñoren etxean, barriz, ezta emon bear ugutza ospatsurik urrengo yazoeretan baño:

1.º Ugutzatutekoak Laterriko aginbide gorengoa daukienen edo onein ondorengo izateko eskubidea daukenen seme-alabak balira, eskatuten daben bakotxean.

2.º Bidezko ta zuzen deritxen ziyoakaitik alangoen baten Goterkizañak artarako eskubidea emon balegi.

§ 2.—Ugutza yazoera biotan edo etxeko otoiztegiaren edo bein-beinean toki egokian emon bear da ta beti legez onetsitako uragaz.

VI Atala

Emondako ugutza zelan egiztatu?

777g. araua. § 1.—Parroki-zañak ugutzatuen idaztitan zoli ta geroagorako utzi barik idatziz ezarri bear dabez ugutzatuen izenak, eta aitzu barik nortzuk izan zirean: ugutza emon eutsana, ugutzatuaren gurasoak eta aita-amatxi, euren izenak ezarrita, eta non eta zein egunetan ugutzatua izan zan.

§ 2.—Sasikumeak direanean, amaren izena ezarri bear da ama nor dan erriak baleki, edo amak berak iñork beartu barik alantxe gure dauala nai idatziz nai lekuko biren aurrean esan balegi; baita aitaren izena be, bere oldez eta idatziz edo lekuko biren aurrean parroki-zañari eskatu balegio; bardin legezko ta agiriko idatzien batetik ezaguna danean be; ostantxean, seña aita ezezagunaren edo guraso ez ezagunena dala idatzi bedi.

778g. araua. Ugutza ez parroki-zañak ez aren aurrean emona danean, ugutzalleak bizitokiz ugutzatuaren parroki-zain dana len baño len emon dauan ugutzaren yakitun egin begi.

779g. araua. Emondako ugutza benetan emon izan zala erakusteko, iñori kalterik ezpalekartso, raikoa da akatz bako lekuko bakarra, nai ugutzatuaren berberaren zin-itza, adin-nausikoa zala ugutzatua balitz.

II IDAZPURUA

Sendotza

780g. araua. Sendotza-ikurtona eskuak buru-ganean ezarten dautsazala *krisma* deritxon orioagaz bekokia igurdiagaz eta Obispoen-

tzat Elexeak ontzat emondako idaztiak (liburuak) dakarzan itzak esaten dau-
tsazala emon bear da.

781g. araua. § 1.—Sendotza-ikurtona emokeran erabilli bear dan *kris-
ma* orrek Obispoak santutua izan bear dau, baita Aita
Santuak emondako eskubidegaz yaupariak emoten dauanean be.

§ 2.—Igurdia ezpedi egin zerbaitegaz, bai ikurtona emoten dauanaren eskuz
ta ikurton au artzen dauanaren buruari ezarrita.

I Atala

Sendotu ¿nork?

782g. araua. § 1.—Legez eta berez sendotza-ikurtona emoten dauana
Obispoa bakarrik da.

§ 2.—Noizean-beingoa nai legez nai Aita Santuak artarako eskubidea emo-
ten dautsan yauparia da.

§ 3.—Eskubide au legez dauken yaupariak dira:

1.º Erroma'ko Elexa Santuaren Kardenalak, 139, § 1, 23.ºg. arauan eraba-
giten dan lez.

2.º Edonongo Obisporen barrutitik kanpoan dagozan eleizaren Nagusi di-
rean Lekaipuru nai Jaurburuak (Abbatas et Praelati nullius).

3.º Aita Santuaren Ordezko ta Nagusiak (Vicarii et Praefecti Apostolici);
2.º ta 3.º zenbakiotan aitauten direanok ezin dagike, baña, eskubide ori gauza
dala erabilli euren barruti-barruan eta euren zeregin orrek dirauan artean baño.

§ 4.—Aita Santuak emondako eskubide bereziz sendotzea legokion Latel-
-Elexako yaupariak Latel-Elexako direanak bakarrik sendotu dagikez, eskubidean
bertan ostantxekorik agiri-agirian esan ezpalegi.

§ 5.—Euren Elexako señaik ugutzagaz batera sendotzeko eskubidea dauken
Sorkalde-Elexako yaupariak etxake zillegi eskubide ori Latel-Elexako umeai buruz
erabilterik.

783g. araua. § 1.—Obispoak bere barrutian ikurton au arrotzai be le-
gez emoten dautse, euren Goterkizañaren beren-beregiko
eragozpenik ezpadabe.

§ 2.—Iñoren goterkian bertako Goterkizañaren bayezkoa bear dau, gitxi-
enez bidez badaukala uste dana, makilla ta burukoa barik, ixilik eta bakarrean
emoten dautsana bere menpekoa ezpalitz.

784g. araua. Yaupariari be zillegi yako Aita Santuagandiko eskubidea
nunbaiten erabilteko danean, berari izentautako barrutian
arrotzak be sendotzea, euren Goterkizañak beren-beregi galazo ezik.

785g. araua. § 1.—Obispoa beartuta dago legez eta bidez eskatzen dau-
tsen bere menpekoai ikurton au emoten, batez be goter-
kia ikusten daragoyonean.

§ 2.—Egin-bear bardiña dauko Aita Santuagandiko eskubidea daukan ya-
pariak eskubidea emon yakonen alde erabilteko.

§ 3.—Bidezko ziyoz eragotzita edo sendesteko eskubide barik legoken Go-
terkizañak, al dala, gitxienez bost urte-urren baxotxean ikurton au bere men-
pekoai emon dakien alak egin bear ditu.

§ 4.—Ikurton au nai berberak nai iñoren bidez bere menpekoai emotea
alperkeri larriz luzatu balegi, 274, 4.ºg. arauan esaten dana egin bedi.

II Atala

¿Nori emon?

786g. araua. Ugutza-uragaz garbitua eztana ezta gauza sendespen-ikur-
tona artzeko; ganera ikurton au pekatu barik artzeko eta
ikurtonaren indarrak euren lana egiteko, ikurton au artzekoak Jaunaren graziak
edertuta egon bear dau, ta giza-ezagueraduna danean, bear dan bestean ira-
katsita be bai.

787g. araua. Ikurton au zerura yoateko naita naiezkoa izan ezarren,
etxako iñori zillegi, ere izan ezkerro, artzeko alegiñik ez
egitea; parroki-zañak begie, ostera, al dabena euren ardurapean dagozan kistar-
-siñestedun guztiak garaiz artu dagien.

788g. araua. Sendotza-ikurtona emotea Latel-Elexan zazpi urte-inguruko
adiñerarte egoki luzatu arren, alan be lenago emon dai-
teke seña eriotza-zorian balego edo sendotzalleak ziyo zuzen ta aztunagaitik alan
egoki dala erabagi balegi.

789g. araua. Sendotzekoak asko balira, lelengo-esku-ezarpenerako begoz
bertan guztiak eta egiteko osoa amaitu arte ezpegi iñork
alde egin.

III Atala

¿Noiz eta non emon?

790g. araua. Ikurton au edozein urte-arotan emon daiteke, baña batez
be Pentekoste aste-barruan.

791g. araua. Ikurton au emoteko aukerako tokia elezea izan arren,
emolleari zuzen eta bidezko baleritxo, beste edozein toki
egokian emon daiteke.

792g. araua. Obispoak eskubidea dauko bere goterki-barruan azkatutako
tokietan be ikurton au emoteko.

IV Atala

Aita-amatxiak

793g. araua. Elexearen ekandu zar-zarrari yarraituz, ugutzaldian lez, sendotzaldian be aita-amatxia erabili bear da, al dala.

794g. araua. § 1.—Sendeskeran aita-amatxi bakarra edo geyenez be bi baño eztira erabili bear, ziyo aztunen bategaitik sendotzalleak besterik erabagi ezpalegi.

§ 2.—Sendesteko bakotxarentzat be aita-amatxia bakarra izan bedi.

795g. araua. Aita-amatxi izateko norbaitek bear dau:
1.º Bera sendetsia izan, giza-ezagueraduna ta zeregiña egiteko gogoa euki.

2.º Siñausleen nai Elexa katolikoagandik aldendutako giza-batzeko ez izatea, ezta 765, 2.ºg. arauko zigorren bategaz yoten dauan edo yota agertuten dauan epai-bidez ezaguna litzakenik bere ez.

3.º Sendotzekoak berak edo bere gurasoak edo guraso-ordeak, eta onein utsean sendotzalleak edo parroki-zafiak izentaua izatea.

5.º Sendotua sendotzaldian berberak edo ordezekoaren bitartez eskuagaz eutsi edo beintzat ikutu.

796g. araua. Aita-amatxizat norbait artzeko izan bear dau:
1.º Ugutzako aita-amatxi ez izatea, sendotzallearen eritxiz bidezko ziyoak besterik eskatu ezpalegi, edo sendotzea ugutza-ostean bertatik emon ezpaledi.

2.º Sendotuagaz giza bardiñekoa izatea, alangoen baten sendotzalleak bidezko ziyoz bestela obe dala uste izan ezik.

3.º Ganera 766g. araua betetea.

797g. araua. Gauza dan sendotzatik be gogozko senidetasuna sortzen da sendotuaren ta aitatxi-amatxiren artean; berau bide dala, beartuta dago aitatxi edo amatxia sendotua bere ardurapean zaindu eta kistar zintzoa izan daiten ondo azi-eziten.

V Atala

¿Sendotua izan dala zelan egiztatu?

798g. araua. Sendotzallearen, sendotuaren, onen gurasoen eta aita-amatxiren izenak, sendotzea zein egunetan eta zein rokitan egin zan parroki-zafiak, 470, § 2g. arauan aitaturten dan ugutzaren oarpenaz ganera, orretarako idazti (liburu) beren-beregikoan ezarri begiz.

799g. araua. Sendotuaren parroki-zafiña sendokeran bertan izan ezpalitz, sendotzalleak berberak nai iñoren bidez emondako sendotzearen barria len baño len yakin-erazo begio.

800g. araua. Emondako sendotzea egiztauteko, iñori kalterik baldin ezpalekartso, naikoa da akatz bako lekuko bakarra edo sendotu berberaren ziñ-itza, ume-aroan sendotua ezpalitz.

III IDAZPURUA

Geure Jaunaren ikurtona

801g. araua. Geure Jaunaren ikurton santu-santuan ogi ta ardaoaren agiriko antza-azpian Kisto Geure Jauna berbera dago ta eskeñi ta yan-edaten da (1).

I Atala

Yaupa oso Santua

I Atalkia

Yauparia

802g. araua. Yaupa egiteko ala yaupariak bakarrik dauke.

803g. araua. Yaupari askori yaupa bakarra egiterik etxake zillegi yaupariak yaupari egiten direan yaupan baño edo Obispoak Obispo egiteko yaupan, Erroma'ko Elexako Obispoentzako Idaztiak erabagita daukan lez (1).

804g. araua. § 1.—Yaupera egin gura dauan elextatik kanpokoa dan yaupariak, erri-abadea balitz, bere Goterkizafiaren, eta Jaunzalea balitz bere Nagusiaren, eta Sorkaldeko Elexen batetikoa balitz, Sorkalde-Elexearentzako Bazkun Gurenaren siñeskarria ta oraindiño gauza direan agiriak erakutsi ezker, yaupera egiteko atotsi bediz, arrezkero yaupera egitea galazoten dautsan zerbaite egin dauala agertu ezik.

§ 2.—Onetariko agiririk epaleuko, baña bere zintzotasuna eleiz-zafiari ondo ezaguna balitzakio, utzi dagikeo yaupera egiten; eleiz-zafiari ezagun ezpalitzakio, alan be bein edo birritan utzi dagikeo eleiz-gizonen soñekoz yantzita, yaupera egiten dauan elextatik ezergaitik ezer artu barik, bere izena, zeregiña ta goterkia artarako legoken idazti berezian ezarri balegiz.

§ 3.—Arazo oneri buruz Goterkizafiak, arau onetako aginduen kalte barik, emondako agindu guztiak bete bear dabez, baita Jaunzale azkatuak be, Jaunzaleak euren elextetan yaupera egiteko artzen dabezanean izan ezik.

(1) Euskerazko Meza gastelerazko Misa laterazko Misa'rik datorren itza da, naita laterazko ss biak z biurtuta ekarri. Arratian Misa esaten dogu beste edozeñek añaiko eskubideagaz. Nai batera nai bestera esan, itz orrek gure ikurtonaren mamia azaltzeko ezta ezer laguntzen. Askoz egokiago dirudi yaupa, au da Jaunaren eparia esatea.

(2) Vatikanoko II Batzarrek osoan aldatu dau lege au.

805g. araua. Yaupari guztiak urtean noizean bein yaupa egiten beartuta dagoz, Obispoak baña ta Jaunzale-Buruak ekin begie igandeetan gitxienez eta yai-egunetan yaupera egin dagien.

806g. araua. § 1.—Yaupea iru bider egiteko eskubidea dauken Gure Jaunaren Jayotzaren gau-egunear eta gure sifiste-lagun izandako il guztien eriotzea gogoratzen dogun eguna kenduezkero, etxako zillegi yaupariari egun berean yaupa bat baño geyago egiterik, Aita Santuak emondako eskubidea edo Goterkizañaren baimena ezpaleu (1).

§ 2.—Goterkizañak baña ezin dagike baimen ori emon, yauparien urritasunagaitik berari sentzunez deritxon lez, legezko yai-egun baten zerbaitezko laguntza guztientzat egiten dan yaupara ezin etorri leitekela ikusten dauanean baño; eztauko barriz eskubiderik yaupari berberari yaupa bi baño geyago egiten izateko (2).

807g. araua. Bere burua pekatu larriaren errudun dakian yauparia, ondo damututa edo maitezko damuz damututa dagoala uste izan arren, ikurtonezko autortzea egin aurretik ezpedi yaupera egiten ausartu, ta autortza-entzulerik ezean eta yaupera-egin-bearrak estututa maitasunezko damua artuta yaupera egin balegi, begi autortzea len baño len.

808g. araua. Gaberdia ezkeror barau osoa egin ezpadau, etxako zillegi yaupariari yaupa egiterik (3).

809g. araua. Yaupea edonoren alde egin daiteke bai bizirik bai garbitokiko sutan pekatuak ordaintzen dagozanen alde, 2262, § 2, 2.ºg. arauak aginduten dauana kontuan eukita.

810g. araua. Ezpegi utzi yaupariak yaupera egiteko otoitz beroz gertatzea eta yaupera egin ostean Jaunari ainbesteko maite-erakutsiagaitik bere esker ona agertu barik.

811g. araua. § 1.—Yaupariak Yaupea egiteko orpoetaraño eltzen yakon soñekoz yantzita bego ta Elexako otoitz-legeak aginduten dabezan yantziakaz.

812g. araua. Obispoak eta Obispo-eleizkizunak egiteko eskubidea daukenak kendu ezkeror, yaupari ifiori etxako zillegi yaupera-egitorduan arrokeriz yaupari-laguntzallerik erabilterik.

(1) Lege au be naikoa aldatuta dago.

(2) Lege au be bigunago orain.

(3) Au be oso aldatuta dago orain.

813g. araua. § 1.—Otsein egin eta erriaren orde erantzun bear dautsan laguna barik ezpegi yaupariak yauparik egin (1).

§ 2.—Lagun ori ezpedi izan andrazkorik, gizonezkorik ezean eta bidezko ziyoagaz baño, ta andrazkoak urrinetik erantzutekotan ta yaupa-maira ezertara be ez eldutekotan.

I Atalkia

Yaupako egin-esanak eta egikerak-esakerak

814g. araua. Yaupa oso santua ogiagaz ta ur apur bat nastu yakon ardaoagaz egin bear da.

815g. araua. § 1.—Ogiak gal-urunezko garbia, erre-barria izan bear dau, ez urdinu ez garratzu ez ustelduteko arriskurik izan eztagian.

§ 2.—Ardaoak mats-ardaoa izan bear dau eta garratzu bakoa.

816g. araua. Yaupea edonon egiten dauala, yaupariak Yaupea egitorduan bere Elexako legeak aginduten dautsan lez ogi yagia nai yaikea berabil.

817g. araua. Gaiztakeri larria litzake, estualdirik andienean be, gai bata bestea barik, eta biak be yaupa-barruan barik santututea.

818g. araua. Edozein aurkako ekandu txartzat emonda, yaupari yaupagilleak zintzo ta azkutsu esan eta egin begiz bere Elexako otoitz-idaztiak dakarrezan zer guztiak, eta ezpegi buruak emoten dautsan ezer barririk sartu ez nastu.

819g. araua. Yaupea Elexeak ontzat emondako yaupariaren legeak agindutako mintzoan egin bedi (2).

III Atalkia

¿Noiz eta non yaupera egin?

820g. araua. Yaupea egunero egin daiteke yaupariaren beraren yaureskerako legeak galazoten dabezanetan izan ezik.

821g. araua. § 1.—Yaupea egiten ezpedi asi egun-sentia baño ordu bete goxago, ezta eguerdia-ezkeror ordu bete baño berandua-go (3).

§ 2.—Gure Jaunaren Yayotza-egunaren gabean Jaunzale-batzarrena edo pa-

(1) Au be naikoa aldatuta dago gaur.

(2) Au be orain lege nasaiagoak uzentzen dau.

(3) Gaur aldatuta dago.

rroki-yaupea asi leiteke gaberdian; ez baña besterik, Aita Santuaren eskubide berezi barik.

§ 3.—Gure Jauna gau ta egun eukiteko eskubidea dauken Jaunzaleen eta beste Azku-Bazkuneren elexetan Gabon-gabeen yaupari berberak oi direan iru yaupak, bete-bearrak bete ezkeru, bertan direanak yaupan izateko agindua betetako naikoa yakena, nai bat nai iru, egin dagikez, eta eskatzen dauanari Gure Jauna emon be bai.

822g. araua. § 1.—Yaupea santututako opalmai (altara)-ganean emon bear da eta legeak aginduten dauan lez santututa edo onetsitako elexan nai otoiztegi.

§ 2.—Batetik bestera erabilteko opalmaia edo legeak edo Aita Santuak bakarrik emoten dau.

§ 3.—Eskubide berezi ori onantxe ulertu bear da: eskubide ori daukanak yaupea nainon egin dagike arri santutuaren ganean izatekotan eta artarako toki egokian, ez baña itxasoan.

§ 4.—Goterkizañiak, eta Jaunzale azkatuen etxea balitz Jaunzale-Buru Nagusiak, baimena emon dagike elexatik nai otoiztegitik kanpoan yaupea egiteko arri santutuaren ganean eta toki egokian, ez orraitio iñoiz lo egiteko gelan, baiña ziyo zuzen eta bidezkoa badau bakarrik, noizean bein eta orduko bearrak dirauan artean, ez baña betiko baimenik.

823g. araua. § 1.—Ezta zillegi siñausle edo Elexatik aldendutakoen elexetan yauparik egiterik, naita beñola legeaz santutuak edo onetsitakoak izan.

§ 2.—Bere legezko opalmairik ezean zillegi yako yaupariari legearen arauz beste yaureskerako katolikoaren opalmai santutuaren ganean yaupa egitea, ez orraitio Gerketarren oyal onetsiaren ganean.

§ 3.—Aita Santuaren opalmaietan ezpegi iñork yauparik egin Aita Santuaren baimen barik.

IV Atalkia

Yaupa-ukar edo sariak

824g. araua. § 1.—Elexearen aspaldiko ta ontzat artutako ekanduari yarraituz, yaupea egin eta bera norbaitei edo zerbaitei ezarten dautsan yaupariari zillegi yako saria artzea.

§ 2.—Egun berean bein baño geyagotan egiten dauanean, baña, yaupa bat zuzenak beartuta ezarri baleu, Jaunaren Yayotza-egunean izan ezik, ez dagike yaupariak urrengoakaitik saririk artu, osterantzeko ziyoz emoten yakon ordaña ezpalitz.

825g. araua. Ezta iñoiz zillegi:

1.º Yaupearen ezarpena eskatuko dauanaren baña oraindiño eskatu eztauananen asmotan ezartea, ta gero emondako saria lenago ezarritako yaupearen ordaintzat artzerik.

2.º Beste ziyoATEGAITIK zor dan eta ezarten dan Yaupearen ordaintzat sari barria artzerik.

3.º Yaupa bakarraren ordañez sari bi artzerik.

4.º Sari bat yaupea egiteagaitik eta beste bat asmoa ipinteagaitik artzerik; sari bata yaupea egiteagaitik ezarpena barik emona dala argi-argi yakin ezik.

826g. araua. § 1.—Bai eskutik eskura emonai, nai azken-nayaren egi-leak bere ondasunen yabe izango direanai emoteko itxiari, baita betiko egin-bearragaz kistar siñestudunak yaupatarako eskintzen dabezan sariari *eskukoak* deritxe.

§ 2.—Yaupak egiteko ta ezarteko dirutzea ezarrita dagoan tokian bertan yaupok egin bear ebezanok egin-eziñean, eta edo legeaz edo Aita Santuaren baimenagaz egingo dabezan beste yaupariari emon bear yakezan yaupa-sariari *eskukoak* esaten yake.

§ 3.—Dirutza ezarriaren etorritik artzen direan yaupa-sariari *irasiak* nai yaupa irasiak deritxe.

827g. araua. Yaupa-sariak zaindukeran edozein garazketa edo saldu-erosketaren antza be uxatu bear da.

828g. araua. Zeinbeste yaupa-sari emon eta artu, urriak balira be, ainbeste yaupa egin eta ezarri bear dira.

829g. araua. Yaupea egin bear ebanaren erru barik artutako Yaupa-sariak galdu arren, yaupea egin-bearra ezta amaitzen.

830g. araua. Yaupak egin-ezarteko norbaitek diru-piloa emon balegi zeinbat izan bear daben esan barik, ebazkizuna diru-pilo ori emon dauana bizi dan tokiko ekanduaren neurriagaz ebatzi bedi, aren naya bestelakoa izan zala legeaz uste izan bear ezpalitz.

831g. araua. § 1.—Yaupen eskuko saria izentatzea Goterkizañari dago-kio Goterki-batzarrean emondako aginduaren bidez, eta yaupariari etxako zillegi mardulagorik eskatzerik.

§ 2.—Goterkizañaren agindurik eztagoanean, goterkiko ekandua neurri.

§ 3.—Jaunzaleak be, naita azkatuak izan, eskuko yaupa-sariari buruz Goterkizañaren aginduagaz edo goterkiko ekanduagaz batera yardun-bearra dauke.

832g. araua. Zillegi yako yaupariari yaupea ezarriagaitik oldez eskeñitako sari guriagoa artzea; ta Goterkizañiak galazo ezpal-leu, baita makalagoa be.

833g. araua. Yaupa-saria emoten dauanak yaupea ezartea baño eztauala eskatu uste izan bear da; orraitio, yaupa-saria emotorduan yaupea noiz, non, zelan egin eta abar esan balegiz, saria artu dauan yaupariak aren naya bete-bearra dauko.

834g. araua. § 1.—Yaupak noiz egin sari-emolleak argi agindu balegi, berak agindutako garayan egin bear dira.

§ 2.—Sari-emolleak noiz egingo izentau ezpalegi, eskukoak:

1.º Bear estu bategaitik eskatutakoak alik lasterren egin bear dira.

2.º Ostantxean, yaupak zoli egin bear dira, asti geyago edo gitxiago bear-ko yaupok zeinbat direan begiratuta.

§ 3.—Yaupak noiz egingo ori sari-emolleak argi-argi yaupariaren eskuetan utzi balegi, berak obetsiko epe-barruan egin dagikez yaupariak, 835g. arauaren kalte barik.

835g. araua. Urtebete barru egin al izango dauzan baño yaupa geyago artzerik etxako inñori zillegi.

836g. araua. Bear dan epe-barruan yaupa guztiak bertan ezin emoteko beste, kistar onen azku bereziak yaupa-sariak ekarten dauzan elexetan, toki agirian eta aurre-aurrekoan ezarritako iragarki baten bidez yakitun egin bediz kistar zintzoak eurak eskatu dabezan yaupak antxe bertan, egin al izango diranean, nai beste nonbaiten egingo direala.

837g. araua. Yaupak inñoren bitartez egiteko daukezanak, 841g. araua zutunik dala, len baño len banandu begiez; baño eurok egiteko epea egingo dauzan yaupariak artu dauzan egunetik asten da, besterik agiri ezik.

838g. araua. Yaupak nornairi emoteko daukezanak eurai begiko yakezan yaupariak emon dagikiez, akats bakoak baldin badira edo euren Goterkizañiak alangotzat emonak.

839g. araua. Kistar siñestedunakandik artutako yaupak nai beste edoze-lan etorri yakozan yaupak inñori egiteko emoten dautsazanak, yaupoi buruz lotuta dago, egiteko emon dautsozan eta emon dautsezanakandik yaupok eginbearra ta eurai dagokien sari-dirua artu dabela edo dabezala diñotsen erantzuna artu artean.

840g. araua. § 1.—Yaupa-sariak inñori emoten dautsazanak osorik emon bear dautsaz berari emon dautsazanak zerhait beretzat yagoteko eskubidea agirian emon ezpalegio, edo goterkiko saritik ganerakoa bera zalako emon eutsena agirian egon.

§ 2.—Eskukoan antzeko yaupetan, irasleak gura izan ebanaren aurka ezpalitz, ganekoa legez berezten da eta naikoa da yaupea egiten dan goterkiko eskusaria bialtzea, sari guriagoa bizibidearen edo onegintzaren baten ondasunen txatala balitz.

841g. araua. § 1.—Onegintzaren baten zain bakotzak eta guztiak eta yaupai buruzko egin-bearrak bete daitezaren arduradunak, eleiz-gizonak direala, erri-gizonak direala, urte bakotxaren atzenean oraindiño bete

barik legokezan yaupai buruzko sariak, Goterkizañiak berak esango dautsen lez, Goterkizañari bialdu bear dautsez.

§ 2.—Bialtzeko epe au onantxe neurtu bear da: eskuko antzeko yaupetan yaupak egin bear zirean urtearen atzenetik asita; eskukoetan, norberak egin-bearra artu ebanetzkeru urtea bete daitenean, yaupa-saria emon ebanaren naia besterik izan ezpaledi.

842g. araua. Yaupak egin-bearra bete daiten arduratzeko eskubidea ta egin-bearra daukana, erritarren elexetan Goterkizaña da; Jaunzaleen elexetan, euren Nagusiak.

843g. araua. § 1.—Yaupa-sariak artzen direan elexen nai beste edozein otoiztegien Buruak, erritarrenak direala, Jaunzaleenak direala, beren-beregiko idaztia euki bear dabe artu dabezan yaupai buruz zeinbat diran, noren asmotan, zenbat saritan eta noz esan diran bertan zoli ezarteko.

§ 2.—Goterkizañiak edo eurak euren begiz edo inñoren bidez idaztiok urtero begiratu bear dabez.

844g. araua. § 1.—Goterkizañiak eta Jaunzale-Buruak be, nai euren menpekoai nai beste norbatzui egiteko yaupak emoten dautsezanak, beukie orretarako idazti berezia eta bertan yaupak artu-alean ezarri begiez, eta len baño len egin daitezaren al dabena begie.

§ 2.—Are geliago: yaupari guztiak, erritarrak direala, Jaunzaleak direala, zeinbat yaupa eta zein asmugaz artu dabezan eta zeinbaten egin-bearra bete daben idatziz zoli ezarri bear dabe.

II Atala

I Atalera

Geure Jauna norik emon?

845g. araua. § 1.—Geure Jauna geyen baten yaupariak bakarrik emon dagike.

§ 2.—Inñoz yaupaltseñak (diakonoak) be emon dagike ziyo aztunagaz emondako Goterkizañaren nai parroki-zañaren baimenagaz; bearra legokenean eta eskatzeko astirik ez, baimen ori legeak berak emoten dau.

846g. araua. Edozein yauparik bere yaupa-barruan, eta yaupa ixila danean, baita yaupa-aurretik nai yaupa-ondoan, Geure Jauna emon dagike, baño 869g. arauaren kalte barik.

§ 2.—Yaupatik kanpora be Geure Jauna edozein yauparik emon dagike, bertako elexakoa ezpalitz eleiz-zañaren baimenagaz; baimen ori geyen baten naikoa da bidez uste dana.

847g. araua. Geure Jauna eriai (gexoi) agirian eroan bekie, ziyo zuzen eta bidezkoak besterik aolkatu ezik.

848g. araua. Geure Jauna elexatik kanpora gexoakana, parrokitarrak eztireanakana be, bere barruti-barruan eroateko eskubidea parroki-zafiari dagokio.

§ 2.—Beste yaupariak ezinbestean edo parroki-zafiaren nai Goterkizafiaren baimenagaz dagike ori; ezinbestean baimen ori legeak berak emon daroa.

849g. araua. Geure Jauna gexoakana ixilik eroan ezker, edozein yauparik eroan dagike, Geure Jauna zaintzen dauanaren baimenagaz, gitxienez ustekoagaz.

§ 2.—Geure Jauna ixilik eroaten yakenean, onenbesteko Jaunari zor yakon lotsea ta begirakunea erakutsi bekioz, Aita Santuak agindutako legeak beteta.

850g. araua. Geure Jauna gexoai Elexakotzat nai agirian nai ixilean eroatea, 848g. arauaren arauz, parroki-zafiari dagokio, baña 397, 3.º ta 514, §§ 1-3g. arauen kalte barik.

851g. araua. § 1.—Yaupariak Geure Jauna, bere elexako legeak aginduten dautsan lez, ogi yaikeagaz edo yagiagaz emon begi.

§ 2.—Bear estuan eta beste yaureskerako yauparirik eztagoanean, ogi yagia erabilten dauan Sorkaldeko yaupariari zillegi yako Gure Jauna ogi yaikean emotea; bardin, ogi yaikea erabilten dauan Sorkaldeko nai Sorkaldeko yaupariari zillegi yako Geure Jauna ogi yagiagaz emotea; alan be, bakotxak bere Elexako emokerea berabil.

852g. araua. Geure Jauna ogi-antza-azpian bakarrik emon bedi.

I Atalkia

Geure Jauna norik artu?

853g. araua. Legez galazota eztaukan edozein ugutzatuk Gure Jauna artzeko eskubidea dauko, eta, eske baletor, emon egin bear yako.

854g. araua. § 1.—Euron adiñagaitik oraindiño ikurton onen ezaguerarik eta goserik eztaben umeai ezpegie emon Geure Jauna.

§ 2.—Eriotza-zorian Geure Jauna umeai emon al izateko eta emon bear izateko, naikoa da Geure Jaunaren gorputza beste yanariakandik berezia dala konaturatzea ta bere erako itzalagaz artzea.

§ 3.—Eriotza-zoritik alde, kistar-ikaskintzearen yakin osoagoa ta gertakuntza arduratsua goa zuzen eskatuten da; au da, gitxienez zeruratzeko naita nai ez barrekoak direan siñeskintzako siñeskizunak euren ulermentxoaren neurrian ulertu dagiezala, ta euren adiñari dagokion besteko azkuagaz Geure Jaunagana eldu daitezala.

§ 4.—Geure Jauna artzeko bestean umeak gertautu dagozala ebatzea yaupari autor-entzuleari eta euren guraso nai guraso-ordeai dagokie.

§ 5.—Parroki-zafiaren eginbearra da, barriz, ezaguerara eldu barik edo nai-

koa gertau barik umeak yaunartzera eldu eztaitezau, adiñon baderitxo, azterketa bidez be egiztatzea; bardin giza-ezagueradunak eta naikoa gertatuak Jaungoikozko yanari onegaz len baño len azkorta daitezau arduratzea be.

855g. araua. § 1.—Geure Jauna artzerik etxake utzi bear gaizto ezagunai: esaterako Elexatik arrotzua, elexan sartzea be galazota daukienai, agiriko izen txarrekoai, zigorra ondo eroan eta bide onera etorrita dagozala yakin ezik eta erriari emondako erakutsi gaiztoari erakutsi onagaz erantzun barik.

§ 2.—Estaldutako pekatariak buruz, ixilean Geure Jauna eskatzen badabe, ta bide onera etorri barik dagozala baleki, ukatu begio Geure Jauna; ez, baña, agirian eskatu balegi ta ezin ukatu aurrekoak ikaratu barik.

856g. araua. Pekatu aztuna aldean daukala dakian iñor, al osoan damututa dagoala uste izan arren, ikurtonezko autortza egin baño lenago ezpedi Jaunartzera eldu; bear estuan balego ta autortza-entzulerik eraz ezpaleu, maitez damutu bedi.

857g. araua. Geure Jauna artu dauan egun berean barrero Jaunartzea etxako iñori zillegi, 858, § 1g. arauak diñoana jazo ezpailtzakio (1).

858g. araua. § 1.—Gaberdia ezker barau osoa egin eztauanak ezin dagike Geure Jauna artu, eriotza-zoria bertan ezpaleu edo Geure Jaunaren aurkako lotsabakerien bat eragotzi-bearra agertu ezpaledi.

§ 2.—Illebete ezker laster osatuteko itxarobide seguru barik oyan gexorik datzanak, autortza-entzule zurraren eritxiagaz Geure Jauna astean bein edo birritan artu dagike, osakayen bat edo zerbait edari lenago artu arren (2).

859g. araua. § 1.—Giza bietako kistarrak gaiztoa ta ona zer dan ezagutzeko urteetara eldu ezker, gitxienez urtean bein Pazkoz Geure Jauna artu bear dabe, norbere yaupariaren onuz ganorazko ziyoen bategaitik, bear bada, bein-beinean Geure Jauna artzea atzeratutea erabagi ezpalegi.

§ 2.—Pazko-yaunartzea Abar-igandetik Igande zurirartean egin bedi; baña zillegi yako Goterkizafiari, laguneta tokien zertzuk alan eskatu balegie, epe ori kistar guztientzako be aurreratzea, ez orraitio Garizumako laugarren igandea baño aurrerago, nai atzeratutea, ez baña Irukoiztasun-igandea baño arago.

§ 3.—Agindu au bakotxak bere parrokan bete dagiala irakatsi bear yake kistarrak; eta beste parroki baten bete dabena begie al dabena norbere parroki-zafiari agindu au bete dabela yakin-erazoteko.

§ 4.—Pazkoz yaunartzeko aginduak eztau bere indarra galtzen norbaitek agindutako epe orretan bete eztaualako.

(1) Gaur ezta orren gogor galazoten.

(2) Au be oso aldatuta dago.

860g. araua. Mutiko-neskatoak lotuten dauzan Pazko-yaunartzeko aginduak eurak zaindu-bearra dauken guztiak be lotuten ditu eta ain zuzen be umeok eurok baño estuago; au da: gurasoak, guraso-ordeak, autortza-entzulea, irakasleak eta parroki-zaña.

861g. araua. Jaun-artzeko agindua ezta betetan pekatuzko yaunartzeagaz.

862g. araua. Eguen Gurenean eleiz-gizon guztiak, baita egun artan yauparik egiten eztaben yaupariak be, Jaupa Nagusian edo Jaunzale-etxeetako batzar-Jaupan yaunartzea ondo litzake.

863g. araua. Berotu bediz kistarrak sarri, baita egunero be, Zerutiko ogi au yanda indar barriak artzera, Aita Santuak emondako irakatsietan ikasi bear daben lez; eta yaupera egiten danean bertan dagozanak ez bakarrik biotzeko gurariz, baita Geure Jauna bera benetan artarako gerturik dagozan guztiak artu dagien.

864g. araua. § 1.—Eriotza-zorian, edozein bidetik agertu yakela, Kistoren sinestredun guztiak Geure Jauna artu-bearra dauke.

§ 2.—Geure Jauna egun artan artuak balira be, oso gogoan sartu bear yake bizia galtzeko zorira eldu diran ezkeretik bide-lagun Jauna barriro be artu dagiela.

§ 3.—Eriotza-zoriak dirauala, autortza-entzuleak esaten dautsana egiñaz, betiko bide-lagun bikain au sarri, baita egun ero artzea be zillegi ta txalogarri da.

865g. araua. Gexoai Elexakoak emotea ezpegie lar luzatu; eta arimak zaintzea daukienak ezpegie lorik egin gexoak euren sen osoan dagozala atzenengo bidaldirako Lagun au artu daien.

866g. araua. § 1.—Edozein yaureskerako kistarrak euren Jaunaganako biotz beroak eskatuten dautsen lez Geure Jaunaren ikurton au edozein yaureskeran eginda artzeko eskubidea emoten yake.

§ 2.—Pazko-Jaun-artzeari buruzko agindua bakotzak bere yaureskerako elehan betetea obeto litzakela esan bear.

§ 3.—Atzenengo biderako laguntzat Geure Jauna bakotzak bere yaureskeran artu bear dau; baña besterik ezifnean, zillegi yake edozein yaureskeran artzea.

III Atalkia

Geure Jauna noiz eta non emon bear dan

867g. araua. § 1.—Geure Jauna emotea egun guztietan da zillegi.
§ 2.—Aste Gureneko Barikuan, baña, gexoai Bide-laguntzat emotea bakarrik da zillegi (1).

(1) Gaur aldatuta.

§ 3.—Larunbata Gurenean ezin daiteke Geure Jauna emon Jaupa Nagusian barruan eta bertatik aren ostean baño.

§ 4.—Jaupera egin daiteken orduetan bakarrik emon daiteke Geure Jauna, bidezko ziyoen batek besterik aolkatu ezik.

§ 5.—Azken-biderako Geure Jauna, baña, eguneko nai gabeko edozein ordutan emon daiteke.

868g. araua. Yaupera egiten dauan yaupariari etxako zillegi opalmaya (altarea) ikuspidetik galduteko bestean urrin dagozan lagunai Geure Jauna yaupaldian emotea.

869g. araua. Geure Jauna yaupera egitea zillegi dan edozein tokitan emon leiteke, bai norbaiten otoiztegi be, Goterkizañak bidezko ziyoz alango batzuetan galazo ezpalegi.

IV IDAZPURUA

Autortza edo damu-ikurtona

870g. araua. Autortza edo damu-ikurtonean, legezko Jaunaren otseñak emondako parkatze-epayaren bidez, bear dan lez gerturik eldu dan kistarrari ugutza-ostean egiñiko pekatuak parkatu egiten yakoz.

I Atala

Parkatu gork?

871g. araua. Ikurton onetan parkatu yaupariak bakarrik dagike.

872g. araua. Yaupaltzako alaz ganera, pekatuak benetan parkatzeko, ikurton au emoten dauanak, parkeske datorkionari buruz aginpidea be, nai berezkoa nai iñork emonda, bear dau.

873g. araua. § 1.—Autortzak Elexa osoan entzuteko berezko aginpidea, Aita Santuaz ganera, Erroma'ko Elexako Kardenalak dauke; bakotzak bere barrutian, Goterkizañak eta parroki-zañak eta parroki-zañaren ordezkoak.

§ 2.—401, § 1g. arauak erabagiten dauan lez aginbide au badabe Obispo elexako eta Batzar-elexako Bazkide-autortza-entzuleak be; eta Jaunzale azkatuen Nagusiak, euren legeak ezarten dabezan neurri-barruan euren menpekoai buruz.

§ 3.—183g. arauak erabagiten dauan lez aginbide au galtzen da:

1.º Zeregiña galdu ezker.

2.º Gaiztotzat emoten dauan eta gaiztoa dala diñoan epai bidez, Elexatik arrotzuak;

3.º Zeregiñetik etenak;

4.º Zeregiña erabiltea gebenduak.

874g. araua. § 1.—Edonoren, bai erritarren bai Jaunzaleen autortzak entzuteko aginbidea yaupariari, bai erritarrai bai Jaunzaleai, baita azkatuak badira be, autortzak entzuten direan tokiko Goterkizañak emoten dautse; yaupari Jaunzaleak, baña, ezpegie aginbide ori erabili euren Nagusiaren gitxienez ustezko baimen barik, alan be 519g. arauko erabagiaren kalte barik.

§ 2.—Yaupari Jaunzaleai ezpegie autortzak noz gura entzuteko aginbiderik emon Goterkizañak euren Nagusiak aurkeztu barik; ostera, euren Nagusiak aurkeztuai ezpegie bidezko ziyo barik ukatu, 877g. arauaren kalte barik, orraitio.

875g. araua. § 1.—Eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatuan Jaunzaletuen, Jaunzale-geyen eta 514, § 1g. arauan aitaturako besteen autortzak entzuteko aginbidea euren legeak esaten daben eurotariko Nagusiak be emon dagike; eta zillegi yako berari aginbide ori Yaupari erritarrai nai beste Jaunzaletzakoai be emotea.

§ 2.—Erri-gizonezko Jaunzaletza azkatuan autortzak entzuteko yauparia Jaunzale-Nagusiak aurkeztuten dautso Goterkizañari, onek aginbidea emon dagion.

876g. araua. § 1.—Aurka legoken edozein lege nai kutun-lege kenduta, yaupariak, nai erritarra dala nai Jaunzale dala, edozein mallako nai zeregiñeko dala, edozein andrazko Jaunzale nai Jaunzale-geyen autortzak entzun al izateko berarizko agin-bidea bear dabe, 239, § 1, 1.º, ta 522, 523g. arauak zutunik gelditzen direala.

§ 2.—525g. arauak diñoan lez, aginbide au andrazko Jaunzaleen etxea da goan tokiko Goterkizañak emoten dau.

877g. araua. § 1.—Goterkizañak autortzak entzuteko aginbiderik, ez Jaunzale Nagusiak aginbiderik nai baimenerik azterketearen bidez artarako gai idoro dabezanañi baño ezpegie emon, teologiari buruzko zeretan benetan yakituna dala ostantxean ezagun dana ezpalitz.

§ 2.—Aginbidea nai baimena emonda gero len gaitzat emondako yauparien bat benetan gai ete dan bidezko zalantzea baletor, yakintzeari buruzko azterketa barria egin-erazo begio, naita parroki-zaña nai Obispo-elexako Bazkide autorrentzulea izan.

878g. araua. § 1.—Autortzak entzuteko aginbidea nai baimena muga jakin batzuen barruan laburtuta be emon daiteke.

§ 2.—Alan be Goterkizañak eta Jaunzale-Nagusiak emoten daben aginbidea nai baimena ganorazko ziyo barik ezpegie lar laburtu.

879g. araua. § 1.—Autortzak entzun eta pekatuak parkatuteko, edo itzez edo idatziz emondako aginbidea bear da.

§ 2.—Aginbidea emotearen ordaintzat ezin leiteke ezer eskatu.

880g. araua. § 1.—Goterkizañak nai Jaunzale-Nagusiak autortzak entzuteko aginbidea nai baimena, ziyo aztunagaz ezpalitz, ezpegie ez kendu ez eten.

§ 2.—Baña ziyo aztunik baleu, Goterkizañak eskubidea dauko autortzak entzutea galazoteko, baita Obispo-elexako Bazkide autortza-entzuleari nai parroki-zañari be; oneik eskubidea dauke erabagi orren aurka Aita Santuagana yoteko, baña bein-beinean Goterkizañaren agindua bete egin bear da.

§ 3.—Etxako, baña, zillegi Obispoari, Aita Santua yakitun egin barik, etxe osotua balitz, Jaunzaleen etxe bateko autortza-entzule guztiai aginbidea kentzerik.

881g. araua. § 1.—Bizibide bateko nai besteko yaupariak autortzak nonbaiten entzuteko aginbidea nai berezkoa nai emona daukenak eurakana datorzan edonongoak entzun eta parkatu dagikez, bai beste goterki parrokitik datorkiezan arrotzak eta bai Sorkalde-Elexetako katolikoak be.

§ 2.—Berezko aginbidedunak bere menpekoak edonon entzun eta parkatu dagikez.

882g. araua. Norbait ilteko-zorian dagoanean, yaupari guztiak, baita autortzak entzuteko eskubiderik artu eztabenak be, gauza ta legezko dan parkatzea emoten dautse edonori edozein pekatu nai zigor-osagarri, naita edozelan edonori bereziak edo nabariak izan, 884 ta 2151g. arauetan erabagiaren kalte barik.

883g. araua. § 1.—Itxas-osteran doazan yaupari guztiak baxotxaren Goterkizañagandik edo ontziratuten direan izturiko Goterkizañagandik autortzat entzuteko eskubidea bear dan lez artu baldin badabe, eurakaz batera itxasoz doazan guztien autortzak bide osoan entzun dagikez, naita ontziak bidea Goterki askotako barrutiak zear egin eta euretan egun batzuetan gelditu.

§ 2.—Ontzia bidean gelditzen dan guztietan yaupariok entzun dagikez edozer gaitik ontzira datorzan guztien autortzak; ta eurok ontzirik legorrera zeorzergaitik doazala autortzea entzuteko eskatzen dautsen guztien autortzak entzutea be zillegi yake eta pekatuak, bai Goterkizañak beretzat bereziak be, parkatzea.

884g. araua. Pekatu zikiñean norbere pekatu-lagun izanaren pekatua parkatzea alperrikoa da eriotza-zorian izan ezik; eta eriotza-zorian bertan be, ezin bestean izan ezik, autortzea entzuten dauanaren alde tik txarto eginda dago, Aita Santuen legeak eta batez be 1741garreneko Bagillaren lelengo eguneko *Sacramentum Poenitentiae* Benito XIV legeak erabagiten dauan lez.

885g. araua. Autor-entzuleak pekatuak parkatzeko esaten dauzan itzai generatu yakezanak bearrekoak izan ez arren, ezpediz esan barik itxi bidezko ziyo barik.

886g. araua. Autor-entzuleak autortzea egin dautsanagan ezereen utsik ikusi ezpalegi, eta onek parkatzea eskatu, ezin legikeo parkatze ori luzatu.

887g. araua. Pekatuak zeinbat eta zelangoak izan direan begiratuta pekatuen ordanaz bera onduteko ta zuzenak eskatzen daua-nari berea emoteko bear direala deritxozan egin nekegarriak ezarri begioz autor-entzuleak; egiteko nekegarriok pekatuak autortu dauzanak gogoz artu ta ber-berak egin bear ditu.

888g. araua. § 1.—Gogoan beuko yaupariak autortzak entzutaldian era-batera epaikari ta osatzalle dala, ta Jaungoikoaren zuzen-tasunaren eta errukiaren otsein erabatera dala, Jaungoikoari zor yakon lotsea ta pekatari gaxoen errukia betiko kontuan dituala yokatuteko.

§ 2.—Ezpegi inoiz pekatu-lagun nor izan dauan yakiteko alperriko barriketa ta itaunka ekin; Jaungoikoaren seigarren aginduari buruzko pekatuetan batez be ezpegi inor luzaroan ekin eta ekin euki; ez gatzetxoai bear bada oraindifo eztakiezan zerai buruz arinkeriz itandu.

889g. araua. § 1.—Ikurton oneri buruzko ixil-legea ausi-eziña da; orre-gaitik ezpegi autor-entzuleak autortzalleak esanik ez itzez ez arpegiaren zirkifnez nai beste edozelan esanik agertuko leukenik.

§ 2.—Ikurton oneri buruzko ixila yagon-bearra dauke adierazleak ta autor-tzaren barria edozelan yakiten eldu direan guztiak.

890g. araua. § 1.—Gogor be gogor galazota dauko autortza-entzuleak inoren autortzatik yakifia autortzallearen kaltez erabiltea, naita ixila austeko arrizkurik egon ez.

§ 2.—Bai une artan Nagusi direanak bai geroagoan Nagusi izango direan autortza-entzuleak autortza-entzutaldian entzun ebezan pekatuen ezaguna ezin erabilli dagike agiriko etxe-zuzenbiderako.

891g. araua. Azi-ezi-aroan dagozan Jaunzale-geyen Irakasleak eta bere lagunak, Jaupalgei-etxeko nai Ikastetxeko Nagusiak ezpe-giez entzun eurakaz etxe berean bizi direan ikasleen autortzak, ikasleak ziyo aztun eta estuagaitik alangoen baten eskatu ezpalegie.

892g. araua. § 1.—Parroki-zañak eta arimen zaintzea euren zeregiñaren indarrez ezarrita dauken guztiak zuzenak berak beartuta dagoz, nai eurak nai inoren bidez eurai ezarritako kistarren autortzak entzuten, bidez eskatuten dautsen guztietan.

§ 2.—Bear larrian autortza-entzule guztiak dagoz beartuta kistarren autor-tzak maitez entzuten, eta eriotza-zorian, edozein jaupari.

II Atala

Pekatuaren berezpena

893g. araua § 1.—Berezko eskubidez autortzak entzuteko eskubidea ta pekatuak parkatzeko ala emon dagikenak edo zigor-osa-garriak ezarri, Batzar-Ordezkoa ta, artarako eskubide berezi barik, Danerako

Obispoaren Ordezkoa kenduta, eskubidea dauke euren pekatu batzuk parkatzea eurentzat gorde eta azpikoai laburtzeko.

§ 2.—Zigor osagarrien berezpenari buruz bete bedi 2246, 2247g. arauak erabagiten dabena.

894g. araua. Aita Santuarentzat legez berezita dagoan pekatu bakarra erru bako yauparia eleiz-epaikari baten aurrean norbait autortzaldian beragaz aragizko pekatua egiteko zirikatuta ebala guzurrez salatzen dauanaren pekatua da.

895g. araua. Goterkizañak ezpegie pekatuak eurentzat berezi auzia Go-terki-batzarrean aztertu barik, edo batzar ori ezean, Obis-po-elexako batzarra eta goterkiko arima-zain zurrenetarikoak eta ezagunenak entzunda gero, berezpena benetan bearrekoa edo egokia beintzat litzakela ikusi barik.

896g. araua. Eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatuaren Nagusien artean Nagusienak bakarrik, eta bere buruaren yabe dan Lekare-txean Lakaipurua, batzuk eta besteok bakotxaren aolkari-batzararen bayezkoa-gaz eurentzat berezi dagikez euren menpekoen pekatuak, 518, § 1 ta 510g. arauetan aginduten danaren kalte barik.

897g. araua. Pekatu bereziak gitxi izan bediz, au da, iru edo geyenez be lau, agiriko direanetatikoak eta benetan larri ta itzale-netarikoak, eta ondo zeatz erakutsita zeintzuk direan; eta berezpen ori ezpedi luzaroago euki agiriko ta gitxitan ikusten dan gaitakerien bat susterretik atera-teko eta, bear bada, lurrera yausita egoan legezko bizibidea eragiteko baño.

898g. araua. Ezpegi inork pekatuak beretzat berezi lendik Aita Santua-rentzat berezita legokenik, naita zigor-osagarritzat berezia izan; eta geyen baten, inorentzat berezita ezpalego be, legez zigor-osagarrien bat ezarrita daukanik bere ez.

899g. araua. § 1.—Bearreko edo egokiak beintzat direala uste izan da-bezan berezpenak, bein erabagi ezker, ekin begie Goter-kizañak ondoen deritxen bidez menpeko guztiak euren yakitun egiten, eta eurok parkatzeko eskubidea be ezpegie eumon edonori ta txitean pitean.

§ 2.—Alan be, onetariko pekatuak parkatzeko ala, lege beraren bidez 401, § 1g. arauak diñoan legez, Obispo-elexako bazkide autortza-entzuleari badagokio; eta betiko eumon bekie gitxienez parroki-zain-buruai be, batez be Obispo-uritik goterkiko urrifeko tokietan bizi direanai, euren barrutiko autortza-entzuleak alango estualdien baten eurakana yo balegie eta yoko leukien bakotxean eta guztietan birrordezteuteko eskubidea be emoten dautsela.

§ 3.—Goterkizañak edozelan eurentzat berezitako pekatuak parroki-zañak eta parroki-zain-izena emoten yaken guztiak Pazko-agindua beteteko epe-barruan

parkatu dagikez; belguntzari guztiak be bai erriarentzako belguntzak dagozanean.

900g. araua. Edozein berezpenek bere indarra galtzen dau:
1.º Nai etxetik urten ezin daben gexoak nai ezkongayak ezkondueteko autortzen direanean.

2.º Nai legezko Nagusiak yazokun berezi baterako eskatutako ala ukatu balegi, edo autortza-entzule zurraren eritiziz parkatzeko ala legezko Nagusiari eskatu ezin balekio autortzallearen lor aztun barik edo ixil-legea austeko arrisku barik.

3.º Berezlearen barrutitik kanpoan, naita pekataria parkatzea lortutearren beren-beregi kanpora yoan.

III Atala

Ikurton au nori emon?

901g. araua. Ugutza-ostean pekatu larririk egin dauanak, Elexearen giltzen bidez azkatu barik baditu, bere barrua zoli arakata gero idoro dauzan guztiak, bakotxa zetarikoa izan dan be esanda, autortu bear ditu.

902g. araua. Ugutza-ostean egiñiko edozein pekatu, nai lenago autortu ta azkatuak direala, nai autortu-bearrik eztauken ariñak direala, damu ikurton au artzeko naikoa dira, ez baña autortu-bearrekoak.

903g. araua. Bestela autortu ezin direanai etxake galazoten, eurak nai badabe, adierazle-bidez euren autortza egitea, kontua artuta bear eztanik ez egiteko ta zer esanai biderik ez emoteko, 88, § 2g. arauan aginduten dana aitzu barik.

904g. araua. Aita Santuen aginduak eta batez be Bedita amalaugarrenak 1741garreneko bagillako leleno eguneko *Sacramentum Poenitentiae* legean aginduten dauan lez, autortzalleak baleki yauparien batek autortzaldian aragizko pekatua egiten zirikatu dauana, illa-bete-barruan bertako Goterkizañari nai Zeregin Santuako Bazkun Gurenari salatu bear dautso, eta autortza-entzuleak esan bear dautso egin bear ori pekatu aztunik egin barik ezin dagikela bete barik itxi.

905g. araua. Eskubidea dauko edonork berak nayan dauan legezko-autortza-entzuleari bere pekatuak autortzeko, naita yauparia beste yaureskera batekoa izan.

906g. araua. Giza bietako kistar guztiak zer gaizto zer on dan berezten dakienean, au da giza-ezagerara eltzen direanean, bear-tuta dagoz gitxienez urtean bein euren pekatuak autortuteko.

907g. araua. Pekatuak autortu-bearreko agindua eztau betetan autortza txarra nai utsa legikenak.

IV Atala

Ikurton-autortza ¿non egin?

908g. araua. Autortza egiteko tokirik yatorrena elezea nai edonorentzako otoiztegia da.

909g. araua. § 1.—Andrazkoen autortzak entzuteko beren-beregiko aulkia beti toki agirian eta edonork erraz ikustekoan yarri bear da, ta geyen baten elezan edo edonorentzako otoiztegian; edo edonorentzako eztauean, andrazkoentzat danean.

§ 2.—Autortzako aulkia autortzalle ta autortza-entzule-bitartean beuko alboai yositako ta zulotxo beteko sarea.

910g. araua. § 1.—Andrazkoen autortzak ezpediz entzun autortza-aulkitik alde, gexorik edo beste ezin besterik legokenean baña, eta Goterkizañak agindu leukezanak eginda.

§ 2.—Gizezkoen autortzak bakotxaren etxean be entzun daitekez.

V Atala

Nekazkak

I Atalka

¿Nork emon?

911g. araua. Edonork zer anditzat euki begiz nekazkak edo indulgentziak, au da, bizientzako parkatze-zurrian, illentzako eskari-zurrian Eleiz-Nagusiak Elexearen ondasunetgitik emoten dauzan zor-ordain-garriak.

912g. araua. Kristo Geure Jaunak berak Elexearen arimai buruzko ondasuntea zaintzea ezarri eutsan Erroma'ko Aita Santuaz ganera, nekazkak emoteko legezko eskubidea legeak berak beren-beregi emoten dautsenak bakarrik dauke.

913g. araua. Aita Santuaren azpikoak ez dagike:
1.º Nekazkak emoteko ala beste iñori birremon, orixe be Aita Santuak emon ezpadautse.

2.º Ildakoi ezarteko nekazkarik emon.

3.º Egin bearko dabezan beste zerbaitzuk ezarri ezik, Aita Santuak nai beste iñork nekazkak ezarri dautsazan gauzeari nai onegintzari nai bazkunari beste nekazka batzuk ganera ezarri.

914g. araua. Aita Santuaren ordezkoko onespena nekazka osoagaz eta aginduta dagoan emokerea be erabillita, Obispoak, bako-

txak bere goterkian, urtean birritan emon dagike: au da, Kistoren Berbiz-kunde-egunean eta eurak izentauko daben beste yai egun ospetsu baten, naita eurak Jaupa nagusian bertan egon baño egin ez; ganera, iñoren goterkiko eztirean Lekaipuru nai yaurburuak, Aita Santuaren Ordezkarri ta Agintzadunak, Obispo izan ez arren, euren barrutietan emon dagike, baño urteko egunik ospatsuenetariko baten bakarrik.

915g. araua. Aita Santuaren onspena emoteko eskubide berezia dauken Jaunzaleak, ez bakarrik agindutako emokerea erabilli-bearra dauke, ganera eskubide ori ez dagike erabilli euren eleketan baño, ta lekaimen nai euren Jaunzaletzeari legez erantsitako Eren-Jaunzaletzekoen eleketan; ez gero Obispoak emon dauan egun eta toki berean.

916g. araua. Obispoak, iñoren goterkiko eztirean Lekaipuru ta Yaurleak, Aita Santuaren Ordezko ta Agintzadunak ta Jaunzaletza azkatutako Buru nagusiak, lendik besterik ezpalego, eguneroko nekazkadun yaupamaya (altarea) izentau ta artakotzat agertu dagike euren Obispo Lekaipuru-Batza, Jaunzaletzeko etxe-parroki nai parroki-antzeko eleketan, eta ez otoiztegiatan, naita agirikoak edo erdi-agirikoak izan, parroki-elexeari erantsiak eta aren laguntzalleak ezpalira.

917g. araua. § 1.—Kistar sifistredun ildako guztien egunean yaupa (meza) guztiak dauke parkamena parkamendun yaupa-mayan emonak bailirean.

§ 2.—Berrogei orduko otoitzaldia egiten dan egunetan eleiz artako yaupa-mai guztiak dira parkamendunak.

918g. araua. Yaupamaya parkamenduna dala iragarteko ezpedi idatzi auxe baño: *parkamendun yaupamaya*, betiko nai epeko nai eguneroko, emonaren idatziak lekarken lez.

§ 2.—Parkamendun jaupamayan egiteko jaupearen saria lortuteko parkamenagaitik ezin leiteke sari mardoagorik eskatu.

919g. araua. § 1.—Erroma'n iragarri bako nekazka barriak, lekaideen elexeari emonak be, ezpediz erriari iragarri Goterkizaña yakitun egin barik.

§ 2.—Otoitzai nai Jaunaren aintzarako egin batzuei ezarritako nekazken barri emoten daben idatzi, idatziño ta abar argitaratzean, 1388g. arauak aginduak bete bediz.

920g. araua. Aita Santuagandik kistar guztientzeko nekazkak lortu dabezanak beartuta dagoz, emona utsik gelditzea nai ezpadabe, emon dautsen orri berbera Aita Santuaren **AUTORITZA-ENTZUTEGI GURENA**'ri eroatera.

921g. araua. § 1.—Kisto Geure Jaunaren yai-egunetarako nai Andra Mari garbi zorionekoaren yai-egunetarako emondako parkamen osoa Elexa osoaren egutegian aurkituten direan yai-egunetarako bakarrik emonda dala uste izan bear da.

§ 2.—Bialduen (Apostoluen) yai-egunetarako emondako parkamenak, osoa nai txatala izan, euren yayotza-egunerako bakarrik emona dala uste izan bear da.

§ 3.—Elexeari nai edonorentzat zabalik dagoan otoiztegiari ikustaldida egin dautsanari eguneroko betiko nai epe izentaurako emondako parkamen osoa, edozein egunean, baño urtean bein bakarrik kistar bakotzak irabazi dagikela ulertzen da, agirian osterantzekorik beren-beregi ezpadifio.

922g. araua. Yayai, nai yai-aurretik nai yai-bitartean direan otoizketai, nai bederatzi-urrenai, zazpi-urrenai, nai iru-urrenai ezarritako nekazkak, onetariko yayak legez aldatuten direan egunera aldatuta dagozala ulertzen da, aldatutako yaya bere eleigizonentzeko otoizkera ta Yaupeagaz ospe barik ta agiriko yai-antza barik egiteko betiko aldatu baledi edo nai epe batarako nai betiko ospatasuna ta erriak yai egitea aldatu baledi.

923g. araua. Egun bateri erantsitako nekazkea irabazteko elexara nai otoiztegiara eldu-bearra, aurreko eguerdia ezkerro izentauriko eguna amaitzen dan gaberdirate egin daiteke.

924g. araua. § 1.—75g. arauari yarraituz, elexa bateri ezarritako nekazkak eztira osoan ilten elexea osoan yausi arren, ta barriro berrogeta amar urte barruan bertan edo iya bertan ta eleiz-zain berberagaz birreragi baledi.

§ 2.—Agurtzak esateko nai ostantzeko gauzai ezarritako nekazkak gauzok osorik ausi edo saltzen direanean bakarrik galtzen dabez.

II Atalkia

Nekazkak zelan irabazi?

925g. araua. § 1.—Norberentzeko nekazkak irabazteko gai izateko uguztatua izan bear da. Elexatik arrotzu bakoa, Jaunaren seme-alaba egiten gaituan bere maite-eskarrezko biziduna gitxienez nekazkea irabazteko agindutako zerak amaitutorduan, eta nekazkea emon dauanaren menpekoa.

§ 2.—Baño nekazkok irabazteko gai danak benetan irabazteko asmu gitxienez orokarra euki bear dau eta agindutako egitekoak izentautako epe barruan eta bear direan lez, nekazkak emon dauzanak esan dauan lez, egin.

926g. araua. Nekazka osoa irabaztea onantxe ulertu bear da: norbaitek oso-osorik irabazi ez arren, aren zatia irabazi dagikela, bakotxaren gaitasunaren neurrian.

927g. araua. Emonaren agiririk besterik agertu ezik. Obispoak emondako nekazkak irabazi dagikez bere menpekoak goterkitik

kanpoan be, eta Goterkian bai arrotzak, edonongoak eta baita bertan bizi direan Jaunzale azkatuak be.

928g. araua. § 1.—Agiri idatzian ostantxekorik argi esanda ezpalego, nekazka osoa artarako agindua sarri egin arren, egunean bein baño esta irabazten.

§ 2.—Osoa eztan nekazkea, idatzizko agiriak ostantxekorik ezpadiño, egunean bein baño geyagotan irabazi daiteke, artarako egitekoa barrero egin ezkerro.

929g. araua. Santuago izateko asmoz nai ikaskuntzeari nai ezikuntzeari nai osasunari begiratzearren Goterkizañaren baimenagaz elixa barik nai guztientzako otoiztegi barik eregitako etxeetan bizi direan giza bietako kistarrak, baita euroi otsein egiteko bertan bizi direan guztiak be, nekazkak irabazteko edozein elexara nai guztientzako otoiztegiara eldu-bearra dakarren nekazkak irabazi dagikez, ganeko egin-bearra bete ezkerro, etxeko otoiztegiara elduta.

930g. araua. Nekazkak irabazten dauzan iñork ezin dagikeoz ezarri bizi dan iñori; gardostokian lotuta dagozan arimai, oster, Aita Santuak emondako guztiak ezarri dagikiez.

931g. araua. Edozein nekazka irabazteko aginduko litzaken autortzea nekazkea ezarrita daukan egunaren aurreko zortzi-urrenean egin daiteke; yaunartzea, aurreko egunean; bata nai bestea urrengo zortzi-urrenean.

§ 3.—Al izan ezkerro gitxienez ilero birritan autortzea egiten daben kistarrak edo egunero Geure Jaunagaz adiskide direala-ta, barru azkutsu ta garbiagaz Jauna artzen dabenak, naita astean bein edo birritan Jauna artu ez arren, ostantxean eurak irabazteko egin bearko leuken autortza egin barik irabazten dabez nekazkak, *jubileokoa* deritxona izan ezik. Jubileo-nekazkok irabazteko beti bear da autortza-yaunartze beren-beregikoa, jubileo ori edozelangoa dala.

932g. araua. Legeak nai nagusiak aginduta egin bear dan zerbaiten ordez ezin leiteke nekazkarik irabazi, bera emotaldian ostantxean agirian erabagita ezpalego; autortzan ezarritako egitekoa bear bada nekazkaz aberastutakoa izan baledi, bera egiten dauanak erabatera ordain-nekea bete ta nekazkak irabazi egiten ditu.

933g. araua. Gauza nai toki bateri eta berberari ziyo banakaitik nekazkak ezarri leitekioz; baño ziyo banakaitik nekazka asko ezarrita daukazan lan bakarragaz ezin leitekez nekazka guztiak irabazi, lan agindu ori autortzea nai yaunartzea ezpalira, edo idatzizko agirian bertan bayetz esan.

934g. araua. § 1.—Nekazkak irabazteko Aita Santuaren asmuen alde otoitz egiteko bakarrik agindu baledi, buru-utsezko otoitza

ezta naikoa; agozkoa, barriz, norberak gura leukena dagike, otoitz berezien bat agindu ezpaledi.

§ 2.—Otoitz berezia agindu baledi, nekazkak edozein mintzoeraz eginda irabazten dira, itzulpenaren zintzotasuna nai Autortzategi Gurenak edo otoitza itzuli dan mintzoa bertako dan tokiko Goterkizañen batek egiztau balegi; baño nekazkak zeatz galtzen dira, zerbait ezarri nai kendu nai nastu baledi.

§ 3.—Nekazkak irabazteko naikoa da otoitza lagunagaz txandaka esatea, nai batek agoz esaten dauala besteak adi entzunda.

935g. araua. Nekazkak irabazteko egin onak benetako eragozpenak lotuta ezin dagikezanari, autortza-entzuleak beste batzuetan aldatu dagikeoz.

936g. araua. Izkeak (mutuak) erriaren otoitzai ezarritako nekazkak irabazi dagikez, toki berean otoitza daragoyen kistarrakaz goz bat eginda Jaunari otoitz egiten dautsela; ta bakotxaren otoitzak litzakezanean, naikoa dabe gogoz nai ziñuka egitea edo begiakaz bakarrik irakurtea.

V IDAZPURUA

Atzen-igurtza

937g. araua. Atzen-igotza-ikurtona igurtzi Santuak bear dan lez onetsitako olio-ekurrezko olioagaz eginda emon bear da, Elexeak ontzat emondako Jaureskizun-idaztiko itzak esaten direala.

I Atala

¿Nork emon?

938g. araua. § 1.—Ikurton au. gauza izateko, edozein yauparik eta eurak bakarrik emon dagike.

§ 2.—397, n. 3.º araua ta 514g. araua zutunik dagozala, ikurton au berez emon bear dauana bertako parroki-zaña da; ezin bestean, baño, ikurton au emon dagike beste edozein yauparik, nai parroki-zain berberaren nai Goterkizañaren gitxienez alan ustezko baimenagaz.

939g. araua. Ikurton au emotea legez dagokiona edo berberak edo iñoren bidez emoten zuzen-legez beartuta dago; eta ezin bestean, maite-legez edozein yaupari.

II Atala

¿Nori emon?

940g. araua. § 1.—Atzen-igortza ezin leitekio emon giza-ezaguera ostantean zarraren zarrez edo gexorik eriotza-arriskuan dagoanari baño.

§ 2.—Gexoaldi berean ezin leiteke ikurton au barrero emon, atzen-igortza

artuta gero gexoa osatu ta barriro beste eriotza-arriskuan yausi ezpaledi.

941g. araua. Gexoa giza-ezaguerara eldu ete dan, gexoa benetan eriotza-arriskuan ete dagoan edo il ete danen zalantzarik balego, ikurton au baldintzapean emon leiteke.

942g. araua. Ikurton au etxako emon bear damutu barik agiriko pekatu aztunean buru-gogor dirauanari; izakera ori bada ezpadakoa balitz, baldintzapean emon bedi.

943g. araua. Euren senean egozala, gitxienez zearka eskatu eban edo eskatuko ebala dirudien gexoai, naita gero konortea nai ezaguerea galdu, ezpai barik emon bekie.

944g. araua. Ikurton au zerurako bear bearrekua izan ezarren, etxako iñori zillegi berau aintzat ez artzerik, eta al dana zoli zoli egin bear da ikurton au gexoak euren senean dagozala artu dagien.

III Atala Zelan emon?

945g. araua. Atzen-igortzan erabili bear dan olio-ekurrezko olioak Obispoak edo Aita Santuak eskubidea emon dautsan yaupariak onetsia izan bear dau.

946g. araua. Gexoen olio ori parroki-zañak toki garbi ta bear dan lez apainduan zidarrezko edo zidar-antzeko ontzian zaindu bear dau, eta ezpeuko etxean, 735g. arauak erabagiten dauan neurrian baño.

947g. araua. § 1.—Igortzak yaureskuntza-idaztietan aginduta dagozan itzakaz, bata-bestearen urrengo eta egikeraz egin bediz; baña dana idaztiak aginduta lez egiteko astirik gexoak emoten eztauanean, naita da igurtzi bakarra, asmamen baten edo obeto bekokian otoiitz laburragaz eginikoa; baña gero gexoak artarako astirik emon balegi, igurtzi guztiak egin-bearraren kalte barik.

§ 2.—Garriko igurtzia ezpedi iñoiz egin.

§ 3.—Oñetako igurtzia be edozein bidezko ziyoz itxi leiteke.

§ 4.—Eragozpide larririk ezean, igurtziak emollearen esku garbiz egin bear dira, ezer bitarteko erabilli barik.

VI IDAZPURUA

Eleiz-gizontze-ikurtona

948g. araua. Ikurton onek, Kisto'k berak erabagita, berezten dauz eleiz-gizonak erritarrakandik, oneik Elexan zaindu ta Jaunari buruzkoetan euren otsein izateko.

949g. araua. Urrengo arauetan eleiz-gizontze nagusi edo santuen izenagaz yauparitzea, yaupari-otseintzea (Diakonotzea) ta yaupari-otseñaren urrengo azpikoa (subdiacono) ultertzen dira; eleiz-gizontze txiki-naren izenagaz adierazoten direanak: meza-erazlea, txerren-uxatzallea, irakurlea ta atezafia (1).

950g. araua. Eleiz-legetzan itzok: eleiz-gizondu, eleiz-gizontzea, eleiz-gizontze santua'ren izenak, Obispotzeaz ganera, 949g. arauan aitaturako zer guztiak eta ganera lelengo ule-moztea be barruan artzen dabez, zeraren izakerak nai esanaren esan-gureak ostantxekorik erakutsi ezik (2).

I Atala Eleiz-gizondu ¿Nork?

951g. araua. Eleizgizontzea legez dagokiona Obispoa benetan obispotua da. Iñoiz eztanari be, benetako Obispo izan ez arren legeak nai Aita Santuak emondako eskubide bereziz eleiz-gizontze txiki batzuk emotea badagokio (3).

952g. araua. Aita Santuak eleiz-gizondurik, goragoko mallako eleiz-gizontzara iñor yasotea etxako iñori zillegi Aita Santuaren baimen berezi barik.

953g. araua. Obispotza emotea Aita Santuari bakarrik dagokio; orregaitik iñongo Obispori etxako zillegi norbaiteri Obispotza emotea artarako Aita Santuaren agindua daukala yakin barik.

954g. araua. Obispotza emotorduan lagun izango yakozan beste Obispo bi artu bear ditu laguntzat, zer oneri buruz Aita Santuak eskubide berezirik emon ezpalegio.

955g. araua. § 1.—Bakotxa bere Obispoak eleiz-gizondu bear dau, edo Obispo orrek legez ordeztuak.

§ 2.—Obispoak, ziyo zuzenak eragotzita ezpalego, bere menpekoak berak eleiz-gizondu begiz; baña Sorkalde-Elexako menpekoa ezin dagike eliz-gizondu Aita Santuaren baimen barik.

(1) Vaticano-ko Bigarren Batzar ostean oneik, malla txikietakoko eleiz-gizon guztiok, kenduta dagoz eta bai diakonoaren urrengo azpikoa be, au da, sudiakonotza be. Gaur diakono egitorduan eleiz-gizontzen da.

(2) Kontuan euki 949g. arau orretan egindako oarra. Gaur ule-mozte ori be kenduta dago.

(3) Gaur benetako Obispo danak bakarrik eleiz-gizondu dagike.

956g. araua. Erritarren eleiz-gizontzeari buruz, bakotxaren Obispoa norbaitek yatorriagaz baterako bizitokia, nai yatorrizkoa barik oraingo bizitokia daukan goterkiko Obispoa bakarrik da; baña bigarren zer ori yazoten danean, eleiz-gizondu gure dauanak goterki orretan beti biziteko gogoa zin-itzez sendatuta agertu bear dau, eleiz-gizontzean lelengo ule moztearen bidez goterkiko eleiz-gizondua ezpalitz; edo 969, § 2g. arauan erabagiten dan lez beste goterki baten lan egiteko eleiz-gizontzekoa ezpalitz, edo jaunzale jaunzaletua.

957g. araua. § 1.—Aita Santuaren Ordezko ta Agintzadunak, iñongo goterkiko eztiorean Lekaipuru edo Jaurburuak, benetako Obispo balira, eleiz-gizontzeari buruz goterkidun Obispoen bardin dira.

§ 2.—Benetako Obispoak ezpalira (gaur estauke iñor eleiz-gizontzeko alik) lelengo ule moztea ta eliz-gizontze txikiak be 956g. arauaren neurrian euren menpeko erritarrai emon ta baita legeak aginduten dauzan euren nagusien baimenezko idazkiak erakusten dautsezanak be eleiz-gizondu dagikez; mugarriok igarota egindako eleiz-gizontzea alperrikoa litzake (1).

958g. araua. § 1.—Barrutian arima-zaintzea euren eskuetan daukan artean, erritarretatik iñor eleiz-gizontzeko idazkiak emon dagikez:

1.º Bakotxaren Obispoak, bere goterkiaren yabetzea 334, § 3g. arauan esaten dan lez artu ba dau, naita oraindiño Obispo-eleiz-gizontzea artu bakoa izan.

2.º Obispoaren danerako Ordezkoak, artarako eskubide berezia badau.

3.º Batzar-Ordezkoak Batzarraren bayezkoagaz, Obispo-aulkia ustu zan ezkeru urte bete yoan bada; lelengo urte-barruan, barriz, artutako edo artzeko bizibidegaitik nai goterkiaren bearragaitik geroagorarte utsik itxi ezin leitekezan zeregiñak emoteko bear direanai bakarrik.

4.º Aita Santuaren Ordezko ta Agintzadunak, iñongo goterkiko eztiorean Lekaipuru ta Jaurburuak benetako Obispo izan ez arren, baita eleiz-gizontzako malla nausietarako be. (Ez aitzu lendik esana: gaur eztagoala malla txikiko eleiz-gizonik).

§ 2.—Danerako Gotzain-Ordezkoak ezpegie eleiz-gizontzeko idazkirik emon Obispoak txarretsiai.

959g. araua. Eleizgizontzeko eskubidea emoten dauanak berak eleiz-gizondu dagike, artarako ala badau.

960g. araua. § 1.—Iñor eleiz-gizontzeko eskubidea emoten dabezan idazkiak ezpegiez emon, 993-1000g. arauak aginduten dabezan yakitekoak yakin barik.

§ 2.—Goterkizañak baimen-idazkiak emonda gero 994, § 3g. arauan aginduten dan zerbaiten bearra agertu baledi, Obispo arrotzak ezpegi iñor eleiz-gizondu, eurok artu arte.

(1) Ez aitzu 949g. arauan egindako oarra.

§ 3.—994g. arauaren antzera eleizgizondutekoak eragozpideren bat berea egiteko besteko epean bizi izan balitz eleizgizonduko dauan Obispoaren goterkian, yakitekoak berberak billatu begiz.

961g. araua. Baimen-idazkiok eleiz-gizontzeko bakotxaren Obispoak, baita Erroma-inguruko Obispo Kardenalak be, Aita Santuagaz artu-emona daukan edozein Obispori emon dagikeoz; ez, orraitio, Aita Santuaren baimen barik Sorkalde-Elexako obispoari.

962g. araua. Edozein Obispok, baimen-idazkiak artu ezkeru, lege eleiz-gizontzen dabe iñoren menpeko ori, idazkiko barrien egia-ri buruz ezertariko susmo txarrik ezpadau; baña 994, § 3g. arauan aginduten danaren kalte barik.

963g. araua. Baimen-idazkiok emonak, nai berak nai bere ondorengoak, nai laburtu nai osoan ezereztu dagikez; baña bein emonak eztiara alperrikoak egiten, emon ebazanen eskubidea gero amaitu arren.

964g. araua. Jaunzaleen eleiz-gizontzeari buruz:

1.º Aginpidedun Lekaipurua, naita iñongo goterkiko izan ez, lelengo ule-moztutea egin eta eleizgizontzako malla txikietako zeregiñak egiteko eleizgizondu dagikez jaunzalezako berba emote lauagaz gitxienez menpeko yakozanak, ta bera yauparia beintzat ta legezko onespina artua izan; muga oneik igarota emongo leuekan eleizgizontzea, edozein aurkako kutun-lege kenduta, utsa litzake, eleizgizontzalle ori benetako Obispo ezpalitz (1).

2.º Jaunzale azkatuak eztago Obisporik eleiz-gizondu dagikezanik, bakotxaren Buru nagusiaren baimen-idazki barik.

3.º 574g. arauan aitaturten direan bein-beñeko berbea emonagaz jaunzaletuai euren Nagusiak ule-mozketarako ta eleiz-gizontzako malla txikietarako bakarrik emon dagikiez baimen-idazkiak (2).

4.º Edozein Jaunzaletzako beste bazkideen eleizgizontzea erritarren zuzenbidez neurtu bear da. bein-beineko berbea emonagaz Jaunzaletuai eleizgizontzearen malla nausietarako baimen-idazkiak emoteko eskubidea euren Nagusiai kenduta.

965g. araua. Jaunzale-Buruak baimen-idazkiak emon bear dautsazan Obispoa, eleizgizontzeko Jaunzalea bizi dan etxea dagoan goterkiko Obispoa da.

966g. araua. § 1.—Jaunzale-Buruak baimen-idazkiak beste Obispo bateri emon dagikeoz goterkiko Obispoak artarako baimena emo-

(1) Kontuan euki 949g. arauari buruz esana. Gure Lekaiburua benetako Obispo ezpada, ezta gauza orretariko ezer orretariko ezer egiteko.

(2) Lege au kenduta dago gaur.

ten dautsanean, edo Sorkalde-Elexakoa litzakenean, edo goterkitik kanpoan dagoanean, edo 1000, § 2g. arauak diñoan lez urrango legezko aroan eleizgizontzerik izango eztauanean, edo atzenean goterkia Obispo barik dagoanean, eta bera zaintzen dauana benetako Obispoa eztauean; beste inoiz bez.

§ 2.—Olangorik yazoten danean, Obispo-idazkolatiko agiritik yakin bear dau yazoten dana Obispo eleizgizontzalleak.

967g. araua. Ezpegie Jaunzale-Buruak goterkiko Obispoagaz azpi-yokorik erabilli eleizgizondutekoa beste jaunzale-etxe batera aldaturik; ez baimen idazkiak emoteko begira egon Obispoa noiz alde izango dan goterkitik, ez eleiz-gizontzerik izango eztauan aldirako atzeratuta.

II Atala

¿Nor eleizgizondu?

968g. araua. § 1.—Eleizgizontze santua gizonezko ugutzatuak bakarrik artu dagike; pekatu barik, barriz, Elexearen legeak eskatzen dabezan izan-bearrak bakotxaren Obispoaren edo Obispo-ordearen eritxiz daukazanak eta legezko uts-akatsik nai beste eragozpenik eztaukanak.

§ 2.—Legezko uts-akatsak nai beste edozein eragozpenezaz lotutakoak, naita eleizgizonduta gero norbere erru barik sortutakoa izan, galazota dauke artutako eleizgizontzea erabiltea.

969g. araua. § 1.—Erritarrik inor be ezpedi eleizgizondu bakotxaren Obispoaren eritxiz goterkiko elexearentzat bearreko edo laungarri izango eztanik.

§ 2.—Orraitio, etxako galazoten Obispoari bere menpeko edozein eleizgizontzerik beste goterki baten lan egiteko, gero, norbere goterkia itxita, beste goterkiko egingo dana.

970g. araua. Bakotxaren Obispoak edo Jaunzale-Buru nagusiak, edozein legezko ziyoz, naita ixilekoa izan, eta auzira yo bear barik, euren menpekoai eleizgizontzako malletara igotea galazo dagikioe; ori yazoko litzakioenak eskubidea daukie erabagi orren aurka Aita Santuagana yoteko, eta Jaunzale-Erkaba balitz galazo dautsan Jaunzale-nagusia, bere Nagusienagana yoteko.

971g. araua. Gaiztakeri garbia litzake norbait edozelan eta edozergaitik berak gure eztauala eleizgizontzea; edo artarako gai dana ez egitea.

972g. araua. § 1.—Eleizgizon izateko gogoia erakusten dabenak gazte-txo direala eleizgizongeyak azi-ezite etxeetan artzeko ardu-rea artu bear da; baña eleizgizongei guztiak bertan biziteko beartuta dagoz teologia-ikastaro osoan, Goterkizañak bakotxaren ziyo aztunakaitik, ta ikasleak

berak ziyoen egiai buruz Jaunari kontua emon-bearra dabela, etxe orretan biziteko baimenik emon ezpaleutso.

§ 2.—Eleizgizondu nai ta eleizgizongeyak azi-eziteko etxean bizi ezteireanak zaindu ta Jaunagazko maite-bizikeran gizondu bearko dauazan yaupari jainkozale ta zur baten kontura yarri bediz.

973g. araua. § 1.—Lelengo ule-moztea ta urrango eleizgizontzako mallak yauparitzaraño igoteko asmua daukenai eta alangoen baten yaupari yatorrak izango direala uste izateko susterreko itxaropena emoten dabenai bakarrik emon bear yakez (1).

§ 2.—Alan be, goragoko eleizgizonen malletara igon gura eztabenak Obispoak ezin dagikez beartu ez areik artzen. ez artutakoak ez erabilten, legezko eragozpenen bategaz lotuta ezpalego, edo Obispoaren eritxiz beste ziyo aztunen batak eragotzi ezpalegi (2).

§ 3.—Obispoak ezpedi inor eleizgizondu aren benetako gaitasunari buruz erakutsi ezpai bakoak izan barik; osterantzean, ez bakarrik pekatu aztuna baño aztunagoa egin, baita inoren pekatuen errua be berea izango dau.

974g. araua. § 1.—Inor erru barik eleizgizondu al izateko bear ditu:
1.º Sendotza-ikurtona artua izan.

2.º Artzeko dagoan eleizgizontzeari dagokiozan ekanduak.

3.º Bearreko yakituria.

4.º Legezko adiña.

5.º Azpiko eleizgizon-mallak artua izatea.

6.º Eleizgizontza batetik besterako bitarte-aroak betetzea.

7.º Legezko bizibidea.

§ 2.—Obispo-ikurtona artzeari buruz, 331g. arauaren agindua bete bedi.

975g. araua. Diakono azpikoa ezpedi egin ogeta bat urte bete arte (1), diakonoa, ogeta bi urte bete arte; yauparitzea, ogeta lau urte bete arte.

976g. araua. § 1.—Nai gizarteko izan nai Jaunzale izan, teologi-ikastaroa asi arte ezpedi inor lelengo ule-moztera yaso. (Gaur alperrikoa).

§ 2.—975g. araua zutunik dala, diakono-azpikoa ezpedi emon teologi-ikastaroaren irugarren urtearen atzen erarte; (gaur, alperrikoa) -diakonotzea teologi laugarren urtea asita gero; yauparitzea, laugarren urte orren erdia igazita gero.

§ 3.—Teologi-ikastaroak izan bear dabe ez inork norbere kontura egiñak, 1365g. arauak aginduten dauan lez erabagiko ikaspidearen arauz yarritako ikas-tetxean baño.

(1) Gaurko legez alperrikoa.

(2) Arau onek be gaurko legeagaz konpondu-bearra dauko.

(3) Gaur kenduta dago elizgizon-malla au.

977g. araua. Eleizgizontzeak mallarik-malla emon bear dira ta alkarren ganetiko eleizgizontzeak zeatz galazota dagoz.

978g. araua. Eleizgizontzetan zaindu bediz malla batetik besterako bi-tarteak, Obispoak agindu dautsena beterik artu daben eleizgizontzea darabilela.

§ 2.—Lelengo ule-moztetik atezaintzarakoa, edo eleizgizontza txiki bako-txaren arteko bitarteak Obispoaren eritxi zurrari izten yakoz ebazteko; yaupa-erazotzallea, diakonoazpikora, diakono-azpikoa, diakono izatera, diakonoa yaupari izatera ezpediz lenago yaso: yaupa-erazotzallea gitxienez urte betez, diakono azpikoa ta diakonoa gitxienez iru illabetez eurotariko bakotxa erabilli arte, Obispoaren eritxiz, Elexearen bearrak nai onak besterik eskatu ezik.

§ 3.—Inoiz bez, baña, Aita Santuaren baimen berezi barik eleizgizontze txi-kiak didakonoazpikoagaz batera edo eleizgizontze bi egun berean emon ezpediz, aurkako ekandua txartzat emoten dala; lelengo ule moztea eleizgizontze txi-kien bategaz batera emotea be ezta zillegi, ezta eliz-gizontze txiki guztiak batera emotea be (1).

979g. araua. § 1.—Gizarteko eleizgizonentzat legezko bizibidea Elexea-ren bizibidedun zeregiña da; ori ezean, norbere ondasun-
tzea nai bizi-saria.

§ 2.—Bizibide orrek batetik eleizgizonaren bizitza osorako ziburra ta bestetik bizi-bearrari erantzuteko naikoa ta egokia izan bear dau, Goterkizañak toki ta garayak kontuan artuta emon dauzan aginduen neurrian.

980g. araua. § 1.—Goiko malletan yarritako eleizgizonak eukan bizibi-dea galdu ta ostantxeko bizibiderik ezpaleu, beste bat zu-zendu begi, Obispoaren ustez bere bizi-bearrari erantzuteko naikoa litzakena (2).

§ 2.—Aita Santuaren eskubide berezi barik norbere menpekoa legezko bi-zibide barik goiko malletan yakifñez ganera eleizgizontze dauanak edo eleizgi-zontzen itxi dautsenak eta euren ondorengoak, bearrean legokenari, bear orreri beste nonbaitetik osapidea aurkitu arte, yan-edana emon bear dautse.

§ 3.—Obispoak norbait berari janaririk ez eskatuteko itunbenagaz bizi-bide barik eleizgizontze balegi, itunben ori utsa bai utza litzake.

981g. araua. 979, § 1g. arauko bizibiderik ezpalego, Elexeari morroi egi-tearen ordezkoko bizibideagaz eleizgizontze daiteske ta Si-ñeskintza-Zabalkundearen Bazkun Gurenaren menpeko lurretan, beldu-lanezko bi-zibideagaz; olangorik yazoten danean, baña, eleizgizontzekoak zin-itzez goterkia-ren edo belguntzearen betiko morroiketarako eskeñi bear dau bere burua, garai bakotxean bertako izango dan Goterkizañaren menpean.

§ 2.—Eleiz nai Belguntza-morroiketazko bizibideagaz eleizgizontze eben

(1) Ainbeste bider esanda daukagunetik irakurlea konturatuko da, arau onetan gaur bizi eztearen ainbeste gauza aitatu den direala.

(2) Gaur eztago beko malletako eleizgizonik.

yaupariari berak biziteko naikoa izango dauan bizibidea nai zeregiña nai lagun-tzea emon bear dautso Obispoak.

982g. araua. § 1.—Lekaideentzat legezko bizibidea jaunzaletza ospetsua da, edo bakotxak bererik ezer ez, baña dana guztiena dauan bizi-legea.

§ 2.—Betiko berba emote laua egiten daben jaunzaleentzat guztien maya edo onetariko beste zerbait da, jaunzaletza bakotxaren legeen arauz.

§ 3.—Ganeko Jaunzaleak, eleizgizonen bizibideari buruz be, eleiz-gizon erri-tarren legea dabe eurena.

983g. araua. Legezko uts-akatsa esaten yakon betiko eragozpiderik, nai berezko uts-akatsetik nai gaizto-egiñen batetik sorturik, ezta norberena egiten, urrengo arauak erabagiten daben lez baño.

984g. araua. Legezko uts-akatsa, au da, eleizgizontzeko eskatzen dan zer-bait euki ez edo galazoten dauana dauke:

1.º Sasi-kumeak, sasi-yatorri ori nai agirikoa nai ixila izan, legezko tuak edo berba emotea ospetsua emondako lekaideak ezpalira.

2.º Makaltasunagaitik eleiz-gizonaren egitekoak bear dan lez egiteko ezti-reanak, edo zerbait itxusiagaitik yaupamaiko egitekoak ikusten dabezana iquin emon barik egiteko gauza ezteireanak. Legez artutako eleizgizontzea erabiltea ga-lazoteko akats andiagoa bear da, eta akats ori gora-bera etxakoz galazoten ganoraz egin legikezanak.

3.º Aldienak emoten dautsenak nai zoroak nai txerrenak bere menpeko egindakoak; eleizgizonduta gero artu balitu orretariko gatxak, ta osatu direala argi agertu balediz, Goterkizañak bere menpekoai utzi dagikioe artutako eleiz-gizontzeak erabilten.

4.º Birritan ezkonduak; au da, birritan nai geyagotan benetako ezkontzea bata bestearen ostean egiñak.

5.º Legezko izen gaiztoa daukenak.

6.º Inor ilteko epaya emondako epaikaria.

7.º Borrerua, bere oldez zeregin ori artuta, eta eriotza-epaya betetorduan euren oldezko lagunak izan yakozanak.

985g. araua. Lege-ausien bat egin dabelako ezteira eleizgizontzeko le-gezko:

1.º Kistar-siñeskintza osoan zapuztu dabenak; siñausleak eta Elexearen za-titzalleak.

2.º Eriotzaldiko ezin bestean izan ezik, katoliko etzanak norberari ugutza emoten edozelan utzi eutsana.

3.º Ezkontza-etxurea egiñak edo laterri-legezko ezkontzea egiteko arpegi gogorra izan ebenak, eta ori eurak, edo legezko ezkontza, edo eleizgizontza san-tuz edo jaun-zalearen berbea emonagaz, naita laua ta bein-beinekoa izan, lotuta egozala edo jaunzale-berbaz lotuta edo legez benetan ezkondu dagoan emaku-meagaz.

4.º Oldez iñor il dabenak eta amaren sabelean egoan seña botazoteko alegiñak egin dabezanak eta euron edozelango lagunak, seña benetan botazo balebe.

5.º Euren burua nai iñor moztu dabenak edo bere burua ilteko alegin egiñak.

6.º Eurai galazota dagoan osalaritzan edo sendagintzan ekin dauksen eleizgizonak, norbaiten eriotzearen errua balebe.

7.º Eleizgizontza-malletan dagozanai dagokien zerbaite egiten dabenak, edo artarako bear dan eleizgizontza bakoak, edo artarako erabili bear dan ala erabiltea legezko zigorrez, zigor ori edozelangoa dala, galazota daukienak.

986g. araua. Gaiztakeriok eztabe legezko eragozpiderik ekarten ugutza ostean egiñiko pekatu aztunak ezpalira, 985, 2.ºgarren arauko erabagia alde; eta ganera txarto egiñak benetan egiñak izan bear dabe, ez egiteko asmu utsak.

987g. araua. Eragotziak bakarrik dira:

1.º Katoliko eztereanen semeak gurasoak euren eritxi okerrean dirauen artean.

2.º Emaztedun gizona.

3.º Eleizgizonai galazotako ta bera zelan betetan daben erantzun-bearra daukan zeregiñen bat daukenak, zeregiña itxita eta erantzuna emonda yarei gelditu arte.

4.º Benetako yoputzako yopuak, azkatasuna artu arte.

5.º Legezko gudaritzara erri-legez beartuak, bear ori amaitu arte.

6.º Siñesbarriak, Goterkizañaren eritxiz sendo dagozana naikoa erakutsi arte.

7.º Benetan izen txarra daukenak, Goterkizañaren eritxiz izen txar orrek dirauan artean.

988g. araua. Bai gaiztakerizko bai berezko eragozpideoi buruzko ez-yakiñak eztau eurakandik azkatuten.

989g. araua. Legezko uts-akatsok eta eragozpideok bakotxaren etorbideak askotu ezkeru, eurak be askotu egiten dira, ez barriz eurentariko bat sortzen dauan egiña bein baño geyagotan egin daualako, norbait ilte-tik sortzen dan eragozpidea izan ezik.

990g. araua. § 1.—Goterkizañai zillegi yake edo eurak edo iñoren bitartez euren menpekoak gaiztakeritik sortutako legezko-uts-akatsetatik azkatutea 915, 4g. arauan aitauten dana nai auzitegira eroandako besteen bat ezpaledi.

§ 2.—Eskubide bardiña dagokio edozein autortza-entzuleri Goterkizañagana eldu ezin ta kalte nai izena galtzeko zori larrian ixileko yazoeretan, baña autortzalleak lendanik artutako eleizgizontzea erabilteko baño ez.

991g. araua. § 1.—Legezko uts-akatsetatik eta eragozpideetatik azkatuteko eskarrietan legezko uts-akats eta eragozpide guztiak agertu bear dira; ostantxean, danerako azkatzea naikoa izango da uste onez ixilduak buruz be, 990, § 1g. aruan berezten direanak izan ezik; ez, baña, azerikeriz ixildukoai buruz.

§ 2.—Iñor oldez iltetik sortutako legezko-akatsa balitz, zeinbat lege-ausi izan direan be agertu bear da, emongo dan danerako azkatzea be utsa izango ezpada.

§ 3.—Eleizgizontzeko azkatze orokarra malla nausietako eleizgizontzetarako be gauza da, eta azkatuak Kardenalen-Batzarretikoak ezterean bizibideak, baita arimak-zaintzea dagokienak be beretu dagikez; ezin daiteke baña Erroma'ko Elexa Santuaren Kardenal, nai Obispo, iñongo Goterkiko ezterean Barruti-buru nai Lekaipuru nai Jaurburu izan, ezta Jaunzaletza azkatuetako Buru nagusi be.

§ 4.—Ikurtonezko auzitegian barik, ixilean emondako azkatzea idatziz yarri bedi, eta aren barri Goterki-idazkolako ixilpeko idatzian ezarri bedi.

III Atala

Eleizgizondu aurretik egitekoak

992g. araua. Eleizgizontzeko guztiak, bai gizartekoak bai Jaunzaleak, eurak nai iñoren bitartez Obispoari edo arazo onetan Obispoaren ordezeko egiten dauanari eleizgizontze-aurretik euren gogoia garaiz agertu begioe.

993g. araua. Eleizgizontzeko gizartekoak, bai eleizgizontzeari buruz gizartekoen legez neurtu bear direan Jaunzaleak be, bekarrez:

1.º Atzenengo eleizgizontzearen ziñalpena, edo lelengo ule-mozketarako balitz, artutako ugutzaren eta sendatzearen ziñalpena.

3.º Eleizgizon-gayen etxeko Jaunaren idatzizko ziñalpena eleizgizongeyari buruz; eta eleizgizongeya eleizgizongeyen etxean bizi izan ezpaledi, aren ardu-rea eukan yaupariarena.

4.º Legezko eragozpideen bat beretuteko añako epean eleizgizontzekoa bizi izan dan tokiko Goterkizañak emondako ziñalpena.

5.º Jaun zalea balitz, Jaunzaletzako Buru nagusiaren idatzizko ziñalpena.

994g. araua. § 1.—Eleizgizontzekoak legezko eragozpideren bat berea egin al izateko epea, gudamutilentzat iru illabete dira; besteentzat gizaroa ezkeru, sei illabete; baña Obispo eleizgizontzalleak, bere sentzuna diñotsana entzunda, epe laburragoko egotaldiagaitik eta gizaroa baño gazteago zan aldiko barriak eskatuteko eskubidea dauko.

§ 2.—Bere barrutian bizi izan dan epean ez ebal legezko eragozpenik artu esateko bestean ez Goterkizañak berak ez iñoren bidez eleizgizontzekoa ezagun ezpaleu, edo eleizgizontzekoa goterkirik goterki ibili dalako, aren gora-berak yakitea ezin baledi, edo oso zail gitxienez, eleizgizontzekoak berak emongo dauan zin-itzaren bidez al dana yakiteko alegiña egin bedi.

§ 3.—Idatzizko erantzunak artuta gero baña, eleizgizondu aurretik, eleizgizontzekoa esandako epean barriro bertan bizi baledi, Goterkizañaren idatzizko erantzun barriak bear dira.

995g. araua. § 1.—Jaunzale-Buruak be bere baimen-idazkietan ez bakarrik eleizgizontzekoa jaunzaletua dana ta bere menpean dagoan etxeko sendikoa dana agertu bear dau; baita egindako ikasketak eta legez bear direan beste zer guztiak be.

§ 2.—Obispoak, baimen-idazkiok artu ezkeru, eztau bear beste barririk.

996g. araua. § 1.—Edozein eleizgizontzekok, nai gizartekoa nai Jaunzalea dala, artzeko dan eleizgizontzeari buruzko ganorazko azterketea izan bear dau.

§ 2.—Eleizgizontzekoak teologiaren beste arloetan be aztertu bear dira.

§ 3.—Obispoari dagokiona da nortzuk aztertu bear daben eta teologiko zeintzuk arloetan aztertu bear direan erabagitea.

997g. araua. § 1.—Azterketa au, bai gizarteko bai Jaunzaletzako eleizgizonai buruz bere eskubidez eleizgizontzen dauzan edo eleizgizontzeko baimen-idazkia ñori emoten dautsan Obispoak egiten dau; alan be, onek, ziyo zuzena bide dala, egin-bear au artu gura izango leuken Obispo eleizgizontzalleari ezarri dagikeo.

§ 2.—Iñoren menpekoa, nai gizartekoa dala nai Jaunzalea dala, arau onen § 1 arauz aztertuta, eleizgizontzeko gai idoro dabela esaten daben baimen-idazkiakaz eleizgizontzen dauan Obispoak esaten dautsena siñestu dagike; eztago, baña, siñestuten beartuta; ta bere eritxiz eleizgizontzekoa ezala artarako gai uste balegi, ezpegi eleizgizondu.

998g. araua. § 1.—Eleizgizontza-malla bakotxera yasotekoen izenak, edo zelango Jaunzale ezpalira, bakotxaren parroki-elexan iragarri bediz; alan be, Goterkizañak, bere buru zurak esaten dautsana entzunda, artarako ziyo zuzena daukala baderitxo, bere aukeran dauko izen iragarte ori ez egitea, nai beste elexa batzuetan be izen-iragarketa ori egin daitela agindutea, edo iragarketa orren ordeiz gitxienez yai-egun bat barruan izango daben egun batzuetan elexako atean dei ori idatzita ezartea.

§ 2.—Iragarketa ori lana galazoten daben yai-eguneko yaupetan edo elexan lagunik geyen izango dan beste egun eta orduetan egin bedi.

§ 3.—Sei illabete barru eleizgizon-gei ori eleizgizondu ezpalegi, iragarketa ori barriro egin bedi, Goterkizañari besterik ezpaderitxo.

999g. araua. Kistar guztiak beartuta dagoz eleizgizontzeko eragozpideak, batenbatzuk balekiez, eleizgizontzearen aurretik Goterkizañari nai parrokiizañari yakin-erazoteko.

1000g. araua. § 1.—Esandako iragarketea egiten dauan parroki-zañari, eta beste norbaiteri be, alan baleritxo agindu begioe Go-

terkizañak eleizgizondutekoaren ekandu ta bizikereari buruz euren esanak siñeskarri litzakezan lagunakandik zelangoak direan yakiteko, eta erantzunak eta azterketearen edestia Obispo-idazkolara bialdu bediz.

§ 2.—Goterkizain orrek, alangorik bearreko nai egoki litzakela baleditxo, beste arakatze batzuk be egin barik ezpegiz itxi.

1001g. araua. § 1.—Lelengo ule-moztea ta eleizgizontza txikietara yasotekbak gogo-iñarkunetan gitxienez iru egun osoak emon begiez; eleizgizontza nausietara yasotekoak gitxienez sei egun; baña illabete barru eleizgizontze batzuetara yasotekoak balira, Goterkizañak diakono-eleizgizontzerako iñarkunok laburtu dagikez, ez baña iru egunekoak baño laburragoak izateraño (1).

§ 2.—Iñarkunok eginda gero, eleizgizontzea edozergaitik sei illabete baño geyago luzatu baledi, iñarkunok barriro egin bear dira; ostantxean Goterkizañak barriro egingo direan ala ez erabagi begi.

§ 3.—Jaunzaleak gogo-iñarkunok begiez edo euren etxean edo Nagusiak erabagiko dauan beste etxe baten; gizartekoak, eleizgizongeyen azi-ezi-etxean edo Obispoak izentautako beste Jaunaren etxe baten.

§ 4.—Egindako iñarkunen yakitun egin bedi Obispoa iñarkunok egin direan etxeko-jaunaren idazkiz; Jaunzaleak balira barriz, euren Buru nagusiaren idazkiz.

IV Atala

Eleizgizontzako esan-egiñak eta esakera-egikerak

1002g. araua. Edozein eleizgizontza egikeran, egilleak Elexa-Erromarraren Obispo-Idaztitan eta Elexean ontzat emondako beste Liturgi-idaztietan agindutako otoitz-egiñak esan-egin begiz, eurok ez itxi ez aldatu egitea ezergaitik be zillegi eztalako.

1003g. araua. Eleizgizontzako nai Obispo-egitorduko yaupea eleizgizondu nai Obisopotuten dauanak berak egin bear dau.

1004g. araua. Sorkalde-Elexako yaureskeraz eleizgizontza batzuetara yasoak gorengo eleizgizontzeak Sorkalde-Elexearen yaureskeraz artzeko eskubidea Aita Santuagandik lortu balegi, lelengo Sorkaldeko yaureskeraz artu ez ebazan eleizgizontzeak Latel-yaureskeraz artu bear ditu (2).

1005g. araua. Eleizgizontze nausietara yaso guztiak eleizgizontzeko yaupan jaunartu bear dabe.

(1) Au be gaur indarrrik eztaucana.

(2) Betikoa, gaurko legez Elexa bietan ikurtonezko eleizgizontzeak bardiñak dira.

V Atala

Noiz eta non eleizgizondu

1006g. araua. § 1.—Obispo barria egitea yaupa-barruan eta igandean edo apostolu baten zerurako yayotza-egunean egin bear da.

§ 2.—Eleizgizontzeak yaupa-barruan lau barau-aroetako larunbatetan, Ne-kauste igande aurreko larunbatean ta Larunbata-Gurenean egin bediz.

§ 3.—Baña ziyu aztuna bide dala, Obispoak edozein igande nai yai-egunean dagikez.

§ 4.—Lelengo ule-moztea edozein egun eta ordutan egin leiteke, eleiz-gizon-tze txikiak igande ta yai bikotx guztietan; alan be, eguerdi-aurrean (1).

Emen goiko §§tan agindutako eleizgizontzeko garayen aurkako ekandua txartzat emoten da; eurok Latel-Elexako Obispoak Aita Santuak emondako eskubidez sorkalde-Elexakoa eleizgizontzean be zaindu bear ditu ta bai okerretara danean be, au da, Sorkalde-Elexako Obispoak Latel-elexakoen bat eleizgizontzen dauanean be bai.

1007g. araua. Eleizgizontzen bat barriro egin bear danean, edo utsen bat bete bear danean, edozergaitik egiten dala, nainoz eta ixilean be egin daiteke.

1008g. araua. Tokian tokiko Goterkizañaren baimen barik ezin dagikez Obispoak bere goterkitik kanpo Obispo-yantziak eta egikerak erabili bear direan eleizgizontzeak egin, 239, § 1, 15.º arauan erabagiten danaren kalte barik.

1009g. araua. § 1.—Baterako eleizgizontze guztiak Obispo-elexan, Bartzarreko bazkideak deiturik eta bertan direala, agirian egin bear dira; goterkiko beste nonbaiten egingo balira, bertako eleizgizonak begoz aurki, ta al dala, tokiko elexarik onenan.

§ 2.—Etxako galazoten, baña, Obispoari, bidezko ziyuak esaten dautsanean, eleizgizontza bakanak beste elexetan be egitea; ezta Obispo-etxeko edo eleizgizongeyen etxeko nai beste edozein jaunzale-etxeko otoiztegiagian egitea be.

§ 3.—Lelengo ule-moztea ta eleizgizontze txikiak edonon, bai bakotxaren otoiztegiagian be, egin leitekez (2).

VI Atala

Eleizgizontzea zelan egiztatu?

1010g. araua. § 1.—Eleizgizontzea amaitu ezkerro, eleizgizondu bako-txaren eta eleizgizontzallearen izenak, eleizgizontzea

(1) Zer guztiau gaur kenduta dago.

(2) Gaur alperrikoa.

non eta zein egunetan egin dan tokiko Obispo-idazkolan zoli yagon bear dan berarizko idaztarian idatzi, ta eleizgizontza bakotxaren agiri guztiak kontuz zaindu bediz.

§ 2.—Eleizgizondu bakotxari artutako eleizgizontzeari buruzko agiri siñeskarria emon bekio, ta Obispo arrotzak baimen-idatziakaz eleiz-gizondu balitu, emon dautsen agiria euren Goterkizañari erakutsi begioe, agiritegiagian zaindu bear dan idatzi berezian aren oarra ezarteko.

1011g. araua. Ganera Goterkizañak, eleizgizonduak gizarteko eleizgizonak balira, edo Jaunzale-Buruak bere baimenagaz eleizgizonduko jaunzaleak balira, diakono-azpiko bakotxaren eleizgizondu dalako barria ugutzako parroki-zañari agindu begio, eta onek 470, § 2garren arauaren agindua beterik ugutzauen idaztarian eleizgizontzearen barria ezarri bear dau (1).

VII IDAZPURUA

Ezkontza-ikurtona

1012g. araua. § 1.—Kisto Jaunak ugutzatuen arteko ezkontza-itunben berbera ikurton-mallara yaso dau.

§ 2.—Orregaitik ugutzatuen artean ezin daiteke gauzako ezkontzarik izan, erabatera ikurtona izan barik.

1013g. araua. § 1.—Ezkontzearen elbururik beñena umeak sortu ta aztea da; urrengo, alkarrerri lagundu ta aragi-irritsari asebidia ekarri.

§ 2.—Ezkontzearen bere-berezko zelangotasunak bakartasuna ta banandu-ezifia dira, ta eurok, ikurtona bide dala, kistar ezkontzean aldagatxagoak egiten dira.

1014g. araua. Ezkontzeak legea bere alde dau; au dala-ta, berari buruzko ezpairik sortu baledi, ezkontzea bear zan lez egiñikotzat emon bear da, bear zan lez etzala egiña argi erakutsi arte, 1127g. arauko zerean izan ezik.

1015g. araua. § 1.—Ugutzatuen ezkontzeari *sendetsia* deritxo, oraindiño osotu barik balego; *sendetsia ta osotua*, ezkontzako itunbena artarako dan eta ezkontideak aragi bat egiten dauzan ezkontza-egiña izan ezkerotik.

§ 2.—Ezkontzearen ezkerro ezkontideak batera bizi izan badira, ezkontzea osotu dabela legez uste izan bear da, ostantzekoa erakutsi artean.

§ 3.—Ugutza bakoien arteko legez gauza dan ezkontzeari *legezkoa* deritxo,

(1) Au be gaurko legeagaz alkartu-bearra dago; diakono-ordetza ori kenduta dago; gaur, esanda daukagun lez, eleizgizonduaren berengo mallea diakonoak dauke.

ezkontide batak gitxienez benetan ezkontzeko gogoz egiña baledi, arik eta ezkontide biak utsa izan zala yakin artean.

1016g. araua. Ezkontzearen Laterri-legezko ondoren utsai buruz izan ezik, ugutzatuen ezkontzea ezta Laterriko legez bakarrik zaintzen, bai Elexearen legeakaz be.

1017g. araua. § 1.—Ezkontzeko itza, nai alde batetikoa dala nai alde bietatikoa edo ezkontza-itunbenezkoa dala, auzitegi bietan utsa da, ezkontideak eta parroki-zañak edo Goterkizañak edo lekuko bik izenpetutako idatziz egin ezpaledi.

§ 2.—Ezkontide biak edo batak idazten ezpaleki edo al ezin balegi, gauza izan daiten ori be idatzian esan bear da, ta parroki-zain edo Goterkizañagaz edo § 1an aitaturtako lekukoakaz idatzia izenpetu bear dauan beste lekuko bat sartu bedi.

§ 3.—Alan be, ezkontzeko itzetik, berez indartsua izan arren eta emondako itza ez betetzeko ziyo zuzenik batxo bat be izan ezarren, ezkontzeko itza bete-erazoteko auzibiderik eztago, baña bai andik sortutako kalteak ordaindu-erazoteko, ezetz orrek ekarri balekartsoz.

1018g. araua. Ezpegi utzi parroki-zañak ezkontzea zer dan ta berari buruzko eragozpideak erriari sentzunez irakastea.

I Atala

Ezkontza-aurretik egitekoak eta batez be aren iragarketak

1019g. araua. § 1.—Ezkontzea egitorduko bera gauzazko ta zillegi egiteko eragozpiderik eztagoala yakin bear da.

§ 2.—Eriotza-zorian beste argibiderik ezin zuzendu al baledi, eta susmo txarrik izan ez, naikoa da ezkontzekoak ugutzatuak direala ta eragozpiderik eztaukela zin eginda esatea.

1020g. araua. § 1.—Ezkontzean bertako izateko eskubidea daukan parroki-zañak aurreztik garaiz egiteko asmua daben ezkontzeari buruz eragozpiderik ete dagoan zoli arakatu begi.

§ 2.—Bai senargeya bai emaztegeya, banazean be bai, zoli aztertu begiz alkarregaz ezkontzeko eragozpideren bategaz lotuta ete dagozan; eta hayetza, neskeak batez be, iñork beartu barik, emoten ete dauan; eta kistar-ikasbidean naikoa ikasita ete dagozan itandu begie, nortzuk direan begiratuta, atzenengo itaun au alperriko dala ikusi ezpalegi.

§ 3.—Parroki-zañen azterketeari buruz arau zeatzagoak emotea Goterkizañari dagokio.

1021g. araua. § 1.—Ugutza bere barruti barruan emon ezpalitz, parroki-zañak ugutzaren zifinalpen-agiria ezkontide biak eskatu begie, edo ezkontide katolikoari bakarrik, ezkontzea kistar katolikoaren eta kistar eztanaren arteko eragozpidea azkatuta egitekoak balira.

§ 2.—Sendatza-ikurtona oraindiño artu barik legokezan katolikoak ezkontu orduko artu begie, oso zail ezpalitzakie.

1022g. araua. Ezkontzea nortzun artekoa izango dan parroki-zañak erriari iragarri begio.

1023g. araua. § 1.—Ezkontza-deyok ezkontide bakotxaren parroki-zañak egin bear ditu.

§ 2.—Gizaroa ezkerro ezkontide bata beste nonbaiten sei illabetean bizi izan baledi, parroki-zañak Goterkizañari esan begio, ta onek, bere sentzun zurrak esaten dautsan lez, edo ezkontza deyok an be egin daitezala agindu begi, edo beste egizpide nai siñespedeen batzuk aren bizikeraren azkatasunari buruz billatzea agindu begi.

§ 3.—Bere buruari eragozpideren bat ekarri ete dautsanen susmoa balego, parroki-zañak bizitaldi laburragoagaitik be itandu begio Goterkizañari zer egingo, eta Goterkizañak eztau ezkontzea egiten utziko, eragozpiderearen susmoa arau onen § 2garrenean esaten dan lez uxatu artean.

1024g. araua. Deyok iru igande ta yai-egunetan yarraian bitarte barik egin bear dira elexan yaupabarruan, edo erria erruz etorten dan beste eleizkizunetan.

1025g. araua. Goterkizañak bere barrutian deyok orde, ezkontzekoen izenak parroki-elexako nai beste elexako atean zortzi egunean ezarrita eukitea agindu dagike; alan be, epe orretan, legez agindutako yai-egun bik izan bear dabe.

1026g. araua. Deyok ezpediz egin, katilokoa kistar edo katoliko ezta-nagaz eragozpidetik legez azkatuta ezkontzen danean; Goterkizañak onango ezkontzea be deitutea oba dala-ta, egiteko agindu ezpalegi. Baña ori egitekotan, eragozpidea Aita Santuak azkatuta gero ta kistar edo katoliko eztan ezkontidearen izena ixilduta egin bear da.

1027g. araua. Kistar guztiak beartuta dagoz dakiezan eragozpidetik ezkontza-aurretik parroki-zañari edo Goterkizañari agertuteko.

1028g. araua. § 1.—Ezkontide bakotxaren Goterkizañak, bere eritxi zurrak esaten dautsana entzunda gero, iñoren goterkian egiteko deyetatik legazkatu dagike.

§ 2.—Goterkizañak bat baño geyago balira, legazkatzeko eskubidea ezkontzea egingo dan goterkikoak dauko; ezkontzea ezkontide bien goterkietatik kanpoan egingo balitz, ezkontide bataren nai bestearen Goterkizañak legazkatu dagike.

1029g. araua. Azterketa eta deyak beste parroki-zain batek egin balitu, euron barri agiri siñeskarriaren bidez ezkontzean ber-rako izango dan parroki-zañari beingoan emon bear dautso.

1030g. araua. § 1.—Azterketa ta deyak egin ezkerro, ezpedi parroki-zaña ezkontzera aurreratu, bear direan agiri guztiak artu baño lenago, bidezko ziyoen batek besterik eskatu ezpalegi, atzenengo deya egin ezkerro iru egun igaro arte.

§ 2.—Sei illabete barruan ezkontzea egin ezik, deyak barriro egin bediz, Goterkizañari besterik ezpaderitxo.

1031g. araua. § 1.—Eragozpideen bat ete-dagoanen susmoa sortu ba-ledi:

1.º Parroki-zañak egin begi azterketa zoliagoa; gitxienez lekuko siñeskarri biri egia esateko zin-itza emon eraginda, bera yakitetik ezkontideai izen txarra ekarriko leuskioen eragozpidea ez izatekotan; bear izan ezkerro, itandu begie ezkontideai eurai be.

2.º Deyak egin edo amaitu begiz, susmoa deyak egiten asi orduko edo amaituta gero sortu baledi.

3.º Ezpedi ezkontzaratu Goterkizañari zer egingo itandu barik, oráindik eragozpiderean susmoa dagoala baderitxo.

§ 2.—Benetako eragozpidea agertu baledi:

1.º Eragozpidea erriari ezaguna ezpalitz, parroki-zañak deyak egin edo amaitu begiz, eta ezkontideen izenak esan barik, eroan begi arazoa Goterkizaña-gana edo Aita Santuaren Autortzategira.

2.º Erriari ezagun balitzakio eta deyak egiten asi orduko agertu baledi, parroki-zañak arazoa gelditu begi eragozpidea kendu arte, naita ixileko auzite-gian bakarrik legazkea lortuta egon; lelengo nai bigarren deyaren ostean agertu baledi, parroki-zañak amaitu begiz deyak eta yazoten danaren yakitun begi Go-terkizaña.

§ 3.—Atzenean eragozpiderik agertu ezpaledi, ez agiririk ez bidezko sus-morik, parroki-zañak, deyak amaitu ezkerro, artu begiz ezkontideak ezkontzea egitera.

1032g. araua. 91g. arauan aitaututen direan nainongoak ezkontzara ez-pedi yoan parroki-zaña ezin bestean baño, arazoa Go-terkizañagana edo beronek ordeztutako yaupariagana eroanda gero, euron ezkon-tzan bertako izateko baimena lortu arte.

1033g. araua. Ezpegi itxi parroki-zañak, baxotxa nor eta zelangoa dan begiratuta, ezkontideai ezkontza-ikurtonaren santutasuna alkarreganako ta umeakanako egin-bearrak irakatsi barik, eta ezkondu orduko-euren pekatuak zintzo autortu ta Gure Jauna maitez artu dagiela biotz-biotzez eskatu begie.

1034g. araua. Legezko nausi-arora eldu bako neska-mutillai euren gu-rasoak eztakiela edo bidez aurka daukezala ezkondu eztaitezan parroki-zañak arpegi ilunagaz ekin bear dautse; entzun ezpalegie, ez-pedi euren ezkontzara eldu, aurrezik Goterkizañari zer egingo itandu barik.

II Atala

Eragozpide guztiak buruzko arauak

1035g. araua. Legez eragotzita eztauken guztiak ezkondu daitekez.

1036g. araua. § 1.—Ezkontzea *galazoten* dauan eragozpideak pekatu aztuna egin barik ezkondu-eziña dakar; ezkontzea, ba-ña, beragaz egiña, ezta utsa.

§ 2.—Ezkontzea *ausi* egiten dauan eragozpideak bein-beinean ezkontzea pe-katu andi barik egin-eziña dakar eta gero gauza dan ezkontzarik egin-eziña be bai.

§ 3.—Eragozpideak, ezkontide bataren aldetik bakarrik egon arren be, ez-kontzea edo zillegi eztana edo utsa be egiten dau.

1037g. araua. Agiriko auzitegian egizko dala erakutsi leiteken eragoz-pidea agirikotzat emoten da; ostantxekoa, ixilekotzat.

1038g. araua. § 1.—Gure Jaunaren legeak ezkontzea noiz galazo edo noiz ausi egiten dauan agertutea Aita Santuari bakarrik dagokio.

§ 2.—Ugutatuai buruz euren ezkontzea nai galazo nai ausi egiten daben eragozpideak lege bidez, nai guztientzakoa dala nai batzuentzako dala legea, eragozpideak ezartea be Aita Santu berberaren eskubidea da.

1039g. araua. Goterkizañak euren barrutian dagozan guztiak, eta euren menpekoai barrutitik kanpoan dagozanean be bai, alango baten eta izentautako epea bete arte bakarrik, ziyo zuzenik badau eta ziyo orrek diraun artean ezkontzea galazo dagikioe.

§ 2.—Galazoteari ezkontzea ausi be egiten dauala diñoan esana Aita San-tuak bakarrik ezarri dagikeo.

1040g. araua. Elexearen legez ezarritako ezkontza-eragozpideak, ez-kontzea galazo bakarrik egiten dabenak nai galazo ta ausi be egiten dabenak direala, kentzeko nai makaltzeko nai eurai buruz legaz-kak emoteko alik eztauko iñork Aita Santuak bakarrik baño, al ori legeak berak edo Aita Santuak beren-beregi emon ezpalegi.

1041g. araua. Eragozpide barria sortu nai lendik direanen aurka litza-ken ekandua txartzat emoten da.

1042g. araua. § 1.—Eragozpideok batzuk beko mallakoak, beste batzuk goiko mallakoak dira.

§ 2.—Beko mallako eragozpideak dira:

1.º Lerro-zearreko irugarren mallako senideena.

2.º Lerro zearreko bigarren mallako aideena.

3.º Bigarren mallako agiriko lotsagarritasuna.

4.º Gogozko senidetasuna.

5.º Ezkontidea erailtea, ezkontideagaz barik beste inogaz aragiz batu baledi alkarregaz ezkontzeko itza emon-artuta nai sasi-ezkontzea Laterri-legezkoa eginda.

§ 2.—Beste eragozpide guztiak malla nausikoak dira.

1043g. araua. Eriotza-zoria ganean danean Goterkizañiak, ilteko dagoanen barruaren bakerako eta, bear balitz, umeak legezuteko, legazkatu dagikez bere menpekoak:

1.º Ikurtonezko ezkontzea egitorduan erabili bear dan egikeratik.

2.º Bai Eleiz-legezko eragozpide guztietatik be, agiriak direala ixilak direala, baita askotzak badira be, yauparitza santutik eta ezkontzea osotuta gero lerro artezko lelengo mallako aidetasunetik datorzanak ezpalira.

Legazkatu dagikez:

a) Bere menpekoak edonon.

b) Eta bere goterkian legokezan guztiak.

d) Kontua artuta legazkatu onegaitik inork ikara txarrik artu eztagian.

e) Eta legazkatzea, ezkontide bata kistarra edo katoliko eztanean egin be-rrak eraginda.

1044g. araua. 1045g. arauko zerak bardin yazoten direanean eta Goterkizañagana yoteko be astirik ezpalego. eskubide berbera dauke bai parroki-zañiak bai 1908 2.ºg. arauaren legez ezkontzara elduten dan yaupariak, bai autortza-entzuleak be; onek, baña, ixileko auzitegirako bakarrik eta ikurton-autortza entzutorduan.

1045g. araua. § 1.—Goterkizañiak 1043g. arauaren atzanean ezarritako esanakaz legazkea emon dagike. aitaturako 1043g. arauan izentatzen direan eragozpide guztietatik ezkontzeko bear direan zer guztiak gerturik dagozala eragozpidea agertuten danean eta ezkontzea kalte larriaren arrisku barik legazkatzea Aita Santuagandik lortu arte atzeratu ezin danean.

§ 2.—Eskubide au itundutako ezkontzea legezko egiteko gauza izan bedi, geroagotutean arrisku berbera balego ta Aita Santuagana yoteko astirik ez.

§ 3.—Yazoera bardiñetan eskubide berbera dabe 1064g. arauan izentautako guztiak. baña Goterkizañagana be elduezin leitekenean, edo ixil bearra austeko arriskuagaz yo leiteken yazoera ixilekoetan.

1046g. araua. 1044g. arauan aitaturten dan parroki-zañiak nai yaupariak agiriko auzitegirako emondako legazkea Goterkizañari iragarri bekio, eta ezkontza-idaztian ezarri bedi.

1047g. araua. Aita Santuaren autortzategi Gurenaren idazkiak besterik esanezik, ikurton-atazko auzitegian ixileko eragozpideari buruz emondako legazkea 379g. arauan aitaturten dan Obispo-idazkolako ixileko agiritegian zoli sartu bedi, eta ezta bear beste legazkatzerik agiriko auzitegirako, naita gero ixileko eragozpide ori agirikoa egin; baña lengoa ikurton- auzitegian emona balitz, bearreko da legazka barria.

1048g. araua. Legazka-eskaria Aita Santuari agindu balitzakio, Goterkizañiak ezpegiez euren eskubideak erabili, 204, § 2g. arauaren neurrian baño.

1049g. araua. § 1.—Itundutako nai itunduteko ezkontzai buruz eragozpide batetik azkatuteko muga bako eskubidea daukanak, eskubide ori. emon dautsan agirian bertan besterik esan ezik, eragozpide orretatik, askotza balitz be, bardin azkatu dagike.

§ 2.—Mota banazko eragozpide askotatik, ezkontzea galazo bakarrik egiten daben, nai galazo ta ausi be egiten dabenetatik azkatzeko muga bako eskubidea daukanak ebazkizun berberean legokezan eragozpide guztiak azkatu dagikez, agirikoak izan arren be.

1050g. araua. Inoiz emon dautsen eskubidez norbaitek azkatu dagikezan eragozpideakaz batera azkatu ezin dauanen bat bator, guztientzako eldu bear dau Aita Santuagana; baña berak azkatu legiken eragozpidea edo legikezan eragozpideak agertu balediz, berabil bere eskubidea.

1051g. araua. Bai norberaren eskubidez, bai inork emondako muga-bako eskubidez, ez ebazkizun izentau batzuetarako eskubidez, ezkontzea galazo ta ausi be egiten daben eragozpideai buruzko legazkatzeagaz, beste barik, batobat yayo nai sortu balitz. umeak legezuteko eskubidea be emoten da; ez, orraitio, nai aita nai ama garbitasun-berbea emonagaz, lotuta legokena balitz.

1052g. araua. Senidetasunari nai aidetasunari buruzko eragozpideetatiko legazkeak eragozpidearen mallen baterako emon-etzero, balio dau nai eskarian nai emonean malleari buruzko okerren bat egon arren, benetako mallea beragokoa baldin baledi, edo malla bardiñeko edo beragoko mota bardiñeko beste eragozpide bat ixildu arren.

1053g. araua. Aita Santuak sendetsiko baña osotu bako ezkontzeari buruz emondako legazkatzeak, edo ezkontide bataren uestzko eriotzeagaitik beste ezkontza bat egiteko legazkatzeak, beti daroa beragaz ezkontuteko itza emonda edo ezkontuteko alegiñak eginda gero ezkontzea austetik datorren eragozpidetik legazkatzea, bear balitz, baña ez 1079g. arauaren 2.º ta 3.º zenbakietan aitaturten dan eragozpidearen legazkatzea.

1054g. araua. Eragozpide txikiak buruz emondako legazkatzeak, edoze-
lango guzur esateagaitik edo egia ixiltzeagaitik, ez tira
utsak, naita eskariak agertutako benetako ziyo bakarria be guzurra izan.

1055g. araua. Eragozpide agiriak buruz aita Santuak eskatzalleen Go-
terkizañari azkatzeko emondako eskubidea erabiltea, es-
karia edo zuzentzat emon edo berak egin eban Goterkizañari dagokio, naita bi-
tartearen ezkongeyak lengo goterkiko bizitokia atzera ez etorteko itxita, beste go-
terki baten biziten yarriak izan; orraitio ori yazo baledi, ezkontzea egin gura
daben tokiko Goterkizaña yakitun egin bear da.

1056g. araua. Idazkolako eralgien ordaingarri, txiroak ez tireanean, le-
gazkatzeagaitik zezertxo izan ezik, Goterkizañak nai
euren langilleak, artarako eskubidea Aita Santuak agirian emon ezpadantse, emon-
dako legazkatzea dala-ta, ezin dagike ezertariko saririk emon-erazo; osteango
edozein ekandu txartzat emoten da eta emon-erazo balegie, atzera biurtu-bear-
tuta dagoz.

1057g. araua. Legazkatzea Aita Santuak emondako eskubidearen in-
darrez emoten dabenak, Aita Santuak emon dautsen
eskubide ori legazkatze-idaztian bertan aitatu bear dabe.

III Atala

Ezkontzea galazo bakarrik egiten daben eragozpideak

1058g. araua. § 1.—Gizagarbitasunari buruzko Garbitasun osoko, ez
ezkontzeko, eleizgizontze santuak ta Jaunzale-bizikera
artzeko berba emon lauak eragotzi egiten dabe ezkontzea.

§ 2.—Berba emote lau orretariko batek be eztau ezkontzea gauzeztuten,
gauzeztute ori Aita Santuak lege berezien baten bidez norbaitzuentzat erabagi
ezpalegi.

1059g. araua. Norbait seme-alabatzat artzetik sortutako legezko seni-
detasunagaitik, Laterriko legeak ezkontzak galazoten di-
tuen errietan, Elexearen legez be galazota dagoz.

1060g. araua. Garratz be garratz galazoten dau Elexeak edonon bata
katoliko-
ta bestea barriz siñausle nai zatitzalle-ba-
tzaren bateri izena emonda dagoan b'ien arteko ezkontzarik itundutea; ezkon-
tide katolikoa ta umeak bide okerrera yoteko arrizkurik balego, ezkontza ori
Jaunaren legeak be galazoten dau.

1061g. araua. § 1.—Ezkontide katolikoaren eta katoliko eztanaren ar-
teko ezkontzeari buruzko eragozpidea Elexeak eztau az-
katuten onantxe baño:

1.º Ziyo aztun eta estuak eskatuta.
2.º Katoliko eztan ezkontideak katoliko danari berbea emonda ez dabela
bide okerrera eroango ta ezkontide biak umeak guztiak Elexa katolikoan ugutzau
ta azi-
eziko dabezala.

3.º Itz ori beteko dabelako bidezko usteagaz.
§ 2.—Esanok geyen baten idatzita ezarri bear dabez.

1062g. araua. Ezkontide katolikoa katoliko eztan ezkontidea bide one-
ra ekarteko ekin bearrean dago.

1063g. araua. § 1.—Kistar katolikoaren ta katoliko eztanaren arteko
eragozpidea azkatzzea Elexeagandik lortu arren, ezin lei-
tekez ezkontideak, Elexearen aurrean ezkontzea egin baño lenago nai geroago,
euren ordezkoren bidez be, katoliko eztan yaureskerako eleiz-ordekoagana eldu
eleiz-ordeko dalata, ezkontutako itza aren aurrean emoteko nai barriztuteko.

§ 2.—Ezkontideak lege au ausiko dabela edo ausi dabela yakin baleki parro-
kizañak, ezpedi euren ezkontzara eldu ziyo aztuna baño aztunagoagaitik baño,
erriaren ikara txarra al dan bestean galazota eta Goterkizaña yakitun eginda
gero.

§ 3.—Ezta, baño, txartzat emoten, Laterriko legeak aginduta, katoliko eztan
yaureskerako eleiz-gizon egiten dauanagana eldutea, Laterriari dagokion zeren
bat bakarrik Laterri-legezko ondorenakaitik egiteko.

1064g. araua. Goterkizañak eta ganeko arima-zañak:
1.º Katolikoaren ta katoliko eztanaren arteko ezkontzeta-
tik aldendu begiez katolikoak al dan bestean.

2.º Eragotzi ezin balebez, Jaunaren eta Elexearen aurka egin eztaitezan
yoran osoagaz ekin begie.

3.º Orretariko ezkontza nasturik bai euren barrutian nai iñorenean egin
balitz, begiratu begie emondako itzak ezkontideak zintzo bete dagiezan.

4.º Orretariko ezkontzetan bertako izaten direanak bete begie 1102g.
arauaren agindua.

1065g. araua. § 1.—Naita katoliko eztan gizabatzen bateri bere izena
emon ez, katolikoaren siñeskinzteza agirian ukatu edo Ele-
xeak txartzat emondako giza-batzen baten bazkide-tu danagaz ezkontu eztaitezan
bildurra sartu bekie kistar katolikoai.

§ 2.—Parroki-zaña ezpedi eldu onetariko ezkontzetara Goterkizañari zer
egingo itandu barik; Goterkizañak, ebazkizunaren zer guztiak begiratura gero,
itxi dagikeo parroki-zañari ezkontzara eldutea baldintza oneikaz; ezkontzau egi-
teko eta egiten izteko ziyo larriak dagozala eta bere eritxiz naikoa seguru dala
ume guztiak katoliko azteko ta ezkontide katolikoa bide okerrera eroateko arris-
kua kenduta dagoala.

1066g. araua. § 3.—Agiriko pekatuan bizi danak, edo zigor osagarria-
gaz yotakotzat dagoanak gura ezpaleu ez autortza egin

ezta Elexeagaz baketu, parroki-zaña ezpedi aren ezkontzara eldu, Goterkizaña be, al dala, yakitun eginda, ziyo aztunak beartuta ezik.

IV Atala

Ezkontzea galazo ta ausi egiten daben eragozpideak

1067g. araua. § 1.—Gizonezkoak amasei urte bete arte, andrazkoak amalau urte bete arte ezтира ezkontzeko gauza.

§ 2.—Adin ori ezkeru egindako ezkontzea gauza bada be, arima-zain guztiak gazteai bizi direan errietan geyenak ezkontzen direan baño gazteago ezkondu eztaitez an ekin bear dautse.

1068g. araua. Ezkontza-aurretiko ta betiko ezkontza osotu-ezinak, bai mutilarena dala, bai neskearena dala, nai ezaguna dala nai ez ezaguna dala nai edonogazkoa nai norbaite-gazkoa bakarrik, ezkontzea yatorrizko legez austen dau.

§ 2.—Eziñezko eragozpidea ete dagoan, ez ete dagoan, ez legearen aldetik, ez ezkontideenetik argitu ezin danean, ezkontzea ezta galazo bear.

§ 3.—Antzu izate utsak eztau ezkontzea ez ausi ez galazoten.

1069g. araua. § 1.—Alperriko ezkontzea egin gura izango dau iñork lengo ezkontzearen lokarriagaz lotuta dagoala, naita osotu bakoa izan, beste barri bat egiten dauanak.

§ 2.—Lengo ezkontzea edozergaitik utsa nai azkatua izan, ezta zillegi beste barik barria egitea, lengoaren utsa edo azkatua legez eta ezpai barik egiztauta egon artean.

1070g. araua. Ugutzau bako norbaitek Elexa katolikoan ugutzatuagaz nai sifisteausietatik nai Elexearen urratzalleen artetik Elexa katolikora itzulikoagaz egiñiko ezkontzea utsa da.

§ 2.—Ezkontidea ezkontzea egitorduan erriaren eritxiz ugutzatua bazan edo bere ugutza eztabaidakoa, 1014g. arauari yarrai, ezkontzea gauzazkotzat emon bear da, ezkontide bata ugutzatua eta bestea ugutzatu bakoa zala argi egiztau arte.

1071g. araua. 1060-1064g. arauetan katolikoaren ta katoliko eztanen arteko ezkontzai buruz agindukoak, katoliko ta kistar eztan arteko ezkontzai be ezarri bear yakez.

1072g. araua. Alperriko lana eleiz-gizonaren ezkontzen ekitea.

1073g. araua. Bardin-bardin, berba ospetsua edo Aita Santuaren lege bereziz ezkontzea austeko indarra dauan berba laua emondako Jaunzaleak egingo leukien ezkontzea be utsa litzake.

1074g. araua. § 1.—Gizonezko emakume-lapurrraren eta beragaz ezkontzeko asmuz lapurtutako emakumearen artean, emakumea lapurraren eskuetan dan artean, ezin daiteke gauzazko ezkontzarik izan.

§ 2.—Emakume lapurtuak, lapurraren eskuetatik alde eginda gero ta toki segurua ta azkatuan dala, lapurra bere senartzat artu nai balegi, eragozpidea amaituta dago.

§ 3.—Ezkontzearen alperrikotasunari buruz, lapur-ostutea lez da emakumea indarrez norbaitek zaintzea, au da, gizonezkoak andrazkoa bizi zan nai azke eldu zan tokian beragaz ezkontzearen lotuta yagotea.

1075g. araua. Ezin dagike gauzazko ezkontzarik egin:

1.º Legezko ezkontzaz lotuta egozala, alkarregaz aragiz batu eta alkarrieri ezkontzeko itza emon eutsenak; edo ezkontzea bera, naita Laterriko legekeraz bakarrik, egiten ausartu zireanak.

2.º Legezko ezkontzaldi orretan alkarregaz aragiz batu ta eurotariko batek ezkontidea il egin ebanak.

3.º Biok alkarregaz aituta edo eurok euren eskuz edo iñoren eskuz ezkontidea il ebenak, alkarregaz aragiz nastuta nai nastu barik.

1076g. araua. § 1.—Lerro artezean senide direan artean ezkontzea utsa da, bai gorantzako nai berantzako edozein mallatan, senidetasuna legezkoa nai sasikoa dala.

§ 2.—Zearretarako lerroan irugarren mallarañoko senideen arteko ezkontzea utsa da; alan be, bion ezkontzeko eragozpidea ezta askotuten, ezkongeien sorburua askotuten dan beste bider baño.

§ 3.—Ezpedi ezkontzarik egiten itxi, ezkongeiak lerro artezean edozein mallan, nai lerro zearreko lelengo mallan senideak direalako ezpairik dagoan artean.

1077g. araua. § 1.—Lerro artezeko aidetasunak edozein mallatan austen dau ezkontzea; lerro zearrekoak, bigarren mallarañio.

§ 2.—Aidetasunezko eragozpidea askotzen da:

1.º Bera sortzen dauan senidetasun-eragozpidea askotzen danean.

2.º Ezkontide zanaren senideagaz gero be ezkondurik.

1078g. araua. Agiriko lotsa-eragozpidea osotu nai osotu bako ezkontza utsetik, eta agiriko edo edonork ezagun dauan oekidetzatik sortzen da, ta ezkontzea gizonezkoaren artean eta emakumearen lerro artezeko lelengo ta bigarren mallako senideen artean, eta okerretara, austen dau.

1079g. araua. 768g. arauan erabagiten dan gogozko aidetasunak bakarrik austen dau ezkontzea.

1080g. araua. Legez norbere seme-alabatza artzetik sortzen dan legezko senidetasunak Laterriko legez alkarregaz ezkondu-eziña daukenak, Elexearen legez be ezтира gauza alkarregaz ezkontzeko.

V Atala

Eskontzeari buruzko bayetza

1081g. araua. § 1.—Ezkontzea legez artarako gauza direan ezkogayen legez agertutako bayetzak egin daroa; bayetza ori ordeztuko alik eztauko inork gizakumeen artean.

§ 2.—Ezkontzako bayetzak umeak sortzeko bear dana egiteko ezkontide biak alkarren gorputzai buruz eskubide betikoa ta bakarria alkarreri emon eta alkarre-gandik artzeko dauken guraria agertzen dau.

1082g. araua. § 1.—Ezkontzako bayetza ori emoteko bearrekoa da ezkontzea umeak sortarazteko gizonaren eta emakumearen arteko alkartze iraunkorra dala yakitea; ezkontide batak bakarrik be ori ezpaleki, elegoke ezkontzarik.

§ 2.—Ez-yakin ori bein gizarora eldu direanen artean inork daukanik ezta uste izaten.

1083g. araua. Ezkontidea nor danari buruzko uste okerrak ezkontzea ausi egiten dau.

§ 2.—Ezkontidea zelangoa danari buruzko okerrak, naita ezkontzeko ziyoari buruzkoa izan, ezkontzea ausi leike, bakarrik:

1.º Zelangotasunari buruzko okerra nori buruzko okerra izan baledi.

2.º Lagun azkatua azkatutzat daukan lagunagaz ezkontzen dalakoan benetako yopu danagaz ezkondu baledi.

1084g. araua. Eskontzearen batasunari eta azkatu-eziñari eta ikurton-izanari buruzko okerrak, ezkontzearen ziyo izanda be, ezta karkio kalterik ezkondu teko bayetzari.

1085g. araua. Eskontzea utsa dala yakiteak nai uste izateak eztau berez ezkonduen baietza eziña egiten.

1086g. araua. § 1.—Norbaitek ezkontzaldian esaten dauazan itzakaz edo gorputzaren eragiñakaz agertuten dauan guraria benetan berak barruan gure dauanagaz baterakoa dala uste izaten da.

§ 2.—Alan be, ezkontide batak nai biak euren barruko benetako gurariz ezkontzerik nai ezpaeben, edo ezkonduen arteko aragiz batzerako eskubiderik emon nai ez, edo ezkontzeak bere-berea dauan izatasunari buruzko beste zerbait nai ezpaeban, ezta be benetako ezkontzarik egin.

1087g. araua. Eztago ezkontzarik indarrez nai inork artarako eskubide barik sartu dautsan bildur larriz esandako bayetzagaz egin baledi be, zemaizen dautsan gatzik etorri ezta kion bildurrak nai ta nai ez ezkondu-bearra balekarkio.

§ 2.—Ostantzeko bildurrak, naita ezkontzeari bidea egin, eztau ezkontzea austen.

1088g. araua. § 1.—Gauzazko ezkontzea egiteko bearrekoa da ezkontzen direanok biak batera bertan egotea, edo eurak edo euren ordezkoen bidez.

§ 2.—Senar-emazte-geyok euren bayetza itzez emon begie; etxake zillegi esangura bardiñeko gorputzaren eragiñakaz emoterik, itz egin al badabe.

1089g. araua. § 1.—Goterkiko arazo oneri buruzko aginduak makaldu barik, ordezkoren bidez gauzazko ezkontzea egiteko beren-beregiko ordezkotasuna bear da urligaz ezkontza-itunbena egiteko, eta ordezkotasun ori emoten dauanak izenpetuta eta ezkontzea egiten dan tokiko parroki-zañiak edo Goterkizañiak, edo batak nai besteak ordeztu daben abadearen edo gitxienez lekuko biren izenakaz egiña izan bedi.

§ 2.—Ordeztuten dauanak idazten ezpaleki, ordeztutean bertan esan bedi ori, eta agirian izenpetutako dauan beste lekuko bat be generatu bedi; ostantzean ordeztutea ezta gauza.

§ 3.—Aginduten dauanaren izenean ordezkoak itundu baño lenago agindua atzeratu balegi, edo zoratu baledi, alperrikoa izango da ezkontzea, nai ordeztuak nai itunbena egiten daben besteak gora-berok yakin ez.

§ 4.—Ezkontzea gauzazko izateko, ordeztuak berak egin bear dau bere egitekoa.

1090g. araua. Ezkontzea alkarren izkuntzea ezta kien artean be egin daiteke, bata besteari diñotsana adierazlearen bitartez ulertuta.

1091g. araua. Ordezko adierazlearen bitartez egiteko ezkontzara ezpedi parroki-zaña eldu bidezko ziyoz baño eta ordezkotasuna legez eginda dagoala ta adierazlearen zintzotasunari buruz ezertariko ezparririk izateko lekurik eztagola ikusita gero; ta astirik balego, Goterkizañaren baimenagaz.

1092g. araua. Baldintza bein iminia atzeratu ezik:

1.º Nai ta naiez etortekoa, nai eziña, nai gaiztoa bada, ez baño ezkontzearen izatasunaren aurkakoa, ez iminikotzat euki bedi.

2.º Ezkontzaren izatasunari aurkazko etorkizunekoa balitz, ezkontzea ausi egingo leuke.

3.º Etorkizunekoa eta zillegia balitz, ezkontzea benetan egitea atzeratu egiten dau baldintza bete artean.

4.º Lenagokoa nai une artakoa bertakoa balitz, ezkontzea edo gauza izango da edo ezta izango, baldintzapekoa egi balitz edo ezpalitz.

1093g. araua. Eragozpideagaitik ezkontza utsa egin arren, orduan emondako bayetzak, atzeratua izan dala erakutsi artean, badirauala uste izaten da.

VI Atala

Ezkontzea zelan egin?

1094g. araua. Parroki-zañaren edo Goterkizañaren aurrean, edo batak edo besteak ordeztutako yaupariaren eta gitxienez lekuko biren aurrean egindako ezkontzea bakarrik da gauzazkoa; alan be, emen urrengo arauetan ezarten direan aginduen neurrian, eta 1098, 1099g. arauetan aitaututen direan yazoera berezietan ezik.

1095g. araua. § 1.—Parroki-zaña ta Goterkizaña zuzen onez dira ezkontzan buru:

1.º 334, § 3 eta 1444, § 1g. erabagiten dan lez bizibidearen yabetzea artu edo euren zeregiña betetzen asi direan eguna-ekero bakarrik, epaibidez Elexatik arrotzuta edo eragotzita edo euren zaintza-eskubidea etenda ezpadabe, edo atari-kotzat iragarrita.

2.º Euren barrutiko muga-barruan bakarrik; euren barrutian, barriz, ez bakarrik euren menpekoen ezkontzetan, baita menpeko etxakezanan ezkontzetan be zuzen onez dagoz.

3.º Iñork indarrez nai bildur larriz beartu barik ezkontideen bayetza eskatu ta artzekotan bakarrik.

§ 2.—Parroki-zañak eta Goterkizañak euren barruti barruan egiten direan ezkontzetara euren ordeztuteko eskubidea beste yaupari bateri be emon dagikioe.

1096g. araua. 1095, § 2g. arauaren erara ezkontza egiteko emondako baimenak urlia yaupariari urlia ezkongayen ezkontzarako izan bear dau; edozein ezkontzarako baimenik emoteko eskubidea kenduta dago, yaupari ordeztua parroki-zañaren laguna ezpalitz, eta ordeztu egitea bere parroki-barruan egingo direan ezkontzetarako baño izan ezik, osterantzeko ordeztutea utsa litzake.

§ 2.—Parroki-zaña ta Goterkizañak ezpegie emon euren ordeztuteko eskubidea, ezkongayen legezko gaitasuna argi egiztauta gero baño.

1097g. araua. § 1.—Parroki-zañak eta Goterki-zañak ezkontza egitea zillegi dabe:

1.º Ezkontzekoen eragozpiderik ezari buruz yakitun yarrita gero.

2.º Ezkontzide batoren nai bestearen bizi-tokian edo bizi-toki-antzekoan edo illabeteko bizitokian, edo, edonongoa balitz, ezkontzea egitorduan beintzat, ezkontzen direan tokian dala yakinda gero.

Or 2.zn. aitaututen direan bearrekoen utsean, bizitokiko edo bizitoki-antzekoa edo illabete ezkeroko bizitokiko parroki-zañaren edo Goterkizañaren baimena aukita gero; bizitokirik inon eztaben edonongoak edo bidean doazanak ezpalira, edo baimena eskatu-bearretik azkatuten dauan ezkondu-bear larriren bat ezpalego.

§ 2.—Geyen baten erabili bear dan legea, bidezko ziyoen batek bestera egitea eskatu ezpalegi, ezkontzea emazte-geyaren parroki-zañaren aurrean egitea izan

bedi; alan be, ezkongeyok biak katolikoak, baña yaureskera banakoak direanean, lege bereziak bestera agindu ezik, ezkontzea senargeyaren yaureskeran eta bere parroki-zañaren aurrean egin bedi.

§ 3.—Legeak agindutako baimen barik ezkontzen baten bertako dan parroki-zañak eztauz irabazten zeregin orreri ezarrirako sariak, eta ezkonbarrien parroki-zañari bialdu bear dautsoz.

1098g. araua. 1095, 1096g. arauak aginduten daben lez ezkontza egin bear dauan parroki-zaña nai Goterkizaña, nai eurok ordeztutako yauparia neke andi barik ekarri ezin balebe edo ezkontzekoak eurotariko inorgana bardin neke andi barik eudu ezin balediz:

1.º Eriotza-zorian gauzazko ta zillegi da lekuko bien aurrean egiten dan ezkontzea; baita eriotza-zoritik ataz be, gauzak illabetean bardin iraungo dabela agiri baledi.

2.º Yazoera biotan eldu leiteken yaupari bat eraz balego, deitu egin bear dabe, ta lekukoakaz batera ezkontzan egon bear dau; orraitio, lekukoan aurrean bakarrik egingo litzaken ezkontzea gauzeztu barik.

1099g. araua. § 1.—Emen goragoan erabagita dagoan erea betetako beartuta dagoz:

1.º Katoliko Elexan ugutzatuak guztiak, eta sineskintza ausitik edo Elexeagandik banandutakoan artetik bertara itzuliak, naita, bai areik bai oneik geroago Elexatik alde egiñak izan, euren artean ezkontzen badira.

2.º Or aitautuko guztiok, bai ugutzatuko nai ugutzatu bako katoliko ez-tireanakaz ezkontzen direanean, baita katoliko nai kistar ez izanaren eragozpidetik azkatuta gero ezkondu balediz be.

3.º Sorkaldetarrak, eskontzakera onegaz lotuta dagozan Lateldarrakaz ezkontzekotan.

§ 2.—Or § 1, 1.º agindua zutunik gelditzen dala, katoliko ez-tireanak, bai ugutzatuak bai ugutzatu bakoak izan, euren artean ezkondu balediz, eztagoz inon katolikoan ezkontza erea erabilten beartuta; bardin katoliko ez-tirean gurasoakandik yayoak, naita Elexa katolikoan ugutzatuak izan, umetandik sineskintza ausien artean nai Elexatik banandutakoan artean nai ezertariko Jaunari buruzko zer barik aziak katoliko ez-tan norbaitegaz ezkontzen direanean (1).

1100g. araua. Ezin bestean izan ezik, ezkontzea egitorduan erabili bediz Elexeak artarako idaztietan aginduta daukazan oitutz eta egikerak, edo ontzat emondako ekanduak.

1101g. araua. § 1.—Ezkontzideak legezko onespina artu dagien parroki-zañak alegiñak egin begiz; onespen ori ezkondu luzaro bizita gero be emon daiteke, baña yaupa-barruan bakarrik.

(1) Azkenengo zati au 1948'n kenduta dago.

§ 2.—Legezko onespén ospatsua ezkontza zuzen onez eta lege dan lez eldu egin daiken yaupariak bakarrik, edo berak edo iñoren bidez, emon dagike.

1102g. araua. § 1.—Ezkontide bata katolikoa eta bestea katoliko ez-tanen artean egiten dan ezkontzan itaunak 1095, § 1, 3.ºg. arauak aginduten dauan lez egin bear dira.

§ 2.—Baña Kistarren ezkontzea bedeinkatzeko esan eta egiten direan zer guz-tiak galazota dagoz; galazo orretatik kalte andiagoak letorkezala agiri baledi, Mezea ez beste otoitz eta zer batzuk esan-egiten utzi dagike Goterkizañak.

1103g. araua. § 1.—Ezkontzea egin ezkerro parroki-zañiak len baño len idatzi begiz ezkontza-idaztian ezkontideen eta lekukoén izenak, egindako ezkontzea non eta zein egunetan egin zan eta ganekoak, yaures-kerá-idaztiak eta Goterkizañiak aginduten daben lez; eta lan au berak egin bear dauana da, naita ezkontzaldian edo berak edo Goterkizañiak ordeztutako yaupa-ria izan.

§ 2.—Ganera 470, § 2g. arauan aginduten dan lez, Ugutza-idaztian be oartu begi parroki-zañiak ezkontidea arako egunean bere parrokian ezkondu zala. Ez-kontidea beste nunbaiten ugutzatua balitz, ezkontzako parroki-zañiak egindako ezkontzearen barria, berak edo Obispo-idazkolaren bidez, ugutzako parroki-zañari bialdu begio ezkontzea ugutza-idaztian aitatu dadintzat.

§ 3.—Ezkontzea 1098g. arauak diñoan lez egiten danean, egindako ezkon-tzearen barria legeak aginduten dauan idaztietan ezarri daiten alegiñak egiteko beartuta dagoz: bertan izan balitz, yauparia; ostantxean, lekukoak eta ezkonduak.

VII Atala

Ixileko ezkontzeak

1104g. araua. Ziyo aztun be aztun eta estu be estuagaz bakarrik Go-terkizañiak berak bakarrik, ta ez bere Danerako Ordez-koak, utzi dagike ixileko ezkontzea egiten, au da, ezkontza-deirik egin barik eta ixilik, urrengo arauak erabagiten daben lez.

1105g. araua. Ixileko ezkontzea egiteko baimenak bertara elduten di-rean lekukoén, Goterkizañaren ta onen ondorengoén aldetik ixilpekoea yagoteko agindua ta bearkun aztuna daroa aldean; bardin beste ezkontidearen aldetik be, beste ezkontideak ezkontza orren barririk zabaldu dai-tenik gura ezpalegi.

1106g. araua. Agindu au yagon-bearrik eztauko Goterkizañiak ixilpe-koa yagotetik iñoren ikara txarra edo ezkontzearen san-tutasunaren kalte andiak baletorz, edo gurasoak orretariko ezkontzatic sortutako umeak ugutzatutako ardurarik erakusten eztabenean, edo guzurrezko izenak ugu-tzatuten dabezanean emonda, bitartean ogeta amar egun barru sortu ta ugutza-tutako umeen barri eta gurasoen egizko izenik zintzo agertuten eztautsenean, umeen kistar-azi-ekuntzeari be yaramonik egiten eztautsenean.

1107g. araua. Ixileko ezkontzea ezta ezarri bear guztientzako ezkon-tza-ugutza-idaztietan, Obispo-idazkolako ixileko agirite-gian yagon bear dan idazti berezian baño.

VIII Atala

Ezkontzea noiz eta non egin bear?

1108g. araua. § 1.—Ezkontzea edozein urte-arotan egin daiteke.
§ 2.—Ezkontzearen onespén ospatsua bakarrik galazoten da Abenduko lelengo igandetik Jaunaren yayotza-egun bertaraño; ta Auts-egune-tik Pazko-Iganderaño bertaraño.

§ 3.—Alan be, yaurespideen legeen kalte barik eta ezkontideak astrapala larrik ez erabilteko oarturik, Goterkizañiak esandako egunetan be ezkontzeko baimena emon dagike.

1109g. araua. § 1.—Katolikoén ezkontzea parroki-elexan egin bedi; beste elexa baten, nai agiriko nai erdi-agiriko otoiztegian, Goterkizañaren edo parroki-zañaren baimenagaz bakarrik egin daiteke.

§ 2.—Ezkontzea bakotxaren etxean egitea alango baten ziyo zuzen eta bi-dezkoak eskatu balegi, itxi leiteke; orraitio eleiz-gizon-geyak azi-eziteko edo andrazko Jaunzaleen etxeko elexan nai otoiztegian ezkontzeko baimenik ezpegie emon ezin bestean baño eta orretariko etxekoak ezkontzea egiten ikustetik peka-tu-biderik artu eztagien bear litzakena eginda.

§ 3.—Orraitio, katolikoaren eta katoliko eztanaren arteko ezkontzak elexatik kanpoan egin bediz; baña lege au kalte andiagoak ekarri barik ezin leitekela bete baderitxo Goterkizain zurrari, bere aukera zurrean dauko lege au azka-tzeko eskubidea; alan be, 1102, § 2g. arauan erabagiaren kalte barik.

IX Atala

Ezkontzearen atzeak

1110g. araua. Gauzako ezkontzatic ezkontideen artean berez betiko ta bakana dan lokarria sortzen da; ganera, kistar-ez-kontzeak eragozpenik iminten eztautsen eskontideai Jaunaren grazia be emo-ten dautse.

1111g. araua. Ezkontza-bizikerako eskubide-eginbearrai buruz ezkondu ezkeroko lelengo unetik ezkontide biak bardiañak dira.

1112g. araua. Berarizko legez bestera erabagita ezpalego, ezkondu ez-keró, emaztea senarraren giza-mallako egiten da.

1113g. araua. Egin-bear aztuna baño aztunagoa dauke gurasoak euren umeen azikuntzaz arduratzeko, bai Jaureskuntzeari bai giza-bizikereari, gorputzarenari nai arimearenari buruz; eta bai bizitza onetako ondasunak areintzat zuzentzeko be.

1114g. araua. Jaunzaletzako berba emote ospetsuagaitik edo lendanik artutako eleizgizontze santuagaitik lenago egindako ezkontzearen eskubideak erabiltea umeak sortutaldian galazota ezpaeuken, legezkoak dira gauzako nai alan ustezko ezkontzatik sortu ta yayotako umeak.

1115g. araua. § 1.—Aita legezko ezkontzeak erakusten dauana da, agiri-agirian beste norbait izan dala erakutsi ezik.
§ 2.—Ezkontzea egin ezkerotik sei illabete geroago, edo ezkontza bizikerea ausita amar illabete barruan yayoten direanak legezkotzat emoten dira.

1116g. araua. Nai egizkoa izan nai alan ustezkoa izan, nai lelengoz egin eben ezkerotik alangoa izan nai geroago gauzatzua izan, osotu bakoa izan arren be, gurasoen geroko ezkontzaren bitartez, sorkaldian nai yayotaldian gurasoak alkarregaz ezkontzeko gai baldin bazirean, umeak legezkotu egiten dira.

1117g. araua. Geroko ezkontzearen bitartez legezkotuko umeak, Eleizlegeari buruz, alangoen baten osterantzekorik oartu ezik, danean legezkoen bardin egiten dira.

X Aitak

Ezkontideen banandutea

I Aitakia

Ezkontza-lokarria azkatutea

1118g. araua. Gauzako ta osotuko ezkontzea eztagike inork ausi ezertariko giza-alez, ez ezertariko ziyoz, eriotzeaz izan ezik.

1119g. araua. Osotu bako ezkontzea, ugutzatuen artekoa edo ugutzatuko ezkontidearen eta ugutza-bakoaren artean egina, ausi daiteke, bai legez Jaunzaletzako berba ospetsua emonagaz, bai ziyoz zuzenagaz, ezkontide biak nai batak bakarrik eskatuta, besteak gure ez-arren be, Aita Santuak emondako azkatzearen bidez.

1120g. araua. § 1.—Ugutzatu bakoaren arteko legezko ezkontzea, osotua izan arren siñeskintzaren aldeko Paul santuaren eskubide bereziaren bidez austen da.

§ 2.—Eskubide orrek eztauko zereginik ugutzatuko ezkontidearen ta ugutzatu bakoaren arteko ezkontzea legezkoa izateko eragozpidetik azkatuta gero egina danean.

1121g. araua. § 1.—Kistartu ta ugutzatu dan ezkontideak gauzako ezkontza barria egin baño lenago, 1125g. arauan aginduaren kalte barik, ugutzau bako ezkontideari urrengo itaunai erantzun-erazo bear dautso:

1.º Ia berak be kistartu ta ugutzatu nai dauan ala ez.
2.º Ia gitxienez bakean Jaungoikoa iraindu barik biziten yarraitu gura dauan ala ez.

§ 2.—Itaun oneik beti egin bear yakoz, Aita Santuak besterik erabagi ezpalegi.

1122g. araua. § 1.—Itaunok geyen baten kistartu danaren ezkontidearen Goterkizañak lau-lau eta auzitegira barik begiz; eta Goterkizain orrek eskatu balegi, kistartu eztan ezkontideari be arazoa begiraturteko astia emon bear dautso; eta emon yakon epea erantzun barik yoan baledi, erantzuna ezezkotzat artuko dala oar begio.

§ 2.—Or goyan esandako itaunkerea ezin egin baledi, ezkontide kistartuak berak bakarrean egindako itaunketak be gauzazkotzat eta zillegitizat be emon bear dira; baña ori yazoten danean zer guztiak agiriko auzitegian gitxienez lekuko biren bidez edo beste legezko bidez egiztatu bear dira.

1123g. araua. Orreik itaunok, Aita Santuak ontzat emonda, egin ezpalira, eta ezkontide ugutzatu bakoak ez agirian ez osantxean erantzunik emon ez arren, ezkontide ugutzatuak ugutzatuagaz ezkontza barria egiteko eskubidea eztau galdu, berak, ugutzatuta gero, ugutzatu bako ezkontideari beragandik alde egiteko bidezko ziyorik emon ezpadautso.

1124g. araua. Ezkontide kistarrak ugutzatuta gero be barrero kistar eztan ezkontideagaz batera biziarren, ezkontide katolikoagaz ezkontza barria egiteko eskubidea eztau galtzen; orregaitik eskubide ori erabili leiteke, kistar eztan ezkontideak, gogoia aldatuta, bidezko ziyoz barik alde egin balegi, edo Jauna iraindu barik bakean batera bizitekoa ezpaledi.

1125g. araua. Paul IIIgarren *Aliitudo* 1557garren Bagillaren lelengo Idazkian, Pio V-garren *Romani Pontificis* 1571 garreneko agorrillaren 2-garrenekoan; Gergori XIII garren Urtaillaren 25-garrenekoan ezkontzeari buruz erabagiak, toki berezietarako idatziak izan arren ebazkizun bardiña daben beste tokietara be zabalatzen dira.

1126g. araua. Kistar etzireala egindako lenagoko ezkontzearen lokarria, kistar ezkontideak gauzako ezkontza barria egiten dauanean, azkatu egiten da.

1127g. araua. Ezpaya legokenean, kistar siñeskintzearen aldeko eskubide bereziak legea bere alde dauko.

II Aitakia

Ezkontideak os, mai ta etzeari buruz banandutea

1128g. araua. Ezkontideak ezkontza-bizitza batera egin bear dabe, bidezko ziyoen batek banandu-bearra ezpadakarkioe.

1129g. araua. § 1.—Ezkontide bata beste inogaz aragiz batu baledi, beste ezkontideak, ezkontza-lokarria ausi barik, batera bizitea, betiko be, etenduteko eskubidea dauko, ezkontideak gaiztakeri ori bere bayezkoagaz baldin egin ezpalegi, edo berari bidea emon ezpaleutso, edo nai agirian nai ixilean parkatu ezpaleutso, edo berak be beste ainbeste egin ezpaleutso.

§ 2.—Ixileko parkatzea dago, ezkontide errubakoa bere ezkontidea inogaz aragiz batu dala yakinda gero, berorregaz bere oldez senar-emaztea lez bizi baledi; parkatu dautsala uste izateko bidea dago. sei illabete barruan ezkontide ezkontza-auslea etxetik ez yaurtigi, ez beragandik alde egin, ez legearen arauz salatu ezpalegi.

1130g. araua. Ezkontide errubakoak nai epaikariaren epai bidez, nai bere erabagiz legez alde egin balegi, eztauko ezkontide ezkontza-auslea batera biziteko barriro ezertariko artu-bearririk; eskubidea dauko barriz, barriro batera biziteko artzeko nai artzera beartuteko, bere baimenagaz ezkontzearen aurkako bizikerea artu ezpaleu.

1131g. araua. § 1.—Ezkontide bata katoliko eztan gizabatzen baten bazkidetu baledi; umeak katoliko-eraz azi-ezi ezpalegiz; ezkontideari nai arimeari nai gorputzari buruzko kalte andiren bat balekarkio; basatikeriakaz baterako bizitza garratzegi egin balegi; oneik eta onetarikoak beste ezkontidearentzat alde egiteko beste ainbeste legezko ziyo dira, Goterkizañaren erabagiz, eta bai norbere erabagiz be, agirikoak balira eta gerorako iztean arriskurik balego.

§ 2.—Onango zeretan, bananduta biziteko ziyoak yoan balira, barriro batera bizitera egin bear dabe; baña Goterkizañak epe izentauam nai izentau bakoan alkarregandik bananduta bizitea erabagi balegi, ezkontide errubakoa eztago artara beartuta, Goterkizañak agindu ezik edo epea beteta gero baño.

1132g. araua. Alkarregandik banandute ori egin ezkeru, umeak ezkontide errubakoaren menpean azi-ezi-bear dira, ta ezkontide bata katolikoa ezpalitz, ezkontide katolikoaren menpean, umeen euren onerako ta euron azi-ezikuntza katolikoaren kalte barik, Goterkizañak bestera erabagi ezpalegi.

XI Atala

Ezkontza utsa zelan gauzazko egin

I Atalka

Gauzaztute utsa

1133g. araua. § 1.—Ausi egiten dauan eragozpideagatik utsa dan ezkontzea gauzazko egiteko, eragozpidea berez amaitzea edo azkatutea ta eragozpiderearen yakitun dan ezkontideak gitxienez bere bayezkoa barriro emotea bear dira.

§ Bayezkoa barriro emote ori Eleiz-legez gauzazko egiteko bear da, nai ta lengo ezkontzaldian bayezkoa biak emon eta inoiz atzeratu ez.

1134g. araua. Asieran utsa izan zala agiri dan ezkontzako bayetza barriro emoteko bayezko barria emon bear da.

1135g. araua. § 1.—Eragozpidea agirikoak danean, bayetza ezkontide biak barriro legez agindutako eraz emon bear dabe.

§ 2.—Ixilekoa ta ezkontide biak ezaguna balitz, naikoa da ezkontide biak bakarrean eta ixilean bayetza barriro emotea.

§ 3.—Ixilekoa ta ezkontide batari ezaguna ezpalitz, naikoa da eragozpidea dakian ezkontideak bakarrean eta ixilean bayetza barriro emotea, beste ezkontideak emondako bayetzak balirau.

1136g. araua. Bayetza-ezagaitik utsa dan ezkontzea, bayetza emon ez eban ezkontideak emotea naikoa da gauzazko egiteko, beste ezkontideak emondako bayetzak baldin balirau.

§ 2.—Bayetzik eza barrukoa bakarrik izan baledi, naikoa da bayetza emon ez eban ezkontideak emotea.

§ 3.—Bayetzik eza be ezaguna izan baledi, oraingo bayetzak be agirikoak izan bear dau, nai legeak agindutako eraz, edo beste bakarreango ta ixileko edozein eraz egiña, ixilekoa balitz.

1137g. araua. Legezko ezkontzakerea izan etzalako utsa litzaken ezkontzea gauzazko egiteko, legezko eraz egin bear da.

II Atalka

Susterretiko gauzaztutea

1138g. araua. § 1.—Ezkontzearen susterretiko osatuteak edo gauzaztuteak auxe egiten dau: eragozpidea azkatu edo kendu ta bayetza barriztu-bearra aginduten dauan legea be azkatu, ta ganera ezkontzea lelengoiz egin zan ezkeru ondo eginda bailegokean, aren ondorenak legezkozatzat emon.

§ 2.—Gauzazkotutea emon ezkeru, ezkontzea, beste barik, gauzaztuta dago; ezkontzea ezkeroko egiñak ondo egiñikotzat emoten badira, besterik argi esan ezik, ezkontzearen asietarik asita geroko guztiak artzen ditu.

§ 3.—Bayetza barriztau bearreko legetik azkatzea, ezkontide batak nai biak eztakiela be, emon leiteke.

1139g. araua. § 1.—Berez naikoa zana, baña eleiz-legezko eragozpide ausigarriagaitik edo legezko ezkontza-eraren ezagaitik utsa izan zan ezkontzea, naita ezkontide bien bayetzagaz egiña izan, susterretik osatu leiteke oraindiño bayetzean badiraue.

§ 2.—Yatorrizko edo Jaunaren legezko eragozpideagaz egindako ezkontzea,

naita gero eragozpidea berez yoan, Elexeak ezta susterretik gauzaztuten, ezta eragozpidea berez yoan zanezkerotik be.

1140g. araua. § 1.—Ezkontide bietan, nai batean nai bestean bayetzaren utsa izan balitz, ezkontzea ezin leiteke susterretik osatu, ez bayetzaren utsa asieratikoa danean, ez asieran emona ta geroago atzeratua danean.

§ 2.—Bayetzak asieran uts egin baleu, baña gero emon, susterretiko osakuntzea emon leiteke, bayetza emon eban unetik gerorako.

1141g. araua. Susterretiko osatutea Aita Santuak bakarrik emon dagike.

XII Atala

Bigarren ezkontzak

1142g. araua. Alarguntza garbia txalogarriagoa izanarren, bigarren eta urrengo ezkontzak be gauzazko ta zillegi dira, 1069, § 2g. arauaren agindua zutunik gelditzen dala.

1143g. araua. Onespen ospatsua bein artu dauan emakumeak ezin dagike barriro artu urrengo ezkontzetan.

VIII IDAZPURUA

Ikurton-antzekoak

1144g. araua. Ikurton-antzekoak Elexeak bere otoitz bidez Jaunagandik batez be arimeari buruzko mesedeak lortuteko ikurtonen antzera oitu daroazan zerbaitzuk nai egiañak dira.

1145g. araua. Ikurton-antzeko barriak sortu nai orainartekoak legez atzaldu, nai euretariko batzuk kendu nai aldatu, Aita Santuak bakarrik dagike.

1146g. araua. Ikurton antzekoen legezko emollea artarako eskubidea daukan eta Eleiz-buru egokiak eskubide ori erabiliterik galazo eztautsan eleizgizona da.

1147g. araua. § 1.—Benetako Obispo santutua eztan iñork ezin legikez santututzeak gauzaz egin, legez edo Aita Santuak emonda artarako eskubide berezirik ezpaleu.

§ 2.—Onespenak edo bedeinkatzeak, barriz, edozein yauparik emon dagikez, Aita Santuari nai Obispoai nai beste norbaitzui berezita ezpalegoz.

§ 3.—Bear dauan baimen barik yaupariak emoten dauan onespena ezta zille-

gi, baña gauzazko bai, norbaitentzat berezi dauanean Aita Santuak besterik esan ezpalegi.

§ 4.—Yaupal-otseñak (Diakonoak) eta Irakurleak ezin dagikez emon gauzaz eta pekatu barik, legeak beren-beregi eurai ezarten dautsezanak baño (1).

1148g. araua. § 1.—Ikurton antzekoak egin-emokeran zoli erabili bediz Elexeak ontzat emondako esan-egikerak.

§ 2.—Bai santututzeak bai onespenak utsak dira, Elexeak agindutako esan-egikerak erabili ezik, bai gauzea santutu edo onetsi egiten dabenak, bai Jau-nari santutu edo onetsi dagiala eskatzen dautsenak.

1149g. araua. Onespenak berez katoliko direanai emotekoak dira, baña kistartzeko gogoz ikasten daragoyenai be emon le-gikeoez, eta bai katoliko eztireanai be, benetako siñeskintzearen argiak argitu dagizan eta erabatera gorputzaren osasuna be emon dagioen.

1150g. araua. Gauza santutuak, nai aldean darabilen onespenagaz onetsiak be, beti lotsaz erabili bear dira eta iñoiz bez Jau-nagaz zer ikusirik eztaben edo eztagokien zeretan, nai ta bakotxarenak izan.

1151g. araua. § 1.—Naita norbaitek txerrena edo deabrua yaurtigiteko Elexearen otoitzak esateko eskubidea artu, Goterrik otoitzok iñori esateko. kizañagandik beren-beregiko ta agiriko baimena artu ezpalegi, eztauko eskubiderik otoitzok iñori esateko.

§ 2.—Goterkizañak bere aldetik olango baimenik ezpegio emon iñori, yaupari Jaunzale, sentzun andiko santu-bizikeradunari baño; eta txerrena yaurtigiteko otoitzak esateari ezpegio ekin otoitzok esango yakozana deabruak benetan bere azpiko eginda daukala artarako egindako azterketa zeatz eta zurrak erakutsi ezpalegi.

1152g. araua. Deabrua yaurtiteko otoitzok esan legikeoz legezko eleizgizonak, ez bakarrik deabruak artuta legokezan katoliko ta kistar egiteko dagozanai, baita katolikoa eztirenai edo Eleixatik arrotzua be.

1153g. araua. Ugutza emokeran eta beste santuketa eta onespenetan aurkituten direan deabrua yaurtigiteko otoitzak yaureskuntzok egiten dabezanak eurak esan bear dabez.

(1) Gaurko legez eztago Irakurle dan eleizgizonik.

BIGARREN ZATIA

Toki ta aldi santuak

LELENGO TXATALA

Toki santuak

- 1154g. araua.** Toki santuak dira, Jauna yauresteko edo kistarren gorpuai lurre emoteko, yaureskereari buruzko liburuak aginduten daben lez santutu nai onesten direanak.
- 1155g. araua.** § 1.—Edozein toki santutzea, lekaideena bada be, toki ori dagoan bertako Goterkizañari dagokio, benetako Obispo santutua izatekotan; eta ez bere danerako Ordezkoari, artarako agindu berezia ezpadau; Kardenalak euren izeneko elezea ta yaupamayak santutzeko dauken eskubideak eztau lege onegaitik kalterik artzen.
§ 2.—Goterkizañak, Obispo ezpada be, bere yaureskerako edozein Obispori bere barrutian santutzeok egiteko baimena emon dagikeo.
- 1156g. araua.** Toki santuak onesteko eskubidea, toki ori eleizgizon erritarrena edo Jaunzale azkatu bakoena edo eleizgizon ez tiranena danean, bertako Goterkizañari dagokio; Jaunzale azkatuena balitz, Jaunzale-Buru nagusiari; orraitio, bitzuek be ortetarako beste edozein yaupari ordeztu dagike.
- 1157g. araua.** Edozein kutun-legek kalterik egiten eztautsala, toki santurik santutu nai onetsi, Goterkizañaren edo Jaunzale-Buru Nagusiaren baimen barik inork ez-dagike.
- 1158g. araua.** Egindako santutzearen nai onespeneren ageria iyeki bitan idatzi bedi; iyeki bata zaindu bedi Obispo-idazkolan; bestea, elexearen agiritegian.
- 1159g. araua.** § 1.—Toki bat santutua edo onetsia izan zala, inori kalterik ekarri ezik, eta bere aurka susterreko ezpaibiderik ezpalego, egizkotzat naikoa erakusten dau bertan izandako lekuko bakarrak.
§ 2.—Santutua edo onetsia izan zala yakin ezker, eztago ez bata ez bestea barriro egin bearrik; ziur yakin ezik, bada ezpada barriro egin bedi.
- 1160g. araua.** Toki santuak erriko agintarien menpetik azke dagoz eta eurotan legezko Nagusi eleiztarrak inoren baimen barik agindu daroe.

IX IDAZPURUA

Elexak

- 1161g. araua.** Elexearen izenagaz auxe esan nai dogu: Jaunari zor dautsan gurtza kistar erri osoak bertara eldu ta agirian emoteko eragitako etxe santua.
- 1162g. araua.** § 1.—Ezpedi elezarik eregi Goterkizañak idatziz emondako baimen barik; danerako Ordezkoa ez tator zer onetan Goterkizañaren izen-barruan, beren-beregiko eskubiderik ezpadauko.
§ 2.—Elexa barria eregi ta yagoteko eta eleizgizonen eta beste lagunen Goterkizañak ezpegi baimenik emon.
§ 3.—Elexa barriak lendik dagozanai erriaren irabazi andiogoagaz ordeztuko elitzaken kalterik ekarri eztagioen, Goterkizañak, 1676g. arauan aginduaren kalte barik, bayezkoa emon baño lenago zer ikusirik daben ingunuko eleiz-zañak entzun bear ditu.
§ 4.—Jaunzaleak be, etxe barririk goterkian nai uri baten eregiteko baimena izan arren, elezea nai guztientzako otoiztegia uriko nai goterkiko toki berezian eregiteko, Goterkizañaren beste baimen berezi bat bear dabe.
- 1163g. araua.** Elexearen lelengo arria onetsi ta yartea 1156g. arauan esanai dagokie.
- 1164g. araua.** § 1.—Begiratu begie Goterkizañak, Elexen eregikera nai barrizukera kistar-edestiaren irakatsiak eta elerti yatorraren legeak bete daitezcan, yakitunen eritxia entzunda gero.
§ 2.—Elexan ezpedi erritarren etxera emongo leuken aterik ez leyorik idigi; eta eleiz-azpiko nai ganeko tokiak ezpediz erabili elexeagaz zer ikusirik eztauken zeretarako.
- 1165g. araua.** § 1.—Elexa barrian ezin leiteke eleizkizunik egin, santutze ospatsuagaz edo gitxienez onespeneren bidez yaureskizunetarako gertatu barik.
§ 2.—Elezea geroagoan edozein giza-bizitza-etxe eginda geldituko dala aurrezтик ikusi al baledi, ezpegi Goterkizañak bera eregiteko baimenik emon, edo eregi balitz, gitxienez ezpegi ez santutu ez onetsi.
§ 3.—Ospatsu santutu bediz Obispoaren elezea eta, al dala, Bazar-elexak, Jaunzaleen etxeko elezak eta parroki-elezak be bai.
§ 4.—Zurezko nai burdiñezko nai beste edozein meazko elezea onetsi daiteke, ez baña santutu.
§ 5.—Yaupa maya santutu daiteke elezea santutu barik; baña elezagaz batera yaupamai nagusia be santutu bear da, edo yaupamai nagusia lendanik santuta balego, beste yaupamai bat.

1166g. araua. § 1.—Elexea santutzea edozein egunetan egin al izan arren, egokiago egiten da igandetan edo beste yai-egunetan.

§ 2.—Obispo santutzalleak eta elexea eurentzako santutzea eskatuten dabena santutzearen aurreko egunean barau begie.

§ 3.—Elexea nai yaupamaya santutzen danean, Obispo santutzalleak, barrutian aginpiderik izan ez arren, elexea nai yaupamaya ikusten datozanai urte bete-ko nekazkea emoteko eskubidea dauko; urte-urren-egunean, barriz, berrogeta amar egunekoa, Obispo balitz; eun egunekoa, Obispo-Burua balitz; berreun egunekoa, Kardenala balitz.

1167g. araua. Elexea santutu zaneko egunaren-yaya urtean-urtean yaurespide-legeen arauz ospatu bedi.

1168g. araua. § 1.—Santutu nai onetsiko elexa bakotxak bere izena beuko; elexea bein santutu nai onetsi ezker, Jaunari eskeñita dagoalako, izen ori ezin daiteke aldatu.

§ 2.—Izen-yaya be yaurespide-legeen arauz urtero egin bedi.

§ 3.—Zorioneko baño ez tireanen izenik ez dagike elexeak artu.

1169g. araua. § 1.—Eleiz guztiak kanpayak eukitea egoki da kistarrak yaupara nai beste eleizkizunetara deituteko.

§ 2.—Elexearen kanpayak be santutu edo onetsi bear dira yaurespide-idaztiak dakarrezan otoitz eta beste zerak eginda.

§ 3.—Eurok yotea eleiz-agintarien eskubide da, ez bestena.

§ 4.—Kanpayak emon ebazanak Goterkizañaren baimenagaz ezarri ebazan baldintzen kalte barik, onetsiko kanpaya ezin leiteke yo eleizkizunakaz zer ikusirik eztaben giza-bizitzako beste gora-beratarako, ezin bestean edo Goterkizañaren baimenagaz edo legezko ekanduaren arauz baño.

§ 5.—Kanpayak santutu nai onesteari buruz bete bedi 1155-1156g. arauen agindua.

1170g. araua. Elexeak eztau galtzen ez bere santutzea ez onespina, osorik ausi ezpadabe, edo ormarik geyenak yausi ezpayakoz, edo Goterkizañak 1187g. arauaren erabagiaren neurrian erri-bizikerako zeretari erabilteko utzi ezpalegi.

1171g. araua. Legez santutu edo onetsiko Jaunaren etxean eleizkizun guztiak egin daitekez, parroki-elexen eskubideen, kutton-lege ta legezko ekanduen kalte barik; Goterkizañak, baño, eskubidea dauko bidezko ziyoz eleizkizunen orduak izentatzeko, elexea Jaunzale azkatuena ezpalitz eta 609g. arauaren aginduaren kalte barik.

1172g. araua. § 1.—Elexea ementxe izentatzen direan egiñakaz bakarrik zikintzen da, benetan egiñak, ezagunak eta ele-xan bertan egiñak balira:

1.º Norbait ilteagaz.

2.º Erruzko odol-ixurtze larriagaz.

3.º Elexa zer gaizto ta zantarrak bertan egiteko erabillita.

4.º Kistar etzanaren edo epaikariak Elexatik arrotzu edo arrotzuta egoala agertuaren gorpuari lurra bertan emonagaz.

§ 2.—Elexea zikinguagaitik, illerria, ari dautsela egon arren, eztago zikintzat, eta okerretara be bardin.

1173g. araua. Zikindua izan dan elexan, garbitu baño len eztago eleizkizunik egiterik, ez ikurtonik (sakramenturik) emon terik, ez illik lurperatuterik.

2.º Eleizkizun-bitartean zikindu bada, onei bertatik azkena emon bear yake; Yaupako Kanona orduko nai Yaunartze-ondoan bada, yaupera amaitutzat emon bedi; bestela, yaupariak Yaun-artzerarte, yarraitu begi.

1174g. araua. § 1.—Eleiz zikindua len baño len garbitu bedi ontzat emondako yaureskera-idaztiak esaten dabena lez.

§ 2.—Elexea zikindu ete dalakoan, bada ezpada, garbitu leiteke.

1175g. araua. Elexatik arrotzaren edo kistarra etzanaren gorpua obiratzeagaitik zikindutako elexea ezpedi garbitu aren gorpua bertatik aldendu arte, neke andi barik aldendu al baledi.

1176g. araua. § 1.—Onetsia baño eztaba yaupari eleiz-zañak edo bere baimenagaz edozein yauparik garbitu dagike.

§ 2.—Eleiz santutuaren gauzako garbitzea 1156g. arauan aitaturten direanai dagokie.

§ 3.—Bear larri ta estuan, orraitio, Goterkizañagana yoteko astiriki ezpalego, eleiz santutuaren zañari berau garbitzea zillegi yako, gero Goterkizaña egindakoaren yakitun egiten dauala.

1177g. araua. Eleiz onetsiaren garbitzea ur bedeinkatu ezagunagaz egin daiteke; eleiz santutuarena artarako yaurespide-legeen arauz bedeinkatuagaz egin bedi; ur ori, baño, ez Obispoak bakarrik, elexea garbitzen dauan yaupariak berak be bedeinkatu dagike.

1178g. araua. Dagokien guztiak Jaunaren etxeak zor yakon araztasuna beti izan dagian al dabena begie; aldendu bediz bertatik sal-erosketa guztiak, asmu onezkoak balira be; itz baten, Jaunaren etxeari eztagokion edozer.

1179g. araua. Elexeak gorku-eskubidea dauko; agaitik, bertara iges egindako gaizkiñak, ezin bestean ezpada, ez tira bertatik aterata bear, Goterkizañaren edo, gitxienez, eleiz-zañaren baimen barik.

1180g. araua. Aita Santuak emonda edo antxiña-antxiñatikoa ezpaleu, ezin leitekeo iñongo elexari *Basilika*-izenik ezarri; baxkoxaren eskubide bereziak, barriz, izena emon eutsanak emonak dira.

1181g. araua. Eleizkizunetarako elexara sartzea osoan urrurik izan be-
di; edozein aurkazko ekandu gaitzotzat dago.

1182g. araua. § 1.—1519-1528g. arauetan agindua zutunik gelditzen dala, elexea barriztau ta apaingduteko ta bertan Jaunaren yaureskizunak egiteko izentauta dagozan ondasunak zaintzea, ziyo bereziz edo legezko ekanduz bestera agiri ezik, Obispo-elexea baledi, Obisporari bere Batzarraz batera dagokio; batzar-elexea danean, batzar-elexako batzarrari; beste elexa bat danean, eleiz-zañari dagokio.

§ 2.—Parrokian parrokiari nai belguntzeari lagun egiteko ondasun-emonak, edo parrokiaren edo belguntzearen barrutian dagozan elexai emondakoak be parroki-zañak edo belguntzazañak zaintzen ditu, norik zaindu bereziak leukiezan elexa ta belguntzak ezpalira, edo euren lege nai ekandu bereziak bestera erabagi ezpalegie.

§ 3.—Parrokizañak, belguntzazañak, errigizonezkoen eleiz-zañak, nai gizar-tekoa dala, nai Jaunzalea dala, onetariko opariak eleiz-legeak aginduten daben lez zaindu bear dabez ta bakotxak bere lanaren barri 1525g. arauak erabagiten dauan lez Goterkizañari emon.

1183g. araua. § 1.—Elexearen ondasunak zaintzean besterik, eleiz-gizon nai erritar, sartu baledi, guztiok 1182g. arauko eleiz-gizon-zañagaz edo beronen ordezkioagaz batera ta berau buru dabela, eleiz-zañen batzarra egiten dabe.

§ 2.—Batzar orren bazkideak, legez bestera erabagita ezpalego, Goterkizañak edo bere ordezkoak izentatzen ditu eta berak, ziyo aztunik baleu, kendu be badagikez.

1184g. araua. Eleiz-zañen batzarraren egitekoa, 1522, 1523g. arauen aginduak betetan dauzala, elexearen ondasunak zaintzea da; ezpedi, baña, nastu arimazaintzeari dagokiozanetan, batez be:

1.º Elexako yaureskizunetan.

2.º Kanpayak zelan eta noiz yo, eta elexan eta il-errian gauzak zelan egin bear direan ebazten.

3.º Elexan egin daitekezan ondasun-batzeak, deyak eta Jaunaren-yaureskizunari eta elexearen apainketeari buruzko zeretari edozelan erabagiten.

4.º Yaupamayak zelan yarri, Geure Jauna emoteko maya, itzaldiak erriari egiteko aurki edo lekua zelangoa izango eta non yarriko, organua, abeslariak non yarriko, yarleku, ukarrak artzeko kutxa eta yaureskizunari buruzko beste zeretari.

5.º Bai batzuk eta besteak erabilteko ontziak, bai Jaunaren yauresketarako, bai elexea nai sakristia yantziteko diran gauzak artu nai ez artzean.

6.º Parrokiaren eta bere agiritegiko idazti agiriak zelan idatzi, yarri ta zaindu bear direan erabagi-gurean.

1185g. araua. Sakristi-zaña, abeslariak, organu-yotzallea, mutiko-abeslariak, kanpai-yolea, il-erriko zulo-giñak ta ganeko eleiz-morroyak eleiz-zañak berak bakarrik izentau, bere menpeko yagon eta kendu egiten ditu, legezko ekanduak eta itunbenak besterik erabagita euki ezik eta Goterkizañaren eskubideen kalte barik.

1186g. araua. Legezko ekandu ta itunben berezien kalte barik, eta Larterri-legez norbaiteri legokion eskubidearen kalte barik:

1.º Obispo-elexea barriztutea urrengo mallarik-mallariakoai dagokie:

a) Elexearen ondasuntzeari; Jaunaren yaureskizunak egiteko ta eguneroko elexea-zaintzeak bear dauana alde itzita.

b) Obispoari ta Obispo-elexako Batzarreko bazkideai, bakotxak bere ar-tuenaren neurrian, berak generaz biziteko bear dauana kenduta.

d) Goterkiko kistarrari; orraitio, Goterkizañak indarrez barik maitez ekarri begiz barriztuteko bearko dana emoten.

2.º Parroki-elexea barriztuteko bearko dana emotea mallarik-malla urrengoai dagokie:

a) Parroki-elexearen ondasunai.

b) Patroyari.

d) Elexatiko ondasunetatik artzen dabezanaai Goterkizañak ezarriko dautsen eunetik onenbestekoagaz.

e) Parrokitarrari; alan be, Goterkizañak agindu baño obeto eskatu egingo dautse.

3.º Gitxi-gora-bera bardin egin bedi barriztu-bearra dauken beste elexai buruz be.

1187g. araua. Elexaren bat Jaunaren yaureskizunetarako ezertara be ezin erabili baledi eta barriztuteko bearko litzakezanak zuzentzeko ate guztiak itxita balegoz, aurrerantzean erri-etxeari dagokiozan zeretari erabili daitekela erabagi dagike Goterkizañak, ez orraitio zikiñetan; eta elexa orrek eukazan egin-bearrak bere ondasunakaz, eta parroki-izana balitz, parroki-izena ta guzti, Goterkizañak berak beste elexa batera aldatu begiz.

X IDAZPURUA

Otoiztegiak

1188g. araua. § 1.—OTOIZTEGIA Jauna yauresteko etxea dogu, ez baña kistar-erri osoa artarako bertara etorri daiten.

§ 2.—OTOIZTEGIA dogu:

1.º *Agirikoa*, giza-batzen baten edo bertaratuten direan kistar batzuen onerako batez be eregia izan arren, kistar guztiak, Jaunaren yauresketarako batez be, bertara elduteko legez ontzat emondako eskubidea daukana;

2.º *Erdi-agirikoa*: Giza-batza baten edo bertara datorzan kistar batzuen erosotasunarako eregia danean, eta bertara etortea edonoren eskuan ezpadago;
3.º *Bakotxena* edo *etxekoa*, bakotxaren etxean etxekoentzat bakarrik eregia danean.

1189g. araua. Erroma'ko Elexa Santuaren Kardenalak eta goterkigun nai izen utsezko Obispoak daukezan otoiztegiak, bakotxarenak izan arren, otoiztegi erdi-agirikoen eskubideak daukez.

1190g. araua. Sendi batek nai norbaitek il-errian eregitako otoiztegi-
txoak bakotxaren otoiztegiak dira.

1191g. araua. § 1.—Agiriko otoiztegiak eleax langoxe legeak zain-
tzen dabez.

§ 2.—Agaitik agiriko otoiztegiaren, Goterkizañak ontzat emonda, onetsita nai santututa eta 1155, 1156g. arauen neurrian, Jauna bertan yauresteko izentauta balego, yaurespide-legeen kalte barik, eleizkizun guztiak egin daitezke.

1192g. araua. § 1.—Erdi-agiriko otoiztegiak ezin leitekez eregi Goter-
kizañaren baimen barik.

§ 2.—Goterkizañak ezpegi baimenik emon berberak edo beste eleizgizon baten bidez otoiztegia ikusi ta bear dan lez yantzita idoro ezpalegi.

§ 3.—Bayetza emon ezker, otoiztegia ezin leiteke erabili santu eztiaren etxeko beste tokiak lez.

§ 4.—Gaztedia azi-eziteko ikastetxea, ikastola, gudaletxe, espetxe ta gexo-
etxe ta beste antzekoetan otoiztegi nagusiaz ganera, ezpediz beste txikiagoak eregi, Goterkizañaren eritxiz bearrak edo on andiak eskatu ezpalegi.

1193g. araua. Erdi-agiriko otoiztegiaren legez eregita balegoz, yaures-
kizun eta eleizkizun guztiak egin leitekez, yaurespide-
legeak galazo edo Goterkizañak egiten itzi ezik.

1194g. araua. 1190g. arauan aitaturten direan il-errietako otoiztegi-
tan, erea legokenean, yaupa bat baño geyago egiteko eskubidea emon dagike Goterkizañak; etxeko beste otoiztegiaren yaupa bakarra egiteko baño ez, nozean bein, yazoera bakanen baten, ziyo zuzen eta ganorazko-
gaz; Goterkizañak, baña, ezpegi emon baimenik 1192, § 2g. arauaren neurrian baño.

1195g. araua. § 1.—Aita Santuak ederretsita eregitako etxeko otoiz-
tegiaren, emonean bertan besterik argi oartu ezik, Goter-
kizañak 1192, § 2g. arauan esaten dan lez ikusi ta ontzat emon ezker, yaupa bakarra emon leiteke, ta bera irakurria egunero, Yaiegunik andienetan izan ezik; ezpedi, baña, bertan beste eleizkizunik egin.

§ 2.—Alan be, Goterkizañak, ziyo zuzen eta ganorazkorik eta Aita Santuaren

emona lortuteko aurkeztu zireanetatik osteangorik balitz, yairik andienetan be yazoera bakanetan yaupea emoten utzi dagike.

1196g. araua. § 1.—Etxeko-otoiztegiak ezin leitekez ez santutu ez one-
tsi eleax lez.

§ 2.—Otoiztegiak, nai etxe bakotxekoak nai erdi-agirikoak nai edozein etxeren onespengaz onetsiak izan nai arean be onetsi bakoak izan, Jaunari buruzko zeretarako bakarrik izan bear dabe eta ez etxeko beste edozein zati.

XII IDAZPURUA

Jaupamayak

1197g. araua. § 1.—Yaureskereari buruzko barrutian itz batzuen esan-
gurea urrengoa da:

1.º Yaupamai *aldagatx* izenagaz, ganeko maya bere oñakaz gauza bakarra lez beragaz batera santutua.

2.º Yaupamai *aldakorra* izenagaz, geyen baten txikiagoa izaten dana, eta arria bera bakarrik santututzen dana; *jaupamai-aldakorra* nai *arri santuaren* izena be emoten yako; edo lelengo zenbakian esan dogun yaupamaya bera be bai, bere oñak barik, arria bakarrik santututa izan baledi.

§ 2.—Elexa santutuetan gitxienez yaupamai batek, nagusiak batez be, alda-
kaitza izan bear dau; eleax onetsian, barriz, yaupamai guztiak aldakorrak izan leitekez.

1198g. araua. § 1.—Bai yaupamai aldagatxaren maya, bai arri santu-
tua, benetako arri bakarrezko, osorikoa ta ausigatxezkoa izan bedi.

§ 2.—Yaupamai aldagatxean olak edo obeto esanda arrizko mayak yaupamai-
aren ertzetik beste ertzerañokoa izan bear dau eta oñari ondo erantsita, eta mayaren euskarriak arrizkoa izan bear dau, edo danak edo gitxienez mayari eusten dautsen oñak.

§ 3.—Arri santuak naikoa zabal izan bear dau, gitxienez ogi santua eta edon-
tzian geyena bere ganean artzeko añakoa.

§ 4.—Bai yaupamai aldagatxean bai arri santuan bego Santuen gorpuzkiñak daukazan obitxoa, yaurespide-legeak aginduten daben lez itxita.

1199g. araua. § 1.—Yaupea bere ganean egin al izateko, yaupama-
yak yaurespide-legeen arauz santutua izan bear dau: danak, aldagatxa bada; batetik bestera erabili daiteken arria bakarrik, yaupamai aldakorra danean.

§ 2.—Arri aldakorra, eskubide berezien kalte barik, edozein Obispok san-
tutu dagike; yaupamai aldagatxai buruz bete bedi 1155g. arauak agindua.

§ 3.—Yaupamai aldagatxaren santutzea egiten danean, eleaxa santutu barik

egin baledi, edozein egunetan egin leiteke, baña igandetan edo beste Jaiegun osoan egin baledi obeto legoke.

1200g. araua. § 1.—Yaupamai aldagatzak santutasuna galtzen dau, unetxo baten be eusten dautsen ofetatik alde egin ezker; ori yazo daitenean, orretarako yaurespide-idaztiak dakarren egikera laburragoagaz santutzea barriztutea Goterkizañiak edozein yaupariri utzi dagikeo egiten.

§ 2.—Bai yaupa-mai aldakorrak bai santutuak santutasuna galdu daroe:

1.º Ausi aundia artu balegi, edo zati andia ausi yakolako, edo ausi unea orioz igurdikoa dalako.

2.º Santuen gorpuzkiñak kendu ezker edo obitxoaren estalgia ausi edo kendu baledi; ez, orraitio, Obispoak nai bere ordezkioak estalgi ori bera gogorrigo erantsiteko edo osatuteko edo aldatuteko edo gorpuzkiñak begiratzeko kendu balegio.

§ 3.—Estalgi orren ausi-apurak eztau santutasuna galduazoten, eta brintzea zementoagaz edozein yauparik osatu dagike.

§ 4.—Elexeak bere santutasuna galtzeak eztakar yaupamayak be euren santutasuna galtzerik, ez aldagatzak ez aldakorrak.

1201g. araua. § 1.—Elexeak lez, elexako edozein yaupamayak be, gitxienez aldagatzak, beuko bere izena.

§ 2.—Yaupamai nagusiaren lelengo izenak elexearen izen bera izan bear dau.

§ 3.—Goterkizañaren eta Jaunzale azkatuetan Buru Nagusiaren baimenagaz yaupamai aldakorraren izena aldatu daiteke; ez, baña, yaupamai aldagatxarena.

§ 4.—Elexeak Zorionekotzat bakarrik agertuai ezin leitekioe yaupamairen izenik ezarri Aita Santuaren ederragaz baño, ezta legezko otoizketak eta yaupea aren izenean egiteko eskubidea emon yaken eleiz eta otoiztegitan be.

1202g. araua. § 1.—Yaupamaya, aldagatxa dala, aldakorra dala, Jaunaren yauresketarako bakarrik erabili bear da, batez be yaupea bertan egiteko, ta ezta iñoiz erabili bear ostantxeko giza-bearretarako.

§ 2.—Yaupamai azpian ezpego gorpurik lurperatuta; legokezanak begoz beragandik alde gitxienez metro bat; ostantxean, gorpua urrindu arte ezta zillegi yaupamayan yauparik egiterik.

XII IDAZPURUA

Eleiz-obiratzea

1203g. araua. § 1.—Kistarren gorpuak obiratu egin bear dira; eurok erretea txartzat emoten da.

§ 2.—Iñork bere gorpua erre dagiela edozelan agindu balegi, ezta zillegi aren naya egitea; bere atzen-nayari nai beste edozein itunbeneri agindu ori ezarri balegio, ez ezarrikotzat emon bedi.

1204g. araua. Eleiz-obirakuntzea auxa da: gorpua elexara eroan, eta eleizkariak aren alde bertan eginda, ildako kistarren gorpuak lurperatuteko legez izentauko tokian ezartea.

I Atala

Obitegiak edo il-erriak edo Kanpo-Santuak

1205g. araua. § 1.—Kistarren gorpuak Elexearen yaureskera-idaztietan aginduten dan lez onetsitako obitegian obiratu bear dira; onespina, nai ospatsua dala nai ixila dala, 1155, 1156g. arauetan esaten dan lez emona izan bedi.

§ 2.—Gorpuak ezpediz elexetan lurperatu, urrengoetariko norbaitena ezpaledi: Goterkidun Obispoarena; iñoren goterkiko zati eztirean barrutien Buru zirean Lekaiburu nai Jaurburuarena, edo Aita Santuarena, edo Errege-etxeoarena edo Kardenalena.

1206g. araua. § 1.—Katoliko-Elexeak eskubidea dauko bere obitegiak eukiteko.

§ 2.—Nonbaiten Elexearen eskubide ori zapaldu balegie, ta zapaltze orrek amaituko danen antzik ezpaleu, alak begiez Goterkizañiak errien il-erriak onetsi daitezana, bertan lurperatuten direanen gorpurik geyenak katolikoena direanean, edo gitxienez eurentzako zati berezia ta legez onetsia euki dagien.

§ 3.—Orixe be lortu ezin balegie, obi bakotxa ta obiratze bakotxean onetsi bedi, Elexearen yaurespide idaztietan esaten dan lez.

1207g. araua. Elexeari buruzko eragozpenari, zikintzeari eta garbitzeari buruz Elexeak aginduten dauana obitegiai be ezarri bear yake.

1208g. araua. § 1.—Parroki bakotxak beuko bere obitegia, Goterkizañiak obitegi bakarra ta guztiena parroki batzuentzat eregi ezpalegi.

§ 2.—Jaunzale azkatuak euren obitegia, besteenagandik berezia, euki dagike.

§ 3.—Beste norbaitzui be eta etxe batzuei be itxi dagikeoe Goterkizañiak euren obitegi berezia eukitea, guztientzako il-erritik alde legokena ta obitegien onспенagaz onetsia.

1209g. araua. § 1.—Bai Parrokiaren obitegian Goterkizañaren nai bere Ordezkoaren baimenagaz, bai beste legezko norbaiten obitegian Nagusiaren idatzizko baimenagaz kistarrak eurentzat eta euren etxe-koentzat eregi dagikez obitegi bereziak; eta eurok Goterkizañaren edo Nagusiaren baimenagaz iñorendu be badagikez.

§ 2.—Yaupari ta eleiz-gizonen obiak erritarren obietatik aldenduta begoz eta toki obean; ganera, au be erraz egin baledi, batzuk yauparientzat, beste batzuk beragoko malletako eleiz-gizontzat berezi bediz.

§ 3.—Umeen gorputxoak be, eroso al baledi, besteenakandik bananduta berarizko obitxoak beukiez.

1210g. araua. Edozein obitegi alde guztietatik egoki itxita eta zainduta bego.

1211g. araua. Goterkizañak, parroki-zañak eta Jaunzaleen Nagusiak begiratu begie euren ardurapean dagozan obitegiatan ildakoen bizitza-edestitxoan, edo obitegiratorduan egiten direan ildakoen gorespen-itzaldietan edo obien apaingarrietan katolikoan siñeskintzearen nai bizikeraren aurkako ezer agertu eztaadin.

1212g. araua. Onetariko obitegiak ganera, al dala, beste obitegi bat be bego eleiz-obiratzea ukatzen yakenak lurperatuteko; au be bear dan lez itxita eta zainduta.

1213g. araua. Ezpedi gorpurik lurperatu, batez be bat-bateko eriotzea izan baledi, benetako eriotzeari buruzko ezpairik izan eztaiten bitarteko epea artu barik.

1214g. araua. Betiko nai-non eleiz-obiratutako gorpurik lur-ganera ateraterik ezta zillegi Goterkizañaren baimen barik.

§ 2.—Goterkizañak barriz ezpegi iñoiz emon baimenik atera gura dan gorpua beste gorpukandik zein dan ondo yakin ezik.

II Atala

Gorpua elexara eroatea, eleizkariak eta obitegiratzea

1215g. araua. Ziyo aztunak eragotzi ezik, kistarren gorpuk, lurperatu baño len, elexara eroan bediz, eleizkariak, au da, ontzat emondako Elexearen yaureskera-idaztietan aurkitzen direanak ildakoaren alde egiteko.

1216g. araua. § 1.—Eleizkarietarako geyen baten gorpua eroan bear dan legezko elexea parroki-elexea da, illak bere eleizkarietarako legez beste elexa bat izentau ezpalegi.

§ 2.—Illak bere parroki-elexa bat baño geyago izan balitu, eleizkarietarako elexea il dan barrutikoa da.

1217g. araua. Beste elexa batek eskubiderik ete daukanen ezpayan, parroki-elexearen eskubidea da beñagoa.

1218g. araua. § 1.—Naita norbait bere parrokitik alde egoala il, aren gorpua orraitio urren dagoan norbere parroki-elexara eroan bear da, eleizkarietarako gorpua oñez yoanda eroan al baledi; ostantxean, eriotzeak oratu eban tokiko parroki-elexara.

§ 2.—Tokietako zer guztiak begiraturik, nai eleizkarietarako elexara nai obitegira gorpua eroatea gatxa egiten daben urrintasuna ta abar begiratzea Goter-

kizañari dagokio bere barruti barruan; eta parroki-elexak goterki batzuetakoak balira, illa il zaneke barrutiko Goterkizañari dagokio ebazkizuna.

§ 3.—Alan be, gorpua bai eleizkariak egiteko elexera nai obia daukan obitegira eroatea neketsua izanarren, ildakoaren etxeokak, oñordekoak edo gura izango leukienak bertara eroateko eskubidea dauke, artarako bearko litzakezan diru-eralgi-bearrak eurak ordaindu ezker.

1219g. araua. § 1.—Edozein Kardenal Erroma'ko Urian il baledi, aren gorpua Aita Santuak aututako elexara eroan bear da; Eromatik alde il baledi, Kardenalak beste bat autu ezpaleu, eriotzeak artu dauan tokiko elexarik izen argiena daukanera.

§ 2.—Goterkidun Obispo naita Kardenal izateraño igona edo iñoren goterkiko ezta Barrutiaren Lekaiburu nai Jaurburu izana il ezker, gorpua eleizkarietarako Obispo, Lekaiburu edo Jaurburu-elexara eroan bear da eroso al dai-tekenean; ostantxean, uriko nai tokiko elexarik argienera; zer biotan, baña, il danak beste elexaren bat autu ezpaleu.

1220g. araua. Bertan bizi-bearra emoten eutsan bizibidedun bakotxa bere bizibideko elexara eroan bear da, eleizkarietarako beste elexa bat autu ezpaleu.

1221g. araua. § 1.—Jaunzale jaunzaletuak eta jaunzale-geyak ilten direnean, eleizkarietarako euren etxeko edo jaunzaletzako elexara eroan bear dira, jaunzale-geyak euren eleizkarietarako beste elexa bat autu ezpalegie; gorpua yaso ta eleizkarietarako elexara eroateko eskubidea bere jaunzale-Buruari dagokio.

§ 2.—Etxetik urrin il balediz, ta agaitik euren etxeko edo beintzat euren jaunzaletzako elexara eroatea zail baledi, ilten direan tokiko parroki-elexan egin-go yakez eleizkariak, jaunzale-geyak euren eleizkarietarako beste elexa bat autu ezik eta 1218, § 3g. arauan emoten yakon Jaunzale-Buruaren eskubidearen kalte barik.

§ 3.—Or § 1 ta 2garrenetan jaunzale-geyai buruz erabagiak garai aretan morroi egiten eben eta gau ta egun etxean bizi zirean morroyentzako be gauza dira; oneik, baña, jaunzaletzako etxetik alde il balediz, 1216-1218g. arauetan esaten dan lez egingo yakez eleizkariak.

1222g. araua. Ostaturiz nai gexorik jaunzale-etxean nai ikastolan bizi zirean ildakoai buruz eta eritegian ildakoai buruz, 1216-1218g. arauetan erabagiten dana bete bedi, ostantxeko lege nai eskubide berezirik ezpadabe; yaupalgai etxean ilten direanai buruz, 1368g. arauaren agindua bete bedi.

1223g. araua. § 1.—Legez eta agirian galazo ezik, guztiai zillegi yake norbere eleizkarietarako elexea ta gorpulorrerako obitegia aututea.

§ 2.—Emaztea ta seme-alaba giz-arotuak autespén onetan senarraren eta gurasoan menpekotzatik azke dira.

1224g. araua. Eleizkarietarako elezea nai gorpu-lorreko obitegia autestea galazota dauke:

1.º Giz-arora eldu bakoak; baña seme-alaba eldu bakoentzako autespéna, euren eriotza-ostean be, euren gurasoak edo zañiak dagike.

2.º Edozein mallako jaunzale Jaunzalekuntzea egiñak; ez, alan be, Obispoak balira.

1225g. araua. Eleiz-autespén au gauza izateko, edo parroki-elezea edo lekaide-elezea autatu bear dira, ez lekaime-elezeak, otsein-neskame egiteko, nai gexorik nai ostatuz gau ta egun bizi zireanetakoak ezpalira, eta ez otoz-otoan gatxak bertan artu ta illak; patroielezea patroyarentzat; eta amaitzeko, eleizkariak egiteko eskubidea daukan beste edozein eleza.

1226g. araua. § 1.—Eleizkarietarako elezea nai lurra emoteko obitegia edonork autu dagike, nai berberak nai artarako legez ordeztu dauan iñoren bitartez; eta egindako autespéna nai emondako ordezko-tasuna legezko edozein bidez erakutsi daiteke.

§ 2.—Autespéna iñoren bitartez egiten danean, bitarteko onek agindu eutsanaren eriotza-ostean be bete dagike.

1227g. araua. Garratz galazoten yake Jaunzaleai ta erri-eleizgizonai euren elezetan eleizkariak edo euren obitegian obia autesteko, edo bein egiñiko autespéna ez aldatuteko itza emoten iñor zin egitera ekarten ekitea; eragotzi onen aurka lortuko leukiena utsa da.

1228g. araua. § 1.—Obia ildakoaren parrökian barik beste obitegi baten autu baledi, aren gorpua bertan lurperatu bear da, obitegi-zañien aldetik eragozpenik ezpalego.

§ 2.—Jaunzaleen obitegian obia autu ezkeru, gorpua bertan eortzi al izateko Jaunzale-Buruaren baimena bear da ta naikoa be bada, Jaunzaletza bakotxaren legeen neurrian.

1229g. araua. § 1.—Norbaitek obitegien baten bere asabengandiko obia daukala beste nonbaiten bere obia autu barik il baledi. an bertan eortzi bear da gorpua, bertara 1218, § 3g. arauaren kalte barik eroan al beledi.

§ 2.—Emaztearentzat senarraren obia kontuan eukitekoa da; eta bat baña geyago balitu, atzenengoa.

§ 3.—Asaben nai senarraren obiak asko balira, ildakoaren etxeoak nai ondorengoak autu begie.

1230g. araua. § 1.—Ildako bakotxaren parroki-zañiak eskubidea ta eginbearra be badauko, ezin andian ezpalego, berberak

edo iñoren bitartez gorpua yaso, berari parroki-elexaraño lagundu ta bertan, 1212, § 3g. arauaren agindua zutunik gelditzen dala, eleizkariak egiteko.

§ 2.—Eriotzea iñoren parrökian yazo baledi, ta gorpua bere parrökiko elezara erraz eroan al baledi, ildakoaren parrökoari dagokio, tokiko parrökizaña yakitun eginda, gorpua yaso, parroki-elexaraño lagundu eta bertan eleizkariak egitea.

§ 3.—Eleizkarietako elezea lekaide-elezea nai parroki-zañaren eginpidetik azkatutako baten bat balitz, parroki zañiak eleizkariak egingo dautsazan elezearen kurutze-azpian gorpua yaso ta elezaraño eroan daroa; eleizkariak, baña, eleiz-zañiak egingo ditu.

§ 4.—Eleizkariak egiteko elezea parroki-zañaren eginpidetik azkatua ezpalitz, eleizkariak egitea berari dagokio; ez eleizpuruari, eskubide berezien bat ezpaleu, elezea dagoan parroki-zañari baño, ildakoa parroki-zañaren menpekkoa izan baledi.

§ 5.—Jaunzaleen etxean ildako andrazko jaunzaleak nai jaunzale-geyak itxi-legearen mugaraño beste andrazko jaunzaleak bekarre; andik, parroki-zañaren eginpidetako ezpalira jaunzaleak, jaunzale-etxeke elezara nai otoiztegiara kape-lauak daroa eta eleizkariak egin be bai; ostantzeko andrazko jaunzaleak balira, § Igoan esana egin bedi; etxetik alde ildako andrazko jaunzaleai buruz eleiz-legeak kistar guztiai buruz aginduten dabena egin bedi.

§ 6.—Kardenala nai Obispoa Erroma'tik alde il baledi, 297, 3.ºg. arauaren agindua egin bedi.

§ 7.—Ildakoak bere parrökirik ezpaeban, edo bere gorpua eleizkariak egiteko elezarik autu ezeban tokira igorriko balebe, gorpuaaren ardurea artzeko, eleizkariak egiteko ta gorpua obiraño eroateko eskubidea bertako Obispo-elezeari dagokio; ta orren ezean, obitegia dagoan parrökiko elezeari, tokiko ekanduak edo goterkiko erabagiak besterik esan ezpalegie.

1231g. araua. § 1.—Eleizkariak egin ezkeru, gorpua eleizkariak egin dautsazan elezearen obitegian lurperatu bear da, 1228, 1229g. arauen aginduen kalte barik.

§ 2.—Eleizkariak elezan egin ebazanek ez bakarrik eskubidea, baita eginbearra be badauko, benetako egin-eziñik ezpaleu, berak edo iñoren bitartez gorpuari obitegiaraño lagun egiteko.

1232g. araua. § 1.—Eleizkarietako elezaraño nai obitegiaraño gorpua lagun doakion yauparia, iñori baimenik eskatu bear barik, igaro daiteke lepokoiduneko ta kurutzeagaz iñoren parrökiko nai goterkiko barrutitik zear, parroki-zañaren nai Goterkizañaren baimen barik be.

§ 2.—Gorpua eraz eroan ezin daiteken obitegian lurperatu bear baledi, parroki-zañiak nai eleizkariak egin yakozan eleiz-zañiak eztauko eskubiderik gorpuari uriko nai tokiko mugarrietatik arago lagun egiteko.

1233g. araua. § 1.—Illaren etxeoak nai ondorengoak gorpua elezara ta obitegiara eroateko ta eleizkarietara elduteko deitu

gurako leukiezan gizarteko eleizgizonak, Jaunzaleak eta jaunzale-bazkideak ezin dagikez parroki-zañak egotzi, Goterkizañak ontzat emon bearko leuken ziyo zuzen eta aztuna barik; orraitio, bai etxeoak bai ondorengoak, iñor baño lenago eleiz-kariak egiten direan eleixako bertako eleiz-gizonak deitu bear dabez.

§ 2.—Ezpediz iñoiz deitu ez artu siñeskintza katolikoaren aurkazko bazkuna nai ezaugarriak.

§ 3.—Gorpuari lagun egiten dautsenak zein lenago edo geroagoa izango auziari buruz Parroki-zañak ebazten dautsanari yaramon begie.

§ 4.—Erritarren gorpua, edozein mallako nai aginpideko dala, ezpegie eroan eleiz-gizonak.

1234g. araua. § 1.—Lendik erabagita ezpalego, Goterkizañak, Obispo-elexako Batzarra ta, adiñon baderitxoe, goterkiko parro-kizain-buruen eta Obispo uriko parroki-zañen eretxia entzunda gero, eleizkariak direala-ta emon bearko dan lan-saria zeinbat izango dan erabagi begie, legezko ekandu bereziak eta laguneta errien izakerak begiraturik; eta erabagi orretan yazokun bakotxari dagokionez bakotxaren saria zein izango dan sentzunez izentau begie. edozein eztabaidari ta okertzat emoteari bideak ebagiteko.

§ 2.—Sari-lerroen malla bat baño geyago balegoz, saria ordaindu-bearra daukenak gurago izango daben mallakoa autu dagike.

1235g. araua. § 1.—Nor bait obiratzea edo urte-urrenak direala ta goterkiko sari-lerroan erabagiten dan baño geyago eskatutea gogor galazoten da.

§ 2.—Elexearen yaurespide-idaztiak eta Goterkiko erabagiak aginduten daben lez, txiroak zeatz-urrurik eta kistarrari dagokiozan erazko eleizkariak eta obiratzea izan bear dabez.

1236g. araua. Lege berezirik ezpada, kistar norbaiteri eleizkariak bere parroki-elexan egin etxakozanean, ildakoaren parroki-zañari parroki-zatia zor yako; parroki-zati ori ildakoaren parroki-zain zirean guztien artean banandu bear da.

1237g. araua. § 1.—Parroki-zatia goterkiko sari-neurrietan eleizkariakaitik eta obiratzeakaitik izentauta dagoan irabazpide guztietatik eta eurotatik bakarretatik artu bear da.

§ 2.—Lelengo eleizkari ospatsuak edozergaitik berealaxe egin ez arren, obiratu ezkeri illa bete barru egin balediz, naita egun onetan beste agiriko eleizkari apalagoak be egon, parroki-zatia eleizkari onetariko irabazietatik be atera bear da.

§ 3.—Parroki-saria zeinbat izango dan goterkiko sari-neurketan esan bedi; ta parroki-elexea ta eleizkarietako elexea goterki banakoak balira, parroki-zatia zeinbat dan eleizkarietako elexearen goterkiko sari-neurriaren legez erabagiten da.

1238g. araua. Obiratzea amaitu ezkeri, legezko eleiz-gizonak illen idaztian ildakoaren izena ta adifia, gurasoen edo ezkon-

sidearen izena, noiz il zan, norik eta zeintzuk ikurton emon eutsazan; non eta noiz lurperatua izan dan idatzi begiz.

III Atala

Eleiz-obia nortzui emon eta nortzui ukatu

1239g. araua. § 1.—Eleiz-obirik etxake emon bear ugutzatu barik illai.

§ 2.—Euren erru barik ugutzatu barik il direan kistar-izian-nayak ugutzatutzat emon bear dira.

§ 3.—Eleiz-obia ugutzatu guztiai emon bear yake, eskubide ori legeak bere-beregi kendu ezik.

1240g. araua. § 1.—Eriotza-aurretik damu-erakutsiren batzuk agertu ezik, eleiz-obiratzerako eskubidea galduta dauke:

1.º Kistar-siñeskintzaren agiriko ukatzalleak, nai siñauslen, nai eleiz-urratzaileen giza-batzari, masoiai edo beste onetariko giza-batzen bateri agirian bazkideak.

2.º Elexatik arrotzuak nai eragotziak, zigor ori agertzen nai ezarten eban epai bidez.

3.º Euren senean egozala euren burua il dabenak.

4.º Lagun bien arteko gudaketan bertan nai an artutako zaurietatik illak.

5.º Euren gorpua erretako agindu dabenak.

6.º Beste pekatari agirikoak eta ezagunak.

§ 2.—Izentautako yazoeretan ezpairik sortu baledi, astirik balego, yo begie Goterkizañagana; ezpayak oraindiño balirau, gorpua eleiz-obitegian lurperatu bedi, baño eleizkariak barik.

1241g. araua. Eleiz-obia ukatu yakonari, bai edozein eleizkarietako yaupea, bai urte-betekoak eta baita beste agiriko otoizketea be ukatu bear yako.

1242g. araua. Neke larregi barik al izan ezkeri, eleiz-legeen aurka toki santuan lurperatu balitz Elexatik arrotzutako ta beragaz edozein artu-emon eukitea galazota eukan arrotzuren bat, 1214, § 1g. arauaren agindua beterik, aren gorpua atera bedi ta 1212g. arauan esaten dan toki onetsi bakoan lurperatu bedi.

BIGARREN TXATALA

Aldi santuak

1243g. araua. Aldi santuak yai-egunak dira; eurotarikotzat emoten dira me ta barau-egunak be.

1244g. araua. § 1.—Yai-egunak eta me-egunak eta barau-egunak Elexa osoarentzat agindu, aldatu, kendu egitea, Elexa osoaren buru dan Aita Santuari bakarrik dagokio.

§ 2.—Goterkizain bakotxak bere goterkiari nai goterkiko toki batzui yazoera bakanetan yai-eguna nai me-eguna nai barau-egun bereziak agindu dagikeoz.

1245g. araua. § 1.—Ez bakarrik Goterkizañak, baita parrokiizañak be, yazoera bakanetan eta bidezko ziyoz euren menpeko kistar bakotxa nai etxe batekoak. euren barrutitik kanpoan legokezan-arren, ta bai euren barruti-barruan arrotzak be. yai-eguna. me-eguna ta barau-eguna nai biak bete-bearreko guztientzako legetik azkatu dagikez.

§ 2.—Goterkizañak alango baten erri andia batzen dala-ta, edo erri-osasunak eskatzen dauala-ta, nai goterki osoa nai goterkiaren zatia barau-egitetik nai okelea itxi-bearretik nai lege bietatik azkatu dagikez.

§ 3.—Jaunzaletza azkatuan Jaunzale-buruak 514, § 1g. arauan aitaturten direan guztiai buruz zer onetan parroki-zañen antzeko ala dauke.

1246g. araua. Yai-eguna, ta bai okelea-izteko ta barau-eguna, 923g. arauaren kalte barik, gaberditik gaberdira neurtu bear da.

XIII IDAZPURUA

Yai-egunak

1247g. araua. § 1.—Elexa osoan agindutako yai-egunak oneixek bakarrik dira: urteko igande bakotxa ta guztiak; Josu-Kistoren Yayotza; Yayotzaren zortzi-urrena, Agerkundera, Zerura Igokundera, ta Kistoren Gorputz-eguna; Andra Maria Jaungoikoaren ama argiaren Sorkunde Errugabearen eta Yasokunde-yayak; beronen senar Joseba Santuaren yaya; Pedro ta Paul Zorionekoen yaya, eta azkenengo Santu guztien eguneko yaya.

§ 2.—Beste edozein santu toki-zañak eztauke Elexa osoarentzat emondako legeak agindutako yai-egunik; Goterkizañak, baña, eskubidea dauke euron erriak yai-egitea urrengo igandera aldatzeko.

§ 3.—Or goyan izantautako jayen bat nonbaiten legez kenduta nai aldatuta balego, arazoa Aita Santuagana eroan barik ezpedi ezer aldatu.

1248g. araua. Agindutako yai-egunetan yaupea entzun bear da, ta morroi-lanik, auziketarik, legezko ekanduak edo eskubide bereziak besterik erabagita ezpalego, agiriko saldu-erosketarik ezta egin bear.

1249g. araua. Yaupea entzunbearra yaupea edozein katoliko yaureskeran egiten dala. kanpoan nai edozein elexan dala agiriko nai erdi-agiriko otoiztegian eta 1190g. aitaturten direan il-errietako eleizatxo-

tan be betetan da; ez, barriz, Aita Santuaren eskubide berezi barik, beste bakotxaren otoiztegian egiten danean.

XIV IDAZPURUA

Okela-iztea ta barauak

1250g. araua. Okelea izteko aginduten dauan legeak okelea ta okela-saldea yan-edatea galazoten dau; ez, barriz, arrautzak, arratseko yataldia eguerdikoagaz truke egiterik be.

1251g. araua. § 1.—Barau legeak egunean yataldi bakarra egitea aginduten dau; ezta, baña, galazoten bai eguerdi-aurrean bai arratsean zerbait yaterik, yaten dana zeinbat eta zetarikoa danari buruz toki bakotzeko ontzat artutako ekanduari yarraituten yakola.

§ 2.—Eztago galazota yataldi bereborean okelea ta arrainkia nastutea; ezta arratseko yataldia-eguerdiko-agaz truke egiterik be.

1252g. araua. § 1.—Okela-izte-lege utsa barikuetan bete bear da.
§ 2.—Okela-iztekoa ta erabatera barau-legea: Autsen egunean, Garizumako bariku ta larunbatetan: lau Barau-aroko egunetan; eta Andra Mari'ren Jasokunde, Santu guztien eta Jaunaren yayotzaren aurreko egunean bete bear da.

§ 3.—Barau-lege utsa Garizumako beste egunetan bete bear da.

§ 4.—Igandeetan eta agindutako beste yai-egunetan Garizumako yai-eguna izan ezik, okela-izte-legea nai okela-izte ta barau-legeak edo bakarrik barau-legeak bere indarra galdu daroa; eta yai-aurreko egunak eztira aurreratuten; Larunbata-Guren-egunean be eguerdia ezkerko eztauko indarrik (1).

1253g. araua. Arau oneik eztautse ukuturik egiten norbaitek leuka-kezan lege bereziaz; ezta yatorrizko nai legezko nortzuk Jaunari emonda daukezan berbai, edozein Jaunzaletzak edo antzeko beste giza-batzak, batera bizi direala, daukezan lege ta arauai, naita berba edo botorik emon bakoak izan.

1254g. araua. § 1.—Okelea izteko legeak zazpigarren urtea betetako guztiak lotuten ditu.

§ 2.—Barau-legeak ogeta bat urte bete ezkerokoak irurogeigarrena asi arte lotuten ditu.

(1) Lege au gaur aldatuta dago.

IRUGARREN ZATIA

Jaunaren Yaureskuntzea

1255g. araua. Jaun-Irukotx Santuari, Irukotx orretatik Edonor bako-txari, Kisto Geure Jaunari, ikurtonezko ogi ta ardao-antzen azpian ostonduta dagoala be, benetako Yaurespen-erakutsia zor yake, lateraz "cultus latriae" esaten dana (1). Andra Mari'ri, gurtza berezia; zeruan Kistoren lagun direan beste guztiai *gurtzea*.

§ 2.—Santuen gorpuzkiñai, nai edozelan euren gorputzakaz zer ikusi daben beste zerai ta irudiai be, Santuai eurai erakusten yaken lotsa-antzekoa zor yake.

1256g. araua. Jaureskuntzea-(gurtzea) Elexearen izenean artarako legez yarritako norbaitek nai norbaitzuk Geure Jaunari berari, Santuai ta Zorionekoai bakarrik egiteko Elexeak berak aginduta daukazan zeren bidez egiten danean, "erriarena edo agirikoa" esaten yako; osterantzean, "bakoxtxarena edo ixilekoa".

1257g. araua. Elexearen yaurespideari buruzko legegintzea Aita Santuari bakarrik dagokio; bai yaurespide-idaztiak ontzat emotea be.

1258g. araua. § 1.—Katoliko ez tireanen yauresketan artukizunik ez egikizunik izatea etxake zillegi katolikoai.

§ 2.—Egon bakarrik egitekotan, itxi leitekioe ezin bestean bertaratzea Laterriko zeregindunai nai beste edonori, gizatasunez txalogarri dan beste edozergaitik yoan-bearra daukenai; ziyorik ete legoken ezpayan Goterkizañagana yota, katoliko ez tireanen illetetara, ezkontza eta antzeko beste yazoeretara yotea, norbera bide okerrera yoateko edo iñori erakuts gaiztorik emoteko bildurrik eztagoanean.

1259g. araua. § 1.—Goterkizañak aztertu ta beren-beregi ontzat emon bako otoitzik esaten edo yaureskerarik egiten Elexetan eta agiriko otoitzegietan ezpedi itxi; Goterkizañak, barriz, zelan ebatzi argi ezpaleki, ebazkizun osoa Aita Santuari bialdu begio.

§ 2.—Erriaren aurrean esateko eskari-sail (letaña) barriak ontzat emoteko eskubiderik Goterkizañak eztauko.

1260g. araua. Eleiz-gizonak yaureskuntzeari buruzko egifietan Eleiz-nagusien menpeko bakarrik dira.

1261g. araua. § 1.—Jaunaren jaureskereari buruz Elexearen legeak aginduten dabena zeatz bete daiten, eta batez be bai

(1) Nire eritxiz euskerazko **Jaurespena**, **Jauresketak** argi ta garbi adierazoten dabe Jaunen Jaunari egiten dauztagun lotsa-erakutsia edo laterazko cultus-latriae.

agiriko bai ixileko yaureskeran nai kistarren eguneroko bizikeran aztikeririk edo diru-zalekeri zantarraren antzik daukan ezer sartu eztaiten, Goterkizañak begia zoli berabille.

§ 2.—Goterkizañak zer oneri buruzko legerik bere barrutirako emon balez, Jaunzale guztiak, bai azkatuak be, bete-beartuta dagoz; eta Goterkizañak euren elexa ta otoitztegiak ikusi dagikez bere aginduok beteten ete dabezan ikusteko.

1262g. araua. § 1.—Antxiñatiko ekandunai yarraituz, andrazkoak elexan gizonetakoakandik alde egotea ontzat emoten da.

§ 2.—Gizonetakoak elexan dagozanean, edo elexatik kanpoan be eleiz-kizunen bateko direanean burutsik begoz, erriko ekanduak edo beste bidezko zerbaitek besterik eskatu ezik; andrazkoak, barriz, burua estalduta eta lotsaz yantzita, batez be Geure Jauna artzen doazanean.

1263g. araua. § 1.—Euren aginpidea zertarikoa ta zeinbestekoa dan begiraturik, Laterriko agintariai zillegi da elexan toki berezia emotea, yaurespide-legeak esaten daben lez.

§ 2.—Goterkizañak beren-beregi emon ezik, ezpegi iñork euki elexan bereztat eta bereentzat berezitako tokirik; eta Goterkizañak ezpegi eskariari bayetzik emon, beste kistarrak eroso non yarri naikoa ezpalego.

§ 3.—Zer orreri buruz emondako eskubide guztietan, beren-beregi esanda egon ezarren, baldintza auxe dagoala yakin bear da: edozein bidezko ziyoz Goterkizañak emona kendu dagikela, noiz emonaren kontu barik.

1264g. araua. § 1.—Musika-arloan, nai yotalluzkoa nai abestizkoa dala, lizun edo zikin litzaken ezer ezpedi elexan sartzen itxi, ta musika santuari buruzko Elexearen legeak zaindu bediz.

§ 2.—Andrazko Jaunzaleak euren eta Elexearen yaureskera-legeen neurrian eta Goterkizañaren baimenagaz euren eleiz eta otoitzegietan abestutea zillegi dabe, baña erriak ikusi ezin dabezan tokian abestu begie (1).

XV IDAZPURUA

Geure Jauna non eta zelan zaindu ta yauretsi

1265g. araua. § 1.—Geure Jauna, bera nork zaindu balego ta geyen baten yaupariak yaupea gitxienez astean bein bertan emon balegi:

1.º ZAINDU BEAR DA: a) Obispo-elexan; b) iñongo goterkiko ez tirean barrutietako Lekaipuru ta Jaurburu-elexan; d) Aita Santuaren Ordezko ta Agintzadunen barrutietako elexen artean gorengo mallako elexan; e) edozein parroki

(1) Gaur eztauko indarririk lege onek.

nai parroki-antzeko elexan; f) eta bai gizonezkoen eta andrazkoen Jaunzale azkatuen etxeari erantsitako elexan be.

2.º ZAINDU DAITEKE. Goterkizañaren baimenagaz: a) Batzar-elexan; b) Geure Jaunarren on egiten yarduteko eregitako etxearen otoiztegi nagusian, nai agirikoa dala nai erdi-agirikoa dala; d) Jaunzaleen etxeko otoiztegi; e) Elexearena dan eta eleiz-gizonak edo Jaunzaleak zaintzen daberen ikaste-etxeko otoiztegi nagusian.

§ 2.—Beste elexa nai otoiztegitean euki ta zaindu al izateko Aita Santuaren baimena bear da; elexeari nai agiriko otoiztegiari Goterkizañak baimen ori emon dagikeo bidezko ziyoz eta noizean beingo zerbaitegaitik.

1266g. araua. Gure Jauna gorderik dauken elexak, batez be parroki-elexak, zabalik begoz egunero, ordu batzuetarako beñik beñi.

1267g. araua. Edozein kutun-lege kendurik, Jaunzaleen nai Jaunaren ederragaitik zerbait egiten diarduenen etxean bertan ezin daiteke Geure Jauna zaindu, edo elexan edo otoiztegi nagusian baño; ez lekai-meen etxean be, otoitz-tokian edo itxi-legepean legoken etxeko beste nonbaiten.

1268g. araua. § 1.—Geure Jauna ezin daiteke euki ez beti edo geyen baten elexako yaupamai baten bakarrik baño.

§ 2.—Elexako tokirik ederreanean eta argianean zaindu bedi; geyen baten, beraz, yaupamai nagusian, onenbesteko ikurtonari zor yakon lotsea ta maitasuna erakusteko beste nonbaiten obeto ezpalegoke; dana dala, Aste Gureneko egunetan Geure Jaunari buruz egiteko yaurespide-legeak aginduten dabena aitzu barik.

§ 3.—Obispo-elexetan baño eta Batzar-elexetan eta lekaide-etxeetako elexetan, yaupamai nagusian koruko eleizkizunak egin bear izaten direanezkeru, eleizkizunoi eragozpiderik ez ekartearren, obeto da Geure Jauna geyen baten yaupamai nagusian ez zaintzea, elexako beste yaupamai baten baño.

§ 4.—Eleiz-zañen zoli egitekoa da Geure Jauna zaintzen dan yaupamaya beste yaupamayak baño apañago eukitea, bera ikusiak bakarrik elexara datozen kistarren Geure Jaunaganago maitasuna ta eder-egin-gurea biztuteko.

1269g. araua. § 1.—Geure Jauna yaupamai-erdian ezarritako etxetxo alda-eziñean zaindu bear da.

§ 2.—Etxetxo orrek ondo landua izan bear dau, edonondik ondo itxita yaureskera-legeen arauaz egoki apaña, bera beste edozer barik utsik, eta zoli be zoli yagonda edozein lapurretaren arriskurik izan eztaiten.

§ 3.—Goterkizañak ontzat emon bearko dauan ziyo aztunen batek aolkatu balegi, eztago galazota Geure Jauna gabaz yaupamaitik alde yagotea, orratio Geure Jaunaren bere-bere oyal ganean, ganerazko toki seguruagoan, 1271g. arauaren agindua beterik.

§ 4.—Geure Jauna daukan etxetxoaren giltzea zoli be zoli yagon bear da; elexea nai otoiztegia zaintzea daukan yaupariak gogoan euki bear dau egin-bear oneri buruzko edozein erru aztuna baño aztunagoa dala.

1270g. araua. Ogi zatitxo santutuak, gexoen eta beste kistarren yaunartzerako naikoa izango direan beste, gai sendo ta ugarririk egiten etxakon ontzian zaindu bediz, eta berau garbi ta bere estalgiagaz ondo itxita eta miesazko estalgi zuriz eta al giñoan apañagaz estalduta zaindu bedi.

1271g. araua. Geure Jauna dagoan etxetxoaren aurrean gitxienez argi batek gau ta egun ixetuta egon bear dau; argi-gaya olio-ezkurretatiko ura edo erleen argi-zaria izan bedi; olio-ezkurrezko urik zuzendu ezin dan tokietan ostantzeko orioak erabiltea Goterkizañen zurtasunari izten yako; al giñoan baño bedar-landaretatik ateratako orioak izan bediz.

1272g. araua. Ogi zatitxo santutuak, bai kistarren yaunartzerako, bai Geure Jauna erakustekoak, erre-barriak izan bediz eta sarri barriztau bediz, zarrak oi dan legez yanda; usteldu daitezanen arrizkurik izan eztaiten, zoli bete begiez zer oneri buruz Goterkizañak bear bada emondako aginduak.

1273g. araua. Kistarrak Geure Jaunari buruzko zeretan irakasten daragoyenak ezpegie ezer egin barik itxi ikurton onetan gure lagun eta yaki gelditu yakun Geure Jaunaganako maitasuna sortu ta indartzeko, ta batez be ez bakarrik igandeetan eta agindutako yai-egunetan, baño baita aste-barruko aste-egunetan be, al dala, yaupara sarri eldu ta bertan Geure Jaunari ikustaldi bat egin dayoela esaten ekin begioe.

1274g. araua. § 1.—Geure Jauna zaintzeko eskubidea emon yaken eleixa ta otoiztegietan, ixileko erakustea eta ogi santua bere ontzitik atara barik egiten dana edozein bidezko ziyoz eta Goterkizañaren baimen barik egin daiteke; agiriko erakustea Gorputz-eguneko yai-egunetan eta urrengo zortzi-urrenean yaupan eta arrastiko otoizketaldian eleiz guztietan egin leiteke; beste aldietan ziyo zuzen eta aztunagaz, agirikoa batez be, naita elexea -Jaunzale azkatuena izan, Goterkizañaren baimenagaz.

§ 2.—Geure Jauna erakusteko eskubidea daukana yauparia edo diakonoa da. Geure Jaunaren onespina baño yaupariak bakarrik emon dagike; diakonoak 845, § 2g. arauaren arauz, Elexakoak emoten dauzanean bakarrik emon dagike.

1275g. araua. Berrogei orduetako otoizketea parroki-elexa guztietan eta Geure Jauna beti zaintzen dan beste elexetan Goterkizañaren baimenagaz izentautako egunetan alik eta osperik andienagaz egin bedi; eta nonbaiteko egokereagaitik neke andi barik eta onenbesteko Jaunari zor yakon lotseagaz egin al izan ezik, ordu batzuk gitxienez izentautako egunetan Geure Jaun au beste egunetan baño ospe geyagaz erakusteko alegiñak egin begiz Goterkizañak.

Santuai, Santuen irudiai eta gorpuzkiñai egin bear yaken gurtzaketea

1276g. araua. Ona ta ongarria da Jaunaren Otseñai, Kisto Erregearen lagunak direanai otoizka dei egitea ta euren gorpuzkiñak eta irudiak lotsaz begiratzea; baña kistarrak guztion ganetik seme-alaba yatorrai dagokien samurtasunez laztan izan begie Andra Mari Birjiña Zorion-zorionekoa.

1277g. araua. § 1.—Agiriko agur erakutsirik ezta zillegi egiterik Elexeak artarako daukan eskubidez Santutzat edo Zorionekotzat emondako Jaunaren seme-alabai baño.

§ 2.—Santutzat Elexeak agertuak eurai dagokien latsa-maite-erakutsia egin daitekioe; Santuak edonon eta eurentzako edozelango gurtzaz omendu daitezke; Zorionekoak, Aita Santuak izten dauan tokietan eta eraz baño ez.

1278g. araua. Santuak Laterri, Goterki, Laterki, Kizar-bazkuna, Jaunzaletza ta beste toki ta legezko nortzuen Zaintzat eskatu ta gurtzea txalogarri da artarako bete-bearrak bete ezkerro ta Aita Santuak emon ezkerro; Zorionekoak eztaukie orretarako eskubiderik, Aita Santuak bateri edo besteri beren-beregi emon ezpadagio.

1279g. araua. § 1.—Etxako iñori zillegi elexan nai otoitz egiteko beste tokietan barrikerien bat leukaken santuen irudirik yarterik edo iñork yari dagian alegiñik egiterik, Goterkizañak ontzat emon ezpalegi.

§ 2.—Goterkizañak barriz guztien gurtzaketarako yarten dan irudirik ezpegi ontzat emon Elexean ontzat emondako ekanduagaz alkartzen eztanik.

§ 3.—Goterkizañak ezpegi iñoiz itxi elexetan nai beste edozein otoiztegitan guzurrezko siñeskizun edo bear dan lotsea ta ganorea erakusten estauan irudirik yarten, edo kistar lauai uste okerren bat ekarteko bidea emon legikien ezer iminterik.

§ 4.—Agiriko gurtzaketarako yarritako irudiak ospatsu onetsi balediz, onepen ori emotea Goterkizañari dagokio; berak, orraitio, orretarako edozein yau-pari ordeztu dagike.

1280g. araua. Edonork zer bikaintzat daukazan irudiak, nai antxiñatasunagaitik, nai bere egikera berezi-bereziagaitik nai erriak dautsen maitasunagaitik elexetan nai agiriko otoiztegitan kistarrak gurtu dagiezan yarriak, iñoiz barriztau-bearra balebe, ezpediz iñoiz barriztau Goterkizañaren baimen barik; eta Goterkizañak baimena emon baño lenago gizon yari ta yakitunak itandu begiz.

1281g. araua. § 1.—Gorpuzkin bikañak nai balio andiko irudiak, eta nonbaiteko elexan erriak oso maitez eurakana yoten

dauan gorpuzkin nai irudiak, Aita Santuak artarako eskubidea emon ezpalegi, ezin leitekez iñori ez saldu ez emon, ez beste elexa batera betiko aldatu.

§ 2.—Santu nai Zorionekoen gorpuzkin bikañak oneixek dira: gorputz osoa, burua, besoa, beso-gana, biorza, miña, eskua, iztarra, eta Jaunarren il ebenak il-torduan zauririk andiena artu eban gorputzeko zatia, osoa balitz, ta ez zatitxo bat bakarrik.

1282g. araua. § 1.—Santuen nai zorionekoen gorpuzkin bikañak ez dagikez iñork norbere etxean nai otoiztegitan zaindu Goterkizañaren beren-beregiko baimen barik.

§ 2.—Bikañak ez tirean gorpuzkiñak, beti zor yaken lotseagaz, norbere etxean be zaindu daitezke eta baita norberak aldean erabili be.

1283g. araua. § 1.—Santuen gorpuzkiñak, artarako legezko eskubidea daukan norbaitek egizkoak direala egiztau balegi, bakarrik zaindu leitekez elexetan, azkatuetan be bai, erriaren gurtzaketarako; eskubide ori Kardenal Jaunak, Goterkizañak eta Aita Santuak artarako eskubidea emon dautsan eleiz-gizonak emon dagike.

§ 2.—Bere Nagusi dan Goterkizañak beren-beregi emon ezpalegio, danerako Ordezkoak eztauko orretarako eskubiderik.

1284g. araua. § 1.—Erriko matxinaden baten edo beste edozergaitik siñeskarri-agiriak galdu dabezana gorpuzkin santuak ezpediz agiriko gurtzarako erakutsi Goterkizañaren eritxia artu barik. Ezta onetarako gauza danerako Ordezkarria, beren-beregiko eskubidea artu ezpadau.

§ 2.—Alan be, antxiñako gozpuzkiñak orain artean izan daben lotseagaz zaindu bear dira, noizbait guzurrezko garbiak edo suster gitxikoak direala argi erakutsi ezik.

1286g. araua. Santuen gorpuzkiñen siñeskarritasunari buruzko eztabaidarik erabilten ezpegie itxi Goterkizañak ez elexako itzaldietan, ez idaztietan, ez Jaunaganako erriaren zaletasuna biztuteko diran aldizkari eta orrietan, uste-muste utsezko, bada ezpadako argibidetan edo aurre-eretzietan oñarritutako eztabaidak diranean, gitxiago irrizko edo destañezko berbak erabilten badira.

1287g. araua. § 1.—Gorpuzkiñak, erriari erakusten yakozanean, euren kutxatxoan sartuta egon bear dabe.

§ 2.—Kurutza oso Santuaren ondakiña ezpedi iñoiz erriari agirian gurtuteko erakutsi Santuen gorpuzkiñakaz naste kutxa bakarrean; kurutzearen ondakin orrek beti bere kutxa berezia izan bear dau.

§ 3.—Zorionekoen gorpuzkiñak, Aita Santuaren berarizko eskubide barik, ezpediz erabili eleiz-yoan-etorrietan, ez elexetan erakutsi, Aita Santuak baimena emonda aren aintzaz agiriko otoitza eta yaupea egiten danean baño.

1288g. araua. Obispoak bular ganeko kurutzean, bear bada, daroazan Kurutze txit santuaren ondakiñak, bera il ezker, Obispo-elexearentzat dira ondorengo Obispoari emoteko; eta ildakoa Goterki batzuen buru izan baledi, il zan barrutiko Obispo-elexeari, eta goterkitik kanpoan il baledi, atzenengoz urren ebanekoari.

1289g. araua. § 1.—Gorpuzkin santuak saldutea gaiztakeri da; orregaitik Goterki-zañak, parroki-zañak eta arimak zaintzea dauken beste guztiak gorpuzkin santuak, batez be kurutze santuarenak, ez saldu ez katoliko ez tireanen eskuetara etorri eztaitezan begiratu begie.

§ 2.—Eleiz-zañak eta bear au dagokien ganeko guztiak begiratu begie gorpuzkin santuakaz edozein zikinkeririk iñork egin eztagian, edo batzuen edo besetsuen ganorabakokeriz galdu eztaitezan, edo iñork yaramonik egin barik egon eztaitezan.

XVII IDAZPURUA

Elexako yoan-etorriak

1290g. araua. § 1.—Eleiz-yoan-etorri izenagaz, eleiz-gizonak buru dauzala, toki santu batetik beste toki santu batera lerroka yoanagaz kistarren Jaunzaletazuna biztuteko, Jaunagandik artutako mesedeak gogora ekarri ta Berari esker-ona agertuteko edo Jaunari laguntzea eskatuteko, Kistar-erriak egiten dauzan otoizketa ospatsuak adierazoten dira.

§ 2.—Yaurespide legeen nai Elexearen ekanduen arauz izentautako egunetan urtero egiten diren *betikoak* esaten yake. Bidezko zioyakaitik beste egun batzuetan aginduta egiten direanak, *noizeanbeingoak*.

1291g. araua. § 1.—Ekandu oroigatzak alan erakutsi ezik, edo tokietako izakereak Obispo zurraren eritxiz osteragindu ezik, Gorputz-yai-egunean eleiz-yoan-etorri bakarra ta ospatsua agiriko bideak zear toki baktotxean elexa argienak egin bear dau, ta eleizgizonak eta gizonezko Jaun-zaleen etxe guztiak, bai azkatuak be, eta erri-gizonezko anai-arreba-bazkunak bertara eldu bear dabe, beti etxean sartuta bizi diren lekaideak edo erritik nai uritik iru mille oinkada baña urrinago bizi direanak izan ezik.

§ 2.—Ganeko parroki ta elexak, bai lekaideenak be, zortzi-urren barruan euren elexearen tellatupetik kanpora be egin dagike euren yoan-etorria; elexa batzuk dagozan tokietan yoan-etorri ori zein egunetan, ordutan eta zeintzuk bide-zear egin bearko daben erabagitea Goterkizañari dagokio.

1292g. araua. Goterkizañak, Obispo-Batzarra entzunda, eskubidea dauko erri osoaren onagaitik eleiz-yoan-etorri bereziak aginduteko; eta oneitara be 1291, § 2g. arauan aitauten direan guztiak eldu bear dabe.

1293g. araua. Jaun-zaleak, naita azkatuak izan, eztauke eskubiderik Goterkizañaren baimen berezi barik eleizoan-etorriak egiteko euren elexa ta etxeko ibilpidetik kanpora, 1291, § 1g. arauaren aginduaren kalte barik.

1294g. araua. § 1.—Ez parroki-zañak ez beste iñork eztauko eskubiderik eleiz-yoan-etorri barririk sartzeko, ez lendikoak aldatu nai kentzeko, Goterkizañaren baimen barik.
§ 2.—Eleiz batek egiten dauan yoan-etorrira eleiz artako eleiz-gizon guztiak eldu bear dabe.

1295g. araua. Begiratu begie Goterkizañak, legokezan ekandu txarrak kendurik, yoan-etorri oneitara datozen guztiak, baktotxa berari dagokion tokian yoan daiten eta Jaunaren ederragatik egiten dabela euren ibilkeran be erakutsi dagien.

XVIII IDAZPURUA

Elexen yantziketec

1296g. araua. § 1.—Elexen yantziketa osoa, baña batez be yaurespide-legeen arauz onetsi nai santutua eta agiriko yauresketan erabilten dana, elexako sakristian nai beste toki seguru ta egokian zoli zaindu bedi, eta ezpedi iñoiz erri-bizitzako zeregifietan erabili.

§ 2.—1522, § 2, 3g. arauak izentauten dauan elexako yantziketa osoaren idatzizko billabidea, gauza baktotxa non dagoan zeatz diñoana, zoli egin eta zaindu bear da.

§ 3.—Zer baktotxa zerezkoa dan eta zelan egiña danari buruz, yaurespide-legeen aginduak. Elexearen ekanduak bete bediz eta baita alik ondoen Elexearen ederti-legeak be.

1297g. araua. 1186g. arauaren neurrian elexea barriztuten beartuta dagozanak, legez besterik erabagita ezpalego, yauresketarako bear dana emoten be beartuta dagoz.

1298g. araua. § 1.—Kardenalak bizi zala emon ezik, edo bere atzen-nayaren agirian elexa nai agiriko otoiztegi bateri, edo eleiz-gizonezko nai Jaunzalezko Jaun-arren on egiteko eregitako etxe bateri, edo eleiz-gizonezko nai Jaunzalezko etxe bateri itxi ezpaleutsoz, Karderala, Erroma-Uri-alboko goterkiko Obispoa izanda be. Erroma'ko Urian il baledi, zertariko diruz erosiak izan direan agertu barik itxi dauzan eleiz-yantziketa osqa. erestunak eta bularreko kurutzak euren gorpuzkiñ eta guzti izan ezik, eta Jaunaren betiko yauresketarako dan beste edozer, Aita Santuaren sakristirako dira.

§ 2.—Zer onetan atzen-nayaren bidez bere ondasunekaz zer egingo erabagiteko eskubidea erabili gure leuken Kardenalak, dana ezpada be nai izenagaitik

nai zaintzeko nai bere irabazietatik zerbait artzeko izan dauzan eleixai geyena emotea ondo legoe.

1299g. araua. § 1.—Naita Kardenala izan, ildako goterkidun Obispoaren eleiz-yantziketean Obispo-eleixarentzat gelditzen da, erestunak eta bularreko kurutzak euren gorpuzkiñakaz izan ezik, baña 1288g. arauaren aginduaren kalte barik, eta Obispo orrek eleixearen diruakaz ezebazala erosi eta eleixearen ondasuntegiko etzireala egin legez erakusten direan beste edozertariko ondasunak ezpalira.

§ 2.—Alangoen baten Obispoak goterki bi nai geyago bata bestearen ostean zaindu balitu, edo erabatera nai bat egina edo beti zaintzeko emondako goterki bi edo geyagoren buru izan baledi, bakotxak bere Obispo-eleixa daukela, goterki bat bakarraren mozkiñakaz eresia dala agiri dan zerbait, Obispo-eleixa orrentzako da; ostantxean, goterkion ondasunak banakatu barik Obispo-mai bakarra betiko egin balegie, Obispo-eleixa guztien artean zati bardinka banandu bear dira; baña goterki bakotxaren mozkiñak alkarregandik banandu ta berezita balegoz, banatzea goterki bakotxetik artu dauan irabazien neurrian eta bakotxaren nagusi izan dan epearen neurrian egin bedi.

§ 3.—Obispoa eleiz yantziketa osoaren legez siñeskarri dan idatzizko billabidea egiten beartuta dago, eta bertan gauzak egin zirean lez agertu begiz: noiz egin zan zer bakotxaren yabe, ta norbaitek emonda ala eleixearen mozkiñakaz eresia, edo norbere ondasunakaz edo norbaitek berari emona dan, argi idatzi begi; ostantxean, dana eleixearen mozkiñakaz eresia izan dala legez uste izaten da.

1300g. araua. 1299g. arauan aginduak edozein eleiz-bizibide daukan eleiz-gizonari be ezarri bear yakoz.

1301g. araua. § 1.—Kardenalak, goterkidun Obispoak eta eleiz-bizibidedun beste eleiz-gizon guztiak, atzen-nayez edo Laterriko legez be gauza litzaken beste agiri baten bidez, 1298-1299g. arauen aginduak Laterri auzitegian be bete-erazoteko bear dana egin bear dabe.

§ 2.—Orretarako garaiz ta Laterriko legez be gauzak dan eraz, 380g. arauaren neurrian izen oneko norbait izentau begie; onek, arein eriotzearen barria artu ezker, ez bakarrik yantziketa santuak, bai idatzi ta eleixari buruzko ta bear bada euren etxean legozkezan beste agiriak be, bere eskuratu begiz ta bear yakozanari bialdu begioz.

1302g. araua. Eleizañak eta yantziketa santuak zaintzeko zeregiña ezarri yaken guztiak yantziketok luzaro ta garbi dirauen arduratu bediz.

1303g. araua. § 1.—Obispo-eleixak urrurik emon bear dautsaz Obispoari yantziketa santua ta yaupa egiteko ta beste yauresketarako bearrekoak direan beste zer guztiak yaupa ixila egiten dauanean be, eta Obispo-elexan bakarrik barik, Uriko nai inguruko eleixetan be bai.

§ 2.—Eleixen bat oso txiro balitz, Goterkizañak eroso yakelako bertan yaupa egiten doazan yaupariak yantziketa santurako ta yauparako bear direan beste zerakaitik neurrizko saritxoak emon-erazotea agindu dagike.

§ 3.—Obispoak, ez barriz Batzar-Ordezkoak ez danerako Ordezkoak berarizko eskubide barik, eskubidea dauko sari ori zeinbat izango dan erabagitek, ta etxako iñori zillegi, ez azkatutako Jaunzaleai be, geyago eskatuterik.

§ 4.—Onetariko saria goterki osorako, al dala, Goterki-batzarrean ezarri bedi; edo batzarretik kanpora, Obispo-batzarra entzunda gero.

1304g. araua. Yaurespide-legeen arauaz yaureskeretan erabilli orduko onetsi bear diran yantziketak onetsi dagikez:

1.º Kardenalak eta Obispo guztiak.

2.º Obispo ezitirean Goterkizañak euren barrutiko eleiz eta otoiztegietarako.

4.º Goterkizañak ordeztutako yaupariak ordetzearen eta ordetzallearen muga-barruan.

5.º Jaunzale-Buruak eta Jaunzaletza berberarako eurak ordeztutako yaupariak euren eleiz eta otoiztegietarako ta euren menpeko direan lekaimen eleixetarako.

1305g. araua. § 1.—Onetsitako nai santututako yantziketean onespena nai santutasuna galdu egiten dau:

1.º Bere yatorrizko antza galdu ta bere egitekorako gauza ez izaterañoeko kaltea nai aldakuntzea izan baleu.

2.º Zikinkerietan erabilliak edo agirian salgai yarriak.

§ 2.—Yaupa-ontziak eta yaupa-azpiltxoak eztabe santutasuna galtzen urrezko azala yonagaitik eta barriztu-arren; alan be len baño len barriri urreztu-bear larria dago.

1306g. araua. § 1.—Alegin egin bear da yaupa-ontzi ta yaupa-azpiltxoak, ikuzi-aurretik yaupan erabilitako yaupa-oyalak, yaupa-ontzi-estalgitxoak eta osti-oyalak eleizgizonak eta eurak zaintzea dabenak baño ukutu eztaezan.

§ 2.—Yaupan erabillitako yaupa-oyal, yaupa-ontzi-estalgitxoak ta osti-oyalak ezpediz emon ikuzteko elei-gizon ezitireanai, jaunzaleak badira be, lendik eleiz-gizon malla nausikokak ikuzi barik; lenengo ikuztaldiko ura, barriz, santutegira ixuri bedi, ta onen ezean, sutegira.

XIX IDAZPURUA

Berba emona ta Zin-itza

Atala I

1307g. araua.

§ 1.—Berba emona, au da: zerbait ona ta ohea be dana egin al dana egiteko Jaunari norbere oldez eta iñork

beartu barik emondako berbea, bete egin bear da Jaunari zor dautsagun lotseak beartuta.

§ 2.—Legez galazota ezpadauke, ezaguera egokia daben guztiak Jaunari zer-bait egiteko berbea emoteko gauza dira.

§ 3.—Oker sartutako bildur larriz emongo litzaken berbea berezko legez da utsa.

1308g. araua. § 1.—Berbea-emotea *agirikoa* da, Elexearen ordeaz eleiz-nagusiak artu balegi; ostantxean, *ixilekoa*.

§ 2.—Ospetsua, Elexeak alangotzat artu balegi; ostantzekoa, *laua*.

§ 3.—*Berezia*, Aita Santuak bakarrik azkatu al balegi.

§ 4.—*Norberetzkoa*, norberak zer-bait egiteko berbea emoten danean; *gauzazkoa*, zer-bait emoteko berbea emoten danean; *bietarikoa*, zer biak egiteko berbea emoten danean.

1309g. araua. Aita Santuarentzat berezitako ixileko berbea-emonak oneiek baño eztira: Garbitasun osoa ta betikoa zaintzekoa; berbea-emon ospetsuak dauzan Jaunzaletza baten sartzekoa, baldintza barik eta yayo ezkerer amazortzi urte bete ezkerer emonak balira.

1310g. araua. § 1.—Berbea emonak berez emon dauana baño eztau lotuten.

§ 2.—Zer-bait emoteko berbeak emollearen ondorengoak be lotuten ditu; bardin bietarikoa danean be, gauzazko atala emon-bearra ondorengoenkana be igaroten da.

1311g. araua. Berbea-emonak bete-bearra amaitzen da: a) bete-bear orreri izentau yakon epea amaitu ezkerer; b) emoteko gauzearen izana aldatu ezkerer; d) berbea-emonak eskegita daukan baldintzea nai zetarakotasunak uts emon ezkerer; e) alperrikotu, azkatu, trukau ezkerer.

1312g. araua. § 1.—Berbea-emollearen naimenaren gain yabe-ala daukanak aren berbea-emonak egitez deuseztuteko ala ta eskubidea dauko eta bidezko ziyoz egin ezkerer, baita legez be; eta olan kendua betiko kenduta dago.

§ 2.—Berbea-emollearen naimenaren gain alik eztaukanak, baña bai ark emoteko agindu daukan gauzearen gain, eskubidea dauko berbea emonak bete-bearra atzeratutako berari kalte egingo leuskion artean.

1313g. araua. Berbea-emonak bete-bearra azkatzea iflorentzat berezita eztagoanean, azkatzeak iflori kalterik ekarri ezik, azkatu dagike:

1.º Goterkizañak bere menpeko guztiak eta baita arrotzak be.

2.º Eleiz-gizonezko Jaunzaletzako Nagusiak 514, § 1g. arauan aitaturaren direan guztiak.

3.º Azkatzeko eskubidea Aita Santuak emon dautsenak.

1314g. araua. Berbea emotorduan eskeñitako zera, berbea-emon ori azkatutea iflori berezita eztagoanean, berbea-emolleak berak aldatu dagike beste zer obean nai bardiñean; txarragoan, 1313g. arauaren neurrian osoan azkatuteko eskubidea daukanak.

1315g. araua. Jaunzaletzaren aurretik emondako berbea bete-bearra eskegita gelditzen da berbea-emollea Jaunzaletzan bizi dan artean.

II Atala

Zin-itza

1316g. araua. § 1.—Ziña, au da, norberak esaten daukan egiaren leku-kotzat Jauna ezarri, egiagaz, sentzunagaz eta bearragaz baño ezin leiteke egin.

§ 2.—Eleiz-legeak aginduten daben edo egiten izten daben ziña ezin leiteke egin ifloren bitartez.

1317g. araua. § 1.—Zer-bait egingo daukala zin egin daukanak, ziñagaz sendotu ebana egiteko Jaunari zor dautsan lotsearen egin-bear berezia dauko.

§ 2.—Indarrez nai bildur andiz eragindako ziña benetan berez gauzazko da, baña Eleiz-Nagusiak azkatu dagike.

§ 3.—Norberetzat bakarrik ongarri dan edo legeak emondako eskubideen bateri uko egitorduan iflori artara ez indarrez ez iruzurrez beartu barik egiten dan ziña, norbere betiko osasunaren kaltegarri ezpalitz, bete egin bear da.

1318g. araua. § 1.—Zer-bait egiteko itzari ezarritako ziñaren bidez sortutako egin-bearra amaitzen da:

1.º Bere onerako egin yakonak parkatu balegi.

2.º Ziñagaz sendotutako zera osoan aldatu baledi, edo zeren aldakuntzeagaz egiteko berez gaiztoa edo gitxienez ezertariko onik ekarriko eleukena baledi, edo zer obea galazo balegi.

3.º Zin-egitera norbait ekarri eban ziyokak nai baldintzeak osoan uts emon balegi.

4.º Alperrikoa egin dalako, edo azkatu dabelako, edo 1320g. arauaren neurrian trukau dabelako.

1320g. araua. Berbea emonak ausi, azkatu nai trukau dagikenak esku bardiña ta neurri bardiñean dauke zer-bait egiteko berbeari ezarritako ziñari buruz; baña egin-bearra parkatu gura eztabenen kaltez balitz ziña-azkatzea, Aita Santuak bakarrik azkatu dagike ziña, Elexearentzat nai bearreko nai ongarri litzakenean.

1321g. araua. Ziña zeatz ulertu bear da zin egillearen eskubide ta asmuaren neurri-barruan; edo zin-egilleak maltzur yokatu balegi, zin egin eutsanaren asmuaren neurrian.

LAUGARREN ZATIA

Elexearen irakaskintzea

1322g. araua. § 1.—Kisto Jaunak bere siñeskizuntzaren kutxea Elexe-ari emon eutsan, onek, Espiritu Santuak beti lagun egiten dautsala, Jaunak agertutako irakatsiak zoli zaindu eta zintzo irakasteko.

§ 2.—Elexeak, edozein Laterrietako agintariakandik azke, Barri-Ona guztiai irakasteko eskubidea ta egin-bearra dauko; irakatsi au ganoraz ikasi eta benetako Elexan sartu-bearra, Jaunak alantxe aginduta, gizakume guztiak dabe.

1323g. araua. § 1.—Katoliko izateko Jaunari zor dautsagun siñestez siñestu bear dira Jaunaren idatziko nai yarauntsitako itzetan dagozanak eta Elexeak nai epai ospatsuetan nai eguneroko ta edonongo irakasietan Jaunak agertukotzat siñestu bear doguzala irakatsi daroazan zer guztiak.

§ 2.—Orretariko epai ospatsua emotea, bai Elexa osoaren Batzarrari dagokio, bai Erroma'ko Obispoari (Aita Santuari) Elexa osoaren Irakasle lez itz egiten dauanean.

§ 3.—Alantxe agirian oartu ezik, ezta uste izan bear ezer siñeskizuntzat agertu nai erabagi danik.

1324g. araua. Ezta naikoa siñausi-gaiztakeririk ez egitea; ganera, beragana gitxi-geyago urreratuten direan eritxi okerretatik be kontuz alde egin bear da; onegaitik, onetariko eritxi guztiak Aita Santuak gaiztotzat emon eta galazo dauzan agindu ta erabagi guztiak be bete bear dira.

1325g. araua. § 1.—Kistoren yarraitzalleak siñismena agirian autortu-bearrean dagoz, ari buruz ixilik egoteak, nai ostonduteko alegiñak nai yardunbideak siñeskintza orteri uko egin ete dautsanen susmoa, Kis tar-siñeskintzaren ezespena, Jaunaren iraña ta bere anai-arrebentzat yauspidea balekar.

§ 2.—Ugutza artuta gero iñork, kistar izena daukala, Jaunagazko ta katoliko siñestez siñestu bear dan egien bat ukatu balegi nai expayan yarri balegi, *siñausle lotzake*; kistar-sineskintzatik osoan alde balegi, *ukatzallea*; atzenez, Aita Santuaren menpeko bizi nai ez eta berari men egiten dautsen Eleizgorputzaren gorpuzkin direanakaz artu emonik izan gure eztauana: *urrazalle* da.

§ 3.—Aita Santuaren baimen barik, edo estualdi baten Goterkizafiaren bai-

men barik, katoliko eztireanakaz eztabaidak eukitetik nai alkarregazko izketaldietatik alde begie katolikoak.

1326g. araua. Obispoak be, nai banan nai nonbaiteko batzarretan al-kartuta, okerrik esan eziniñik ezpadauke be, zaindu bear dabezan kistarren benetako irakasleak edo maixuak dira, Aita Santuaren menpean.

XX IDAZPURUA

Jaunoren Itza aldarrikatzea

1327g. araua. § 1.—Katoliko siñeskintzea aldarrikatu-bearra Elexa osoan batez be Aita Santuari dagokio; euren Goterkietan, Obispoai.

§ 2.—Obispoak, legez eragotzita egon ezik, Kisto'ren Barri Ona eurak aldarrikatu bear dabe; eta parroki-zañen ganera, Kisto'ren irakaskintzea aldarrikatzeko lan onetan lagun egingo dautsen gizon aukerakoak billatu bear ditue.

1328g. araua. Aldarrikatze-lan au egiterik etxako iñori zillegi legezko Nagusiakandik artarako eskubidea artu barik: nai beren-beregi emona, nai Elexako legeen arauz aldarrikatzea dagokion zeregiñen bat ezarriaz emona.

I Atala

Kistar-Ikaspidearen Irakaskintzea

1329g. araua. Arimak zaintzea ezarri yakenen eginbear berazizko ta aztuna baño aztunagoa, batez be, erriari kistar-ikaspidea irakasten ekitea da.

1330g. araua. Parroki-zañak:
1.º Urte-aro izentauetan Kistar-ikaspidea yarraituko egun askotan irakatsiagaz, autortza ta sendotza-ikurtonak artzeko umeak urtean-urtean gertatu begiz.

2.º Eragozpiderik ezpadau, Garizuman batez be gogo-leya bereziagaz Geure Jauna yaupamaitik benetan ondo yateko giñoan irakatsi bear dauz.

1331g. araua. 1130g. arauan aitaturako umeen Kistar-ikaspide-irakaskintzaz ganera, ezpegi itxi parroki-zañak lelengoz Jauna artu daben umeak kistar-ikasbideari buruz yoriago ta osoago landutea.

1332g. araua. Igandeetan eta agindutako beste yai-egunetan, bere eritxiz erririk geyena etorten dan orduan, parroki-zañak kistar urteetan elduai be euren ulermenaren neurrian kistar-ikaspidea atzaldu bear dautse.

1333g. araua. § 1.—Parroki-zañak Jaunari buruzko gayetan umeak obeto irakasteko, parrokiaren barrutian bear bada bizi direan beste eleiz-gizonen laguntzea be artu begi, eta bear izan ezker, baita erritar kistar onen laguntzea be, batez be parrokiaren eregita legoken Kistar-ikaspide-anai-arreba-Batzako bazkideen laguntzea, zeregin ori alik ondoen betetako, batez be bera osterantzeko egin-bearrakaz eragotzita balego.

§ 2.—Yaupariak eta beste eleiz-gizonak, edozein eragozpidez lotuta ezpa-legoz. zeregin santu be santu onetan euren parroki-zañari betorkioz lagun, eta Goterkizañak zigorrez be artara beartu dagikez.

1334g. araua. Erriaren kistar-ikaspide-irakaskintzarako Goterkizañaren eritxiz Jaunzaleen laguntzea be bearrekoa balitz, Jaunzale-Buruak, azkatua bada be, Goterki-zain berberak eskatu balegi, eurak edo euren menpeko Jaunzaleen bidez, euren legezko bizikerearen kalte barik izatekotan, erriari irakaskintza ori, euren eleixetan batez be, emon bear dautse.

1335g. araua. Ez bakarrik gurasoak eta beste guraso-ordezkoak, bai ugazabak eta aitaxi-amatxiak be, euren menpean nai ardurapean daukezan guztiai kistar-ikaspidea irakatsi dakientzat alegin egin bear dabe.

1336g. araua. Erriari kistar-ikaspidea irakasteko bear direan zer guztiai buruzko erabagiak artzea Goterkizañari dagokio; eta Jaunzale azkatuak be azkatu bakoai irakasten dautsenean, Goterkizañaren erabagiok bete bear dabez.

II Atala

Eleiz-itzaldiak

1337g. araua. Bai gizarteko eleiz-gizonai bai azkatu bako Jaunzaleai kistar-erriari itzaldiak egiteko eskubidea Goterkizañak bakarrik emoten dautse.

1338g. araua. § 1.—Jaunzale azkatuak ta 514, § 1g. arauan aitauten direanai bakarrik itzaldia egiteko eskubidea eleiz-gizonen zeko Jaunzaletzan euren legeen arauz dagokion Nausiak emoten dau; orretarako gizarteko eleiz-gizonari eta beste Jaunzaletzakoari be emon dagikeo eskubidea bakotxaren Goterkizañak nai Nagusiak, artarako gai direalakatzat emonak balira.

§ 2.—Itzaldia beste norbatzui, edo lekaideen menpeko direan lekaimeai be egin baledi, Jaunzale azkatuak be itzaldia egiteko eskubidea egiten dan tokiko Goterkizañak emoten dau; ganera, lekaime azkatuak itz egingo dautsenak Le-kaipuruaren baimena bear dau.

§ 3.—Eleiz-gizonen zekoena eztan Jaunzaletzakoai, azkatuak izan arren be, itzaldiak egiteko eskubidea Goterkizañak emon bear dautse; izlariak baña, ezin dagike eskubide ori erabilli Jaunzaletzako legezko Nagusiaren baimen barik.

1339g. araua. § 1.—Euren Nagusiak aurkeztutako Jaunzaleai, ziyo az-tun barik Goterkizañak itzaldiak egiteko eskubidea ezpegie ukatu, ta, bein emon ezker, ezpegie kendu, batez be, Jaunzaletzako yaupari guztiai erabatera, alan be 1340, § 2g. arauan erabagiten danaren kalte barik.

§ 2.—Jaunzale-izlariak artutako eskubide ori erabilteko ganera euren Nagusiaren baimena be bear dabe.

1340g. araua. § 1.—Zer oneri buruz oker yokatu ezkero pekatu larriaren errudun egiten direala gogoan dabela, Goterkizañak eta Jaunzale-Buruak itzaldiak egiteko eskubidea nai baimena ezpegioe inori emon, aurretik bere ekandu onak eta 877, § 1g. arauan aginduten dan azterpenaren bidez artarako bear dan besteko yakintzea daukana yakin barik.

§ 2.—Eskubidea nai baimena emonda gero, izlaria bere zeregiña bear dan lez betetako ez-tala gauza ikusi balegie, kendu egin bear dautse; yakituriari buruzko zalantzea argi ikusteko bear dana eginda uxatu bear da, bear balitz barrero aztertuta.

§ 3.—Itzaldiak egiteko eskubidea nai baimena kenduagatik izlariak gora yo dagike, ez baña erabagia etentzeko indarragaz.

1341g. araua. § 1.—Goterkitik kanpoko yauparirik, nai gizartekorik nai Jaunzalerik, ezpedi deitu itzaldia egingo dan tokiko Goterkizañaren baimena aurretik lortu barik; Goterkizañak, barriz, aren gaitasuna nonbaitetik ezagun ezpaleu, ezpegi bayetzik emon lenago izlariaren yakituria, Jaunkoitasuna ta bizikereari buruz izlariaren Goterkizañaren ziñalbena euki barik; Goterkizain onek, barriz, pekatu aztunik egin nai ezpadau, egia garbi esan bear dau.

§ 2.—Parroki-elexea edo beronen mendeko beste eleixen bat balitz, parroki-zañak baimena garaiz eskatu bear dau; eleixea parroki-elexearen mendeko ezpaleu, eleiz zañak; Batzar-elexea balitz, Batzar-Buruak Batzarraren bayezkoagaz eskatu bear dau baimena; kistar-anai-arreben-Batzaren baten eleixea balitz, Batzaren yaurleak nai otoizlariak.

§ 3.—Parroki-elexea erabatera Batzarrarena edo arreba-anaidiarena balitz, baimena eleizkizunak egiten dauzanak eskatu begi.

1342g. araua. § 1.—Itzaldiak egiteko eskubidea yaupari ta yaupari-otseñai (diakonoai) bakarrik emoten yake, ez barriz ostan-tzeko eleigizonai, ganorazko ziyoz Goterkizañaren eritxiz eta yazoera bakanetan baño (1).

§ 2.—Erri-gizon guztiai, Jaunzaleak balira be, eleixen itzaldirik egitea galazota dauke.

1343g. araua. § 1.—Goterkizain bakotxak bere barruti osoan edozein eleixetan itz egiteko eskubidea dabe, bai eleixa azkatua balitz be.

(1) Gaur eztago diakonoa baño beragoko mallako eleiz-gizonik.

§ 2.—Uri andietan izan ezik, Goterkizañak, agiriko ta ez eguneroko ziyoz, kistar guztiak deituta, nai berberak nai beste norbaitek bere aurrean egiteko itzaldia gertatu balegi, uri nai erriko beste eleketan erriarentzat itzaldirik egitea galazo dagike.

1344g. araua. § 1.—Igandeetan eta beste urteko yai-egunetan parroki-zain bakotxaren egin-bearra da oi dan Barri-Onaren azalketaren bidez, lagunik geyen etorten direan yaupa-barruan batez be, Jaunaren itza erriari iragartea.

§ 2.—Parroki-zañak egin-bear au ezin dau geyen baten iñoren bitartez bete Goterkizañak ederretsiko bidezko ziyoz baño.

§ 3.—Urteko yai-egun ospatzenetariko batzuetan eta igande banaketan atarako ziyo onik balitz, itzaldi au ez egitea ontzat emon dagike Goterkizañak.

1345g. araua. Kistarren aurrean, yai-egunetan elexa ta agiriko otoiztegi guztietan egiten direan yaupetan Kisto'ren Barri-Onaren edo kistar-ikasbidearen atal baten azalpen laburra egitea on litzake; Goterkizañak, arau egokiak emonda, ori egiteko agindu balegi, agindu ori bete-bearrean dagoz ez bakarrik erri-yaupariak, bai Jaunzaleak be, naita azkatuak izan, euren eleketan.

1346g. araua. § 1.—Garizuman eta, ondo baderitxo, bardin Abenduan be Obispoaren eta parroki-eleketan kistarrentzako itzaldiak sarriago egin dagiezan bizkortu begiz Goterkizañak bere eleizgizonak.

§ 2.—Obispoaren elekan egingo litzakezan itzaldietara, Batzar-otoitz-ondoan bertatik balira, bidezko zerbaitek eragotzi ezik, bazkide guztiak eldu bear dabe, eta Goterkizañak orretara, bear balitz, zigorra erabillita be beartu dagikez.

1347g. araua. § 1.—Eleiz-itzaldietan beñena kistarrak zerura yoateko siñestu ta egin bear dabena irakastea da.

§ 2.—Jaunaren itza iragarten dabena ezpegie erabili Jaunagaz zer ikusirik eztaukan gairik; ezta entzulerik geyenak ulertu ezin dabena esakerarik; eta Kistoren Barri-Onaren irakatsia be ez giza yakiturizko itz panparroyakaz, ez itz-ixuri uts eta arroaren indarrean; ostera, egin begie al dabena Jaunagandiko bizitza guriaren ederra ta indarra erakusten; ez euren burua goratu-gureka, Kisto kurutzean yosia baño.

§ 3.—Ez al da Jaunarren alangorik yazoko, baña eleiz-izlariak okerrak eta iñorentzako yauspide litzakezanak irakatsi balegiz, 2317g. arauak agindua egin bedi bere aurka.

1348g. araua. Ekin bekie nekatu barik euren ardurapeko kistarrak ele-xako itzaldietara sarri yoan daitezala esaten.

III Atala

Misiñoak

1349g. araua. § 1.—Parroki-zañak, gitxienez amarna urte-barruan, *misiñoa* deritxon *Itzaldiketean* bakotxari ezarritako artaldearentzat egiteko arduratu daitezana begiratu begie Goterkizañak.

§ 2.—Parroki-zañak, Jaunzaleak badira be, misiñoa zelan egiteari buruz Goterkizañak aginduko leukena egin begie.

1350g. araua. § 1.—Goterkizañak eta parroki-zañak euren goterki edo parroketan bizi direan katoliko ez-tireanak Jaunaren aurrean sarri gogoratu begiez bide onera ekarteko.

§ 2.—Ludiko beste alderdietan bizi direan katoliko ez-tireanai buruzko Belguntza-lana Aita Santuak beretzakotzat bakarrik dauko.

1351g. araua. Katoliko-siñeskintzea artzen ezpedi iñor indarrez beartu.

XXI IDAZPURUA

Jaupalgai-etxeak

1352g. araua. Elexeak eskubide bere-berea ta bakarra dau bere langille izan nai dabena azi-eziteko.

1353g. araua. Yaupari guztiak parroki-zañak batez be, arduratu bediz eleizgizon izateko deituaren antza agertuten dabena mutikoak yoran bereziagaz gizarte-kutsuetatik aldenduten, yaungoiko-zaletuten, ikastolako lelengo ikaskizunak eurai irakasten eta Jaunaren deyaren azia euren barruan erne ta azi deiten.

1354g. araua. § 1.—Goterki bakotxak Obispoak aututako toki egokian Goterkiaren indarraren eta zabalerearen neurritz gazte-taldetxoak eleiz-gizon izateko azi-eziteko abadegaitegia edo etxea euki bear dau.

§ 2.—Goterki azitxoetan batez be, yaupalgaitegi biña iminteko alegiñak egin bear dira: au da, txikiena, mutikoak elertietan landuteko, eta nagusia, filofia ta teologia ikasten daragoyenak azi-eziteko.

§ 3.—Goterkiko abade-gaitegirik yarri ezin baledi, edo yarritakoan irakasketa egokia, batez be filosofa ta teologian emon eziña balego, Obispoak bialdu begiz beste abadegaitegi batera, goterki-arteko nai Laterri-arteko abade-gaitegia Aita Santuaren bitartez yarri ezpaledi.

1355g. araua. Abade-gaitegia eregiteko eta abadegaia azteko ondasuntza berezirik ezpalego, Obispoak eskubidea dauko:

1.º Parroki-zain eta beste eleiz-zain guztiai, azkatuenak izan arren be, izentauko dautsezana bear onetarako ukarra eskatutea aginduteko.

2.º Bear oneri lagun etorteko, Goterkiari zerbait ordaindu-bearra ezarteko.

3.º Zer biok naikoa ezpalira, arima-zaintzarik eztauken bizibide batzuk abadegaitegiari ezarteko.

1356g. araua. § 1.—Goterkiari ezarritako ordaindu-bear ori bete-bear-tuta dagoz, edozein gora yote kenduta, eta aurkazko edozein ekandu txartzat emonda eta aurkazko edozein kutun-lege kenduta: Obispoaren maya, bizibide guztiak, naita lekaideenak edo patroyadunak izan, parroki ta parroki-antzekoak kistar-siñestedunen eskeinsariak baño beste irabazpiderik izan ez arren be, eleiz-aginpidearen menpean eregitako eri-etxea, legez eregitako Alkargoak, eleiz-etxeak euren bizibideak badabez, edozein yaunzale-etxe, azkatua bada be, ukarretatik bakarrik bizi ezpada edo Elexa osoaren alde lan egiteko ikasten edo irakasten dabenen etxea ezpalitz.

§ 2.—Zerga onek guztientzakoa eta guztientzat neurri bardinekoa izan bear dau, lodiagoa edo argalagoa abadegaitegiaren bearren neurrikoa, baño irabazpideen euneko bostera baño gorago eztau igon bear, eta abadegaitegiaren irabazpideak azi ala, gitxitu egin bear da.

§ 3.—Zerga au ordaindu bear da sarbideetatik etorritako irabazi ta ezin besteko eralgiketarik gelditu danetik; ta zergau eztauke ordaindu-bearrik: a) eguneroko banaketatik diruak, edo bizibidearen irabazi osoa eguneroko banaketetan emona balitz, euren irurenak; b) ez kistarren ukarrak edo parrokiaren irabazi osoa kistarren ukarrak baño ezpalitz, euren irurenak.

1357g. araua. Abadegaitegiaren ondasunak ondo zaindu daitezcan ardurea artzea, eta orretarako bearreko ta egoki deritxon guztia ta bakotxa erabagitea, eta eurok zintzo bete daitezcan begiratzea, Aita Santuak yazoera bakotxerako aginduen kalte barik, Obispoari dagokio.

§ 2.—Obispoak batez be, abadegaitegira sarri agertuta, begiratu begi ikasleai irakaskatea: dala elertiai, dala giza-yakintzeari, dala Jaunari buruzkoa zelangoa dan; eta ikasleen yardunkerea, goiko-zaletasuna, benetako eleiz-gizon izateko Jaunaren deirik badabe-ezpadabe eta bai yakintzaari buruz bai santutasunari buruz zelango aurrekadak egin dabezan ondo ikusi; au egin bear dau batez be eleiz-gizontzeak direanean.

§ 3.—Abadegaitegi bakotxak beukoz Obispoak ederretsiko bere legeak; legeotan bai yaupalgaitegian Elexearen etorkizuna zaintzeko azi-eziten direanai, bai oneik bear dan lez azi-eziteko lanari daragoyenai be zer egin, zer bete bear daben irakatsi bear yake.

§ 4.—Goterkien nai Laterrien arteko abadegaitegien yaurbide osoa ta diru-zaintzea Aita Santuak emondako legeen arauz egiten da.

1358g. araua. Edozein yaupalgaitegin urrengo zeregiñak egiteko laingo gizonak izan bediz: yaurlea, etxe osoko jardukerea zaintzeko; irakasle yakitunak, irakasteko; diru-zaña, etxeko bizi-bearrari begiratzeko; gitxienez autortza-entzule bi; eta arimako bizitza-zaña.

1359g. araua. § 1.—Goterkiko abadegaitegentzat aren ardurea izango daben giza-batza bi yarri bediz: bata bizikereari buruzkoa; bestea, ondasunai buruzkoa.

§ 2.—Batza bakotxa yaupari bik osotuten dabe, Obispoak, Batzarra entzunda, izentauak; ezin leitekez baño izan ez danerako Obispoaren Ordezkoa, ez Obispoaren etxekoak, ez abadegaitegiaren Yaurlea, ez diru-zaña ez autortza-entzuleak.

§ 3.—Bazkide orrein zeregiñak sei urte irauten dau, eta izentauak ezpediz ziyo aztun barik kendu; barriro bai izentau daitezke.

§ 4.—Bazkide orrein eritxia Obispoak abadegaitegiari buruzko ebazkizun garrantzitsuetan eskatu bear dau.

1360g. araua. § 1.—891g. arauan agindua makaldu barik abadegaitegiko yaurlea, arimen bizizaña, autortza-entzule ta irakasleak autu bediz yakituriz ezeze, kistar-bizikeraz be ta sentzunez onenak agiri direan eta bai itzez bai bizitzaz yaupalgayai on egin dagikien yaupariak.

§ 2.—Euren zeregiñak betekeran guztiak abadegaitegiko Yaurlearen menpeko agertu bediz.

1361g. araua. § 1.—Eguneroko autortza-entzuleez ganera, ikastunak noiz gura eurakana eldu daitezkezan beste autortza-entzule batzuk be izentau bediz.

§ 2.—Autortza-entzuleak abadegaitegitik kanpoan bizi balira, ta ikasle norbaitek eurotariko norbaitei dei egiteko eskatu balegi, Yaurleak zergaitik eskatuten dauan ezelan be itandu barik eta eskaria txartzat emoten dauanik erakutsi barik dei egin begio; abadegaitegian bertan bizi badira, ikastuna iñori baimenik eskatu bear barik beragana eldu daiteke, orraitio abadegaitegiko legezko bizikerearen kalte barik.

§ 3.—Ikastuna eleiz-gizontzeko nai abadegaitegitik yaurtigiteko ezpedi iñoiz autortza-entzulearen eritxirik eskatu.

1362g. araua. Eleiz-gizonak azteko emonen etorriak abadegaitegian nai nagusian nai txikian legez bertako direan ikastunentzat ezarri leitekez, oraindiño eleiz-gizondu barik egon arren, iraskun-aginduetan agirian besterik aginduta ezpalego.

1363g. araua. § 1.—Goterkizañak ezpegiz artu abadegaitegian legezko semeak baño, euren izakereak eta gogoak eleiz-gizonaren egitekoak bizi diran artean ondo beteko dabezalako, itxaropena emoten dabenak.

§ 2.—Artu orduko, urrengo agiriak erakutsi bear dabez: legezko yayotzearena, ugutza ta sendotza-ikurtonak artuarena ta bere bizikera ta ekanduai buruzkoa.

§ 3.—Beste abadegaitegitik nai Jaunzaletza batetik egotziak ezpediz artu, lenago Obispoak, bear bada ixilpean, Nagusiakandik nai besteekandik barriak eskatu barik zergaitik egotzi ebezan, eta barriotatik yaupari-bizikerearen kalteko ezer eztaukala argi agiri ezik. Barriok eskatu yakezan Nagusiak egia erantzun bear larria dauke.

1364g. araua. Abadegaitegiko berengo mallako ikastoletan:
1.º Bakotxaren ulermen eta adinari dagokion eraz azaldu bear da Jaunagazko gizonaren artu-emonai buruzko irakasketeak eta onek euki beat dau lekurik beñena.

2.º Mintzoerak, latera ta norbere errikoa batez be ondo ikasi bear dabez.

3.º Eta beste ikasgayetan abadegeyok euren adineko erri-lagunak dakien beste beintzat yakin daien, eta gero eleiz-gizon-lana egingo daben tokian eleiz-gizonak izan daroen besteko yakituria izan daien irakatsi bear yake.

1365g. araua. § 1.—Benetako *Filosofia* eta bere eraskiñak ikasten gitxienez urte bian ekin bear dautse.

§ 2.—Teologia edo Jaunari buruzko ikastaroak gitxienez lau urte osoak iraun bear dau; ta siñeskizun eta bizikereari buruzko Teologiaz ganera, Liburu edo Idazti Santuen ikasketa batez be, ta elexearen edestiarena, eleiz-legeena, yaurspidearena, eliz-itzaldiena ta eleiz-abeteskerearena be ikasi bear dabe.

§ 3.—Kistar-errikoen arimak zelan zaindu be irakatsi bear yake, eta irakatsi yakena ikasi dabela erakutsi-erazo be bai, erriko umeai bai nagusiai irakastaldiak emonda; autortzak zelan entzun, gexoakana zelan eldu, iltamuan dagozanai ondo ilteko zelan lagun egin.

1366g. araua. § 1.—Filosofia, Teologia ta Elexearen legeak irakasteko, zer guztiak begiratuta, Obispoak eta abadegaitegiko Aldunak Irakastetxe Gurenetan edo Aita Santuak eregitako Irakastetxe Nagusien baten ikasiak eta Irakasle-agiria artueterikoak, edo Jaunzaleak balira, euren Nagusiakandik antzeko ziñalbena daukenak artu bediz.

Benetako Filosofiarena, ta Teologiaren irakaskerea eta gai onei buruzko ikasleen ezikuntzea irakasleak emon begie, Tomas Santuaren irakaskerea, irakatsia eta suster-egiak zaindurik; eta benetan zintzo zaindu begiez.

§ 3.—Jaunaren Idaztiarena, siñeskizunai buruzko teologia, bizikereari buruzko teologia eta Elexearen edestia irakasteko, gitxienez irakasle bana begoz.

1367g. araua. Goterkizañiak begie al dabena abadegaitegiko ikasleak:
1.º Egunero goiz eta arratseko otoitzak batera esan dayezan; ixileko otoitzari izentautzen dautsen orduan ekin dayoen; yaupara eldu daitezcan.

2.º Gitxienez astean bein autortza-ikurtonera eldu daitezcan; Jauna, bear dan lez, sarri artu daien.

3.º Igande ta yai-egunetan Yaupa Nagusira ta arrats-otoitzetara eldu daitezcan; yaupamayan egiten direan eleizkizunetan laguntzalle izanda, eleiz-yaureskizunak zelan egin ikasi daien; batez be, Obispoaren elexan bertan Obispoaren eritxiz abadegaitegiko bizikerearen eta ikasketen kalte barik egin badaiteke.

4.º Urtero egun batzuetan gogo-iñarkunai ekin begie.

5.º Astero, gitxienez bein, Jaunagazko norbere artu-emonai buruzko irakastaldia izan begie, gogoak berotzeko itzaldiaz amaiturik.

1368g. araua. Abadegaitegia parroki-zañaren menpetik azke dago, ta abadegaitegian dagozan guztientzako parroki-zañaren egin-bearrak abadetegeiaren yaurleak edo bere ordezkioak egin bear ditu, abadegaitegi batzuetan Aita Santuak besterik erabagi ezpalegi; ezkontzeari buruzko zerak parroki-zañari dagokioz eta abadegaitegiko yaurleak ezpegi aitzu 891g. arauak agindua zutunik dagoala.

1369g. araua. § 1.—Abadegaitegiko Jaurleak eta bere menpean etxea erabilten lagun egiten dautsen guztiak al dabena begie Abadegayok Obispoak ontzat emondako arauak eta ikasketak zelan egin aginduten dabezan legeak zeatz bete dagiezan eta eleiz-gizon yatorrari dagokion gogo-giroz bete daitezcan.

§ 2.—Sarri be sarri ekin begioe benetako kistar yatorrari dagokiozan yardukerak ikasi ta erabili dagiezan irakasten, euren yardunkereagaz esaten dabena egiteakaz erakutsirik; ganera, osasuna zaintzeko zer egin bear daben; yantzi ta gorputzaren garbitasuna eta alkarregazko bizikeran eleiz-gizonari dagokion neuriari adeitsu ta edonori lotsea ezarten dautsan yardunkerea izan dagien.

§ 3.—Zoli begiratu begie, irakasleak euren egitekoa ondo bete dagien.

1370g. araua. Yaupalgayak edozergaitik yaupalgaitegitik kanpoan bizi direanean, 972, § 2g. arauaren agindua bete bedi.

1371g. araua. Abadegaitegitik yaurtigi bediz: okerrak, ezigatzak, burrukariak, euren bizikera ta izakereagaitik ganorazko eleiz-gizon izateko itxaropenik emoten eztabenak; baita ikasketetan gitxiegi aurreratzen dabena be, eleiz-gizon batek yakin bear dauan aña ikasteko itxaropiderik emoten eztabela; baña batez be bela yaurtigi bediz bizikeran loikerien bat egin dabena be edo siñeskizunai buruz eritxi okerrak agertu dabena.

XXII IDAZPURUA

Ikastolak

1372g. araua. § 1.—Kistar guztiai umetandik siñeskintza katolikoaren edo bizikera garbiaren aurka ezer irakatsi barik, euren azi-ezikerean lelengo ikasi bear dabena zer siñestu ta zelan garbi bizi izan bear dau.

§ 2.—Ez bakarrik 1113g. esaten dan lez gurasoai, euren tokia dauken guztiai be badagokie seme-alaben azi-ezikuntzea benetan kistarrari dagokiena izan daiten ardurea artzeko eskubide ta egin-bear estu be estua.

1373g. araua. § 1.—Edozein umeentzako ikastoletan beñen irakatsi bear yakena, Jaunari buruzko gure bizi-bearrak.

§ 2.—Goragoko ikastoletan edo gorengoetan be ikasten daragoyon gaztediari Jaureskizunari buruzko gaietan irakatsi beteagoa emon bear yako; eta

irakatsi-ori yaupari arima-zale ta yakitunak emon dagien Goterkizañak al da-bena egin begie.

1374g. araua. Ume katolikoak ezpegiez erabilli katoliko ez-tireanen ikastoletara, ez bata ez bestea ez-tireanetara ezta bitzuen-tzakora be, katoliko ez-tireanak be bertara doazanetarikora. Goterkizañari baka-rrik dagokio erabagitea, Aita Santuaren irakatsiari yarrai, noiz eta non eta zelan eroan leiteken olango ikastoletara umeak ibiltea, ta bide okerretik yoan ez-taitze-zan zelan galazo.

1375g. araua. Elexeak edozein ikaskizunezko ikastolak, berengoak ezeze erdikoak eta gorengoak be eregiteko eskubidea dauko.

1376g. araua. § 1.—Gorengo mallako ikaskizun guztiak nai asko ira-kasteko direan ikastolak eta ikaskizun bakarrekook eregi-tea be Aita Santuaren eskubidea da.

§ 2.—Orretariko ikastolak, Jaunzaletza bateri emona izan arren be, Aita Santuak ontzat emondako bere legeak izan bear ditu.

1377g. araua. Legezko ondorenak daukezan *yakitun-agiriak* ez dagikez iñork emon Aita Santuagandiko eskubidez baño.

1378g. araua. Yakitun-irakasletzat legez agertuak edo emonak, eleizki-zunetatik alde, erabilli dagikez: erestuna bere bitxiagaz, eta yakitun-irakasle-txapeltxoaz; eleiz-legeari kalterik egiten etxakola ta Gote-rkizañaren eritxiz beste zeretan bardiñak direanen artean, irakasle edo yakitun-agiria lortuak obetzat euki bear dira, elei-zeregiñak eta bizibideak emokeran.

1379g. araua. § 1.—1373g. arauak diñoazan katoliko-ikastolarik, zein berengo zein erdiko mallakorik ez balego, Goterkiza-ñak batez be egin-alak egin bear ditue eregi daitezcan.

§ 2.—Bardin, guztientzako gorengo mallako ikastolak katoliko-yakintzaz eta senaz urri balegoz, ondo litzake enderrian edo enderkian olango gorengo mallako ikastola katolikoa eregitea.

§ 3.—Kistar guztiak ikastola katolikoak eregi ta bizi daitezcan al daben laguntzea emon begie.

1380g. araua. Opa izatekoa da Goterkizañak, euren eritxi zurrak esa-ten dautsenari yaramon egiñik, Jaungoikozaletasunez eta buru-argiz besteen artean ganetikoenak agiri direan eleiz-gizonak Elexeak eragi-tako edo ederretsitako gorengo mallako ikastoletara bialtzea, bertan filosofi, teo-logi ta legetzan yakitun edo irakasle-agiriak lortu dagiezan.

1381g. araua. § 1.—Gazteriaren Yaureskuntzeari buruzko irakazkintzea edozein ikastolan Elexearen agintaritzapean eta ardura-pean dago.

§ 2.—Goterkizañak euren barrutiko edozein ikastolan siñeskintzaren nai ekandu garbien aurka ezer irakatsi nai egin ez-taiten begiratzeko eskubidea ta egin-bearra dauke.

§ 3.—Bardin, Jaunari buruzko irakasketa-idaztiak zelangoak direan aztertu ta ontzat nai txartzat ebazteko eskubidea dabe.

1382g. araua. Goterkizañak, zein eurak zein iñoren bitartez, edozein ikastola, kiroltoki, yauretxe ta abar yaureskuntzeari ta ekanduen irakasbideari buruzkoetan ikusi dagikez; Goterkizañak ikusteko esku-bide orretatik eztago azkatuta Jaunzaletza-azkatuen ikastolarik be, Jaunzaletzaren beraren gazte jaunzaletuen ikastolak ezpalira.

1383g. araua. Yaureskuntzeari buruzkoetan edozein ikastolako ikasleen azi-ekuntzeari buruz bete bedi 891g. arauko agindua.

XXIII IDAZPURUA

Idaztien argitara orduko azterpena ta epaya ta argitaratuak galazotea

1384g. araua. § 1.—Elexeak berak aurretik aztertu bako idaztiak ez argitaratutea aginduteko, eta edonork argitaratuak ira-kurtea bidezko ziyoz galazoteko eskubidea dauko.

§ 2.—Idazpuru onetan idaztiai (liburuai) buruz aginduten dana aldizkariai eta beste edozein idatzi argitaraturi ezarri bear yako.

I Atala

Idaztien argitara orduko azterpena ta epaya

1385g. araua. § 1.—Argitara-aurretiko azterpena ta epaya barik, ezta erri-gizon-emakumek be, ezpegiez argitaratu:

1.º Idatzi Santuen Idazkirik nai eurai buruzko oarrik nai azalpenik;
2.º Jaunaren idaztiai, teologiari, Elexearen edestiari, Elexearen-legeai, gi-zakumeak bere buruaren argiz ikusten dauan teologiari, gizakumearen ekanduai eta gizonaren Jaunagazko artu-emonai nai gizonak zuzen-okeregiten ete daua-nari buruzko idaztiak; otoitz-liburuak, oneraspenezko, kistar-ikasbidezko, on-gatxari buruzko, kistar-bizitzazko, mistikazko edo antzeko idaztiak, nai ta bene-tan gizakumearen Jaunagazko artu-emonai argia ta indarra emoteko idaztiak di-realakoa emon; ta itz baten esateko, Yaureskuntzeari eta giza-bizikerearen on-tasunari buruzko garrantzizko zerbait dauanean edozein idatzi;

3.º Irudi santuak edozelan argitaratutekoak, nai bakotxa bere otoitzagaz nai otoitz barik argitaratutekoak izan.

§ 2.—Or § 1, an aitaturako idatzi ta irudiak argitaratuteko baimena emon dagike edo Idatzi nai Irudiaren egillearen Goterkizañak; edo Idaztiak nai Iru-diak argitaratuten direan tokiko Goterkizañak; edo irarten direan tokiko Go-terkizañak; alan be, onetariko batek ukatu balegi, ez dagikeo idazleak baimena beste Goterkizañari eskatu, besteak ukatu dautsala esan barik.

§ 3.—Jaunzaleak ganera euren Nagusien baimena be lortu bear dabe.

1386g. araua. § 1.—Gizarteko eleiz-gizonak galazota dauke euren Goterkizañaren baimen barik, Jaunzaleak barriz euren Buru Nagusiaren eta Goterkizañaren baimen barik, edozein gayri buruzko idaztirik argitaratzea, nai ta Yaureskuntzeagaz ezertariko zer ikusirik euki ez, eta euren zuzendari egitea.

§ 2.—Yaureskuntza katolikoaren edo ekandu garbiai aurkazko agertzen direan egunkari ta aldizkari, orri nai idaztiñoetan, erritarrak be ezpegie ezer idatzi, Goterkizañak, zer guztiak ondo begiratuta, bidezko ziyoz itxi ezpalegio.

1387g. araua. Jaunaren seme-alaben Zorionkuntzeari ta Santutzat agertuteari edozelan dagokiezan gauzak ezin leitekez argitaratu Yaureskuntzeari buruzko Bazkun Gurenaren baimen barik.

1388g. araua. § 1.—Nekazkak nork, noiz eta zelan emonak izan direan diñoen idazti guztiak, euron erreskadak, idaztiño, orri ta abar ezpediz argitaratu Goterkizañaren baimen barik.

§ 2.—Aita Santuaren beren-beregiko baimena bear da, barriz, edozein mintzoeran bai Aita Santuak nekazkak ezarri dautsezan otoiñtz eta on egiñenen pillo siñeskarria argitaratu al izateko, baita argitaratu al izateko pilo siñeskarria Aita Santuak emondako nekazken erreskadea, edo lendik batutakoa baña iñoiz ontzat emona izan ezdana, edo oraintxe emotaldi danetatik artuta batu nai dana.

1389g. araua. Erroma'ko Bazkunen erabagien piloak ezin leitekez bariro argitaratu. lendik bayetza eskatu barik eta Bazkun bakotxaren Buruak agindutako baldintzak bete barik.

1390g. araua. Yaurespideari buruzko idaztiak eta euren atalak eta Aita Santuak ontzat emondako arrenketak argitaratzean, irarri nai edo argitaratuten dan tokiko Goterkizañaren zifalbenaren bidez yakin bear da len ontzat emondako argitaraldikoakaz bat datozen.

1391g. araua. Idazti Santuen gaurko erderatara itzulketak ezin leitekez irarri Aita Santuak ontzat emonda ezpadagoz edo Obis-tunen begi bizkorren aurrean Elxearen Gurasoen eta idazle katolikoaren eta yakitunen oarrakaz argitaratu ezpalediz.

1392g. araua. § 1.—Idazti baten yatorrizko idatzia ontzat emona ezta naikoa idazti orren beste erdera batera aldatuarentzat, ezta bere urrengo argitaldiarentzat be; orregaitik len ontzat emondako idatzia beste erdera batera aldatzeak eta lengoaren argitaratze barriak baimen barria bear dau.

§ 2.—Zatika argitaratutako aldizkarietatik osotuko lanak, eztira barriro argitaratuten direanik uste eta eztabe beraz baimen barririk bear.

1393g. araua. § 1.—Obispo guztien idazkolan izan bear dabe argitaratutakoak aztertu ta epaitzeko zeregiña daben epaikariak.

§ 2.—Epaikariok, euren zeregiña betekeran, nor nor dan begiratu barik, Elxearen siñeskezunak eta Batzar orokarren ebatzietan edo Aita Santuaren lege ta aginduetan eta ontzat emondako Irakasleen baterako irakatsietan dana ete daukan ala ez begien aurrean daukela emon begie euren epaya.

§ 3.—Epaikariok bietariko eleiz-gizonetatikoak izentau bediz, urtez, yakituriz, sentzunez ezagunak; idazleak irakasten dabena epaitu bear dabenean, alde begie alderdikerietatik eta bebiz erdiko bidetik.

§ 4.—Epaikariak epaya idatziz emon bear dau. Epaya aldekoa danean, Goterkizañak emon begi argitaratzeko baimena; baña baimen orreri epaikariaren epaya bere izenagaz aurrean ezarri bear yako. Iñoiz-iñoiz eta Goterkizañaren eritxi zurrez ixildu daiteke epaikariaren izena.

§ 5.—Idaztien idazleai ezpekio epaikaria nor dan iñoiz esan, epaikariak aren aldeko epaya emon artean.

1394g. araua. § 1.—Goterkizañak argitaratzeko emoten dauan baimena idatziz emon begi, idaztiaren edo orriaren edo irudiarren aurrealdean edo atzealdean irarri bear dana; nok non eta noiz emona dan diñoana.

§ 2.—Baimena ukatu-bearrean, zergaitik izan dan eskatzen dauan egileari, ziyo aztunen batek eragotzi ezpalegi, esan bekio.

II Atala

Idaztien gebentzea

1395g. araua. § 1.—Idaztiak bidezko ziyoz Elexa osorako gebentzeko eskubidea ta egin-bearra be badagokio Aita Santuari; baña euren menpekoentzat baita nonbaiteko Eleiz-batzarrai ta Goterkizañai be.

§ 2.—Gebentze orretatik Aita Santuagana yoteko eskubidea dago, ez baña eten-indarragaz.

§ 3.—Baita iñoren menpeko eztan lekaidetxeko Lekaipuruak ta eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatutako Nagusienak be euren Batzar edo Aolkari-batzagaz batera bidezko ziyoz euren menpekoen liburuak gebendu dagikez; baita, etxotean arriskurik balego, Jaunzaletzako beste Nagusiak be, bakotzak bere Aolkariak entzunda gero; alan be, erabagi ori len baño len iragarri begio Nagusienari.

1396g. araua. Aita Santuak txartzat emondako idaztiak nai non eta edozein erderara aldatuta be gebenduta dagoz.

1397g. araua. § 1.—Kistar guztiak, batez be eleiz-gizonak eta eleiz-agintaritzan yarriak eta yakituriz beteagoak, kaltegarritzat daukezan idaztiak Goterkizañai edo Aita Santuari salatu bear dautsez; zeregin au batez be Aita Santuaren Ordezkoai, Goterkizañai eta gorengo mallako Ikastola katolikoaren Zuzendariari dagokie.

§ 2.—Idazti gaiztoak salatzen dabezanean, idaztiaren idazpurua iragarri ta, al dala, idaztia zergaitik gebendu bear dan ziyok agertzea be ondo legoke.

§ 3.—Salakuntzea egin yakonak salatarien izenak ixilik zaindu-bear aztuna baño aztunagoa dauko.

§ 4.—Goterkizañak eurak edo, bear danean, artarako laingo Yauparien bidez, euren barrutian argitaratzen direan nai salgai dagozan idaztien ardurea beukie.

§ 5.—Azterketa zorrotzagoa bear leukienak edo yaramon geyago egin daki goragoko erabagiaren bearra dauken idaztiak bialdu begioz Goterkizañak aita Santuari.

1398g. araua. § 1.—Idaztia gebentzeak urrengo egin-bearrak dakar: bear dan bayetza barik idaztia ez argitaratu, ez irakurri, ez norberak euki ez saldu, ez beste erderaratu ez ezertara iñori erakutsi.

§ 2.—Edozelan gebendutako idaztia ezin daiteke barriro argitaratu, okerrak orraztuta gero, gebendu ebanak edo aren Nagusiak edo ondorengoak baimena emonda baño.

1399g. araua. Elxearen legez beste barik gebenduta dagoz:
1.º Idazti Santuaren yatorrizko idazkerearen eta antxiñako beste erderataratze katolikoaren argitaratzeak. katoliko eztan edonork egiañak; bardin eurok egindako nai argitaratutako edozein erderatzeak.

2.º Siñaustea nai Elxearen zatitzea ontzat erakutsi nai dabenak. edo Yaureskuntzearen oñarriak eurak ausi gura dauzan edozein idazleren idaztiak.

3.º Yaureskuntzea nai bizikera ona beren-beregi txarra dala erakutsi nai dabenak.

4.º Yaureskuntzeari buruz beren-beregi idatzitako edozein katoliko ezireanen idaztiak. siñeskintza katolikoaren aurka ezer eztagoala agiri ezpaledi.

5.º 1385, § 1, 1.º ta 1391g. arauetan izentatzen direan idaztiak; bardin 1385. § 1. 2.ºg. arauan aitaututen direanen argitaratze barriak, ixilekoen irakatsiak. ikusketak, iragarpenak, mirariak edestuten dabezanak, yaureskera barriak irakatsi nai dabezanak. bakotzak bere kontura egitekoak direala esan-arren, Elxearen legeak aginduta dauken lez barik argitaratuak balira.

6.º Katolikoaren edozein siñeskizunen aurka burruka datozanak edo euroi buruz irri egiten dabenak; Aita Santuak okertzat emonak artezak direala erakutsi nai dabenak; Yaureskereari aurka egiten dautsenak; Elxearen legezko bizikerea ausi-gureka ekiten dautsenak; Elxearen agintaritzza, eleiz-gizonen nai jaunzaleen izatea bera be iraingarritzat yoten dabenak.

7.º Edozertariko siñeskeri, sorginkeri, aztikeri, beste munduagazko artu-emon eta onetariko beste zerbaitez irakatsi nai gosten dabezandak liburuak.

8.º Biren arteko burrukea, norbere burua iltea ontzat emoten dabezanak; masoien eta antzeko taldeai buruz idaztean Elxearentzat eta laterriarentzat ez direala kaltegarri irakasten dabenak.

9.º Aragikeriari buruz beren-beregi idatzitako idaztiak.

10.º Elxearen Yaurespideari buruzko eta Aita Santuak ontzat emondako

idaztien argitaratzeak, bertan zerbait aldatu baledi, Aita Santuak ontzat emondakoak batera eztaozanean.

11.º Nekazka guzurrezkoak edo Aita Santuak txartzat emonak dakarrezan idaztiak.

12.º Edozelan irarriko irudiak: Kisto Geure Jaunarenak, Andra Mariarenak, Aingeruenak, eta Santuenak eta beste Jaunaren seme-alabenak, Elxearen sentikera ta aginduen aurka zerbait baleuke.

1400g. araua. 1339, 1.ºg. arauan aitaututen direanen eta 1391g. arauaren aginduaren aurka argitaratutako idaztiak irakurtzea teologia nai Idazti Santuari buruzko ikasketai daragoyenai bakarrik baldintza onegaz izten yake: idaztiok zintzo ta osorik argitaratuak izatekotan eta aurreko itzaldian nai oarretan siñeskintza katolikoaren siñeskizunik ez astindutekotan.

1401g. araua. Kardenalak, Obispoak, naita izen utsezkoak izan, eta beste Goterkizañak, bear dabezandak neurriakaz, eztagoz Elxearen idazti-gebentzeari buruzko lege onen azpian.

1402g. araua. § 1.—Berezko legez edo Aita Santuaren erabagiz gebendutako idaztiak irakurteko baimena Goterkizañak euren menpekoai idazti bakotxarentzat ta ziyo estuak eskatuta bakarrik emon dagike.

§ 2.—Gebendutako idaztiak euki-irakurteko baimena euren menpekoai izteko eskubidea Aita Santuagandik lortu baldin balebe Goterkizañak, nori emoten dautsen eta zelango idaztia dan begiratuta eta bidezko ta ganorazko ziyoz emon begie.

1403g. araua. § 1.—Aita Santuak emondako eskubidean nainork gebendutako idaztiak euki-irakurteko baimena agirian emon ezpalitxake, gebendutako idaztiak euki-irakurteko eskubidea Aita Santuagandik artu dabenak ezdagikez euki-irakurri euren Goterkizañak gebendutako idaztiak.
§ 2.—Ganera, gebendutako idaztiak iñoren eskuetara yon eztaitezandak zoli yagoteko agindu estuak beartzen ditu.

1404g. araua. Idazti-saltzalleak gai zantartzaz beren-beregi idaztiak ezpegiez saldu, ez emon ez yagon; beste gebendutakoak ezpegiez salgei euki, Aita Santuagandik bearezko bayetza lortu barik; eta iñori saldu be ezpegiez egin, erosleak legez eskatuten dautsala uste izateko ziyorik naikoa ezpadau.

1405g. araua. § 1.—Edonorgandik yadetsiko baimenak ezta iñor azkatuten bere buruari pekatu egiteko arrisku bizia ekarriko leuskion idaztirik ez irakurteko Jaunaren legeak iminten dautsan gebentzatik.
§ 2.—Goterkizañak eta beste arima-zañak yakitun egin begiez euren ardurapeko kistarrak idaztietatik, batez be gebendutakoetatik, datorzan arrisku ta kalteai buruz.

XXIV IDAZPURUA

Sinestearen autoriza

1406g. araua. § 1.—Aita Santuak ontzat emondako autortza-ereduz sinestea autortu-beartuta dagoz:

1.º Maipuruaren nai bere ordezkoaren aurrean, Elexa osoaren Batzarrera, nai nonbaiteko Elexearen Batzarrera nai Goterkiko Batzarrera, zein ebazkarri zein aolkarri-autarkiagaz elduten direan bazkide guztiak; Maipuruak berak, Batzarraren aurrean.

2.º Kardenal barriak, Kardenal-Batzako Kardenal Zarrenaren, yaupari ta diakono lerroko lelengo Kardenalen eta Eroma'ko Elexa Santuaren Altxor-zafiaren aurrean.

3.º Aita Santuak artarako ordeztuaren aurrean Obispo izentauak, naita gotorki bakoak izan; edo ifongo goterkiko zati ez tirean barrutien Lekaipuru, Jaurburu, Aita Santuaren Ordezko, Aita Santuaren Agintzadunak.

4.º Obispoaren eleako Batzarraren aurrean, Batzar-Ordezkoak.

5.º Goterkizafiaren edo bere ordezkoaren aurrean eta Batzar-aurrean, Goterkiko batzarreko bazkide guztiak.

6.º Goterkizafiaren edo bere ordezkoaren eta beste Aolkarien aurrean, goterkiko Aolkari egin-barriak.

7.º Goterkizafiaren edo bere Ordezkoaren aurrean: Danerako Ordezkoak, parroki-zafiak eta arima-zaintzea daukan edozein bizibide artu dabena naita noiz gura kendu leitekena izan; abadegaitegietako yaurle, teologiaren, Idazti Santuaren, eleiz-legeen eta filosofia-irakasleak urte bakotxeko ikastaroaren asieran edo gitxienez euren zeregiñaren asieran; diakonoaren urrengo beko mallako eleiz-gizontzekoak (1).

8.º Goterkizafiaren edo bere ordezkoaren aurrean gorengo mallako Ikastolaren Yaurleak, Yaurle orren edo bere ordezkoaren aurrean Ikastola orretako irakasle guztiak urte bakotxeko ikastaroaren aurretik edo gitxienez euren zeregiñaren asieran; baita, azterketa igarota, yakitun edo Irakasle-agiriak artzen dabenezan be.

9.º Izentau dabezan Batzarraren edo Nagusiaren edo euren ordezkoaren aurrean eleiz-gizonezko Jaunzaletzetan Nagusi izatekoak.

§ 2.—Lengoa itxita, beste zeregin nai bizibide nai nausitzaren bat, lengoaren antzekoa izan arren, artzen dauanak, bere sinestearen autortza barriri egin bear dau, arau onetantxe esanda dagoan lez.

1407g. araua. Sineste-autortzau egin-bearra eztau betetan ordezkoaren bitartez, edo erri-gizonen aurrean egiten dauanak

(1) Gaur eztago diakonoa baño beragoko mallako eleiz-gizonik.

1408g. araua. Idazpuru onetako arauen aurkazo edozein ekandu txar-tzat emoten da.

BOSKARREN ZATIA

Eleiz-bizibideak eta batzarrezko ez tirean zer-norbaitzuk

XXV IDAZPURUA

Eleiz-bizibideak

1409g. araua. Eleiz-bizibidea zeregin santua ta zeregiñari erantsitako ondasunen irabaziak artzeko eskubidea daukan eta eleiz-nagusi egokiak sortutako legezko nortasuna daukan zer bait da.

1410g. araua. Bizibidearen ondasuntzea egin daroe: a) legezko norbait ori yabe daben ondasunak; b) legezko etxe nai norbait tek emoten dautsezan ordainketa seguru ta neurtuak; d) bizibide-zafiarenak direan kistarrak euren oldez, baña uts barik, egingo dautsezan eskiniak; e) Kistarraren alde egiten dauanaren ordañez goterkiko legeak nai ekanduak erabagiten daben neurriko sariak; f) koruan bananduten direan diru nai beste zerak; bizibidearen irabazpide osoa koruko banaketak balira, irurena kenduta.

1411g. araua. Eleiz-bizibideok askotarikoak dira:
1.º *Consistorialia* eta Consistorialia ez tireanak. Lelengoak Aita Santuak Kardenalakaz egiten dauan eta lateraz *Consistorium* esaten dan Batzar ospatsuan emoten dauanak dira; besteak, Batzar orretatik kanpoan emoten direanak.

2.º *Erritarrak* eta *Jaunzaletarrak*; areik eleiz-gizon erritarrak bakarrik, oneik eleiz-gizon Jaunzaleak bakarrik emotekoak; Jaunzaleen etxe edo elextatik kanpoan eregitako bizibideak, besterik legez erakutsi ezik, ezbaian erritarrak direalako dago.

3.º *Bikotxak* edo *bertan bizi-bearrekoak*; *Bakanak* edo *bertan bizi-bear bakoak*; geyagoko barik ulertzen da euren alde.

4.º *Eskukoak* edo *eperakoak*, edo *kendu-errezak* eta *betikoak* edo *kendu-eziñak*: noiz gura kentzeko edo betiko, emoten direan lez.

5.º *Zaindu-beardunak* eta *zaindu-bear bakoak*: arimak zaintzea ezarrita baleuke edo ez.

1412g. araua. Eleizbizibideakaz antza euki arren, ez tira legez artariko-tzat emoten:

- 1.º Parroki-zain-ordezkoak, betiko eregi ezpaledi.
- 2.º Erri-gizonezkoen eleiz-zaintzeak; au da, legezko Eleiz-Nagusiak eregi bakoak.

3.º Laguntzakoak: oraingo yabearen ondorengo izateko eskubideagaz nai eskubide barik.

4.º Norbaiteri beretzat emoten yakon bizibidea.

5.º Lateraz *Commenda* (Gomendio) esaten yakona (1) aldi baterako norbaiti emoten yakozan Elexa nai Jaunzale-etxe baten irabaziak, bera aldendu daitenean, Elexeari edo Jaunzale-etxeari atzera emoteko.

1413g. araua. § 1.—Besterik agiri ezpaledi, urrengo arauetan erabagiten danak *Consistorialia* ez tirean bizibideak bakarrik yoten ditu.

§ 2.—147-195g. arauak erabagiten dabena bizibidedun zeregiñai edo eleiz-bizibideai be ezarri bear yakez.

I Atala

Bizibideak eregitea

1414g. araua. § 1.—Consistorialia-bizibideak Aita Santuak bakarrik eregi daroaz.

§ 2.—Aita Santuaz ganera, 394, § 2g. arauaren kalte barik, Goterkizain bakotxak bere barrutian Consistorialia ez tirean bizibideak eregi dagikez.

§ 3.—Danerako Ordezkoak baña eztagike bizibiderik eregi artarako beren-beregiko eskubide barik.

§ 4.—Kardenalak be, bere izeneko elexea Jaunzale azkatuena ezpalitz, bere izeneko elexan arima-zaintzerik eztauken bizibideak eregi dagikez.

1415g. araua. § 1.—1410g. arauaren bideen batetik urtero emongo dauzan etorrietatik beti ta egoki nondik biziko ezpa-dauko, ezpedi bizibiderik eregi.

§ 2.—Bizibidearen irabazpidea onenbesteko diru jakiña balitz, Goterkizañak, 1520g. arauan esaten dan Goterkiaren ondasunak zaintzeko Batzarra entzunda gero, dirutza ori len baño len irabazi segurua emoteko direan lurretan nai agrietan ezarri bear dau.

§ 3.—Beré urteroko etorriekaz eleiz-gizonaren bizi-bearrari erantzuteko besteko ondasuntzarik zuzendu ezin danean, nondik edo andik bearko dana zuzenduko dala zorakeri barik ikusten danean, ezta galazoten parroki nai parroki-antzekoa eregitea.

1416g. araua. Bizibidea eregi orduko arazoari buruz zer-ikusi leukienak deitu ta entzun bediz.

(1) Norbaiteri bera bizi zan artean elexa nai lekaretxearen irabaziak beretzat izan eitezaneko eskubideari ezarri eutsen izen ori. Elexea ta lakaidetxeak oso aberatsak izan zirean garayetan Errege ta Andikikumeak izan ebezan orretariko bizibideak; baita Kardenalak be (A. Larrakoetxearen oarr).

1417g. araua. § 1.—Bizibidea eregitorduan, eregiteko ondasuntzea emoten dauanak Goterkizañaren bayezkoagaz legearen aurkazo baldintzak be ezarri dagikez, baldintzok berezko okerririk ez bizibidearen izakerearen aurkazkorik ezer ez izatekotan.

§ 2.—Bein ontzat artutako baldintzak Goterkizañak ez dagikez ez aldatu ez kendu, aldakuntzok Elexearentzat ongarrri ezpalira, ta ganera eregiteko ondasuntzea emon ebanaren, edo bizibidea patroiduna balitz, patroyaren bayezkoagaz egin ezpaledi.

1418g. araua. Bizibidearen eregitea legezko agiri baten bidez egin bedi ta bertan esan bedi bizibidea non eregi dan, ta bere ondasuntzea zein dan eta bizibidedunaren eskubide ta egin-bearrak.

II Atala

Bizibideak batu, aldatu, zatitu, zatia kendu, bestelakotu ta kenduari buruz

1419g. araua. Bizibideak bat egitea izan leiteke:
1.º *Eraílgarria*, kendu ta bizibide bi edo geyagotik barri ta bakarra egiten danean, edo bat nai batzuk beste bateri erantsirik ilten direanean.

2.º *Malla-bardinekoa*, bizibide bat egiñak, bata bestearen menpeko egin barik, len lez gelditzen direanean.

3.º *Beragoko mallara eratxita*: bizibide guztiak bizirik itxi arren, nai bat nai batzuk beste bateri erantsikotzat agertuten direanean.

1420g. araua. § 1.—Bat egite eraílgarritik yayoten dan edo gelditzen dan bizibideari kendutakoan eskubide ta egin-bearrak guztiak dagokioz; eta alkarregaz aitu ezin balediz, onenak eta onuragarrienak.

§ 2.—Malla bardinekoak gelditzen direanean, bizibide bakotxak bere izakerea, eskubide ta egin-bearrak yagoten ditu; baña egindako bateratzea dala-ta, bizibide batu bien agerkayak edo agiriak eleizgizon bakarrari emon bear yakoz.

§ 3.—Beragoko mallara eratziak goragoko mallakoari yarraitu bear dautso; onegaitik goragoko mallako bizibidea artzen dauan eleiz-gizonak beragokoa be berea dau ta bien egin-bearrak bete bear ditu.

1421g. araua. *Bizibidearen aldatzea dankagu*, toki batetik bestera eroaten dabenean; *zaititza*, batetik bi edo geyago egiten direanean; *zati-kentzea*, bizibide bateri bere barrutitik nai ondasunetatik zati bat kenduta, beste bizibide bateri ezarten yakonean; *bestetza*, bizibidea beste izakera bateko egiten dabenean; *kentzea*, garbi ilten dabenean.

1422g. araua. Kendutako ondasunakaz bizibide barririk eregi barik bizibideen batasuna eraílgarria egitea nai kentzea, nai zaititza; malla bardineko nai bardinezeko batasuna egitea, Jaunzaletarren bizibidea

erritarrari ezarrita edo okerretara; eta Jaunzaletarren edozein bizibide beste toki batera aldatzea, zatitzea ta zati-kentzea be, Aita Santuak bakarrik dagikez.

1423g. araua. § 1.—Goterkizañak, ez baña Batzar-Ordezkoak, ez be-
ren-beregiko eskubide barik Danerako Ordezkoak, Ele-
xearen bearragaitik nai onura andi ta agirikoagaitik bat egin dagikez edozein
parroki-elexak alkarregaz, edo arima-zaintzarik ezeukan bizibideagaz, biak
malla bardinekoak izateko nai bata bestearen menpean egoteko; ori bigarren ori
gerta baledi, ta biak malla bardinekoak ez izan, arima-zaintzarik ezeukan bizibi-
dea besteari erantsitakoa izan bedi.

§ 2.—Ezin dagike, baña, bat egin parrokia Batzarraren nai Obispoaren ma-
yagaz, ez Jaunzale-etxeakaz nai Jaunzale-elexakaz nai beste edozein legezko
norbaitegaz; baña parroki-zaiñarentzat nai ordezkoarentzat zati egokia itxi ezke-
ro, ezarri dagike parroki-bizibidea parrokiaren barrutian dagozan Obispoaren nai
Batzarraren elekan parrokiaren mozkiñak Obispoaren nai Batzarraren elexearen-
tzat izan daitezcan.

§ 3.—Goterkizañak ez dagike bizibiderik bat egin besteagaz, betiko izan ezik.

1424g. araua. Goterkizañak ez dagikez iñoiz bat egin bizibideak, ez
arima-zaintzadunak, ez arima-zaintza bakoak, bizibideok
orain daukezanen kaltez eurok gure eztabela; ez patroï-eskubidekoa azke emote-
teko eskubidedunagaz patroïaren bayezko barik; ez Goterki bateko bizibideak
beste Goterkikoakaz, Goterki biak malla bardinean bat eginda Obispo batek
zainduarren be; ez bizibide azkatuak nai Aita Santuarentzat berezitakoak, bes-
te edozeñegaz.

1425g. araua. § 1.—Aita Santuak parrokien bat bizibidearen irabazie-
tarako bakarrik Jaunzaleen etxeagaz bat egin balegi,
Jaunzale-etxeak bereak ditu bizibidearen mozkiñak bakarrik, eta Jaunzale-Buruak,
erri-eleiz-gizona aurkeztu bear dautso Goterkizañari parroki-zain egiteko, sari-zati
egokia beronentzat izentauta.

§ 2.—Baña parrokia osoan jaun-zaleena egin baledi, Jaunzale-Buruak bere
Jaunzaletzako norbait aurkeztu dagikeo Goterkizañari parrokia zaintzeko; baña
Goterkizañari dagokio bera aztertu ta parroki-zain egitea; eta 631g. arauak
erabagiten dauan lez, arima-zaintzeari buruzkoen Goterkizañaren aginpide, zu-
zentza ta ikusteko eskubidearen azpian dago.

1426g. araua. 1423, § 1g. arauan esandako legezko zijoakaitik Goter-
kizañak eskubidea dauke erri-parrokiaren bizibidea pa-
rroki-barruti barruan toki batetik bestera aldatuteko; ostantzeko bizibideak ba-
karrrik eleiz-buruetara, edo bertako tokietara edo auzoko elextara aldatu dagi-
kez; eta, al dala oneitan jaupamayak (altarak) eta eleiz-zatitxoak (kapillak) len-
go-lengo zañakaz eregi, eta lengo elexeari erantsita egozan irabazi ta egin-bear
guztiakaz.

1427g. araua. § 1.—Baita parroki-zañak gura ez arren eta erriaren ba-
yetza barik be badagike Goterkizañak ziyo zuzen eta le-
gezkoakaz edozein parroki zatitu, betiko parroki barria nai ordezkoa sorturik;
edo eurai lur-zatia kendu eta beste parroki bateri ezarrita.

§ 2.—Parrokia zatituteko edo zatia kendu ta beste parroki bateri ezarteko,
legezko ziyo bakarra auxe da: parroki-elexara elduteko neke andia artu-bearra,
edo 476, § 1g. arauan esanda dagoan lez, eleiztarak lar ugaritu direalako euren
arimen onari bear dan lez begiratzeko aukera ohea.

§ 3.—Parrokia zatitorduan betiko ordezkoari edo parroki eregi-barriari,
1500g. arauaren agindua egiñik, Goterkizañak sari-zati egokia ezarri bear dau-
tso; beste nonbaitetik lortu ezpadaiteke, ama-elexeari edozelan dagokionetik artu
bear da, ama-elexearentzat beretzat etorririk naikoa gelditu baledi.

§ 4.—Betiko parroki ordezkoa nai parroki eregi-barria zatitu dan elexearen
etorrietatik sariztu baledi, ama-elexeari lotsea erakutsi bear dautso, Goterkizañak
erabagiko dauan eraz eta neurrian; ezin dagike baña onek ugutza-iturria berea
eukitea galazo.

§ 5.—Jaunzaletza batena dan parrokia zatitu baledi, betiko parroki ordez-
koa nai parroki barria ezta berez Jaunzaleena; bardin patroï-eskubideko parrokia
zatitu ezkerro, parroki barria nori gura emotekoa da.

1428g. araua. § 1.—Bizibideen batzuk bat egin, tokiz aldatu, zatitu
baño ta Obispo-Batzarra ta, iñor balego auzian zer-ikusi dauanik, eleiz-zañak
bategaz be entzunda gero.
ez banandu ezpegie egin Goterkizañak legezko idatziz

§ 2.—Legezko ziyo barik egindako bat egite, bestaldatze, zatitze banan-
tzeak utsak litzakez.

§ 3.—Bizibideak bat egin, bestaldatu, zatitu nai banantzen dauzan Goter-
kizañaren erabagien aurka Aita Santuagana yoteko eskubidea badago egon, baña
Goterkizañaren erabagia bein-beinean eten egiten eztauana.

1429g. araua. § 1.—Bizibide bateri be ezin dagikeo Goterkizañak nor-
baiteri betiko saria ordaindu-bearrik edo sarituaren biziak
bizibidedunari zati egokia irxita, ezarri dagikez, barriz,
aña irautekorik ezarri; bizibidedunari zati egokia irxita, ezarri dagikez, barriz,
norbaiteri bizibidea emotorduan eta garai artantxe agertu bear dan ziyo zuzena-
gaz, bizibidedunaren bizitza osoan iraungo dauan saria emon-bearra.

§ 2.—Ezin dagike baña saririk iñori ordaindu-bearrik ezarri parroki-bizi-
bideai, parroki-zain edo ordezkoaren alde parrokitik edo parroki-ordezkoatik alde
bizi-beartuui lagun egiteko baño; baña sari orrek euren ordezkoak irabazten
dauan irabazi barriaren irurena baño geyago eztabe izan bear, edozelango zorrak
eta bada ezpadako etorriak kenduta.

§ 3.—Bai Aita Santuak bai beste emollek emotorduan ezarritako saria or-
daindu bearrak sarituaren eriotzeagaz amaitzen dira, eta onek eztauko eskubiderik
eurok iñori emoteko, eskubide ori agirian emon ezpadautse.

1430g. araua. § 1.—Arima-zaintzedun bizibideak ez dagikez Goterki-
zañak arima-zaintze bakoak egin; ez Jaunzaleen bizi-
bideak errikotu; ez erritarrak Jaunzaletu.

§ 2.—Okerretara, bizibidea eregiteko ondasunak emon ebazanak olangorik ez egiteko baldintzeagaz emon ezpalitu, Goterkizañak eskubidea dauko arima-zaintzarik eztauken bizibideak arima-zaintzekoak egiteko.

III Atala

Eleiz-bizibideak nork, nori, noiz, non, nola emon?

1431g. araua. Aita Santuak bizibideak Eleiz osoan emoteko ta euren emotea beretzatuteko eskubidea dauko.

1432g. araua. § 1.—Kardenalak euren eleketan eta Goterkizañak bere goterkian yabe barik dagozan bizibideak emoteko legezko eskubidea dauke.

§ 2.—Estauko baña eskubide ori Danerako Ordezkoak, beren-beregi emona ezpaleu; Batzar-Ordezkoak be ezin dagikez emon utsik dagozan parrokiak 455, § 2, 3.ºg. arauaren neurrian baño; ganerako betikoak eta inor barik emotekoak ezin dagikez emon.

§ 3.—Bizibidea utsik gelditu dala seguru yakinda sei illabete barru Goterkizañak inori emon ezpalegio, 458g. arauan esaten dana yazo ezpaledi, bera emoteko eskubidea Aita Santuagana doa.

1433g. araua. 475, 476g. arauetan erabagiten dana yazo ezpaledi, gero yabearen urrengo izateko eskubideagaz nai eskubide ori barik, eleiz-bizibidedunari laguna emoteko eskubidea Aita Santuarena bakarrik da.

1434g. araua. Aita Santuarentzat legez berezitako bizibideak aren menpeko inork ezin emon.

1435g. araua. § 1.—Aita Santuarentzat berezita dagoz, nai ta bere aukia utsik egon, *Consistorialia*-bizibide guztiak eta 396, § 1g. arauan esaten dan lez, Obispoaren eleaxako Batzarreko eta beste Batzar-eleaxako Nagusi esaten direanen bizibideak; eta orrez ganera urrengoak:

1.º Karderala, Aita Santuaren Ordezkoa, Erroma'ko Bazkuna Gurenena, Auzitegien edo Landolako Zeregin Nagusiduna edo Aita Santuaren etxekoan bat il dalako, goragoko beste bizibide bat emon dautselako, edo berak itxi dau-lako edo beste bizibide batera aldatu dabelako, utsik gelditu dan bizibidea.

2.º Erromatik kanpoko bizibideak, baña oraingo yabea Erroma'n il baledi.

3.º Simonkeriagaitik alperrik emonak.

4.º Atzanean, Aita Santuak nai berberak nai bere Ordezkoaren bidez esku urrengo eratara ezarri baleutse: a) bizibiderako autespina utsa izan zala agertu baledi; b) autesleai autespina egitea galazo baleutse; d) bizibidedunaren uko egiña ontzat emon balegi; e) bizibideduna goragora yaso, beste nonbaitera aldatu balegi, bizibidea kendu balegio, bizibidea norbaiteri gomendioan emon balegio.

§ 2.—Orraitio, beren-beregi esan ezik, eztira inoiz bereziak eskuzko bizibideak nai patroie-eskubidedunak.

§ 3.—Erroma'n bertan eregitako bizibideai buruz, eurentzat emondako gaur bizi direan legeak bete bediz.

1436g. araua. Gura eztauanari eta artzen dauanik agirian eztiñoan eleiz-gizonari ezin eleiz-bizibiderik gauzaz emon.

1437g. araua. Eleiz-bizibidea ezin inork bere buruari emon.

1438g. araua. Eleiz-gizon erritarrentzako bizibideak bizibideduna biziko dan arteraño emon bear dira, ostantxekorik edo sortualdiko legeak edo antxiñako ekanduak edo Aita Santuaren erabagi bereziak esan ezpalegi.

1439g. araua. § 1.—Eleiz-gizonetan eztauko inork, 156g. arauak diñoan lez, alkarregaz konpondu ezin direan bizibide bat baño geyago artzeko nai eukiteko gaitasunik, ez berekotzat ez betiko gomendioan.

§ 2.—Alkarregaz aitu edo konpondu eziñak dira ez bakarrik ezarten dabezan egin-bearrak bizibidedunak berak erabatera bete ezin dauzanean, baña baita bizibide bitik bata nai bestea bizibideduna ganoraz yagoteko naikoa danean be.

1440g. araua. 1429, §§ 1, 2g. arauan esaten dana yazo ezpaledi, Eleiz-bizibideak inausi barik emon bediz.

1441g. araua. Simonkeritzat txartzat emoten dira bizibidea emoten yakonean eleiz-gizonak egin bearko leukezan: a) etorrien zatia kentzea ontzat emotea; b) bizibidearen orde zerbait emon-bearra; d) edo beste ordainketa batzuk patroiazen edo beste norbaitzuen alde.

1442g. araua. Erritar-bizibideak eleiz-gizon erritarrai emon bear yakez; Jaunzale-bizibideak, bizibidea eregi zanean ezarri yakon Jaunzaletzako bazkide dan Jaunzaleari.

1443g. araua. § 1.—Emon yakon bizibidearen yabetzea ezpegi artu inork berak beretara, ezta sinestearen autortzea egin barik be, autortza ori aginduten dauan bizibidea balitz.

§ 2.—Erromako Batzar Nagusiko bizibidea eztaanean, aren yabetzan ezartea Goterkizañari dagokio, eta zeregin onetarako beste eleizgizon bat be egin dagike bere ordeko.

1444g. araua. § 1.—Bizibidearen yabetza artzea, bidezko ziyoen battegitik Goterkizañak artarako legea nai ekandua zaindu-bearretik idatziz azkatu ezpalegi, egin bedi lege bereziak aginduten dauan eraz

edo ontzat artutako ekanduaren eraz; Goterki zafiak azkatu ezker, beste eraz yabetza artu-bearra kendu egiten dau.

§ 2.—Goterkizafiak erabagi begi bizibidearen yabetza zeinbesteko epe-barruan artu bear dan; epe ori alperrik yoan baledi, benetako eragozpiderik izan ezpalitz, 198, 2.ºg. arauak aginduten dauan lez, bizibidea utsik agertu bedi.

1445g. araua. Bizibidearen yabetzea agindu berezia emoten yakon ordekoaren bitartez be artu leiteke.

1446g. araua. Bizibidea daukan eleiz-gizonak bizibide orren yabetzat iru urte osoetan bakean eta uste onez egon dala erakutsi ezker, izentau eban agiria bear bada utsa izan arren, simonkeririk izan ezpaledi, bizibidea legezko epearen indarrez benetan berea egiten dau.

1447g. araua. Norbaitek bakean daukan bizibidea, benetan utsik da-goala-ta eskatzen dauanak eskari idatzian ezarri bear ditu daukanaren izena, noiz-danik daukan eta eukiteko eskubiderik eztaukala erakusten dauan ziyoa; bizibidea, baña, ezin daitekeo eskatuten dauanari emon, ebazkizuna legezko auzibidez epaituta gero baño.

IV Atala

Patroitzeari buruzko legeak

1448g. araua. Patroi-eskubidea zera da; Elexeak elexa bat, nai elextxoa, nai bizibidea eregi daben kistar katolikoai eta euren ondorengoai egin bear batzukaz, autortzen dautsezan eskubide mordoa.

1449g. araua. Patroitzea askotarikoa izan daiteke:
1.º *Zerbaitena* edo *norbaitena*; berez eta artez zerbaiteri edo norbaiteri ezarria dalako.

2.º *Eleiztarra*, *erritarra*, *bitzuen*, patroitza ori Eleizeak, erriak, edo biak emona izan daitekelako.

3.º *Jarauntsizkoa*, *etxekoa*, *endazkoa*, *nastekoa*, ondoregoekana edo etxeko ta senitarteko direakana igaroten dana baledi.

1450g. araua. § 7.—Emetik atxina ezin leiteke patroitza-eskubiderik izango dauan ezer eregi.

§ 2.—Orraitio Goterkizafiak eskubidea dauko:

1.º Elexen bat edo eleiz-bizibideen bat dana edo zatiren bat eregiko leu-kien kistarrari euren aldeko otoitzak gitxi-geyago aginduteko, euren eskuzabala-ren neurrian nai ainbesteko eperako nai betiko.

2.º Bizibidearen eregitea ontzat artzeko, bizibidea lelengo ezarkeran irasleari berari edo irasleak izentautako eleiz-gizonari emoteko baldintzeagaz.

1451g. araua. § 1.—Ekin begie Goterkizafiak orain patroiak daukan patroitza-eskubidearen orde, edo bein-beinean eleiz-bizi-

bidea nori emon autu ta aurkeztuteko daukan eskubidearen orde, bai beretzat bai bere ondorengoentzat arimeari buruzko ordañiak artu dagiazan, betiko bali-tz be.

2.º Patroyak olangorik gura ezpalebe, euren patroi-eskubideak urrengo arauak erabagiten daben lez berabillez.

1452g. araua. Oraindiño iñon balirau bizibideetako, baita parrokieta-rako be, bizibidea nori emon autu ta aurkeztuteko eskubidearen orde, bai beretzat bai bere ondorengoentzat arimeari buruzko ordañiak artu dagiazan, betiko bali-tz be.

1453g. araua. § 1.—Norbaitezko patroitzea ezin daiteke igaro kistar-rak eztereanakana, ez kistar-siñesteari agirian uko egin gaiztotzat emondako giza-batzai bazkidetu yakezanakana, Elexeak dauksenakana, ez siñausleakana, katoliko Elexatik alde egin dabenakana, Elexeak nai agertuten dauzan epanyaren ostean, edozein arrotzugana be.

§ 2.—Norbaitentzako patroi-eskubidea beste iñorgana igaroteko ta gauzakko izateko bearreko da Goterkizafiak bere bayezkoa idatziz emotea, baña eregike-rako legeen eta 1470, § 1, 4.ºg. arauaren kalte barik.

§ 3.—Zerbaitzko patroi-eskubidea, erantsita daukan zera arau onetako § 1, an esandako norbaitegana igaro baledi, patroi-eskubideori *etenda* gelditzen da.

1455g. araua. Patroiaren eskubideak dira:
1.º Utsik dagoan elexarako nai bizibiderako eleizgizo-na aurkeztutea.

2.º Egin-bearrak beteta eta bizibidedunaren bizi-bearrari ganoraz eran-tzunda gero, elexearen nai bizibidearen etorrietatik ezer oindiño geldi baledi, yan-edana artzeko, patroia bere erru barik ainbesteko bearrera yausita balego; eta eskubide ori badauko baita bere patroi-eskubideari Elexearen onerako uko egin balutso be, edo iraskunde egin zanean patroyak beretzat ezarritako saria bere bearrari erantzuteko naikoa ezpalitz be.

3.º Eskubidea dau tokietako ekanduak alan badiño, bere patroi-elexan bere endearen nai etxearen ikurdia ezarteko, eleiz-ibilietan eta antzeko beste eleizkizunetan beste erritarren aurretik yoateko, elexan aulki garayagoa eukiteko, alan be yaupaltegitik kanpoan eta buru-ganeko *legor* barik.

1456g. araua. Patroi-eskubidea emazteak berak berabil; txikiarokoak euren gurasoen edo zafiñ bitartez; gurasoak nai zafiñ katolikoak ezpalira, patroi-eskubidea bitarte orretan *etenda* gelditzen da.

1457g. araua. Nai erritarra, nai eleiztarra, nai nastekoa izan patroi-eskubidea, bidezko eragozpideen batek galazo ezpalegi, lau illabete barruan egin bear dau aurkezpena, eregit-aldiko legeak edo legezko ekanduak epe laburragoa agindu ezpalegi; lau illabeteak bizibidea emoteko eskubidea daukanak bizibidea utsik egoala patroia yakitun egin zan eguna ezke-rotik kontetan dira; eta bizibidea nor ohea dan erakutsia eginda gero emon-

-bearretarikoak balitz, erakutsi orretan onenak agertu direanen artekoa aurkeztu bear dau patroyak.

1458g. araua. § 1.—Agindutako epe-barruan inor aurkeztu ezpalegi, elezea nai bizibidea legezko Nagusiak berari egokiena deritxonari emon begio.

§ 2.—Auzia sortu baledi Goterkizañaren eta patroyaren artean nai patroyen euren artean, edo aurkeztuena egiteko eskubideari buruz, edo eleiz-gizon aurkeztuena artean nor litzaken onenari buruz eta epe orretan amaitu ezin dana, elezea nai bizibidea emotea atzeratu bedi bein-beinean, eta, bear izan ezkerro, bitartean elezea nai bizibidea nork zaindu izentau begi Goterkizañak.

1459g. araua. § 1.—Patroyak asko balira, bai eurentzat bai ondorengoentzat aurkeztuena txandaka erabilteko erabagia artuteko eskubidea dauke.

§ 2.—Alan be, itunben ori gauzazko izateko, bearrezko dabe Goterkizañak idatziz ontzat emotea; ontzat emote ori, bein emon ezkerro, eztauko kentzeko eskubiderik, patroyak gura eztauala, ez Goterkizañak ezta bere ondorengoak be.

1460g. araua. § 1.—Patroi-eskubidea batzarkiro balerabile, 101, § 1g. arauaren legez autarkirik geyen izan dauana euki bedi aurkeztutzat; auteskera alperriko biren ostean, irugarrenean batzuk besteak baño autarki geiago izan balebez, baño euren artean bardin, oneik guztiok aurkeztutzat euki bediz.

§ 2.—Patroi-eskubidedunak batzuk direanean, eta txandaka aurkestuteko itunbenik egin ez, aurkeztutzat emon bedi beste inork baño autarki geyago izan dauzana, naita beste guztiak batera aña ez; eta batzuk beste batzuk baño geyago, baño euren artean bardin agertu direanak guztiok aurkeztutzat artu bediz.

§ 3.—Edozein patroik, bere eskubidea erabilteko epe-barruan, aurkeztua ontzat artua izan aurretik, ez bakarrik beste bat, baita geiago be aurkeztu dagikez nai erabatera nai bata bestearen ostean; alan be, lenago aurkezturik ez atzeratutekotan.

1461g. araua. Eztauko inork bere burua aurkeztuteko eskubiderik ezta bera aurkeztuten dabena artarako bearko leukezan autarkiak izateko bere autarkia generatuteko be.

1462g. araua. Elezea nai bizibidea zein ohea litzaken erakusteko ekiñaldiaren bidez emon bear balitz, ezin dagike patroyak, bera erritarra izan arren, ekiñaldiko azterketetan ontzat emondako eleizgizona baño aurkeztu.

1463g. araua. Aurkeztuak bizibidearen egin-bearrak egiteko gauza dan norbait izan bear dau; au da, aurkeztutaldian edo ontzat artzen daben egunean beintzat, nai Eleza osoaren legeak, nai tokiko lege

berezia eta bizibidea eregitorduan ezarritakoak eskatzen dabezan euki-bearrak daukazana izan bear dau.

1464g. araua. § 1.—Aurkeztua gauza dan ala ez ebatzi bear dauan Goterkizañari aurkeztu bear yako.

§ 2.—Goterkizañak, bere eritxia sentzunezkoa izan daiten, 149g. arauak aginduten dautsan lez, patroik aurkeztua nor eta zelangoa dan yakiten zoli ekin bear dautso, bear balitz, ixileko barriak billatuta.

§ 3.—Berak aurkeztua zergaitik ontzat artu eztauan patroyari esan-bearrik eztauko Goterkizañak.

1465g. araua. § 1.—Aurkeztua artarako eztaala gai agertu baledi, patroiak, eskubidea erabilteko legeak emoten dautsan epea igaro ezpaledi, 1457g. arauan esandako epe-barruan beste bat aurkeztu dagike; baño au be eztaala gai agertu baledi, orduan elezea nai bizibidea patroik barik emotekoa egiten da, patroyak edo aurkeztuak Goterkizañaren ebatzia iragarri eutsen ezkerro amar egun barru gora yo ezpalegie; ta gora yote ori erantzun barik dagoan artean, elezea nai bizibidea emotea atzeratu bedi, ta bitartean, bear izan ezkerro, Goterkizañak yari begi elezea nai bizibide utsa bein-beinean nork zaindu.

§ 2.—Simonkeriz kutsutako aurpeztuena berez da utsa, ta utsa andik bear bada sortutako bizibidea be.

1466g. araua. § 1.—Legez aurkeztuak eta gai idoroak, aurkeztuena ontzat artu ezkerro eskubidea dauko legez emon dagioen.

§ 2.—Bizibidearen yabeteza emoteko eskubidea Goterkizañarena da, ez baño Danerako Ordezkoarena, agindu berezi barik.

§ 3.—Aurkeztuak asko izan eta guztiak gai agertu balediz, Goterkizañari dagokio Jaunaren aurrean gaiena deritxona aututea.

1467g. araua. Edozein bizibide, baita arimak zaintzea daukana be, legezko eragozpenen batek galazo ezpalegi, aurkeztu zaneetik illabete bi barru emon bear da.

1468g. araua. Legezko emotea egin aurretik patroyak barriro aurkeztuak uko egin balegio edo il baledi, patroyak barriro aurkeztuteko eskubidea dauko.

1469g. araua. § 1.—Patroyaren egin-bearrak:
1.º Elezearen nai bizibidearen ondasunak suster barik ondaturen dabezala Goterkizañari salatuteko, baño ondasunok zaintzen bera sartu barik.

2.º Elezea yausi baledi, barria egitea edo Goterkizañaren eritxiz bearrekoak litzakezan konponketak, patroik-eskubideak elezea-eginagaitik baldin balitu, eta elezea barriro egitea nai barriztutea 1186g. arauan dan lez beste norbaitzui ezpadagokie.

3.º Patroi-eskubidea elezea saritutetik badatorkio ta aurrerantzean yaureskuntzak elezan ezin egiteko bestean eta bizibidea ezin emoteko bestean elezearen edo bizibidearen etorriak gitxitu balediz, etorriak ornidu.

§ 2.—Elezea yausi baledi edo barritze bearrekoak egin bearrean balego, edo arau onen § 1, bb. 2.º, 3.º esaten dan lez etorriak gitxitu balira, bitartean patroi-eskubidea etenda gelditzen da.

§ 3.—Patroitzea amaituko yakolako zemayagaz, Goterkizañiak izentautako epe-barruan elezea barriro egin edo barriztu balegi, edo etorriak geitu balegiz, patroi-eskubidea barriro biztuten yako; ostantxean patroi-eskubidea beste barik eta inñori agertu-bear barik il egiten da.

1470g. araua. § 1.—1469, § 3g. arauan aitaturako yazoerez ganera, patroi-eskubidea galtzen da:

1.º Patroyak bere eskubideari uko balegio; ukatze ori, baña, nai eskubide osoari nai zatiari egin dagikeo, ta patroyak asko balira, batek egiñak ezin dagikeo kalterik ekarri besteen eskubideari;

2.º Aita Santuak patroi-eskubidea indargetu, edo elezea bera nai bizibidea betiko kendu balegi;

4.º Patroi-eskubidea erantsita daukan zera il baledi; edo patroi-eskubidea sortu zaneko agirietatik dagokion etxea, senitartea nai lerroa amaitu baledi; bigarren yazoera onetan patroi-eskubidea yarauntsi-legezkoa ezta egiten eta Goterkizañiak be eztauko eskubiderik patroi-eskubidea inñori emoten izteko;

5.º Patroyak onzat emoten dauala, elezea nai bizibidea azke emoteko dan beste zerbaiteri erantsi baledi, edo elezea autesteko eskubidedun batzarrarena edo Jaunzaleena egin baledi.

6.º Patroyak bere eskubidea inñori simonkeriz saltzeko alegiña balegi, kistar siñeskintzeari uko egin, edo siñausle nai Elexeagandik alde egindakoen lagun egin baledi; edo elezearen nai bizibidearen ondasun eta eskubideak lapurtu ta bere eskupean yagon balegiz; eleiz-zañia nai elezearen alde zerbait egiteko dan edo Jaunzaleena egin baledi;

Or § 1, 6.º aitaturako gaiztakerien errudun patroyak berak bakarrik galtzen dau patroi-eskubidea; baña atzenengo lege-ausiagaitik bere ondorengoak be bai.

§ 3, 6.º izentautako lege-ausiagaitik bere patroi-eskubidea galdu dauala uste izateko, bearrekoa ta naikoa da agerpen-epaya.

§ 4.—Gaiztotzat emoten nai agertuten dauan epayaren ostan zigor osagarriaren nai legezko izen txarraren menpean dagozala, ezta gauza patroi-eskubidea erabilteko ezta 1455g. arauan aitaturaten direan zerak egiteko be.

1471g. araua. Elezearen Laterriakazko itunbenetan nai itunbenetatik alde, Aita Santuak nai eleza nai bizibide utserako aurkeztuteko eskubidea inñoz inñori emon balegio, ezta ortik patroi-eskubiderik sortzen, eta aurkeztuteko eskubidea emotorduko agirian dagozan itzetatik zeatz uler-tu bear da.

V Atala

Bizibidedunen eskubide ta egin-bearrak

1472g. araua. Bizibidedun guztiak, bizibidearen yabetzea artu ezkerro, bizibideari erantsitako arimeari ta gorputzari buruzko eskubide guztiak daukez.

1473g. araua. Bizibidedunak, bizibidetik kanpoko ondasunak euki arren, eskubidea dauke bizibidetiko ondasunetatik bizireko; euren bearrak beteta gero bizibidetiko ondasunetatik gelditzen yakena txiroai emon edo onegintzan eralgi bear dabe, 239, § 1, 19.ºg. arauaren kalte barik.

1474g. araua. Bizibidea artzeko eleiz-gizontzako mallaren baten egon-bearra balego, bizibidedunak malla orretan yarrita egon bear dau bizibidea artu orduko.

1475g. araua. § 1.—Bizibidedunak zintzo bete bear ditu bizibideari erantsitako egin-bear guztiak, eta ganera legezko eguneroko orduetako otoitzak esan.

§ 2.—Legezko eragozpedeen batek galazo barik orduetako otoitzak esan-bearra bete ezpalegi, utsaren neurrian galtzen dau bizibidetiko irabazia; eta bera elezeari edo goterkiko yaupalgai-etxeari edo txiroai emon begio.

1476g. araua. § 1.—Bizibidedunak bizibidearen ondasunak bizibide-zañiak lez zaindu bear ditu.

§ 2.—Ganorabako alperkeriz bear dan lez zaindu ezpalegiz, bizibideari etorriko kalteak ordaindu-bearra dauko, eta Goterkizañiak zor ori ordaintzen beartu begi, ta parroki-zain balitz, 147 ta urrengo arauen arauz parrokia kendu be badagikio.

1477g. araua. § 1.—Bizibidearen eguneroko zaindu-bearrak eta bere irabaziak batzeak eskatuten dauzan diru-eralgiketak ordaintzea bizibidedunari dagokio.

§ 2.—Bizibide-etxearen inñozko osakuntze andien zorrak ordaintzea bizibidedun-elezea barriztauteko egin-bearra daukenai dagokie, eregitorduko legeak, nai legezko itunbenak nai ekanduak ostantxekorik agindu ezpalegie.

§ 3.—Kalte txikiak osatu-bearra dagokion bizibidedunak, bear andiagorik ekarri eztagien, len baño len osatu begiz.

1478g. araua. Goterkizañiak, parroki-zain-buruaren bidez be, bizibideen ondasunak yagon eta legez zaindu daitezcan begiratu bear dau.

1479g. araua. Bizibidearen ondasunak onenbesteko sari ordez erabilteko inñori emotea, sari ori sei illabete baño lenago or-

daindu-bearreko itunbenagaz egitea galazota dago Goterkizañaren baimen barik; eta Goterkizañak agindu egokien bidez noizean beingo jazoeretan emote ori bizibidedunaren urrengoarentzat kaltegarri izan eztaiten begiratu bear dau.

1480g. araua. Bizibideduna il ezker, bizibidearen urteko irabaziak bizibidedunaren eta bere ondasunen yabe egin direanen artean eta bizibideko ondorengoaren artean banandu bear dira urte atan bizibidea bakotzak euki dauan epearen neurrian, urte osoko irabazi ta eralgia kon-tuan artuta, legezko ekandu edo lege bereziak beste banandukera bat erabagita ezpaleuke.

1481g. araua. Eralgitako guztiak kenduta eta 472, 2.ºg. arauan agin-dua be kontuan artuta bizibidearen irabazia, utsik da-goan epean, erdia bizibideren sariarentzat edo bizibide guztien ondasunai ezar-teko da; beste erdia elxearen nai sakristiaren ondasunai ezarri bekie; baña olango ondasun guztiak goterkiaren alde izateko aginduten dauan ekanduaren kalte barik.

1482g. araua. Urte-erdikoa esaten dautsena, ifion zutunik balego, yagon bedi, ta zer oneri buruz toki bakotxean legokezan lege ta ekandu bereziak zaindu bediz.

1483g. araua. § 1.—Obispoak Obispo-mayaren ondasunak zintzo zain-du begiz.

§ 2.—Obispo-etxea be itxura onean zaindu bedi, ta bearrik balitz, barriztu ta osatu bedi Obispo-mai berberaren irabaziaz, onango egin-bearrak ziyo be-rezien bategaitik beste norbaiteri ezpalegokioz.

§ 3.—Baita begiratu begie Obispoak Obispo-etxeko tresna-lankai eta beste edozein ondasun ibilkor, guztien zerrenda eginda, osorik eta auzi-bear barik bere ondorengoaren eskuetara eldu daitezcan.

VI Atala

Eleiz-bizibideak izteari ta truke-egiteari buruz

1484g. araua. Ezpegi Goterkizañak ontzat artu yaupaltza nausiko ma-llan yarritakoak bere bizibidea iztea, ganoraz biziteko bear dauana beste nonbaitetik badaukala agiri ezpalitz eta 584g. arauan agindua be zutunik dala.

1485g. araua. Norbaiti eleiz-gizontzean emon eutsen eleiz-bizibidea iz-tea utsa da, esan baldin esaten ezpada eleiz-gizona are-xen izenean eleiz-gizondu zala eta berari Goterkizañaren baimenagaz eleiz-gi-zontzeko beste izen-agiri bat billatu yakola.

1486g. araua. Bizibidea ifioren alde iztea edo bere egokerea nai bizi-bidearena ukututen dauan baldintzeagaz egindako bizi-

bidea iztea Goterkizañak ez dagike ontzat emon, bizibideari buruz auzia izan eta auzilari bata bestearen alde itxi ezpalegi.

1487g. araua. § 1.—Eleiz-bizibideen trukezik ezin daiteke egin Elexea-ren bearragaitik edo irabaziagaitik edo beste bidezko zi-yoz baño, ifioren kalte barik, eta patroyaren baimenagaz, patro-bizibidea balitz, eta Goterkizañaren baimenagaz; ez orratio ez Danerako Ordezkoaren bai-menagaz, artarako eskubide berezia Goterkizañak emon ezpadauto, ez Batzar-Ordezkoarenagaz, eta 186g. arauaren aginduaren kalte barik.

§ 2.—Goterkizañak illa-bete barruan bere baimena emon nai ukatu begi; eta trukeak Goterkizañak baimena emon eban une-unetik dauko indarra.

§ 3.—Goterkizañak ez dagike bizibideen truke-egitea ontzat emon, bizibide biak nai bata Aita Santuak beretzakotuta balitu.

1488g. araua. § 1.—Truketuteko bizibideak bardiñak ezpalira, ezin lei-teke truketzea bardindu irabazien zatia norberetzat ya-gonda, edo dirua emonda edo sal-erosketan dirua egiten dauan beste zerbaitegaz trukauta.

§ 2.—Truke au ezin daiteke egin bizibide bi baño geyagoren artean.

XXVI IDAZPURUA

Batzarrezko ezfirean Elexearen beste zer-norbaitzuek

1489g. araua. § 1.—Gexo-etxea, umezurtz-etxea ta beste antzeko etxeak Jaunari zor dautsaguna yaureskera egiñakaz erakusteko, edo geure anai-arrebai, nai arimako nai gorputzeko bearretan maitez lagun etor-teko Goterkizañak eregi dagikez eta bere erabagiaren indarrez legezko nortá-sundun egin.

§ 2.—Orraitio Goterkizañak ezpegi onetariko etxerik ontzat emon etxearen egitekoa benetan ongaria ezpalitz, eta, zer guztiak begiraturik, ezarten yakon zeregiña egiteko gauza dala edo izango dala agiri ezpaledi.

§ 3.—Onetariko etxeen ondasunak zaintzea bera sortu dauan legeak diñoa-nari dagokio; eta onek, bere zeregiña beteteen, Elexearen beste ondasun-zafiak daukezan eskubide ta egin-bearrak daukaz.

1490g. araua. § 1.—Onetariko etxeak eregiten dabezan agirietan zeatz erabagita agertu bear dabe: bere zozkoa zelango izango dan, zertarako izango dan, bere ondasuntzea zeinbestekoa dan, nor eta zelan zainduko, ondasuntzearen etorriak zertan eralgiko, ta legezko nor ori il baledi, bere ondasunak norgana yoango.

§ 2.—Agiriak iyeki bitan idatzi bediz; bata eregiten dan etxeko agiritegian zaintzeko; bestea, Obispoaren Idazkolako agiritegian.

1491g. araua. § 1.—Goterkizañak onetariko etxe guztiak, bai legezko nortasundun egiñak be, edozelango azkatasuna gora-bera, zelan bizi direan ikusteko eskubidea ta egin-bearra dauko.

§ 2.—Ganera: nai ta legezko nortasuna ez euki eta Jaunzaleen etxeari erantsita egon, Jaunzale-etxeok goterki-legezko Jaunzaletzarenak balediz, Goterkizafiaren menpeko dira kistar-ikasbideari, bizikerearen garbitasunari, otoizketeari eta ikurtonak emon-artuari buruzkoetan.

1492g. araua. § 1.—Yayotza ezker, edo geroagoan legezko epearen bidez, edo Aita Santuak emonda, onetariko etxea Goterkizafiaren menpetik aterata balego be, onek ondasunak zaintzea zelan daroan erakutsi-erazoteko eskubidea dauko, ostantzeko ekandua txartzat emonda.

§ 2.—Onetariko etxeen bat eregiten dauanak bere ondasunak zelan zaintzen direan Goterkizafiak ikusterik gura ezpalegi, Goterkizafiak ezpegi Elexearen etxetzat artu.

1493g. araua. Onango etxeak eregikeran agertutako kistarren asmu onak zeatz bete daitezcan begiratu begi Goterkizafiak.

1494g. araua. Sortukerako legeetan bestela erabagi ezpaledi, Aita Santuaren baimen barik ezin leitekez onetariko etxeak ez kendu, ez beste bategaz batu, ez sortukeran ezarri yakon zertarakotasuna aldatu.

SEIGARREN ZATIA

Elexearen emeko bizitzerako ondasunak

1495g. araua. § 1.—Elexa Katolikoak berak eta Aita Santuak yatorrizko eskubidea dauke, Leterrietako edozein nagusiren baimen barik euren egikizunak betetako emeko lur-ganeko ondasunak eurenak egiteko, zaindu ta erabilteko.

§ 2.—Baita eleiza bakotzak eta legezko nausi eleiztarrak legezko nortasuna emon dautsen beste legezko norbaitzuk be eskubidea dauke, Elexearen legeen neurrian, ondasunak norberenak egin, euki ta zaintzeko.

1496g. araua. Elexeak, Leterriko agintarien baimen barik, eskubidea dau Jaunaren yauresketarako, eleiz-gizonen eta beste otseñen ganorazko bizimodurako eta beste bere elburuak yadesteko bear dana kistarrak emon-erazoteko be.

1497g. araua. § 1.—Ordasunak, zein gorputzezkoak: aldagatzak, aldakorak; zein gorputz-bakoak: nai Elexa osoarenak nai Aita Santuarenak nai Elexako beste edozein legezko norbaitenak, eleiz-ondasunak dira.

§ 2.—*Santuak* deritxe, santutzez nai onespenez Jaunaren yauresterako izen-

tauak badira; baliotsuak, edertiagaitik nai edestiagaitik nai gayagaitik balio andikoak direanak.

1498g. araua. Urrengo arauetan *Eleiz*-izenagaz Eleiz osoa ta Aitasantuz ganera, Elexako edozein legezko norbait be adierazoten da, esanaren esakeratik nai gayaren izatasunetik besterik agiri ezpaledi.

XXVII IDAZPURUA

Ondasunak norberenak zelan egin

1499g. araua. § 1.—Elexea ondasunai buruz beste edonori zillegi yakon edozein eraz, zein berezko zein giza-legezko era guztietara, yabetu daiteke.

§ 2.—Ondasunen yabetasuna, Aita Santuaren menpean, legez bereak egin dauzanaren legezko norbaiteri dagokio.

1500g. araua. Legezko norbait eleiztarraren barrutia erdibitu baledi, edo kendutako zatia beste legezko norbaiteri ezarten yakola, edo kendutako zatiagaz beste legezko norbait barria sortzen dala: lengo barruti osoaren onerako zirean ondasun guztiak, eta aren onerako egindako zorra be, zatitzea dagokion Eleiz-Nagusiak, irasleen nai ongilleen asmuak, legez eskuratutako eskubideak eta legezko norbaiten lege bereziak ausi barik, bear dan einean *ex bono et aequo* banandu bear ditu.

1501g. araua. Legezko norbait il ezker, aren ondasunak goragoko mallako legezko norbaitenak egiten dira, beti sortzalleak eta ondasun-emolleak gura izan ebena, legez norberenak egindako eskubideak eta ildako legezko norbaiten lege bereziak ausi barik.

1502g. araua. Irabazien asikiñak, eta amarrenak ordaintzeari buruz, toki bakotzeko lege bereziak eta ekandu txalogarriak zaindu bediz.

1503g. araua. 621-624g. arauen kalte barik, Aita Santuaren edo nor bere Goterkizafiaren eta tokiko Goterkizafiaren idatzizko baimen barik, edonori, nai eleiz-gizon dala, nai erri-gizon dala, galazo egiten yakoa Elexako legezko norbaiten nai zerbaiten alde eskean ekitea.

1504g. araua. Obispoaren menpeko direan eleiz eta bizibide guztiak, baita erritarren anai-arreba-alkargoak, euren menpekotasuna erakusteko, antxiñako ekanduak erabagita ezpaleuko, urtean-urtean 1507, § 1g. arauak diñoan lez agindua, aurki-zorra ordaindu bear dautse.

1505g. araua. Goterkizafiak, 1355-1356g. arauetako, abadegaietxearen aldeko zergearen edo 1429g. arauko bizibideari ezarri

dagikeon sariaren ganera, goterkiaren bear bereziak eskatu balegi, bizibidedun guztiai, gizarteko Jaunzaleai, neurrizko zerga berezia ezarri dagikioe.

1506g. araua. Goterkiaren nai patroia-
ren lagun etorteko, elexai, bizi-
bideai nai beste eleiz-norbaitzua-
i nai zerbaitzua, naita
bere menpekoak izan, Goterkizañak ezin dagikioe beste zergarik ezarri euren eregikeran edo yaureskeran izan ezik; eztauko batez be iñoiz eskubiderik yaupa-sariai zergarik ezarteko, sariak nai eskura emonak direala nai ezarritako ondaren etorrietakoak.

1507g. araua. § 1.—1056 ta 1234g. arauetan aginduaren kalte barik, auzitegiko arazoak dirala-ta kanpokoai buruzko egin-erabagiakaitik, edo Aita Santuaren idatzizko erantzunak dakarrena betetearren edo ikurtonak nai ikurton-antzekoak emotearren Eleiz-erki osoan zer zerga ordaindu erabagitea, Erki-batzarrari edo Erkiko Obispo-batzarrari dagokio; erabagi orrek baña eztauko indarrrik Aita Santuak onzat emon artean.

§ 2.—Auzitegiko egiñen ordez ordaindu bear danari buruz 1909g. arauan agindua bete bedi.

1508g. araua. *Preskriizioa* esaten yakona, nai eskubidearen yabe egiteko, nai zorra kitutu-bearretik azke geldituteko, bako-
txaren Leterriko legedian dagoan lez bere ondasunai buruz Elexeak ontzat artzen dau; orraitio urrengo arauon kalte barik.

1509g. araua. *Preskriizioak* eztauz ukututen:
1.º Jaunaren legezkoak direanak, lege ori yatorrizkoa dala nai geroagoan emona dala.
2.º Aita Santuak beren-beregi emonda bakarrik lortu leitekezanak.
3.º Kistar erritarren aldekoa balitz preskriizioa, arimeari buruzko esku-
bideak euegantzeko gai ez tirean erri-kistarrentzat.
4.º Eleiz erkien, goterkien, parrokien eta goterki-antzeko beste eleiz-barru-
tien mugak.
5.º Yaupa-sariak eta Yaupa-eginbearrak.
6.º Eleiz-bizibideak iñork emon barik.
7.º Iñork ez aztertu ez aginduteko eskubidea; au da, iñongo Eleiz-nagu-
siak ez begiratu zelan bizi direan, ez ezer aginduteko eskubiderik ez izateraño-
ko azkatasuna lortutea.
8.º Obispoari aurki-zorra detitxon zergea ez ordaintzeko.

1510g. araua. § 1.—Edonoren gauza santuak beste edonork be preskri-
zioz bereak egin badagikez, baña eztauko eskubiderik
santu ez tirean zeretan erabilteko; alan be. santutzea nai onspena galdu balegie,
erabili leitekez santu ez tirean zeretan, zikiñiak ez izatekotan.

§ 2.—Edonoren eskuetan eztagozan gauza santuak eztagikez edonork bereak
egin; baña legezko eleiz-norbaitek beste legezko eleiz-norbaiten aurkako pres-
kriizioz bai.

1511g. araua. § 1.—Gauza aldagatzak, aldakor balio andikoak, Aita
Santuaren eskubide ta auzibideak, bai norbaiteri bai zer-
baiteri buruzkoak, eun urteko epea bear dabe preskriizioz norberenak egiteko.
§ 2.—Beste eleiz-legezko norbaiteri buruzkoak ogeta amar urte bete ezker-
o norberetzen dira.

1512g. araua. Eztago preskriizio-
rik eskubidea dalakoa uste onez era-
billi ezik, ez bakarrik zera berekotzat eukiten asitorduan,
bai preskriizioaren yabe egiteko bear dan epe osoan be.

1513g. araua. § 1.—Yatorrizko legez nai eleiz-legez bere ondasunakaz
gure dauana egiteko eskubidea daukanak eskubidea dau-
ko onegintzarako izteko, bai bizi dala bai eriotza-ostean egiteko.

§ 2.—Elexearen aldeko atzen-nayetan, al dala Leterriko legeak aginduten
dituen egikerak bete bediz; bete ezpalebez, il danak nai izan ebanaren yakitun
egin bediz oñordekoak, bete dagien.

1514g. araua. Bai bizien arteko egiñez, bai eriotzeagaitik egiñez one-
gintzarako emon nai itxi dabezan kistarren nayak zoli-
-zoli bete bediz, bai 1515, § 3g. arauaren aginduaren kalte barik, ondasu-
nen zaintzeari ta bananduteari buruz be.

1515g. araua. § 1.—Goterkizañak dira onegintzarako itxitako ondasu-
nak yabeak nai izan daben lez zaindu ta erabili daite-
zan begiratzeko eskubidea ta egin-bearra daukenak.

§ 2.—Eskubide orregaz begiratu al eta bear dabe, baita tokira bertara
yoanda ikusi Jaureskizunetarako nayak bete daitezkan; eta berak zelan bete-
tan direan ikusteko agindu dauzan beste ordezkoak euren egitekoa zelan bete
daben esan bear dautse.

§ 3.—Goterkizañaren eskubide onen aurka bear bada azken-nayai ezarri-
tako oarrak ez ezarrikotzat euki bear dira.

1516g. araua. § 1.—Bai bizien arteko egiñen baten bidez, nai ilburuko
bidez Yaureskizunetarako ondasunak, yabeak gure eba-
na egin daiten arduratzeko artu dauan eleiz-gizonak nai Jaunzaleak bere agin-
duaren yakitun egin bear dau Goterkizaña, eta onetariko ondasun guztiak, alda-
gatxak nai aldakorrak euren egin-bearrakaz iragarri; ondasunak emon dauzanak
egin-bear ori betetea agirian eta osoan galazo balegi, ezpegiz artu ondasunok.

§ 2.—Goterkizañak olango aginduagaz ondasunak seguru ezarteko ta 1515g.
arauak aginduten dauan lez onegin-naya bete daiten arduratu bear dau.

§ 3.—Onango ondasunak Jaunzaleen bateri emonak balira, bertako nai
goterkiko elexai, gizakumeai nai onegintzai laguntzeko, or esaten dan *Ordina-
rius* Goterkizaña da; ostantxean, Jaunzale berberaren Goterkizaña nai Jaunzale-
Buru Nagusia.

1517g. araua. § 1.—Azken-nayen gitxitutea, laburtzea, aldatzea, bidezko ta ezin besteko ziyoz bakarrik egin bear direanak, Aita Santuaren eskubidekoak dira, azken-naya egin ebanak Goterkizañari be argi-argi eskubide ori emon ezpalegio.

§ 2.—Sari-zañen erru barik, ezarritako egin-bearrak sariaren etorriak gitxitu direlako edo beste edozein ziyoz jaso eziña egin baledi, orduan Goterkizañak be, zer-ikusidabenak entzunda gero eta ondasuna emon ebanaren naya alik ondoen betetan dala, egin-bearrak arindu dagikez; alan be, yaupak gitxitutea beti Aita Santuaren eskubide bakarra da.

XXVIII IDAZPURUA

Eleiz-ondasunak zaintzea

1518g. araua. Aita Santua da Eleiz-ondasun-zain orokarra.

1519g. araua. § 1.—Goterkizañari dagokio bere barrutian dagozan eta bere menpetik atera eztabezan eleiz-ondasun guztiak zaintzea, oraindiño eskubide geyago emoten dautsezan *preskriizioen* kalte barik.

§ 2.—Eskubideak, legezko ekanduak eta toki bakotzeko zer bereziak begiraturik, Goterkizañak, Elexa osoaren zuzenbidea kontuan artuta, eleiz-ondasunak alik ondoen zaintzeko agindu adiñonak emon begiz.

1520g. araua. § 1.—Zaindu-bear ori alik ondoen betetako, Goterkizañak bere Obispo-urian Aolkari-batzarra yarri begi; Aolkari-batzar orren Buru Goterkizaña bera izango da; eta, al dala, Leterriko zuzenbideari buruz be yakitun direan bazkide bi edo beukoz, Goterkizañak bere Batzarra entzunda autuko dauzanak, lege bereziak nai ekanduak beste auteskera bat erabagi ezpalegi.

§ 2.—Ostantzeko Aita Santuaren kutun-lege berezirik ezpalego, ondasun-zaintzeari buruzko Aolkari-batzar orretatik aldenduta dagoz Goterkizañaren lelen-go nai bigarren belaunaldiko senide nai aideak.

§ 3.—Goterkizañak ondasun-zaintzeari buruzko erabagi garrantzitsuenetan ezpegi Aolkari-batzar ori entzun barik itxi; aolkariok, baña, euren eritxia emoteko eskubidea baño eztabe, Elexa osoaren legeak edo ondasuntzearen yatorrizko lege bereziak iñoiz ebatzi-endarrezko autarkia emon ezpalegie.

1521g. araua. § 1.—Goterkiko ondasun-zaintzeari buruzko Aolkari-batzar orrez ganera, Goterkizañak eleiz nai yaurestokien baten direan eta legez nai yatorrizko agirien bidez nork zaindu eztaukenen ondasunak zaintzeko gizon zurrak, egoki ta izen onekoak izentau begiz; eta iru urte ezkerok, orrean ordez beste batzuk, tokietako izakerak bestelako erabagien bat artzea obe litzakela erakutsi ezik.

§ 2.—Nai iraskundearen legetatik, nai eregikundearen agirietatik nai Go-

terkizañak alantxe gure izan daualako eleiz-ondasunak zaintzeko erri-gizonak be zer-ikusidabebek, alan be zaintze-lan osoa Elexearen izenean egin bedi, eta zelan egiten dan begiratzeko eta kontuak eskatuteko Goterkizañak daukan eskubidearen kalte barik.

1522g. araua. 1521g. arauko eleiz-ondasun-zañak euren zeregiña asi orduko:

1.º Goterkizañaren edo parroki-zain-Buruaren aurrean zin-itza emon bear dabe euren zeregiña ondo ta zintzo beteko dabela.

2.º Gauza bakotxa bere izenagaz argi ta garbi dakarren agiritegia egin bedi, ondasun-zain guztiak izenpetuta, eta agiritegi orretan gauza bakotxa zer-rariko dan be jarriko da: au da: aldagatxa ala aldakorra, aldintsua ala ez; zegangoa dan; edo agiritegi ori lendik eginda balego, zelan eurak ontzat emon daben, bitartean yazotako aldakuntzak izentauta.

3.º Billabide orren iyeki bat bertako agiritegian zaindu bear da; beste bat Obispoaren idazkolako agiritegian; eta batean eta bestean zoli ezarri bedi ondasuntzeak izan dauan edozein aldakuntza.

1523g. araua. Eleiz-ondasun-zañak euren zeregiña betetean etxeko-jaun zurrak bere etxeko ondasunak zaintzean erabilten dauan yokera zolia erabilli bear dabe; beraz egin bear dabena da:

1.º Euren ardurapean yarri dabezan ondasunak ondatu nai kalterik izan eztagien zoli begiratu.

2.º Bai Elexearen bai Laterriaren legeak aginduten dabena, eta bai irasleak bai emoleak nai legezko nagusiak aginduak bete.

3.º Ondasunen etorriak nai edozelango irabaziak zeatz eta bakotxa bere garayan emon-erazo, ta emonak toki seguruan yagon eta irasleak gure izan eban lez edo artarako lege ta agindu bereziak erabagiten daben lez erabili.

4.º Eralgi-bearretatik gelditu dan eta ezarri daiteken dirua Goterkizañaren baimenagaz elexa berberaren alde ezarri.

5.º Artu ta eralgiaren idaztiak argi ta garbi idatzita zaindu.

6.º Ondasunai buruzko elexaren eskubideak egizkotzat erakusten dabezan idazki ta agiri guztiak, bear dan lez, bakotxa bere tokian ezarrita elexako kutxa nai agiritegian egoki yagonda zaindu; eta legezko birridatziak egin, neke lar barik egin al baledi, Obispoaren Idazkolako agiritegian be yagoteko.

1524g. araua. Guztiak, baña batez be eleizgizonak, Jaunzaleak eta elexearen ondasun-zañak langilleai lan-sari egokia emon bear dautse; ardurea artu Jaunagazko bakotxak bere astia izan dagian, ez galazo euren etxe ta etxekoan ardurea izan dagien eta irabazi osoa eralgi barik, geroagorako zaintzen be ikasi dagien; daukiezan indarrak baño lan geyago edo euren adiñagaz nai giza-emetasunagaz alkartzen ez tirean lanik be ez eragiteko.

1525g. araua. § 1.—Eleiz-gizon izan, nai errigizon izan, edozein elexaren, baita Obispo-elexaren ondasun-zañak, nai edozein onegintzaren nai kistar-bazkunarenak, aurkazko edozein ekandu txartzat emonda,

urtean-urtean ondasun-zaintzearen kontua Goterkizañari emoten beartuta dagoz.

§ 2.—Lege bereziak aginduta ondasun-zaintzearen kontua beste batzui be emon bear baleutse, orduan Goterkizaña edo bere Ordezkoa be deitu bear dabe eurakaz batera kontuok ikusten; ostantxean, bestera egiañiko garbitasunak etxakez gauzazko ondasun-zañoi.

1526g. araua. Goterkizañaren idatzizko baimen barik edo estualdi larrian gitxienez parroki-zain-buruarena barik ondasun-zañok ezpegie elexearen izenean iñor auzitegira deitu, ezta iñork deitu balitu erantzun be; parroki-zain-buruak emondako baimenari buruz len baño len yakitun egin begi Goterki-zaña.

1527g. araua. § 1.—Goterkizañagandiko eskubidea aurretik eskatu ta artu ezik, eguneroko ondasun-zaintzearen mugarriztatik kanpora egiten direanak alperrikoak dira.

§ 2.—Eleizondasun-zañiak legezko Nagusiaren baimen barik egingo leukezan itunbenakaitik eztauko elexeak erantzun-bearrik eurotatik irabazia etorri yakenean baño, eta irabazia etorri yakon neurrian.

1528g. araua. Bizibidez nai eleiz-zeregiñez ondasun zaintzera beartuta egon ez-arren, agirian nai ixilean artutako ondasun-zaintzea euren burutik itxi balegie eta artatik elexeari kalterik etorri, kalteok osatu-bearra dauke.

XXIX IDAZPURUA

Itunbenak

1529g. araua. Toki bakotzeko itunbenai buruzko Leterri-legeak, bai guztiai buruzkoak bai batzui buruzkoak, izen berezidunak nai izen bakoak direala, eta eurak ordainketeai buruz erabagiten dabena bete bedi Elexearen eta Elexako ondasunai buruzko itunbenetan be, Jaunaren legeari aurkazko ezpayakoz edo Elexearen legeak iñioiz besterik erabagi ezpalegi.

1530g. araua. § 1.—1281, § 1g. arauaren aginduaren kalte barik, Elexearen ondasun aldagatzak eta yagon leitekezan aldakorrak saldu-bearra balego, bearrekoak dira:

1.º Saltzeko gauzearen balio-neurria artan aituak direanak ezarria.

2.º Bidezko ziyoa, au da, bear estua edo Elexearen agiriko irabazia, edo iñoren bearrari maitez lagun-etorri-bearra.

3.º Legezko Nagusiaren baimena; ori barik gauzea iñori saltzea utsa litzake.

§ 2.—Orretariko zerbait egiten danean begiratu begi Nagusiak Elexeak kalterik artu eztagian beste zerbaitzuk be egin bearko ete direan, eta ondo deritxoan egin daitezanan ardurea artu.

1531g. araua. Ezta ezer saldu bear ezarri dautsen balio-neurria baño merkeago.

§ 2.—Saldu edonorentzat agiriko salketan egin bedi, edo gitxienez erria yakitun eginda, alangoen baten zerbaitegaitik ixilean saldu-bearra ezpaletor; ta saltzekoa, zer guztiak begiraturik, geyen eskintzen dauanari saldu bedi.

§ 3.—Salduaren ordañez artutako dirua elexearen onerako galtzeko arriskurik gitxiengaz irabazirik geyen emoten dauan zerbaiten ezarri bedi.

1532g. araua. § 1.—1530, § 3g. arauan aitaturitako legezko Nagusia Aita Santua da:

1.º Zer baliotsuak direanean.

2.º Ogeta amar-milla lauerleko baño balio geyagokoa bada.

§ 2.—Milla pesetaren balioa baño geyagorik eztauken zerak saltzeko Goterkizaña da, bere aolkari-batzarra entzunda gero eta salketan zer-ikusidabenen bayezkoagaz, pitsen bat ezpalitz.

§ 3.—Amaitzeko, milla ta ogeta amar milla pesetaren bitarteko balio leuakaken zerbait balitz saltzekoa, Goterkizaña da, baña Obispoaren elexako Batzarren eta Aolkari-Batzarren eta zer-ikusidaukenen bayezkoa be izatekotan.

§ 4.—Gauzea zatika saldu nai baledi, saltzeko baimena nai bayetza eskarakeran lendik saldutako zatiak be agertu bear yakez; ostantzeko bayetza utsa litzake.

1533g. araua. Or 1532g. arauko egikerabideak ibilli bear dira ez bakkarik gauzea saldu egiten danean, bai Elexearen esku-bidea makaldu egiten danean be.

1534g. araua. § 1.—Elexeak *norezko* auzibidea dauko legezko egikerabideak egin barik eleiz-ondasunak iñorganatu dauzanaren eta onen ondoregoaren aurka; *zerezko* auzibidea ostera, iñorganatze ori legealperrikoa izan baledi, gauzea daukan edonoren aurka, gauzea txarto iñorganatuebanaren aurka daukan eskubidearen kalte barik.

§ 2.—Eleiz-ondasunen alperriko iñorentzeaz auzia iminteko eskubidea dauke gauzea iñorendu ebanak eta bere ondorengoak; bere Nagusiak; bataren eta bestearen zeregiñean ondorengoak; ta amaitzeko, kaltea izan dauan elexeari ezarritako edozein eleiz-gizonek.

1535g. araua. Nagusi ta eleiz-zañiak euren elexen ondasun aldakorretik ukarrak nainori egiten ezpediz ausartu, txikiak eta neurrizkoak toki bakotzeko ekanduaren neurrian baño; alangoen baten edo egindako lana ordaindu-bearrak edo onegintzak edo maite-bear kistarrak zerbait geyago emonbearra ekarri ezpalegi; ostantxean, ondorengoak txarto emondakoa atzera ekarri-erazo dagike.

1536g. araua. § 1.—Besterik erakutsi ezik, eleiz-zañai, bai jaunzaleenai be, emoten yakena, elexearentza emona dala uste izan bear da.

§ 2.—Elexeari emona eleiz-zañiak nai Nagusiak ezin dagike artu barik itxi, Goterkizañaren baimen barik.

§ 3.—Bein elxeari emona eta berak bein legez beretzat artua ezin daiteke gero kendu eleiz-zañaren nai Nagusiaren esker-txarragaitik.

1537g. araua. Gauza santuak ezpekioz iñori itxi euren santutasunagaz alkartzen ezteirean zeretan erabilteko.

1538g. araua. § 1.—Eleiz-ondasunak legezko ziyoen bategaitik baitu edo baitupean ezarri bear balira, edo zorra egin bear balitz, 1532g. arauaren neurrizko bayetza emon bear dauan Nagusiak agindu begi bayetza emon orduko arazoan zer ikusi daben guztiak entzunak izan dai-tezala ta zorrak alik ariñen ordaindu daitezcan ardurea artu begi.

§ 2.—Orretarako zorra ordaintzeko urtean zenbat diru jarri Goterkizañiak aurretiaz erabagi begi.

1539g. araua. § 1.—Zer santutuak saldu-trukean garestiako saltzeko ez-pegie begiratu santutuak edo bedeinkatuak direala.

§ 2.—*Darozanarenak* esaten dautsen diru-etxeen agiriak beste agiri segu-ruagoetan nai seguru bardin direanetan ondasun-zañiak aldatu dagikez, baña sal-du-erosien antzik emon barik eta goterkiko ondasun-zaintzeari buruzko Aolkari-batzarra ta arazoan zer ikusi daben guztiak entzunda gero Goterkizañiak emongo dauan baimenagaz.

1540g. araua. Goterkizañaren beren-beregiko baimen barik Elexearen ondasun aldagatxak etxakez saldu bear ez sari ordez erabilteko emon ondasun-zañai eurai, ezta euron senide nai aide lelengo nai bigarren mallakoak direanai.

1541g. araua. § 1.—Eleiz-lurrik errentan erabilteko norbaiteri emotea ezpedi egin, 1531, § 2g. arauak erabagiten dauan lez baño; eta ganera mugarriak ez aldatzeko, lurra ondo landuteko ta saria zintzo ordaintzeko baldintzak ezarri bekioz itunbenari eta bai itunbena ez betetakoan galduko leuken zerbait be.

§ 2.—Eleiz-ondasunak errentan emoteko bete bedi 1470g. arauan agindua:

1.º Emon danaren urteko saria ogeta amar milla pesetatik gorakoa balitz eta itunbena bederatzi urte baño geyagorako, 1552, § 3g. arauaren agindua bete bear da.

2.º Ordain-saria milla pesetatik ogeta amar milla bitartekoa balitz, eta itunbena bederatzi urte-betetik aurrerakoa, 1532, § 3g. arauaren agindua bete bear da; itunbena bederatzi urte baño geyagorako ezpalitz, 1532, § 2g. arauaren agindua.

3.º Ordain-saria milla pesetatik gorakoa ezpalitz eta itunbena bederatzi urte baño geyagorako balitz, 1532, § 2g. arauaren agindua bete bear da; itun-bena bederatzi urte baño geyagorako ezpalitz, Goterkizañari esanda, legezko on-dasun-zañiak egin dagike.

1542g. araua. § 1.—*Emphiteusis* deritxon itunbenaren bidez eleiz-on-dasunak artu dauzanak ezin dagike azkatu bere burua 1532g. arauan aitaturten direan eleiz-Nagusien baimen barik; azkatzea lortu ba-legi, sariak aña balio dauan dirutzea emon bearko dau.

§ 2.—Itunben orren bidez eleiz-ondasunak erabiltea daukanak bere ordain-du-bearra beteko daualakoaren erakutsitzat onenbesteko ondasuntzea yarri bear dau, itunbena bete ezik galduko leukena; ganera, itunbenean bertan ondasunoi buruzko auzietan eleiz-epaitegira yo bear dala, eta lanak ekarriko dautsezcan oba-riak lurrarentzat direala esan bedi.

1543g. araua. Erabilteko zerbait emon balekio norbaiteri gero berea izateko bere ordez beste ainbeste emotekotan, itunbena-gaitik ezin leiteke ezer eskatu, argi agiri ezpaledi lar dala; eztago galazota, baña, legezko irabaziari buruz alkar itundutea; eta artarako bidezko ziyorik balego, itundu daitezke legezkoa baño irabazi andiagoa yarteko be.

XXX IDAZPURUA

Jatureskizunak

1544g. araua. § 1.—Izen orregaz urrengo zerak adierazoten dira: Elexako legezko norbaiteri edozelan betiko edo epe luze-rako edozelan emondako ondasunak, ondasun orreïn urteko etorrietatik yaupa batzuk aterateko, nai izentautako beste eleizkizun batzuk egiteko, nai beste one-gite nai erruki-lanak egiteko.

§ 2.—Legez ontzat artu ezkeru, itunbenok *dagizun-damotsut* alkarregazko itunbenak direanen izakera dauke.

1545g. araua. Goterkizañaren egitekoa da itunben oneitan gitxienez emon bear dan ondasuntzeak zeinbestekoa izan bear dauan erabagitea ta gero artutako egin-bearrak bete daitezcan begiratzea.

1546g. araua. § 1.—Onetariko onegintzak legezko norbaitzuk artu al dagiezan, idatziz emondako Goterkizañaren baimena bear da; Goterkizañak ezpegi barriz baimen ori emon legezko norbait orrek bai lendik daukazan zamak bai oraindiño bere lepoan artu gure dauan au eroa-teko gauza dala ikusi ezpalegi; begira begi batez be goterki bakotzeko ekan-duaren arauz, urteko etorriak ezarten yakozan egin-bearrakaz bardiñiak izan daitezcan.

§ 2.—Onegintzak artu-ezarri-zaintzean elxearen patroyak eztauko zertan nastuteko eskubiderik.

1547g. araua. Onegintzarako saritzat emondako dirua ta beste onda-sun aldakorrek Goterkizañiak berak aututako toki segu-ruan bertatik yarri bediz, dirua bera edo ondasun aldakorrek saltzetik artua

an gorde dedin eta Goterkizaiñaren erixi zurraren arauz, zer ikusi daukenak eta goterkiko ondasun-zaintzeari buruzko Aolkari-Batzarra entzun da, onegintza-rentzat irabazian ezarri, zertarako dan zeatz ta meatz esanda.

1548g. araua. § 1.—Onegintzen sortzeak, itzez egiñak be, idatziz ezarri bediz.

§ 2.—Onegintzari buruzko agirien iyeki bata Obispoaren idazkolako agiritegian yagon bear da; bestea toki seguruan onegintza berea dauan legezko norbaiten agiritegian yagon bedi.

1549g. araua. § 1.—1514-1517g. arauen aginduak beteta, edozein ele-xan onegintzen egin-bearren billabidea egin bedi, eta eleiz-zañak toki seguruan yagon begi.

§ 2.—Era batera, 843, § 1g. arauan aitaututen dan idaztiz ganera, beste bat be idatzi bedi ta eleiz-zañaren etxean yagon, eta bertan ezarri bediz: a) bai betiko bai epe baterako egin-bearrak; b) eta noiz betetzen direan; d) baita euren sariak; e) eta guztiaren kontua emon Goterkizaiñari.

1550g. araua. Jaunzale azkatuen eleixetan sortutako onegintzak balira, nai-ta parroki-elexan izan, 1545-1549g. arauetan Goterkizaiñari ezarritako eskubide-eginbearrak euren Buru nagusiari bakarrik dagokioz.

1551g. araua. § 1.—Onegintzok aginduten dabezan egin-bearrak gitxitutea Aita Santuari bakarrik dagokio, onegintza sortutorduan egiñiko agirian besterik argi esan ezpaledi, eta 1517, § 2g. arauan esanaren kalte barik.

§ 2.—Onegintzen yaupak gitxituteko Aita Santuak emondako eskubidea ezta luzatu bear ostantxeko bidetik artzen direan yaupatarañio, ez onegintzaren beste egin-bearretara.

§ 3.—Onegintzaren egin-bearrak gitxituteko eskubide neurri bakoa onan ulertu bear da: besterik argi agertu ezik, yaupak barik, ostantxeko eginbearrak gitxituteko dala.

LAUGARREN IDAZTIA

EPAIBIDEAK

LELENGO ZATIA

Auziak

1552g. araua. § 1.—Elexeak zer ikusi ta esateko eskubidea daukan zer-baiteri buruzko eztabaidea eleiz-epaitegian eztabaidakatu ta epaitzeari deritxo *eleiz-auzia*.

§ 2.—Auzi-gayak dira:

1.º Berezko nai legezko norbaiten eskubideak eskatu nai aldeztuteko; edo norbaiten egiñak legezkotzat agertuteko; eta auzi oni *eztabaidazkoa* deritxo.

2.º Lege-ausiak irabazi daben *zigorra* ezarteko edo agertzeko; eta orduan *auzia lege-ausizkoa* da.

1553g. araua. § 1.—Elexeak berea dauan eta berea bakarrik danaren eskubideagaz epaitzen ditu:

1.º Arimeari buruzko ta arimearen zerai buruzko auziak.

2.º Eleiz-lege-ausia ta pekatua dagoan egin guztiak, errua epaitzeko ta Eleiz-zigorak ezartzeko.

3.º 120, 614, 680g. arauak erabagiten daben auzi-eskubide berezia dabe-nai buruzko auzietan, direala eztabaidazkoak, direala lege-ausizkoak.

§ 2.—Bai Elexea bai Laterria eskubide bardiñekoak direanean eta auzitegi bikotxeko deritxoan auzietan, *auzia* epaitzeko eskubidea aurrea artzen dauanak dauko.

1554g. araua. Eleiz-auzitegira eroandako auzi-bikotxeko *auzia* Laterri-ko auzitegira daroan auzilariak 2222g. arauaren neurrian zigor egokia artzea irabazten dau; eta ganera auzilari berberaren aurka auzi berbera ta auzi orregazko gora berak Eleiz-auzitegira eroateko eskubidea galdu egiten dau.

1555g. araua. § 1.—Zeregin Santuari buruzko Bazkun Gurenaren auzi-tegian bere ekandu ta lege berezien arauz diardue; eta beragoko auzitegietan be Zeregin Santuko Bazkunari dagokiozan auzi-gayetan berak emondako arauak erabili bear dabez.

§ 2.—Beste auzitegiak epaikizunak ebatzean emeko urrengo arauen aginduak bete bear dabez.

§ 3.—Jaunzaleak yaurtigiteko auzietan 654-667g. arauen aginduak bete bediz.

LELENGO TXATALA

Auzi guztiai buruz

I IDAZPURUA

Auzitegi egokia

1556g. araua. Aita Santua ezin daike inork epaitu.

1557g. araua. § 1.—Aita Santuari bakarrik dagokio epaitzea:
1.º Laterrietako yaurlaritzan gorengo mallan dagozanak eta euren seme-alabak eta yaurlaritzako gorengo malla orretan urrengo izateko eskubidedunak.

2.º Kardenalak.

3.º Aita Santuaren Ordezkoak, eta lege-ausizko auzietan Obispoak, bai goterki-bakoak be.

§ 2.—Aita Santuaren auzitegiak epaitzekoak dira:

1.º Goterkidun Obispoak eztabaidazko auzietan 1572, § 2g. arauko aginduaren kalte barik.

2.º Goterkiak eta Aita Santuaren azpiko nagusirik eztauken beste legezko nortzuk, esaterako: Jaunzaletza azkatuak, Lekaide-Bazkunak eta abar.

§ 3.—Aita Santuak bere auzitegirako berezi dauzan auziak, Aita Santuak berak izentauko dauan epaikariak epaitzen ditu.

1558g. araua. 1556-1557g. arauetan izentautako auzietan beste epaikarien eskubiderik-eza osoa da.

1559g. araua. § 1.—Ezin daiteke inor lelengo auzialdian epaitegira deitu, 1560-1566 arauetan izentatzen direan zityoen bategaitik epaitzeko eskubidea daukan epaikariaren aurrera baño.

§ 2.—Onetariko ziyo batxo be eztaukan epaikariaren epaitu-ezifari auzi batzui buruzkoa deritxo.

§ 3.—Auzilariak auzia non ipini deitsan aren epaitegira yo bear dau; auzituak epaitegi bat baño geyago balitu, auzilariari dagokio aukerea.

1560g. araua. Legeak ezarritako auzitegia dauke:
1.º Kendutako zerbeit emon-erazoteko auziak: auzi au

tokiko Goterkizañarena da, naita zerbeit orrek egon bear eban tokikoa ez izan.
2.º Eleiz-ibizibideari buruzkoak, bizibidearen tokiko Goterkizañaren aurrean.

3.º Eleiz-ondasunen zaintzeari buruzko auziak, zaintza ori egin dan tokiko Goterkizañaren aurrean.

4.º Yarauntzai ta onegintza-aginduai buruzko auziak, atzen-naya egin eban aren tokiko Goterkizañaren aurrean, il-burukoan agindua betetzeari buruzko auzia ezpalitz; ori balitz, edozein auziri dagokiozan legeak bete bear dira.

1561g. araua. § 1.—Edonor deitu daiteke bizitokia nai bizitoki-antzekoa daukan tokiko Goterkizañaren epaitegira.

§ 2.—Bizitokiko nai bizitoki-antzeko Goterkizañak bere menpekoak bertan eztagozala be epaitu dagikez.

1562g. araua. § 1.—Erroma'n legoken arrotza, naita epe laburrerako egon, bere etxean bailegoan deitu daiteke epaitegira; baña eskubidea dauko bere etxera yoteko eta bai bere Goterkizañagana bialdu dagiela eskatuteko be.

§ 2.—Erroman urte bete ezker dagoanak bere Goterkizañaren epaitegira deitua ez izateko ta bere auzia Erroma'ko epaitegian ebazteko eskatuteko eskubidea dauko.

1563g. araua. Nainongoak bere auzitegia dagoan lekuan dauko; Jaunzaleak, bere etxeko tokiarenean.

1564g. araua. Auzikizun dan gauzea dagoan tokiagaitik zer ori dagoan tokiko Goterkizañaren aurrera deitu daiteke norbeit, auzian gauza ori emoten beartuteko eskatu baledi.

1565g. araua. § 1.—Itunbenen bategaitik auzia yarten yakona deitu daiteke itunbena egin zan edo bete bear dan tokiko Goterkizañaren epaitegira.

§ 2.—Itunbena egitorduan, baña, azke dira ituntzalleok itunbena non azaldu, bete-erazo ta betetako tokia aututeko eta bertan eztagozanak auzira ara deituteko.

1566g. araua. § 1.—Lege-ausiaren errudunak legea ausi eban tokiko auzitegian dauko erantzun-bearra.

§ 2.—Legea ausita gero lege-ausleak andik alde egin arren, ango tokiko epaikariak bere auzitegira deitu ta aren aurka epaya emoteko eskubidea dauko.

1567g. araua. Alkarrereri erantsita dagozan auziak epaikari batek eta berberak epaitu bear ditu, legeak galazo ezpalegi.

1658g. araua. Epaikari bi edo geyago bardinean gauza balira auziren bat epaitzeko, aurreak artzen dauzanari lagun datorkion

legearen indarrez, gure auzia ebazteko eskubidea errudunari auzitegira etorteko lelengo deitu dautsanak dauko.

II IDAZPURUA

Epaitegien malla ta motak

1569g. araua. § 1.—Aita Santua kistar guztien eta bakotxaren Buru dalako, edozein kistarrek lur-gane osoan eskubidea dauko bere auzia, eztabaidazkoa dala, lege-ausizkoa dala, edozein epai-mallan dagoala eta edozein auzi-egokeran dagoala, Aita Santuagana erroteko Beronek epaitu dagian.

§ 2.—Aita Santuagana yote orrek baña 1879-1891g. arauen neurrian legezko yotea ez tanean auzia aztertzen asi zan epaikariaren eskubidea eztau ebagiten; beraz auzia atzenengo epaya emoterano aztertu dagike, Aita Santuak auzia bereganatu dauala esan ezpalegi.

1570g. araua. § 1.—Aita Santuarentzat legeak berak berezitakoak edo Berak bereganatukoak kendu ezkerro, beste auzi guztiak 1572g. eta urrengo arauetan aitaturten direan epaitegiak epaitzen dabez.

§ 2.—Edozein epaitegi, baña, auzilari ta lekukoen aztertu nai deitzeari buruz, idatziak eta eztabaidatzen direan zerak begiratzeari buruz, erabagien iragartea ta beste onetarikoai buruz lagun etorteko beste epaitegi bateri ots egiteko eskubidea dauko; ta epaitegi orrek orretariko egin-bear bakotxerako legeak aginduten dauzan egikerak bete bear ditu.

1571g. araua. Auzia epai-malla baten ikusi eban epaikariak ez dagike auzi berbera beste malla baten epaitu.

I Atala

Lelengo mallako geyenbaterako epaitegia

I Atalka

Epaikaria

1572g. araua. § 1.—Goterki bakotxean eta legeak beren-beregi berezi bako auzi guztietarako lelengo mallako geyen bateko epaikaria Goterkizaña da; onek epai-eskubide ori nai berberak nai inoren bitartez erabilli dagike; alan be, urrengo arauen neurrian.

§ 2.—Orraitio, auzia Obispoaren eta Obispo-mayaren nai Obispo-Idazkolaren eskubide ta ondasunai buruzkoa baledi, eroan bedi edo, Obispoaren bayetzagaz, goterkiko epaikariak eta goterkiko Batzarrean izentau zirean epaikari zarren biak osotuten daben goterkiko batzar-epaitegira, edo urrengo goragoko mallako epaikariagana.

1573g. araua. Edozein Obispo beartuta dago norbait goterkiko epaikari izentauteko auziak epaitzeko legezko eskubideagaz, eta ez Danerako bere Ordezkoa bera, goterkiaren txikitasunak eta auzien gitxitasunak zeregin biak bateri ezartea oba litzakela aolkatu ezpalegie.

§ 2.—Goterkiko epaikari nagusi onek Obispoagaz epaitegi bakarra egiten dau; ez dagikez orraitio epaitu Obispoak berak epaitzeko berezi dauzan auziak.

§ 3.—Epaikariari lagunak emon legikeoz, epaikari-lagun-izenagaz.

§ 4.—Bai epaikariak bai epaikari-lagunak yaupariak izan bear dabe, entzute onekoak, eleiz-legeetan Irakasle-izendunak edo bein-beinean aitua, eta gitxienez ogeta amar urte betekoak.

§ 5.—Obispoak noiz gura aldatu dagikez; Obispoaren aulkia utsik geldituagaz ezta amaitzen euren zeregiña eta Batzar-Ordezkoak ez dagikez kendu; baña Obispo barria datorrenean barriztau-bearra dauke.

§ 6.—Danerako Ordezkoa epaikari be balitz, Obispo-aulkia utsitu ezkerro, Danerako Ordezkoatasuna amaitzen yako, ez baña epaikariarena.

§ 7.—Epaikaria autua baledi Batzar-Ordezko, begi berak epaikari beste norbait.

1574g. araua. § 1.—Edozein goterkitan bizikera oneko ta eleiz-legeai buruz yakitun direan yaupariak autu bediz, ez orraitio amabi baño geyago, Obispoak emondako alagaz auziak epaitzen daragoyoen; eurok batzar-epaikari izena dabe; edo batzarretik kanpoan izentauak balira: batzar-ordezkoak.

§ 2.—Eurok zelan autu, ordeztu, amaitu ta kentzeko, 385-388g. arauak aginduten daben lez egin bedi.

§ 3.—Eleiz-legeetan batzar-epaikarien izen-azpian batzar-ordezkoak be bator.

1575g. araua. Epaikari bakarrak edozein auzitan aolkari bi laguntzat artu dagikez; orraitio, batzar-epaikarien artetikoak artu bear ditu.

1576g. araua. § 1.—Aurkako ekandurik balego txartzat emonda eta os-teango edozein kutun-lege kenduta:

1.º Eleiz-gizontze santutiko eta ezkontzatiko lokarriari edo Obispo eleixearen eskubide ta ondasunai buruzko eztabaidazko auziak; edo bizibide aldagatxak kentzea edo arrozkontze-zigorra ezarri nai agertuteko lege-ausizko auziak epaitzea iru epaikaridun batzar-epaitegiari berezita dagoz.

2.º Egozpena, eleiz-gizon-soñekoa erroteko eskubidea betiko kentzea, eleiz-gizonari erri-gizontze-zigorra ezarteko lege-ausiai epaya emoteko, bost epaikaridun batzarra bear da.

§ 2.—Goterkizañak iru nai bost epaikarizko epaitegiari beste auzi batzuk be ezarri dagikeoz; ori egin begi, batez be garai, toki ta gizakumeen izakereak eta epaikizunaren gaya begiraturik, auziak gatxagoak eta garrantzi andikoak direala deritxonean.

§ 3.—Lendakariagaz batzar-epaitegia egiten daben biak nai laurak, bere buru zurrak besterik esan ezpalegio, batzar-epaikarien artetik txandaka autu begiz.

1577g. araua. § 1.—Batzar-epaitegiak batzar-legez yardun bear dau, eta epayak euren alde autarkirik geyen izan dabezanak dira legezko.

§ 2.—Bere buru Epaikari nagusia edo aren Ordezkoa dau; buruaren egitekoa epaikerea zuzendu eta eskuarteko auzian zuzenak aginduten dauana egiteko bear direanak eragitea da.

1578g. araua. 1572, § 2g. arauan aitaturako auziak alde, Obispoa bera epaitegiaren maipuru izan leiteke, baña oso oba da, lege-
-ausizko ta garrantzi andiko eztabaiazko auzietan batez be, maipurutza ori goter-
-kiko Epaikari nagusiari nai bere Ordezkoari iztea, epaikari lagunakaz auzia iztea oizko epaitegiak epaitu dagian.

1579g. araua. § 1.—Auzia Jaunzaletza azkatuko Jaunzaleen artekoa balitz, euren legeetan besterik aginduta ezpalego, lelengo mallako epaikaria euren Erki-burua da; eta bere buruaren yabe dan Lekaretxea balitz, bertako Lekaipuru.

§ 2.—Euren legeak besterik agindu ezpalegie, auzia Erki biren artekoa danean lelengo mallan epaitu begi Jaunzaletzako Nagusienak, nai berberak nai bere ordezkoaren bitartez; auzia Lekaidetxe biren artekoa balitz, Lekaidetxe-Bazkunaren Buruak.

§ 3.—Amaitzeko, auzia sortu baledi: a) Jaunzaletza banazko azur-mamizko nai legezko norbaitzuen artean; b) edo erri-gizonezko Jaunzaletza bateko bazkideen artean; d) edo Jaunzale ta erri-eleizgizonaren nai erritarren artean; lelengo mallako epaikaria bertako Goterkizaña da.

II Atalkia

Epaikariaren lagunak: Entzule ta Edeslariak

1580g. araua. § 1.—Goterkizañak nai auzi bakarrerako nai sortuko direan guztietarako entzule bat nai batzuk izentau dagikez epaille-lana gertetako.

§ 2.—Goterkizañak izentau ezpalegi, epaikariak berak be izentau dagike entzulea, baña eskuarteko auzirako bakarrik.

1581g. araua. Goterkiko epaitegirako entzuleak, al dala, Batzar-epaikarien artetikoak autu bediz; Jaunzaletzako epaitegirako, barriz. beti autu bear dira Jaunzaletza berbereko bazkideen artean euren legeak erabagiten daben lez.

1582g. araua. Euron egitekoa: lekukoak deitu ta entzun eta auzia epaitezko bear direan beste zer guztiak. emon dautsen aginduaren neurrian, gertetea da; eztagokie barriz auziari atzeneko epaya emoterik.

1583g. araua. Izentau ebanak entzulea auziaren edozein garaitan kendu dagike; orraitio, bidezko ziyoa bear da ori egiteko eta auzilarien kalte barik.

1584g. araua. Batzar-epaitegiko maipuruak bazkide bat txostenlari izentau bear dau, epaikarien batzarrean auziaren edestia egiteko ta epayak idatziz ezarteko; ta maipuru berberak bidezko ziyoz beste bategaz ordeztu dagike.

III Atalkia

Ziñaldari, zuzenaren eta legezko lokarrien aldezlariak

1585g. araua. § 1.—Auzi guztietan izan bear dau idazle-lana egin bear dauan Ziñaldaria; beraz egizpideak eztira gauza izango Ziñaldariaren eskuz idatziak edo gitxienez berak bere izenagaz egiztauak ezpadira.

§ 2.—Orregaitik epaikariak, auzia azterkatzen asi orduko, legez yarritako ziñaldari bat idazlaritzat artu bear dau, Goterkizañak berak auzi artarako beren-beregi norbait izentau ezpalegi.

1586g. araua. Goterki baktotxean izentau bediz zuzenaren aldezlaria ta lokarriaren aldezlaria; lelengoa, Goterkizañaren eritxiz guztien onari kalte ekarri legikeon eztabaidazko auzietan eta lege-ausizko auzi guztietan lan egiteko; bigarrrena, eleiz-gizontza santuak eta ezkontzeak daben lokarriak buruzko auzietan lan egiteko.

1587g. araua. § 1.—Eurok aurrean izan bearreko auzietan zuzen-aldezlari ta lokarri-aldezlaria deitu ezik egiten dana utsa litzake, deituak izan ez arren, bertan izan ezpalediz.

§ 2.—Legez deitu ezkerero, egindako zer batzuetan aurki izan ezpadira, egindakoak gauza dira izan; baña gero, nai ta nai ez, dana emon bear yake, aztertu dagien ta bearrezko nai egoki deritxoena edo itzez edo idatziz oartu ta erakutsi dagientzat.

1588g. araua. § 1.—Zuzen-aldezlarietza ta lokarri-aldezlarietza biak norbait bakarrik egin dagikez, auziak asko izateak galazoz ezpalegi.

§ 2.—Zuzen eta lokarri aldezlariak nai auzi guztietarako nai auzi baktotxe-rako izentau daitekez.

1589g. araua. § 1.—Zuzen-lokarri-aldezlariak izentautea Goterkizañari dagokio; eurok akats bako eta entzute oneko yaupariak, -eleiz-legeetan Irakasle-izendunak edo bein-beinean yakitunak eta zurtasunez eta zuzen-egarriz ezagunak izan bear dabe.

§ 2.—Jaunzaleen epaitegiko zuzen-aldezlariak, ganera, Jaunzaletza bertako bazkide izan bear dau.

1590g. araua. § 1.—Auzi guztietarako izentautako zuzen-lokarri-aldezarrien zeregiña ezta amaitzen Obispo-aulkia ustugaz, eta Batzar-Ordezkoak kendu be ezdagikez; baña Obispo barria datorrenean, barriro izentau bearra dauke.

§ 2.—Obispoak bidezko ziyoz kendu dagikez.

IV Atalkia

Geznari ta amabiak

1591g. araua. § 1.—Auzian egiñak iragarteko, epaitegiaren ontzat emondako ekandua ostantzekoa ezpalitz, iragarleak izentau bediz nai auzi guztietarako nai auzi bakotxerako; baita amabiak be, epaikariaren epai ta aginduak epaikariak aginduten dautsenean egiteko.

§ 2.—Zeregin biok batek bete dagikez.

1592g. araua. Iñoiz zeregin oneik betetako eleiz-gizonak obeto beteko leukiezala bidezko ziyoz uste izan ezik, erri-gizonak artu bediz, eta eurok izentau eten. kendu egiteari buruz 373g. arauan ziñaldarientzat ezarritako eginbidea erabilli bedi.

1593g. araua. Oneik egindako agiriak guztientzat siñeskarri dira.

II Atala

Bigarren mallako legezko epaitegia

1594g. araua. § 1.—Azpiko Obispoaren auzitegitik Obispo-buruaren auzitegira yoten da.

§ 2.—Obispo-buruaren auzitegian lelengo mallan epaitutako auzietatik, Aita Santuak ontzat emonda, Obispo-buruak bein eta betiko aututako Goterkizañaren epaitegira yoten da.

§ 3.—Azpikorik eztaukan Obispo-buruaren edo bitarteko barik Aita Santuaren menpeko dan Goterkizañaren auzitegian epaitutako ebatzietatik, 285g. arauan aitatuten dan Obispo buruagana yo bear da.

§ 4.—Jaunzale azkatuen artean Erkabaren auzitegian epaitutako auzietarako bigarren mallako auzitegia Jaunzaletza berberaren Nagusienaren auzitegia da; etxeko Lekaipuruaaren auzitegian epaitutakoena, Lekaretxe-Bazkunaren Buruaren epaitegia; 1579. § 3g. arauan aitatuten direan auziai buruz, arau onen § 1-3 atal-txoetan aginduten dana egin bedi.

1595g. araua. Bigarren mallako epaitegia lelengo mallakoa letxe yarria izan bedi, eta auzia eztabaidatzean be lege bardiñak bete bear dira.

1596g. araua. Lelengo mallan epaikizuna batzar-epaitegiak epaitu balegi. bigarren mallan be batzar epaitegiak epaitu bear dau, eta beronen epaikariak lelengo mallakoak baño gitxiago eztabe izan bear.

III Atala

Aita Santuaren betiko legezko epaitegiak

1597g. araua. 1569g. arauak diñoan lez, Aita Santua Elexa osoko gorrengo epaikaria da; eta eskubide ori bai berberak bai iñoren bidez darabil: edo berberak artarako ezarritako epaitegien bidez edo berak bere ordezeko egindako epaikarien bidez.

I Atalkia

Erroma'ko "Rota Santua"

1598g. araua. § 1.—Legezko gora yoak artzeko Aita Santuak yarrita daukan auzitegia "Erroma'ko Rota Santua" da. Berau batzar-epaitegia da, onenbeste epaikarik, Entzule izenekoak, egiten dabena, ta euren Buru "Zarrena" deritxona da, eta eskubide bardiñekoen artean aurrekoa izateko baño beste eskubiderik eztaukana.

§ 2.—Oneik guztiok yaupariak eta gitxienez Elexearen eta Erroma'ren legeai buruz Irakasle-izendunak izan bear dabe.

§ 3.—Entzuleok izentatzea Aita Santuari bakarrik dagokio.

§ 4.—"Rota Santuak" epayak emon daroaz edo iru Entzulezko txandaka, edo Entzule guztiok bateraka, auzien baterako Aita Santuak beste era bat agindu ezpalegi.

1599g. araua. § 1.—Rota Santuak epaitu daroaz:
1.º Bigarren mallan edozein Goterkizañaren epaitegitik bertan lelengo mallan epaitu direan eta legezko gora yotez Aita Santuagana ekarritako auziak.

2.º Atzenengo mallan Rota Santuak berberak nai beste edozein epaitegitik bigarren nai goragoko mallan epaitutako auziak, oraindiño baña atzenengo epaya artubakoak.

§ 2.—Epaitegi onek lelengo mallan be epaitzen ditu 1557, § 2g. arauak aitatuten dauzan auziak eta Aita Santuak bere oldez nai auzilariak eskaruta berak epaitzeko artu ta Rota Santuari ezarten dautsazanak; eta auziok, auzia epaitzeko emon dautsan Aita Santuaren idazkiak besterik esan ezik, Rota Santuak epaitu dagikez bigarren eta irugarren mallan be bata bestearen urrengo lan egiten daben bere txanden bidez.

1600g. araua. Auzi nagusi guztiak epaitegi onen eskubiderik kanpoan dagoz.

1601g. araua. Goterkizañaren erabagien aurka eztago Rota Santura yoko eskubiderik, ezta laguntza eske etortterik; erabagi orrei buruzko gora yote guztiak Kardenalen Bazkun gurenak artu ta ebatzi bear dabez.

II Atalkia

Aita Santuaren gorengo epaitegia "Signatura Apostolica" deritxona

1602g. araua. "Signatura Apostolica" dalako Gorengo Auzitegia Erroma'ko Elexa Santu Kardenal batzuk osotuten dabe, euren arteko bat Buru dabela.

1603g. araua. § 1.—"Signatura Apostolica" k bere eskubidez epaitu da-roaz:

1.º Rota Santuko Entzuleen batek ixil-legea ausiari buruzko auzia; baita orretariko Entzuleen batek zerbait legez utsa nai okerra litzakena egiñagaitik ekarritako kalteai buruzko auzia be.

2.º Rota Santuko Entzulearen aurka auzilarien batek aurkeztu dauan salakunzea, bere auziari buruz oker yokatu daualakoan.

3.º Rota Santuaren epaya utsa dalakoaren salakuntzeari buruzkoa.

4.º Atzenengó legezko epaya artutako Rota Santuaren epayaren aurka barriri osoan epaitzeko eskubidea eskatuten dauanari erantzuteko.

5.º Rota Santuaren epayen aurkazko gora yoteak ezkontzai buruzko auzietan, Rota Santuak barriri aztertu ta epaitu nai eztauanean.

6.º Auzi bateri buruz beragoko auzitegien artean sortu leitekezan eztabaidak, 1612, § 2g. arauak aginduten dauan lez.

§ 2.—Artarako emondako eskubidez euren auzia epaitzea Rota Santuari egozteko Aita Santuari egindako eskariak aztertzen ditu.

1604g. araua. § 1.—1603, § 1, 1.ºg. arauan aitauten dan lege-ausizko auziari buruz gora yotezko auzirik balego, epai ori gure gorengo Auzitegi onen egitekoa da.

§ 2.—Susmo-kontuan urlia Entzulea txartxat emoteko ziyorik badago ezpadago Signatura Apostolica'k ebatzen dau; eta ori egin ezkeru, auzia Rota Santura bialtzen dau barriri bere legeen arauaz yardun dagian, susmo-akatsa ezarri dautsen Entzulea bere txandan egon nai ez egon.

§ 3.—Epaya indar-bakotzat salatu danean edo auzia barriri epaitzea eskatuten danean, edo 1603, § 1, 3, 4, 5g. eta beste zeretan, auxe bakarrik epaitu da-roa: Rota Santuaren epaya benetan utsa izan bazan-ezpazan; barriri epaitzeko eskubidea emongo yakon ala ez; gora yoa artu bear dan ala ez; eta epaya benetan utsa izan danean edo auzia barriri epaitzeko eskubidea emon danean, edo gora yotea ontzat artu; auzia atzera Rota Santura bialdu begi epaitzeko, Aita Santuak besterik erabagi ezpalegi.

§ 4.—Eskari-idazkiak azterkatzean Signatura Apostolica'k, bear direan barririak euki ezkeru eta entzun bear direanak entzunda, eskariari bayetz ala ezetz erantzungo erabagiten dau.

1605g. araua. § 1.—Signatura Apostolicaren epayak gauzazkoak dira, naita zergaitik emon dauan esan ez.

§ 2.—Alan be, auzilariak eskatuta nai berari alan deritxolako, arazoak alan eskatu balegi, Signatura Apostolica'k bere erantzuna zergaitik emon dauan esatea erabagi dagike bere-bereak dituan legeen arauz.

IV Atala

Auzitegi ordeztua

1606g. araua. Epaikari ordeztuak 199-207, 209g. arauetan ezarritako aginduak bete bear dabez.

1607g. araua. § 1.—Aita Santuak ordeztutako epaikariak Obispoaren Idazkolako langilleak artu dagikez laguntzat; baña berak gura leukezanak be artu ta erabili dagikez, zeregiña emon dautseneko agiriak besterik erabagita ekarri ezpalegi.

§ 2.—Goterkizañak ordeztutako epaikariak, barriz, Goterkiko Idazkolako langilleak erabilli bear dabez, alangoen baten eta ziyo aztunak direala-ta Obispoak lagun bereziak erabilli daizala erabagi ezpalegi.

III IDAZPURUA

Auzitegietan zaindu bear dan yardunbidea

I Atala

Epaikarien eta Auzitegiko Otsoñen zeregiña

1608g. araua. Epaikari egokiak legez eskatuten dautsan auzilariari ezpégio bere lana ukatu, 1625, § 1g. arauko aginduaren kalte barik.

1609g. araua. § 1.—Epaikariak iñor bere auzitegira deitu ta epaitzeko yezarri orduko, artarako eskubiderik badauko-ezpadauko begiratu begi.

§ 2.—Bardin iñor auzika ekiteko artu baño lenago, begiratu begi auzia iminteko legezko eskubiderik ete daukan ala ez.

§ 3.—Eztago baña oneik zer guztiok auziko idatzietan ezarri-bearrik.

1610g. araua. § 1.—Epaikariaren eskubidearen aurkazko eragozpidea aurkeztu baledi, eragozpede ori begiratu ta berari buruz ebatzea epaikariari berari dagokio.

§ 2.—Zerbaiteko eztaba egoki aurkeztu balegie, eta epaikariak bera egoki dala ebatzi balegi, ebatzi orren aurka gora voterik eztago.

§ 3.—Baña bera eztaba egoki ebatzi balegi, ebatzi ori kaltegarri yakola deritxonak gora yo dagike amar egunen barruan.

1611g. araua. Auziaren edozein unetan auzi artan eskubiderik eztauala konturatuten dan epaikariak, bere eskubiderik-eza agertu bear dau.

1612g. araua. § 1.—Epaikari bi nai batzuen artean sortu baledi zerbaiteko zein dan eskubidedunari buruzko eztabaidea, ezta-baída ori ebatzea urrengo goragoko epaitegiari dagokio.

§ 2.—Eskubidedunari buruzko eztabaidea darabilen epaikariok goragoko auzitegi banaren menpekoak balira, eztabaidea ebaztea auzia lenago aurkeztu eutsen epaikariaren goragoko auzitegiari dagokio; goragoko auzitegirik ezpadaue, Aita Santuaren Ordezkoak edo ostantxean Aita Santuaren gorengo auzitegiak ebatzi begi eztabaidea.

1613g. araua. § 1.—Lerro zuzenean edozein mallako, edo lerro zearrekoan lenengo ta bigarren mallako senidetasun nai aidentasunagaitik, nai aita-ordezko izanagaitik, edo beti batera bizi izanagaitik, edo irabazi nai galdu egiteko zoriagaitik, auzia auzilari bataren alde nai aurka epaitzeko ziyoa daukanak, edo auzi berberean lenago auzilari baten aldezlari nai ordezko izandako epaikariak, ezpegi orretariko auzirik berak epaitzeko artu.

§ 2.—Orretariko zerbait yazoten yakenean zuzenaren eta lokarriaren aldezlariak be eztabe nastu bear euren zeregiña betetan.

1614g. araua. § 1.—Epaikaria eskubidea daukana izan arren, auzilari batak, oker epaituko dautsalakoaren bildurrezko susmoagaitik, eztauala bere auzian epaikari izan daitenik gura esan balegi, susmo eragozpide ori aurkeztu balegi edo epaikari ordeztu bakarraren aurka, edo epaikari ordeztuaren batzarraren aurka edo epaikari ordeztuaren geyenen aurka, ordeztu ebazanak ebatzi bear dau; susmo ori epaikari ordeztu bat nai geiagoren aurka balitz, naita epaikari-batzarraren burua izan, susmo bako beste epaikari ordeztuak ebatzi bear dabe; Rota Santuko Entzulearen aurkazkoa barriz Signatura Apostolica'k ebatzi bear dau 1603, § 1g. arauak diñoan lez.

§ 2.—Goterkizaña bera balitz epaikari eta bere aurka aurkeztu baledi susmo-eragozpidea, edo utzi begi auzi artan epaikari egitea, edo susmo-ebazkizun ori erabagitea emon begio bere goragoko mallako epaikariari.

§ 3.—Susmo-eragozpidea zuzenaren nai lokarri aldezlariaren aurka nai auzitegiko lagunaren baten aurka aurkeztu baledi, batzar-epaitegiko maipuruak, eta bakarria danean epaikariak berak ebatzi begi.

1615g. araua. § 1.—Epaikari bakarria edo batzar-epaitegiko batobat edo epaikari guztiak susmo txarrekoak agertu balediz, epaikariok, bai, aldatu bear dira, ez baña auzitegi-mallea.

§ 2.—Susmodun agertutako epaikarien ordez susmo-bako beste batzuk izentatzea Goterkizañari dagokio.

§ 3.—Goterkizaña bera balitz susmo-txarreko agertu dana, bere goragoko mallako epaikariak beste ainbeste egin begi.

1617g. araua. Eskubiderik-ezari ta susmo-txarrari buruzko eragozpidetak aurkeztuteko epeari buruz, 1628g. arauaren agindua bete bedi.

1618g. araua. Bakotxari baño eztautsen arazoetan ezin dagikeo epaikariak bere lanari ekin auzilariak eskatu barik; lege-ausie-

tan, barriz, eta Elexearen agiriko onari ta arimen osasunari buruzkoetan, iñork eskatu barik be bere zeregiñak beartuta ekin dagikeo.

1619g. araua. § 1.—Auzia yarri dauanak bere eskubidearen alde aurkeztu legikezan egizpideak aurkeztu ezpalegiz, edo auzia yarri dautsanak ekarri ez bear leukezan erantzunak arerioaren esanai, epaikariak ezpegi ez bataren ez bestearen utsa bete.

§ 2.—Orraitio, Elexearen agiriko onak edo arimen osasunak eskatu balegie, uts ori bete dagike eta egin be egin bear dau.

1620g. araua. Epaikari ta auzitegi guztiak begiez alegiñak auzi guztiak zuzenaren kalte barik len baño len amaitu daitezcan; ta lenengo mallako auzitegian urte bi baño geyago luzatu eztaitezcan; eta bigarren mallako auzitegian urtea bete baño geiago ez.

1621g. araua. § 1.—Epai-eskubidea berberak darabilen Obispoa alde, epaitegia osotuten daben eta eurari lagun egiten dautsen guztiak zin egin bear dabe euren zeregiña bear dan lez zintzo beteko dabela Goterkizañaren edo autu dauzan epaikariaren aurrean, edo bietarikoaren batek ordeztuaren aurrean, eta ori egin bear dabe zeregiña emoten dautsenean, luzaro ekiteko emon badautse; auziari ekiten asi orduko, auzi bakarria epaitzeko izentau balediz.

§ 2.—Aita Santuak izentautako epaikariak edo eleiz azkatutako epaikariak be ziñ au epaitegia lelengoz yarten danean egin bear dabe, egindako ziñaren ziñaldaritzea idatziz yarriko dauan auzitegi berbereko ziñaldaria bertan dala.

1622g. araua. § 1.—Bai epaikariak eta auzitegiko otseniak, bai auzilariak, lekukoak, yakitunak, zin egiten daben bakotxean beti Jaunaren izena aitatuta egin bear dabe ta yaupariak bularra yota, ganeko kistarrak Barri-Onaren idatzia ikuturik.

§ 3.—Ziñ au epaikariak ontzat emondako itzez epaikariaren edo berak ordeztuaren aurrean egin bear da, zin egitaldian bertan izan daben auzilari biak edo bata beintzat bertan dala.

§ 2.—Ziñ egiteko artzen dauzan auzilari, lekuko nai yakitunai geyen baten epaikariak gogoratu begioez bai egiten doazanen santutasuna ta ziña austen dabenak egiten daben gaiztakeri larri be larria, baita ziñ eginda gero auzian guzurra diñoenak leporatuten dabezan zigorrak.

1623g. araua. § 1.—Lege-ausizko auzian beti, eztabaidazko auzian epaibideko eginen bat agertzetik auzilariantzat kaltearen bildurra legokenean, bai epaikariak bai epaikari-laguntzalleak ixila zoli zaindu bear dabe.

§ 2.—Epaya emon-aurretik auzitegian izaten dan eztabaidea ixil-be-ixilik yagon bear dabe beti; bai bertan agertutako autarki ta eritxiak be.

§ 3.—Ganera auziaren nai egizpideen gaiagaitik auzian egiñak eta egizpi-

deak argitaratzeak inoren izen onari kalte ekarteko arrizkurik balego, edo asarreai bidea emoteko, edo ikara txarra eragiteko edo beste onetariko kalteen bat sortzeko añakoa balitz, epaikariak, lekukoak, yakitunak, auzilariak eta euron aldezlari nai ordelariak ixila yagoteko zin-bidez be beartu dagikez.

1624g. araua. Epaikariak eta auzitegiko lagun guztiak, eskuartean darabilen auzia dala-ta, edozertariko eskupekorik artzea galazota dauke.

1625g. araua. § 1.—Eskubidea ezpai barik eta agirian eukita epaitu nai eztaun epaikariak edo suster barik euren buruak eskubideduntzat emoten dabezanak, edo erruzko nagikeriz nai iruzurrez inoren kalteko zerbait legez utsa litzakena nai okerra egiten daben, edo auzilariak beste kalteen bat egiten dautsen epaikariak, kalteak kitutu-bearra dauke ta Goterki-zafiak, edo, kaltegiña Obispoa bera balitz, Aita Santuak, auzilariak eskatuta nai bere zeregiñak beartuta, erruaren neurrizko zigorkadaz yo dagikez, eta baita zeregiña bera kenduagaz be.

§ 2.—Ixil-legea ausi nai ixileko agiriak inori erakusten ausartzen direan epaikariak diruzko ta ostantzeko zigor egokiz erruaren neurrian yo bediz, baita epaikaritzea bera kenduta, zigor gogoragoak aginduten dabezan lege berezien kalte barik.

§ 3.—Zigor bardiñak ezarri bekiez erru bardiña daben auzitegiko beste lagun eta otsenai be; oneik guztiok epaikariak berak zigorkatu dagikez.

1626g. araua. Epaikariak aurretik ikusi balegi, epaia aurkazkoa baltzakio, auzilariak eztauala eleiz-auzitegiko epaya gauzazkotzat artuko; eta, beraz, auzitegira deituaren eskubideari etxakola naikoa yaramonik egingo, deituak berak eskatuta nai bere zeregiñak beartuta, eleiz-auzitegiaren epaya betetako baibena emoten beartu dagike auzilaria.

II Atala

Auziak zein lenago zein geroago epaitu?

1627g. araua. Epaikari ta auzitegiak auziak auzitegira ekarri dabezan txandan epaitu bear dabez, batak edo besteak bizkorrago epaitu-bearra izan ezpalegi; eta ori epaikariak nai epaitegiak beren-beregiko erabagi baten bidez ebatzi bear dabe.

1628g. araua. § 1.—Auziaren epaya atzeratuko dauan eragozpidea, lagunai ta epaikariari buruzkoa batez be, auziari erantzunda gero oartu ezpaledi edo auzilariak eragozpedeok ordurarte ez-ekiezala ziñ bidez esan, auziari erantzun baño lenago aurkeztu ta ebatzi bear dira.

§ 2.—Orraitio, urlia auzia epaitzeko epaikaria eztaala ezelan be gauza nai-noiz aurkeztu daiteke.

§ 3.—Elexatik arrotuarenari buruzko eragozpidea be edozein auziaren egotaldi ta mallan aukeztu daiteke, auzia amaitzeko epaya emon baño lenago baldin bada; ganera, arrotzu ori beragaz artu-emonik izatea galazota daukana izan baledi, edo euren aurkazko gaiztotzat emon nai agertuten dauzan epaya artuak balira, olangoakandik legearen aginduz beti alde egin bear da.

1629g. araua. § 1.—Auzi amaituarenak deritxoan eragozpedeak, esate-rako: auzia legez epaituta dagoala, edo auzilariok eurok euren artean auzi ori bakez ebatzi dabela ta abar, auziari erantzun baño lenago aurkeztu ta ebatzi bear dira; geroago aurkeztuten dauzana zapuztu ezta egin bear, baña eralgitako diruak ordindu-bearra dauko, eragozpidea aurkeztutea ez ebal maltzurkeriz itxi erakutsi ezpalegi.

§ 2.—Auzilariaren eskubideari atzena emoten dautsen aldezbideak auziari erantzuna emonda gero aurkeztu bear dira eta euren garayan, eta eurai buruz, legeak aginduten dauan lez, auzitxo bat eginda ebatzi bear dira.

1630g. araua. § 1.—Auziari aurkazko auziagaz erantzun nai izan ezkerero, aurkazko auzi ori ondoan auziari erantzunda bertatik aurkeztuten da; baña atzeneko epaya emon aurretik izatekotan, auziaren edozein garaitan aukeztu daiteke.

§ 2.—Epaitegiak, baña, auzi biak erabatera eta malla bardiñean aztertzen ditu; banan-banan aztertzea bearrekoa nai epaikariak alan egitea egokiago izango dala erabagi ezik.

1631g. araua. Auzi-eralgiai erantzuteko baitura emon-bearra edo bere eskubidearen lana urrurik egin dakiola eskatutea ta antzekoak, auziari erantzun orduko aurkeztu ta ebatzi bear dira.

1632g. araua. Auzi nagusia aurkeztuta gero, epai-aurretiko ebazkizunena sortu baledi, au berari emondako ebatzitik lenago aurkeztutako auziaren epaia zelango izango dan erakutsiko leukena, epaikariak au, bigarren aurkeztu au, begiratu ta epaitu bear dau lenengo.

1633g. araua. § 1.—Auzi nausitik bidezko ebazkizunen batzuk sortu balediz, eurak erabagi ezkerero besteak zelan erabagiteko bidea egiten dabenak, lenen aztertu ta epaitu bediz.

§ 2.—Izatezko lokarrien bategaz lotuta eztagozan auziak, auzilari batak lenago aurkeztuak, lenago epaitu bediz.

§ 2.—Zerbait lapurtu dautsela-ta epaikariaren bitartekotasunaren eske datorrena, inor baño lenago zaindu bear dau epaikariak.

III Atala

Auzika ekiteko eskubidea zelan luzetu ta zelan amaitu

1634g. araua. § 1.—Eskubidea auzitegian aldeztu al izateko epeari legegak ezarten dautsan azken-epea ezin leiteke aurrerago eroan.

§ 2.—Epaitegiko auziari ezarri yakon epea, bete baño lenago, bidezko ziyoz luzatu dagike epaikariak, auzilariak entzunda gero edo bai eurok eskatuta be.

§ 3.—Begiratu begi baño epaikariak auzia lar luzatu eztaiten.

1635g. araua. Auziari ekiteko epaitegiak izentautako eguna yai-eguna balitz, eta epaikariaren erabagian alan be epaitegiak auziak aztertzeari ekingo dautsala oartu ezpalegi, epea urrengo aste-egunera luzatu dala uste izan bear da.

IV Atala

Auziak non eta noiz epaitu?

1636g. araua. Obispoak azkatua eztan bere goterkiko edozein tokitan epaitegia yarteko eskubidea euki arren, alan be bere etxeko atal baten izentau begi geyen bateko auzitegiaren tokia; bertan Geure Jaun Kurutzekoaren irudia bego buru ta Barri-Onaren idaztia alboan.

1637g. araua. Bere goterkitik indarrez egotzitako edo bertan bere lanari ekiten galazota daukan epaikariak badagike bere yaurbidea bere goterkitik kanpoan be erabilli ta epayak emon, alan be bertako goterkizaña yakitun eginda.

1638g. araua. § 1.—Goterki bakotxean Goterkizañiak idatzizko agindu baten bidez erri osoari iragarri begio zeintzuk egun eta orduetan, toki ta aldiak kontuan eukita, guztientzat erazkoenak izango direanetan, auzitegira zuzen-eske yo al izango daben.

§ 2.—Bidezko ziyoz, baño, eta izentautako epearen begira arrisku barik ezin egon direanean, bakotxaren nai erriaren eskubideak aldeztuteko epaikariagana edonoiz yoteko eskubidea dauke kistarrak.

1639g. araua. § 1.—Legez agindutako yai-egunak eta Aste Gureneko atzenengo iru egunak atsedeen-egunak izan bediz, eta euron galazota dago auzitegira etorteko deyak iragarri, auzitegira datorzanak artu, auzilari ta lekukoak aztertu beste egizpideak egin, erabagi ta epayak emon, iragarri ta bete-erazotea, egin-bearrak, kistar-alkar-maitasunak edo erriaren onak ostantxekorik eskatu ezpalegie.

§ 2.—Yazoera bakotxean yai-egun onreitan egin-bearrrik dagoan ala ez, eta egitekotan zer egin bear dan erabagi ta iragarrea, epaikariari dagokio.

V Atala

Auzia eztabaidatzera nortzuk artu eta agiriak zelan egin eta zaindu?

1640g. araua. § 1.—Auzia epaitegian aztertzen dan artean, epaitegi-koak eztereanak kanpora atera bediz eta ezpediz bertan egoten itxi, epaikizuna zuzen ikusteko bearreko direala epaikariak uste dauz-nak baño.

§ 2.—Auzia ebaztorduan bertan dagozanak epaitegiari zor dautsen lotsa ta menpetasunaren aurka zer andiko zerbait egin balegie, eta epaitegiak auziaren azterketeari daragoyola lotsa-galtzea yazo beledi, epaikariak antxe bertan eta epaitegiaren aurrean uts egin dabenok bear dan bidera ekarteko, eskubidea dauko zigor osagarrien eta ostantxekoen bidez be yoteko; aldezlari ta ordezlariak, gagera, eleiz-auzitegiaren euren lanari ekiteko eskubidea kendu arteraño zigorkatu dagikez.

1641g. araua. Epai bideko eginen batera eldu baledi tokiko mintzoerea ezta kiena, eta epaikari ta auzilariak norbait orren minzoa uler ezpalegie, epaikariak izentautako adierazolea artu bedi, zin egiña ta bere aurka auzilariak bidezko eragozpenik egin eztautzena.

1642g. araua. § 1.—Auzitegian egiñak, bai auziaren mamiari buruzkoak, esaterako: epayak eta edozertariko egizpideak; bai epai bideari buruzkoak, esaterako: auzitegirako deyak, iragarkerak eta abar, idatziz ezarrita izan bear dabe.

§ 2.—Ganorazko ziyok besterik aolkatu ezik, al dala, lateraz idatzi bediz; baño lekukoaren itaun-erantzunak eta beste antzekoak erriko mintzoan egin bediz.

1643g. araua. § 1.—Epaibideko orri bakotxak bere zenbakia izan begi, eta idazkariaren izena auzitegiaren ikurratzagaz be orri bakotxean ezarri bedi.

§ 2.—Amaituteko edo etentzeko edo beste batzaldi baterako itxitako egin dan bakotxari idazkariaren izena ezarri bekio, baita epaikari ta maipuruarena.

§ 3.—Auzi-agirietan auzilariak nai lekukoak izenpetu bear dabenean, auzilari nai lekukoak ori ezin egin edo gura ezpalegie, agirietan bertan oartu bedi; ta erabatera epaikari ta idazkariak agiria itzez-itzez auzilari nai lekukoari irakurri yakola ta auzilari nai lekukoak ez ebalala al edo gura izan.

1644g. araua. § 1.—Gora yotekoan, agirien iyekiak 1642, 1643g. arauak diñoen lez idatzita eta azaotxoan lotuta, agiri ta agerkai guztien billabidea eta euron birridatzi zintzo ta osoa bidali bediz idazkari edo zadorlariaren ziñal-benagaz batera gora yotako epaitegira; iyekiak neke andi barik birridatzi ezin al badira, galdu eztaitez an ardura andiagaz yatorrizko agiriak eurak bidali bediz.

§ 2.—Erriko mintzoa ezautzen eztan tokira bidali bear badira, agiriok late-raztu bediz, itzulia zindoa izan daiten ardurea artuta.

§ 3.—Agiriok bear dan lez eginda ezpalegoz, errua izan dabenak okerra zuzentzeko lana euren lepotik ordainduta, barriro idatzita bidali-bearra dauke.

1645g. araua. § 1.—Auzia amaitu ezkerko agiriak auzilari atzera emon bear yakez, lege-ausizkoetan Elxearen onak alan eskaruten daualako bat edo beste batzuk auzitegian bertan zaintzea epaikariak erabagi ezpalegi.

§ 2.—Auzitegian gelditzen direan agiri guztiak Obispoaren Idazkolako agiritegian, edo agirian edo ixilean ezarri bediz bakotxaren izakereak aginduten dauan lez.

IV IDAZPURUA

Auzilariak

I Atala

Auzilaria ta auzitua

1646g. araua. Eleiz-legeak galazoten eypadautse, edonor izan daiteke auzilari; legeaz auzitegira deituak, barriz, erantzun-bearra dauko.

1647g. araua. Auzilariak nai auzituak aldezlariak eta ordezkariak izentau arren, legeak nai epaikariak agindu ezker, eurok auzitegira yoan-bearra dauke.

1648g. araua. § 1.—Txiki ta ezaguera bakoan ordezkariak izan yarra eta auziari erantzun, euren guraso edo zafiak edo arduradunak egin bear dabe.

§ 2.—Orretarikoen eskubideak gurasoen nai zafiak nai arduradunenakaz alkaryoka balegoz, edo guraso nai zafiak nai arduradunak eurokandik urrin be urrin bizi direalako ezina edo oso neketsua balitzake euron ardurapean dagozanon auziari bear dan lez erantzutea, epaikariak emongo dautsen arduradunaren bitartez auzitegiratu bediz.

§ 3.—Arimeari buruzko auzietan eta euroi erantsitako auzietan txikiak giza-ezagueradun badira, gurasoen eta txiki-zafiak baimen barik auzia yarra eta auziari erantzun dagikeo; eta benetan amalu urteak beteak balira, bai eurak inor barik be; ostantxean Goterkizafiak emongo dautsen txiki-zafiaren bitartez; edo bai Goterkizafiak emondako eskubideagaz eurak izentautako ordezkoren bitartez be.

1649g. araua. 100, § 3g. arauan aitatuken izenean euren buru egiten dauanak auzitegian ekiteko eskubidea dauko, 1655g. arauko aginduaren kalte barik; euren eskubideak euren buru egiten dauanarenak ondo alkartzen ezireanean, Goterkizafiak izentauko dautsen ordezkariak.

1650g. araua. Euren ondasunak zaintzea galazota daukenak eta buru-lokatxoak auzitegian ekin dagike, baña bakarrik ezarten dautsezan lege-ausiai buruz erantzuteko edo epaikariak deituta; ganeko auzietan, euren zafiak bitartez.

1651g. araua. § 1.—Latterri-nagusiak norbaiteri emondako yaurlea eleiz-epaikariak ontzat emoteko, norbait orren Goterkizafiaren baimena be bear da.

§ 2.—Goterkizafiak eleiz-auzitegirako beste yaurle bat be izentau dagike, zer guztiak begiratuta alan erabagitea ondo baleritxo.

1652g. araua. Jaunzaleak euren Nagusi egokiaren baimen barik eztera inor auzitegian ekiteko, urrengoai buruzko auzietan baño:

1.º Jaunzaletu zanean bereak egin ebazan eskubideak Jaunzaletzearen aurka aldeztuteko.

2.º Bere Nagusia bera salatu bear balegi.

3.º Etxetik kanpo legeaz bizi dala, bere eskubideen alde urten-bear estuan balego.

1653g. araua. § 1.—Goterkizafiak Obispo-elezearen nai Obispo-mayaren-izenean badagike auzia imini ta aldeztu; baña ori legeaz egiteko Obispo-elexako Batzarra edo ondasun-zafiak Bazkuna entzun bear dau, auzia 1532, §§ 2, 3g. arauaren aginduz euren bayetza edo onua bear dauan besteko dirutzeari buruzkoa balitz.

§ 2.—Bizibidedun guztiak bizibidearen izenean auzia nai imini nai aldeztu dagike; eztabe baña egin bear 1526g. arauak aginduten dauan lez baño.

§ 3.—Edozein Bazkunaren edo Batzarraren Buru eta Nagusiak eztera gauza Bazkun-Batzarraren izenean auzitegian ekiteko euren legeko bayetza barik.

§ 4.—Arau onen § 1-3 ataltxoetan aitatuken aurka bear eben baimen edo eritxi barik auzitegian yardun balebe, legeko norbaitzuok eskubidea dauke ekarri dautsezan kalteak osatuten beartuteko.

§ 5.—Legezko norbait bere ondasunak nork zaindu barik balego, edo daukana alperra balitz, Goterkizafiak, nai bera nai inoren bidez auzitegiratu daiteke bere menpeko legeko norbaitzuen izenean.

§ 6.—Jaunzale-Nagusiak ezin leitekez euren alkargoen izenean auzitegiratu euren legeak erabagiten daben lez baño.

1654g. araua. § 1.—Elezeak zigorrez arrotzui, eurokaz edozein artu-emon eukiterik galazota daukenitarikoa balitz, edo ostantxekoai, arrotzutzat agertu nai emoten dauzan epaiaren aurka auzika eurak ekiten etxake izten, arrotzu ebazan epayaren zuzenaren nai legekotatunaren aurka ekiteko baño; euren arimearen onari buruzko auzietan ordezkoren bitartez; beste edozeri buruz eztauke eskubiderik inori auzirik iminteko.

§ 2.—Ostantxeko arrotzuak badagike geyen baten auzika ekin.

II Atala

Auzi-ordezkolari ta aldezlariak

1655g. araua. § 1.—Lege-ausizko auzietan salatuak beti euki bear dau nork aldeztu, edo berak izentaua edo epaikariak emona.

§ 2.—Eztabaidazko auzietan be txikiak buruzkoa nai guztien onari buruzkoa danean, epaikariak nork aldeztu eztaukan auzilariari emon begio; baita, alan baderitxo aldezkaria ekarri dauanari be beste bat ezarri.

§ 3.—Ganerakoetan, alderdiak bere aukerako aldezlaria ta ordezlaria autu dagikez, baña bera be izan daiteke salatari ta erantzule; epaikariari ordezlariak edo aldezlariak yardutea bearrezko ezpalerixo.

§ 4.—Baña Obispoak, iñoiz auzilari bada, beste norbait yarriko dau bere ordezlari egiteko.

1656g. araua. § 1.—Bakotxak bere ordezkari bakarra izentau dagike, eta onek eztagike beste iñor bere ordezeko egin, artarako beren-begiko eskubidea emon ezpadautso.

§ 2.—Ganorazko ziyoagaitik bat baño geyago izentau balegiz, euretako bat edo besteak aurea artzeko eskubideagaz egin bedi.

§ 3.—Aldezlariak baña bat baño geyago erabatera izentau daitekez.

§ 4.—Zeregin biak: ordezlariarena ta aldezlariarena auzi berberean eta auzilari berberaren alde batek bakarrik bete dagikez.

1657g. araua. § 1.—Ordezlariak eta aldezlariak katolikoak izan bear dabe, adifez nausiak, entzute onekoak; katoliko eztanik ezta artu bear besterik eziñean baño.

§ 2.—Aldezlariak ganera Irakasle-izenduna edo bein-beinean gitxienez eleiz-legeai buruz benetan yakitun izan bear dau.

§ 3.—Euren legeetan besterik erabagita ezpalego, Jaunzalea artarako artu leiteke auziak bere Jaunzaletzea ikututen dauanean bakarrik eta bere legezko Nagusiaren baimenagaz.

1658g. araua. § 1.—Goterkizañak aurretik ontzat emon bear barik, auzilariak bere ordelari edonor autu ta izentau dagike, arau onen aurrekoaren neurrian gai balitz.

§ 2.—Aldezlariak, barriz, euren zeregiña betetan asi orduko Goterkizañak ontzat emon-bearra dauke; ontzat emote ori nai auzi bakarrerako nai edozeñerakoa izan daiteke.

§ 3.—Aita Santuaren Ordezekoaren aurrean eztabaidatzen dan auzian, Ordezeko orreri dagokio auzilariak aldezlariatzat erabilli gura dauana ontzat emotea.

§ 4.—1579g. arauko 1, 3k diñoan lez, jaunzaleen epaitegian ebazten direan auzietarako aldezlaria ta ordezlaria jaunzaletza berekoen artetik autu bear dira eta aldezlana artu eurretik auzian epaikari danak ontzat artu bear ditu; baña arau bereko 3gn atalaren arauz tokiko Goterkizañaren epaitegian ikusi bear diran auziean, jaunzaletzatik kanpoko be artu daiteke.

1659g. araua. § 1.—Epaikariak ezpegi iñor ordezlariatzat artu auzian ekiteko idatzizko agindu berezia, besterik ezean auzirako deyaren azpian bertan ezarria, auzitegian aurkeztu arte, ordezlari izentau dauanak berak izenpetua eta non eta zein egunetan, illabetean eta urtean eginda dagoan diñoana.

§ 2.—Aginduten dauanak idazten ezpaleki, idatzi berberak esan bear dau ori, eta parroki-zañak nai Obispoaren Idazkolako Ziñaldariak edo lekuko bik, aginduten dauanaren orde, izenpetu begie.

1660g. araua. Ordelaritzarako agindua auziaren epaiketako agirien artean zaindu bear da.

1661g. araua. Aldezlariak auziaren aldezko lana egiteko zeregiña artu orduko, zeregin ori ezarten dautsan auzilariaren edo epaikariaren idatzizko agiria euki bear dau, ordezlariaren aginduaren antzean idatzitakoa eta auziaren agirien artean zaintzekoa.

1662g. araua. Artarako eskubide beren-beregikorik artu ezik, ordezlariak ez dagike eskubidea auzibidez aldezteari uko egin; ez auzitegian sartuta dagoan auziari ekitea itxi; ez auzia epaitegian epaitzeko bear direan egitekoai uko egin; ez arerioagaz bakezko ituna eginda auzia konpondu; ez arerioagaz itundu; ezta auziaren ebatzia norbaiten eskuetan ezarri; ez auzia ebatzi auzilari bien ziñitza bidez; itz baten, ezin legike egin eskubide berezi barik legeak eskubide berezia eskatzen dauanik (1).

1663g. araua. Ganorazko ziyorik eukitekotan, epaikariak bai ordezlaria bai aldezlaria auzitegitik egotzi dagikez, bai berak iñork eskatu barik bai auzilariak eskatuta; baña artarako beren-beregiko erabagia artuta.

1664g. araua. § 1.—Aldezlaria ta ordezlaria izentau ebazanak kendu be badagikez egin daben lana ordainduta; baña barrizkuntza orrek legezko ondorenik izateko, eurai iragarri bear yake ta bai auzilari arerioari be, auziak erantzuna izan baleu.

§ 2.—Auziari atzenengo epaya emon ezkerro, gora yoteko eskubidea ta egin-bearra, agintzalleak galazo ezik, ordezlariari dagokio.

1665g. araua. § 1.—Biak dauke galazota auzia eroste, nai itunbenik egitea, larregizko lansaririk izateko, nai auzigai dan ondasuntzea eurentzat izan daiten.

1666g. araua. Eskupekoakaitik edo gero emoteko agindu dautsezan irabaziakaitik euren zeregiña saltzen daben aldezlari ta ordezlaria, zeregiñetik yaurtigi ta kalteak kitutu-beartuaz ganera, diruzko ostantxe-ko zigorrakaz be yo bediz.

(1) Barriketa lar darabil emen gure legeginañak. Auzitegian auzia aldeztuteko agindua artu dauanak agindu ori bete baño besterik ezin dauana sentzunak esaten dauana da.—Larrakoetxea.

V IDAZPURUA

Auzibideak eta aldezbideak

1667g. araua. Besterik beren-beregi oartu ezik, edozein eskubide zainduta dago ez bakarrik bere auzibideagaz, baña bai bere igespideagaz be, eta au bere-berea dau ta berez betiko.

1668g. araua. § 1.—Zerbait norberena dala epaitu dagiela eskatzeko, nai bere eskubidea auzi bidez eskuratzeko legeak autorizen dautsan eskubideagaz auzia yarri dauanak, *eskeko* deritxon auzibideagaz ekiten dautso auziari.

§ 2.—Gauzaren bat nai eskubideen bat yagotea eskatu balegi, bere auzibideari *yagonezkoa* edo *eukitezkoa* deritxo.

1669g. araua. § 1.—Auzilariak alkarregaz konpondu eziñik ez izatekotan, auzibide bat baño geyagogaz nai gauza berberari nai banai buruzkoak litzakezan auzibideakaz auzikatu dagike erruduna, auzitegiaren epaibidezkoak balira.

§ 2.—Auzituari, barriz, etxako galazoten auzilariaren aurka ekiteko alkarregaz konpondu eziñeko igespideak aurkeztutea be.

1670g. araua. § 1.—Auzilariak eskari bakarrean *eukitezko* ta *eskeko*-auzibideak egin dagikez, auzituak il-ondokoari buruzko igespidea aurkazu ezpalegio.

§ 2.—Bardin, auzibide eskekoagaz epaitegiratutako auzituari zillegi yako auzilariari *eukitezko* auzibideagaz erantzutea, daukan ori auzilariari ostua nai kendua ez izatekotan.

1671g. araua. § 1.—Era berean, auzilariak eskubidea dauko, auziaren azterketa amaitu artean *eskeko* deritxon auzibidetik euki-*auzibidera* yoteko, gauzearen yabe egin edo lengo yabetea barrero izateko.

§ 2.—Bidezko ziyorik baleu oraindiño geyago be bai; zillegi yako bide bate-tik bestera egite ori auziaren azterketea amaituta gero be, atzenengo auziaren epayaren aurretik izatekotan.

§ 3.—Auzilari biok bakotzak bere eskubidearen alde aurkeztuak begiratuta, epaikariari dagokio epaikizun biak epai bakarragaz ebaztea, nai lengo batari erantzun eta gero besteari, guztien eskubideak bizkorrago ta obeto yagoteko berari obeto deritxon lez.

I Atala

Zerak baitu ta eskubideak lotu

1672g. araua. § 1.—Inork daukan zerbaiteri buruz norbaitek eskubidea daukala erakutsi balegi ta kaltea etorri leitekiola zerbait ori yagoteko gaur daukanari kendu ezik, eskubidea dauko epaikariagandik lor-

tuteko zerbait ori bein-beinean daukanari kendu ta yagolepean yarri daitela eskatuteko.

§ 2.—Orretarikoetan norbaiteri bere eskubideen bat erabiltea galazotea lortu dagike epaikariagandik.

§ 3.—Erriaren onak alan eskatzen dauala deritxonean, zera baitzea eta eskubidea erabilten galazotea auzikariak eskatu barik be epaikariak erabagi dagike, batez be zuzen-aldezlariak nai lokarri-aldezlariak eskatu balegi.

1673g. araua. § 1.—Norbaiteri zor dautsena benetan ordaindu dakion be epaikariak erabagi dagike zerbait baitutea, artzeko-dunaren eskubidea argi agiri ta 1923, § 1g. arauan agindua bete ezker.

§ 2.—Zerak baitute ori zabaldu daiteke zaintzeko edo beste edozelan inoren menpean dagozan zordunaren ondasunetara be.

1674g. araua. Zerak baitutea ta eskubideak erabiltea galazotea ezin daitetez erabagi, bildur emoten dauan kalte ori beste era batera osatu al baledi ta osatuteko agindua zegaz bete emon ezker.

1675g. araua. § 1.—Baitutako gauzea zaintzeko artarako egokia dan norbait, auzilariak aurkeztuta, epaikariak izentau begi, lateraz *sequester* (yagolea) esaten dana; auzilariok alkarregaz aitu ezin al badi-ra, epaikariak berak izentau begi.

§ 2.—Baitutako gauzea yagoten, begiratzen eta zaintzen norberena balitz besteko ardurea artu begi, eta gero epaikariak esango dautsanean, emon bear dau baitualdian izango leukezan irabazi guztiakaz.

§ 3.—Eskatu balegi, zeraren yagoleari epaikariak lan-sari egokia izentau begio.

II Atala

Lan barritiko ta egindako kaltetiko auzibideak

1676g. araua. § 1.—Lan barrien batetik bere zerbaiteri kalterik etorri ete leitekeon bildur danak eskubidea dauko epaikariari salatuta lana gelditu-erazoteko, epaikariak alde bien eskubideak zeintzuk direan erabagi artean.

§ 2.—Eragotzia iragarri dautsenak lana eten egin bear dau; baña auzia galteketan zer guztiak len egozan lez yarriko dauzala ganoraz agindu balegi, lanari ekiten yarraitzea eskatu dagikeo epaikariari.

§ 3.—Lan barria salatuten dauanari bere eskubidea erakusteko bi illa-bete emon begioz; epe au bidezko ta bearrezko ziyoz, beste alderdia entzunda, epaikariak nai luzatu nai laburtu dagike.

1677g. araua. Lan zarra asko barriztu baledi, 1676g. arauan lan barriari ezarri yakon legea bera ezarri bekio.

1678g. araua. Yausteke dagoan iñoren etxetik, edo zugatz nai beste zerbaitetik bere gauzen bateri kalte larriren bat etorriko ete yakon bildur danak eskubidea dauko eginbako kaltearen auzia iminteko arriskua kendu daiten edo kalteari etortea galazo, edo etorri baledi ordaintzeko baiturea emon-erazoteko.

III Atala

Egin utsakaitiko auzibideak

1679g. araua. Egiña nai itunbena berez utsa balitz, berari buruz zerbaitetik zer ikusia daukanak epaikariari uts ori epai bidez agertu dagiala eskatuteko eskubidea dauko.

1680g. araua. § 1.—Egiña berez utsa, bere izakeraz dabenetarikoen baten utsa dauanean, edo egikeran eleiz-legeak egiña gauzazko izateko aginduten dauazan zerak bete eztiarenean bakarrik da.

§ 2.—Egin baten utsak ezta kar egin uts orren aurretik nai atzetik egin direanen utsik, beragandik dingilizka dagozanak ezpadira.

1681g. araua. Egin utsa egiten dauana, uts orrek ekarritako kalteak ordaintzen beartuta dago.

1682g. araua. Epaikariak ezin dagike egiñik utsa dalakotzat emon, guztiai ardura dautsen zerbaiteri buruzkoa ezpalitz, edo txi-roai eta txikiak edo legez onein bardin direanai buruzkoa ezpalitz.

1683g. araua. Aita Santuaren artarako agindua barik Aren azpiko epaikarik eztauko eskubiderik, egin nai agirien bateri Aita Santuak ezarritako sendatzeari buruz azterka ekiteko.

IV Atala

Egiñak austeko eske yoteko auzibideak, eta auzi-gaya beñolako egokerara itzulitea eskatuteko auzibidea

1684g. araua. § 1.—Norbaitek oker sartutako bildur larriz edo iruzurrez berez utsa eztan eginen nai itunbenen bat egin balegi, bildurra nai iruzurra egiztau ezker, egiña nai itunbena austea eskatu dagike *auskarri* deritxon auzibidez; urte biko epean auzibide berbera dauko egiunetik kalte andia, au da, gauzearen saneurriaren erdia baño andiagoa izan dauanak.

1685g. araua. Auzibide au erabili daiteke:
1.º Bildurra nai iruzurra sartu ebanaren aurka, naita egin ebana ez bere irabaziagatik egin, iñorenagaitik baño.

2.º Bildurrez edo iruzurrez kendutako zera uste txarrean nai onean dau-

kanaren aurka, bildurra nai iruzurra sartu eutsanaganaño eldu arte, edonoren aurka atzera emon-erazoteko eskubidearen kalte barik.

1686g. araua. Bildurra nai iruzurra sartu eutsanak itunbena betetako es-tutu balegi, bildurtua edo iruzurtua izan zanari itundua ez betetako bildurraren edo iruzurraren auzibidea dagokio.

1687g. araua. § 1.—Kalte andiren bat artutako txikiak ta legeak txiki-ztat emoten dauzanak eta euron ondorengoak, itunben gauzazko haña auskorretik etorritako kalteen aurka, beste auzibideez ganera auzibidea dauke bildurrez nai iruzurrez kendu eutsena atzera emon-erazoteko.

§ 2.—Auzibide auskorrik edo ostantxekorik eztauken ausiai be badagokie auzi bide ori, bidezko ziyoa badabela ta etorri yaken kaltearen errurik eurak eztaukela erakutsi baldin balegie.

1688g. araua. § 1.—Auzika asi baño lenago egoan tokira ta eukan yabeari gauzea atzera emotea eskatu bear yako gauzea gaur daukanaren epaikariari norbera nausi izatera elduta lau urte barruan, gauzea kendu eutsenean txikia bazan; nausiak balira, barriz, kalteak artu ta epaikariagana yoteko eragozpidea amaitu zan egunetik neurtzen dira.

§ 2.—Epaikariak erabagi dagike gauzak auzia asi orduko eukezan yabekana eroatea auzilariak eskatu barik be, benetan edo legez txikiak direanen alde, zuzenaren aldezlaria entzunda nai beronek eskatuta.

1689g. araua. Epai orren ondorena auxe da: zer guztiak auzika asi baño leenago eukan erara biurtu; au da, kaltea egin baño lenago eukan erara; alan be, epai au eskatu-aurrean uste onean irabaziak epai au dala-ta eztabe kalterik artu bear.

V Atala

Ordain-salakuntzako auzibidea

1690g. araua. § 1.—Auzituak epaikari berberaren aurrean eta auzi berberean auzilariaren aurka beronen eskaria nai osoan nai zatian makaltzeko aurkeztuten dauan auziari *ordain-auzibidea* deritxo.

§ 2.—Ordain-auzibidearen aurkazko ordain-auzibiderik eztago.

1691g. araua. Ordain-auzibidea eztabaidazko auzi guztietan aurkeztu daiteke Eleiz-bizibidearen ondakiañai buruzko auzietan izan ezik; lege-ausiai buruzkoetan eztago 2218, § 3g. araukoa baño.

1692g. araua. Ezertako be eskubiderik eztaukana ezpalitz, epaikizun edo auzi nagusia yarri zan epaikariaren aurrean aurkeztu bear da, naita au epaikizun baterako bakarrik ordeztua eta ostantxean eskubide bakoa izan, baiña ez bapere eskubide bakoa.

VI Atala

Zerbait eukiteari buruzko auzibideak

1693g. araua. Zerbaiten legezko yabetasuna bereganatzeko, edo eskubideen bat erabiltea lortuteko legezko agiri garbirik daukanak, eskubidea dauko auzibidez gauzea eukitea ta eskubidea erabiltea eskatuteko.

1694g. araua. Yabe lez eukiteak bakarrik ez, bai eukite utsak be, urrengo arauen neurrian auzibidea nai itzuribidea emon daroe.

1695g. araua. § 1.—Urte bete osoan zerbait bere yabe lez euki edo eskubideren bat erabili dauanak, gauzea eukitean nai eskubidea erabiltean kezkatu balegie, auzibidea dauko gauzea eukiten nai eskubidea erabilten yarraitzen itxi dagoela eskatuteko.

§ 2.—Auzibide onetara yoteko eskubidea ezta emoten kezkatzalleen aurka kezka eginda urte-bete-barruan baño.

1696g. araua. § 1.—Auzibide onetara gauzea benetan daukanak yo dalgike, baita indarrez, maltzurrez nai iñoren izenean daukanak be, edozein lapurren aurka; ez orraitio berak nai indarrez nai ixilean kendu eutsanaren edo bein-beinean yagoteko bakarrik emon eutsanaren aurka.

§ 2.—Erri osoak zer ikusi daukanean zuzen-aldezlariari dagokio eukite okerraren errua nai indarrez nai ixilean nai bein-beinean bakarrik daukienai ezartea.

1697g. araua. § 1.—Lagun biren artean eztabaidea sortu baledi zerbait zeñiek daukan, eukiteari buruzko auzi ori urte barruan epaitu bedi zerbait orreri buruz yabezko eukitearen erakutsi geyago ta argiagok emon dauzanaren alde.

§ 2.—Zeñena danik agertu ezpalitz, epaikariak erdi-bana bemoye auzilari.

§ 3.—Gauzearen nai eskubidearen izakereak edo asarre ta eztabaiden arrizkuak yabetza zaitu barik auzilari bioi bein-beinean emoten itxi ezpalegi, epaikariak agindu begi gauzea yagole baten eskuetan gelditu dedilla eta erabilteko eskubidea zeñena dan dingilizka itxi auzia epaitu artean.

1698g. araua. § 1.—Indarrez nai satorkeriz zerbaiten yabezko eukitea kendu edo erabilten eskubidea erabiltea norbaiteri gala-zo baleutse, eskubidea dauko lapurraren edo gauza ostua daukanaren aurka gauzearen yabetza eukitea barriro lortuteko auzibidez, eta gauzea orain daukana edo eskubidea darabillena lapurra dala ta lapurra dalako ezin leitekela legezko yabe izan erakusteko.

§ 2.—Auzibide au lapurtua izan zala yakin ebaneko urte barruan erabili bear da; itzuribidea baña betikoa da.

1699g. araua. Lapurraren aurka itzuribidea aurkeztu ta lapurretea egiztautzen dauan lapurtuak eztauko erantzun-bearrik, ostu eutsen gauzearen yabezko-eukitean yartzen eztaben artean.

§ 2.—Ostu eutsenak bere yabetzan barriro sartu izateko eztauko ostu eutse-la egiztatu baño beste egin-bearrik.

§ 3.—Baña gauzea nai eskubidea erabiltzea atzera emotean arriskuren bat balego, esaterako ankerkeriena: senarrak emaztearen aurka alkarregazko ezkontza-bizitzea barriro egitea eskatu balegi, epaikariak beste alderdiak nai zuzen-aldezlariak eskatuta, lagunen eta gauzen gora-berak begiratuta, erabagi begi gauzea atzera emotea luzatu dedilla edo zerbait nai norbait yagoleari itxi dakio-la, auzia azken-amayagaz amaitu arte.

1700g. araua. Yabezko-eukiteari buruzko auziak, auzia gauzea eukiteari nai barriro beretuteari buruzkoa danean, arerioa bakarrik deituta amaitu bear dira; auzia zerbaiten yabetasuna lortuteari buruzkoa danean, auzian zer ikusi daben guztiak deitu bear dira.

VII Atala

Auzi-sartzeari buruzko idaztiñoa

1701g. araua. Eztabaidazko auziak, bai zertzui bai nortzui buruzkoak, 1508-1512g. arauetako preskriizioz amaitzen dira; gizakumen bizikereari buruzkoak, baña, eztira iñoiz amaitzen.

1702g. araua. Lege-ausizko auziak guztiak amaitzen dira lege-auslearen eriotzeagaz, legezko Nausiak parkatzeagaz ta lege-ausizkoa aurkeztuteko legezko epea igaroz.

1703g. araua. 1555, § 1g. arauaren aginduaren kalte barik, Zeregin Santuaren Bazkun Gurenarentzat berezitako lege-ausiai buruz, lege-ausizko auzia aurkeztuteko epea iru urtekoa da, urrengoetariko bat ezpalitz:

1.º Irain-auzia; onen auzibidea urte bete ezkeri amaituta dago.

2.º Jaungoikoaren VIg. eta VIIg. agindu berezien aurkazkoak; onein auzibidea bost urte bete ezkeri amaitzen da.

3.º Simonkeria nai iñor iltearen aurkakoak; onein aurkazko auzibidea amar urte bete ezkeri amaitzen da.

1704g. araua. Lege-ausizko auzibidea preskriizioz amaitu arren:
1.º Ezta agaitik lege-ausitik bear bada sortutako eztabaidazko auzibidea amaitu, egindako kalteak ordain-erazoteko.

2.º Góterkizañak 2222, § 2g. arauan aitaututen direan zigor-antzekoak, alan be, ezarri dagikez.

1705g. araua. § 1.—Eztabaidazko auzietan auzibideari buruzko preskriizioa lelenoz aurkeztu al izan zanik aurrera neurriten da; lege-ausizkoetan, barriz, lege-ausia egin zan egunetik.

§ 2.—Lege-ausiak une baten egin arren amaitu barik gitxi geyago irauten dabenetarikoak balira, lege-ausiaren preskriizioa ezta neurtuten asten lege-ausiaren atzenengo egiña amaitu zanetik baño (esaterako, sasi-ezkonduen baterako bi-zitza).

§ 3.—Ekanduzko nai etenbako lege ausian preskriizioa atzenengo egiñetik aurrera neurtuten da; eta oraindiño preskribidu bako lege-ausien bategaitik auzitegiratuak lege-ausi berberagaz bat egindako lenagoko lege-ausiari be erantzun bear dautso, banazean preskriizioagaitik erantzun-bearrik izan ez arren.

VI IDAZPURUA

Auziaren auzitegian sarrerea

I Atala

Auzitegirako deya ta auzitegian egiten danaren iragarria

1706g. araua. Iñor auzitegira ekarri gura dauanak eztabaidea zeri buruzkoa dan agertuaz eta aurkeztutako eskubideak erakusteko epaikariaren laguntasuna eskatuaz idaztiñoa epaikari egokiari erakutsi bear dautso.

1707g. araua. § 1.—Idazten eztakianak, edo idaztiñoa aurkeztuteko legezko eziña daukanak bere eskaria epaikariari agoz aurkeztu dagikeo.

§ 2.—Aztertza errazeko ta zer-ikusit gitxiko ta beraz bertatik epaitzeko auzietan, epaikari eritxi zurrekoaren eskuan dago agoz egindako eskaria ontzat artzea.

§ 3.—Yazoera biotan epaikariak, baño, agoz egindako eskaria idatzita yarteko agindu begio zifaldariari, eta idatzia auzilariari irakurri bear yako eta onek ontzat emon bear dau.

1708g. araua. Auzia epaitegian sartzen dauan idaztiño onek euki bear dituanak:

1.º Auzia zein epaikariren aurrean sartzen dan eta norgandik eskatuten dan esan.

2.º Agertu, gitxienez moltzoan, auzi-eskarian esan eta aurreratuten dauanak egiztautzeko ze suster dauan.

3.º Auzilariak berak edo bere ordezkokoak izenpetuta egon, eguna, illa ta urtea ezarrita, baita auzilari edo bere ordezkoa non bizi direan, edo non egongo direala esan daben auzi-agiriak artzeko.

1709g. araua. § 1.—Epaikariak edo epaitegiak, bein ikusi ezker auzia benetan bere mendekoa dala eta auzilariak legezko eskubidea daukala epaitegian ekiteko, len baño len auzia sartzeko aurkeztutako

idaztiñoa ontzat edo txartzat emon bear dau; eta bigarren ori ebatzi balegi, zergaitik txartzat emon dauan esan.

§ 2.—Epaikariaren eritxiz arteztu leitekezan okerrakaitik txartzat emon balebe idaztiñoa, auzilariak legez egindako idaztiñoa barriro epaikari berberari aurkeztu dagikeo; arteztutako idaztiño ori be epaikariak txartzat emon balegi, bere erabagiaren ziyook be barriro agertu bear ditu.

§ 3.—Idaztiñoa txartzat emonaren aurka auzilariak eskubidea dauko beti amar eguneko epe-barruan goragoko auzitegira yoteko; onek auzilari ta zuzen-aldezlaria nai lokarri-aldezlaria entzunda gero, txartzat emoteari buruzko epaikizuna beingo-beingoan epaitu bear dau

1710g. araua. Idaztiñoa aurkeztu ezker auzilariak illabete osoan 1709 arauak aginduten dauan lez ontzat edo txartzat emoteari buruz erantzunik emon ezpalegi, auzilariak eskubidea dauko bere zeregiña bete dagiala barriro eskatuteko; eta epaikariak ixilik yarra balegi, eskari barri ori eginda bost egun yoa ezker, bera ezpalitz epaikari, Goterkizafañagana yo dagike, edo bai goragoko epaitegira be, edo azpiko epaikaria beartua izan daiten bere zeregiña betetan, edo lengoaren orde bestepaikari bat emon dagioen.

II Atala

1711g. araua. § 1.—Idaztiñoa nai agozko eskaria ontzat artu ezker, auzituari auzitegira etorteko deya egin bear yako.

§ 2.—Auzilari ta auzitua biak etorri balediz auziari ekiteko, eztago deitu-bearrik; orraitio, zifaldariak auziari buruzko idatzietan auzilari ta auzitua euren alde auzitegiratu direala iragarri begi.

1712g. araua. § 1.—Deya epaikariak egiten dau, eta auzia sartzeko idaztiñoan idatzita ezarri bedi.

§ 2.—Deya auzituari egiten yako, eta bat baño geyago balira, bakotxari.

§ 3.—Auzilariari be iragarri bear yako, auzituari esan yakon egunean eta orduan bera be epaikariaren aurrean agertu daiten.

1713g. araua. Eztabaidatzen diran ondasunen zain osoa eztanari auzia imini ezker, 1648-1665g. arauen erabagiz bere orde auziari erantzun bear dautsanari agindu bear yako auzitegirako deya.

1714g. araua. Edozein dei luzapide bakoa da, barriro egin-bearrik eztaukana, 1845, § 2g. arauko zerean izan ezik.

1715g. araua. § 1.—Deya idatziz egin bear da; eta bertan epaikariak auzituari etorteko agindua egin bear dautso: au da, zein epaikarik, zein auziri erantzuteko deitua dan gitxiendik ganetiko itzakaz esanda, zein auzilarik eskatuta, auzitua bere izenez eta abizenez ondo izentauta, baita non, noiz, au da, zein urteko illabeteko eguneko ordutan agertu bear dauan argi jarri.

§ 2.—Deya epaitegiko ikurtzagaz (silluagaz) markauta epaikariak edo bere entzuleak eta ziñaldariak izenpetu bear dabe.

1716g. araua. Deya iyeki bitan idatzi bedi; bata auzituari bialduko yako; bestea auziaren agiri-artean zaindu bedi.

1717g. araua. § 1.—Dei-txantela, al dala, Obispoaren Idazkolako iragarlearen eskuz auzitu berberari, nainon dagoala, esku-ratu bear yako.

§ 2.—Orretarako iragarlea beste goterkiko muga-barrura be sartu daiteke, epaikariak ontzat emon eta geznariari sartzeko agindu balegio.

§ 3.—Auzitua bizi dan tokian aurkitu ezpalegi iragarleak, auzituaren etxeko nai otsein litzaken norbaiteri emon dagikeo dei-txantela, auzituari len baño len emoteko gerturik balego eta emongo dautselako itza emon balegi; ostantxean epaikariari ekarri begio, 1718-1720g. arauak erabagiten daben lez bialtzeko.

1718g. araua. Dei-txantela artu gura eztauan auzitua legez deitutzat etsi bear da.

1719g. araua. Urrinagaitik edo beste zerbaitegaitik dei-txantela auzituari iragarlearen eskuz eroatea gatx balitz, epaikariak alan agindu balegi, bialdu daiteke erriko idazki-zañen bidez be, beren-beregi aginduta eta emon-artuaren ziñaltzeagaz; edo tokietako lege ta izakeren arauz seguru-segurua dan beste edozein eraz be bai.

1720g. araua. § 1.—Yakiteko alegin guztiak eginda oraindiño auzitua non bizi dan ezin yakin baledi, agiriko agindu baten bidez egin bedi auzi-deya.

§ 2.—Au onantxe egiten da: iragarlaren eskuz ezarri bedi dei-txantela Obispoaren Idazkolako atean erriarentzako aginduak ezarten direan lez eta bego bertan epaikariak erabagiko dauan arte; eta ganera erriarentzat argitaratzen direanetariko egunkari edo beste orrien baten be ezarri bedi; bietara ezin danean, batera gitea naikoa bedi.

1721g. araua. § 1.—Iragarleak dei-txantela auzituaren eskuetan itxitorduan izenpetu egin bear dau zein egunetan eta ordutan emon eutsan bertan idatziz ezarrita.

§ 2.—Bardin begi dei-txantela auzituaren etxeko nai otseñen baten eskuetan izten dauanean be, urlia onen izena be bertan idatzita.

§ 3.—Deia agiriko aginduaren bidez egiten danean, iragarleak aginduaren azpian bere izena ezarri bear dau Obispoaren Idazkolako ateetan zein egun eta ordutan yarri eban eta gero bertan yosita noiz arte egon zan.

§ 4.—Auzituak artu nai ezpalegi dei-txantela, bekartso iragarleak atzera epaikariari, zein egun eta ordutan artu nai izan ezaban bertan idatzita.

1722g. araua. § 1.—Iragarleak idatziz eta bere izenagaz izenpetuta esan begio epaikariari zelan bete dauan agindu eutsana.

§ 2.—Dei-txantela erriko idazkarien ezkuaz agindu baledi, onein erantzuna auziaren agiri artean zaindu bedi.

1723g. araua. Dei-txantelak ezpalegiz esan 1715g. arauak aginduak, edo legez iragarri ezpaledi, alperrikoak dira bai deya baita auzibideko geroko egiñak be.

1724g. araua. Emen goyan auzituaren deyari buruz ezarriak auziari buruzko beste egiñai be, aldatzekoak zentzunez aldatuta, ezarri bear yakez, esaterako erabagi ta deyak eta antzekoak iragarteari buruz.

1725g. araua. Deya legez egin ezkerro edo auzilaria ta auzitua euren oldez auzitegiratu ezkerro:

1.º Auziak osorik edo asi barik egotea itxi dau.

2.º Auzia bere aurrean yarri dan epaikariarena edo auzitegiarena egiten da; ta orregaitik ordezlariaren ala amaitu arren, berea ezta amaituten auzia epaitu arte.

4.º Preskriziñoa eten egiten da 1508g. arauaren neurrian, ostantxekorik erabagita ezpalego.

5.º Auzia biziten asten da; orregaitik une onetatik asten da arako legearen agindua bete-bearra: *auzi-bitartean ezipedi ezer aldatu.*

VII IDAZPURUA

Auziari erantzuna

1726g. araua. Auziaren mamia auziari emoten yakon erantzunean dago: au da, epaikariaren aurrean auzituak auzilariaren eskakizunari erantzunean emoten dautsan ezezkoan, auzika ekiteko asmuagaz.

1727g. araua. Auziari erantzuteko eztago esakera nai egikera berezirik erabili-bearrik; naikoa da epaikariaren nai bere ordezkorean aurrean burrukariak agertuta auzilariak eskatzen dauana ta auzituak ezetz diñotsana agirietan ezartea; alan auzia zertzaz dan eta eztabaidearen mugak agertu daitezcan.

1728g. araua. Auzi sasitsuenetan baña, au da auzilariak eskatua ez argia ez bakuna danean, edo auzituaren ezezkoa zailtasunez izorra danean, epaikariak nai bere zeregiñak emoten dautsan eskubideagaz nai auzilariak nai auzituak eskatuta, deitu begiz bata ta bestea eztabaidearen nondik-norakoak ondo aztertu ta zeintzeko; au da, auziari buruzko *ezpayak* direlakoak edo epai bidez ebatzi bearko direanak zeintzuk eta zelangoak direan erabagiteko.

1729g. araua. § 1.—Ezpayak alde bien ondo eritxiagaz erabagiteko izentautako egunean deitutako bata agertu ezpaledi, ta agertu ezaren ganorazko ziyorik ezpadakar, setatsutzat agirian emon bedi, ta ezpayen eredia epaikariak bere zeregiñak emoten dautsan eskubidez erabagi begi, bertan dagoan alderdiak alan eskatu balegi. Orraitio alderdi setatsua erabagi onen yakitun egin bear dau epaikariak iñork eskatu barik, auzikizun izango direanen aurka leukakezan eragozpideak aurkeztu ta bere burua auzi-igesien salakuntzatzik garbitu dagian epaikariak izentauko dautsan epe-barruan.

§ 2.—Alde biak bertan direala ta ezpayai edo auzikizunai buruz eritxi batekoak balira, epaikariak bere aldetik ezpaleuko ezer euren aurka, aiatu begi orixe auzikizunak ontzat emoten dauzan erabagian.

§ 3.—Auzilari-auzitua alkarregaz konpondu ezin balira, edo euron erabagiak epaikariak ontzat emon ez, epaikariak bere erabagiaren bidez ebatzi begi arein eztabaidea.

§ 4.—Ezpai edo auzikizunaren eredia, bein erabagi ezker, ezin aldatu daiteke beste erabagi baten bidez baño; eta au ezta emon bear ziyo aztunagaz baño, alderdi batek edo zuzenaren edo lokarriaren aldezlariak eskatuta, eta alde bata nai biak entzunda eta euron esanak zintzo begiratuta.

1730g. araua. Auziaren erantzuna emon baño lenago ezpedi epaikaria lekukoak ta beste egizpideak azterkatzen aurreratu alderdien baten temeagaitik izan ezik, edo lekuko baten nai batzuen esanak entzun-bearra ezpalego, edo batobat il dalako edo urrinerara yoateko dalako edo beste bidezko ziyoenategaitik gero esanak entzun-eziña edo oso gatx izango dala entzutea agiri ezpaledi.

1731g. araua. Auziari erantzuna emon ezker:
1.º Auzituak ontzat emonda, ganorazko ziyokaz epaikariak aldakuntzea egin bear dala uste izan ezik, etxako zillegi auzilariari idaztiñoa aldatzea; eta beti, aldakuntzok auzituari kalterik balekartse, kalteok ordaindu-beartuta. Orraitio ezta idaztiñoa aldatu danik uste izan bear egizpidea laburtu nai aldatu arren; eskatua nai eskatuaren eraskiñak gitxitu-arren; edo len idaztiñoan ezarritako egiñaren eraskiñak argitu-, osotu nai aldatu arren, auziaren mamia aldatu ezpaledi; gauzearen ordezkariak, obariak edo beste ordezkariak bat eskatu arren.

2.º Epaikariak epe egokia emon begie alderdiai egizpideak aurkeztu ta betetako; epe au, alderdiak eskatu balegie, bere eritxiz luzatu dagike, auzia bear dan baño geyago luzatu ezik.

3.º Iñoren gauzea daukanak uste onekoan izatea galtzen dau; onegaitik gauzea bere yabeari emoteko epaitu dauanak, ez gauzea bakarrik, gauzearen irabaziak be emon bear dautsaz yabeari, auziari erantzuna emon ezkerokoak, eta bitartean gauzearen yabeari kalterik etorri balitzakio, kalteok be ordaindu bear ditu.

Auziari ekitea

1732g. araua. Auziari ekitea auziaren erantzunagaz asten da; amaitu barriz auzia amaitzen dan era guztietan; baño lenago be, eten ezeze, amaitu be egin daiteke auzia nai berez illaz, nai ekiteari utzia.

1733g. araua. Alderdi auzilaria il baledi, edo auzika ekiten ekarri dauan bizikerea nai zeregiña aldatu balegi:

1.º Auziketea oindiño amaitutzat emonda ezpalego, auziari ekitea eten egiten da ildakoaren ondorengoak edo zeregiñean urrengoak auziari barriro ekiten asi artean.

2.º Auziketea amaitutzat emonda balego, auziari ekitea ezta ebagiten; epaikariak, ostera, ordezkari, balego, dei eginda, bere egitekoan yarraitu bear dau; ostantxean, ildakoaren oñordekoari edo urrengoari deituta.

1734g. araua. Eleiz-gizon auzikarien artean bizibiderako eskubidea zeregiñek daukan eztabaidatu baledi, ta bata auzi-bitartean il baledi, edo bizibideari uko balegio, auziari ekitea ezta ebagiten; bizibidearen nai eleixaren azkatasunaren alde burruka ekin bear dautsan zuzen-aldezlariak daroa, aurrera bizirik gelditu danaren aurka, bizibide orren emotea, Goterkizañak berak nori gurekoa izan eta bizirik gelditu dan auzilariari emon ezpalegio.

1735g. araua. Ordezkoak nai zañak bere zeregiña itxi badau, auziari ekitea geldi dagoke alderdiak edo legez dagokionak ordezkari edo zain barria izentau artean, edo eurak iñor barik aurrerantzean auzikatzeko gogoia erakutsi arte.

1736g. araua. Zoztorren batek eragotzi ezik, lelengo mallako auzitegian urtebian, ta gora yotako mallakoan urte betean auziari buruz ezer egin ezpaledi, auziari ekitea amaituta dago; eta gora yotako auzitegian ori yazo baledi, gora yotearen bidez ausi nai izan eben epaya betiko ondo emontzat gelditzen da.

1737g. araua. Amaitze au berez eta guztien aurka yazoten da, bai txikien eta txikiagaz bardindutako beste guztien aurka be; ta berau epaikariak iñork eskatu barik be yazotzat emon bear dau; baño errurik ezebela izan erakusten eztaben ordezkari, zain eta diru-zañen aurka ortik etorri yakezan kalteen ordaña eskatuteko eskubidea dago.

1738g. araua. Auziaren amaitze onek epaibidean egiñai be atzena emotzen dautse, ez baño auzibideari; okerretara, eurok gauza izan leitekez auziaren beste epaiketari baten be, auzilari berberen artean eta zer berberaz balitz; ganekoai buruz baño agiri-indarra baño eztauke.

1739g. araua. Auzia amaitzekoan auzilari bakotxak berak egindako zorrak ordaindu bear ditu.

1740g. araua. § 1.—Auzilariak auziari ekiteari eztautsala yarraitu gura nai noz esan dagike; baita be bai auzilariak nai auzituak epaibideko egite guztiai nai batzui uko egin dagikeoe.

§ 2.—Uko egite ori gauzazko izateko, idatziz egin bear da, ta egiten dauan auzilariak, edo bere ordezkioak, beren-beregiko aginduagaz baña izenpetu bear dau, ta beste auzilaria yakitun egin bear dau ta beronek ontzat emon edo gitxie-nez txartzat ez emon, eta epaikariak be ontzat artu.

1741g. araua. Uko egite ori ontzat emon ezker, uko-egindako egitekoai buruz auzi-ekitea amaitzearen ondoren bardiñak daukaz, ta ukatzalleak uko egin yaken egifetatik sortutako zorrak ordaindu-bearra dauko.

IX IDAZPURUA

Auzilariari epaitegian egin bear yakezan itaunketai buruz

1742g. araua. § 1.—Epaikariak, eztabaidatzen dan eta ziur yakin gura dan egin bateri buruz egia ziur yakiteko, auzilariak itaunka aztertu bear ditu.

§ 2.—Ganera, aztertu dagike auzilaria ez bakarrik beste alderdiko auzilariak eskatuta, baita bere zaregiñak emoten dauksan eskubideagaz be, egizpide bat argitu bear danean.

§ 3.—Auziaren amaya baño lenago auzilarien itaunketea epaikariak auziaren edozein egokeran egin dagike; auzia amaitu ezker, 1861g. arauaren agindua bete bedi.

1743g. araua. § 1.—Legez itanduten dauksen epaikariari auzilariak erantzun eta egia esan bear dautse, eurak egindako legeausiai buruz izan ezik.

§ 2.—Legez itanduko auzilariak erantzun gura ezpalegi, mukerkeri orreri zeinbesteko garrantzia emon bear yakon, bidezkoa ete dan ez ete dan, autorizearen bardin dan ala ez, epaikariari dagokio ebaztea.

§ 3.—Erantzun bear dauan auzilaria, artarako eskubide barik erantzun nai ezpalegi, edo erantzunda gero guzurti ager baledi, epaikariak guzurraren zer guztiak begiratuta erabagiko dauan eperako eleiz-legezko egiñak egiteari buruzko eragotziagaz zigortu begi; eta erantzun baño lenago egia esateko ziñ egiña balitz, erri-laguna balitz, eragotzi nortarragaz zigortu begi; eleiz-gizona balitz, etenagaz.

1744g. araua. Lege-ausizko auzietan epaikariak salatuari egia esateko ziñik ezin dagikeo eragin; eztabaidazkoetan, erriaren

onak eskatuten dauanean, auzilariari be eragin bear dautse; beste auzietan bere buru zurrak esaten dauksana egin begi.

1745g. araua. § 1.—Bai auzilariak bai auzituak batak bestearentzat, baita zuzen nai lokarri-aldezlariak be aurkeztu dagikeoz epaikariari auziko alde biai egin bear yakezan itaun batzuk lateraz *positiones esaten* yakezanak (1).

§ 2.—Positiones orreik idaztean, ontzat-txartzat emotean eta auzilariari aurkeztutean, 1775-1781g. arauak aginduten dabena egin bedi.

1746g. araua. Ziñ egiteko eta itaunari erantzuteko auzilariak eta auzituak eurak agertu bear dabe epaikariaren aurrean, 1770, § 1, 1.º-2.ºg. arauan aitatuten direanak izan ezik.

X IDAZPURUA

Egizpideak

1747g. araua. Eztauke egiztau-bearrik:
1.º 2197g. arauaren arauz errian ezagun direan egiñak.
2.º Legeak berak egizkotzat emoten dauzanak.
3.º Auzikari batak esanak besteak egiztat emoten dauzanak, nai epaikariak nai legeak alan be egiztatzea agindu ezpalegi.

1748g. araua. § 1.—Egiztau-bearra bayetz diñonari dagokio.
§ 2.—Auzilariak egiztau ezik, auzitua azke emon bear da.

1749g. araua. Auzia luzatutearren eskatuten direalako antza daukan egizpideak, esaterako: urrineko lekukoa edo non bizi dan eztaukien lekukoren bat aztertzeo edo beingoan euki ezin dan agirien baten ikustea, epaikariak ezpegiz aintzakotzat artu, egizpideok bear-bearrekoak direala ikusi ezpalegi, beste egizpiderik ezagoalako edo dagozanak naikoa eztiREALAKO.

I Atala

Auzilarien autortzak

1750g. araua. Auzilari batak nai idatziz nai agoz bere aurka beste auzilariaren alde epaikariaren aurrean, nai bere burutik nai epaikariak itanduta esaten dauanari *auzitegiko autortza* deritxo.

1751g. araua. Bakotxaren eskubideai buruzko auzia bada eta beste iñork zer ikusirik ezpadau, auzilari baten auzitegiko autortzak,

(1) Izen ori emoten yake, itaunka barik gauzak benetan alantxe yazokotzat emoten dabezalako. Olan auzilaria nai lekukoak beartuta dagoz okerrak arteztuten.—Larra-koetxea.

iñork beartu barik eta esaten dauana dakianak egiñak, beste auzilariari bere eskubidea egiztau-bearra kendu egiten dautso.

1752g. araua. Auzitegian zerbait autortu dauan alderdiak ezin legike gero autortza orren aurka ekin, ber-bertatik egin ezpalegi edo autortzeak berak 1750g. arauan esan direan eukitekoak euki ezpalitu, edo egiñari buruzko uste okerragaitik egin ebala egiztau ezpalegi.

1753g. araua. Arerioari berari nai beste batzui auzitegitik kanpoan egiñiko autortzeari auzitegitik kanpoko autortzea deritxo.

II Atala

Lekukoak eta euren esanak

1754g. araua. Lekukoen bidezko egiztatzea epaikizun guztietan ontzat artzen da; orraitio, epaikariak zuzenduta eta urrengo arauetan erabagiten dan lez.

1755g. araua. § 1.—Lekukoak legez itanduten dautsen epaikariari erantzun eta egia esan bear dautse.

§ 2.—1757, § 3-2.ºg. arauan aginduaren kalte barik, egin-bear orretatik azke dagoz:

1.º Parroki-zain eta beste yaupariak euren zeregin santua dala-ta eta ikur-tonezko autortzatik kanpo esan dautsezanañ buruz; erri-agintariak, osalariak, umegintza-zañak eta euren zeregiñari buruzkoetan ixil-legepetu guztiak onuske yoan yakozanañ buruz edo ixil-lege orrek yoten dauzan zer guztiak buruz.

2.º Bere autortzatik bere buruari nai lerro zuzeneko edozein mallako senide nai aideai izen gaiztoa, kezka-bideak edo beste kalte larriak etorriko ete yakezan bildur direanak.

§ 1.—Legez itanduten dautsen epaikariari zer egiten daben dakiela guzurra dirautsen edo egia ixilduten dautsen lekukoak 1743, § 3g. arauak diñoan lez zigorkatu bediz; zigor bardiñagaz yo bediz bezuza-agintzakaz edo beste edozein eraz lekukoa nai yakituna guzurra esaten nai egia ixilduten erakarten ausartu direan guztiak.

I Atalkia

¿Nortzuk lekuko?

1756g. araua. Legeak beren-beregi nai osoan nai zerbaiteri buruz galazo ezpalegi, gizakume guztiak izan daitekez lekuko.

1757g. araua. § 1.—Autortza emoteko gai eztiREALKOTZAT eztauz legeak lekukotzat artzen: amabi urtetik berako neskatoak, amalau urtetik berako mutikoak; burutik loka dagozanak.

§ 2.—Guzurra esango dabelako bildurragaitik eztiRA lekukotzat artzen:

1.º Elexatik arrotzuak, ziñis-ausleak, izen txarrekoak, zigor ori nai legeak agertua, nai epaikariak ezarria izan epayaren ostean.

2.º Bizikera narrasagaitik sinisgarri eztiranak.

3.º Auzilari bataren agiriko arerio larria dana.

§ 3.—Gauza eztiREALAKO:

1.º Auzian bertan alde bateko auzilari direanak edo auzilarien ordezko egiten dabenak, esaterako: txikizaña txikarren auzian; Nagusia nai ondasunzaña bere bazkunaren nai legezko norbaiten izenean euroi buruzko auzietan; epailaria ta bere lagunak, aldezlaria ta auzilariak auzian lagun egiten dautsen edo egin dautsenak.

2.º Jaupariak ikurton-autortzatik yakin dabezan guztiak buruz, ixil-lokarria azkatu baleutse be; ganera, edonork eta edozelan ikurtonezko autortzaldian entzunak egiaren susmogarrizat be ezin leitekez artu.

3.º Ezkontidea bere ezkontidearen auzian, senidea nai aidea lerro zuzeneko mallako senide nai aidearen auzian, bere barria beste iñondik yakin ezin daitekenean ezpalitz eta yakitea erriaren onak eskatu ta norbaiten nai elexako legezko bizikeareari buruzkoa izan.

1758g. araua. Gauzakko eztiREALAKO eta susmogari direanak deitu ta entzun daitekez epaikariak aginduta eta aginduan eurok entzutea ondo dala esan balegi; baña onetarikoen esanak eztauke ezer ebazteko indarririk, besteen esanañ lagun egiteko bakarrik baño; geyen baten ziñ-itzik emone-razo barik entzun bediz.

II Atalkia

1759g. araua. § 1.—Lekukoak auzikalariak aurkeztuten dabez.

§ 2.—Auziak alan eskatu balegi, zuzenaren eta lokarriaren aldezlariak be aurkeztu dagikez.

§ 3.—Epaikariak berak be aurkeztu dagikez, iñork eskatu barik be, auzia txikiena edo txikiakaz bardinduarena balitz, edo itz baten esateko guztien onak ori eskatuten dauanean.

1760g. araua. § 1.—Norbait iñork aurkeztu barik agertu baledi bere esatekoa emoteko, epaikariaren eskuetan dago olangoa artu nai artu ez egitea.

§ 2.—Iñork deitu barik etorri dan lekuko ori epaikariak entzun barik atzera bialdu bear dau, auzia luzatutearren edo zuzenari eta egiari kalte egiten etorri dalakoaren antza artu balegio.

1761g. araua. § 1.—Lekukoen bidezko egizpidea eskatuten danean, euren izenak eta non bizi direan emon bekioz auzitegiari; ganera lekukoai egiteko itaunak be aurkeztu beitez.

§ 2.—Epaikariak izentautako epearen atzeneko egunean agindua oraindiño bete barik balego, eskaria atzeratu egin dauala uste izan bear da.

1762g. araua. Epaikariak eskubidea ta egin-bearra be badauko lekuko larregiri neurria iminteko.

1763g. araua. Lekukoen azterkatua asi baño lenago auzilariak batak besteari lekukoen izenak ezagun egin bear dautsoz; edo epaikariaren eritxiz ori egin eziña balitz, lekukoen esanak argitaratu orduko.

1764g. araua. § 1.—Inork eskatu ez arren, epaikariak eztauz artu bear lekukoak euren esana emoten galazota daukela baleki, 1758g. arauak esanaren kalte barik.

§ 2.—Beste auzilariak eskatuta be eztira lekukoak euren autortza emoten artu bear, ez artuteko ziyoa erakutsi ezker; ez artze orreri *lekukoa txartzat emotea* deritxo.

§ 3.—Auzilariak ez dagike txartzat emon berak aurkeztutako lekukoa, txartzat emoteko ziyoa berak aurkeztuta gero etorria ezpalitz; aren esanak, baña, beti emon dagikez txartzat.

§ 4.—Lekukoak txartzat emotea beste auzilariari euren izenak agertu ezker-oro iru egun barru egin bear da; geroagoan egiña ezpedi artu, lekukoaren akatsa len ezekiela erakutsi ezik edo bein-beinean diñoana ziñ-itzaren bidez indartu ezpalegi.

§ 5.—Lekukoaren aurka legezko erabagia ezpalego, edo bere akatsa agirikoa ezpalitz, edo egiztautzea orain oso erraza eta gero egin eziña bear bada, lekukoa txartzat emon bearko ete dauan epaikizun ori ebaztea epaikariak auziaren atzenerako utzi begi.

1765g. araua. Lekukoak epaikariak deitzen ditu artarakoxe agindu baten bidez; eta 1715-1723g. arauak aginduten daben eraz iragarri bear yake dei ori.

1766g. araua. § 1.—Legez deitutako lekukoak etorri egin bear dau, edo ostantxean etorri-eziñaren ziyoa agertu.

§ 2.—Men egiten eztauan lekukoa, au da, bidezko ziyo barik etorri eztana, edo etorri arren, erantzun nai ez, edo ziñ-egin nai ez, edo bere esanak izenpetu nai ezpalitu, epaikariak irabazi dituan zigorrak emon dagikeoz eta ganera auzilariari ekarri dautsezan kalteak diruz ordaintzen beartu.

III Atalkia

Lekukoen ziñ-egitea

1767g. araua. § 1.—Lekukoak, bere erantzunak emon aurretik, egia osorik eta bakarrik esango dauala ziñ egin bear dau, 1768g. arauko aginduaren kalte barik.

§ 2.—Auzilariak nai euren ordezkooak lekukoak ziñ-egitorduan bertan egon daitekez, 1763g. arauaren aginduaren kalte barik.

§ 3.—Epaikizuna auzilarien euren-euren eskubidea bakarrik balitz, auzilariak artara etorri ezker, parkatu legike lekukoak ziñ-egin bear ori.

§ 4.—Orraitio, ziñ eragiten etxakenean be, epaikariak gogoratu begio lekukoari egia esateko daukan bear aztuna.

1768g. araua. Lekukoak, egia esateko ziñ-egin arren, aztertua amaitu ondoan epaikariaren eritxi zurraren neurritz eurak esan dabena egi utsa dala esaten barrero ziñ-egiten beartu daitekez; bigarren ziñ au eragin dagike nai esan osoari buruz, nai esanaren garrantzi bereziko esan batzui buruz.

1769g. araua. Lekukoak ziñ-eraginda be beartu daitekez aurkeztu dautsezan itaunkizunak eta itaunai emondako erantzunak ixilik yagoten agiriak eta egizpideak argitaratu artean, eta baita betiko be 1623, § 3g. arauaren indarrez.

IV Atalkia

Lekukoen aztertzea

1770g. araua. § 1.—Lekukoak epaitegian bertan aztertu bear dira.

§ 2.—Lege onek eztauz lotuten:

1.º Kardenalak, Obispoak eta bakotxaren Laterriko legearen erabagiz euren ziñaltzea emoteko epaikariagana aurkeztu-bearrik eztauken andiki guztiak; oneik guztiok euren esana non esan erabagiteko eskubidea dauke, eta esan dabena epaikariari jakin-erazo bear dautse.

2.º Gexoak edo beste gorputzeko nai arimako eragozpideagatik, edo legezko bizikereagaitik (lekaimeak esateko) epaitegiratu ezin direanak; oneik guztiok bakotxa bere etxean aztertu bear dira.

3.º Goterkitik kanpoan bizita, goterkira atzera etorri ta epaitegira neke andi barik ezin direanak; oneik bizi direan tokiko epaitegiak aztertu bear ditu 1570, § 2g. arauak erabagiten dauan lez, auziaren epaikariak agindutako itaunak eta irakatsiak yagonda.

4.º Goterkian benetan bizi bai, baña dirutza andia eralgi barik ez eurak epaitegiratu, ez epaikaria eurakanatu leiteken añako urrineko tokian bizi direanak. Ori jazoten danean epaikariak an urrago bizi dan yaupari yator eta egokia izentau begi, ziñaldari-lana egingo dautsan laguna artuta, onetariko lekukoen aztertzea egiteko egin bearko dautsezan itaunak bardin agindu eta bere egitekoa zelan egin be irakasten dautsela.

1771g. araua. Lekukoen aztertaldian auzilariak ezin leitekez an bertan egon, epaikariak itxi ezik.

1772g. araua. § 1.—Lekukoak bakotxa banazean aztertu bear dira.
§ 2.—Epaikariaren eritxi zurraren aukeran izten da lekukoak euren esanak esanda gero nai eurok alkarren artean nai aurkeztu dauazan auzilariagaz ezagun egitea, batzunik eta besteenak alkarregaz zelan konponduten direan ikusteko.

§ 3.—Ori baña egin daiteke urrengo baldintza guztiak alkartu ezker:

1.º Lekukoak alkarren artean edo auzilariagaz zer andian eta auziaren mamiari buruzkoan batera ez etortea.

2.º Egia yakiteko beste bide errezagorik ez egotea.

3.º Batzar orretatik ikara txarren baten edo asarreen batzuk sortzeko bil-durra uxatzea.

1773g. araua. Aztertu au, ziñaldaria lagun dauala, epaikariak edo bere ordezkioak edo entzuleak egin bear dau.

§ 2.—Aztertutean itaunak eztautsoz egin bear lekukoari beste ifork, epaikariak edo epaikariaren ordea daukanak baño; beraz, auzilariak nai zuzen aldezlariak edo lekari-aldezlariak aztertutaldian bertan balegoz eta lekukoari itaun barriak baleukiez egiteko, oneik ez lekukoari, bai epaikariari edo bere ordezkioa egiten dauanari aurkeztu bear dautsez, lekukoari berak dagiozan.

1774g. araua. Lekukoari lelengo itandu bear yakoz ez bakarrik edonoren zer bereziak, esaterako: izen-abizenak, sorterrria, adifña, yaureskera, bizibidea, bizitokia; baita auzilariakaz auzian zer galdu-irabazi dauan; eta gero auziari berari dagokiezan itaunak egin bear yakoz; eta badakizalakoak nondik eta zelan dakizan esanerazo.

1775g. araua. Itaunak laburrak izan bediz, ez erabatera gauza askori buruzkoak, ez maltzurak, ez iruzurkorak, ez zelan erantzun erakusten dabenak; edozein irañen usañik be eztabenak eta eskuarteko auziari buruzkoak.

1776g. araua. Itaunak etxakiez aurreztik lekukoari erakutsi bear.

§ 2.—Alan be, lekukoari itanduten yakezanak atxiña-atxiñakoak balira ta gogora ekarteko astirik emon ezik gogora ezifñak eurai buruz ezer seguru esateko, orduan epaikariak zerbaiztuk lekukoari aurreztik agertu dagikeoz, gatx andiren arrisku barik legikela baderitxo.

1777g. araua. Lekukoak euren ziñaltzea agoz emon begie ta idatzirik ezpegie irakurri, zenbaki-kontuak ezpalira; orduan, ba, aldean ekarri dabezan idatzizko oarrak begiratu dagikez.

1778g. araua. Idazkariak erantzuna berealaxe idatzita ezarri bear dau, ez bakarrik gayaren mamiari buruzkoa, bai emondako ziñaltzearen itzak eurak be, epaikariak, auziaren uskeria begiraturik, ziñaltzearen mamia ezartea naikotzat emon ezpalegi.

1779g. araua. Idazkariak agirietan dana aitaturko dau: ziña egin zan, parkatu ala ukatu zan, auzilariak eta besterik bertan egon zan, epaikariak zelango itaunak egin zituan, eta, itz baten esateko, gañerako jazoera gogoragarrri guztiak, lekukoak aztertzean ausaz jazorikoak.

1780g. araua. Auzitegitik alde egin baño lenago lekukoak agoz esanak eta idatziz ezarriak lekukoari irakurri bear yakoz, gaineratuteko, kenduteko, arzetuteko, aldatuteko eskubidea emoten yakola.

§ 2.—Agiria atzenezan lekukoak, epaikariak eta ziñaldariak izenpetu bear dabe.

1781g. araua. Lekukoak aztertuta gero be, alderdiak eskatuta nai bere zeregiñaren eskubidez, agiriak eta ziñaltzak argitaratu baño lenago, barrero be aztertu daitekez, epaikariak alan bearreko edo egoki beintzat uste izan balegi, yoko zikiñaren arriskurik ez izatekotan.

V Atalka

Lekukoaren esanak argitaratzea ta txartzat emotea

1782g. araua. § 1.—Auzilariak edo euren ordezkioak lekukoak aztertutaldian bertan egon ezpazirean, lekuko guztien aztertua amaitu ezkerro, epaikariak erabagita lekukoaren esanak argitaratu daitekez.

§ 2.—Epaikariak, baña, lekukoaren ziñaltzak argitaratutea egizpidearen beste arloak amaitu arte luzatu dagike, alan egoki baderitxo.

1783g. araua. Ziñaltzok argitaratu ezkerro:
1.º Lekukoaren nortasuna txarresteko eskubidea amaituta dago, 1764, § 4g. arauak diñoana yazo ezpaledi.

2.º Eskubidea dago, baña, lekukoak txartzat emoteko, nai azterkereari buruz, esaterako: azterkaldian baztertutako legearen aginduak gogoratuaz, edo lekukoaren esanai aurka egiñaz, guzurrezkoak dirala-ta, edo batera nai besterakoak, atzekoz aurrerakoak, illunak, ez-jakiña darienak eta olangoak.

1784g. araua. Txartzat emote ori ezpegi epaikariak aintzakotzat artu susterrrik eztaukala baderitxo eta auzia luzatutearren egiña dala konturatu baledi; eta txartzat emona erabagi baten bidez agertu begi.

1785g. araua. Lekukoaren esanai buruzko txarrespenaren auzia legekotzat artu al baledi, epaikariak eskatuten dauan alderdiari txarrespen ori egiztautzeko epe laburra bemoio eta gero auzi-bitarteko auzitxoetan lez yardun begi.

1786g. araua. Lekukoaren esanen ziñaltzak argitaratu ezkerro, bein entzundako lekukoak ezpegiz aztertu gai bardiñai buruz; ta lekuko barririk be ezpedi aztertu, arduraz eta epaituko gauzea izaterañio iñoiz elduten eztereantetan ziyo aztunagaz baño; ostantxekoetan, ziyo andia baño andiogoagaz; eta edozein maltzurkeri ta saldu-erosien arriskuak aldendurik, eta, auzian balego, zuzen-lokarri-aldezlariaren eritxiak eskatuta; dana epaikariak legeko erabagiagaz ebatzita.

VI Atalkia

Lekukoen ordaina

1787g. araua. § 1.—Bideko etorri-yoanagaitik eta auzitokian egonagaitik egin bear izan dauzan diru-eralgiak ordaintzea eskatuteko eskubidea dauko lekukoak; baita bere lana eten-bearragaitik irabazi ez-taunararen ordea be.

§ 2.—Auzilaria ta lekukoa, ta, bear bada yakitunak be entzunda gero, lekukoari ordaintzeko kitugarria ta eralgiak neurtutea epaikariari dagokio.

1788g. araua. Lekukoak deitu gura dauzan auzilariak, epaikariak 1909, § 2g. arauak diñoan lez izentetan dautsan eta luzatu ez-dagiken epe-barruan lekukook ordaintzeko dirua ezpalekar, lekukoak aztertzerik eztauala gura uste izan bear da.

VII Atalkia

Lekukoen esanen indarra

1789g. araua. Lekukoen esanen egizpide-indarra neurtutean epaikariak begiratu begiz:

1.º Zelango gizontasunezkoa dan: berbakoa ala ez; aginpide-malletan yarrria ala ez.

2.º Esan dauana berak artez dakiana dan ala ez; esaterako: berak ikusia edo entzuna dan, ala berak alan uste dauana, ala errian esaten danetik edo norbaiten edo norbaitzukandik entzuna.

3.º Lekukoa esaten dauanari buruz seguru ta beti bardin esaten dauana dan; edo okerretara, batean onan, bestean alan; ez bai ez ezetz garbi esaten ezta kienea.

4.º Amaitzeko, lekukoak beste lagunik daukan bardin diñoanik, ala okerretara bakarria dan.

1790g. araua. Lekukoak euren esanetan baterakoak ezpadi, begiratu begi epaikariak esanok batak bestea ausi egiten dauan ala ez, edo azaleko zer batzuetan bat-baterakoak izan ez arren, mamiari buruz baterakoak direan.

1791g. araua. § 1.—Lekuko bakarraren esanak eztauko zerbait osoan egiztautzeko indarrrik, agiriko zeregiñen bat daukana ez-palitz eta berak zeregin orren bidez emon ezpalegi bere esana.

§ 2.—Ziñ eginda gero akats bako lekuko bik edo iruk, beti batean dagoz-nak, zeri, nai egiñari buruz auzitegian eurak ikusi edo entzun dabena ziñaldatu balegie, egizpiderik naikoa da, baldin auzien baten epaikariak epaikizunaren garrantzi andi-andiagaitik, edo lekukoak esan dabena aurka guzur-susmoen bat ete dagoanen bildurez, oraindiño egiztu beteagoa bear dala ezpaderitxo.

III Atala

Yakitunak

1792g. araua. Yakitunak deitu bear dira, legeak edo epaikariak egiñen bat egi ala guzur dan yakiteko edo zerbaiten izakera eza-gutzeko, eurok aztertu ta euren eritxia entzutea aginduten dabenean.

1793g. araua. § 1.—Yakitunak autu edo izentatzea epaikariaren esku-bidea da.

§ 2.—Auzikariak dautsen auzietan izentatze ori epaikariak egin da-gike auzikari biak eskatuta, edo batak eskatu ta besteak bere bayezkoa emonda; guztiak esaterako zer ikusi dauken auzietan, barriz, zuzen-lokarri-aldezlaria entzunda gero.

§ 3.—Legeak berak esan ezpalegi yakitunak zeinbat ixango direan, auzia zein eta zelangoa dan begiratuta yakitun bakarria ala batzuk izentau, epaikaria-ren eritxi zurraren eskubidea da.

1794g. araua. Yakitunen egitekoa da, ez guzurra esanik ez egia ixildu-rik, euren yakituria egia ta zuzena bete-erazoteko era-biltea; onetan uts balegie, 1743, § 3g. arauak aginduten dauan lez zigorkatu bediz.

1795g. araua. § 1.—Yakitun-zeregiñetarako, zeñik zein, euren Nagusi egokiak artarako gaitzat emonak autuko dira.

§ 2.—1757g. arauaren erabagiz lekuko izateko gai eztireanak, yakitun-zere-giñerako be eztira gauza.

1796g. araua. § 1.—Lekukoak langoxe ziyoakatik yakitunak be txarre-tsi daitekez.

§ 2.—Txarreste ori ontzat emon ala ez epaikariak erabagi baten bidez eba-tzi begi; ta txarrestea ontzat emon balegi, beste bat izentau bear dau.

1797g. araua. § 1.—Yakitunak, leporatu dautsen zeregiña zintzo bete-ko dabela ziñ egitorduan, zeregiña artu dabela uste da.

§ 2.—Auzikalariak ez bakarrik ziñ egitorduan, bai yakitunari leporatutako zeregiña betetorduan be bertan egon leitekez, zeraren izakerak edo lotsak bestera eskatu ezpalegi edo legeak nai epaikariak besterik agindu.

1798g. araua. Ziñ eginda gero ezarri yaken epean aginduari men eza-palegie edo bidezko ziyo barik bete gura ezpalegie, yaki-tunak ekarrirako kalteak ordaindu-bearra dauke.

1799g. araua. § 1.—Epaikariak, auzikalariak bear bada esaten dautse-zanak entzunda, yakitunaren egitekoa nondik norakoa dan zeatz ta meatz mugatu begi.

§ 2.—Azterketea noiz egin eta euren esana emon bear daben, bearreko nai egoki baderitxo, epaikariak berak erabagi dagike ta auzikariak entzunda, bai epea luzatu be.

1800g. araua. § 1.—Idatzien bat nork idatzia dan ezpaya balego, epaikariak aztertu bearreko idatziaz ganera, auzikalariak aurkezturik, beste idatzi batzuk be emon begioez alkarren aurrean aztertzeke.

§ 2.—Alkarren aurrean ikusteko idatziak zeintzuk izan bear daben, auzikalariak alkarren artean aitu ezin balira, epaikariak autu begiz auzikalariak beñola bardintzat emonak, edo idatziaren idazletzat dagoanak beñola, agiriko norbait zanean, idatziak eta agiritegietan edo beste agiriko idazkolen baten yagonda dagozanak, edo gitxienez euren izenpetzeak, ziñaldariaren esanetik nai beste agiriko norbaiten esanetik euren aurrean idatziak direala yakin ezkeru.

§ 3.—Auzikalariak eta epaikariak alkarregaz aztertzeke ekarritako idatziak, yakitunen eritxiz, ezpaya ebatzeke naikoa ezpalira, ta idatzia berea dala esaten dauana oraindiño bizi bada, epaikariak, auzikalariak eskatuta nai bere zeregiñak emoten dautsan eskubideagaz, ots egin begio epaikariarn edo bere ordezkoaren aurrean bere eskuz idatzi dagian, yakitunak, epaikariak berak nai bere ordezkoak esango dautsen guztia.

§ 4.—Idatzi nai-eza, ezezkoaren zergaitia agertu ezik, epaikizun dagoan idatzia norberena dala autortzea da, ezetzean dagoanaren kaltetan.

1801g. araua. § 1.—Yakitunak euren eritxia epaikariaren aurrean bai idatziz bai itzez agertu dagike; baña itzez egin balegie, ziñaldariak bertan idatziz yarri bear dau, eta yakitunak izenpetu.

§ 2.—Yakitunari, barriz, batez be bere txostena idatziz ezarri balegi, epaikariak bearrekotzat daukazan azaldu geyago emoteko agindu dagikeo.

§ 3.—Ezarri yaken egitekoa betetan nondik eta zelan ibilli direan eta eurak emondako txostenari zeintzuk egizpidek geyen eusten dautsen, argi erakutsi bear dabe yakitunak.

1802g. araua. Yakitunak bakotxak bere eritxia besteakandik alde emon bear dau, epaikariak, legeak ostantxekorik agindu ezik, guztiak txosten bakarra, guztiak banan-banan izenpetuta egin dagiela agindu ezpalegi; baña au egitekotan, eritxi ezbardinik balitz, bataren eta bestearen aldeak zintzo ezarri beitez.

1803g. araua. § 1.—Yakitunok erizkide eztireanean eskubidea dauko epaikariak beste yakitunagoaren eritxia eskatuteko, edo yakitun barriak artzeke.

§ 2.—Eskubide bardiña dauko epaikariak yakitunak izentauta gero zerbaiten utsa agertu balegie edo euren egitekoa bear dan lez egiteko eztireala gauza erakutsi balegi.

1804g. araua. § 1.—Epaikariak auzia epaitzeko kontuan euki bear ditu ez bakarrik yakitunen eritxiak, naita guztiak eritxi baktekoak izan, bai auziaren aztertuak erakutsitako zer guztiak be.

§ 2.—Epaitzeko ziyoak agertutorduan, yakitunen eritxiak zergaitik ontzat edo txartzat emon dauzan be esan bear dau.

1805g. araua. Yakitunen eralgiak eta lan-sariak ordaintzean toki bako-txean oitu danaren neurria artu begi legetzat, 1913, § 1 arauan esaten danaren kalte barik.

IV Atala

Epaikariaren epaikizunaren tokira yotea ta tokia begiratutea

1806g. araua. Eztabaidatzen dan zera dagoan tokira bertaratu ta gau-zea bere begiakaz ikusi-bearra daukala baderitxo epaikariari, idatzizko erabagi baten bidez yoan-bear orren ziyoak agertu begiz, eta, auzikalariak entzunda, ara ezkeru egitekoak labur-labur agertu begiz.

1807g. araua. Tokiaren ikusi ori epaikariak badagike egin bai bere entzulearen nai beste ordezkoaren bitartez be.

1808g. araua. § 1.—Epaikariak tokia begiratu onetan yakitunak be eroan dagikez bere lagun, euron lana bearrekoa nai ego-kia baderitxo.

§ 2.—Yakitunak eroan balegiz, al dan bestean, 1793-1805g. arauetan agin-dua bete bedi.

1809g. araua. Epaikariaren eritxiz asarre nai matraka-bildurrik balego, bai auzikalariak bai euren aldezlariak ara yotea galazo dagike, epaikariak tokiaren ikusketa ori egitorduan.

1810g. araua. Epaikariak, nai berak inork eskatu barik, nai ikuske-keta-aurretik, auzikalariak legez aurkeztutako lekukoak tokiratuten danean bertan aztertu dagikez, epaikizuna obeto egiztautzeke nai ikusketa erabagierazo eutsen ezpayak zeatzago kentzeko ondo baleritxo.

1811g. araua. § 1.—Ziñaldariak ezpegi aiztu ikusketa ori zein egun eta ordutan egin zan epai-agirietan ezartzea, eta nortzuk bertan zirean ikusketea egin zanean eta epaikariak be zertzuk esan, egin nai erabagi ebazan.

§ 2.—Egindako ikusketa orreri buruzko agiriak bai epaikariak bai ziñal-dariak izenpetu begiez.

V Atala

Agiri bidezko egizpidetzea

I Atalkia

Agirien izakerea ta egizpide-indarra

1812g. araua. Edozein auzitegin legezkotzat artzen da agiri-bidezko egiztatzea.

1813g. araua. § 1.—Agiriko Eleiz-agiri garrantzitsuenak oneixek dira:
1.º Euren zeregiñaren yardukeran era siñeskarrian idatzitako Aita Santuaren eta bere Idazkolaren eta Goterkizañaren agiriak; baita yatorrizko agiri orreïn zifnalpenak be, nai eurak nai euren zifnaldariak emonak.

2.º Eleiz-zifnaldariak idatzitako agiriak.

3.º Eleiz-epai-agiriak.

4.º Ugutza, sendotza, eleiz-gizontze, yauparitza, Jaunzaletza, ezkontza, eriotzari buruzko agiriak, Obispoaren Idazkolako, parrokoiko nai Jaunzaletzako agiritegietan dagozanak eta eurotatik parrokozifnaki, Goterkizañak nai eleiz-agiri idazleak ateratako agiriak eta euron iyeki siñeskarriak.

§ 2.—Laterriko agiriak agirikotzat eta zerbaít egiztatzeko zelango indarra dauken yakiteko, Laterriko legeak zer oneri buruz erabagiten dabena Eleiz-auzitegian be legezko da.

§ 3.—Bakotzak idatzitako idazki, itunben, il-buruko ta edozein idatzi bakotxaren agiriak dira eta alangotzat artu bear dira Eleiz-auzitegian be.

1814g. araua. Bai Elexearen bai Laterriaren agiriko agiriak egizkotzat artu bear dira, egizpide zindoakaz ostantxekorik erakutsi ezik.

1815g. araua. Agiria nai ontzat nai txartzat emotea auzitegian ebazkizun aurkeztu daiteke, edo beste epaikizun baten ebazkiak sortu daualako edo baita beren-beregiko auzi-gairzat be.

1816g. araua. Agiriko agiriak eurentan artez esan gura izan dabena egiztatzan dabe.

1817g. araua. Agirikoak eztirean bakotxaren idatzkiak, auzikalariak egizkotzat artua eta epaikariak be egizkotzat emona bada, idazlearen edo izenpetzallearen eta euron ondorengoaren aurka norbaitek auzitegitik kanpoan egiten dauan autortzak besteko indarra dauko; bafia berez eztauko indarrik ostantxekoai buruz.

1818g. araua. Atzamarkatuta, oker batzuk arteztuta, zer barri batzuk tartean ezarrita edo beste aldakuntza batzuk eginda agiri direan idatzkiak epaikariak ebaztekoak dira yaramon egin bear yaken, eta noraño.

II Atalkia

Agirien aurkeztutea ta aurkeztu-erazoteko auzibidea

1819g. araua. Agiriak eztauko auzitegian egizpide-indarrik yatorrizkoak edo birridatzi siñeskarriaz aurkeztua eta auzitegitiko idazkaritzan ezarriak baño, erriarentzako legeak lez erri osoarentzat argitaratuko legeak ezpalira.

1820g. araua. Agiriak legez siñeskarri izateko bear dan eraz aurkeztu bear dira eta auzitegian itxi, bai epaikariak bai auzilari arerioak begiratu al izateko.

1821g. araua. § 1.—Birridatzia zintzo eginda ete dagoalako eztabaidea sortu baledi, epaikariak, auzikalariak eskatuta, edo bai iñork eskatu barik be, birridatzia egin dan yatorrizko idatzia berbera ekarteo agindu dagike.

§ 2.—Ori egitea ezifia edo oso gatx balitz, epaikariak bere ordez entzulea bialdu dagike edo Goterkizañari eskatu agirien alkar-ikustea egin dedin, alkar-ikuste au zelan eta agirien zeintzuk atal erkatuz egin bear dan esanda; alkar aztertze onetan auzikalari biak bertan egon bear dabe.

1822g. araua. Auzikalari biai bardin dautsen agiriak, esaterako: il-burukoak eta ondasunetan ildakoaren ondorengoai dagokiezanak, ondasunen banantzeari, itunbenai eta antzekoai buruzkoak edozein auzikalari eskubidea dauko aldean daukazala diñoan auzikalariak erakutsi dagizala eskatuteko.

1823g. araua. § 1.—Alan be, eztauko iñork agiriak erakutsi-bearrik, naita auzikalari biai dautsenak izan, 1755, § 2g. arauko aginduaren legez kalte larriaren arrisku barik edo ixil-legea ausi barik erakutsi ezin daitekezanak.

§ 2.—Alan be, yakitea ondo letorkien zatiren bat kalte nai arrisku barik birridatzita erakutsi al baledi, epaikariak erakusteko agindu dagike.

1824g. araua. § 1.—Auzikalariak legez erakutsi bear litzakena eta berak daukala diñoana erakutsi gura ezpalegi, epaikariak, beste auzikalariak eskatu ezker, eta bear balitz, zuzen nai lokarri-aldezlaria entzunda, bein-beñeko epai bidez agiria erakuste ori egingo dan ala ez erabagi begi, eta egitekotan, zelan egingo be bai.

§ 2.—Auzikalariak agindu yakona egin gura ezpalegi, epaikariak dagokio ezetz orren ondorenak neurtutea.

§ 3.—Auzikalariak ukatu balegi agiria berak daukala, epaikariak arakatu dagike eta ebazkizunari buruzko zifia egiten beartu be bai.

VI Atala

Yakin barik egizkotzat emonak

1825g. araua. § 1.—Lateraz *presumptio*, alan ustezko susmoa auxeda: zerbaít ziur yakin barik egizkotzat emotea, geyen baten egia izaten dalako; bitariko da:

1.º *Legearena*, legeak berak egin balegi.

2.º *Gizakiarena*, epaikariak egin balegi.

§ 2.—*Legearena* bitariko da: *legearena utsik*, eta *legearena ta legezkoa*.

1826g. araua. Legearena utsik danaren aurka egizpidea bai arteza bai zearretikoa bidezkoztat emoten da; legearen eta legekoaren aurka, zearretarakoa bakarrik: au da, aurreztiko ustearen euskarri dan egiñaren aurkazkoa.

1827g. araua. Legearen aurretiko epaya bere alde daukanak eztauko bere eskubidea egiztau-bearrik, egiztau-bearra beste auzikalariari dagokio; onek bere eskubidea egiztatu ezpalegi, auzia legearen aurretiko epaya daukanaren alde epaitu bear da.

1828g. araua. Legeak emoten eztauzan aurre-epayak ezpegiz epaikariak emon, eztabaidatzen dan epaikizunari artez dautsela da goan ezpai bako egiñen bateri lotuta ikusi ezpalegi.

VII Atala Auzikalarien zifia

1829g. araua. Epaikizuna auzikalari batek be bere alde osoan egiztau ez-ta egizpiderik geyago ezpaleu eta egizpideen orde z epaikariak zifia egiteko edo agindu edo auzikalariak eskatuta ontzat emon balegi, zifia orreri *ordezkoa* (egizpide-ordezkoa) deritxo.

1830g. araua. § 1.—Zifia au eragin-bearra dago, batez be, nai Laterriari nai Elexeari buruzkoetan yakin gura dana yakiteko beste biderik ezta goanean.

§ 2.—Ezpegi baña epaikariak bide onetara yo ez lege-ausizko auzietan, ez eztabaidazkoetan, garrantzi andiko eskubideari nai gauzeari buruzkoa balitz, edo ardura andiegiko egiñen bateri buruzkoa, edo eskubidea, gauzea nai egiña zifia eragin gura yakonarena eztaanean.

§ 3.—Zifia au epaikariak eragin dagike epaikariak edo inork eskatu barik edo beste auzikalariak edo bai zuzen-nai lokarri-aldezlariak eskatuta be, auziko balira.

§ 4.—Geyen baten egizpiderik onenak bere alde daukazanari eragin begio.

§ 5.—Alan be, epaikariari dagokiona da orde zko zifia eragiteko bearrik dagoan ala ez, noiz eta zergaitik erabagitea.

1831g. araua. § 1.—Nai Leterrian, nai Elexean daukan lege zko bizike-reagaz zer ikusirik eztauken itaunai buruz zin eragin gura dautsen auzikalariak, bidezko ziyorik baleu, nai ezetza emoteko nai zin egin-bear ori bere arerioari ezarteko eskubidea dauko.

§ 2.—Ezetz orreri noraño ko garrantzia emon bear yakon, bidezko ete dan ala ez, ala autortzat zat emon ete leiteken, epaikariari dagokio ebaztea.

§ 3.—Auzikalari batak egindako zifiordezkaria beste auzikalariak txartzat erakusteko eskubidea dauko.

1832g. araua. Kalteen ordaña eskatuteko eskubidea agiri balitz, baña kalteok neurtu-eziña balego, kaltea egin yakon auzikalariari epaikariak eragin dagikeo eritxi batekoa deritxon zifia.

1833g. araua. Eritxi bateko zifia eragitorduan:
1.º Epaikariak eskatu begio kaltea izan eban auzikalariari berari kendu nai asmo gaiztoz ondatutako zerak zin santuaren indarrez izentau dagizala eta bere eritxian euren balioa zeinbat zan esateko.

2.º Balio ori geyegi baleritxo epaikariari, bidezko neurriera eratzi dagike gauzok erriko saldu-erosian izaten daben neurria kontuan artuta, eta, bear balitz, itandu begiz (epaikariak) yakitunak be egiaren eta zuzenaren eskubideak zain-tzeko.

1834g. araua. § 1.—Alkar aitu daitezke auzikalariak, bakarrik auzika asi-aurretik, batak egingo dauan zifia bidez eztabaidea ebazteko, baña baita auzika daragoyen bitartean eta auziaren edozein une ta egokeratan auzikalari batak, epaikariak ontzat emon balegi, besteari zifia bidez auzia ebartzat emoteko baldintzeagaz.

2.º Onetariko zifia *ebazkarria* deritxo.

1835g. araua. Zin ebazkarria ezin leiteke eragin unren go baldintzakaz baño:

1.º Auzia nai emon nai itunbenez alkar aitu leiteken zerbaite ri buruzkoa danean, eta auzikalari entzat, nortzuk direan kontua eukita, garrantzi nai saneurri larregikoa eztaanean.

2.º Gauzea nai urrurik nai trukez emon dagikenak egiña.

3.º Urrurik nai trukez emon dagikenarentzat, berak be bere eskubidea osoan egiztau ezin dauala.

4.º Egin baten barri utsari edo zifia eragiten yakonaren egiñari buruzkoa danean.

1836g. araua. § 1.—Zifia au eragitea kendu dagike eragin dauan auzikalariak, egin baño lenago edozein unetan; eta beste auzikalariak ontzat artu eta egin be bai, edo ez, nai arerioarentzat itxi.

§ 2.—Zifia egin balegi, auzia ebartzita dago zifiaz ontzat emon dan eraz, lege zko epayez nai itunbenez ebazti balitz lez.

§ 3.—Zifia egin gura izan ezik eta arerioari be itzul-zifia eragin ezik, epaikariari dagokio ezeko oneri noraño ko garrantzia emon bear yakon ebaztea: edo bidezko ziyok bere alde ete daukazan, ala autortzat zat artu leiteken.

§ 4.—Arerioari zifia egin-bearra itzuli ezker o, onek zin egin bear dau; bestela auzia galduta dauko.

§ 5.—Zifia arerioari itzuliezarri al izateko, bera eragiteko bear direan zer berberak bear dira; beraz, epaikariak be zeregin bardiña dauko.

XI IDAZPURUA

Bide batezko auziak

1837g. araua. Bide batezko deritxo, gitxienez epaikariaren deyaren bidez auziaren ebazketeari asiera emonda gero, auzikalari batak edo zuzen-aldezlari nai lokarri-aldezlariak auzia epaite-gian sartzeko idaztiñoan agirian sartuta egon ez arren, geyen baten epaikizun nagusia baño lenago ebatzi bear izateko auzi nagusiagaz alkartuta dagoan auziari.

1838g. araua. Bide batezko auzia nai agozko itzez nai idatziz aurkeztuten da, bera ta auzi nagusiaren artean dagoan lokarria agertuten dala eta 1706-1725g. arauen aginduak al dan bestean beteteran direala.

1839g. araua. Nai itzezko nai idatzizko aurkeztua epaikariak artu ezkerro, auzikalariak eta, bear bada, zuzen nai lokarri-aldezlariak be entzunda, begiratu begi epaikariak aurkeztutako bide batezko auzi ori ganora bakoa eta auzi nagusia luzatutearren bakarrik sortua ete dan; baita auzi nagusia epaitu baño lenago ebatzi bear dana ete dan. Olangoa balitz, auzitegiko atea zabal begio; ostanxean, erabagi baten bidez auzitegiko atea itxi begio.

1840g. araua. § 1.—Bide batezko auzi ori benetako auzi-bidez ebatzi bear dan ala ostantxeko erabagi baten bidez, epaikariak, arazoa zelangoa ta zeinbestekoa dan begiratuta, ebatzi begi.

§ 2.—Bide batezko auzi ori auzi-epai-bidez erabagi bear baledi, al dan giñoan beste auzi-epaibideko legeak bete begiz; begiratu begi, baña, epaikariak ebazteko ezarten dautsan epea alik eta laburrena izan daiten.

§ 3.—Auzi-epaibidetik ibili barik, erabagi baten bidez bide-batezko ebazkizun au legezkotzat artu nai artu ez ebatzi balegi, ebatzi orretan artarako izan dauzan zioak, nai ta labur, agertu begiz, bai legeari bai auziari buruzkoak.

1841g. araua. Auzi nagusia burutu arte epaikariak bide batezko epayari emondako epaya bidezko ziyoz aldatu nai ausi dagike, nai bere burutik auzikalariak entzunda, nai auzikalari bata entzunda, nai auzikalari batak eskatuta ta bestea entzunda, ta tartean balira, zuzen nai lokarri-aldezlariaren eritxia beti eskaturik.

I Atala **Setakeria**

1842g. araua. Bidezko ziyo barik ez bera ez iñoren bitartez auzitegira epaikariak deituta auzitua agertu ezpaledi, auzi-igestzat emon daiteke.

1843g. araua. § 1.—Ez dagike baña epaikariak erruduna auzi-igestzat emon, lenago agiri ezpaledi:

1.º Legez egindako deya garaiz eldu yakola edo eldu yakola beintzat.

2.º Ez etorriaren ziyorik ganorazkorik ez dauala emon.

§ 2.—Baldintzak egiztau daitekez edo errudunari etorri-eza zurituteko egiten yakon bigarren deyaren bidez edo edozelan.

1844g. araua. § 1.—Auzilariak nai berak, nai zuzen-aldezkariak edo lokarri-aldezkariak, izatekotan, eskatuta, epaikariak auzitua auzi-igestzat emon dagike, eta epai ori emon ezkerro, bete-bearrak bete ezkerro, auziaren epaibidean yarraitu, atzenengo epaya emon eta betetaraño.

§ 2.—Auzituak auziari erantzunik emon barik atzeneko epaya emoteraño eldu baledi, epayak ezin dagike auzia epaitu auzia eskatzeko idaztiñoan eskatuai buruz baño; auziari erantzun baleutso, erantzun yakon auziari buruz baño ez.

1845g. araua. § 1.—Epaikariak, baña, auzituaren gogorkeria austeko, bere deyari eleiz-zigorketearen zemaya be ezarri dagikeo.

§ 2.—Zigor zemaitsuak ezarri nai izan ezkerro, deya barriro egin bear yako zigor-zemayagaz; eta orduan be ezin leiteke auzi-igestzat emon, edo emonda gero zigorrik ezarri, bigarren dei ori alperrikoa izan dala erakutsi barik.

1846g. araua. Auzia amaitu baño lenago auzi-igesia damutu baledi, ta auzitegian aurkeztu, bere burua zurituteko dakarzan egizpideak, baten batzuk balekarz, entzun egin bear dira; orraitio begiratu begi epaikariak luzapen larregi ta ez bearrekoakaz epaya asmo gaitoz atzeratu ez daiten.

1847g. araua. Epaya emonda gero, barriz, auzi-igesak eskubide osoa atzera emoteko eskatu dagike epaya emon dauan epaikari agandik gora yoteko; alan be ez, epaya iragarri yakon ezkerro iru illabete baño geroago, epaya iñoiz betiko epairik eztaukan zerbaitei buruzkoa ezpaledi.

1848g. araua. Lelengo deyari erantzun arren, gero auzi-bitartean errudun egin baledi be, emen goragoko arauak ezarri bear yakoz.

1849g. araua. Deyako aginduaren arauz auzitua epaikariaren aurrera agertuten dan egun eta orduan auzilaria agertu ezpaledi, ta ez agertuaren zuribiderik arean be emon ezpalegi edo susterrik naikoa daukanik, epaikariak, auzituak eskatuta, barriro deitu begi, ta auzilariak bigarren dei orreri be erantzun ezpalegio, edo geroago auziaren ebazketea asita gero yarraituteari itxi balegio auzituak nai zuzen-aldezlariak edo lokarri-aldezlariak eskatuta, epaikariak auzi-igestzat emon begi, emen goragoan auzitua auzi-igestzat emoteko arauen aginduak zainduta.

1850g. araua. § 1.—Auzilaria auzi-igestzat iragarri ezkerro, amaituta dago onen eskubidea zuzen-eske ekiteko.

§ 2.—Etxake, baña, galazoten zuzen-aldezlariari nai lokarri-aldezlariai auzia euren kontura artu ta azken-epaya artu arte berari ekitea, erriaren onak alan eskatuten dauala deritxoenean.

§ 3.—Auzituak, barriz, eskubidea lortuten dau nai auzitik erru barik alde egiteko baimena eskatuteko, nai ordurartean auziari buruz egindako guztiak alperrikotzat emon daitezcan, nai auzilariak bere aurka eskatu ebanari buruz betiko azke emon dagien, nai auzia, auzilaria bertako izan ez arren, azken-epayaraño yarraituta legez amaitu daiten.

1851g. araua. § 1.—Auzi-igestzat emonak erru orreri buruz bere burua garbitzen ezpadau, auzilaria dala, auzitua dala, zigortua izan bedi bere gorgorkeriagaitik egindako diru-eralgiketak ordaintzera, eta baita beste auzikalariari eragin dautsazan kalteak osatutera be.

§ 2.—Bai auzilaria bai auzitua biak balira errudun, bata nai bestea auziaren eralgi guztiak ordaintzera beartuta begoz; bataren utsean bestea.

II Atala

Auzian nastuten dan irugarrena

1852g. araua. § 1.—Auzian zer ikusi leukakena auziaren edozein mailatan auzilaritzat artu daiteke.

§ 2.—Artuteko, baña, artarako eskubidea labur bada be erakutsi bear dauan idatzia emon bear dautso epaikariari epaiketea amaitu baño lenago.

§ 3.—Epaiketean auzilari-arteko lez artzen dana, epaikizuna aurkitzen dan egotaldian artu bear da, bere egizpideak aurkeztuteko epe laburra ta luzatu-ezifiekoa, epaikizuna egiztatu-aldira elduta balego, emoten yakola.

1853g. araua. Irugarren au auzi-epaiketan auzilari-arteko artutea bearezko agertu baledi, epaikariak, auzikalariak eskatuta nai bere buruz, iñork eskatu barik be agindu dagike.

III Atala

Auzi bitarteko lege-ausiak

1854g. araua. Auziaren kalteko lege-ausia da auzia epaikariaren eskutetan dagoan artean zerbait aldatutea nai epaikariak auzikalari bataren nai bestearen nai bien kaltez, auzikalari batak gura eztauala eta bere kaltez, bai aldatute ori epaikizunari dagokiona dala, baña 1672, 1673g. aginduen kalte barik, bai auziari buruzko egiñen batzuk egiteko legeak nai epaikariak auzikalariari izentautako epeai buruzkoak direala.

1855g. araua. § 1.—Aldakuntzok legeak berak beste barik alperrikotzat emoten dauz.

§ 2.—Beraz aldakuntzok kaltea ekarri dautsen auzikalariak eskubidea dauko alperrikotzat agertu dagiezala eskatuteko.

§ 3.—Auzibide au epaikizun nagusiaren epaikariaren aurrean agertu bear da; baña aldakuntzea bide dala auzikalari kalteztuari susmogarri bayako epaikariak susmo-eragozpidea aurkeztu dagikeo, eta orduan 1615g. arauak aginduten dauan lez yokatu bear da.

1856g. araua. § 1.—Aldakuntzeari buruzko auzia epaitu artean, auzi nagusia geldi dago geyenetan; baña epaikariak egokiago uste balegi, aldakuntzeari buruzko auzia auzi nagusiagaz batera begiratu ta epaitu dagike.

§ 2.—Aldakuntzeari buruzko auziak beingoan begiratu bear dira ta epaikariaren erabagi baten bidez epaitu be, auzikalariak eta zuzen-aldezlariak nai lokarri-aldezlariak, auziko balira, entzunda gero.

1857g. araua. § 1.—Aldakuntzea egiztau ezker, epaikariak edo osoan kendu edo garbituteko agindu bear dau.

§ 2.—Aldakuntzea indarrez nai maltzurkeriz egin baledi, egin ebanak auzikalari kalteztuari kalteen ordaña emon-bearra dauko.

XII IDAZPURUA

Epaibidearen argitaratzea, epaiketearen atzena ta epaikizunaren buruzko eztabaidatzea

1858g. araua. Auzia eztabaidakatu aurretik eta atzen-epaya emon orduko, agirietan dagozan eta orain artean ixilik yagon direan egizpide guztiak argitaratu bear dira.

1859g. araua. Epaibideko agiriak ikusi ta euren birridatzia eskatuteko eskubidea auzikalariari ta euron aldezkariari emon ezker, epaibidea argitaratuztat dago.

1860g. araua. § 1.—Egizpideak aurkeztuteari buruzko zer guztiak amaitu ezker, epaikizunari atzena emotera igaro bear da.

§ 2.—Atzen au emoten yako edo auzikalariak epaikariaren itaunari eztaukela ezer geyago aurkeztuteko autortzen dautsenean; edo egizpideak aurkeztuteko epaikariak izentau dautsen epea osorik igazi ezker; edo epaikariak epaikizuna naikoa egiztauta daukala agertzen dauanean.

§ 3.—Epaikizunaren atzena eldu ezker, edozelan elduta be, epaikariak epaya emon bear dau.

1861g. araua. § 1.—Epaikizunari buruzko asterkatzea amaitutzat emon ezker galazota dagoz egizpide barriak ekarri-artuteak, iñoiz betiko amaitutzat emoten eztan auzien bateri buruzkoak ezpalira, edo oraintxe lelenoz aurkituak ezpalira, edo lenago legeko eragozpideen bategaitik aurkeztu ezin izan zirean lekukoak ezpalira.

§ 2.—Egizpide barriak artu bear direala zuzen baderitxo, beste auzikalari entzunda gero, epaikariak alan erabagi begi; baña beste auzikalari orreri erea ta astia emon bear dautoz, egizpide barriok begiratu ta euron aurka bere eskubidea aldeztuteko; osterantxean, auzia alperrikoa litzake.

1862g. araua. § 1.—Epaikizunaren egizpidetzea amaitu ezker, epaikariak bere buru zurrak difotsona entzunda, auzikalariak epe egokia izentau bear dautse bakotzak bere eskubidearen aldezpideak, nai eurak nai euren aldezlarien bidez, aurkeztu dagiezan.

§ 2.—Epe ori luzatu dagike epaikariak auzikalari batak eskatuta ta bestea entzunda; edo baita laburtu be, auzikalari biak artara etorri balediz.

1863g. araua. § 1.—Aldeztutea idatziz egin bear da, ta geyen baten epaikaririk aña iyekitan, epaikari bakotxari iyeki bana emoteko.

§ 2.—Zuzen-lokarri-aldezkariak be, auziko balira, emon bear yake iyeki bana; ganera auzikalari biak iyekiak alkarren artean trukau bear dabez.

§ 3.—Epaitegiko Buruak bere eritxiz bearreko danean eta auzikalarien kalte larregi barik egin daitekenean, lege-gizonen aldezetak eta epaikizunari buruzko egizpide-agiri garrantzitsuenak auziaren mamia labur emoten dauan idaztiño baten irarri daitela agindu dagike.

§ 4.—Ori erabagi balegi, eskuz idatzia erakutsi barik eta irarteko baimena barik eztaitea ezer irarri agindu begi; ganera zerbait ixilik zaindu bear balitz, begiratu begi ixil ori ausi eztaiten.

1864g. araua. Batzar-epaitegian maipuruari dagokio aldezlarien lanai luzeegiak ivan eztaitezan neurriak ezartea, epaitegiko lege bereziz zer oneri buruz ezer aginduta ezpalego.

1865g. araua. § 1.—Auzikalarien artean alkarren egizpide-idatziak erakutsi ezker, zillegi yake auzikalari biak epaikariak izentauko dautsen epe laburrean euren erantzunak emotea, 1864-1865g. arauetan agindutako oarrak zainduta.

§ 2.—Eskubide ori auzikalariak bein bakarrik emon bekie, ziyo aztunen bategaitik epaikariari barriro be emotea zuzen ezpaleritxo; ori egin balegi, auzikalari bateri emondako eskubidea besteari be emon yakola uste izan bear da.

1866g. araua. § 1.—Irtzeko azalpenak au da, lege-gizon auzikalariaren aldezlariak epaikizunari buruzko legeak eta epaikizun dan egiñari buruzko zerak erakusteko egingo leukiezan itzaldiak galatota dagoz.

§ 2.—Izten yake orraitio epaitegian yezarrita dagozan epaikarien aurrean zerbait argituteko neurrizko eztabaidatxoak eukiten auzikalari biak nai batak eskatuta epaikariak ondo etorriko yakela uste izan balegi.

§ 3.—Eztabaidau lortuteko auzikalari batak beste auzikalariagaz eztabaidatzeko erabakizunak zerrenda idatzian eta itz gixitan agertuta aurkeztu bear da-

bez; epaikariari dagokio barriz auzikalari batari bestearenak erakustea ta eztabaidatzeko egun eta ordua izentautzea ta gero eztabaidea zuzendutea.

§ 4.—Eztabaida orretan bego bertan epaitegiko zifaldari bat be, epaikariak agindu balegi, edo auzikalariak eskatu eta epaikariak bayetz erantzun balegi, eztabaida orretan eztabaidatu, autortu nai bayezkotzat emonen txostena bertan lege dan lez egiteko.

1867g. araua. Eztabaidazko auzietan auzikalariak bakotzak bere eskubideak aldeztuko ezarri yaken epe-barruan egin ezpadabe, edo epaikariaren yakituri ta yatortasunari izten badautse auziaren epaya, auziketari ekin eta egizpidetu danetik epaikizuna oso argi agiri baledi, epaya geyagoko barik emon dagike.

XIII IDAZPURUA

Epaya

1868g. araua. § 1.—Auzikalariak aurkeztutako ta epaikariak aztertutako epaikizuna epaikariak ebazten dauan legeko ebatzia da epaya; bitartekoa deritxo, bide batezko auzitxo ebatzi balegi; atzenekoa, auzi nausia ebazten dauanean.

§ 2.—Ganeko epaikariaren ebatziak erabagiak deritxoe.

1869g. araua. § 1.—Edozein epai emoteko epaikariak ezpai barik yakin bear dau ebazten dauana berak difoana dala.

§ 2.—Ezpairik-ez ori auziaren epaibidean agertu ta egiztau direanetatik atera bear dau.

§ 3.—Egizpideak begiratu ta neurtu bear ditu epaikariak bere barruak esaten dautsana entzunda, legeak agirian erabagi ezpalegi zeinbesteko indarra dauken alango egizpideren batek.

§ 4.—Ezpai-ezik ezin atera izan dauan epaikariak auzilariaren eskubidea ez tala agiri ta auzitua azke emon bear dau, auzia legea bere alde daukanetikoa ezpalitz; olangoa balitz, epaya legea bere alde daukanaren alde emon bear dau, eta 1967, § 2g. arauaren aginduaren kalte barik.

1870g. araua. Epaya epaikizunaren eztabaidatzea amaituta gero emon bear dau epaikariak; ta epaikizuna naspillatua ta eztabaideen beroagaitik edo egizpideen askotxoagaitik egoskatxa balitz, epaikizunaren amaya ta epaya emotearen bitartea luzatu daiteke, epaya bear dan lez argi ta garbi emoteko.

1871g. araua. § 1.—Batzar-epaitegian epaya eztabaidatzeko zein egun eta ordutan batuko direan batzar-buruak izentau begi, eta epaikizun berezien batek besterik eskatu ezik, beti epaitegian bertan euki bedi batzarra.

§ 2.—Batzar-eguna izentau ezker, ebatzira elduteko izan dauzan bai egiñari

bai legeai buruzko egizpideak eta ebatziak auziaren agirien artean begoz, ixil-legepean yagoteko.

§ 3.—Lelengoetarik asita batak bestearen ostean, baña beti auzi-txostenlaririk balego beragandik asita, bakotxak bere ebatziak irakurri begiz, eta gero batzar-buruak zainduta eztabaidatze egokia euki bedi, batez bere epayaren erabagiak ekarriko dauzanetan zer ezarriko dan ebazteko.

§ 4.—Eztabaidatzaldian zillegi yako edonori lenagoko bere eritxitik alde egitea.

§ 5.—Lelengo eztabaidatzaldian epaikariak atzeneko epaya osorik emon gura edo al izan ezpalebe urrengo batzarrenarte luzatu dagike; orraitio batzarra ezin leiteke aste bete baño geyago luzatu.

1872g. araua. Epaikaria bat bakarra baledi, berak bakarrik erabagi bear dau epaya; batzar-epaitegian bete bedi 1584g. arauarren agindua.

1873g. araua. § 1.—Epayak egin bear dau:
1.º Ebatzi epaitegiaren aurrean erabillitako eztabaide edo epaikizuna; edo auzitua bere aurka aurkeztutako eskatuari nai salatuari buruz errudun edo errubakotzat edo benetan gaixtotzat emon, bere aurka aurkeztu daban eskari edo salakuntzai erantzun egokia emoten yakela.

2.º Erabagi (al giñoan beintzat eta auzi-gayak izten dauan neurrian), erruduntzat emondako auzituak zer emon, egin, bete edo yasan bearko dauan edo zer egin bear eztauan; baita zelan, non eta noiz aginduten yakona bete bearko dauan.

3.º Erabagiak dakarzan zatiari eusten dautsen egizpideak edo ziyoak jaso.

4.º Auziaren eralgiak erabagi.

§ 2.—Batzar-epaitegian epai-idazleak eztabaidaldian epaikari bakotxak ekaritakoetatik artu begiz epai-ziyoak epaikaririk geyenak lendik erabagi ezpalebe zeintzuk ziyo atzenengo epayan sartu.

1874g. araua. § 1.—Epaya beti asikeran Jaunaren izena aitatuta emon bear da.

§ 2.—Urrengo, epaikaria edo epaitegia zein dan aitatu bear ditu. auzitua ta ordezkoa nortzuk izan direan bakotxaren izena ta abizena eta bizitokia izentaurik; zuzen-lokarri-aldezlariak be auziko izan balira agertu bear ditu.

§ 3.—Auzikalariak esan dabenetik aterata auziaren edestitxoak ekarri bear dau.

§ 4.—Zer orrein urrengo, betor epayaren erabagiak dakarzan zatia, erabagien legezkotasuna erakusten daben egizpideak aurretik ezarrita.

§ 5.—Atzenean, bekarz zein egunetan eta non emona dan, epaikari bakarrak nai guztiak, batzuk izan balira, ta ziñaldariak izenpetuta.

1875g. araua. Orreik zaindu bearrok bete bear dira batez be atzeneko epayan, baña al giñoan bide batezko auzien epayetan be bai.

1876g. araua. Olan idatzitako epaya len baño len argitaratu bedi.

1877g. araua. Epaya irutara argitara daiteke:
a) Edo auzikalariak deituta, epaikariak epaikari-zurrian epaitegian yezarrita ospatsu irakurriko dautsena entzunda.

b) Edo auzikalariak epaitegiko ziñaldariaren eskuetan dagoala iragarriaz, eta bera irakurri ta bere iyeki bana eskatuteko eskubidea dabela.

c) Edo amaitzeko, alan egiteko ekandua legokenean, erriko ziñaldariaren bidez epayaren iyeki bana 1715g. arauaren aginduaren eraz auzikalariak bialduta.

XIV IDAZPURUA

Epayaren aurkazko zuzen-bideak eta iges-bideak

1878g. araua. § 1.—Nai epayaren erabagiak dakazan atala nai yazoak eta auzikalarien eskeak idazkeran, nai autarki bolatxoak emokeran yazotako oarkabeko okerren bat balitz, oker ori epaikariak berak zuzendu dagike.

§ 2.—Onetariko okerra zuzentzera auzikalari batak eskatuta emondako erabagi baten bidez yoan daiteke, beste auzikalariak aurka agertu ezpaledi.

§ 3.—Beste auzikalariak aurka ager baledi, bidezko epaikizun au 1840, § 3g. arauaren arauzko erabagi baten bidez egin bedi; eta erabagi ori zuzendutako epayaren azpian ezarri.

I Atala

Gora yotea

1879g. araua. Epaya okertzat artzen dauan auzikalariak, baita zuzen-nai lokarri-aldezlariak be, zer ikusi eben epaikizunetan epayaren aurka gora yoteko eskubidea dauke; au da, epaya emon eban azpiko epaikariagandik goragoko epaikariagana yoteko, 1880g. arauaren aginduaren kalte barik.

1880g. araua. Eztago gora yoteko eskubiderik:
1.º Aita Santu berberaren edo Aita Santuaren gorengo epaitegiaren epaitik.

2.º "Appellatione remota" gora yoterik barik esanagaz Aita Santuak ordeztutako epaikariaren epaitik.

3.º Legez utsa dan epaitik.

4.º Epaitutako auzia izateraño eldu dan epaitik.

5.º Auzi ziñ ebazkarriak sendotutako atzen-epaitik.

6.º Epaikariaren erabagitik edo atzenengo epayaren indarrik eztaukan auzibidezko epaitik atzen-epaitik gora yoteagaz batera egin ezpalegi.

7.º Zerbait beingo-beingoan erabagi bear dala legeak aginduten dauan auzitik.

8.º Auzi-igesaren aurka emondako epaitik, setakeritiko errutik bere burua garbitu arte.

9.º Gora yoteko eskubideari berak idatziz uko egiten eutsala emondako epayaren aurka.

1881g. araua. Gora yote ori epaya emon eban epaikariaren aurrean epaya emonda egoalakoaren barria artuta amar egun barru egin bear da.

1882g. araua. § 1.—Gora yote ori agoz be egin daiteke epaikaria epaitegian bertan epaikari-zurrian yezarrita dagoala, epaya agirian bertan dagozan guztien aurrean irakurri baledi; eta olan agoz egiña, epaitegiko ziñaldariak bertatik idatzita ezarri bear dau.

§ 2.—Ostantxean, idatziz egin bear da, 1707g. arauko aginduaren kalte barik.

1883g. araua. Gora yote orreri yo dan epaikariaren aurrean ekin egin bear yako eginda illa-bete-barruan, beragandik yo dauan epaikariak epe luzeagoa emon ezpaleutso.

1884g. araua. § 1.—Gora-yoteari ekiteko bearreko ta naikoa da auzikariak ausi gura dauan epayaren aurkazko ekiñean goragoko epaikariaren lana eskatutea, erabatera okertzat daukan epayaren iyekia eta beragoko epaikariari erakutsi eutsan gora yotearen idaztiñoa aurkeztuaz.

§ 2.—Beko epaitegiko epaikariak gora yoteko ezarri eutsan epe-barruan ausi gura dauan epayaren iyekirik eskuratu ezin izan balegi, bitarten epe-mugak geldidagoz eta eragozpena yo dauan epaikariari agertu bear dautso, ta onek beko epaikariari agindu-bidez bere egin-bearra bete-eragingo dautso.

1885g. araua. § 1.—1773g. arauan aitaturako yazoerea gora yoteko emon eutsen epe-barruan yazo baledi, baña gora yo baño lenago, epaya ardura dautsenai iragarri bear yake ta legez gora yoteko egunak epaya iragarri yaken egunetik asita emon yakezala uste izaten da.

§ 2.—Gora yota gero yazo baledi, aurkeztutako gora yotea iragarri begie; eta gora yoteari ekiteko epea yazoaren barria iragarri eutsen egunetik asten da.

1886g. araua. Luzatuezin leitekezan gora yoteko epeok nai beko nai goiko epaitegian ezer egin barik igaroten itxi balegiz, gora yote ori betiko itxitzat emon bear da.

1887g. araua. § 1.—Auzilariak egindako gora yotea auzituarentzat be gauza da; bardin, okerretara balitz be.

§ 2.—Auzikalari batak epayaren atalen bategaitik, beste auzikalariak, gora yoteko epea yoanda egon arren, beste atal batzukaitik gora yo dagike; eta au egin dagike, beste auzikalariak goyan ekiteari itxiko baleutso, berak be izteko baldintzapean.

§ 3.—Epayak zati asko balitu, ta gora yo dauanak batzuk bakarrik aldatzea eskatu, beste atalak ontzat emoten dauzala uste izan bear da; zatirik izentau ezpalegi, danaren aurka dagoala uste izan bear da.

1889g. araua. *Eten indarra* daukan gora yoteak beko epaitegiko epaya betetea galazo egiten dau; orregaitik legez ezarten yako arako esana "*lite pendente nihil innovetur*". Au da: *auzi-bitartean expedi ezer aldatu*. Goragoko epaitegiak beko epaitegiaren epaya ontzat emon ezik, beko epayak kendu dautsazanak atzera emongo yakozalako baldintzeagaz emondako beko epaikariaren epaya bitartean bete egin bear da.

§ 2.—Auzibidezko gora yoteak eten-indarrezkoak dira besterik agirian esan ezik eta 1917, § 2g. arauaren aginduaren kalte barik.

1890g. araua. Gora yotea egin ezker beko epaitegiak goragoko epaikariari auziaren agiri guztiak bialdu bear dautsaz, yatorrizkoak legez bardiñ egindako aldakitan, yatorrizkoak eurak bialtzea gurago izan ezpalebe, 1664g. arauak diñoan lez.

1891g. araua. § 1.—Gora yotako epaitegian ezin leiteke aurkeztu auzibide barririk, ezta lengoaren lagungarritzat be; orregaitik auziaren eztabaidatzea onexeri buruz bakarrik egin bedi: lengo epaya aldatu bear dan ala ez, nai osoa nai zatia.

§ 2.—Orraitio, agerkai barriak eta egizpide barriak aurkeztu ezker, auzi barria ikusi be egin leiteke, 1786, 1861g. arauak erabagiten daben lez.

II Atala

Epai alperraren aurkazko auziak

1892g. araua. Gatx osatu-eziñak yota dago epaya:
1.º Alik arean eztaukan epaikariak edo batzar-epaitegian 1576, § 1g. arauaren aurka legeak aginduten dauzan beste epaikari eztiarenak emona.

2.º Gitxienez auzikalari batek auzika ekiteko nortasunik eztaukenaren artean emona.

3.º Norbaitek iñoren ordez legezko agindu barik diarduanean.

1893g. araua. 1892g. arauan aitaturako epayaren utsa auzibidetik iges egiteko beti aurkeztu daiteke; auzi-bidez, barriz, epaya emon eban epaikariaren aurrean epaya argitaratu zanetik ogeta amar urte barruan.

1894g. araua. Epayak osatu daiteken gatxa dauko:
1.º Legezko deirik izan etzanean.

2.º 1605g. arauaren erabagiaren kalte barik, epayaren ziyo ta egizpiderik eztaurrenean.

3.º Legeak agindutako izenpetze bakoa danean.

4.º Noiz emon zaneko urte, illabetea, eguna ta tokia ezarrita ezta karzanean.

1895g. araua. 1894g. arauan aitaturako utsa dauken epayen aurka gauzaeza dalako auzibidea aurkeztu daiteke edo gora yoteagaz batera amar egun barru, edo banazezan eta uts-auzia lez epaya argitaratu zanezkeru iru illa-bete barruan, epaya emon eban epaikariaren aurrean.

1896g. araua. Okertzat emondako epaya emon eban epaikariak bere barrua lendik okertuta ete daukanen bildurra baleu auzikariak, ta, beraz, susmogarriztaz zuzen badauko, beste epaikari bat eskatuteko eskubidea dauko, bertako mallan lengoaren orde 1615g. arauak aginduten dauan lez bere auzia epaitzeko.

1897g. araua. § 1.—Uts-auzia aurkeztu dagike kalteztuak izan direala uste daben auzilariak eta bai zuzen nai lokarri-aldezleriak be, auziko izan balira.

§ 2.—Epaikariak berak be inork eskatu barik barru begiratu ta arteztu dagike berak emondako epaya, auzia arteztuteko emen goyan izentau dan epe barruan.

III Atala

Epayaren irugarren arerioa

1898g. araua. Auziaren atzeneko epayaren erabagien batek auziko izan ez tireanen eskubideen batzuk zauritu balez, euren eskubideak zaintzeko bide berezia dabe, *irugarrenaren aurka* egitea deritxona. Eskubide onen bidez epayak euren eskubideai kalte egin dautsela bildur direanak, epaya bete aurretik, zuzentzat ez emoteko ta aren aurka ekiteko bidea dauke.

1899g. araua. § 1.—Aurka egite orreri ekiten dautsanaren aukeran dago nai epaya emon dauan epaikari berari epaya barru ikusteko eskatzea, nai goragoko epaikariagana yotea.

§ 2.—Batean nai bestean epayaren aurka ekin gure dauanak epayak bere eskubideai benetan kalte egin edo egingo dautsela erakutsi bear dau.

§ 3.—Kalteak orraitio epayak berak sortua izan bear dau, edo bera dalako kalte gillea, edo berak agindua egin baledi, kalte andia ekarriko dautsalako.

§ 4.—Ez bata ez bestea egiztau ezik, epaikariak, irugarren arerio au gora-bera, epaya bete daitela epaitu begi.

1900g. araua. Auzi-eskariari bayetz erantzun ezkeru, arerio onek gora yotako mallan auzikatu nai balez, gora yoteari buruzko legepean dago; epaya emon eban epaikari berberaren aurrean balitz, barriz, legeko auziarentzat emondako legeak bete bear ditu.

1901g. araua. Arerioak auzia irabazi balez, len emondako epaya epaikariak aldatu egin bear dau arerio onen eskariaren arauz.

XV IDAZPURUA

Betiko epaitutako auzia ta dana barru beñolako egokerara biurtzea

1902g. araua. Auzia betiko epaituta dago:

1.º Epai bardin bi izan baditu.

2.º Atarako legeko epe-barruan bere aurka gora yo eztan epayagaz epaitua bada; edo norgandiko epaikariaren aurrean gora yo arren, norganako epaikariaren aurrera aurkeztu ezpada.

3.º 1880g. arauak diñoan lez gora yoterik eztaukan epai bakarragaz epaitua bada.

1903g. araua. Ez tira inoiz betiko ebatziak izateraño elduten bizikereari buruzko auziak, baña epai bardin bi izan ezkeru, etxako auzi barru epaitegian aterik zabaldu bear, egizpide edo agiriak eta benetan garrantzi andikoak aurkeztu ezpalez.

1904g. araua. § 1.—Betiko epayagaz epaitutako auzia lege artzen da eta artu bear da egizko ta benetakotzat eta eztago artezean aren aurka ezer egiterik.

§ 2.—Auzikarientzat lege da, eta berari buruzko auzi barru legeko eragozpidea yarteko eskubidea sortu daroa.

1905g. araua. § 1.—Auzi epaituaren okerra agiri-agiriko baldin balitz, gora yotearen nai uts-auziaren igespiderik eztaukan epayaren aurka dana barru beñolako egokerara biurtzeko igespidea dago 1688g. arauaren neurrian.

§ 2.—Okerrik agiri danik ezta uste izaten:

1.º Gero guzurrezko agertu direan agiriakaitik emona dala agiri ezpalez.

2.º Egin barru eta osteango epaya eskatutena *osoan* egiztauten dabezan agiriak geroagoan agertu ezpalediz.

3.º Auzikari bataren maltzurkeriz epaya beste auzikariaren kaltez emona agertu ezpaledi.

4.º Legezko agindua agirian baztertu ezpaledi.

1906g. araua. Auzia barru epaitzea emoteko gauza epaya emon dauan epaikari berbera da, legearen agindua baztertu ebalako eskatu ezik. Ori yazo balitz, gora yo daneko auzitegiari dagokio eskatua emotea.

1907g. araua. § 1.—Auzia barru osoan epaitzeko eskatuak oraindiño betetan asi eztan epaya eskegita izten dau.

§ 2.—Alan be, baleitezko aztarnakaitik bakarrik epaya betetea luzatutearren eskaria egin ete dalakoaren susmoa artu balegio, epaikariak agindu dagike epaya betetzea; baña auzia barriro osoan epaitzea eskatuten dauanari, berea atzera biurtuko balitzakio, bitartean kalterik artu eztagian baiturea izentaurik.

XVI IDAZPURUA

Auziko eralgiak eta urruriko babesca

I Atala

Auziko eralgiak

1908g. araua. Eztabaidazko auzietan auziko eralgiak direala-ta, auzikariak zerbait ordaintzen beartu daitezke, 1914-1916g. arauen neurrian bear onetatik azkatu ezik.

1909g. araua. § 1.—Auziko eralgiak direala-ta, auzikariak zer ordaindu bear daben erabagitea Obispo-buru-erkiko Batzarrari dagokio edo Obispoen Batzarrari:

a) aldezlariari ta ordezlariari euren lanaren ordañez auzikariak zer ordaindu bear dauksen.

b) Mintzoera batetik bestera aldatutearren zer ordaindu bearoko.

d) Agerkayak barriro idatziaren ordañez zeinbat ordaindu bearoko.

e) Agerkai barriro idatziok begiratu ta euron zintzotasunaren buruzko zifaltzea emotearren zer ordaindu bearoko.

f) Agiritegiko agiriak barriro idatziaren ordañez zer ordaindu bearoko.

§ 2.—Epaikariari dagokio, barriz, alan baderitxo, agindutea:

a) Agiri-zañaren eskuetan yarteko auziari buruzko eginberrak egiteko bear dan dirua.

b) Lekukoai zor yakena zeinbat izan bear dauan eta emoteko.

d) Yakitunai euren lan-saritzat izentauta daukana ordaintzeko.

e) Eralgiok auzia eskatu dauan auzilariak ordaindu bear ditu.

f) Auzia, iñork eskatu barik, epaikariak bere zeregiñak beartuta yarri balegi, eralgiok ordaintzeko dirua auzilariak auzitegiko agiri-zañaren eskuetan ezarri begi, edo gitxienez eralgiok ordaintzeko diruaren emona egiteko bere burua beartu begi.

1910g. araua. § 1.—Auziko eralgiak geyen baten auzia galdu dauanak irabazi dauanari ordaindu bear dautsoz.

§ 2.—Nai auzilariak nai auzituak auziari suster barik ekin balegio, beste auzikideari ekarritako kalteak ordaintzen beartu bedi.

1911g. araua. Bai auzilariak bai auzituak auzia zati baten bakarrik galdu balebe, edo auzia senide nai aide artekoa izan baledi, edo auzia ebazkizun oso gatxekoa izan baledi, edo beste edozein ziyo aztuna-

gaitik, eskubidea dauko epaikariak zuzen deritxonez auziko eralgiak nai osoan nai zatian auzilarien artean bananduteko; eta egitekotan, ori epayan bertan esan bear dau.

1912g. araua. Asko balina auzian eralgiak ordaindu bearra irabazi dabena, bakotxak dana ordaintzera epaitu begiz epaikariak, auzia zatitu eziñeko bearrari buruzkoa danean; ostantxean, bakotxaren zorraren neurrian.

1913g. araua. § 1.—Eralgiai buruzko epayaren aurka eztago gora yoteko eskubide berezirik; baña bere burua iraindutat daukanak amar egun barruan yarki dagikeo auzia epaitu dauan epaikari berberaren aurrean; eta epaikariak ebazkizun ori barriro aztertu dagike ta epaiko neurria aldatu ta gitxitu.

§ 2.—Auzi nagusiari buruz gora yoteak beragaz batera daroa eralgiai buruzko gora yotea be.

II Atala

Urruriko babestua nai auzi-eralgiak gitxituteari buruzkoa

1914g. araua. Pobreak, auzi-eralgiak arean be ordaintzeko gauza ez-tireanak, urruriko babestuaren eskubidea dauke; dana ordaintzeko gauza ez-tireanak, eralgiak ordaindu-bearra gitxituteko.

1915g. araua. § 1.—Eralgiak ordaintzetik azke izatea nai gitxitutea lortu nai leukienak eskari idatzia aurkezturik ta bere bizibidea zelangoa dan eta bere ondasunak zeinbestekoak direan agertzeko agiriak erakutsirik, epaikariari eskatu bear dautso; ganera, berak ezkarrela ganora ta suster bako auzirik erakutsi bear dau.

§ 2.—Epaikariak ezpegi eskari ori ez ontzat ez txartzat emon, ariketa eskekoaren ondasunak zeinbestekoak direan agertuko dautsezan barriak, bai ixilekoak be bear izan ezker, euki ta zuzen-aldezlaria entzun arte; baita ontzat emonda gero be, atzeratu dagike urruriko babesori, bitartean esandako pobretasunik eztagoana agertu baledi.

1916g. araua. § 1.—Urrurik babestuteko, epaikariak bere epaitegian ontzat emondako lege-gizona izentau begi; eta lege-gizon orrek ezin dagike bere babesca ukatu epaikariak ontzat emondako ziyoz baño; ostantxean epaikariak zigor egokia ezarri dagikeo; bai bere lege-gizontzea erabiltea galazo be.

§ 2.—Lege-gizonik ezpalego, pobreen urruriko babestua egiteko, artarako gauza litzaken beste norbait izentatzeko epaikariak Goterkizañari eskatu begio.

XVII IDAZPURUA

Epayaren betetzea

1917g. araua. § 1.—Zerbait epaitua izateraño eldu dan epaya bete daiteke.

§ 2.—Orraitio epaikariak oraindiño zerbait epaitua izateraño eldu eztan epaya be bein-beinean betetako agindu dagike:

1.º Biziteko bearrekoak direan ordainketari edo bizigayai buruzkoa balitz.

2.º Beste bear andiren bateri buruzkoak balira be bai; baña orduan, bein-beineko betetea emon ezkerro, beste auzilariaren eskubideak kalterik artu eztagian bein-beineko epaya aldatu bearko leuke.

1918g. araua. Epaya ezta bete bear betetako epaikariaren erabagia euki arte, au da, bete bear dala diñoan erabagia; erabagi ori, auziak zelango, epayan bertan sartu nai sartu ez egin daitekena da.

1919g. araua. Epaya beteteak aurretik kontuak garbitu-bearra eskatu balegi, auzi nagusiaren epaya betetako erabagia emon eban epaikariak bide batezko auzi ori aztertu ta epaitu begi.

1920g. araua. § 1.—Epaya bete-erazo bear dau, berberak nai iñoren birtartez, lelengo mallako epaya emon zan tokiko Goterki-zañak.

§ 2.—Onek bere egin-bearra bete gura ez edo yaramonik egin ezik, zer ikusi daukan auzilariak eskatuta, edo bai bere eskubidez be, epaya bete-erazotea badagokio gora yoteko auzitegiko epaikariari be.

§ 3.—Jaunzaleen artean epaya betetea atzenengo epaya emon eban edo ordeztu eban Nagusiari dagokio.

1921g. araua. § 1.—Epai-betetzalleak, epayak berak zerbait bere aukuran itxi ezpalegi, epaya bere esanak artez diñoan lez bete bear dau.

§ 2.—Betetzalleak betetearen erearen eta indarraren aurkezko eragozpideak ebatzi dagikez, ez baña auzia bera; alan be, nonbaitetik epaya okerra dala ikusi balegi, ezpegi bete, ta auzilaria auzia betetea ezarri eutsanagana bialdu begi.

1922g. araua. § 1.—Zerbaiten yabetasunari buruzko auziak direanean, zerbait ori berea dala epaitu ezkerro, zer epaitua izanda bertatik emon bear yako auzilariari.

§ 2.—Norbaiteri buruzko auzietan, barriz, erruduna zerbait erabilkorra emoten, edo dirua ordaintzen edo beste zerbait emon nai egiten epaitu balebe, egin-bear ori beteteko lau illabeteko epea emoten yako.

§ 3.—Epaikariak izentautako epe ori nai luzatu nai laburtu dagike; ez orraitio illabete bi baño gitxiagora, ez sei illabete baño geyagora.

1923g. araua. § 1.—Epaya betetea auzia galdu dauanari alik eta kalterik gitxien egiteko kontua berabil betetzalleak; beraz, gitxien bear dauzan gauzak kentzetik asi bear dau, biziteko ta lanerako bear dauzanak iñoz kendu barik; ta eleiz-gizona balitz, 122g. arauko aginduaren neuriz bere bizikera egokirako bearrekoak kendu barik.

§ 2.—Eleiz-gizonari bizibidea kendu dautsan epaya betetara ezpedi aurreratu epaikaria, epaituak Aita Santuagana yo balegi; baña arimak-zaintzea erantsita daukan bizibidea balitz, bein-beinean Goterki-zañak ordezkua izentau begio.

1924g. araua. Epayak agindua egin gura eztauanaren aurka lelengoa agirika ta aginduen bidez bere egitekoa egitera ekarterko alegiñak egin bediz; arimeari buruzko zigorketara ezpegi yo besterik eziñean eta mallaka baño.

BIGARREN TXATALA

Auzi berezi batzuetan erabilli bear direan arau bedegarrik

XVIII IDAZPURUA

Eztabaidazko auziak barik, eztabaidok bakez ebazteko bideak

I Atala

Ituna

1925g. araua. § 1.—Kistarren artean auzika alkarren aurka ekitetik alde egitea oso opagarri danezkerro, epaikariak aolketara yo begi euretako bakotxaren onari buruz eztabaidazko auzien bat auzi-bidez ebazteko aurkeztuten yakonean, bakez alkartuteko itxaropenik balego, itun bidez eztabaidea ebazteko.

§ 2.—Egiteko ori epaikariak bete dagike bai auzikariak auzitegiratu orduko, bai auzitegian bertan lelengoz aurkeztuten yakozanean, eta bai atara yoteko egoki deritxon edozein unetan be.

§ 3.—Alan be, epaikariaren lotseari eztagokio zeregiñau berak betetea; geyen baten beintzat, berak egin barik, beste abade bateri, batez be. batzar-epaikarietarikoa balitz, ezartea asko obeto.

1926g. araua. Alkar ituntzean ituna egiten dan tokiko erri-legeak aginduten dauzan arauak zaindu bediz, Jaunaren nai Elexearen aurkazkoak ezpalira eta urrengo arauen kalte barik.

1927g. araua. § 1.—Ezin da gauzako itunik egin, lege-ausizko auzietan, ez ezkontzea austeko eztabaidazko auzietan, ezta eleiz-bizibideai buruzkoetan be, bizibidea legezt lortu ete eban buruzkoari danean

auzia, legezko eleiz-nagusiak ituna ontzat emon ezpalegi; ezta gogozko zerbaiteki buruzko itunean, gorputzeko zerbaitezuen ordaña emon-bearra balego.

§ 2.—Baña eztabaidea emeko lurreko eleiz-ondasunai buruzkoa danean, gogozkoak erantsita euki-arren, gogozkoakandik bananduta begiratu daitezkezanak balira, ituna egin daiteke; alan be, baña, gauzeak alan agindu ezkerro, eleiz-ondasunak inorenzako legeak agindutako egin-bearrak betetan direala.

1928g. araua. § 1.—Ekin eta ekin atzenean zorionez egindako itunbenak ekarriari ALKAR-AITUTEA deritxo.

§ 2.—Alkar-aitute onek ekarritako diru-eralgiak, agirian bestera erabagi ezik, alde biak erdi-bana ordaindu bear dabez.

II Atala

Ebazleai buruzko alkar-aitutea

1929g. araua. Auzitegiko eztabaidatzetik egitearren alkarregaz aitu daitezke auzikariak, legearen bidetik ibilita auzia ebazteko eskubidea emoteko nai gizon bakarrari nai batzui; edo bai euren sentzunak esango dautsen lez ebazteko be; arei *ebazleak* deritxe; onei *antolatzaileak*.

1930g. araua. Ebazleak 1926, 1927g. arauen aginduak bete begiez euren egitekoan.

1931g. araua. Ebazle-zeregiña burututeko ez tira gauza: erri-gizonak eleiz-auzietan; Elexatik arrotzak; alangotzat egin edo agertu dauzan epai-ostean, izen txarrekoak; Jaunzaleak, barriz, ezpegie ebazle-zeregiñik artu euren Nagusiaren baimen barik.

1932g. araua. Auzikariok ezin badira aitu alkarregaz ez eurak euren artean aituteko, ez auzia ebazleai nai antolatzaileai emoteko, auzitegian legezko epaikeraz ebatzi bear dabe.

XIX IDAZPURUA

Legea-ausizko auzia

1933g. araua. § 1.—Lege-ausizko auziaren barrutikoak lege-ausi agirikoak dira.

§ 2.—2168-2194g. arauetan aitauten direan eta neke ariñakaz zigortu bear direan lege-ausiak ez tira sartzen arlo onetan.

§ 3.—Elexearen eta Laterriaren auzitegiko direan lege-ausiai buruz ezpediz Goterkizañak nastu lege-auslea erri-gizakumea danean, eta erri-agintariak lege-auslea zigorkatuta erriaren osasuna naikoa zaindu balegi.

§ 4.—Neketxo, nekezko osabidea, Elexatik arrotzutea, etena, eragotzia, lege-ausia epai bakoa danean, auzi-bidez barik, ostantzeko erabagi zurrian be ezarri daiteke.

I Atala

Lege-ausia norik salatu ta norik iragarri?

1934g. araua. Lege ausiari buruzko auzibidea edo inor *salatuteko* eskubidea, beste guztiak kenduta, zuzen-aldezkarriak baka-rik dauko.

1935g. araua. § 1.—Orraitio, edozein kistarrek dauko eskubidea norbaiten lege-ausiaren yakitun egiteko Eleiz-Nagusia, bai irabaziko ordaña eskatzeko norberari nai inori egindako kalteak kitutzeko, baita zuzenaren maitez erakutsi txarra ta beste edozein kalte osatzeko.

§ 2.—Baita be salatu bear estua dago, artara beartuko balebe legeak nai legearen aginduen batek, nai jatorrizko legeak berak, sinismenarentzako nai kistar-bizikerearentzako arrizkuagaitik, nai erriarentzako kalteren baten bildurrez.

1936g. araua. Salakuntza egite ori dagianak berak izenpetutako idatziz edo itzez Goterkizañari egin bear dautso, edo Obispoaren Idazkolako Zifaldariari, edo parroki-zain-buruari edo parroki-zañari; eta onei itzez egin balekie, eurok idatziz ezarri begie eta bertatik Goterkizañari bialdu.

1937g. araua. Lege-ausiaren barria emoten dauanak zuzen-aldezlariari egia egiztautzeko bideak be erakutsi bear dautsoz.

1938g. araua. § 1.—Iraña edo izen onaren kalteko lege-ausia litzakenean, lege-ausizko auzia yari al izateko irainduaren salakuntzea nai zigor-eskaria bear da.

§ 2.—Alan be, irañak nai zer aztunari buruz izen ona kentzeak eleiz-gizona nai Jaunzalea yo balegi, batez be Nagusitzaren baten yarria balitz, edo nai eleiz-gizonak nai Jaunzaleak beste inor iraindu balegi, lege-ausizko auzia yari leitekio inork eskatu barik be.

II Atala

Eleiz-gizonen zigor garbi bereziak

1939g. araua. § 1.—Lege-ausia ez agirikoa ez oso ezpaibakoa ezpaledi, ostera surrumuruetatik eta agiriko entzutetik, edo norbaitek salatutik edo kalteen salakuntzearen bidez, edo Goterkizañak egindako ikusi orokarretik, edo beste edozelan aren barria artu baledi, lege-ausiari buruz erantzuteko norbait deitu baño lenago berarizko arakatzea egin bear da, ia lege-ausi-barriak susterrik daukan eta zein suster daukan agertu daiten.

§ 2.—Lege au bete bear da nai zigor aspergarria nai zigor osagarria ezarteko; baita norbaitek egin gaiztoaren bidez bere leporatu dauan zigorra iragarteko emon-bearra danean be.

1940g. araua. Arakatzeko ori, Goterkizañak berak egin al izan arren, geyen baten baña batzar-epaikari bateri ezarri bear yako, berarizko ziyoz Goterkizañari beste norbaiteri ezartea ezpaleritxo.

1941g. araua. § 1.—Arakatzallea ezpedi auzi guztietarako izentau, bakotxean auzi bakotxerako baño.

§ 2.—Arakatzalleak legeko epaikariaren eginbear bardiñak daukaz, ta batez be ziñ egin bear dau ixilpekoa zainduko dauala ta egitekoa zintzo beteko dauala ta 1621-1624g. arauen neurritz eskupekorik eztauala artuko.

§ 3.—Arakatzallea ezin daiteke auzi berberean epaikari izan.

1942g. araua. § 1.—Goterkizañaren eritxi zurrari izten yako agiri direan egizpideak arakatzeko aginduteko noiz direan naikoa erabagitea.

§ 2.—Etxake yaramonik arean be egin bear arerio guztien ezagunak nai gixontxo zatar eta izen txarrekoagandiko salakuntzai edo salakuntzea egi-antzeko egiten daben bizikera ta beste zerak eztaukazan izenbakok egindakoai.

1943g. araua. Arakatzalleak ixila beti zaindu bear dau, eta zintzo be zintzo egin bear dau lege-ausiaren zurrumurrurik zabaldu eztaiten, eta iñoren izen ona galdu-zorian ez yarteko.

1944g. araua. § 1.—Yakin nai dauana yakiteko, arakatzalleak deitu dagikez zeraren yakituntzat daukazanak, eta egi esateko ta ixila yagoteko ziñ eraginda aztertu.

§ 2.—Arakatzeko onetan arakatzalleak al dan giñoan eta arakatzekoaren izanak izten dauan bestean 1770-1781g. arauetan aginduak bete begiz.

1945g. araua. Arakatzalleak arakatzeko amaitutzat emon baño lenago zuzen-aldezlariaren onua eskatu dagike matasaren bat aurkitzen dauanean, eta berari agiriak erakutsi.

1946g. araua. § 1.—Arakatzeko amaitu ezker, arakatzalleak, bere eritxia idatziz agertuta, Goterkizañari bialdu begio.

§ 2.—Goterkizañak edo beronen agindu bereziaren indarrez goterkiko epaikari nagusiak agindu begi:

1.º Lege-ausiaren barria suster sendo bako ager baledi, agirietan alan autortu daitela eta agiriok goterkiko Idazkolako agiritegi ixilean zaindu daitetzala.

2.º Lege-ausi-aztarnak balegoz, ez baña auzi-salakuntzea aurkeztuteko beste-koak, agerkayok agiritegi orretan gorde bediz eta bitartean erruduntzat esandakoaren bizikerea zaindu bedi, eta berari be, Goterkizañari ondoen deritxon eraz, bere zuribideak entzun bear yakoz eta 2307g. arauak diñoan lez agiraka egin be bai. susmo okerrai bidea egiten dautsenik egin eztagian.

3.º Amaitzeko, ezarten yakozan lege-ausiak egi agertu balira edo gitxienez egi-antzekoak eta auzi-salakuntzea egiteko añako egizpideak be batu balira, erru-

dunari auzitegira etorteko deya egin bekiyo eta urrengo arauen eraz aurrera yarra bedi.

III Atala

Lege-ausleari agiraka egitea

1947g. araua. Errudunak itanduta lege-ausia autor balegi, Goterkizañak, lege-ausizko auziaren orde, epaitegiko agirakea egin dagikeo.

1948g. araua. Ezin daiteke epaitegiko agirakarik egin:
1.º Aita Santuarentzat *oso beren-beregi* nai beren-beregi itxitako Elexatik arrotzutea, edo eleiz-bizibide-gabetzea, nai izen ona galtzea, nai eleiz-gizon-malletatik yaurtitzeta nai eleiz-gizontasuna kentzea zigortzat daroen lege-ausien baten errudunaren aurka.

2.º Norbait zigor ordaingarri nai osagarripean yausi dala-ta, epai orixe adierazotekoa danean.

3.º Erakutsi gaiztoaren ikarea kentzeko nai zuzena osoan arteztuteko agiraka egitea naikoa eztaukoa Goterkizañari baleritxo.

1949g. araua. § 1.—Agiraka egitea bein edo birritan; ez iru garrenez errudun berberaren aurka.

§ 2.—Beraz bigarren agiraka eginda gero errudunak beste lege-ausien bat balegi, lege-ausizko auzia ezarri edo len asitakoari yarraitu egin bear yako 1954g. ta urrengo arauen aginduen eraz.

1950g. araua. 1947, 1948g. arauen muga-barruan Goterkizañak auziko agiraka egitera yo dagike ez bakarrik benetako auzia asi baño lenago, baita asita gero be auzia amaitu aurretik; eta orduan auzia eskegita geldituten da, agiraka egite ori alperrikoa izan dala ta, yarraitu bearra ezpalego.

1951g. araua. § 1.—Agiraka egitera yo daiteke baita lege ausitiko kalteakaitiko auzia eskatu danean be.

§ 2.—Orduan auzikariak atara etorri ezker, Goterkizañak berari deritxon lez eztabaidea begiratuta ebatzi dagike.

§ 3.—Baña kalteai buruzko epaikizuna auzi barik ebaztea zail baleritxo, epaikizun ori auzibidez epaitzeko itxita, zillegi yako agiraka egitearen bidez erakutsi txarrari osapidea ekarri ta pekataria bide onera ekarteari begiratudeta.

1952g. araua. § 1.—Auzitegian agiraka egite onek, onu osasungarriez ganera, geyenetan eta erabatera osabide egokiak be eroan bear dauz, kalteztutakoak eta erakutsi okerra agirian osatuteko gauza izango direan zigortxo nai egin-bear batzuk be ezarriaz.

§ 2.—Errudunari aginduko yakozan osakai osasungarriak, zigortxoak nai

egin onak bigunago ta ariñagoak izan bear dabe, lege-ausizko auzian gaiztotzat emongo leuken epai-bidez ezarriko litzakiozanak baño.

1953g. araua. Agiraka ori alperrikoa izan yakola ikusita dago, ezarritako osakai, zigortxo ta egite onak errudunak edo artu ez edo artuta gero bete ezpalegiz.

IV Atala

Lege-ausizko epaibidea zelan egin eta lege-auslea epaitegian itandu ta entzun

1954g. araua. Auziko agiraka egitea naikoa izan ezpada lege-ausiak egindako ikara txarra kenduteko nai zuzena arteztuteko, edo erabili ezin baleiteke errudunak legea ausi dauanik autortu nai eztaualako, edo alperrik ezarria izan baledi, Obispoak nai epaikariak berarizko aginduaren bidez arakatzeko idatzi guztiak zuzen-aldezlariari emoteko agindu begi.

1955g. araua. Zuzen-aldezlariak beingoan eraztu begi salakuntza-idaztiñoa, ta I Zatian ezarritako arauak erabilia epaikariari aurkeztu begio.

1956g. araua. Lege-ausi itzaletan erruduntzakoak zeregin santuei eragotea bai arimai buruzkoai nai eleizkizunari buruzkoetan yardutea nai Gure Jauna artzen yoatea kistarrentzat ikara txarrik emon barik itxi ezin balekio, Goterkizañiak, zuzen-aldezlaria entzunda, eleizkizunai ekitea eta beste inarkun batzuk, edo agirian Jaunartzea galazo dagikeo 2222, § 2g. arauaren aginduaren indarrez.

1957g. araua. Eta salatuak lekukoak bildurtu nai busti dagikezala edo beste erabatera zuzen-bidea eragotzi dagikiola baleiritxo epaikariari, zuzen-aldezlaria entzunda, bere erabagi baten bidez bialdu dagike zati baterako itxi dagiala izentautzen dautsan erria nai parrokia. edo izentautzen dautsan toki batera yoan eta bertan beren-beregi zainduta egoteko.

1958g. araua. 1956. 1957g. arauetako erabagiak ezin leitekez artu, erruduna deituta ta bertan dala edo buru-gogorkeriz etorri gura eztauala baño, nai lelenoz bera entzunda edo aurkeztuta gero, nai gero auzi-aldi-barruan; ta erabagion aurka eztago zuzenbidezko igespiderik.

1959g. araua. Ganekoetan Idazti onen I Zatian ezarritako arauak erabili bediz eta zigorrak ezarkeran, Boskarren Idaztian ezarrikoak.

XX IDAZPURUA

Ezkontza-azuziak

I Atala

Legezko auzitegia

1960g. araua. Ugutzatuen arteko ezkontza-azuziak eskubide berezko ta bakarragaz Eleiz- epaikariari dagokioz.

1961g. araua. Ezkontzearen ondorengoai buruzko auziak oso-osoan erribizikereari dagokiozanak balira eta auzi nagusi-zurrian ebaztekoak, erri-epaikariari dagokioz; albotikoak eta ezkontzeari berari erantsitakoak balira, Eleiz-epaikariak bere-bere eskubidez ikusi ta epaitu dagikez.

1962g. araua. 1557, § 1, 1.ºg. arauko ezkontzai dagokiezan auziak, bakotxean bakotxa, Aita Santuak ezarten dautsan Bazkun Gurenak nai Auzitegiak nai Batzar bereziak epaitzen ditu; ezkontza egiña, baña burutu bakoagandik azkatuteak, Ikurton-legetzazko Bazkun-Gurenak; Paul Santuaren eskubide bereziari buruzko auziak, Zeregin Santuko Bazkun Gurenak.

1963g. araua. § 1.—Orregaitik ezin dagike beragoko epaikaririk inork legez egindako ezkontzarik azkatuteko auzirik artu, Aita Santuak artarako eskubiderik emon ezpalegio.

§ 2.—Baña legezko epaikariak zistortasuna dala-ta utsa litzaken ezkontzeari buruzko auzia bere eskubidez asi balegi, ta auziak ez zistortasunik, oraindiño burutu bako ezkontzea baño erakutsi ezpalegi, agiri-idatzi guztiak Erroma'ko Bazkun Gurenari bialdu begioz eta onek legez asitako burutu bakoari buruzko epaya emoteko erabili dagikez.

1964g. araua. Beste ezkontzeari buruzko auzietan, legezko epaikaria ezkontzea egin dan tokikoa da edo ezkontide salatuak, edo bata katolikoa ezpada, ezkontide katolikoak bizitokia edo bizitoki-antzekoa daukan tokikoa.

1965g. araua. Bayezkoa ezagaitik salatu baledi, epaikariak lelengo bayezkorik ezebala izan esaten dauan ezkontidea aolku adionakaz bayezkoa emotera ekarteko alegiñiak begiz; egikera mamizkoen utsagaitik eta azkatu al eta oi dan eragozpide aurkariagaitik utsa balitz ezkontzea, bayezkoa legezko eraz emotera edo eragozpena azkatuteko ekartera ekin begio.

II Atala

Auzitegia zelan yarri?

1966g. araua. 1576, § 1, 1.ºg. arauaren aginduaren kalte barik, legez egiña baña burutu bako ezkontzea azkatuteko bear direanak badagoz-ezpadagoz billatzeko, epaikari bakarra bear eta naikoa da.

1967g. araua. Bai ezkontzearen ustasuna dala, bai eztala burutu erakustea ta ezkontza-lokarria auste eskatuten dala, epaikariak ezkontza-lokarriaren aldezlaria deitu bear dau, 1586g. arauak aginduten dautsan lez.

1968g. araua. Lokarri-aldezlariaren egitekoa da:
1.º Ezkonduen lekukoen eta yakitunen azterkaldian bertako iñan; azterkaldian epaikariak zabalduko dauzan ta ezkontide ta lekukoai egingo dautsezan itaunak epaikariari itxita ikurraztuta emon; azterketatik sortzen direan itaun barriak epaikariari belarriratu.

2.º Ezkontideak aurkeztutako auzigaiak begiratu ta oldoztu ta eurai, bear izan ezkeru, yarki, eta ezkontideak aurkeztutako agiriak aztertu.

3.º Ezkontzearen ustasunari aurkazko oarrak egin eta gauzazkotasanaren edo burutuaren aldezko egizpideak idatzi ta erakutsi ta ezkontzea aldeztuteko egokiak direala uste dauzan zer guztiak agertu.

1969g. araua. Lokarri-aldezlariak eskubidea dauko:
1.º Beti ta auziaren edozein unetan epaibidearen agiriak, nai ta oraindiño argitaratuak izan ez, ikuskatzeko; epaikariaren eritxi zuraren legez luzatuko direan agiriak amaitzeko epe barriak eskatuteko.

2.º Yarkiteko eskubidea erabilli al izateko beste egizpide ta aldezpide guztien yakitun egiteko.

3.º Beste lekuko batzuk aurkeztu edo lengoak barriro aztertu daitezala eskatuteko, epaibidea amaituta eta argitaratuta egon arren be, ta oar barriak egiteko.

4.º Berak belarriratuko leuskiozan beste agiri batzuk be egin-erazoteko, auzitegia aburu batez beste eritxiko ezpaledi.

III Atala

Ezkontzea salatuteko ta ezkontza burutu bakoa azkatuteko eskubidea

1970g. araua. Batzar-epaitegiak ezin dagike ezkontza-auzirik aztertu nai epaitu, legezko salakuntzea edo bidez egindako eskaria norbaitek aurkeztu ezik.

1971g. araua. § 1.—Salatuteko gauza dira:
1.º Ezkontideak alkarregandik bananduteari ta ezkontzearen alperrikotasunari buruzko auzietan, eragozpidearen errua eurak izan ezpalebe.

2.º Zuzen-aldezlaria agiriko eragozpideai buruzkoetan.

§ 2.—Beste iñork senideak izan arren be, eztauke ezkontzea salatuteko eskubiderik Goterkizañari edo zuzen-aldezlariari ezkontzea utsa dala bakarrik agertuteko baño.

1972g. araua. Ezkontide biak bizi zireala salatu etzan ezkontzeari ezkontide bataren nai bien eriotza ostean bere aurkazko

auziri bide guztiak izterañoko gauzazkotasuna emoten yako, beste zer bateri buruzko auziak gure ezkontzearen legezkoatasuna ikutu ezpalegi.

1973g. araua. Ezkontideak bakarrik dauke eskubidea, legez egiñiko ezkontzea burutu ezagaitik azkatuteko eskaria egiteko.

IV Atala

Egizpideak

I Atalkia

Lekukoak

1974g. araua. 1757, § 3, 3.ºg. arauan aitaturten direan lekukoak gauza dira euren senideen ezkontzai buruzko auzietan.

1975g. araua. § 1.—Ziztortasun edo burutu-ezari buruzko auzietan, ziztortasuna nai burutu-eza beste nonbaitetik ezipai barik ezagunak izan ezik, ezkontide biak *zazpigarren eskuko* deritxoen lekukoak aurkeztu bear dabez, euren senide edo aide, edo gitxienez auzoko litzakezanak, edo beintzat erritar izen onekoak, edo auziaren yakitun direanak; direanak direala, gauza izan bear dabe ezkontideak lagun yatorrak direala eta batez be auzikizunari buruz euren esanetan siñeskarri direala zin bidez esateko; 1756, § 3g. arauak aitaturten dauzanetariko beste lekuko batzuk be deitu dagikez epaikariak.

§ 2.—Zazpigarren eskuko lekukoen esanak ezkontideenai indarra ganeraturten dautse, baño berak bakarrik eztauko egizpide-indar osorik beste lagungarri-egizpiderik ezipadauko.

II Atalkia

Soñaren arakatzea

1976g. araua. Ziztortasun eta burutu-ezazko auzietan yakitunak egin bear dabe ezkontide bien edo bataren soñ arakatzea, inguruko zertzu batzukaitik alperrikoa litzakela agertu ezik.

1977g. araua. Yakitunak izentazean 1792-1805g. araeuan aginduez ganera, urrengoenak be zaindu bear dira.

1978g. araua. Yakitunen eginbearrerako ezipediz izentau ezkontzearen utsai edo burut-ezari buruz ezkontideak lendik arakatu ta daukezanak; lekukotzat bai aurkeztu daitezke.

1979g. araua. § 1.—Senarra aztertuteko epaikariak, iñork eskatu barik, osalari bi izentau bear ditu.

§ 2.—Emaztearen soña aztertuteko barriz epaikariak berak iñork eskatu barik emagin bi izentau bear ditu, andreak berak gurago ezipaleu bera be osalari

bik aztertutea edo au Goterkizañak bearreko dala uste baleu; oneik be epaikariak ifloren eskatu barik izentau bear ditu.

§ 3.—Emaztearen soin-aztertutea kistar-lotsea galdu barik egin bedi ta andra yator bat beti bertan dala.

1980g. araua. § 1.—Emaztearen soin-aztertua emagiñak nai osalariak bakotxak banan-banan egin bear dau.

§ 2.—Osalari nai emagin bakotxak bere txostena egin bear dau, epaikariak izentautako epe-barruan emon bearco dabena.

§ 3.—Epaikariak emagiñak egindako txostenak osalari yakitunari emon begioz aztertzeke, alan egoki baderitxo.

1981g. araua. Txostena artu ezkeru, epaikariak lokarri-aldezlariak aurreztik gertautako itaunketearen arauaz aztertu begiz osalariak, emagiñak eta lekuko izandako andrea banan-banan, eta eurak itaunai ziñ eginda erantzun begie.

1982g. araua. Zoroa zalako gauzako bayetza emon eziñagaitiko auzietan be, gexoa edo zoro-susmoa sortzen dabene bere egiñak yakintzearen aginduen arauz aztertuko dabezan yakituneri eritxia bearreko da; ganera, gexoa lenago ezautu-ikusit ebe yakitunak be lekukotzat deitu ta entzun bear dira.

V Atala

Epaibidearen argitaratzea, ebazketearen atzena ta epaya

1983g. araua. § 1.—Epaibidea argitaratuta gero eskubidea dauke auziakariak, lekuko barriak, 1786g. arauaren neurrian baña, epaibideko itaun bakotxari buruz aurkeztuteko.

1984g. araua. § 1.—Lokarri-aldezlariak eskubidea dauko bai idatzizko bai agozko aldezkaldian egizpideak aurkeztu, eskatu nai erantzuten bera atzenengoa izateko.

§ 2.—Beraz epaitegia ezpedi atzeneko epaya emoteratu, lokarri-aldezlariak itanduta, eztaukala berak ezer geyago aurkeztu ez aztertuteko agertu arte.

§ 3.—Baña epaikariak izentautako atzenengo eguna baño lenago lokarri-aldezlariak ezer aurkeztu ezik, eztaukala zer aurkezturik uste izateko eskubidea dago.

1985g. araua. Legez egiña, baña burutu bako ezkontzeari buruzko epaikizunetan epaikari-auzi-artezkaria ezpedi epaibidea argitaratzeareño aurrera yoan, ezta burutu-ezari berari eta askatzeko ziyoai buruz epaierik emoteraño; agiri guztiak, ostera, Obispoaren eta lokarri-aldezlarien txosten idatziagaz bialdu begioz Aita Santuari.

VI Atala

Gora yoteak

1986g. araua. Ezkontzea eztaula gauza izan ebatzi dauan lelengo epaitik legezko lokarri-aldezlariak legezko epe-barruan goragoko epaitegira yo bear dau; eta bere egin-bearra bete ezpalegi, epaikariak aginduta egiten beartu begi.

1987g. araua. Ezkontzea utsa izan zala egitzar emon dauan bigarren epayaren ostean gora yoteko mallako auzitegiko lokarri-aldezlariak eztauala gorago yo bear bere barruan uste balegi, eskubidea dauke ezkontzideak, epaya argitaratu zanetik amar egun yoan ezkeru, ezkontza barria egiteko.

1988g. araua. Ezkontzea utsa izan zala epaitu ezkeru, tokiko Goterkizañak ardurea artu bear dau, ezkontzea ezarrita dagoan ugutza-ta-sendotza-liburuetan epai ori aitatu daiten.

1989g. araua. Ezkontzeari buruzko auzietan epayak zer epaituak izateareño iñoiz elduten eztiREALAKO epayak eurak, egizpide barriak agertu balediz, beti barrero auzitegiratu daitekez, 1903g. arauko aginduaren kalte barik.

VII Atala

Orain artean agindutako epaikera-legeetatik berezitako auziak

1990g. araua. Ezertara be yarki ez ukatu eziñeko agiri ezpaibako ta siñeskarririk agiri baledi, kistarra ta kistarra-etzan arteko eragozpidea, eleizgizontzazko, garbitasun-berba ospetsua emoneko, ezkontzazko, senidetasunezko nai aidetasunezko eragozpidea egoala, ta erabatera ezpaibakotasun bardiñagaz agiri baledi etzala euroi buruzko legazkatzerik emon, yazoera orreitan, orain arteko agindutako epaikerak bazterturik, Goterkizañak, ezkontzideai dei eginda, ezkontzearen utsa agertu dagike, alan be lokarri-aldezlaria deitu ta entzunda.

1991g. araua. Erabagi agergarri orren aurka lokarri-aldezlariari baleritxo 1990g. arau orretan aitaturakoak eztiREALAKO ezpaibakoak, edo bear bada eurari buruzko legazkatzerik izan etzana eztaula bardin ain ezpaibakoa, bigarren mallako epaikariagana yotera beartuta dago, ta beroneri auziari buruz egin dana agindu bear dautso ta erabatera berezitako auzietarikoala dala adierazo.

1992g. araua. Bigarren mallako epaikari orrek erabagi begi, lokarri-aldezlaria bakarrik lagun dauala, ala Goterkizañaren agerpen-erabagia 1990g. arauko aginduaren neurrian ontzat emon bear dan,

ala beste ezkontza-auzientzat ezarritako bidetik yoanda epaitu bear dan; au yazo baledi, auzia lelengo mallako epaitegira eroan bear da.

VIII Atala

Eleizgizontza santuaren aurkazko auziak

1993g. araua. § 1.—Eleizgizontza santuak leporatutako egin-bearrai buruz nai eleizgizontza santu berberaren gauzazkotasunari yarkiten yakozan auzietan, Ikurton-Yaurbideari buruzko Erroma'ko Bazkun Gurenari bialdu bear yako auzia; edo eleizgizontzakeran mamizko zerbait egin etzallako txartzat emon baledi eleizgizontzea bera, eskaria Zeregin Santuari buruzko Bazkun Gurenagana bialdu bear da; eta Bazkun Gurenak ebazkizuna auzi-bidez ala ostantzeko yaurbidezko erabagiz ebatziko dan erabagiko dau.

§ 2.—Lelengo ebazkera ori erabagi balegi, eleizgizontzaldian eleiz-gizonak berea izan eban auzitegiari ezarten dautso epaikizuna; eleizgizontzea egikeran mamizko zerbaiten utsagaitiko auzia, eleizgizontzea egin zan goterkiko auzitegiari; gora yoteko malleari buruz, 1594-1601g. arauen aginduak bete bediz.

1994g. araua. § 1.—Eleiz gizontza santuaren utsa eleiz-gizonak berak eta eleiz-gizon ori menpeko dauan nai eleizgizondu zan goterkiko Goterkizañak bardin salatu dagike.

§ 2.—Eleizgizontzeari dautsen egin-bearrak ez ebazala berak eleizgizondu zanean leporatu uste dauan eleiz-gizonak, berak bakarrik dauko eskubidea egin-bear orreitatik azkatu dagiela eskatuteko.

1995g. araua. Idazti onen lelengo Zatiaren lelengo Atalean eta gero ezkontza-auziaz buruzko arauetan esanak, egokiak egoki ezarrita, eleizgizontza santuari buruzko auzietan be erabili bediz.

1996g. araua. Eleizgizontzatiko egin-bearrai edo lokarriai buruzko Aldezlariak ezkontza-lokarri aldezlariak daukazan eskubidea ta egin-bear guztiak daukaz.

1997g. araua. Naita auzia izan ez eleizgizontzearen utsaren buruzkoa eta bai eleizgizontzatik sortutako egin-bearrai buruzkoa, alan be, bada ezpada, gure eleizgizonari artutako eleizgizontzea erabiltea galazo egin bear yako.

1998g. araua. § 1.—Eleizgizontzatiko egin-bearretatik azke gelditzeko, eleizgizonak epai bi bardiñak bear ditu.

§ 2.—Auzi oneitan gora yoteari buruz, 1986-1989g. arauetan ezkontza-auziaz buruz aginduak bete bediz.

BIGARREN ZATIA

Jaunaren seme-alaben zorionkundera ta zorionekoan santukundeari buruzko

Auziak

1999g. araua. § 1.—Geure Jaunaren seme-alaben zorionkundera ta zoriondunen santukunde-auziak Aita Santuaren epaitegira-ko berezita dagoz.

§ 2.—253, § 3g. arauak diñoan lez Eleizkizun Santuai buruzko Bazkun Gurenari bakarrik dagokio auziok artu ta epaitzeko eskubidea (1).

§ 3.—Goterkizañak euren eskubidez urrengo arauetan agirian ezarten yakena bakarrik dagike.

2000g. araua. § 1.—Onetariko auziak bitariko bidetik eroan leitekez: edo geyenak daroena, au da gurtza-bakoa; edo nozean-beingoa, au da, gurtzabidea.

§ 2.—Geyen bateko bidea erooten da, Gure Jaunaren seme-alabaren baten santutasunari edo bere ekandu onai buruzko eztabaidatzea asi baño lenago agiriko gurtzarik etxakola emon erakusten danean; edo inoiz norbaitek bidezko etzala emon baleutso be, orain etxakola iñon emoten egiztatzen danean; noizean beingo bidea, Geure Jaunaren seme-alabeari egiten yakon gurtzea Elexan agirian emoten dautsana dala erakutsi gura danean.

2001g. araua. § 1.—Ziñopeen auziak, nai geyen bateko bidetik nai iñoizko bidetik doazala eztira iñoiz alkartu bear; bako-txa banan aztertu bear da, yazarpen berberean eta batera ildako ziñoapak ez-palira.

§ 2.—Lege au yagon bear da auziari buruzko azterketa ta eztabaidatzeetan be, auzia epaitegian sartu ezkerko azken-epayararte egiten direanetan be.

2002g. araua. Urrengo arauetan Goterkizañaren izenaren barruan ezta sartzen Obispoaren danerako Ordezkoa, beren-beregiko agindurik ezpadau.

XXII IDAZPURUA

Auzi oneitan zer ikusi daberen norbaiztuz

I Atala

Auzilaria ta Eskeloa

2003g. araua. § 1.—Edozein kistarrek nai kistarren batzarrek eskubidea dauke onetariko auzia artarako gauza dan auzitegian azterkatu daitela eskatuteko.

(1) Gaur lege au aldatuta dago.

§ 2.—Eskari ori Elexearen legezko ta artarako gauza dan Eleiz-nagusiak aintzat artu balegi, eskekoak eskubidea dauko auziari ekiteko eta atzeneraño eroateko.

§ 3.—Goterkizañak, bai iñork eskatu barik bai iñork eskatuta, asi dagike zorionkunde-auzia.

2004g. araua. § 1.—Auzikariak nai berberak nai legez yarritako ordezkoren bidez yardun dagike; emakumek ordezkoren bidez baño ez.

§ 2.—Auzitegi egokian auziari ekiten dautsanari *eskekoa* deritxo.

§ 3.—Eskekoak, nai bere kontura nai iñoren kontura daragoyola, nai eleizgizon, nai erri-gizon nai Jaunzale dala, bere bertako bizitokia daukana izan bear dau.

2005g. araua. Auzi bakotxerako eskeko bana artzen da; eta eskekoari baño eztagokio eskeko-ordezkoak deritxoen beste batzuk legezko agindu-bidez norberari ordeztutea.

2006g. araua. § 1.—Bai eskekoak bai eskeko-ordezkoak, aguzian iñoren aginduz badiardue, euren zeregiña betetan aurretik agindua auzitegiari erakutsi bear dautse.

§ 2.—Eskekoaren agindua 1659g. arauak diñoan lez emonda bego, ta ezpedi legezkatat onartu Bazkun Gurenak onartu ta bere egiñen zerrendan ezarri arte; eskeko-ordezkoaren agindua, barriz, bere zeregiña betetan dauan auzitegiak aztertu ta onartu bear dau.

2007g. araua. Eskeko-zeregiñari dagokio:
1.º Epaikari egokiaren aurrean auziari ekitea.
2.º Bearreko diru-eralgiak egitea; baña auziaren eralgietarako kistarrakan-lik batutako diruak Aita Santuaren aginduen eraz zaindu bear dira.
3.º Lekukoaren izenak eta agiriak auzitegiari erakutsi.

2008g. araua. Eskekoak iñoren izenean badaragoyo, eskekoaren agindua beste ordezkoren amaitzen dan lez amaitzen da.

II Atala

Kardenal txostenlaria, siñeskintza-aldezlaria ta aldezlari-ordea

2009g. araua. § 1.—Bazkun Gurenaren aurrean erabilten direan ebazkizunai buruzko ekifietan txostenlari edo edeslariak Bazkun berberako bazkidea eta Aita Santuak izentaua izan bear dau.

§ 2.—Bere egitekoa auxe da: berari ezarritako ebazkizunaren beren-beregiako azterketea egin eta Bazkunaren batzarraldi osoan nai legezkoan ebazkizunaren alde nai aurka dagozala dirudien zer guztiak atzaldutea.

2010g. araua. Zuzenaren alde ekiteko epaibide guztietan bertako izan bear dau *siñeskintza aldezkariak*; beroneri 1587g. arauak aginduten dauan lez deituko yako.

§ 2.—Bazkun Gurenaren aurreango siñeskintza-aldezkariari *siñeskintza-aldezlari orokarra* deritxo.

2011g. araua. § 1.—Bazkun Gurenetik alde lan egiteko siñeskintza-aldezlaria nai ebazkizun guztietarako nai ebazkizun berezi baterako izentau daiteke.

§ 2.—Siñeskintza-aldezlari orokarra ta siñeskintza-aldezlari-orde orokarra Aita Santuak izentau daroaz; Goterkizañen auzitegiarako siñeskintza-aldezkaria, epaibidea Aita Santuaren izenean egiten dauana baledi, siñeskintza-aldezlari orokarrak izentatzen dau ta *aldezlari-orde* deritxo; ostantxean, Goterkizañak berak izentauten dau, 2043g. arauko agindua emon aurretik.

2012g. araua. § 1.—Siñeskintza-aldezlariari dagokio:

a) Itaun itz gitxikoak, bizitzako egiñai buruzkoak eta zer erantzun bear erakusten eztautsenak, bai ostera egia agertutekoak, aurkeztutea.
b) Eskekoak aurkeztutako itaunai buruz be berari egoki deritxozan itaunak idaztea.

d) Bitzuok, ixila zaindu-bearrik, epaikariari emotea.

§ 2.—Ganera, aldezlari berberari dagokiona da lekukoak deitu-erazotea eta bidezko eragozpideak aurkeztutea; baña epaikariak, siñeskintza-aldezlariak eskatu barik eta berak nai eztauala be, lekukoak deitu dagikez, alan be, baña, bera yakitun eginda.

III Atala

Ziñaldari, Idazkari ta Aldezlariak

2013g. araua. § 1.—Epaibide guztietan, nai Aita Santuaren aginduz egiten danean, nai Goterkizañaren eskubidez egiten direanetan, bertako izan bear dau Ziñaldariak edo agiri-egilleak.

§ 2.—Bazkun Gurenaren aurreko ziñaldariak Aita Santuaren Len-Ziñaldarietarikoa izan bear dau.

2014g. araua. Jaunzaleak ezin dagike Ziñaldari-lana egin ezin-bestean baño; norbere jaunzaletzako auzietan, barriz, ezertara bez.

2015g. araua. Erroma'tik kanpoan Goterkizañak eragin bear dauzan epaibideetan ziñaldaritzea Obispoaren Idazkolako Ziñaldariak berak badagike egin; Erroma'n Bazkun Gurenako Len-ziñaldariak berabil ziñaldaritzea, ta bera eztagoanean, Aita Santuaren Ordezkoaren Idazkolakoak.

2016g. araua. Erantsia esaten dautsen laguna emon daitekeo Ziñaldariari, laguntzalle izan dakion birridatziak yatorrizkoakaz

at datorzan ikusten eta idaztitegi ta agiritegietan nai beste edonon zaintzen direan yatorrizko idatzietatik ateraten direan bir-idatziak bardiñak ete direan gizauren.

2017g. araua. Ziñaldari-lagunak eta Bazkun Gureneko agiri-zañak yau-
pariak, izen onekoak eta akats bakoak izan bear dabe;
agiri-zañak, ganera, Eleiz-legeetan Irakasle-izenduna.

2018g. araua. Zorioneko ta Santutzat agertzeari buruzko auzietan Baz-
kun Gurenaren aurrean Aldezlari nai Aldezlari-ordearen
lana egitekoak Elxearen legeai buruz Irakasle-izena lortuak izan bear dabe eta
teologian be irakasteko gauza direala esaten dautsen agiridunak; eta ganera
lana zelan egin Bazkun Guren berbereko lege-gizonen bategaz edo Aldez-
kari orokarragaz beragaz lan egiten ikasia izatea egoki izango yake; lege-gizo-
nak, ganera, Errota-auzitegiko lege-gizon-izendunak.

XXIII IDAZPURUA

Auzitan zeintzuk agizpide

I Atala

Egizpide guztiak buruzkoak

2019g. araua. Auziotan egizpideak beteak izan bear dabe; eta leku-
koenak eta agiriak baño eztira gauza.

2020g. araua. § 1.—Jaunaren seme-alabeari etxakola agiriko gurtzarik
egin egiztauteko gitxienez lau lekuko bear dira.

§ 2.—Santutasunaren, ziñopearen eta mirarien entzuna egiztauteko gitxi-
nez zortzi lekuko bear dira; ezta bear, baña zortzirak dana bardin esaterik; aur-
kazkorik esan ezik. bakotzak bere erara esan dagikez; epaikariak, ganera, gitxi-
nez beste lekuko bi iñork eskatu barik deitu bear ditu.

§ 3.—Ekandu santuak eta ziñopea egiztauteko ikusizko ta baterako leku-
koak izan bear dabe; edestizko idatziak lagundu bakarrik dagike.

§ 4.—Aita Santuaren aginduz egiten dan epaibidean ikusleagandiko entzu-
teko lekukoak, eta Goterkizañaren aginduz egiten danean ikusizkoak izan ezkeru,
guztiok batu leitekez egizpide-arloan.

§ 5.—Baña Goterkizañaren egizpidean lekuko ikusizkoak eta Aita Santua-
renean entzutezkoakandiko entzutezkoak bakarrik balegoz, oneik lagungarri-indarra
dauke, geyago edo gitxiago epaikari zurrari deritxonez; ta aurrera, au da mirariak
epaitzera, orduan bakarrik igaro daiteke, lekuko guztien esanak batera begiratura,
zerbait aztuna epaitu bearko leuken gizon zurrari egizat artzeko indarra era-
gingo leuskion egizpidea atera daitenean.

§ 6.—Gurtza-eza bidez doazen antxiñako auzietan, barriz, ikusizko edo iku-
sizkoakandiko entzutezko lekukoak eztagozanean, edo gurtza-bidez doazanetan,

ekandu santuak eta ziñopea egiztau daitekez entzutezko lekukoan esanetik eta
errian daukan izenetik, mallarik malla yazoetaraño garoazan entzutezik; edo garai
artako idatzietatik edo beste edozein egizpide yatorretik.

§ 7.—Amaitzeko, alatzak edo mirariak beti egiztau bear dira ikusizko ta
ao batezko lekukoan bidez.

2021g. araua. Noizdanikoa iñork eztakian, baña antxiña-antxiñakoa
dan gurtza, egiztauten da benetako agerkayen bidez,
agerkayok 1634g. urtean Urbano zortzigarrenak argitaratu eban legea baño gi-
txienez eun urte zarragoak izan edo eun urte orreitan argitaratuak balira, eta
esaten dabezan egiñak eun urte gitxienez lenagokoak ta ganera erriaren iñoiz
eten bako usteak bardin diñoala.

2022g. araua. Antxiña-antxiñako Aita Santuak ez galazotako gurtzea
garai artako agerkayakaz egiztauten da.

II Atala

Lekukoak eta yakitunak

2023g. araua. 2027, § 2, 1.ºg. arauan aginduaren kalte barik, norbait
zorionekotzat emoteko egizpideetan, iñork deitu ez
arren, kistar guztiak beartuta dagoz Jaunaren seme-alabearen ekandu santu edo
mirari edo ziñopearen aurkazkoak direala deritxoezan zer guztiak Elxeari ya-
kin-erazoteko.

2024g. araua. Naita Eskekoak aurkeztu ez, siñeskintza-aldezlariak beste
iñork baño lenago lekuko lez aurkeztu bear ditu Jaunaren
seme-alabeagaz artuemon andia izan eben guztiak.

2025g. araua. § 1.—2023-2024g. arauetan izentauriko guztiak lekuko
lez aurkeztuak izan direala yakin ezik, euren Goterkiza-
ñari idatzi bear dautse Jaunaren seme-alaba orregaz artu-emonik izan eben,
edo agertu-bearreko egin berezien bat dakien, ta, yakitekotan, bera zein dan
labur agertzen dautsela. Goterkizañak, barriz, idazkiok siñeskintza-aldezlariari
bialtzeko ardurea artu begi.

§ 2.—Jaunzaleak onetariko idazkiak ikurratzaz itxita, eurak eta iñoren bi-
dez barik artz Goterkizañari nai siñeskintza-aldezlariari bialdu begioz edo len
baño len emon begioz Goterkizañari nai siñeskintza-aldezlariari bialtzeko ardu-
rea artu bear dauan autortza-entzuleari.

§ 3.—Idatzen eztakienak esan bear dabena esan begioe parroki-zañari, ta
onek esango dautso Goterkizañari edo siñeskintza-aldezlariari.

2026g. araua. Jaunzale-nagusiak egin-bear aztunenagaz lotuta dagoz
yuan bear daben euren menpeko guztiak yon daitezcan
ardurea artzeko; ezpegiez barriz eurak, ez artz ez zearretara, onetara baño
bestera esaten makurtu.

2027g. araua. § 1.—Lekukotzat senide, aide, otsein-neskame, baita siñausle ta siñeskeak be aurkeztu daitezke.

§ 2.—Ezin daitezke artu:

1.º Autor-entzulea 1757, § 3, 2.ºg. arauaren neurrian.

2.º Eskekoa, auziko aldezlaria ez ordezkoa, zeregin ori dauken artean; baña zeregiña osoan itxi balebe, artu daitezke, baña euren esanak besteenai lagundu bakarrik dagike.

3.º Auzian iñoiz epaikari izanak.

2028g. araua. § 1.—Alatz edo mirari-auzian gexoa zaindu eban osalaria, dana dala, lekukotzat aurkeztu bear da.

§ 2.—Epaitegira etorri nai ezpalebe, egin begi epaikariak al dauana, bein-beinean idatzita eta ziñ-egiziñaz indartuta, gatxari ta bere edestiari buruz idatzizko autortza egin dagien; autortza ori auziaren agiri-artean zaindu bedi; edo ori be ezpalegi arein esana beste norbaitek, gero aztertu bearko danak yaso dagiala.

2029g. araua. Lekukoak euren esanean diñoena nondik eta zelan yakin daben agertu bear dabe; ostantxean, euren esanak eztauko indarrrik arean be.

2030g. araua. Jaunaren seme-alabea Jaunzaletza bateko bazkide balitz, aren santutasuna nai ziñopea egiztautzeko lekukoak, erdiak beintzat, arrotzak izan bear dabe.

2031g. araua. Yakitunen lana bear danean:

1.º Yakitunak gitxienez bi izan bediz, alkar ezagutzen eztabenak, 4g. zenbakian aginduaren kalte barik.

2.º Epaitegiak autarki geyen bidez autu begiz eurak, siñeskintza-aldezlaria entzunda, edo euren lana Bazkun Gurenaren aurrean egin bear badabe, Kardenal txostenlariak, siñeskintza-aldezlaria entzunda gero; eztabe orraitio iñoiz izan bear auzian lekuko izanak.

3.º Eskekoari etxako esan bear yakitun nortzuk izentau direan; eta yakitunak eurak be beukie ixilik euren izentatze ori.

4.º Yakitunak bakotxak banan-banan emon begi eritxia idatzita, bidezko ziyoz, siñeskintza-aldezlariaren baiezkoaz yakitunok euron eritxia guztiak batera emotea epaikariak ontzat emon ezpalegi.

5.º Bakotxak berak egindako aztertuaren txostena idatziz emon begi; baña aztertuaren txostena batera idatzi arren, gero banan-banan itandu bear yaki.

III Auala

Epaibidean sartu bear direan agiriak

2032g. araua. § 1.—Eskekoak auziaren aldekotzat daukazan agiriak epaitegiari osorik erakutsi bear yako.

§ 2.—Ganera, epaitegiak egia agertuteko gauza izan daitekezala epaitegiari berari alan baderitxo, eskekoari beste agiri batzuk be erakutsi-erazo dagikeoz.

2033g. araua. § 1.—Epaitegitik kanpoan lekukoak idatziz emondako esanak, direala Eskekoak Jaunaren seme alabearen santutasunari ta ziñopeari buruz epaibidean aztertuteko aurkeztuetakoak; direala aztertuteko aurkeztuta daukazanenak, epaibideko agiri artean egon arren, ezin daitezke erabilli Jaunaren seme edo alabearen santutasunaren edo ziñopearen egiari buruzko epayan indarrrik dauken egizpidetzat.

§ 2.—Eta il-ondoko eleizkarietako gorespenak eta Jaunaren seme edo alabearen eriotza-ostean idatzita argitaratutako ildakoaren bizitza-edestitxoa be eztera legezko egizpideak.

§ 3.—Ta oraindiño gitxiago. Jaunaren seme edo alabea bizi zala idatziz emondako autorpenak aren santutasunari ta egiñai buruz, bearbada izen andikoen batzuk idatziz baña ez euren oldez, adiskideak eskatuta baño.

2034g. araua. Idatzizko egizpidea aurkeztuten dauanak, nondikoa dan eta bere yatortasuna erakutsi bear dau.

2035g. araua. § 1.—Edestiak eztauke egizpide-indarrrik. epaibidean aurkeztutako agiriak egizkotzat erakutsita ezpadago.

§ 2.—Benetan siñeskarri direan lotsa andiko gizonak onetariko agiri batzuk erabili ta yatortzat emon bahezan, euren esana ta agirien yatortasuna eta siñeskarritasuna sendotuteko baño eztera artu bear.

2036g. araua. § 1.—Jaunaren seme nai alabearen santutasuna nai berari emondako legezko gurtzaren antxiñakotasuna ta euron eten bako iraupena egiztetako Eskekoak gura leukezan eskuz idatzizko nai irarritako agiriak epaibideari erantsi bekioz eta beragaz batera Bazkun Gurenari bialdu ta gizon yakitunak aztertu begiez.

§ 2.—Baña onetarikoen bat bertatik atera ezin dan idaztitegi nai agiritegian zaindu baledi. bere iyeki bir-idatzia nai argazkiz artua aurkeztu bekio epaitegiko ziñaldariari, bere yatortasunari buruz idatziz emondako ziñalpenagaz batera.

XXIV IDAZPURUA

Gurtza-bako bidez Jaunaren seme nai alabea zorionekotzat emoteko epaibidea

2037g. araua. § 1.—Bai Goterkizañiak euren eskubidez bai Aita Santuaren Ordezkoak egiten daben epaibidean zeregiña dauken guztiak, au da: epaikariak, siñeskintza-aldezkariak, eta aldezlari-ordeak, ziñaldariak eta bere lagunak, epaibide bakotxaren asieran, Bazkun Gurenak agindutako esakeraz ziñ-eginda euren itza emon bear dabe bakotxak bere zeregiña

zintzo betetako, epaibidea argitaratu arte ixila yagoteko, eta ezertariko eskupeko-rik ez artzeko.

§ 2.—Goterkizañak, epaikari izan ez arren be, ixila yagoteko ziña egin bear dau.

§ 3.—Ixilpekoa yagotekoaz ganera ziñ egin bear dabe lekuko guztiak, batxo be berezi nai legazkatu barik, itandu baño lenago, egia esateko; ta itanduta gero, esandakoari buruz egia esan dauala ziñ egin bear dabe; yakitunak, izkuntza-adierazoleak eta idazleak, ziñ-eginda, egitekoa egin-aurretik bakotxak bere zeregiña zintzo beteko dauala agindu bear dau; au da, yakitun-lana, izkuntza batetik besteraztea, azterketea, barriro-idaztea; eta bakotxak bere zeregiña eginda gero, au da: yakitun-lana, izkuntza batetik besteraztea, birridatzia azterkatzea ondo egin dauala. Baita epaitegiaren aginduak eroaten dauzanak be bere zeregiña ondo beteko dauala ziñ eginda agindu bear dau.

§ 4.—Eskekoak eta Eskeko-ordeak ziñ egiñez berbea emon bear dabe epaibide osoan egia esango dabela eta ezabela maltzurkeririk erabiliko.

§ 5.—Bazkun Gurenean bertan ziñ egin-bearrari buruz bete begiez euren lege bereziak.

I Atala

Goterkizañak bere eskubidez dagikezan egizpideak

2038g. araua. § 1.—Aita Santuagandik Jaunaren seme nai alabeak zorionekotzat agertuteko epaibidea egiteko baimena lortuteko, lenago agertu bear dira bere idatzietako irakatsiaren garbitasuna, bere santutasunaren, ekandu onen eta mirarien edo ziñopearen ospea, baztertu-eziñeko eragozpenik-eza; ta gero erriak santu-erakutsirik eztautsala emon.

§ 2.—Orregaitik Eskekoak eskatuta, Goterkizañak, eskatua ontzat artzea baleritxo, egin bear dau:

1.º Jaunaren seme edo alabearen idatziak billatu.

2.º Santutasunaren, ekandu on guztien edo ziñopearen ospari buruz, eta ziñopearen ziyoi eta mirariai buruz, egia aterateko epaibidea egin.

3.º Agiriko gurtza-ezari buruzko egizpidea eragin.

2039g. araua. § 1.—Orretarako eskubidea Jaunaren seme edo alabea izan edo mirariak yazo direan tokiko Goterkizañak dauko; onek, baño, Jaunaren seme edo alabearen senitarteko balitz, eztau berak egin bear epaibidea.

§ 2.—Ogeta amar urte baño lenago santutasun edo ziñoa-ospari buruz egindako egizpidea balego, baño ebazkizuna Aita Santuagandik legezko sarrerea lortu barik edozergaitik baztertuta balego, Goterkizañai eurai edo euren ondorengoai dagokie santutasunaren edo ziñopearen ospeak dirauan ala ez yakiteko argi-egizpidea egitea.

2040g. araua. § 1.—Epaitegi au osotuten dabe Buruak, au da, Goterkizañak, burutze ori nai berberak nai bere Ordezkoaren

bidez egin; baño au balegi, epaitegiko izango dira beste epaikari bi be, Goterkizañak goterkiko batzar-epaikarien artetikoetatik izentauak.

§ 2.—Goterkizañak erabagi baten bidez izentau begi epaitegiaren maipuru, zeregin ori nai bere buruari ezarri nai bere ordekoari beste epaikari bigaz eta erabagi berberean egin begiz siñeskintza-aldezlaria ta ziñaldaria be.

2041g. araua. § 1.—Lekukoen ziñ egitea artzeko ta azterketa au egiteko batzarrak, al dala, egunez eta toki santuan egin bediz.

§ 2.—Batzarraldi bakotxaren ostean ebazkizunari buruzko idatzi guztiak itxi ta epaikariaren ikurratzagaz ikurtzatu bear dira, ta eztera zabaldu bear urrengo batzarraldian epaikariak ikurratza osorik eta ukutu barik dagoala ikusita gero baño; ikurratza osorik eta ukutu barik agertu ezpaledi, epaikariak yazo dana Bazkun Gurenari iragarri begio.

I Atalka

Jaunaren seme edo alabearen idatziak billatzea

2042g. araua. *Idatzi*-itzak ez bakarrik Jaunaren seme nai alabeak idatzi argitara bakoak, argitaratuak be adierazoten ditu; baita itzaldia, idazkiak, egunerokoak, bere bizitzaren gora-berak be; itz baten, nai iñoren eskuz idatzi eban edozer.

2043g. araua. § 1.—Goterkizañak parroki guztietan, al badau, agindu baten bidez edo beste edozelan zabaltzeko ardurea artu begi Jaunaren seme edo alabearen idatzirik dauken guztiak epaitegira eroan dagiezala aginduaz; eta agindu orretan 2023-2025g. arauetako aginduak gogoratu ta bete-erazo begiz.

§ 2.—Jaunaren seme nai alabea Jaunzaletza bateko bazkide izan balitz, agindu au Jaunzaletza artako etxe bakotxean be zabaldu bear da; ta Jaunzaletzako Buru guztiak zabalkuntzea egin daiten arduratzeko egin bear aztuna dauke 2025, § 2g. arauan aginduten yaken lez, baita menpeko guztiak daukezan idatzi guztiak bialdu dagiezan be.

§ 3.—Siñeskintza-aldezlariaren egitekoa da idatziren bat daukan norbait aurkitzeko usterik dagoan beste edonon be agindu ori iragarteko eskatutea.

2044g. araua. § 1.—Goterkizañak ez bakarrik Eskekoak eskatuta, baita bere zeregiñak beartuta be, Jaunaren seme nai alabearen idatziak zoli billatu begiz.

§ 2.—Idatziak iñoren goterkian aurkitzen direanean, epaikariak otoiitz begio ango Goterkizañari emoten dautsan zuzenbidearen bidez, billatu dagiazala eta egin danaren txostenagaz bialdu dagiozala berari.

2045g. araua. § 1.—Jaunaren seme edo alabeak idatzitakoen bat daukanak idatzi ori aldean euki nai baleu, orduan ziñaldariak berak artu begi ardurea benetako birridatzia egiteko ta Bazkun Gurenari egizpideagaz batera bialtzeko.

§ 2.—Idaztitegi ta agiritegietan yagoten direan idatziai buruz, 2036g. arauaren agindua bete bedi.

2046g. araua. Ziñaldariak zintzo esan begi bai idatziaik zeinbat eta zelangoak direan eta bai euren billatuteari buruzko agiri guztiak be; agiriok, ganera, Goterkizañiak edo bere Ordekoak eta siñeskintza-aldezlariak izenpetu bear dabez eta Goterkizañiak bere ikurratzagaz indartu.

2047g. araua. § 1.—Eskekoak Goterkizañiaren aurrean ziñ begi idatziaik zoli billatuko dituala, ta gero zoli billatu dituala.

§ 2.—Jaunaren alabea Jaunzaletza bateko bazkide izana balitz, Jaunzaletzaren Andra Nagusienak edo Lekaimetxeko Andreak bardin ziñ egin bear dau idatzi guztien billatua zoli bete dauala, eukezan Jaunaren alabearen idatzi guztiak emon dauzala, ta eztakiela berak bere menpekoen batek nai beste norbaitzuk Jaunaren alabearen idatzirik daukenik.

2048g. araua. Ziñopearen ebazkizuna balitz, idatzi-billaketea Bazkun Gurenaren aurrean ebazkizuna sartzeko izenpetuta gero be egin daiteke Siñeskintza-aldezlari orokarrak zerari buruz emongo dauzan irakatsien araura.

II Atalkia

Argi-billaiko bide-arloa

2049g. araua. Auziari buruzko barriak biltzeko epaibide-arloa Goterkizañiak egiten dabe; ta Jaunaren seme edo alabea il zanezkero ogeta amar urte barru bide ori egiten asi ezik, aurrera yarraitu al izateko erakutsi bear da artan eztala izan maltzurkeririk ez azegarikeririk ezta nagikeri erugarririk be.

2050g. araua. § 1.—Santutasunari, ziñopeari eta mirariai buruzko ospeaz lekukoak aztertzean, 2016, 2020g. arauen aginduak bete bediz.

§ 2.—Ezta bear ekandu santuak, ziñopea, mirariai banan-banan egiztauta erakusterik; naikoa da, ostera, guzti orrei buruzko ospea egiztatzea; baña esaterako berez sortua, ez iñork bere ekiñaz sortua; bai lagun yator eta lorsa andikoakandik datorrena, eten bakoa, egunetik egunera azi egin dana ta gaur erriko geyenak bidezkotzat daukena.

§ 3.—1774g. aruaren eraz leलगoko itaun orokarrak eginda gero, epaika-riak itaun auxe begie: Jaunaren seme edo alabearen bizitzeari, ekanduai, mirariai edo ziñopeari buruz belarrietara zer eldu yaken ta zelan yakin dabezan gauzok eta ia eurai buruzko entzuterik errian zabal dabilenik ete dakien; eta gero siñeskintza-aldezlariak aurkeztutako itaunketeari buruz itandu bear daurse eta Eskekoak aurkeztutako itaunai buruz be bai.

2051g. araua. Ezin daiteke epaibide au burututzat emon 2025g. aruan esandako idatzi guztiak, Siñeskintza-aldezlariari bialduta-koak, berak begiratu arte ta 2023-2025g. arauetan direanak be aztertu direala yakin arte.

2052g. araua. Epaitegiak, bai lekukoen azterketeari buruz, bai idatzien aurkeztuteari buruz egizpide guztiak batu direala deritxonean, eta eskuratu al izan direan Jaunaren seme edo alabearen idatzi guztiak epaibideko agiri artean direala, siñeskintza-aldezlaria entzunda gero, oartu begio Eskekoari, besteren batzuk baleukaz, izentauko dauksen epe-barruan aurkeztu dagizala; epe ori bete ezkeru, epaibide onen atzenera eldu dira.

2053g. araua. Epaikariak agindu balegi ta Siñeskintza-aldezlariak aurka ezpalegi, ziñaldariak epaibidea argitaratu begi ta epaitegiak izentauko dauan idazleari emon begio birridatzi dagian.

2054g. araua. Epaibidearen iyekia, birridatzia deritxona, eta baita epaibideko zer guztien agiriak, eskuz idatzi bear dira.

2055g. araua. Birridaztea burutu ezkeru, yatorrizko idatziagaz erkatu bear dabe Ziñaldariak eta bere lagunak, epaikarietatik bat eta Siñeskintza-aldezlaria bertako direala; erkatze ori egin ezkeru, birridatziaren egizkotasuna egiztatzeko bai Ziñaldariak bai epaikariak eta siñeskintza-aldezlariak euren izenpetzeagaz eta ikurratzakaz indartu bear dabe birridatzia.

2056g. araua. § 1.—Erkatzea amaitu ezkeru, yatorrizko idatzia itxi ta ikurratzakaz indartzen dabe agiritegian yagoteko, ta Aita Santuaren baimen barik iñoiz ez zabaltzeko.

§ 2.—Birridatzia, barriz, Goterkizañiaren ikurratzagaz itxi ta indartzen da; eta egin oneri buruzko agiria Ziñaldariak iyeki bitan begi: bata Erroma'ra bialtzeke, bestea Obispoaren Idazkolako agiritegian yagoteko.

III Atalkia

Gurtza-erazko epaibidea

2057g. araua. Eskekoak aurkeztutako lekukoez ganera beste bi iñork eskatu barik deitu begiz epaitegiak eta guztiai Jaunaren seme edo alabeari agiriko gurtzarik iñoiz egin ete yakon itandu begie.

2058g. araua. Epaitegiak ganera Jaunaren seme edo alabearen obira, bizi ta il zan tokira ta gurtza-erakutsirik ete dan bidez susmau leiteken beste edonora eldu eta zoli begiratu begi.

2059g. araua. Epaibidea egiñean Jaunaren seme-alabeari agiriko gurtzea emon yakolakoaren egizpide naikoa argiak agiri bialira, siñeskintza-aldezlariari dagokio gai oneri buruz aztertza zeatzagoa egitea.

2060g. **araua.** Epaitegiak bere erabagiaren bidez Jaunaren seme edo alabeari agiriko gurtzarik emon yakon ala ez erabagi bear dau.

IV Atalkia

Jaunaren seme edo alabearen idatzia eta agiriko gurtza-etzari buruzko epaibideak
Bazkun Gurenari bialtzea

2061g. **araua.** Goterkizañak idatziaq billatutea amaituta bertatik Erroma'ra bialdu begi *alegiñen epaibidetxoagaz* batera idatzien billa egin direan alegiñen edestitxoa.

2062g. **araua.** Jaunaren seme edo alabearen idatziaq billatzearen ostein epaibide bitartean beste batzuk aurkitu balediz, bertatik Bazkun Gurenari bialdu bear yakoz, ta ezin leiteke aurrerago yarraitu eurok aztertu arte.

2063g. **araua.** § 1.—Argi-billako epaibidearen birridatzia Goterkizañak Eskekoari bemoyo Bazkun Gurenari bialtzeko.

§ 2.—Bazkun Gurena bai lekukoen siñeskarritasunari buruz, bai egizpide guztiak legez amaitu direala yakitun egin daiten, biridatziaz batera bai epaikarien idatzia Bazkun Gurenari bai siñeskintza-aldezlariarena Aldezlari Orokarrari bialdu begioez.

§ 3.—Ganera Goterkizañak birridatzia ikurraztu eban ikurratza zelangoa danaren erakutsia, edo ikurrazt berberaren beste iyeki bat be bialdu begi.

II Atala

Auziaren sarrerea Bazkun Gurenaren aurrera

I Atalkia

Idatzien azterketea

2065g. **araua.** Jaunaren seme edo alabearen idatziaq Erroma'ra bialdu ta bertatik aztertu bear dira; baña Bazkun Gurenak berari aurkeztutakoez ganera Jaunaren seme edo alabearen idatzien batzuk bat edo besteren eskuetan nai legezko norbaitzuen agiritegietan ete dagozan garaiz begiratu bear dau.

2066g. **araua.** § 1.—Idatzi-aztertalleak, Siñeskintza-Aldezkari orokarra jentzunda, Kardenal Txostenlariak bakotxean izentau begiz; eta euren izenak ixilpean zaindu bediz.

§ 2.—Zeregin onetarako gitxienez Teologian Irakasle-agiridun yauparia izan bear dau, edo, Jaunzalea balitz, antzeko agiria daukana.

2067g. **araua.** § 1.—Jaunaren seme edo alabearen idatziaq artarako izentautako aztertalleai emon begiez Bazkunako Zador-

lariak, idatzi bakotxa, alkarren laguna zein dan eztakiela aztertalle bik aztertu dagien.

§ 2.—Jaunaren seme edo alabearen idatziaq asko be asko balira, eztago eragozpenik eurok zati askotan banantzeko, eta zati bakotxa aztertalle banai emoteko.

2068g. **araua.** § 1.—Aztertalleen ebatziak idatzietan kistar siñeskintzaren edo ekandu onen aurkazkorik ezer dagoan agertu bear dau, eta idatzietatik zelango izakerea, zeintzuk ekandu on nai txar Jaunaren seme edo alabeak agertuten dauzan erakutsi.

§ 2.—Aztertalleak euren ebatziaren egizpideak be agertu begiez.

2069g. **araua.** Aztertalleen ebatziak bear bada bardñaq ezpalira, 2066g. arauak aginduten dauan lez, izentau bedi irugarren aztertallea ta onek bere zeregiña besteak lez bete begi.

2070g. **araua.** Siñeskintzaren Aldezlari Orokarrak Jaunaren seme edo alabearen idatzietatik eta aztertalleen ebatzietatik artutako eragozpideen batzuk bialitu, epaitzeko Kardenalai agertu begioez.

2071g. **araua.** Jaunaren seme edo alabearen idatzietan siñeskintzeagaz alkartu ezin daiteken zerbait dagoala argi erakutsi baledi, edo gaurko kistarrentzat yauspide litzaken zerbait, Aita Santuak berak, Kardenalen epaya entzunda gero, eta zeraren zer guztiak astiro begiratuta, aurrera yarra leiteken ala ez ebatzi begi.

2072g. **araua.** Aita Santuaren oneretxizko ebatziak eztauz idatziaq ontzat emoten, ezta galazoten be siñeskintzaren aldezlari orokarrak eta Onulariak ekandu onai buruzko eztabaidatzean Jaunaren seme edo alabearen aurka bere idatzietatik artutako eragozpideak aurkeztuteko dauken eskubidea ta eginbearra.

II Atalkia

Argi-billako epaibidearen eztabaidatzea.

2073g. **araua.** Goterkizañak egiña ta Erroma'ra bialdutako argi-billako epaibidea, ikurrazten osotasuna aztertu ezker, Bazkun Gurenako Len-Ziñaldariak, ezeren eragozpenik ezpalitz, Aita Santuaren beren-beregiko aginduaren indarrez, Bazkun Gurenako Kardenal Lendakariaren aurrean zabaldu begi, eta Kardenal onek Agiri-zañari birridazteko emon begio.

2074g. **araua.** Kardenal Txostenlariari dagokio, epaibidea egin dan izkuntzatik beste batera aldatu-bearra balego, ontzat emondako adierazolearen bidez lan ori egiteko ardurea artzea; Lan ori Erroma'n egin bear da eta aztertalleak ikusi begi.

2075g. araua. Goterkizañak bialdutako epaibidearen birridatzia Bazkun Gurenaren agiritegian zaindu bedi; ta aren iyeki bat agiri-zañak legeak aginduten dauan lez aztertuta Eskekoari bemoyo.

2076g. araua. § 1.—Aldezlariak eta ordelariak epaibidearen birridatziaren, edo epaibide bat baño geyago balira, guztien laburtua begie, eta laburpenari erantsiko dautsen txostena.

§ 2.—Laburpenari siñeskintzaren aldezlari-ordearen txostena erantsi bear yako; txosten orretan esango dau laburpenak diñoana Bazkun Gurenari aurkeztutako agiriak diñoanagaz baterakoa dala.

2077g. araua. Nai Elexako nai Laterrietako Nagusi ta ostantzeko lagun argienetakoak edo legezko Norbaitzuk be Jaunaren seme edo alabea zorionekotzat agertuteko lanari zoli ekion eskatuten daben idazki Aita Santuari idatziak ontzat artzen dira, euren kautez eta zer esaten daben dakiela idatziak baldin badira.

2078g. araua. Idatziak aztertuta gero aurrera yarraitu daitekela erabagi baledi, siñeskintzaren aldezkari orokarrak auzia ebazkitzun sartzeko legokezan eragozpenak aurkeztu begiz, eta eurai auziko lege-gizon-aldezkariak erantzun begie.

2079g. araua. § 1.—Siñeskintzaren Aldezlari orokarrak auzi-sarrerearen aurka aurkeztu bear dauzan eragozpideai aurreztik Jaunaren seme edo alabearen bizitzearen edesti laburra ta argia aurkeztu begioe.
§ 2.—Laburpen ori idazteko erabili begiz ez bakarrik lan orretan bertan aitatuten dauzan agiriak, baita gero euren garayan begiratu ta aztertu bearko direan beste batzuk be, egon balegoz.

2080g. araua. Auziaren aurkazkoak eta erantzunak labur, iya ikastole-tako eztabaidetan egiten dan lez, Bazkun Gurenaren antxiñatiko eraz egin bediz.

2081g. araua. Agozko argitu-gureak, ez bakarrik epaikariai, baita euren autarkia emoteko eskubidea daukien guztiai be, bai epaibide onetan, bai gerokoetan be galazo egiten yakez.

2082g. araua. Santutasunaren nai ziñopearen ospeari buruz eta auzia aurrera eroateko eragozpiderik eztagoala erakusteko Goterkizañak egindako argibillako epaibideari buruz epaya emotea Bazkun Gureneko Kardenalai dagokie legezko batzarrean batuta, Kardenal Txostenlariak itaun au egiten dautsela: *izentau bear ete da auzi au epaikizum sartu ete leiteken ala ez erabagiteko eta guztiok dakizumerako bazkuna?*

2083g. araua. § 1.—Kardenalen erantzuna bayezkoa izan baledi, Aita Santuari esan begio izentau dagiala, baderitxo, auziaren sarrereari buruzko batzordea.

§ 2.—Aita Santuak batzorde ori izentau balegi, Bazkun Gurenaren Zadorlariak idatzi begi erabagi egokia eta argitaratu bedi.

2084g. araua. § 1.—Auziaren sarrereari buruzko erabagia argitaratu ezker, Goterkizañak eztauke eskubiderik auziari buruz ezer egiteko Bazkun Gurenaren beren-beregiko baimen barik.

§ 2.—Bere auzia sartu baño eztan Jaunaren seme edo alabeari *gurtzagarri-izena* emotea galazota dago; ta eskekoak begiratu begie, auzia sartu dala-ta, Jaunaren seme edo alabearen aintzaz agiriko gurtza-usañik daukan ezer egin eztaiten.

III Atalkia

Gurtza-etzako epaibidearen eztabaidatzea

2085g. araua. Auzia sartzeko batzordea izentau ezker, Kardenalak betikiko ta beren-beregiko batzarretan gurtzeari buruz Goterkizañak emondako epaya ontzat emoteko epaya emon bear daben ala ez eztabaidatu bear dabe. Kardenalen epayak gurtzea emon yakola erabagi balegi, Kardenalai eurai deritxoenez, auziaren atze-aurre guztiak begiraturik, gebendutako gurtzearen erakutsi guztiak kendu arte eta Kardenalak euren aginduan izentau bear daben epea bete arte, auziaren ebazketea eten bedi.

2086g. araua. § 1.—Auzia sartu baño lenago gurtza-etzako epaibidea Goterkizañak egin ezpaleu, Aita Santuaren aginduz epaibide berbera egin bear da.

§ 2.—Onetarako, Siñeskintza-Aldezlari orokarrak 2087 ta urrengo arauetan aitatuten direan ezarri-idatziakaz batera Bazkun Gurenak berak aututeko epaikariari egingo dautsezan itaunen lerroa idatzi begi.

§ 3.—Auzia sartu baño lenago gurtza-etzako epaibidea Goterkizañak egin bako ziñoapak direanean, ziñopeari ta ziñopearen ziyoari buruzko epaibidea egiteko ezarri-idazkiari gurtza-etzako egizpideak be batuteko agindua erantsi begio siñeskintzaren Aldezlari orokarrak egin bearko dautsezan itaun-lerrokadeagaz batera.

III Atala

Aita Santuaren epaibideak

I Atalkia

Aita Santuaren epaibidea zelan egin?

2087g. araua. § 1.—Gurtza-etzako epaya emon ezker, Aita Santuari eskatu bekio, ta Kardenal Lendakariak ezarri-idazkia deritxona emon begi, bai santutasunaren eta mirarien edo ziñopearen ospeari buruzko epaibidea egiteko, eta bai ekandu on eta mirari bakotxari buruzkoa edo ziñopearen ziyoai buruzkoa be.

§ 2.—Epaibide biok banan-banan egin bediz; baña lelengoa itxi daiteke,

Kardenal Lendakaria ta siñeskintzaren Aldezleri orokarra ospean ete dirauan barrero azterka ekitea ez bearreko ez egoki dalakoan balegoz.

§ 3.—Batzordea izentauta, gurtza-etzako epaya oindiño emon barik dagoala, ikusizko lekukoan batzuk bitartean ilteko bildurra balego, egizpideak galdu eztaitez, bertatik emon bedi ezarri-idazkia ekandu on bakotxari edo ziñopeari ta bere zioyai buruzko Aita Santuaren epaibidea egiteko.

2088g. araua. § 1.—Ezarri-idatzia gitxienez bost epaikariri emon bekie; al dala, eleiz-gizon nausitzen baten yabe direanai.

§ 2.—Epaikarien artean Goterkizaña izentau balebe, bera izan bedi Lendakaria; ondo litzake, baña, Lendakaria argi-billako epaibidean izan zana berbera ez izatea.

§ 3.—Mirariai buruzko epaibidea balitz, izentau bedi ganera gitxiendik yakitun bat, epaitegiaren batzarretan bertan egon bear dauana, eta lekukoak aztertorduan epaikizunaren eta itzen argitasunerako itaun egokiak egin dagioezan epaikariai eskatuteko eskubidea beuko.

2089g. araua. Ezarri-idatziari epaitegiaren Batzarretan bere ordeztan egoteko Siñeskintza-Aldezkari-Orokarrak aldezlari-ordeko bi izentauteko emondako agiri-idatzia erantsi bekio.

2090g. araua. Itaunak siñeskintza-aldezkari-orokarrak idatzi bear ditu: auziaren sarreran eztabaidatu zirean eragozpideai buruz eta argi-billako epaibidean lekukoak esanai buruz egiteko itaunak, 2050g. arauak diñoan lez eta berari deritxonez; eta batez be mirariai buruzkoetan yakitunaren laguntza be berabill.

2091g. araua. § 1.—Epaibideau egitea ezarten dauan idatzia auziko Eskekoari emon bekio; onen egitekoa izango da idatzi ori epaitegiko maipuru-ordeztuari bialtzea.

§ 2.—Erabatera bialdu bekioz aldezlari-ordeko bateri epaitegira deituko dabezan lekukoai egin bearko yakezan itaunak: itxita ta lekukoak aztertutorduan bakarrik zabaltzeko.

2092g. araua. Epaikari ordeztuak, euren zeregiña betetan asi orduko, ordezkotasuna emoten dautsen agiri-idatzia tokiko Goterkizañari erakutsi bear dautse; onek barriz bere aginpidearen laguntasuna emon bear dautse.

2093g. araua. § 1.—Zeregiña ezarten dautsen idatzia artuta, epaitegiaren maipuruak epaitegia len-baño len batzarredera deituteko ardurea artu begi; ta bidezko eragozpenik izan ezik, dei ori ezpegi iñoiz iru illabete baño geyago atzeratu; eta eragozpena balego, epe bardiñean Bazkun Gurena yakitun egin bear dau.

§ 2.—Epaitegiak bere lelengo batzarrean ziñaldaria ta bere laguna izentau

bear ditu; baita yakituna be bere bearrik balego, eta erabagiak eroan-ekartekoa; eta izentatze onein agiria Obispoaren Idazkolako ziñaldaria idatzi begi.

2094g. araua. Zeregiña ezarten dautsen agiria artutako guztiak epaitegiaren batzar guztietara elduteko eskubidea dabe; baña batzarrok eta bertako erabagiak gauzazko izateko naikoa da maipurua beste epaikari bigaz batzea, edo maipurua kanpoan balego bere baimenagaz beste iru epaikari, eta ganera beti siñeskintza-aldezkari-orde bat, ziñaldaria nai bere laguna batzea.

2095g. araua. Epaibideok beranduenez urte biz barruan amaitu bear dira; urteok asi zirean, aginduaren agiriak zabaldu ebezan egunean; urte biok bete ezker, ez dagike epaibidean yarraitu Aita Santuaren baimen barik; yakitun egin begie Bazkun Gurena zerk eragotzi dautsen agindua osoan betetea.

2096g. araua. Ekandu on bakotxari buruzko Aita Santuaren epaibide au burutu orduko, epaitegiak Jaunaren seme nai alabearen gorpuzkiñen ikusia egin begi ezarri-idatziaren aginduaren arauz.

2097g. araua. § 1.—Yatorrizko idatzia birridazten, alkarregaz erkatuten eta Erroma'ra bialtzean emen goragoan 2054, 2055 ta 2063g. arauetan argi-billako epaibideari buruz aginduak bete bediz.

§ 2.—Epaibide au Bazkun Gurenaren aurrean 2073-2075g. arauen aginduen neurrian aurkeztu, zabaldu ta birridatzi bedi.

II Atalkia

Aita Santuaren epaibidearen gauzazkotasunari buruzko ebazkizuna

2098g. araua. Aita Santuaren epaibidea Bazkun Gurenari bialdu ezker, lelengo egin bear dana epaibide berberaren egizkotasuna egiztatu, ta erabatera argi-billako epaibidearen gauzazkotasuna barrero aztertu bedi.

2099g. araua. Orregatik eztabaidatze-aurretik ebazkizunaren aldezkariak zer oneik euki bear dauzan aldeztua gertau begi:

1.º Epaibidean dagozan artarako bearreko agiriak erakutsita, bertan dana zuzen egin dala erakusten dauan txostena.

2.º Siñeskintza-Aldezlari orokarreraren oarrak gauzazkotasunaren aurka, Aldezkariaren erantzunakaz batera; biak 2080g. arauak aginduten dauan lez egiñak.

2100g. araua. § 1.—Epaibidearen gauzazkotasuna epaitzeko batzarra egin bedi, bertan direala Bazkun Gurenako Kardenal Lendakaria, Kardenal Txostenlaria ta Aita Santuak berak izentautako Bazkun Guren berbereko beste iru Kardenal, baita Zadorlaria be, Aita Santuaren Len-Ziñaldaria, siñeskintzaren Aldezkari orokarra ta aldezlari-ordea.

§ 2.—Batzarrean, Kardenal Txostenlariá iztun dala, aitaturako Kardenalak euren eritxia agertzen dabe, ta siñeskinza-Aldezlari orokarrak, badaukaz, eragozpenak aurkeztuten ditu.

§ 3.—Zer guztiok eztabaidatuta gero, Kardenal Jaunak emon begie epaya; aldezkoa balitz, eta Aita Santuak sendotzat emon, epaibidearen gauzazkotasunari buruzko erabagia emon bedi.

III Atalkia

Ekandu on bakotxaren santu'asunari edo ziñopeari ta bere ziopei buruzko ebazkizuna

2101g. araua. Ekandu onai buruzko eztabaidatzea ezta asi bear Jaunaren seme edo alabea il zanezkero berrogeta amar urte yoan aurretik.

2102g. araua. Iru batzarretan eztabaidatzen dira Jaunaren semearen edo alabearen ekandu onak edo aren ziñopea ta onen zioyak, au da: gertau-aurretikoan; gertautekoan, eta guztienean.

2103g. araua. § 1.—*Praelati officiales* izeneko bazkideak eta Aolkariak batzar bakotxean euren esatekoa idatzita ekarri bear dabe.

§ 2.—*Praelati* ta aolkari guztiak bai gerta-aurretikoan bai gertauteko batzarrean euren eritxia agertuta gero, batzarra amaitutzat emon baño lenago, bakotxak len agertu dauan eritxitik alde egiten dauala esan dagike.

§ 3.—Autarki bakotxaren ebatziak Zadorlariak idatzita ezarri begiz ta ixilik zaindu bediz; autarkiak eurak, barriz, idatzia siñeskintzaren aldezkari orokari emon bekioz.

2104g. araua. Autortzaleai buruzko auzietan ezpai eraz eztabaidatu bear da: *ia bere Jaunari buruzko ekandu onak, au da: siñesmena, itxaropena ta maitasuna Jaunari buruz bai gizalagunai buruz; baita ekandu onen erroak direan zurtasuna, zuzentasuna, neurrizkotasuna ta sendotasuna ta euretariko bakotxari erantsitako beste ekandu onak benetako santuen antzean gorengo malletan agiri ete direan gure auziko dan onegan eta nai dan zertarako; Ziñopai buruzkoetan barriz: ia ezpai barik erakutsita ete dagoazan ziñopea ta bere zioyak ete bere irargiak edo mirariak gure auzi onetan ete gura danerako?*

2105g. araua. Gerta-aurreko batzarra Kardenal Txostenlariaren aurrean eukiten da, Bazkun Gureneko *Praelati officiales* eta Onulariak bertako direala.

2106g. araua. Gerta-aurreko batzarreko urrengo zerokaz osotutako azterkizuna gertatu bedi:

1.º Lelengo epaibidetik artutako laburpenagaz oraingo laburpena lekukoan esanak ete agiriak osorik ezarrita egin bear da.

2.º Lege-gizon aldezlariaren lan idatzia; bertan laburpenean agertutakoeta-

tik Jaunaren seme edo alabearen bizitzearen ete ekandu onen bikaintasuna edo ziñopea ta bere zioyak labur erakutsi bediz ete zearo ete garbi banandu egiztabidetzat ekarriak orretarako lagungarri ete geigarritzat bakarrik ekarrietatik.

3.º 2079g. arauan aitutzen dan siñeskintzaren Aldezkari orokarraren txostenaren laburtua.

4.º Siñeskintzaren aldezlari orokarraren oarrak ete lege-gizon-aldezlariaren erantzunak.

5.º Jaunaren seme edo alabearen idatzia buruz idatzitako eritxiak.

2107g. araua. Gerta-aurretikotik ezpedi gertatzekora igaro bertan direan bi irurenak ezezko eritxia agertu balegie, Kardenal Lendakariak yazo danaren barria aita Santuari emon ete onek aurrera yoateko esan ezpalegi.

2108g. araua. Gerta-batzarrerako aztertua urrengo zerokaz osotu daroe, bertako *Praelati officiales* ete aolkariak batzarreko direala.

2109g. araua. Gerta-batzarrerako aztertua urrengo zera buruz egin bear da:

1.º Siñeskintza-Aldezkari orokarraren eragotziakaz.

2.º Aolkariak euren eritxietan aurkeztuten dabezan eragotziakaz.

3.º Lege-gizon-aldezlariaren erantzunez.

4.º Bai auziaren alde bai auziaren aurka oraintsu agertu direan agiriakaz, alde nai aurkako geigarri laburragaz batera.

2110g. araua. § 1.—Gerta-batza onetan Kardenalak, aolkariak entzunda gero, aurrera yarrai ete daiteken erabagiten dabe.

§ 2.—Bazkun Gureneko Zadorlariari ta siñeskintza-Aldezkari orokarrari, iñork itandu barik be zillegi yake beti batzarrean mintzatzea, ebazkizuna argiagotzelditu ta egiñak argitu daitezcan.

2111g. araua. Eztabaida ostean Kardenal Txostenlariak batzarrean izan danaren barri emon begio Aita Santuari, ete adierazo begio ez bakarrik eztabaideak zertara yo dauan, baña bai alde batetik ete bestetiko egizpide garrantzitsuenen barri emon be.

2112g. araua. Batzar orokarra Aita Santuaren aurrean egiten da, Bazkun Gureneko Kardenalak, *Praelati officiales* ete Aolkariak bertan direala.

2113g. araua. Batzar orokarrerako 2109g. arauak diñoan lez gertatzen da ebazkizuna, ete ebazkizun orreri ganeratu bear yako auziaren epaibidea asi zan ezkeror orain artean izan dituan gora beren txostena, Bazkun Gurenaren kontura egiña.

2114g. araua. Batzar orokarrean Jaunaren seme edo alabearen ekandu onen santutasuna edo ziñoepa bere ziyoa egiztauta agiri ete direanari buruzko epaya Aita Santuari berari bakarrik dagokio, eta Kardenalak bakotzak bere eritxia emoteko eskubidea baño eztauke.

2115g. araua. § 1.—Aita Santuak aginduta Jaunaren seme edo alabearen ekandu onak benetako santuen mallako agiri direala edo ziñoepa ondo egiztauta agiri dala Aita Santuaren izenean esaten dauan erabagia idatziz yarri begi Bazkun Gurenaren Zadorlariak; eta erabagi ori Aita Santuak agindutako garaiz eta eraz argitaratu bedi.

§ 2.—Erabagi ori argitaratu ezkeru, Jaunaren seme edo alabeari *gurgarri*-izena emon daitekio; izen orrek, baña, eztau emoten agiriko gurtzaketarik emoteko baimenik.

IV Atalkia

Jaunaren seme edo alabearen mirari bakotxaren epaibidea

2116g. araua. § 1.—Ekandu onen santutasunaz edo ziñoepaz ganera, Jaunaren seme edo alabeak *Zorionekotzat* agertuteko bere bitartez egindako mirariak be bear ditu.

§ 2.—Alan be, ziñoepa balitz ta ziñoepa ta ziñoeparen ziyoak, bai azaletik bai mamitik begiratuta agirian balegoz, baña miraririk ez, benetako alatzik izan ez arren, mirari-antzekoak naikoa izango ete direan erabagitea Bazkun Gurenari dagokio; eta mirari-antzekorik be ezpalego, Aita Santuari mirari antzekoetatik be legazkatzea eskatuko ete yakon erabagitea be bai.

2117g. araua. Jaunaren semea edo alabea zorionekotzat agertuteko mirari bi bakarrik bear dira epaibide bietan: bai Goterkizañaren aginduz egindakoa, bai Aita Santuaren izenean egindakoa, bere ekanduen santutasuna egiztau ebenak ikusizko lekukoak izan badira; bardin Aita Santuaren aginduz egindakoa, lekukoak ikusizkoakandik entzunak badira be; iru mirari, lelengo epaibideko lekukoak ikusizkoak bazirean eta bigarrenean entzunakandiko entzunak badira; lau barriz, ekanduai buruzko epaibide bietan gauzea erriak eta agiria esaten dabenetik bakarrik ezagutzen danean.

2118g. araua. § 1.—Mirariai buruz eztabaidan ekiteko eztabaidearen asieran, iñork eskatu barik, yakitun bi artu bear dira, ta biak batera miraririk izan eztalakoan balegoz, ezpedi aurrera yarraitu.

§ 2.—Mirariai buruzko eztabaidetan sarri-sarritan gatxen batetik osatuari buruz ebatzi bear izaten danekero, yakitunak osalaritzan nai sendalaritzan ospe-tsuenetarikoak izan bediz; oraindiño obeto, al dala, aurkeztutako mirarietan agertuten direan gatxak igarten eta osatuten azkarrenak direanak.

2119g. araua. Yakitunen txostenak labor baña argi idatzita ta egizpi-deakaz indartuta zer biok beukoz:

1.º Osatua danean, osatu dala diñoena ia benetan osatutzat emon al daiteken.

2.º Miraritzat aurkeztutako gexoaren osatua berezko indarren bidez azaldu ete daiteken ala ez.

2120g. araua. Mirariak iru batzarretan eztabaidatuta epaitu bear dira, or goragoan ekandu onen santutasuna epaitu dan lez; batzar bakotxean, barriz, Aita Santuaren aurreko batzar orokarrean izan ezik, ezpediz iñoiz mirari bi baño geyago eztabaidatu.

2121g. araua. Gerta-aurreko batzarrerako ebazkizuna urrengo zerakaz osotu bear da:

- 1.º Lege-gizon aldezlariak idatzitako txostenagaz.
- 2.º Lekukoen esanen laburtuagaz.
- 3.º Mirari bakotxaren egia erakusteko yakitun biak idatzitako txostenakaz.
- 4.º Siñeskintza-Aldezkari orokarraren eragozpideakaz.
- 5.º Lege-gizon Aldezlariaren erantzunagaz.

2122g. araua. § 1.—Gerta-batzarrerako ebazkizuna goyan 2109g. arauan erabagi dan lez eraztu bedi, bertako § 2 garrenean esaten dan lez yakitunen txostena erantsita.

§ 2.—Gerta-aurreko batzarrean yakitun biak miraria egizkotzat emoten batera egon balira, orduan gerta-batzarrerako yakitun bat bakarrik izentau bedi; mirariaren alde yakitun bat bakarrik ager baledi, orduan yakitun bi zeregiñak berak beartuta izentau bediz.

§ 3.—Iñoiz alan bear dala baderitxoe, Bazkun Gurenako Kardenalak legeak agindutakoak baño yakitun geyago izentatzeko eskubidea badauke.

§ 4.—Legegizon-Aldezlariak be eskubidea dauko bere erantzunak emoteko yakitun baten laguntzea billatuteko, *ad opportunitatem* esaten dautsen txostena barik.

2123g. araua. Batzar orokarrari buruz, 2113, 2114g. arauak aginduten, dabena egin bedi.

2124g. araua. § 1.—Mirariak ontzat emondako epayaren ostean eztabaidatze barria euki bear da Aita Santuaren aurrean ebazkizun onexeri buruz: Ia bildur barik yoan ete leiteken Jaunaren semea edo alabea zorionekoen arteko dala agertuten.

§ 2.—Ebazkizun oneri buruz aolkarien eta Kardenalen eritxia entzunda gero zer egingo Aita Santuak erabagiten dau; ta berak nai dauanean erabagia idatzi ta argitaratuteko aginduko dau.

Gurtza bidez edo legetik kanporako bidezko Jaunaren seme edo alabea zorionekotzat emoteari buruzko epaibidea

2125g. araua. § 1.—Alesander Irugarrena zan Aita Santuaren ostean eta Urbano Zortizigarrenaren legeak izentautako epea baño lenago gurtuak izan zireanen alde gurtza ori ontzat emoteko Aita Santuagandik eskatu daiteke.

§ 2.—Orretarako, baña, urrengo arauak aginduten daben epaibidea egin bear.

2126g. araua. Epaibide au asteko Goterkizain egokia gurtzea egiten yakon edo gurtzeari buruzko agiriak dagozan tokikoa da; orretariko Goterkizañak bat baño geyago balira, besteai aurrea artzen dautsenak dauko epaibidea egiteko eskubidea.

2127g. araua. Eskekoak eskatu ezkeru Goterkizañak egin bear dauana:

1.º Jaunaren seme edo alabearen idatziak billatu.

2.º Bizitzearen santutasunari, ekandu onai edo ziñopeari edo mirariai buruzko ospari buruzko epaibidea egin, urrengo itaunai erantzuteko:

a) *Ia urlia tokian Jaunaren seme edo alabearen mundu onetako bizitzaldian santu izan zalako ospea eta eritxia geiemen batekoa eta yarraitukoa dan.*

b) *Edo ziñopezat dagean eta zergaitik.*

d) *Ia bere bitartez egindako mirarien ospea ta bayezko ustea antxiña-antxiñakoa eta esaterako guztiak eta beti daukema dan.*

e) *Ia bertan oraindiño Jaunaren seme edo alabearen gurtzea bizi dan, eta zelam kistarrak gurtze ori erakusten dautsen?*

2128g. araua. Guzti ori 2060-2061g. arauen arauz Bazkun Gurenari bialduta, ezpai au: *ia auxia sartzeko batzordea izentau bear dan*, betiko legeko batzarrean Kardenalak eztabaidatzeko aurkeztu begie, Kardenal Txostenlaria iztun dala.

2129g. araua. Itaun orreri bayetz erantzun balegio Bazkun Gurenak erabagia izenpetuaz, zeregiña betetako berak izentau dauzanai agindu begie legeak aginduten dauan lez eta Aita Santuaren izenean egizpidea egin daiten legetik kanporako auzi oneri buruz, eta epaya epaikari ordeztuak emon begi.

2130g. araua. Epaibide orretan gurtza orren asierea ta bere eten bako irauna epaikari ordeztuaren epayaren arte erakutsi bear da.

2131g. araua. Egizpidea Bazkun Gurenari bialdu ta zabaldu ezkeru, eta auziaren aldezlariak bera azaldu ezkeru, ta siñeskintza-aldezkariak bere eragozpideak aurkeztu auziaren aldezkariak eragozpideoi

emondako erantzunakaz, Bazkun Gurenaren batzaraldi baten egin bedi itaun au: *Ia ontzat emon bear dan epaikari ordeztuaren epaya edo naikoa egiztauta dagoan gure auzia aurrera yarraituteko?*

2132g. araua. Epaikari ordeztuaren epaya Aita Santuak ontzat emotek indar auxe dauko: egia dala Jaunaren seme edo alabeari antxina-antxiñatik gurtzea emoten yakona eta epaikariaren epaya-artean itaun dauana, ta besterik ez.

2133g. araua. Auzi bereziari buruzko ebazkizunari erantzuna bayetz izan baledi eta Aita Santuak ontzat emon balegi, ekanduai edo ziñopeari ta bere ziyoi buruzko epaibidea egiteko eskubidea emoten dauan idatzia egin bedi, bata edo bestea, auzia zelangoa dan; eta 2037-2115g. arauetan aginduak bete bediz.

2134g. araua. Noiztikoa danik ezin esan arren antxiña-antxiñatik gurtzearen alde eta ekanduen santutasunaren alde edo ziñopearen alde be epaya emon ezkeru, Jaunaren seme edo alabea lege Zorionekotzat emondakotzat artzen da. Aita Santuak agiriko erabagi baten bidez areri gurtzea emotea ontzat emon balegi.

2135g. araua. Onan, bardin-antzean, Zorionekotzat emondako Jaunaren seme nai alabeari Zorionekotzat agertuai emoten yakezan gurtza-erakutsiak bardin emon legikioez.

Zorionekoak santutzea

2136g. araua. Ezin dagikeo iñork norbait santutzat emoteko nai bere aintzaz gurtza-erakutsi batzuk egiteko baimena Bazkun Gurenari eskatu, Jaunaren seme nai alaba ori beren-beregi nai bardin-antzean Zorionekoan artean yarría dana lenago erakutsi ezik.

2137g. araua. § 1.—Beren-beregiko nai bardin-antzeko Zorionekotzat emona norbaitek izan ebala Bazkun Gurenari agertuteko, agiri siñeskarria erakutsi bear dautso.

§ 2.—Onetariko agiririk ezpalego, legeko auzia yarri bear da areri gurtzea emotea Aita Santuak emon ebala egiztatzeko.

§ 3.—Auziaren epaibidea amaitu ezkeru, legeko batzarrean Aita Santuak ontzat emoteko aurkeztu dautsen epaya emon begi.

2138g. araua. § 1.—Beren-beregi Zorionekotzat emonak santutzat agertuteko, beren-beregi Zorionekotzat emonda gero egindako mirari bi bear ditu.

§ 2.—Bardin-antzean Zorionekotzat emona santutzat agertuteko, barriz, bardin-antzeko Zorionekotzat emonda gero egindako iru mirari bear ditu.

2139g. araua. § 1.—Zorionekoaren bitartez egindako mirarien bat dala-lakoan, eskekoak eskatuta eta Aita Santuak alan gure balegi, Bazkun Gurenak agindua emon begi auzia barrero eztabaidatu daiten eta goragoko arauetan ezarrita dagozan legeen neurrian egizpide barriak egin daitezcan.

§ 2.—Egizpideen gauzazkotasuna egiztau ezkerro, mirari barrioi buruzko eztabaidatzea or goyan 2118-2124g. arauetako legeak aginduten daben lez egin bear da.

2140g. araua. Zer guztion ostean Aita Santuak, Kardenalen eta Aolkarien eritxiak entzunda gero, alan baderitxo ta Berak noiz gura, Zorionekoa Santutzat bildur barik Elexa osoari agertu daitekiola ebazten dauan erabagia emoten dau.

2141g. araua. Zorionekoen santukunde ospetsua Aita Santuak Kardenal guztiakazko batzarrean erabagita gero, Erroma'ko Aita Santuaren etxean oi direan Yaurespideko eleizkizun ospetzuakaz egiten da.

IRUGARREN ZATIA

Arazo batzuk ebazteko eta zigor batzuk ezarteko zelan yardun bear?

2142g. araua. Emen urrengo arauetan aitatuco direan ebazpideetan beti erabilli bear da *Ziñaldaria*. Bere egitekoa auxe izango da: ebazpideai buruzko agiri guztiak idatzi, izenpetu ta agiritegian zaindu.

2143g. araua. § 1.—Agiraka egiteak aginduten direanean eurok egin bear dira edo agoz Ziñaldariaren nai Goterkizañaren Idazkolako beste langile baten nai lekuko biren aurrean, edo 1719g. arauak aginduten dauan lez.

§ 2.—Egindako agirakearen birridatzi siñeskarria ebazpideari buruzko agiri artean zaindu bear da.

§ 3.—Agirakea beragana elduten galazoten dauana agirakatutzat euki bedi.

2144g. araua. § 1.—Aztertzalleak, Aolkariak eta Ziñaldariak, ebazpidearen asieratik ziñ egin da, ixilpekoa yagon bear dabe euren zeregiñaren bidez yakin dabezan zer guztiak buruz, ta batez be ixileko agiriak, batzarretan izandako eztabaidai, aurtarkien zeinbatasunari ta ebatzieren zioyai buruz.

§ 2.—Agindu au ausi balegie, ez bakarrik zeregiñetik aldendu bear dira,

baita Goterkizañak, zaintzekoak zainduta, beste zigor egoki bategaz be astindu begiz; kalterik sortu bada, areik osatu bearra dauke.

2145g. araua. § 1.—Ebazpide oneitan bide laburretik yo bear da; baña auziaren ebatzia luzatutearren bakarrik auzituak ekarriak direala ezpaleritxo, etxako galazoten Goterkizañari, parroki-zain aolkari nai aztertzalleak entzunda, bi edo iru lekuko entzuterik, nai berak deituak nai auzituak aurkeztuak.

§ 2.—Lekukoak eta yakitunak, ziñ egiñak ezpadira, ezтира gauzako.

2146g. araua. § 1.—Atzenengo epaitik igespide bakarra: Aita Santuagana yotea.

§ 2.—Gora-yotearen bitartean, eleiz-gizonari kendu yakon parrokia nai bizi-bidea ezin iñori berekotzat emon.

XXVIII IDAZPURUA

Parroki-zain aldagatxak aldentzeko ebazpidea

2147g. araua. § 1.—Parroki-zain aldagatxa bere elexatik aldendu daiteke, bere lana, naita bere erru andi barik be, kaltegarri edo gitxienez alperrikoa egin daroan zioyogaitik.

§ 2.—Zioy orreik, geyen baten, oneixek izaten dira:

1.º Bere zeregiñerako gaitasun-eza; edo egin-bearra ganoraz betetako gauza izatea kentzen dautsan nai arimeari nai gorputzari buruzko gatx iraunkorra, Goterkizañaren eritxiz ordezeko lagunaren bitartez arimen onari begiratu ezin balitzakio 475g. arauaren eraz.

2.º Erriaren gorrotoa, nai ta bidezkoa ez izan, ezta guztiena be; baña parroki-zañaren lana ongarría izatea galazoten dauana, eta beingoan kenduko ez-tana argi agiri baledi.

3.º Izen ona gizon yator eta yarrien artean galtzea, zer au nai parroki-zañaren bizikera txorotik etorri nai bere antxiñako baña oraintsu agertutako lege-ausitik etorri, naita legezko epea beteta dagoalako zigortu ezin; nai parroki-zañ bizi dan etxeko ta senideen eginen bategaitik eurak alde egiñagaz parroki-zañaren izenari naioka begiratzen ezpayako.

4.º Parroki-zañari ezarritako baleitekezko gaiztakeriaren errua, Goterkizanari baleritxo, ez zentzun barik, kistarrakela miña sortuko yakela.

5.º Ondasunen zaintze okerra elexearen nai bizibidearen kalte larriagaz, kalte oneri osapiderik ekarri ezin leitekionean ez ondasunak zaintzea parroki-zañari kenduta ez bestela, naita ostantxean parroki-zañak arimai-buruzko lana ondo egin.

2148g. araua. § 1.—Goterkizañaren bidezko eritxiz parroki zaña 2147g. arauak esaten dauan zioyen batek yo balegi, Goterkizañak berak, aztertzalle bi entzunda ta zioya benetakoa ta aztuna dala ikusita,

parroki-zaña, epe izentau barruan parrokiari uko idatziz nai agoz egiteko deitu begi, burutik gexorik dagoana ezpalitz.

2149g. araua. § 1.—Izentautako epe barruan parroki-zañak ez uko egin, ez epea luzatuteko eskatu, ez aldatzeko agertu yakoan ziyoen aurka ezer erantzun ezpalegi, Goterkizañak parrokia izteko eskaria parroki-zañak artu ebala egiztau balegi, eta erantzuteko legezko eragozpiderik izan eztauala, 2150g. arauaren agindua bete bear barik, bertatik aldendu begi parrokitik.

§ 2.—Or goragoan izentautako zer biak agiri ezpalediz, Goterkizañak urren-go bide bietatik batera yo begi: edo parrokiari uko egiteko eskaria barriro egin, edo luzapenik bako epe barruan erantzuteko agindu.

2150g. araua. § 1.—Parroki-zañak parrokiari uko balegio, Goterkizañak parrokia bere zañak itxi dabelako utsik dagoala agertu begi.

§ 2.—Alan be, parroki-zañak Goterkizañak aurkazitutako ziyoen ordez beste bat, beretzat ain mingarri edo aztuna elitzakena, benetakoa ta ganorazkoa izatekotan, aurkeztu dagike, esaterako, Goterkizañaren gurariari poz emoteko.

§ 3.—Ukapena egin leiteke ez bakarrik argi ta garbi, baita baldintzapean be, Goterkizañak artu legikena balitz eta benetan artu balegi, ta 186g. arauaren kalte barik.

2151g. araua. Parroki-zañak eskarian izentautako ziyoen aurka erantzun nai baldin badau, egizpideak aurkeztuteko epea luzatzea eskatu dagike, ta Goterkizañak bere zurtasunak esaten dautsan lez erantzungo dautso.

2152g. araua. § 1.—Parroki-zañak eskariaren aurka aurkeztutako egizpideak Goterkizañak aztertu begiz, eta edo ontzat artu edo txartzat emon; baña bere ebatzia gauza izateko, 2148g. arauan izentatzen direan aztertzeak entzunda gero emon bear dau.

§ 2.—Ebatzi ori, dana dala, nai bayezkoa nai ezezkoa, erabagi idatziaren bidez agertu bear dau.

2153g. araua. § 1.—Aldatzen dauan erabagiaren aurka parroki-zañak amar egun barruan Goterkizañaren aurrera yo dagike; ta onek lan alperrik ez egiteko, parroki-zain aolkari bi entzunda gero, parroki-zañak bere lengo yotalditik amar egun barruan aurkeztu bear izan dauzan egizpide barriak lengoakaz batera aztertu, onetsi edo txarretsi bear ditu.

§ 2.—Parroki-zañak, 2145, § 1g. arauaren neurrian, leengo eskariari ezin erantzun izan eutsala egiztatzen daben lekukoak aurkeztu dagikez.

§ 3.—Ebatzia erabagi idatzi bidez iragarri bekio parroki-zañari.

2154g. araua. § 1.—Parroki-zaña aldentzean lagun izandako aztertzeak nai parroki-zain aolkariak barriro batzarrera dei-

tuta, Goterkizañak al dauan guztia begi parroki-zain aldenduari lagunduteko: nai beste parroki batera aldatuta, nai beste zeregin edo bizibide bat emonda, eurotarako gai baldin balitz, nai biziteko saria ezarrita, al izango dauan eraz.

§ 2.—Bardiñean, baña, bere kautez itxi duanari obeto lagun begio, kendu bear izan dautsanari baño.

2155g. araua. Parroki-zain aldenduari zeregin barria emoteari buruzko arazoa Goterkizañak, edo aldentzen dauan erabagian bertan edo geroagoan, erabagi dagike; baña edozelan be len baño len.

2156g. araua. § 1.—Parrokitik aldendutako parroki-zañak parroki-zain-etxea len baño len utsik itxi bear dau, ta parrokiarenak direan zer guztiak parroki-zain barriari nai Goterkizañak izentautako bein-beineko eleiz-zañari emon.

§ 2.—Baña parroki-zain-etxetik beste nonbaitera neke andi barik aldatu ezin dan gexoa balitz, Goterkizañak etxe orretan biziten yarraituten, baita bera bakarrik be bearrak dirauan artean itxi dagikeo.

XXVII IDAZPURUA

Parroki-zain aldakorrek aldentzean zelan yardun bear?

2157g. araua. § 1.—2147g. arauaren arauz, ziyo bidezko ta aztunagaz parroki-zain aldakorra be bere parrokitik aldendu dai-teke.

§ 2.—Parroki-zain Jaunzaleari buruz 454, § 5g. arauaren agindua zaindu bedi.

2158g. araua. Aretariko ziyoen bat badagoala baderitxo Goterkizañari, benetako aitaren antzean eta zergaitik be esaten dautsala parrokia izteko eskatu begio, agertuten dautsan ziyook bere parroki-zain-lana parrokitiko kistarrari buruz kaltegarri edo alperra beintzat egin daroalako.

2159g. araua. 2149g. arauko aginduaren kalte barik, parroki-zañak ezetz erantzun balegi, artarako ziyook idatziz agertu begiz; eta Goterkizañak, alperriko lanik egin nai ezpadau, parroki-zañak aurkeztutako ziyook aztertzeak bi lagun dauzala ebatzi bear ditu.

2160g. araua. Aztertzeak entzunda gero, Goterkizañak parroki-zañaren aldezpideak legezkatat ezpadaukaz, ekin begio barriro be aita-zurrian aolkatzen, eta bere guraz alde egin ezpalegi, andik kentzeaz zemaituten.

2161g. araua. § 1.—Bere zurtasunaren neurrian luzatu dagikeon izentautako epea igaro ezker, Goterkizañak andik kentzeko erabagia emon begi.

§ 2.—Uko egindako edo aldentutako parroki-zañari 2156-2158g. arauen arauz lagundu bear yako.

XXIX IDAZPURUA

Parroki-zañak aldatzen zelan yardun bear?

2162g. araua. Norbaitek ondo zaintzen dauan parrokitik beste batera aldatzea arimen irabaziak eskatu balegi, Goterkizañak aurkeztu ta Jaunaren eta arimen maitez aldatzea gogoz ontzat artzeko aolkatu begio.

2163g. araua. § 1.—Aita Santuagandik beren-beregiko eskubiderik ezpadauko, Goterkizañak ez dagike parroki-zain aldatatxa aldatu, berak gure eztauala.

§ 2.—Parroki-zain aldakorra aldatu dagike norako parrokia nondikoaren ondoan kaskarregia ez izatekotan; baña urrengo arauak ezarten dautsen yardun-bidea zainduta.

2164g. araua. Goterkizañaren eskari ta aolkuai parroki-zañak bayetzik erantzun ezik, artarako dauazan ziyoak idatziz agertu begiz.

2165g. araua. Aurkeztutako ziyoak gora-bera bere asmua eztauala aldatu bear Goterkizañari baleritxo, alperriko lanik ez egiteko, aldatzeko ziyoai buruz parroki-zain-aolkari bi deitu ta entzun bear ditu ta eurakaz batera bai nondiko bai norako parrokien egokerak eta aldatzearen ona edo bearra aolkatzen daben ziyoak begiratu.

2166g. araua. Parroki-zañok entzunda gero, Goterkizañak aldatzea egin bear dala uste balegi begiz barriro be aita-aolkuak, parroki-zañak bere Nagusiaren gureari eder ederetxi dagion.

2167g. araua. § 1.—Eurok egin ezkerero, parroki-zaña oraindiño bere ezetxean balego ta Goterkizañari oraindiño aldatzea egin bear dala baderitxo parroki zañari izentauko dautsan epe barruan parroki barrira yoateko agindu begio, orain daukan parrokia izentautako epe ori igaro ezkerero, beste barik utsik geldituko dala idatziz yakin-erazoten dautsala.

§ 2.—Epe ori alperrik igaro baledi, parrokia utsik dala agertu begi.

XXX IDAZPURUA

Bear daben tokian bizi ezirean eleiz-gizonen aurka zelan yardun bear

2168g. araua. § 1.—Bizibidea dala-ta nonbaiten bizi-bearreko legeak lotua dagoan parroki-zain, bazkide edo beste eleiz-gizo-

nak lege ori ausi balegi, Goterkizañak agiraka begio ta, bitartean, parroki-zaña balitz, arimen osasunak kalterik artu eztagian arduratu bedi.

§ 2.—Agiraka egitorduan Goterkizañak bere tokian bizi eztan eleiz-gizonak bere bizkarrari dakartsozan zigorrak eta 188, 8.ºg. arauaren agindua gogora bekartsoz, ta Goterkizañak berak izentauko dautsan epe-barruan bere bizitokiratu daitela agindu begio.

2169g. araua. Izentautako epe-barruan eleiz-gizonak ez bere bizitokira yoan, ez zergaitik alde egin dauan agertu ezpalegi, Goterkizañak, 2149g. araua zaindurik, parrokia nai beste bizibide ori utsik dagoala agertu begi.

2170g. araua. Eleiz-gizona bere bizitokira itzuli baledi, Goterkizañak, bertatik alde bizitea legezkoa izan ezpa zan, bertan bizi izan eztan aldia añako bizibidearen etorriak kentzeagaz 238g. arauan erabagiten dan lez zigortu begi, eta erruak alan eskatu balegi, beste zigorren bategaz be yo.

2171g. araua. Eleiz-gizonak, bere bizitokiratu ez, baña bertan ez bizitaren ziyoak agertu balegiz, Goterkizañak, aztertalle bi deituta, eta, bear izan ezkerero, azterketa egokia egiteko agindurik, ziyoak legezkoak direan ala ez begiratu bear dau.

2172g. araua. Aztertalleak entzunda gero, aurkeztutako ziyoak eztereala legezkoak agertu baledi, Goterkizañak eleiz-gizonari bere bizitokira itzuliteko epea barriro izentau begio, bertan egon eztan aldiko etorriak kentzea beti kontuan artuta.

2173g. araua. Parroki-zain aldakorra izentautako epe-barruan itzuli ezpaledi, Goterkizañak bertatik kendu dagikeo parrokia; itzuli baledi, agindu begio beste barik parroki barik gelditzeko zigorra artu nai ezik, bere idatzizko baimen barik parrokitik eztautela urrindu.

2174g. araua. § 1.—Bizibide aldatatxa daukan eleiz-gizonak, bere bizitokiratu-bearrean aldezpide barriak aurkeztu balegiz, Goterkizañak, aztertalle berberak lagun dauzala, 2171g. arauaren arauz barriro aztertu begiz.

§ 2.—Baña zuribideok be legezkotzat artu ezik, beste edozein zuribideri yaramonik egin barik, Goterkizañak agindu begio eleiz gizonen bizibidea beste barik galdu nai ezpadau, izentautako edo izentauko dautsan epe-barruan itzuliteko.

§ 3.—Itzuli ezpaledi, Goterkizañak bizibidea utsik dala agertu begi; itzuli baledi, Goterkizañak 2173g. arauan aitatutako agindua emon begio.

2175g. araua. Batean ez bestean ezpegi Goterkizañak bizibidea utsik emon, bear bada alde egiteko eleiz-gizonak aurkeztu

dauzan ziyoak aztertalleakaz begiraturik, Goterki-zain berberaren idatzizko ba-
mena eskatu al izan ebala argitu arte.

XXXI IDAZPURUA

Eleiz-gizon oyekidedunaren aurka zelan yardun baer dan.

2176g. araua. 123g. arauaren aginduaren aurka susmo txarreko ema-
kumea beragaz daukan edo edozelan beragana sarri eldu-
ten dan eleiz-gizonari Goterkizañak agiraka egin begio eta bere etxetik egotzi
edo aregana sarri eldutea izteko agindu, 2359g. arauak oekidedun eleizgizo-
nen aurkadituan zigorrakaz zemaitzen dauala.

2177g. araua. Eleiz-gizonak aginduari ez men egin ez erantzunik emon
ezpalegi:

1.º Eleizkizunik egiteko eskubidea eten begio.

2.º Ganera, parroki-zaña balitz, beste barik parroki-gabetu dagike.

3.º Arima-zaintze bako beste bizibidedun eleiz-gizonari, barriz, lelengo
zenbakiko etena ezarrita bi illabete yoa ezkerro, bide onera etorri ezpalitz, bizi-
bidearen etorrien erdia kendu begio; beste iru illabete barru, bizibidearen etorri
guztiak; beste iru illabete barru, bizibidea bera.

2178g. araua. Eleiz-gizonak men egin ez, baña zuribideak balekarz,
Goterkizañak zuribideoi buruz Aztertalle bi entzun bear
ditu.

2179g. araua. Aztertalleak entzunda gero, Goterkizañak zuribideok
legezkotzat ezpaleukoz, eleiz-gizonari len baño len ira-
garri begio bere eritxia ta berak izentauko dautsan epe-barruan esana egiteko
benetako agindua emon begio.

2180g. araua. Men egiten eztauan parroki-zain aldakorra Goterkizañak
bertatik zigorkatu dagike 2178g. arauaren neurrian;
men egiten eztauana bizibide aldagaxdun eleiz-gizona balitz, barriz, eta men
eginañaren ordez bere buruaren zuribide barriak balekarz, Goterkizañak 2178g.
arauak aginduten dauan lez aztertu begiz.

2181g. araua. Baña oneik be legezko aurkitu ezpalegiz, Goterkizañak
eleiz-gizonari epe egoki-barruan aginduari men egiteko
barriro agindu begio; epe ori alperrik igaro baledi, 2177g. arauak esaten dau-
tsan lez yardun begi.

XXXII IDAZPURUA

**Parroki-zain-egin-bearrak betetan alperra dan parroki-zañaren aurka
zelan yardun bear**

2182g. araua. 467, § 1, 468, § 1, 1330-1332, 1344g. arauetan aitatu-
ten direan parroki-zain-eginbearrak txarto bete edo ausi
egiten dauzanari agiraka egiñagaz, gogora ekarri begio bai bere betiko osasuna-
ren ardura geyago erabili-bearra, bai lege-ausia buruz legeak aginduten dauzan
zigorrak.

2183g. araua. Parroki-zaña bide oneratu ezpaledi, Aztertalle bi en-
tzunda ta bere burua zurituteko eskubidea parroki-zañari
emonda, aitaturako parroki-zain-bearrak bein baño geyagotar eta epe luzetxoan
bete ez edo ausi dauzala eta bete-eza edo ausia eztauala bidez zurituten Goter-
kizañari baleritxo, agiraka egin begio ta baita erruaren neurrizko zigorren bat
ezarri be.

2184g. araua. Agiraka egiña ta zigorra be alperrikoak izan balediz,
Goterkizañak 2183g. arauak esaten dautsan lez parroki-
-zain-egin-bearrak bear dan lez bete ez edo egin-bearrok ausiaren erru andikoa
dala egiztau balegi, parroki-zain aldakorrari parrokia bertatik kendu begio;
parroki-zain aldagaxari, barriz, bizibidearen etorriak, nai osorik nai zatia,
erruaren neurrian, kendu dagikeoz, Goterkizañak berak txiroai emoteko.

2185g. araua. Bere yardukera okerrean balirau ta ori be egiztau bale-
di, Goterkizañak kendu begio parrokia.

XXXIII IDAZPURUA

**¿Zelan yardun bear Goterkizañak bere barruan ostonduta daukazan
ziyoakaitik eleizgizonari bere eskubideak erabilten bein-beinean
galazoteko?**

2186g. araua. § 1.—Goterkizañai zillegi yake euren barruan daukezan
ziyoakaitik euren menpeko eleizgizonari euren zeregina-
ren eskubideak erabiltea bein-beinean galazotea.

§ 2.—Aparteko bide onetara yoterik etxake zillegi, betiko legearen bidetik
yoanda arrisku andi barik Goterkizañak okerra arteztu al balegi.

2187g. araua. Eten au edo bein-beineko galazote au ezarteko eztera
bear ez epai-egizpideak, ezta legezko aurretiko oarrak
be; naikoa da, ostera, urrango arauen aginduak betetan dauzala, Goterkizañak
erabagi garbi baten bidez eten-zigorra ezarten dautsala esatea.

2188g. araua. Erabagi ori idatziz emon bedi, zeraren eraskiñak beste-rik eskatu ezpalegi, eguna, illa ta urtea izentaurik; eta bertan:

1.º Agiriak esan begi etena Goterkizañak bere barruan ondo dakiazan ziyoakaitik ezarten dauala.

2.º Zigorrek noiz arte iraungo dauan esan bedi; ezpegi baña Goterkizañak betikorik ezarri. Ezarri, ezarri daiteke zigor-osagarri lez be, baña orduan eleiz-gizonari zigorra zergaitik ezarten dautsan esan bear.

3.º Argi izentau begiz galazoten diran egitekoak, etena, osoa barik, zati bateri buruzkoa balitz.

2189g. araua. § 1.—Zigorkatuaren ordezkua beste bat yarri bear dan zereginaetik etenda gelditu baledi, esaterako, arima-zaintzearen ardurea artuteko, ordezkua egiten dautsenak zigortuaren bizibidetiko etorrietatik Goterkizañak ezarriko dautsan saria artu dagike.

§ 2.—Eleiz-gizon etenduak, zigorra larregi baleritxo, auzibideko epaitik gora yoteko epaikaria izango litzakion eleiz-Nagusiana yo dagike, bere ordezkoiari emon bear dautsan saria gitxitu dagion.

2190g. araua. Bere barruak yakinda eten au ezarten dauan Goterkizañak egindako azterketatik gure eleiz-gizonak legea benetan ausi ebala eta zigor onegaz yotea benetan irabazteko añean egin ebana ezertariko ezpai barik erakusteko añako egizpideak batu bear ditu.

2191g. araua. § 1.—Barruko yakinez etena ezarteko bidezko ta legezko ziyoa, 2197g. arauak diñean lez, agiriko lege-ausia ezta na da.

§ 2.—Erriari ezaguna yakon lege-ausiagaitik ezin leiteke iñoiz barru-yakinezko etenik ezarri.

§ 3.—Agiriko lege-ausia barru-yakiñezko etenagaz zigortu al izateko urren-go eraskin berezi batek egon bear dau:

1.º Lekuko yatorrak eta benetan siñeskarriak lege-ausia salatu bai, baña ezertara be ezin ekarri lege-ausiari buruzko ziñalpena epaitegian emotera ta lege-ausia egiztatzeko beste egizpiderik egon ez.

2.º Eleizgizonak berak zemaika edo beste edozelan egizpidea egitea edo egindakoa aurrera eroatea eragotzi balegi.

3.º Epaibidea egiteko nai epaya emoteko eragozpenak aurkazko Laterallegeetatik nai auzibidezko epaitik datozenan.

2192g. araua. Barruko yakinezko etena gauza da, lege-ausi askoren artean bat agirikoa ezta na izan baledi.

2193g. araua. Goterkizañaren eritxi zurraren eskuetan izten da etenaren ziyoa edo lege-ausia eleiz-gizon zigortuari agertu nai ez agertutea; baña beti artzain onaren yoranez eta maitasunez, lege-ausia eleiz-

-gizonari agertutea baleritxo, egiten dautsazan aita-oarren bidez, zigorra ez bakarrik erruaren kalteak kitututeko, baita legeauslea bide onera ekarteko ta pekatu-zorra ordainduteko be bidea izan dakiola.

2194g. araua. Ezarritako etenagaitik eleizgizonak gora yo balegi, Goterkizañak noizbaiteko zigor onegaz zigortu dauan lege-ausia gure eleiz-gizonak benetan egin ebala erakusten dabezan egizpideak Aita Santuari bialdu bear dautsaz.

BOSKARREN IDAZTIA

LEGE AUSIAK ETA ZIGORRAK

LELENGO ZATIA

Lege-ausiak

I IDAZPURUA

Lege-ausia zer dan eta zeinbatarikoa

2195g. araua. § 1.—*Lege-ausiaren* izenagaz Eleiz-legetzan auxe adierazoten da: kistar norbaitek zer egiten dakiala, gure daua la ta pekatu dagiala, naita zein zigorrez esan ez, bera ausi dagiana zigortua beintzat izango dala diñoan legea auste.

§ 2.—Eraskiñetatik besterik agertu ezpaledi, lege-ausiari buruz esaten dana agindu-ausiai be ezarri bear yake.

2196g. araua. Lege-ausia zelangoa, legea alangoa; zeinbestekoa dan neurtuteko barriz kontuan artu bear dira ez bakarrik lege ausiaren garrantzia, baita auslearen jakiña ta gurea eta gero ausiak ekarritako kalteak be.

2197g. araua. Lege-ausia da:

- 1.º *Agiria*, aren barria errian zabaldu bada, edo oraindiño zabaldu ez-arren, laster zabaldu bear dauala edonork uste izatekoa danean.
- 2.º *Ezaguna legezko ezagueragaz*, epaikari egokiaren epai ostean auzia amaitutzat emoten dauan epaya danean; edo lege-ausleak berak 1750g. arauaren arauz egindako autortzearen ostean.
- 3.º *Egitez ezaguna*, legea ausi zala erri osoak dakianean, eta egin ori zelan estaldu nai zuritu iñondik agiri eztanean.
- 4.º *Ixila*, agirikoa eztana; *osoan ixila*, lege-ausia bera be iñork eztakianean; *legez ixila*, aren errua agiri eztanean.

2198g. araua. Eleiz-legea bakarrik austen dauan lege-ausia, berez, Eleiz-Nagusiak bakarrik zigortu daroa, Nagusi berberak bearreko nai egoki daualako Lateralriko Nagusiaren laguntasuna eskatuta; Lateralriko legea bakarrik austen dauan lege-ausia, berez Lateralriak bakarrik zigortu daroa, 120g. arauaren kalte barik, naita pekatuagaitik Elexeak be eskua ezarteko esku-

bidea euki; Elexearen eta Laterriaren legea austen dauan lege-*ausia* gizabatza bierako legezko Nagusiak zigortu dagike.

II IDAZPURUA

Lege-*ausiaren* errua, beratu azi nai txikituten daben ziyoak eta lege-*ausiaren* legezko ondorenak

2199g. araua. Lege-*ausiaren* errua auslearen gaiztotasunetik edo ausitako legea ez yakitetik edo ez austeko bearrezko ardurea ez artzetik sortzen da eta neurtu bear da; beraz, gaiztotasuna nai errua azi, txikitu, kendu egiten dauan ziyoak lege-*ausiaren* errua be azi, txikitu, kendu egiten dabe.

2200g. araua. § 1.—Gaiztotasuna emen legea austeko konturatutako asmua da; aren aurkazkoak dira yakin-eza ta aukera-eza.
§ 2.—Legea benetan egitez ausi ezkeru, gizarteko auzitegian asmu gaistoz, yakinda ta gurata ausi dauala uste izaten da, besterik egiztauten eztan artean.

2201g. araua. § 1.—Erruzko lege-*ausiaren* gai ez tira ausitorduan giza-ezaguerarik eztabenak.
§ 2.—Geyen bateko zoroak, noizean-bein argi-bitarteak izan arren, edo esan eta egin batzuetan euren senean dagozanaren antza erakutsi arren, erruzko lege-*ausiaren* gai ez tireala uste izaten da.

§ 3.—Norberak gura-ta artutako mozkorraldian egindako lege-*ausia* ezta arean be errubakotzat emotekoa; baña beti be errua txikiagoa da norbere sen osoan egiña baño; orraitio, mozkorra beren-beregi legea austeko nai zuritzeko ez artutekotan, oarbako mozkorraldian legea ausi arren, eztago errurik nondik ezarri, mozkorrak ezaguera osoan kendu balegi; bardin esan bedi beste buruko ga-txai buruz.

§ 4.—Buru-makaltasunak lege-*ausiaren* errua gitxitu bai, baña osoan kendu eztau egiten.

2202g. araua. § 1.—Legerik austen dauanik ez takienak lege-*ausiaren* errurik eztauko, yakin-eza erru bakoa baledi; ostantxean errua geyago-gitxiago gitxitu egin daroa yakin-ezaren erruaren neurrian.

§ 2.—Zigorra bakarrik ez yakiteak lege-*ausiaren* errua osoan kendu eztau egiten, baña zerbait gitxitu bai.

§ 3.—Yakin-ezaz esanok, oarkabez eta uste okerrez egin dan lege-*ausiari* be ezarri bear yakoz.

2203g. araua. § 1.—Bear eban ardurea ez artuagaitik norbaitek legea ausi balegi, errua gitxi-geyago epaikari zurrak egiñaren inguruko zeretatik ebatzi bear dau: arriskua ikusi bai ta alan be legea ez austeko ardurazko edonork artuko ebazan biderik artu ezpaleu, errua gaizto garbiaren añakoa da.

§ 2.—Aurreztik ikusi-eziña danagaitik edo ikusi-arren galazo ezin dan ototo-*otoko* zerbaitegaitik letorken lege-*ausiaren* errurik ezin ezarri.

2204g. araua. Adin txikiak be, ostera agiri ezik, lege-*ausiaren* errua gitxitu egiten dau; ume-aroari urrago, gitxituago.

2205g. araua. § 1.—Aurka-egiteko ala osoan kentzen dauan norbaiten nai zerbaiten indarrak lege-*ausiaren* errua osoan kentzen dau.

§ 2.—Bildur larriak be, naita norbaitzuentzat bakarrikoa izan, premiñeak, baita neke andiak be, geyen baten, legea eleiz-lege garbia danean, legea ausi-*arren*, errua osoan kendu daroa.

§ 3.—Orraitio, egiña berez gaiztoa baledi, edo siñeskintzarentzat nai Elexearen aginpidearentzat irrigarria edo arimen osasunarentzat kaltegarri, § 2garrenean izentautako ziyoak errua gitxitu bai egiten dabe, ez baña osoan kendu.

§ 4.—Bidebako ziyo barik norberari indarrez kalte egin gura dautsanari gogor egitorduan ausiko leuken legea etxako erruzkotzat ezarten, bear izan dauan neurrian baño ausi ezpalegi; neurritik arago eroan balegi bere burua zaintzea, lege-*ausiaren* errua gitxitu bai baña osoan kendu ez.

2206g. araua. Norbere barruko odolaren iragiñak, norberak gura ta zer egiten dauan dakiala eregiak eta indartuak izan balediz, errua azi baño eztau egiten; ostantxean, odolaren irakiñaren neurrian errua gitxitu egiten dau; eta errua osoan kendu be bai, buruaren konturatzeari ta naimenaren erabagiari aurreak artu ta biai euren lana egiten eragotzi baleutse.

2207g. araua. Lege-*ausian* errua azi egiten dabe:
1.º Legea austen dauana edo lege-*ausiari* iraintzen dauana inor itzalgarrigoa izanak, itzalgarritasunaren neurrian.
2.º Legea austeko bidea ta indarra norbere aginpidetik nai indarretik artzeak.

2208g. araua. Legezko esakeraz *biryausia* auxe da: len egindako lege-*ausiari* buruz zigortua izanda gero barriro lege-*ausiari* bar-diña egin eta ganera zelan, non eta noiz egin dauan begiratu ezkeru, benetako damuren antzik erakusten eztaua.

§ 2.—Legea sarri ausi daroanok, nai ta lege berbera izan ez, bere errua azi egiten dau.

2209g. araua. § 1.—Legea austeko erabagia batera artuta, gero egitez be batera legea ausi daroenak, guztiak bardin dira errudun, eraskiñetatik norbaitena andiagoa edo txikiagoa izan zala agiri ezpaledi.

§ 2.—Bere izakeraz laguna eskatuten dauan lege-*ausian* alde bakotxa bardin da errudun, eraskiñetatik besterik agertu ezik.

§ 3.—Ez bakarrik lege ausle andiena dan legea austeko agindu dauanak, baita legea austeko zirikatu dabenak edo legea austean edozelan laguntzen dabe-

nak be, ostantxean bardiñak direala, eztira erru makalagokoak legea ausi egiten dabenak baño, euren laguntza barik lege-ausirik izango ezpaltiz.

§ 4.—Baña euren laguntzeak ostantxean be egingo zan lege-*ausia* errezagotu baño egin ezpalegi, laguntzalleon errua lege-*ausleena* baño txikiagoa da.

§ 5.—Lege-*ausia* egiteko bere laguntasuna garaiz osoan kendu dauanak eztauko lege-*ausiaren* errurik, naita lege-*ausleak* bere-*bereak* dituan beste ziyoakaitik legea ausi; laguntasuna osoan kendu ezik, damutuak errua gitxitu bai baña osoan kendu ez.

§ 6.—Bere eginbearra ez egiteagaitik bakarrik lege-*ausiari* lagun egiten dau-tsanak, bere zeregiñez lege-*ausia* eragozteko eukan egin-*bearraren* añako errua dauko.

§ 7.—Egindako lege-*ausia* txaloka artzea, andik sortutako irabazietan lagun izatea, lege-*auslea* ostondu nai norbere etxean artu, ta lege-*ausia* eginda geroko egiñak, lege-*ausi* barriak izan daitekez, esaterako legeak zigorkatu balegiz; baña, lege-*ausia* egin orduko erabagiak ezpalira, eztauke egindako lege-*ausiaren* errurik.

2210g. araua. § 1.—Lege-*ausitik* sortu doa:
1.º Zigorra iragarteko nai ezarteko ta kaltearen ordafiak eskatzeko lege-*ausizko* auzibidea.

2.º Kalteak ordaintzeko eztabaidazko auzibidea, lege-*ausiak* norbaiteri kaltea ekarri balegio.

§ 2.—Auzibide biok 1552-1959g. arauetan ebatzia dagoan lez erabilten dira ta lege-*ausizko* auziaren epaikari berberak, kaltea artutakoak eskatuta, eztabaidazko auzia be aztertu ta epaitu dagike.

2211g. araua. 2209, §§ 1-3 arauaren arauz lege-*ausian* bateratu direan guztiak lege-*ausitik* sortutako diru-*eralgiketa* ta kalteak osoan ordainduten beartuta dagoz bakotxa, naita epaikariak kalteok guztien artean bananduta bakotxa; i dagokion zatia ordaindutera baño epaitu ez.

III IDAZPURUA

Legea-austeko alegiña

2212g. araua. § 1.—Iñork euren izakeraz legea austea daroen egiñak egin balegiz edo lege-*ausia* galazoteko aginduak egin ezpalegiz, baña legea austeko bere asmua bete ezpalegi, edo biderdian bere asmua bete barik itxi daualako, edo yarritako bideak naikoa edo gauza ez izanez, legea austeko *alegiña* egin dau, baña ausi ez.

§ 2.—Euren izakeraz legea-austera daroen eta legea benetan austeko naikoa direan egiñak nai jarri nai itxi direanean, baña zerbaitegaitik egillearen gogoaren aurka, lege-*ausia* zan euren elburua iritxi ezpalegie, legea austeko olango alegiñari bere izenez *uts-egindako lege-ausia* deritxo.

§ 3.—Legea-austeko alegiñaren urkoa da norbaiteri legea ausi-*erazoteko*, baña alperrik, daragoyonaren ekiña.

§ 4.—Legea austeko alegiña zigor bereziagaz galazota balego legean, alegin ori egiñagaz benetako lege-*ausia* egiten dau.

2213g. araua. § 1.—Legea austeko alegiñak bere errua dauko, ta legea benetan austen urrago eldu, errua larriagoa; baña beti lege-*ausi* beteak baño ariñagoa, arau onetako § 3 alde.

§ 2.—Uts egindako lege-*ausia* errugarriago da legea-austeko alegin utsa baño.

§ 3.—Ezetariko erru barik gelditzen da asitako lege-*ausia* bere kantez itxi dauana, alegiñetik ez kalterik ez iñori erakutsi txarrik emon ezpalegio.

BIGARREN ZATIA

Zigorrak

LELENGO TXATALA

Zigor guztiai buruzkoa

2214g. araua. § 1.—Yatorrizko ta berezko eskubidea, edozein giza-*aginbidetik* kanpoko, dauko Elexeak bere menpeko lege-*ausleak* bai arimeari bai gorputzari buruzko zigorrakaz yoteko.

§ 2.—Gogoan berabil, baña, Trento'ko Batzarraren XIII batzarraldian, c. 1 emoten dauan oar au: "Gogoan berabille Obispoak eta Goterkizain guztiak artzañak direala, ez zigortzalleak, eta euren menpekoen nagusi eztabela izan bear eurok oinpean zapalduta erabilteko, bai ostera euren ume ta seme-alabak lez laztan izateko; eta aolkuz eta maite-*oarrrez* beragoyoe gebenduetatik aldentzen, legea austen dabenean zigorkatu-*bearrik* ez izateko; alan be, norbaitzuk giza-*makalez* oben balegie, Apostoluaren arako agindua bete bear dabe: "onberatsu ta lepo-zabal agiraka egin, eta arren bai arren eskatu bide oneratu daitezana, bide okerra artua bide artezera ekarteko, sarritan indartsuagoa dalako onberatasuna garraztasuna baño, eskari apala zemaí arroa baño, maitasuna indarra baño; baña lege-*ausiaren* larriagaitik zigorra bearrezkoa balitz, orduan epeagaz gogortasuna, errukiagaz zuntasuna, biguntasunagaz laztasuna erabili bear bada, lazkeri barik, erriarentzat osasungarri ta bearreko dan legezko bizikerea yagon daiten, eta zigortuak ondu daitezana, eta besteak damutu nai ezpalebe, gañean daben zigorta ikusita, bizitza gaiztotik alde dagien".

IV IDAZPURUA

Zigorrak: zer direan, zeinbatarikoak, adierazpena ta ezarpena

2215g. araua. Eleiz-zigorra auxe dozu: Lege-*auslea* bere senera ekarteko ta lege-*ausia* sendatzeko legezko Nagusiak zerbaít on kentzea.

2216g. araua. Elexeak lege-ausleak zigorkatu daroaz:
1.º Zigor osagarriakaz (censurae).
2.º Zigor astingarriakaz (poenae vindicativae).
3.º Osapide nekegarriakaz eta erru-ordañakaz (remedia poenalia et poenitentiae).

2217g. araua. § 1.—Zigorra da:
1.º a) *izentautaua*: legean bertan nai aginduan esan baledi zer dan eta noiz ezarria.

b) *Izentaubakoa*, epaikariaren nai nagusiaren eritxi zurrari zein zigor ezarri, baita ezarri-bearra agindu, nai ezarri ala ez ezarri be izten bayako.

2.º a) *Emondako epaizkoa*, izentautako zigorra legea ausita beste barik bertatik lege-ausleak bere leporatzeko eraz legeari nai aginduari erantsi balegio.

b) *Emoteko epaizkoa*, epaikariak edo nagusiak ezarri-bearra baleu.

3.º a) *Legearena*: zigor izentaua legean bertan ezarrita daukana, nai emondako nai emoteko epaizkoa dala.

b) *Gizonarena*: nagusiaren agindu baten bidez edo epaikariaren epai bidez ezarten dana, naita legez ezarria izan.

d) Beraz, legeari erantsitako zigorra, norbait erruduntzat emoten dauan epai-aurretik *legearena* bakarrik da; epaya emon ezkerero, barriz, erabatera *legearena* ta *gizonarena* da izan, baña *gizonarenakotzat* emoten da.

§ 2.—Zigorra beti emoteko epayezkoa dala uste izaten da, emondako epayezkoa dala edo legea ausi ezkerero *bertan* edo *beste barik* zigorpean yausten dala legeak edo aginduak esan ezpalegi.

2218g. araua. § 1.—Zigorrek ezartaldian lege-ausiagaz ein zuzena zaindu bear da, errua, giza-yauskortasuna eta lege-ausitiko kaltea begiraturik; beraz, etxako legearen gai ta garrantziari bakarrik begiratu bear, bai baña legeauslearen adin, yakite, azi-ezikera, giza-izakera ta buru izakereari ta lege-ausiagaz iraindu danaren nortasuna eta lege-ausia egin dauanaren giza-bizitzako malleari be; zein asmugaz egin ete dauan; lege-ausia noiz eta non egin dan, gorputzeko odolaren gora-berak eraginda izan ete dan; ala bildur larriak eraginda legea ausi dauan; ia legea ausiagaitik damutu dan eta ondoren txarrak osatuteko alegiñik egin dauan eta beste antzekoak be begiratu bear dira.

§ 2.—Eztira begiratu bear errua osorik kenduten dabezan zerak bakarrik, baña bai erru aztuna arintzen dabenak be; erru andirik eztaukanak eztauko edozertariko zigorrak bete-bearrik, nai emondako nai emoteko epayezkoak direala, ez Jaunaren aurrean ez gizonen aurrean be, bere zuribidea onei be erakutsi al balegie.

§ 3.—Biak alkar iraindu balegie, kitu; orraitio, batak egindako iraña asko be aztunagoa balitz, zigortu-bearra badauko ta zigortu begi zuzezanaren eskubi-deak zaintzeko neurrian.

2219g. araua. § 1.—Zigorrai buruzko legean ulertua alik eta bigunena egin bedi.

§ 2.—Nagusi legezkoak ezarritako zigorra arteza ala okerra danari buruzko ezpayan, arteztzat bete bear da auzitegi bietan, bera betebearra ebagiten dauan gora yotea egin ezpalegi.

§ 3.—Ezta zillegi norbaiteri ezarritako zigorra beste norbaiteganaño be zabaltzea; ezta egin batetik bestera luzatuterik be, naita ziyo bardina edo larriagoa be egon, 2231g. arauaren aginduaren kalte barik.

V IDAZPURUA

Zigor-eskubidea nork?

2220g. araua. § 1.—Legeak nai aginduak emoteko eskubidea daukanak, legeari nai aginduari zigorra be ezarri dagikeo; epai-ala bakarrik daukanak legeak izentautako zigorrak zuzenaren neurrian ezarri bakarrik dagikez.

§ 2.—Obispoaren danerako Ordezkoak, beren-beregi emona ezpaleu, eztauko zigorrak ezarteko eskubiderik.

2221g. araua. Legeak emoteko ala daukenak, euren aginpideko barrutian, ez bakarrik eurak edo euren aurretikoak emondako legea, baita Jaunak berak, edo bera baño goragoko beste Nagusien batek emondakoa be, bere barrutian be indarra daukana baledi, zigor egokiagaz zaindu dagike edo baita legeak berak daukana aztunagoa egin be.

2222g. araua. § 1.—Naita legeak legegiñak erantsitako zigorrak ez izan, legezko Nagusiak lege orren ausia bidezko zigorrak zigorkatu dagike, baita aurretik zigor-zemairik egin barik be, emondako erakutsi gaiztoak edo lege-ausiaren larri bereziak bear bada alan eskatu balegie; ostantxean ezin leiteke erruduna zigorkatu, legea austekotan emondako edo emoteko zigorra ezarriko yakolako zemaia egin ezpayako, eta alan be legea ausi ezpalegi.

§ 2.—Bardin, legezko Nagusi berberak, nai-ta lege-ausia ezpaibakoa izan ez, edo lege-ausia izan dana gauza yakiña izan arren, zigortuteko legezko epea amaituta balego, ez eskubidea bakarrik, baita egin-bearra be badauko bere gaitasuna agiri eztauan inor ez eleiz-gizontzeko, eta erriarentzat yauspide izan eztauten eleiz-gizonari eleizkizunik egitea, edo bere zeregiña legearen arauz kentzeko be; zer guztiok baña ez-litzakez benetako zigorrak.

2223g. araua. § 1.—Zigorrek ezartorduan legeak garbi diñoan zigorra epaikariak ez dagike azi, lege-ausiaren egikera bereziak azi-bearra eskatu ezpalegi.

§ 2.—Legearen emoteko epaizko zigorrak ezarkeran, agindu barik ezarteko eskubidea emon balegi, bera ezarri edo ezarri ez, edo zigorra zein izango izentautaua balego, bera biguntzea epaikari zur eta artezari izten yako.

§ 3.—Baña legeak agindu balegi agindu, geyen baten legeak dakarrena ezarri

bear da; orratio, epaikariaren edo nagusiaren barru ta zurtasunari izten yako:

1.º Zigorra ezartea beste garai egokiagorako atzeratutea erruduna bertatik zigortutik kalte andiagoak sortu litzakezala balekus.

2.º Zigorra ezartea betiko iztea, erruduna bide onera osoan etorrira agiri baledi, eta emondako erakutsi gaiztoa be guztiz arzetu balegi; edo baita Laterriko agintariak naikoa zigorkatu dauala edo zigorkatuko dauala agiri baledi.

3.º Izentautako zigorra bigundutea edo bere orde osabide neketsuak nai erru-ordañak ezartzea, lege-ausiaren egikeran errua asko gitxituten daben zerak balegoz; edo erruduna damututa bide onera etorrira edo Laterriko nagusiak ezarritako zigorrak baleukoz; orraitio eleiz-epaikariak nai nagusiak eskubidea dauke beti zigor biguntxoagoa ezarteko.

§ 4.—Emondako epaizko zigorra agertutea geyen baten Nagusiaren sentzulari izten yako; baña lege-ausiak kalte egin eutsanak eskatuta, edo erriaren osasunak eskatu balegi, zigorra azaltzen dauan epaya emon bear da.

2224g. araua. § 1.—Geyen baten, lege-ausi beste zigor.

§ 2.—Alan be, lege-ausi beste zigor ezarriaz, zigor-metta andiegia baledi, epaikariaren senari eskubidea emoten yako edo zigorrak batzema ezarteko, zerak alan eskatu balegie, erru-ordañen bat edo osabide neketsuen bat generatuta; edo zigorrak sentzunezko muga-barruan ezarteko, lege-ausiak zeinbat eta zelangoak izan direan begiratuta.

§ 3.—Bai lege austeko alegiñaren aurka bai lege-ausiaren aurka legean zigorra ezarrita balego, legea ausi ezkeron, onen aurka emonda dagoan zigorra bakarrik ezarri bear yako.

2225g. araua. Zigorra auziko epaibidez agertu nai ezarri baledi, Elexearen arauak aginduten dabena bete bedi epaya egozteari buruz; baña emondako nai emoteko epaizko zigorra agindu bereziaren antzean ezarri baledi, geyen baten idatziz edo lekuko biren aurrean ezarri bedi, zigorra zergaitik ezarten yakon esanik, 2193g. arauak diñoanaren kalte barik.

VI IDAZPURUA

Zigortu inor?

2226g. araua. § 1.—Legeari nai aginduari erantsitako zigorraren azpian legeak edo aginduak beartuten dauana dago, beren-beregi berezita ezpalego.

§ 2.—Geroagoko zigor-legeak lengoa kendu arren, geroagoko legea emon orduko egindako lege-ausia balitz, errudunarentzat bigunena litzaken legea erabilli bear da.

§ 3.—Geroagoko legeak lengo legea nai zigorra bakarrik kendu balegi, zigorra yasan-bearra bertatik amaitzen da, aldean daukan zigor-osagarria ezpaledi.

§ 4.—Zigorrak nai non lotu daroa, ezarri dautsan Nagusiaren aginpidea amaituarren be, besterik agirian oartu ezpaledi.

2227g. araua. § 1.—1557, § 1g. arauan aitatuak yoten dauzan zigorra Aita Santuak bakarrik agertu nai ezarri dagike.

§ 2.—Beren-beregi izentau ezik, Kardenalak eztagoz zigor-legepean, ezta Obispoak be emondako epaizko eten eta eragotzi-zigorpean.

2228g. araua. Legez ezarritako zigorpean ezta yausten lege-ausia legearen itzak esaten daben lez osorik egin ezpaledi.

2229g. araua. § 1.—Emondako epayezko zigoretik ezta inor azke egiten yakin-ezaren erakutsiak egiteak, nai ta legeak arau onen § 2garreneko itzak ekarri.

§ 2.—Legeak balekarz urrango esakerak: *arrokeriz, bildur barik, yakiñez gamera, asmuz, ondo begiratuta, lotsa barik, beren-beregi legea austearren*, edo yakin garbia ta legea austeko erabagi argia eskatuten dabezan beste antzeko itzak, erruaren edozein txikituak bai buruaren bai naimenaren aldetik, emondako epayezko zigoretatik azkatu egin daroa.

§ 3.—Legeak olango itzik ezpalekar:

1.º Legea nai zigorra bakarrik yakin-ezak, yakiteko alegiñik arean be egin eztaunarena danean, ezta zigor batetik be inor azke egiten; ostantzeko yakin ezak zigor osagarrietatik azkatu daroa, ez baña emondako epayezko zigor astingarrietatik.

2.º Mozkorrak, bear dan ardurarik ez artzeak, buru-makalak, grifiaren irakiñak errua gitxitu arren, lege-ausia oraindiño naikoa erru andikoa balitz, emondako epayezko zigoretatik eztabe azke emoten.

3.º Bildur larriak, lege-ausiak siñeskintzari, Elexearen aginpideari zor yakon lotseari edo erri osoko arimen onari kalte balekartse, eztabe emondako epayezko zigoretatik arean be azke emoten.

§ 4.—Naita lege-auslea arau onetako § 3, 1.º emondako epayezko zigor osagarriakaz lotuta ez egon, ori gora-bera zigorkatu daiteke, bear izan ezkeron, beste zigor nai zigor-ordain egokiagaz.

2230g. araua. Oraindiño ezkontzeko adinera eldu bakoak emondako epayezko zigoretatik azke dagoz, ta zigor osagarriakaz nai beste zigor aspergarri gogorraz baño obeto ume ta gaztetxoak azi-eziteko esabilten direan zigor ariñagoakaz sentzaraztu bediz; eurok lege-austera ekarri dabezanak edo 2209, §§ 1-3g. diñoazanak, orreik bai legeak ezarritako zigorraren azpian yausten dira.

2231g. araua. Legea austeko askok alkar artu balebe, naita legeak bat baño izentau ez, legeak berak besterik esan ezpalegi, 2209, §§ 1-3g. arauak diñoazan guztiak zigor berberak goatzen ditu; ostantzekoak ez, ostera; oneik Nagusi zurraren eritxiko beste zigor egokiagaz yo bediz, legeak berak oneintzako be zigor berezien bat agindu ezpalegi.

2232g. araua. § 1.—Emondako epayezko zigorrak, nai osagarri dala, nai aspergarria dala, legea ausi ebana badakiana, beste

barik, auzitegi bietan lotuten dau; baña agertuteko epaya emon arte zigor agin-
dua betetzetik azke dago lege auslea, bere izenaren kalte barik bete ezin daua-
nean; eta agiriko auzitegian ezin dagikeo inork bete erazo, lege-ausia erri osoan
ezaguna ezpaledi, 224, § 4g. arauaren kalte barik.

§ 2.—Emondako epayezko zigorra agertuten dauan epayak zigorra bete
bearra legea ausi eban uneraño daroa.

2233g. araua. § 1.—Ezin leiteke zigorrik ezarri, lege-ausia egin zala ta
bera zigortzeko epea oraindiño eztala bete argi eraku-
tsi ezik.

§ 2.—Naita ori argi egon, zigor-osagarria ezarri gura danean, errudunari
agiraka egin bear yako ta 2242g. arauak diñoan lez damutu daitela eskatu, epai-
kari edo Nagusiaren eritxiz egin al baledi, damututeko epe egokia emoten yako-
la; setatsuz damurik erakutsi ezpalegi, zigor-osagarria ezarri daiteke.

2234g. araua. Lege-ausi asko egiña, ez bakarrik latzago zigorkatu, bai-
ta epaikariaren eritxiz onik ekarri al balegi, beren-bere-
gi zainduta bizi-bearragaz nai beste zigor-ordain bategaz be zigortu daiteke.

2235g. araua. Uts emondako lege-ausia nai legea austeko alegiña, lege-
-ausi antzean legeak zigortu balegi, erruaren neurriko
zigor egokiagaz zigorkatu daitekez, 2213, § 2g. arauaren aginduaren kalte barik.

VII IDAZPURUA

Zigorren parkatzea

2236g. araua. § 1.—Zigorrak parkatu. nai azkitzez dala, osagarria
danean, nai legazkaz dala, aspergarria danean, zigorra
ezarri ebanak edo aren Nagusi egokiak nai ondorengoak nai artarako eskubidea
emon dautsenak bakarrik dagike.

§ 2.—Legetik azkatu dagikenak legeari erantsitako zigorretik be azkatu
dagike.

§ 3.—Nausiak bere legeari ezarritako zigorra. bere zeregiñaren eskubidez
ezarten dauan epaikariak, bein ezarri ezkerro, eztauko parkatzeko eskubiderik.

2237g. araua. § 1.—Agiriko lege-ausietan Elexa osoaren legez emon-
dako epayezko zigorrak Goterkizañak parkatu dagikez,

ezpalira:

- 1.º Eztabaidazko auzitegira eroanak.
- 2.º Aita Santuari berehitako zigor osagarriak.
- 3.º Bizibideak, zeregiñak nagusitzeak eginbideak Elexan artzeko, autes-
kundeetan aututeko nai autua izateko autarkia emon nai kentzea, betiko etena,
legezko izen gaiztoa, patroi eskubidea kentzea, Aita Santuak emondako zerbit.
§ 2.—Ixileko ebazkizunetan, baña, 2254 ta 2290 arauetan aginduten dana-

ren kalte barik, Elexa osoarentzako legez ezarritako epayezko zigor guztiak
parkatzeko eskubidea dauke Goterkizañak, Aita Santuari oso beren-beregi bere-
zitako zigor osagarriak ezpalediz.

2238g. araua. Indarrez nai bildurrez emon-erazotako zigor-parkatzea
berez da utsa.

2239g. araua. § 1.—Zigorra parkatzea gauza dala egin daiteke, parka-
tzekoa nai bertan nau urrin egon, baldintzaz nai baldin-
tza barik, agirikotza auzitegian nai ixillekoan bakarrik.

§ 2.—Naita agozko itzez bakarrik be zigorra parkatu al izan, idatziz ezarria
danean, oba da parkatzea be idatziz egitea.

2240g. araua. Zigor-azubidea legezko epea igaro dala-ta galduteari bu-
ruz, 1703g. arauaren erabagiak zaindu bediz.

BIGARREN TXATALA

Ari bakotzeko zigorrai buruz

VIII IDAZPURUA

Zigor osagarriak

I Atala

Zigor osagarri guztiak buruzkoa

2241g. araua. § 1.—Zigor osagarria auxe da: gizakume kistar ugutza-
tuari, lege-ausle ta setatsuari, setakeri ori itxita parkatu
arte, arimeari buruzko ondasun batzuk kentzea.

§ 2.—Zigor osagarriak, emondako epayezkoak alan be, ta arrotzutea batez
be, ezpediz ezarri meatz eta zer guztiak ondo begiratuta baño.

2242g. araua. § 1.—Zigor osagarriagaz zigortzeko lege-ausiak izan bear
dau: azalekoa, aztuna, osoan betea ta ganera setake-
riagaz baterakoa; orraitio ezagun eztirean lege-ausleen aurka emon daiteke-
na da.

§ 2.—Emoteko epayezko zigorra balitz, setatsu da 2233, § 2g. arauko agi-
rakak gora-bera lege-austeari izten eztautsana edo egindako lege-ausiaren damu-
rik eta arteztuteko gogorik eztautana; baña emondako epayezko zigor osagarriaren
azpian yausteko naikoa dau emondako epayezko osagarria erantsita daukan legea
nai agindua austea, erruduna bidezko ziyoz legea nai agindua bete-bearretik
azke ezpalego.

§ 3.—Setakerea amaitutzat emon bear da, errudunak egindako lege-ausiaz
zintzo damututa, egindako kaltearen eta emondako erakutsi okerraren ordain

egokia emon edo emoteko itz siñeskarria emoten dauanean; damua benetan zintzoa ete dan, kalteen ordaña naikoa ete dan edo ordaintzeko itza siñeskarria ete dan ala ez ebatzea zigorraren parka-eske doakion Nagusiari dagokio.

2243g. araua. § 1.—Auzi-epayez ezarritako zigor-osagarria, ezarrita bertatik bete bear da ta eztago beragandik gora yoterik itzul indarrez baño (au da bein beinean bete egin bear da); bardin agindu lez emondako zigor osagarrietatik, naita gora yoteko bidea zabalik egon, baña itzul-indarrezko eskubideagaz baño ez.

§ 2.—Oraindiño leporatu bako zigor osagarriaz, naita emondako epayezkoa izan, zemaizten dauzan auzi-epayaren nai aginduaren aurka gora yoteak ez epaya ez agindua ez zigorra gelditzen ditu, legeak bitartean geldituteko indarragaz gora yotea onartzen eztauan zeren bat danean; ostantxean zigorrak lotu egiten ditu, baña epayak edo aginduak aginduten dauana zaindu-bearraren kalte barik, zigorraren aurka bakarrik barik, epai edo aginduaren aurka be errudunak gora yo ezpalegi.

2244g. araua. § 1.—Ez bakarrik zigor bardiñak ez tireanean, baita zigor berbera be norbaitegan askotu daiteke.

§ 2.—Emondako epayezko zigor osagarria askotu egiten da:

1.º Nai egin bakarragaz nai egin bat baño geyagogaz, bakotxak bere zigorra daroan lege bat baño geyago ausi balegiz.

2.º Zigor osagarriagaz zigortutako lege-ausia askotan egin balegi, legea austen dauan bakotxean lege-ausi barria egiten daualako.

3.º Zigor osagarri bardiñak ez tireanakaz Nausi batek baño geyagok zigortutako lege-ausia bein nai geyagotan balegi.

§ 3.—Gizonaren zigor osagarria askotu doa: agindu nai epai asko, nai epai edo agindu berberaren zati asko ausi balegiz, eta zati bakotxa bere zigorraz zainduta balego.

2245g. araua. § 1.—Zigor osagarriak dozuz: batzuk norbaitentzat *bereziak*; beste batzuk inñorentzat *berezi bakoak*.

§ 2.—Gizonaren zigor osagarria berezita dago:

a) Edo zigorra ezarri ebanarentzat.

b) Edo epaya emon ebanarentzat.

d) Edo aren Nagusi egokiarentzat.

e) Edo aren ondorengoarentzat.

f) Edo aren ordezekoarentzat.

Legeak berak bereziak:

a) Batzuk Goterkizañari.

b) Beste batzuk Aita Santuari.

§ 3.—Aita Santuarentzat berezietatik batzuk dozuz *berezi garbiak*; beste batzuk, *berezi-bereziak*.

§ 4.—Emondako epayezko zigor osagarriak ez tira inñorentzat bereziak, legean nai aginduan bertan beren-beregi esanda ezpalego; onetan nai legeari buruzko nai egiñari buruzko ezpairik balego, zigorra eztago inñorentzat berezita.

2246g. araua. § 1.—Ezpedi zigor osagarririk berezi, lege-ausiaren itzal bereziak edo Elexea zaintzeari lagun etorri-bearrak edo kistarren barruak osatu bearrak eskatuta baño.

§ 2.—Berezteak adierazo estua bear dau.

§ 3.—Ikurtonak artzea eragozten dauan zigor osagarriaren bereziak zigorra erantsiten yakon pekatuaren berezia be aldean daroa; beraz, zigor osagarriak norbait lotu ezpalegi edo parkatu baleutse, pekatuaren berezia kenduta dago.

2247g. araua. § 1.—Zigor osagarria parkatutea Aita Santuarentzat berezita balego, lege-ausi berberaren aurka ez dagike Goterkizañak beretzat berezitako beste zigor osagarri bat ezarri.

§ 2.—Barruti berezi bateko zigor osagarriak eztauko indarrik artako barrutiaren mugetatik kanpoan, naita zigortuak beren-beregi parka-eske barrutitik urten; gizonagandiko zigor osagarria, baña, nainon dago berezita, eta alan ez daiteke inñon parkatu bearreko eskubide berezi barik.

§ 3.—Autortza-entzuleak, berezpena yakin ez-ta zigor eta pekatuak parkatu belegioz autortzalleari, zigor-parkatua gauzazkoa litzake, zigorra gizonarena edo Aita Santuarentzat berezi-berezia ezpaltz.

2248g. araua. § 1.—Edozein zigor osagarri bein norbere leporatu ez-kero, legezko parkatuak bakarrik kendu daroa.

§ 2.—2242, § 2g. arauaren arau setakeria itxi dauanari zigor osagarriaren azkespena ez daitekeo ukatu; baña zigorra parkatzen dautsanak, auziak alan eskatu balegi, lege-ausiaren ordañez zigor-aspergarria nai ordain-zigorra ezarri dagikeo.

§ 3.—Bein parkatutako zigor osagarria ezta barriro biztuten, barriro aren azpian yausteko baldintzeagaz ezarri dautsen egitekoa egin ezik baño.

2249g. araua. § 1.—Norbait zigor osagarri batek baño geyagok lotuta balego, bat parkatu leitekio, besteak parkatu barik.

§ 2.—Parkeske doanak lege ausi guztiak autortu bear ditu; ostantxean, parkatua ezta gauzazko autortu dauazan pekatuak buruz baño; alan be, eskatu ba-koentzat be gauza da, Aita Santuarentzat berezi-bereziarena izan ezik; ez orratio maltzur ixilduentzat.

2250g. araua. § 1.—Ikurtonak artzea galazoten eztauan zigor-osagarria balitz, bear dan lez gertaurik datorrena ta bere setakeria itxita, pekatuari buruz parkatua izan daiteke zigor osagarria kendu barik be.

§ 2.—Ostera ikurtonak artzea galazoten dauan zigor osagarria balitz, zigortua ez daiteke pekatuari buruz parkatu, zigorra lenago parkatu ezik.

§ 3.—Ikurton-azitegiko zigorren parkatzea pekatuak parkatzeko erabilten dan Elexeak agindutako esanean bertan dago; ikurton-azitegitik kanpoan emoten danean, eztago izentautako erarik erabili-bearrik; alan be, arrotzute-zigorra parkatutorduan egoki litzake Elexeak orretarako daukazan idaztiak dakarrena erabiltea.

2251g. araua. Zigor parkatutea agiriko auzitegian emon baledi, auzitegi bietarako da gauza; ixileko edo ikurton-auzitegian emona danean, barriz, erakutsi txarrik emon ezik, parkatutzat agertu daiteke agiriko auzitegiko egiñetan be; baña parkatua izan zana egiztau ezpalegi, edo gitxienez alan uste izan ezik agiriko auzitegian, errudunak men egin bear dautso agiriko auzitegiko Nagusiari, parkatua izan dan agiriko auzitegian be erakutsi arte zigortuta lez yarduteko aginduten dautsanean.

2252g. araua. Ilteko arriskuan gizonarentzat edo Aita Santuarentzat berezi-berezitako zigor osagarriaren azkatua artarako eskubide berezirik ezeukan yaupariagandik artu ebanak, osatuta gero, barriro yausi nai ezpalegi, gizonarena danean, zigorra ezarri eutsanagana, eta Autortegi Gurenagana edo Goterkizañagana edo parkatzeko eskubidea daukan beste norbaitegana yo-bearra dauko 2254, § 1g. arauak aginduten dauan lez legearen zigorra baledi, eta arein esanera egon bear dau.

2253g. araua. Ilteko arriskurik eztagoanean parkatu dagikez:
1.º Iñorentzat berezita eztagoan zigor-osagarriak ikurton-auzitegian edozein autortza-entzulek; ikurton-auzitegitik kanpoan, agiriko auzitegian errudunari buruz yaurbidea daukan edonork.

2.º *Gizonaren* zigorretik 2245, § 2g. arauaren arauz berezita daukanak; onek, baña, errudunak bizitokia nai bizitoki-antzekoa beste edonora aldatu balegi be azkatu dagike.

3.º Legez ezarritako zigor osagarrietatik zigorra ezarri ebanak edo beretzat berezita daukanak, eta euron ondorengoak edo Nagusi egokiak edo Ordezkoak; beraz Obispoarentzat edo Gotzañarentzat berezita zigor osagarriak edozein Gotzañek, eta Goterkizañak arrotzak be bai; Aita Santuarentzat berezietatik Beronek eta Beragandik eskubidea artu dabenak: eskubide *orokarra* daukenak, zigor *berezi utsetatik*; *berezia* daukenak, *beren-beregi berezietatik*, eta *berezi berezia* daukenak, olantxe berezietatik, 2254g. arauak aginduaren kalte barik.

2254g. araua. § 1.—Estualdietan, au da, emondako epayezko zigor osagarria agirian iñoren aurrean erakutsi gaizto andia emon barik edo norbere izenaren kalte larri barik yagon ezin danean, edo Nagusi egokiagana zuzenduteko bear dan epean pekatu aztunaren azpian bizitea gogor balitzakio autortzen yoan danari, orduan edozein autortza-entzulek zigorro, edozelan bereziak balira be, ikurton-auzitegian parkatu dagikez baña eginbear au ezarrita: barriro lengo zigorpean ez yausteko, illabete barruan, gitxienez idatziz eta autortza-entzulearen bitartez, neke andi barik egin al balegi, izena agertu barik, Autortegi Gurenagana edo Obispoagana edo parkatzeko eskubidea daukan beste eleiz-Nagusi bategana yo bear dauala ta beronen aginduak bete.

§ 2.—Orraitio eztau ezerk galazoten, emen goragoan esan dan legez parkatuta gero be, baita Nagusi egokiagana yota gero be, beste autortza-entzule eskubidedun bategana yoterik, ta gitxienez zigor-osagarriagaz zigortutako lege-*ausia* autortuta, bera parkatutea lortutea; ta lortu ezkeru, zer egingo be bero-

nek agindu dagikeo; eta gero lenago yo eban Nagusiagandik artu legikezan aginduak bete-bearrik eztauko.

§ 3.—Noizbaten gora yotea eziña balitz, orduan autortza-entzuleak berak, 2368, § 1g. arauko zigorra parkatu bear ezpaltiz, goyan esandako eginbearra ezarri barik parkatu dagike; alan be, zuzenak aginduten dauzan egitekoak egiteko aginduten dautsala, ta zigor-osagarriaren orde z nekegarri zerbaitzuk egiteko be bai; eta autortza-entzuleak izentau bear dautsan epe-barruan agindu dautsana bete ezpalegi, zigorrak barriro elduko leuskio.

II Atala

Zigor osagarri-ari bakotxari buruz

2255g. araua. § 1.—Zigor osagarriak urrengoak dira:
1.º Arroztutea.

2.º Eragotzia.

3.º Etena.

§ 2.—Arroztuteak azur-mamizko lagunak bakarrik yo dagikez; beraz iñoiz legeko norbaiteri ezarri balekio, lege-*ausia* egiteko alkartu zireanetatik bakotxa yoten dauala adierazoten dau; eragotziak ta etenak gizabatzu bera be yoten dau, legeko norbait dalako; arroztuteak eta eragotziak, erri-lagunak be bai, etenak, eleiz-gizonak bakarrik; eragotziak, tokiak be bai; arroztutea beti da zigor-osagarria; eragotzia ta etena bai zigor osagarri, bai zigor aspergarria be izan daitekez; ezpayan, orraitio, zigor-osagarritzat artu bear dira.

2256g. araua. Urrengo arauetan:
1.º Jaunari buruzko iñarkun-izenagaz Kisto'ren edo Elexearen erabagiz Jauna yauresteko direan eta eleiz-gizonak bakarrik egin al dauzan iñarkunak adierazoten dira.

2.º *Legezko eleiz-egiteko* izenaz adierazoten dira, barriz: eleiz-ondasunak zaintzea erabiltea; eleiz-azietan epaikari, entzule ta txostenlari; lokarri-aldezleri, zuzen-aldezleri, siñeskintza aldezleri, geznari ta amabi, lege-gizon aldezleri izatea; ugutza ta sendotza-ikurtonetan aita-amabitxi izatea; eleiz-*auteskundeetan* autarkia emotea; patro-*eskubidea* erabiltea.

I Atalka

Arroztuteari buruzkoa

2257g. araua. § 1.—Urrengo arauetan atzalduten direan eta alkarregandik ezin banandu direan atzeakaz kistarren alkargotik norbait jaurtigiten dauan zigor osagarria da *arroztutea*.

§ 2.—*Anathema* be baderitxo, batez be Elexa-Errromarraren yaurespide-idaztiak dakarren era ospetsuagaz ezarri baledi.

2258g. araua. § 1.—Arroztuak, batzuk eurakandik alde bizi-bearra dakarrenak dira; beste batzuk alde-egin-bear ori eztaukanak.

§ 2.—Eztago inorgandik alde egin bearrik, Aita Santuak bere izenez arrotua ezpada eta arrotzuten dauan agirian bertan iragarri eta erabagian nai epayan beragandik alde bizi bear dala beren-beregi esan ezpalegi, 2343, § 1g. arauko agindua alde.

2259g. araua. § 1.—Yaureskizunetan bertako izateko eskubiderik arrotzuteko inok be eztauko; bai orraitio Itza azaltzen danean.

§ 2.—Bertako izan baño besterik egiten eztauana eztago bertatik ateraberrik; baño beragaz ezertariko artu-emonik euki bear eztanik baliz, atera bear da; ostantxean, atera ezin baledi, yauresketea eten egin bear da, neke ta kalte andi barik egin al baledi; yauresketetan arrotzuari berak zerbaitegiterik galazo bear yako, ez bakarrik edozertariko artu-emona beragaz eukitea galazota daukanari, baño baita edozein arrotzuri be, epaibidez arrotzua baledi edo arrotzutzat iragarria; eta baita arrotzuta dagoana errian ezagun danean be.

2260g. araua. § 1.—Ikurtonik be eztagike artu; eta nai alangotzat iragarten nai txarrezten dauan epayaren ostean, ezta ikurton-antzekorik be.

§ 2.—Eleiz obiratzeari buruz 1240, § 2g. arauaren agindua bete bedi.

2261g. araua. § 1.—Ikurtonak eta ikurton-antzekoak egin eta emotea be galazota dauko arrotzuak urrengo yazoetan izan ezik:

§ 2.—Kistarrak, arau onexen § 3 ataltxoko aginduaren kalte barik izatekotan, arrotzuari Ikurtona eta ikurton-antzekoak edozein bidezko ziyoz eskatu dagikeoz, batez be beste inor ezpalego; eta orduan eskatu dautsen arrotzuak emon dagikez eta eztauko eskatu dautsanari zergaitik eskatuten dautsan itandu-bearrik.

§ 3.—Baña ezertariko artu-emonik euki bear eztanctarikoai, eta baita beste edozein arrotzuri be, arrotzutzat nai agertu nai emon dauzan epai-ostean, eriotza-arriskuan bakarrik eskatu dagikeo kistarrak bai ikurtonezko pekatuek parkarutea 882, 2252g. arauen neurrian, ta nork emon besterik eztagoanean, bai beste ikurton eta ikurton-antzekoak be.

2262g. araua. § 1.—Arrotzua ezta nekazken, il-otoitzen eta Elexearen erriarentzako otoitzen be erkide.

§ 2.—Eztago barriz galazota:

1.º Kistarrak bakarrean euron alde otoitz egitea.

2.º Yaupariak bakarrean eta kistar-erriari ikara txarrik emon barik yaupea euron alde egiterik; alan be arrotzua beragaz edozein artu-emona galazota daukana balitz, berau bide onera ekarteko bakarrik.

2263g. araua. An-emen legeak izentautako muga-barruan arrotzuak galazota daukaz eleiz-legezko egiñak; eleiz-auzietan eztauke sarpiderik 1654g. arauaren neurrian baño; eleiz-zeregiñak nai ardurak erabiltea galazota dauko, ta bai lendik Elexeak emondako eskubideak erabiltea be.

2264g. araua. Arrotzuak egiñiko zainbide-egiña, nai agiriko auzitegi-koa dala, nai ixileko auzitegi-koa dala, oker egiña da; eta alakotzat agertu nai gaitzesten dauan epaya artuta gero egiña baledi, 2261, § 3g. arauaren agindua alde, baita utsa be; ostantxean, aitaturako 2261, § 2g. arauaren neurrian kistarrak eskatu badautse, bai gauza ta bai zillegi be bada.

2265g. araua. § 1.—Edozein arrotzuk:

1.º Autu, aurkeztu, izentautzeko ezkubidea erabiltea galazota dauko.

2.º Ez dagikez artu eleiz-nausitzerik, zeregiñik, bizibiderik, saririk nai beste edozein ardurarik Elexan.

3.º Ezin leiteke eleiz-gizon-malletarako be artu.

§ 2.—Alan be, or § 1garreneko 1.º, 2.ºko aginduen aurka egingo leukena elitzake beste barik utsa, edozein artu-emon galazota daukan arrotzuak edo ostantxeko arrotzuak arrotzutzat agertu edo emoten dauan epaya gero egiña ezpaledi; epai ori emona baleu, arrotzuak ez dagike ganera Aita Santuaren ezertariko emonik gauza yakola artu, Aita Santuaren idatzizko erantzunean arrotzua aitatu ezpaledi.

2266g. araua. Alakotzat agertu nai emon egiten dauan epayaren ostean arrotzua, nausitza, bizibide, sari, zeregiñik ba-eukan Elexan, aren mozkin-gabetuta gelditzen da; eta edozein artu-emon galazota daukan arrotzua balitz, nausitza, bizibide, sari ta zeregin bera be galduta gelditzen da.

2267g. araua. Edozein Jauresketan edozelango artu-emonik izatea galazota daukan arrotzuegandik alde egin bear dabe kistar guztiak, ezkontidea, gurasoak, seme-alabak, otsein-mirabeak edo menpekoak ezpalediz, edo edozertan bidezko ziyoen batek eskatu ezpalegi.

II Atalka

Eragotzia

2268g. araua. § 1.—Eleiz-gorputzeko irauan arren, urrengo arauetan izentauten direan yaureskizunak inori galazoten dautsazan zigor osagarria da BRAGOTZIA.

§ 2.—Eragotzia era bitara ezarri doa: edo artez giza-lagunari ezarrita; edo zearretara tokiari ezarrita, izentauten direan tokietan eragotzitako zer santuak bai egin bai artutea galazoten danean.

2269g. araua. § 1.—Eragotzi *orokarra*, bai tokiari buruzkoa: Goterkiko-Laterriko errikoen aurka, nai lagunai buruzkoa: goterkiko-Laterri-barrutiaren aurka, nai lagunai buruzkoa: edo beste inork Aren aginduz; eragotzi *orokarra* parrokiaren nai parrokiaren aurka, ta eragotzi *bakarra* nai tokiari nai norbaiteri buruzkoa Obispoak be emon dagike.

§ 2.—Norbaiteri ezarritako eragotzia, edonora doala, eragotziak aldean deroa; tokiari ezarriak tokitik kanpoan eztauko indarrik; baño toki eragotzian,

guztiak, direanak direala, bai arrotzak eta azkatuak be bete bear dabe, beren-beregiko kutun-legerik ezpalebe.

2270g. araua. Tokiari buruzko eragotziak, orokarra nai bakarria dala, iltekoai ikurtonak eta ikurton-antzekoak legez emoterik ezta galazoten; baña bertan edozein yauresketa egitea galazoten dau, arau onen § 2 eta 2271-2272g. arauetako bereziak alde.

§ 2.—Geure Jaunaren Yagotza-egunean, Pazko-egunean, Espiritu Santua-
ren egunean, Gorputz-egunean eta Andra Mariaren Yasokunde-egunean tokiari
buruzko eragotzia eten egiten da, eta eleiz-gizontze ta ezkontzen onespen ospe-
tsua bakarrik galazoten ditu.

2271g. araua. Eragotzia tokiari buruzko orokarra baledi, eta eragotzia
ezarten dauan agiriak ostera garbi esan ezpalegi:

1.º Eleiz-gizonai, norbera be eragotzita ezpalego, zillegi yake edozein yau-
resketa egitea edozein elexa nai otoiztegin, bera bakarrik dala, eta atea itxita,
abestu barik eta kanpayak yo barik.

2.º Alan be, Obispoaren elexan, parroki elexetan edo errian bakarria dan
elexan, eta eurotan bakarrik yaupa bat egitea, Geure Jauna zaintzea, Ugutza,
Geure Jauna eta autortza-ikurtonak emotea; ezkontzetan bertan egotea, baña
ezkontza-onespen barik; ildakoen aldeko eleizkariak egitea, edozein ospaketa
galazota; ugutzarako uraren eta olio santuaren onespena ta Jaunaren itza al-
darrikatzea be izten dira; yauresketa oneitan abestiak, yantzi dotoreenak, kanpa-
yak, organu ta beste edozein ereskiñ yotea galazota dago. Elexakoak be gexoai
bakarrean eroan bediz.

2272g. araua. § 1.—Toki bakarrari buruzko eragotziak yaupamai nai
beste eleiz-zatiren bat eragotzi balegi, ezpedi eurotan
ezertariko yauresketarik egin.

§ 2.—Elexa nai otoiztegi bakarraren aurka emona balitz:

1.º Batzar-elexea baledi ta batzarra eragotzi ez, 2271, § 1g. arauaren agin-
dua egiten da, batzar-yaupaa egitea eta orduetako otoitzak esatea beste elexa nai
otoiztegian egin bear direala agindu ezpalegi eragotziaren agiriak.

2.º Parroki-elexea baledi, eragotziaren agiriak eragotziak iraungo dauan
arte beste elexaren bat ordeztu ezpalegi, 2271, § 1g. arauaren agindua bete
bedi.

2273g. araua. Uria eragotzi baledi, eragotzita dagoz bertako toki guz-
tiak, azkatuak balira be; bai Obispoaren elexea bera
be; elexea eragotzi baledi, eragotzita dagoz berari erantsitako eleiztxoak, ez
baña obitegia; eleiztxoa eragotzi baledi, ezta eragotzen elexa osoa; ezta obite-
gia eragotzita be, eztago eragotzita berari erantsitako elexea; baña erago-
tzita dagoz obitegian eregitako otoiztegi guztiak.

2274g. araua. § 1.—Lege-ausia batzarrak nai alkargoak balegi, erago-
tzia irutara emon daiteke: a) lege-ausle bakotxaren aur-

ka; b) edo batzarraren aurka batzarra danez; d) lege-ausle bakotxaren eta batza-
rraren aurka batzarra danez yaurtigi daiteke.

§ 2.—Lelengo eraz emon baledi, 2275g. arauaren agindua bete bedi.

§ 3.—Bigarren eraz emon baledi, batzarrak nai alkargoak ez dagike berari
dagokion gogozko eskubiderik erabili.

§ 4.—Irugarren eraz emona baledi, eragotzi biak bete bear.

2275g. araua. Norbaitzuk direanak direalako eragotziak:

1.º Eztagike yauresketarik egin, ezta eurok egitorduan
bertan egon be Jaunaren itza entzuteko baño; baña egon besterik ezpalegie, ez-
tago eurok elexatik yaurtigi-bearrik; baña yauresketan zerbait egitetik baztertu
bediz, eragotzia agertu nai ezarri egin dautsen epai bidez artuak balediz, edo
beste edozelan eragotzi ezagunak direanean.

2.º Galazota dauke ikurtonak eta ikurton-antzekoak emon, egin nai artzea,
2260, § 1, 2261g. arauak aginduten daben lez.

3.º 2265g. arauaren aginduak oneik be lotuten ditu.

4.º Eleiz-obiratzerik eztabe, 1240, § 1, 2.ºg. arauak erabagiten daben lez.

2276g. araua. Tokiari edo batzar nai alkargoren aurka ezarritako era-
gotziaren azpian berari biderik emon barik dagozanak,
beste zigorren batek galazo ezpalegie, bidez gertuta balegoz, emen goragoko
arauen erabagiak gora-bera, ikurtonak artu dagikez eragotzia azkatu barik nai
beste ordain barik.

2277g. araua. Elexan sartzeko eragotzia daukanak elexan yauresketak
egitea, edo eurak egiten direanean bertan egona eta eleiz-
-obiratzea izatea be eragotzita daukaz; baña elexan balego, eztago elexatik ate-
ra-bearrik; eta obiratu balebe, eztago gorpua andik atera bearrik be.

III Atalkia

Etena

2278g. araua. § 1.—ETENA eleizgizonari bere zeregiña edo bizibidea
edo bata ta bestea erabilten galazoten dautsan zigor osa-
garria da.

§ 2.—Etenaren eragotziak alkarregandik banandu daitekezanak dira; baña
ostantxekorik agiri ezpaledi, muga barik emoten danak atalki onetako arauetan
aitatuten direan eragotzi guztiak artzen ditu bere barruan; okerretara, zeregiñari
nai bizibideari buruzkoa danean, bataren eragotziak baño eztauz ezarten.

2279g. araua. § 1.—Zeregiñari buruzko etenak, ezertariko mugarik
ezarri ezik, nai eleiz-gizontzatiko nai zaintzabidetiko ze-
regiñaren eskubideak erabiltea galazoten dautso; baita ondasunak zaintzea be,
bere bizibidearenak izan ezik.

§ 2.—Eten:

1.º Zainbidearenak, beste barik, zainbide-alazko egin guztiak galazoten

ditu, bai ixileko bai agiriko auzitegian, nai ala legez berea izan nai iñork emona izan.

2.º *Jaureskizunai* buruzkoak, iñork bai eleizgizontzearen bidez bai legezko emonez daukan eleiz-gizontze-alezko egin guztiak galazoten ditu.

3.º *Eleizgizontzeari* buruzkoak, eleizgizontze-bidez artutako alezko egin guztiak.

4.º Eleizgizontze gurenari buruzkoak, eleiz-gizontze gurenen bidez artutako alagazko egin guztiak. (Oarra.—Gaurko legez eztago beste eleiz-gizontze-rik eleiz-gizontze gurenak baño-3 ta 4garren zenbakiakaz zenbaki bakarra egin bear da.—Larrakoetxea).

5.º *Eleiz-gizontza-malla izentautari buruzkoak*, izentautako mallako eleiz-gizonaren egin guztiak; ganera, etenak galazota dauko eleiz-gizontze berbera emotea ta goragoko mallakoa artutea, eta etenda gero artutakoa erabiltea be.

6.º *Eleiz-gizontze yakiñeko bat emoteari buruzkoak*, orixe eleizgizontze yakiñ ori emotea bakarrik; ez barriz ez azpikorik ez ganekorik.

7.º *Izentautako zerbait egiteari buruzkoak*, esaterako *autortzak entzutea*; edo *zeregiñan bati buruzkoak*: esaterako arimak zaintzekoan ezer egiterik galazoten dauana.

8.º *Obispo-eleiz-gizontzeari buruzkoak*, Obispo-eleizgizontza bidez artutako alaren bidez zerbait egitea.

9.º *Obispoaren eleizkizunai buruzko etenak*, eleizkizunok 337, § 2g. arauaren neurrikoak egitea.

2280g. araua. *Bizibideari buruzko etenak* bizibidearen ekarriak artzea galazoten dau, bizibide-etxean bizitea ez besteak; ez baña bizibidearen ondasunak zaintzea, etena ezarten dauan erabagiak edo epayak etenduari ondasunok zaintzeko eskubidea be agirian kendu ta iñori emon ezpalegio.

§ 2.—Etenak eragotzi arren, ondasunok eskuratu balez, ondasunok atzera emon bear ditu, ta bear izan ezkerok, legezko zigor-bidez be beartu daiteke emotera.

2281g. araua. Mugarri barik ezarritako etenak, nai zeregiñari buruzkoa dala, nai bizibideari buruzkoa dala, etenduak daukazan zeregin eta bizibide guztiak artzen ditu.

2282g. araua. Goterkizañak ez dagike eten eleizgizona beste goterki baten dagoan zeregin nai bizibideari buruz; baña Elexa osoaren legearen arauz emondako epayezko etenak zeregin eta bizibide guztiak artzen ditu bere barruan, edozein goterkin dagozala.

2283g. araua. 2265g. arauan arroztuteari buruz aginduten direanak etenari be ezarri bear yakoz.

2284g. araua. Ikurton eta ikurton-antzekoak emotea galazoten dauan eten zigorpean iñor yausi baledi, 2261g. arauko agindua

bete bedi; nai ixileko nai agiriko auzitegian zainbidezko egiñak galazoten dauzan etenaren azpian iñor yausi baledi eta etenak galazoten dautsan zerbait balegi, egiña utsa litzake; esaterako, ikurtonezko parkatua agertu edo emon egiten dauan epaye koa balitz edo Nagusiak zainbide-ala bera be kentzen dautsala esan balegio; ostantxean bakarrik da pekatu aitaturako 2261, § 2g. arauaren arauz kistarrak eskatu ezpalegie.

2285g. araua. § 1.—Lege-ausia batzar edo alkargoen batek egin balegi, eten-zigorra ezarri daiteke: edo lege-ausle bakotxaren aurka; edo batzaren aurka batzarra dalakoan; edo lege-ausle bakotxaren eta batzarraren aurka.

§ 2.—Lelengo eraz ezarri baledi, atalki onetako arauak zaindu bediz.

§ 3.—Bigarren eraz ezarri baledi, batzarrak galazota dauko batzar-zurrian dagokiozan gogozko eskubideak erabiltea.

§ 4.—Irugarren eraz ezarri baledi, arau onen § 2-3 aginduten direan bitzuak bete bear.

IX IDAZPURUA

Zigor garbiak (*aspergarriak* edo *astingarriak*)

2286g. araua. Zigor garbiak lege-ausiari ordain zuzena emoteko dira; orregaitik eztira parkatuten lege-auslea damutuagaz.

2287g. araua. Ezarritako zigor garbietatik gora yoteko eskubidea dago eta geyen baten gora-yote orrek zigorra eroan-bearra atzeratu egiten dau, besterik oartu ezik.

2288g. araua. Eleiz-gizona legez erri-gizontzea, eleiz-gizona bere legezko malletatik yaurtigitea, eleiz-zeregin eta bizibidea kentze-zigorrek ezpalediz eta erriari emondako erakutsi gaiztoa garbitu-bearrak eragin ezpalegi, epaikariaren eritxi zurrari eskubidea emoten yako, ondo bizita gero lelengoz legea austen dauana litzakenean, gaiztotzat emoten dauan legezko epayak ezarten dautsazan zigorrak bete-bearra luzatutea; orraitio baldintza one-gaz: iru urte barruan errudunak beste lege-ausi bardiña edo antzekoa egin balegi, lege-ausi biokaitik irabazi dauzan zigorrak artuko dauzala.

2289g. araua. Zigor garbia era bitara amaitzen da: edo berak aginduten dauana osoan eginda, edo parkatuteko eskubidea daukanak parkatuta.

2290g. araua. § 1.—Lege-ausi ixileko ta estuetan, emondako epayezko zigor garbiak aginduten dauana betetetik lege-ausleak bere buruaren izen ona galdu eta erriari erakutsi txarra emongo dautsalakoan, edozein autortza-entzulek luzatu dagikeo zigorra bete-bearra, eginbear au ezarri-

ta, beranduenez il'abete barruan idatziz eta autortza-entzulearen bitartez, neke andi barik egin al izatekoan, bere izena agertu barik, Autortegi Gurenera edo parkatzeko eskubidea lekauken Obispoagana yoko dauala eta aren aginduai men egin.

§ 2.—Ta iñoiz gora yotea eziña baledi, orduan 2254, § 3g. arauak erabagiten dauan lez autortza-entzuleak berak parkatu dagikeo.

I Atala

Kistar guztientzako zigor garbiak

2291g. araua. Kisto'ren Elexan Lege-ausiaren andiago-txikiagoaren neurrian edozein kistar yo dagiken zigor garbiak eta garrantzitsuenak urrengoak dira:

1.º Eragotzia: tokiaren edo batzarraren nai alkargoaren aurkakoa, nai betikoa nai izentautako epekoa, nai Nagusiak esango dauan artekoa.

2.º Elexan sartzeko eragotzia: nai betikoa nai izentautako eperañoakoa nai Nagusiak nai artekoa.

3.º Obispoaren nai parroki-zañaren aulkiaren zigorrezko toki-aldatutea.

4.º Legezko izen gaiztoa.

5.º 1240, § 1g. arauaren neurrian Eleiz-illobi gabetzea.

6.º Ikurton-artzekoak artzeko eskubidea kentzea.

7.º Elexeak ordaintzen dauan edo Eleiz-ondasunetatik artzen dan saria bein-beinean kendu nai ebagitea; edo beste edozein Eleiz-eskubidena.

8.º Eleiz-gizonak legezko egiñak egitetik aldendutea.

9.º Gai-eza: a) eleiz-gizon izan-bearrik eskatuten eztaben eleiz-emonak artzeko; b) Elexeak emon daroazan yakitun-izenak yadesteko.

10.º Lenagotik berea dauan zeregiña, edo eskubidea, edo emondako mesederen bat epe baterako kentzea nai etentzea.

11.º Besteak baño aurrerago yarteko eskubidea, edo batzarretan autarkia emon nai artuteko eskubidea, Elexeak emondako dedu-izenak, soñekoak eta bi-txiak eroateko eskubidea kendutea.

12.º Diruzko emon-bearra ezartea.

2292g. araua. Obispo-Aulkiaren zigorrezko kentzea nai aldatutea Aita Santuak bakarrik dagike; parroki-aulkiarena, barriz, ez dagike Obispoak egin bere Batzarra entzunda gero baño.

2293g. araua. § 1.—Izen gaiztoa edo legezkoa edo izatezkoa da.
§ 2.—Legezko izen gaiztoa Elexa osoaren legeak izentatuten dauzan yazoetan ezarten dana da.

§ 3.—Egitezko benetako izen gaiztoa norbaitek bere buruari ezarri daroako, egindako lege-ausiakaitik nai bere ekandu gaiztoakaitik kistar zintzo ta itzalgarrien aurrean bere izen ona galtzen dauanean; iñork benetako izen gaiztoa daukan ala ez ebaztea Goterkizañari dagokio.

§ 4.—Batak be eztauz lorrinduten lege-auslearen senide ta aideak, baña 2147, § 2, 3.ºg. arauaren kalte barik.

2294g. araua. § 1.—Legezko izen gaiztoa daukana 984, 5.ºg. arauaren erabagiz ezta gauza legezko eleiz-gizontzeko ta ganera eleiz-bizibideak, zainbide ta nausitzak artzeko, legezko eleiz-egiñak egiteko, eleiz-eskubide nai zeregiña erabilteko; eta amaitzeko, eleizkizun santuetan lan egitetik aldendu egin bear da.

§ 2.—Benetan egitez izen gaiztoa daukana bein-beinean ezta legezkoa eleiz-gizonduteko 984, 7.ºg. arauak diñean lez, ta eleiz-nausitzak, bizibideak, zainpideak artzetik, baita lan santurik egitetik eta legezko egiñak egitetik yaurtigi egin bear da.

2295g. araua. Legezko izen gaiztoa Aita Santuak emondako parkatua-ren bidez bakarrik kentzen da; egitezko izen gaiztoa, zer guztiak begiratura, eta batez be errudunaren aspaldiko bizikera onagaz, Goterkizañaren eritxiz kistar yator eta itzalgarrien artean barriro izen ona irabazi balegi.

2296g. araua. § 1.—Orreik zerok artzeko gaitasuna Elexa osoaren legeak emoten dauan zerbait danean, gaitasun ori Aita Santuak bakarrik kendu dagike.

§ 2.—Lendik eskuratutako eskubideak eztira galduten geroko ezgaitasuna-gaitik, geroko legeak besterik agirian erabagi ezpalegi.

2297g. araua. Elexa osoaren legeak ezarritako ta lege orrek eurakaz zer egin bear dan eztiñoazan diru-kentzeak, ta lege bereziz ezarritako edo ezarteko besteak Goterkizañak onegintzari laguntzeko eralgi daitezala erabagi dagike; ez, alan be, Obispoaren-mayaren edo Batzarraren ondasunai ezarteko.

II Atala

Eleiz-gizonen zigor garbi bereziak

2298g. araua. Eleiz-gizonai bakarrik ezarten yakezan zigor garbiak dira:

1.º Eleizkizun-lanik elexa baten, ez besteetan, egiteko eragotzia.

2.º Etena, nai betikoa nai neurtutako eperako nai Nagusiak gure izango dauan artekoa.

3.º Daukan zeregin edo bizibidetik beste apalagora eraztea.

4.º Zeregiñari nai bizibideari erantsitako eskubideen bat kentzea.

5.º Eleiz-gizonenak direan nausitza, zeregin nai bizibide guztiak nai batzuk artzeko gai-eza.

6.º Biziteko sariagaz nai sari-barik bizibidea nai zeregiña kentzea.

7.º Izentautako toki nai barrutian ez bizitzeko agindua.

8.º Izentautako toki nai barrutian biziteko agindua.

9.º Epe neurtuan eleiz-gizonen soñekoa yantziteko eragotzia.

10.º Eleiz-gizonen artetik egozte.

11.º Eleiz-gizonen soñekoa yantziteko betiko eragotzia.

12.º Eleiz-gizona erri-gizontzea.

2299g. araua. § 1.—Eleiz-gizonak bizibide aldatatza baleu, legean agertutako zioakaitik bakarrik kendu dagikeo zigor-zurrian; aldakorra baleu barriz, ostantzeko zioakaitik be bai.

§ 2.—Bizibide, zeregin, nausitzaren bat daukan eleiz-gizonari euroi erantsitako lanen bat egitea be neurtutako epe baterako galazo dagikeo: esaterako: itzaldiak egiteko, autortzak entzuteko ta abar.

§ 3.—Bere izenez eleiz-gizondu zan bizibidea nai bizi-saria ezin daitekeo kendu eleiz-gizonari bere ganorazko bizi-bearrari beste nonbaitetik ordeztu barik, 2303-2304g. arauetako aginduaren kalte barik.

2300g. araua. Eleiz-gizonak bere lege-ausi larriakaz erria ikaratuta balekar, eta egiten yakozan agirakak gora-bera damutu ezpaledi eta erakutsi okerraren ikarea bestela osatu al ezpaledi, bein-beinean eleiz-gizonen soñekoa erabiltea galazo daitekio; eta galazo orrek dirauan artean, eleiz-gizonaren edozein lan egiteko gebena dauko eta eleiz-gizonen eskubide barik bizibearra.

2301g. araua. Goterkizañak eztauko eskubiderik eleiz-gizona bere goterkitik kanpoko toki berezi baten biziten aginduteko toki artako Goterkizañaren bayezko barik toki ori goterkiko eleiz-gizonentzako bakarrik nai arrotzentzat be zigortuak bide onera ekarteko yarrria ezpalitz; olangoa balitz, naikoa da etxe orretako nagusiaren baimena, etxea Jaunzale azkatuena bada.

2302g. araua. Toki berezi baten biziteko nai agindua nai gebena ta zigor-etxean nai Jaunzaleen etxean sartuta bizi-bearra, batez be luzarorako baledi. Goterkizañaren eritxi zurraren neurrian zigorroak ezartea eleigizona bide onera ekarteko ta erriarentzat erakutsi txarra kentzeko bearrekoak direanean bakarrik ezarri bediz.

2303g. araua. § 1.—Egozpenak eleiz-gizontzeagaz artutako egin-bearren eta eleiz-gizon guztien eskubide berezien kalte barik, beragaz batera edozein zereginen etena, eta edozein eleiz-zeregin, nausitza, bizibide. bizi-sari ta ardura artzeko gai-eza dakar; baita errudunak eukazanak galdutea be. naita eleiz-gizondu zanean bere bizibidetzat ekarriak izan.

§ 2.—Baña atzenengo zigor ori artu balegi, ta eleiz-gizonak benetan bere bearra baleu, Goterkizañak errukiz alik ondoen lagun begio, eleiz-gizonen lotsagarri eskean ekin-bearrik izan eztagian.

§ 3.—Egozpen-zigorra ezin daiteke ezarri legeak berak esaten dauzan yazoetan baño.

2304g. araua. § 1.—Eleiz-gizon egotziak bide onera etorteko antzik artu ezpalegi, ta batez be erriari erakutsi txarra emoten

yarrari balegi, ta agirakak egin arren damutu ezpaledi, Goterkizañak eleiz-gizonen soñekoa erabiltea betiko galazo begio.

§ 2.—Galazo orrek eleiz-gizonen eskubide bereziak galdutea ta 2303, § 3g. arauaren aginduaren atzena dakar.

2305g. araua. § 1.—Eleiz-gizona erri-gizontzeak bere barruan daroaz: egozpena, eleiz-gizonen soñekoa betiko kentzea ta eleiz-gizona erri-gizon egitea.

§ 2.—Zigor au legean beren-beregi ezarritako lege-ausiakaitik bakarrik ezarri daiteke; edo eleiz-gizonak, egotzi ta eleiz-gizonen soñekoa yantziteko esku-bidea kenduta gero, oraindiño urte bete osoan erakutsi txarra emoten yarrari balegi.

§ 3.—Bera ezarteko era bi dagoz: bata *irzezkoa* edo *erabagizkoa*, epai-bidez bakarrik ezarten dana, baña beste barik zigorraren ondoko guztiak dakarzana; beste ezarkereari *egitezkoa* deritxo, Elexa Erromarraren Obispoen Yaurespide-Liburuak dakarzan zer guztiak eginez ezarten danean.

X IDAZPURUA

Osapide nekegarriak eta erru-ordañak

I Atala

Osapide nekegarriak

2306g. araua. Osapide nekegarriak dira:
1.º Oarra.

2.º Agirakea.

3.º Agindua.

4.º Zainduta bizi-bearra.

2307g. araua. Legea austeko zorian dagoana, edo egindako azterketatik legea ausi daualakoaren susmoa emoten dauana, Goterkizañak nai berberak nai norbaiten bitartez oartu begi.

2308g. araua. Iñoren bizikerak erakutsi okerra nai erriaren naste gorria sortu balegi, agiraka egin leitekio; agiraka au Goterkizañak berberak edo iñoren bitartez, eta baita idatziz be egin dagike, agiraka egin bear yakona nor eta zelangoa dan eta bere okerra zelangoa dan begiratuta.

2309g. araua. § 1.—Bai oarra bai agirakea nai agirikoa nai ixilekoa izan daiteke.

§ 2.—Agiriko oarra nai agirakea edo ziñaldariaren edo lekuko biren aurrean edo idatziz egin bedi; baña egin yakozanak artu dauala eta idatzizkoaren esana agiri egokiaren bidez egiztau bear dira.

§ 3.—Agiriko agirakea lege-ausia egiztauta edo errudunak autortuta gero

bakarrik egin daiteke; eta epai bidezkoa da, epaikariak auzitegian diarduala egin balegi, edo Goterkizañak lege-ausizko auzi-aurretik.

§ 4.—Epayezko agirakea edo zigoriaren orde zigorra garratzagoa egiteko egiten da.

§ 5.—Naita ixilean egin. Obispoaren agiritegiko ixiltegian zaindu bear dan agiri baten bidez erakutsi bear dira oarrak eta agirakak, egiztau-bearra le-gokenean.

§ 6.—Bai agirakea bai oarra nai bein nai askotan egin daitekez, Nagusi zurrari deritxonez.

2310g. araua. Oarrak eta agirakak alperrikoak izan balira, edo eurok egitetik ezer onen itxarobiderik ezpalego, agindua emoten da; bertan zeatz esaten yakela agindua emoten yakonak zer egin bear dauan edo zer egin bear eztauan, agindua austekotan emongo yakon zigorren zema-yagaz.

2311g. araua. § 1.—Lege-ausiaren itzalak eskatu balegi, ta batez be lege-ausi berbera barriro egiteko arriskuan legokena bali-tz, Goterkizañak egoki zainduta yarri begi.

§ 2.—Zaintze au zigorra latzagoa egiteko be agindu daiteke, batez be bein baño geyagotan yausiaren aurka.

II Atala

Zigor-ordañak

2312g. araua. § 1.—Zigor-ordañak agiriko auzitegian ezarten dira, lege-zko zigorra ez artzea edo aldean daukan zigorren parkatua yadetsi dagian.

§ 2.—Lege-ausi nai uts ixilekoagaitik ezpedi iñoiz agiriko zigor-ordañik ezarri.

§ 3.—Zigor-ordañak lege-ausiaren neurriaren arauaz baño autortzallearen damuaren neurrian geyago ezarri bear dira, lege-auslearen eta lege-ausiaren gora-berak kontuan artuta.

2313g. araua. § 1.—Geyen erabiltean direan zigor-ordañak urrengoak dira:

1.º Otoitz izentau batzuk esatea.

2.º Jaunari eder egiteko asmuz urrineko elexen baterako yoan-etorria nai beste Jauresketen batzuk egitea.

3.º Barau berezia egitea.

4.º Jaunarren ukarra (limosnea) emotea.

5.º Jaunzaleen etxeen baten egun batzuetan gogo-iñarkunak egitea.

§ 2.—Zigor-ordañok Goterkizañak, bere eritxi zurrak esaten dautsan lez, ezarri dagikeoz oar eta agiraka osapide-nekegarriai.

IRUGARREN ZATIA

Lege-ausi bakotxari ezarteko zigorrak

XI IDAZPURUA

Siñeskintzaren nai Eleiz-batasunaren aurkako lege-ausiak

2314g. araua. § 1.—Kistar-siñeskintzaren ukatzalle ta siñausle eta Ele-xearen zatitzalle bakotxa:

1.º Beste barik Elexeari buruz arrotzu egin da.

2.º Agiraka eginda damutu ezpalediz, Elexan leukaken bizibide, nausitza, sari, zeregin nai lana kendu bekiez; izen gaiztoko agertu bediz, eta eleiz-gizonak, barriro agiraka eginda, egotzi bediz.

3.º Katoliko eztan alkargoen baten bazkidetu balira, edo agirian bazkide lez agertu, beste barik izen gaiztoko egiten dira eta 188, 4.ºg. arauaren kalte barik, agiraka barriro eginda, eleiz-gizonak erri-gizondu bediz.

§ 2.—Arau onen § 1-an arrotzaren parkatutea ixileko auzitegian emoteko eskubidea beren-beregi Aita Santuarentzat berezita dago. Baña kistartasuna ukatuteari edo siñeskintza-ausiari nai Elexea zatitzeari buruzko lege-ausia tokiko Go-terkizañaren auzitegira edozelan, baita lege-ausleak berak guratako autortzearen bidez be, eroan baledi; Goterkizain berberak, ez orraitio berarizko agindu barik Danerako Ordezkoak, damutua, lenen bere okerrak legearen arauz txartzat emon-da, ta legez egin bear direan beste zer guztiak eginda gero, bere legezko eskubi-dez agiriko auzitegian parkatu dagike; eta olan parkatua, barriz, ixileko auzite-gian bere pekatuai buruz edozein autortza-entzulek parkatu dagike. Okerren legezko autortzea ta txartzat emotea legez Goterkizain berberaren nai bere Or-deztuaren eta gitxienez lekuko biren aurrean egiten danean egiten da.

2315g. araua. Siñeskintza-legea ausi daualako susmoa emon daualakoa, legez oartuta gero, susmo-bideak itxi nai eztauzana si-ñausle-susmoduntzat emon bear da; eta olangoari legezko egiñak egitea ga-lazo bekio, ta ganera eleiz-gizona, barriro alperrik oartuta, Jaureskizunai buruz eten bedi; zigor ori ezarrita sei illabete barruan ondu ezpaledi, siñausletzat emon bedi siñausleen zigorrak aldean daroazala.

2316g. araua. Siñeskintza-ausiaren zabalkundeari norbere guraz ta zer egiten dauan ondo dakiala lagunduten dautsana edo 1258g. arauko aginduaren aurka Jauresketetan siñausleakaz alkartzan dana si-ñausle-susmoko da.

2317g. araua. Nai erriaren aurrean nai bakarrean nai Aita Santuak nai Batzar Orokarrak, siñeskintza-ausitzat emon ez-arren, txartzat emondako irakatsia buru setatsuz irakatsi ontzat aldeztuten dabenak, Jaunaren Itza aldarrikatzetik, nai ikuron-autortzak entzutetik eta irakasteko edo-

zein zeregindik aldendu bediz; eta ganera erruduntzat emon dauzan epayak edo Goterkizañak, oartuta gero, erakutsi okerra arteztuteko bearrekotzak leukakezan beste zigorren kalte barik.

2318g. araua. § 1.—Aita Santuarentzat beren-beregi berezitako arrotzutearen azpian beste barik yausten dira, idaztia argitaratu ezkerro: kistar siñeskintzaren ukatua, siñaustea nai Elexearen zatitzea aldeztuten daben ukatzalleen, siñausleen, zatitzalleen idaztien argitaratzalleak; baita idaztiok edo Aita Santuaren idatziz euren izenez galazotako beste idaztien batzuk aldeztuten dabezanak edo galazota dagozala yakin arren, bearreko baimen barik irakurri nai eukiten dabezanak.

§ 2.—Liburu santuak edo eurai ezarritako oarrak nai atzalduek bearreko baimen barik irarten dabezanak, idazle ta argitaratzalleak iñorentzat berezi bako arrotzute-azpian beste barik yausten dira.

2319g. araua. § 1.—Emondako epayezko ta Goterkizañarentzat berezitateko arrotzutearen azpian dagoz urrengo kistarrak:

1.º 1063g. arauaren aginduaren aurka katoliko eztan eleiz-gizonaren aurrean ezkontzen direanak.

2.º Umeen bat nai guztiak Elexa katolikotik kanpoan azteko itunben agiriko nai ixilekoagaz ezkontzen direanak.

4.º Umeak katoliko eztan Jauresketan azteko edo irakasteko emoten dabezan gurasoak nai guraso-ordeak.

§ 2.—Or § 1, 3.º, 4.º etan esanok ganera siñausle-susmokoak dira.

XII IDAZPURUA

Jaureskuntzearen aurkazko lege-ausiak

2320g. araua. Geure Jaunaren ogi-ardao-antzekoak asmo gaiztoz ostu, yaurtigi nai euki legikezana siñistu-asiaren susmoa emoten dauana da; Aita Santuari berezi-berezitateko eraz emondako epayezko arrotzutearen azpian egin ala yausita dago; izen gaiztoko da ta ganera, eleiz gizona baledi, erri-gizondu bearrekoa.

2321g. araua. 806, § 1, 808g. aginduen aurka egun berean yaupera birritan edo barausita egiten ausartzen direan yaupariak Yaupera egiteko eskubidea etenda beukie Goterkizañak egin bakotxaren zertzuk begiratuta erabagiko dauan neurrian.

2322g. araua. Oraindiño yaupari eztanak:
1.º Yaupera egiten daualakoa balegi, edo ikurtonezko autortza entzun, beste barik arrotzuta dago, parkatzea Aita Santuari berarizko eraz berezita; ta ganera, erri-gizona baledi, Elexan leukaken sari nai zeregin barik gelditu bedi ta erruaren neurrizko beste zigor batzukaz be yo bedi; eleiz-gizona, barriz, eleiz-gizonen artetik erauzi bedi.

2.º Beste yaupari-egikizunen batzuk ostu balegiz, Goterkizañak yo begi erruaren neurrian.

2323g. araua. Biraoa esan edo epaitegitik kanpoan guzurrezko ziñaltzea emon dauana Goterkizañak errua zelangoa alango zigorraz yo begi, batez be, eleizgizona bada.

2324g. araua. 827, 828, 840, § 1g. arauetako aginduen aurka legea austen dabenak Goterkizañak erruaren neurrian zigorkatu begiz, lege-asiaren aztunak eskatu ezkerro, etenagaz edo eleizbizibidea nai zeregiña kenduagaz, bear izan ezkerro zigorkatuteko bildur barik; eta erri-gizona baledi, arrotzuteagaz.

2325g. araua. Zorginkeri eta zer santuen ausi batzuen aurka legez ezarritako zigorrez ganera, zorginkerietan daragoyona nai zer santua ausi dauana Goterkizañak erruaren neurrian zigorkatu begi.

2326g. araua. Guzurrezko santuen gorpuzkiñak egin edo zer egiten dauan ondo dakiala saldu, banandu edo kistarrak gauza santutzat agirian begiratu dagiezan erakusten dauana, beste barik Goterkizañarentzat berezitateko arrotzute-azpian yausten da.

2327g. araua. Nekazketatik diru-giñen daragoyenen aurka Aita Santuarentzat berezitateko arrotzutea dago beste barik ezarrita.

2328g. araua. Ildakoen ilotzak (gorpuak) nai obiak ostuteko nai beste asmo gaiztoz zor yaken lotsea galduta erabili dabezana, eurai buruzko eragotziagaz zigortu bedi, ta beste barik izen gaiztoko izan bedi ta, eleiz-gizon balitz, eleiz-gizonen artetik egotzia.

2329g. araua. 1172, 1207g. arauetan aitatutako elexearen eta il-erriaren lorrintzalleak elexan sartzeko eragotziagaz eta beste zigor egokiakaz lege-asiaren neurrian Goterkizañak zigortu begiz.

XIII IDAZPURUA

Eleiz-Nagusien, Eleiz-gizonen eta Eleiz-zeren aurkazko lege-ausiak

2330g. araua. Aita Santu barria aututean egin leitekezan lege-ausietan, 1904garreneko Lotazillaren 25garreneko Pi Xgarren *Vacante Sede Apostolica* legean erabagita dagoana bakarrik bete bear da.

2331g. araua. § 1.—Zerbait legez agindu nai galazoten dautsen Aita Santuari nai Aren Orde koari buru-gogor men egiten eztautsenak zigor egokiakaz, osagarriakaz batez be, erruaren neurrian zigorkatu bediz.

§ 2.—Aita Santuaren nai Aren Ordezkoaren nai norbere Goterkizañaren agintearen aurka edo euren legezko aginduen aurka gudari-lagun-billa daragoyenak, baita menpekoak euren aurka aixatuten (1) dabezanak zigor osagarriakaz nai ostantxekoakaz astindu bediz; eta eleiz-gizonak balediz, nausitza, bizi-bide ta beste edozein zeregin kendu begioe; jaunzalea baledi barriz autarki-eskubidea bai autesteko bai autua izateko kendu begioe.

2332g. araua. Edozein bizibide, malla nai izakerako litzakezan guztiak eta bakotxa, naita Errege, Obispo nai Kardenal izan, orduko Aita Santuaren lege, erabagi edo aginduaren aurka Batzar Orokarragana yo legikenak siñausle-susmokoak dira ta, beste barik, Aita Santuarentzat beren-beregi berezitako arroztutea leporatuten dabe; gorengo mallako Irakastetxeak, Ikastetxeak, Batzar eta edozein izeneko beste legezko norbaitzuk Aita Santuarentzat beren-beregi bardin berezitako arroztutzearen azpian yausten dira.

2333g. araua. Aita Santuak edo bere Ordezkoak emondako idazki edo edozein erabagi eragozteko Laterriko agintariekana yoten dabenak, nai eurok iragartea nai betetea artez nai oker galazoten dabenak, edo eurok direala-ta, idazkiak nai erebakiak artu dabezanak nai beste batzuk yo nai bildurtuten dabezanak, beste barik Aita Santuarentzat beren-beregi berezitako arroztutzearen azpian yausten dira.

2334g. araua. Aita Santuarentzat beren-beregi berezi ta emondako epayezko arroztutzeagaz zigorkatzen dira:

1.º Elexearen buru-yabetasunaren nai eskubideen aurka legeak, aginduak, erabagiak emoten dabezanak.

2.º Bai ixileko bai agiriko auzitegiko Elexearen zainbidezko eskubideak erabiltea artez nai zearka galazoten dabenak artarako Laterriko edozein nagusigana yota.

2335g. araua. Masoi-alkargoan edo Elexearen nai legezko Laterriko Nagusien aurka ekiteko asmuz sortutako edozein alkargotan bazkide-tuten direanak, beste barik, Aita Santuarentzat berezitako arroztutzearen azpian yausten dira.

2336g. araua. § 1.—2334, 2335g. arauetan aitaturako lege-ausia legiken eleiz-gizonak arauotan ezarritako zigorrez ganera, etenagaz edo Elexan bear bada euken bizibide, zeregin, nausitza, sari nai egitekoa berbera be galduaz zigortu bediz; Jaunzaleak balira, barriz, dauken nau-

(1) Nire errian, ni ume ta mutiko nintzanean beintzat txakurrak norbaiteri nai zerbaiteri gogor ekiten berotuteko ¡aixal! ¡aixal! esaten yakon, eta norbaiten edo zerbaiten aurka gogor ekiteko txakurra bialtzeari txakurra aixatu esaten zan. Erderazko **ja esel** tik sortua dalako antza artzen dausat. Ostantxean aukerazko itza litzake gure lege onek zigortzen dauan lege-ausia adierazteko. (Larrakoetxea).

sitza ta autua izateko ta iñor aututeko eskubide barik itxita, eta ganera euren legeen arauzko beste zigor batzuekaz yota.

§ 2.—Ganera, Masoi-alkargo ta beste antzekoetan bazkide-tuten direan eleizgizonak eta Jaunzaleak Zeregin Santuko Bazkun Gurenera salatu bear dira.

2337g. araua. § 1.—Parroki-zañak eleiz-zainbidea galazoteko erriari sua emon balegio bere alde izen-batzen ekinda ta au ta bestea esanda, erruaren neurrizko zigorketea emon begio Goterkizañak, bere eritxi zurrak esaten dautsan lez; bear balitz, baita eten-zigorra be.

§ 2.—Bardin zigorkatu begi Goterkizañak eleizpurutzat nai eleizaintzat izentautako yaupariari bere elexan sartzen galazoteko erititar batzui azpitik sua emoten dautsen yauparia be.

2338g. araua. § 1.—Artarako bear dan alik barik Aita Santuarentzat berezi-berezitako arroztutzea parkatzen ausartzen direanak beste barik Aita Santuarentzat berezitako arroztutze-azpian yausten dira.

§ 2.—Edozelango artu-emon galazota daukan arroztuari zigor ori ekarri eutsan lege-ausian edozelango laguntzea emon dautsenak; baita dakiela ta euren kautez Jauresketan aregaz batera ekiten dautsenak eta eleizkizunetan bertako izaten izten dautsen eleiz-gizonak be, beste barik, Aita Santuarentzat berezitako arroztutze-azpian yausten dira.

§ 3.—Eleizkizunak toki eragotzietan yakinez ganera egin edo eragiten dabezanak, edo zigor-osagarri bidez galazotako eleizkizunak egiten eleiz-gizon aroztuak, eragotziak, etenaz yoak, etena agertu nai gatxesten dauan epai ostein atosten dabezanak, beste barik elexan sartzeko eragotzia euren leporatuten dabe, arik eta bere epaya ausi eutsanaren eritxiz errua naikoa garbitu artean.

§ 4.—Toki, batzar nai alkargo bateri ezarritako eragotziaren errua izan ebanak nai izan ebanak edonon eragotzita dagoz.

2339g. araua. 1240, § 1g. arauaren aginduaren aurka kistar-eztireanak, kistar siñeskintza-ukatzalleak, siñausleak, eleiz-zatitzalleak nai beste arroztutakoak nai eragotziak eleiz-obian lur emotea agindu nai eragiten ausartzen direanak iñorentzat berezi bako emondako epayezko arroztutzea leporatzen dabe; olangoai euren obitegia emoten dautsenak, barriz, Goterkizañarentzat berezitako elexan sartzeko eragotzia.

2340g. araua. § 1.—Norbaitek arroztuta urte betean parkatua izateko ezer egin barik buru-gogor yarra balegi, siñausle-susmoko da.

§ 2.—Eleiz-gizonak sei-illabetean eten-zigorpean iraun balegi, agiraka garratza egin begio; ta agirakea eginda illabete yoan baledi oraindiño berean satsatu dirauala, bear bada elexan eukan bizibidea nai zeregiña galdu begi.

2341g. araua. 120g. arauaren aginduaren aurka Erroma'ko Elexa Santuko Kardenala nai Aita Santuaren Ordezkoa edo euren zeregiñaren buruzko zer bategaitik Aita Santuaren Lantegietako Langille Nagusia

edo norbere Goterkizaña Laterriko epaikariagana eroaten azartuko litzakenak, beste barik, Aita Santuarentzat berezi-berezitako arrotzutea leporatu daroa.

Beste Obispoen bat balitz, naita goterki bakoa izan, edo inongo goterkiren zati ez tirean barrutian Lekaipurua nai Jaurburua, edo Aita Santuaren legezko Jaunzaletzaren Nagusia balitz, Aita Santuari berezitako arrotzutearen azpian yausten da.

Amaitzeko, Goterkizañaren baimena lortu barik, eleiz-auzitegian bakarrik epaitua izateko eskubideduna Laterriko epaikariagana daroana, ori balegi ta eleiz-gizona izan lege-auslea, beste barik Goterkizañari berezitako bere zeregi-ñetik etenda gelditzen da; lege-auslea erritarra balitz, bere Goterkizañak errua- ren neurrian zigortu begi.

2342g. araua. Beste barik Aita Santuarentzat berezitako arrotzute-az- pian yausten dira:

1.º Euron etxean bear dan baimen barik sartuta Lekaimen itxi-legea aus- ten dabenak edozein gizamallako direala, nai gizakume nai emakume direala; bardin sartzen dabezanak nai sartzen izten dautsenak; ganera, eleiz-gizonak ba- lediz, eten bediz Goterkizañari deritxon eperako.

2.º Lekaideen itxi-legea austen daben emakumeak; eta Lekaipurak eta beste guztiak, direanak direala, edozein urteko emakume sartu nai sartzen itxi dautsenak; ganera, emakumok sartu nai sartzen itxi dautsen lekaideak galdu be- giez, baleukiez, euren aginpideak, eta aututeko nai autua izateko autarkia.

3.º 601g. arauko aginduaren aurka legezko baimen barik urtetan daben lekaimeak.

2343g. araua. § 1.—Aita Santua yo nai edozelan indarrezko iraña egi- ten dautsenak:

1.º Aita Santuari beren-beregi berezitako emondako epayezko arrotzutea leporatuten dau, eta beste barik beragaz ezertariko artu-emonik izatea galazo- ta dago.

2.º Baita beste barik izen gaiztoko da.

3.º Eleiz-gizona baledi, erri-gizondu egin bear da.

§ 2.—Erroma'ko Elexa Santuko Kardenalari nai Aita Santuaren Ordezkoari balegio irain ori:

1.º Aita Santuari beren-beregi berezitako arrotzutea daroa.

2.º Beste barik izen gaiztoko da.

3.º Elexan arean baleuko, ken begie edozein bizibide, zeregin, nausitza, sari ta egiteko.

§ 3.—Irainduak Erkaba, Obispo-buru ta Obispo badira, naita goterki bakoa izan iraintzalleak Aita Santuari beren-beregi berezitako emondako epayezko arrotzutea leporatzen dau.

§ 4.—Beste edozein eleizgizon, edo gizonezko nai andrazko jaunzaleak ba- lira, beste barik irainduaren Goterkizañari berezitako arrotzutea leporatuten dau, eta Goterkizañak zuzen deritxozan beste zigor batzuk be ezarri dagikeoz.

2344g. araua. Aita Santua, Erromako Elexa Santuko Kardenala, Aita Santuaren Ordezkoa, Erroma'ko Bazkun Gurenak, Aita Santuaren Auzitegiak eta euratoko Langille nagusienak, edo norbere Goterkizaña agiriko egunkari nai aldizkarietan, itzaldietan, idaztiñoetan nai argi ta garbi nai zearka iraintzen dabezanak edo euron egifien, erabagien, ebatzien edo epayen aurka gorrotoari sua emoten daragoyenak, Goterkizañak, ez bakarrik irainduak eskatuta, baita bere zeregiñak beartuta be beartu begi erruduna, baita zigor osa- garriakaz be, bere zorra ordainduten; eta beste zigor eta zigor ordañakaz astindu begi bere erruakaz irabazia artu dagian eta erriari emondako erakutsi okerra arteztu dedin.

2345g. araua. Aita Santuaren elexearenak direan ondasunak eta esku- bideak norberak nai iforen bitartez ostu nai euki dabe- zanak, Aita Santuari beren-beregi berezitako arrotzutearen azpian begoz; eta eleiz-gizonak balediz, ganera nausitza, bizibide, zeregin ta sari-gabetuta; eta gero eurok barrero lortuteko gauza izatea galdu begie.

2346g. araua. Edozertariko eleiz-ondasunak, aldakorrak nai aldagatzak, soñezkoak nai soin-bakoak, norbaitek nai bere eskuz nai iforen bitartez norbere obarirako erabili nai ostuteko añako lotsabakoa izan baledi; edo zuzen dagokiezanan eskuetara euren emonak eta etorriak eldutea eragozten ausartu baledi, ondasunak eurak osorik atzera emon arte, aita- tutako eragozpena kendu ta gero Aita Santuagandik azkatua lortu arte arrotzute- azpian bego; eta elexa berberaren edo ondasunen patroya balitz, beste barik patroitzea bera be kendu egin bear yako; lege ausi au egin dauan edo egiten dauanaren lagun agertuten dan eleiz-gizona, barriz, bere bizibide gabetu bedi eta barriak artzeko gaitasuna kenduta; eta zor guztiak ordainduta be, bere yaupal- tzeari dagokiozan egitekoak egitetik etenda bego Goterkizañari deritxon artean.

2347g. araua. Egiña alperrekoa izateaz ganera, eta lege barik eskura- tutako ondasunak atzera emon eta ausaz egindako kañ- teak osatu bearras ganera, osatu bear ori zigor osagarrien bidez be beteazo bear yakola, eleiz-ondasunak iforenduten dauzana eta 534, § 1 ta 1532g. arauen aginduaren aurka iforenduteko baimena emoten ausartu dana:

1.º Milla peseta baño geyagoko baliorik ezpadau, legezko eleiz-Nagusiak egoki zigortu begi.

2.º Millatik gora, baña ogeta amar milla pesetatik beragokoa baledi, pa- troiari bere patroiz-eskubideak kendu begioz; ondasun-zañari bere zaintzea; Nagusi nai ondasun-zain Jaunzaleari bere zeregiña eta beste zeregiñik aurreran- tzean erabilteko gaitasuna kendu, Nagusiak ganera ezarriko dautsazan zigor ego- kiakaz; Goterkizañak eta beste eleiz-gizonak Elexako zeregiña, bizibidea, nau- sitzea edo egitekoa daukenak kalte egin dautsen elexeari nai onegintzeari egin dautsen kaltea ta beste ainbeste ordaindu bear dautse; ganeko eleiz-gizonak Go- terkizañak zuzen deritxon eperako eten begiz.

3.º Aitatutako arauetan aginduten dan Aita Santuaren baimena eskatutea yakiñez ganera ezetsi baledi, ondasunak nai emotean nai artzean nai bayezkoa

emotean errurik izan dabenak, ganera, inorenzat berezita eztagoan arrotzuteak yoten ditu.

2348g. araua. Onegintzarako dan il-ondoko agindua nai emona, nai bizien arteko egitez nai ildakoen azken-nayez, naita itz utsezko agindua izan, artu eta betetan nagi agiri litzakenari, Goterkizañak zigor osagarrien bidez be bere egin-bearra bete-erazo begio.

2349g. araua. 463, § 1 eta 1507g. arauen aginduaren indarrez zor direan lan-sariak ukatzen dabezanak Goterkizañaren eritxizko zigorrakaz beartu bediz zorra ordainduten.

XIV IDAZPURUA

Biziaren, azkatasunaren, yabetasunaren, izen-onaren eta ekandu onen aurkako lege-ausiak

2350g. araua. § 1.—Amaren sabelean dagoan eta oraindiño kanpoan bizi-eziña dauan umea bota-erazoteko alegiñak egiten dabezan guztiak, ama bera be berezi barik, nai dabena lortu balegie, Goterkizañarentzat berezitako emondako epayezko arrotzutearen azpian yausten dira; ta eleiz-gizonak balediz, ganera eleiz-gizontzatik egotzi bediz.

§ 2.—Norbere buruari ilteko asmuz eskua ezarri eta eriotzea ekarri dau-tsenak 1240, § 1, 3.ºg. arauak aginduten dauan lez elexako obiratze barik itxi bediz; osterantzean, aldendu bediz elexeari buruzko egiñetatik, eta eleiz-gizonak balediz, Goterkizañak neurtuko dauan eperako eten bediz, eta ixileko nai agiriko arima-zaintzea erantsita dauken bizibide nai egin-bideetatik aldendu.

2351g. araua. § 1.—1240, § 1, 4.ºg. arauak aitatuten dauan lagun bien arteko guda-burrukea egin dabenak, edo egiteko eupadea alkarreri egin dauksenak, edo guda-burruka ori ontzat emoten dabenak, edo edoze-lango laguntzea emon dauksenak, baita beren-beregi bera ikusten dabenak, edo-zein nausitzadun direalakoak beste barik Aita Santuarentzat berezitako arrotzutearen azpian yausten dira.

§ 2.—Gudariak eurak barriz eta aitabitxi deritxoena, ganera, beste barik izen gaiztoko egiten dira.

2352g. araua. Inorenzat berezi bako arrotzuteagaz zigorkatzen dira nai gizonezkoa eleiz-gizonduten, nai gizonezkoa nai andrazkoa Jaunzaletzan betiko nai eperako sartzen nai jaunzaletzakunde nagusia nai txikia egiten beartuten dauan edozein, naita edozein nagusitzadun izan.

2353g. araua. Ezkontzeko nai lizunkeria asetuteko asmuagaz berak nai eztauan andrazkoa indarrez nai azerikeriz; edo oraindiño eldu bako adiñako emakumea berak gura-ta be, baña bere gurasoak edo

babeslariak eztakiela edo gure ezabela, lapurtuten dauana, beste barik legezko eleiz-egiñetatik alde euki bedi ta ganera erruaren aztunaren neurrizko beste zigorrakaz be astindu bedi.

2354g. araua. § 1.—Legezko eleiz-egiteetatik beste barik baztertu bedi eta len Elexan leukakezan edozein zeregiñetatik kendu, egindako kalteak ordaindu-bearraren kalte barik, urrengo lege-ausien bategaitik legez erruduntzat emondako erri-gizona;

- 1.º Inor iltea.
- 2.º Bai neskato bai mutikoa lapurtuta eroatea.
- 3.º Gizonezkoa nai andrazkoa yopu izateko nai beste edozin zeregin txarrerako saldutea.
- 4.º Dirua irabazi larregigaz emoten ekitea.
- 5.º Indarrezko lapurretea.
- 6.º Edozein ostute larri.
- 7.º Sua emonda erreketanda.
- 8.º Asmu txarreko zerbaiten suzitze andia.
- 9.º Norbaiteri edo gorputz-zatia moztu edo zauri larria egin edo indarrean txarto erabili.

§ 2.—Orretariko lege-ausien bat legiken eleiz-gizona eleiz-epaitegiak zigorkatu begi, egindako okerraren neurria begiratuta, zigor-ordañakaz, zigor osagarriakaz, zeregiña, bizibidea, nausitzea kenduagaz eta, lege-ausiak eskatu balegi, baita eleiz-gizonen artetik yaurtigiagaz be; bere erruz inor il dauana erri-gizondu bedi.

2355g. araua. Inork inor gorputzean barik, itzez nai idatziz edo beste edozelan iraindu balegi edo aren izena baltzitu, ez bakarrik 1618 eta 1938g. arauak aginduten daben lez parka eskatuten eta egindako kalteak ordainduten beartu leiteke, baña bai ganera zigor egokiakaz ta zigor-ordañakaz zigorkatu be; kaltegiñok eleizgizonak balediz ta egindako kalteak nai irañak eskatu balegi, baita etena ta daukazan zeregin eta bizibidea kendu be.

2356g. araua. Emazte bidunak, au da, ezkontuta dagoala beste ezkontza bat egiteko besteko lotsabakoa izan diranak, naita bigarren ezkontza ori Laterri-ezkontzea baño izan ez, beste barik izen gaiztokoak egiten dira; eta Goterkizañaren agirakeari yaramonik egin barik, batera biziten yarra balegie, erruaren neurrian edo arrotzute edo eurai buruzko eragotziagaz zigortu begiz.

2357g. araua. § 1.—Amasei urtetik beragoko neska-mutillekaz Jaunen seigarren aurkazko lege-ausiagaitik, edo neskea galduagaitik, nai sodomakeriagaitik, edo senidekeriagaitik edo bargazakeriagaitik gaiztotzat legez emondako erritarrak beste barik izen gaiztokoak dira, Goterkizañak ezarri bearko dautsezan beste zigorren kalte barik.

§ 2.—Agiriko ezkontza-lege-ausia legikenak, eta oraindiño alkarregaz agirian bizi direanak, edo seigarren agindu orren aurkazko beste lege-ausiakaitik legez

gaiztotzat emonak, benetan damututa dagozala erakutsi arte galazota dauke Elexearen legezko egiñik egitea.

2358g. araua. Eleiz-gizonen berengo malletakoak amar agindueta-tiko seigarrenaren aurkako lege-asiaren errudun litza-kezanak, errua zelango, alango zigorra artu begie; baita eleiz-gizontzatik yaurti-gitea be, lege asiaren gora-berak alangorik eskatu balegie, 2357g. arauan izentatzen direan zigorren kalte barik, oneintzako be zergaitik ezarri balego (1).

2359g. araua. § 1.—Sasi-erkondua lez bizi dan eleiz-gizona, nai erri-tarra nai Jaunzalea dala, egin yakon agirakea alperrikoa izan baledi, besteagazko bizitza ori austen eta erriari emondako erakutsi txarraren kalteak ordaintzen beartu bedi Jauresketari buruzko etenagaz, ta zeregiña, bizibi-dea kenduagaz, 2176-2181g. arauetan aginduten dana beteta.

§ 2.—Amar agindueta-tiko seigarren aginduaren aurka amasei urtetik bera-ko neska-mutilekaz lege-usia egin balegie, edo ezkontza-usia, edo neskea-gal-tzea, deo aberekeria, edo sodomakeria, edo bargazkeria, edo lelengo mallako senide nai aideagazko senidekeria, eten bediz, izen gaiztoko iragarri bediz eta leukaken edozein-zeregin, bizibide, nausitza, ardura kendu bear dautse, eta ya-zoera okerrenetan, eleiz-gizonen artetik yaurtigi bediz.

§ 3.—Seigarren agindu ori bestela ausi balegie, erruaren neurrian egoki zigortu bediz, bai zeregiña nai bizibidea kenduta be, batez be arimazaintzea daukenak balira.

XV IDAZPURUA

Guzur-lege-asiak

2360g. araua. § 1.—Aita Santuaren idatziak, erabagiak eta idatzizko erantzunak, edo guzurrezkoak egin, edo yatorriz beneta-koak direanak gero ezarten dautsezan guzurrakaz aldatu egiten dabezanak, eta olango guzurrezkoak yakifnez ganera darabillezanak, beste barik Aita Santuari beren-beregi berezitako arrotzutearen azpian yausten dira.

§ 2.—Or § 1'an aitaturako lege-usia dagien eleiz-gizonak zigorkatu bediz, ganera, bizibidea, zeregiña, nausitza ta eleiz-saria kenduteraño; Jaunzaleak ba-rriz euren legeak ezarten dautsezan zigorrez ganera, Jaunzaletzan leukakezan agin-bide guztiak eta aututeko nai autua izateko autarkia kenduta zigortu bediz.

2361g. araua. Aita Santuagandik nai Goterkizañagandik artutako ida-tzizko erantzunean zerbait lortuteko eskarian norbaitek maltzurkeriz edo esan bear eban egia ixildu edo guzurra esan balegi, 45, 105g. arauetan aginduten danaren kalte barik bere Goterkizañak zigortu dagike.

(1) Gaurko legez alperrikoa arau au. Ezpaitago gaur berengo malletako eleiz-gi-zonik.—Larrakoetxea.

2362g. araua. Eleiz-idatzi nai agirietan, agirikoak direala, ixilekoak di-reala, guzurrezkoak idatzi nai guzurrezkoak erantsita aldatu egiten dabezanak, edo guzurrezkoak direala yakin arren, erabilli darabille-zanak, 2306, § 1g. aginduaren kalte barik, erruaren neurriz zigorkatu bediz.

2363g. araua. Norbaitek, nai berberak nai iñoren bitartez, autortza-en-tzulea beragaz aragizko pekatua egiten zirikatu ebala eleiz-Nagusiari guzurrez salatu balegio, beste barik Aita Santuarentzat beren-beregi berezitako zigorrez arrotzuta gelditzen da, eta ezin legikeo iñork pekatu ori parkatu arik eta guzurrezko salakuntzea guzur garbia izan zala agertu arte, eta guzurretik salatuari ekarritako kalteak egin-alean ordaindu arte; eta, ganera, 894g. arauko aginduaren kalte barik, zigor aztuna ta luzarokoa ezarri begio.

XVI IDAZPURUA

Eleiz-gizontzea ta beste ikurtonak emon-artzeango lege-asiak

2364g. araua. Nai Jaunaren nai Elexearen legez galazota daukenai Ikur-tonak emoten ausartzen danari, Goterkizañaren eritxi zu-rrerz neurtuteko eperako Ikurtonak emoteko eskubidea eten bekio eta beste zigor egokiakaz astindu bedi, onetariko legeausi batzuen aurka legeetan ezarrita dago-zan zigorren kalte barik.

2365g. araua. Ez legeak ez Aita Santuak artarako alik emon eztautsan yauparia sendotza-ikurtona emoten ausartu baledi, eten bedi; baña emondako alaren mugak baño arago balegi, beste barik ala galduta gelditzen da.

2366g. araua. Artarako bear dan zainbidezko alik barik ikurtonezko autortzak entzuten ausartzen dan yauparia beste barik Jaureskizunai buruz etenda gelditzen da; iñori berezitako pekatuak parkatuko leukazana, autortzak entzuteari buruz etenda gelditzen da.

2367g. araua. § 1.—Aragizko norbere pekatu-laguna azkesten dauana edo azkesten daualakoa egiten dauana beste barik Aita Santuari beren-beregi berezitako arrotzutearen azpian yausten da; eta ori bai iltamuan bertan be iltan dagoanaren autortzea beste yaupari batek entzun al balegi, naita autortzak entzuteko ontzat emona ez izan; iltamukoaren peka-tu-lagun izan dan yaupariak autortzea entzun gura ezetik bere izen ona galtzeko arrisku andia egon ezik, edo iltamukoak beste iñori autortzarik egin gura ezean.

§ 2.—Arrotzute orretatik eztau igez egiten biok batera egiñiko pekatua oraindiño autortu ta azketsi barik bere pekatu-laguna autortzan entzun eta az-kesten dauan edo azkesten daualakoa egiten dauan autor-entzuleak, autortzaleari alkarregaz egiñiko pekatua ez autortzeko artez nai zearka berak esanagaitik au-tortu ezagaz.

2368g. araua. § 1.—904g. arauan aitauten dan lege-*ausia* legiken *yauparia* *yaupera* egiteari ta ikurtonezko autortzak entzuteari buruz eten bedi, edo lege-*ausiaren* pixuak eskatu ezker, autortzok aurrerantzean entzuteko ezala gauza be agertu bedi; bizibide, *nausitza*, aututeko nai autua izateko autarkia kendu bekio ta egundo *geyago* eukiteko ezala gauza izango agertu, eta *yazoera* itxusienetan eleiz-gizona erri-gizondu bedi.

§ 2.—904g. arauaren aginduaren aurka zirikatu eban autor-entzulea illabete barru salatu eztauan *kistarra*, barriz, *ñiorentzat* berezi bako emondako epayezko arrotzute-azpian *yausten* da, ta ezta azketsi bear bere egin-bearra bete arte edo beteko dauala benetan agindu arte.

2369g. araua. § 1.—Autortza-ikurtonaren ixil-legea argi ta garbi austen dauan autortza-entzulea beste barik Aita Santuari beren-beregi berezitako arrotzutearen azpian dago; zearka bakarrik ausiko leukeanak 2368, § 1g. arauan esaten direan zigorrak irabazten ditu.

§ 2.—889, § 2g. arauaren agindua lotsa barik ausiko leuken edozein erruaren neurrian zigortu bedi, arrotzutea bera be, bear izan ezker, ezarrita.

2370g. araua. 953g. arauaren aginduaren aurka Aita Santuaren agindu barik norbait obisopotuten dauan Obispoa, lagun egiten dautsen Obispoak nai Obispo-ordezko *yaupariak* eta obisopotua bera be, guztiok etenda dagoz Aita Santuak parkatu arte.

2371g. araua. Simonkeriz eleiz-gizonen *malletara* *yasoak* edo *yaso dabezanak* edo beste ikurton batzuk emon nai artu dabezanak guztiak, naita Obispoak izan, *siñausle* susmodunak dira; eleiz-gizonak, ganera, Aita Santuarentzat berezitako etenaren azpian *yausten* dira.

2372g. araua. Aita Santuarentzat berezitako Jaureskizunai buruzko etena beste barik euren leporatuten dabe aretarikotzat agertu nai gaiztoetsi dauzan epayaren bidez arrotzu, eten nai egotziaren edo *kistar siñeskintzearen* ukatzalle, *siñausle* edo *Elexearen* zatitzalle ezagunaren eskuetatik eleiz-gizontzeak artzeko *añako* lotsabakoak izan direanak; *bañia* orretarikoen batek zelangoa zanik ezekiela norbait eleiz-gizondu baleu, olan artutako eleiz-gizontzea ezpegi erabilli artarako baimena artu arte.

2373g. araua. Beste barik Aita Santuarentzat berezitako eleiz-gizontza-ikurtona emoteko urte beteko etenaren azpian *yausten* dira:

1.º 955g. arauaren aginduaren aurka *ñioren* menpekua bere Goterkizañaren idatzizko baimen barik eleiz-gizontzen dauana.

2.º Legezko eragozpena leporatuteko besteko epean bere goterkitik kanpoan bizi izan dan bere menpekua 993, 4.º ta 994g. arauaren aginduen aurka eleiz-gizontzen dauana.

3.º 974, § 1, 7.ºg. arauaren aginduaren aurka legezko bizi-sari barik eleiz-gizontzen dauana.

4.º Legezko eskubide berezirik euki barik, eleiz-gizontzallearen goterkitik kanpoko etxean bizi dan Jaunzalea eleiz-gizontzen dauana, naita bere Nagusiaren idatzizko baimenagaz egin, 966g. arauan aitauten dan *yazoeren* bat yazoten dala egiztau ezik.

2374g. araua. Legezko idatzizko baimen barik edo guzurrezkoagaz, edo legezko urteak barik, edo mallarik malla barik *jauzika*, uts egiten dauala yakinda eleiz-gizontzeko datorrena, beste barik artutako eleiz-gizontzeari buruz etenda dago; *ziñaltza*-idazki barik, zigor osagarrien bategaz edo legezko eragozpideen bategaz lotuta dagoana eldu baledi, erruaren neurriko zigor latzagaz astindu bedi.

2375g. araua. Bear dan legazka barik katoliko eztanagaz ezkontzeko lotsabakoa izan dan katolikoa, beste barik legezko eleiz-egiñetatik eta ikurton antzekoetatik eragotzita dago Goterkizañak parkatu arte.

XVII IDAZPURUA

Eleiz-gizon nai Jaunzale-bizikerako egin-bear berezien aurkako lege-*ausiak*

2376g. araua. Goterkizañak azkatu barik eta legezko eragozpide barik 130g. arauak aginduten dauan azterketea egin nai eztaben *yaupariak* Goterkizañak zigor egokiagaz astindu begiz.

2377g. araua. 131g. arauaren agindua bete nai eztaben *yaupariak* Goterkizañak zuzen deritxoan zigorrakaz yo begiz; *arimazaintze*-bako Jaunzale autor-entzuleak balira, erritarren autortzak entzuteari buruz eten begiz.

2378g. araua. *Yaupera* egikera eta ostantzeko eleizkizunetan *Elexeak* agindutako *yaureskizun* eta *yauresketak* eiten zabar diarduen eleiz-gizonak, *agiraka* eginda gero arteztu ezik eten begiz erruaren neurrian.

2379g. araua. 136g. arauaren aurka eleiz-gizon-yantzia eta eleiz-gizonen ule-moztua eztabillezan eleiz-gizonai *agiraka* gogorra egin bear yake; *agiraka* eginda illabete alperrik yoan baledi, beko *malletako* eleiz-gizonai buruz 136, § 3g. arauko agindua bete bedi; goiko *malletako* eleiz-gizonai buruz barriz, 188, § 1g. arauaren aginduaren kalte barik, artutako eleiz-gizontzak erabilteari buruz eten bediz; eta eleiz-gizonen bizikeratik beste bizikerara ezaunean igaro balira, ta barriro *agiraka* egin arren damutu ez, atzenngo *agiraka* ori eginda iru illabete ezker eleiz-gizonen artetik egotzi bediz.

2380g. araua. 142g. arauaren aurka eurak nai *ñioren* bitartez sal-erostetan edo garasketan daragoyoen eleiz-gizon nai Jaunzaleak Goterkizañak erruaren neurrian gogor zigorkatu begiz.

2381g. araua. Toki berezian bizi-bearra dauken zeregin, bizibide, nausitzea eskuratu dauanak legearen aurka andik alde bizi ezkerro:

1.º Legearen aurka bere legezko bizitokitik alde bizi dan epearen neurrian beste barik bere bizibide nai zeregiñaren etorriak galdu, ta eurok Goterkizañari emon bear dautsaz, eta onek elexeari edo onegiteko lekuen bati edo txiroai banandu bear dautsez.

2.º 2168-2175g. arauen aginduen arauaz zeregiña, bizibidea, nausitzea kendu begie.

2382g. araua. Parroki-zaña ikurtonak emoteari buruz, gexoak zaintzeari buruz umeai ta erriari irakazteari buruz, igande ta yai-egunetan itzaldiak egiteari, parroki-elexea zaintzeari buruz, olio santuak santuak zaintzeari buruz alper andia balitz, Goterkizañak 2182-2185g. arauak erabagiten daben lez zigorkatu begi.

2383g. araua. Parroki-idaztiak legeak aginduten dauan lez idatzi nai yagoten eztauzan paroki-zaña Goterkizañak erruaren neurrian zigorkatu begi.

2384g. araua. Euren egin-bearrak betetan zabarrak direan Kanonigo teologoa ta autortza-entzuleak Goterkizañak apurka apurka oarrakaz, agirikakaz, zigor-zemayakaz dagokien saritik eurai kendu eta euren ordezko egiñai emongo yakela-ta, euren zeregiña betetan beartu begiz; eta oartuta gero urte betean euren alperrierian iraun balegie. bizibideai buruz eten begiz; alperrierian beste sei illabetean iraun balegie. bizibideai buruz eten begiz; alperrierian beste sei illabetean yarraitu balegie, bizibidea bera kendu begie.

2385g. araua. 646g. arauko aginduaren kalte barik, Jaunzaleak bere Jaunzaletzeari betiko uko balegio. beste barik bere Buru Nagusiarentzat, edo Jaunzaletzea erri-gizonezkoa nai azkatu bakoa balitz Jaunzale ukatzallea bizi dan Goterkizañarentzat berezitako arrotzutearen azpian yausten da. legezko eleiz-egiñetan lagun egitea galazota dauko. bere Jaunzaletzako kutun-legeak galduta; eta Jaunzaletzara itzuli baledi, autarki eskubidea bai iñor aututeko bai bera autua izateko betiko galduta dauko; eta ganera Jaunzaletzako legeen arauz Jaunzale-Buruak erruaren neurrian beste zigor batzukaz be yo begi.

2386g. araua. Iges egindako Jaunzalea beste barik Jaunzaletzan eukan zeregin barik gelditzen da eta goiko malletako eleiz-gizona baledi, bere Buru Nagusiarentzat berezitako etenean yausten da; atzera datorrenean, barriz, Jaunzaletzako legeen arauz zigorkatu bedi; eta legeak zer oneri buruz ezer erabagi ezik, Buru nagusiak erruaren neurriko zigorrakaz yo begi.

2387g. araua. Berak asmu gaiztoz egindako Jaunzaletzea utsa agertu dan Jaunzale-eleiz-gizona, eleiz-gizontzako beko malle-

tan yarria balitz, eleiz-gizon-bizikeratik yaurtigi bedi; goiko malletan yarria baledi, Aita Santuak bestera erabagi artean beste barik etenda dago.

2388g. araua. § 1.—Goiko malletan yarritako eleizgizonak, edo euren berba ospetsua emondako Jaunzaleak, gizonezkoak direala, andrazkoak direala, eurak edo eurotariko norbaitegaz ezkontuteko lotsakabokeria izan dabenak, naita ezkontzea erri-ezkontzea baño izan ez, Aita Santuarentzat berezitako emondako epayezko arrotzutearen azpian yausten dira; eleiz-gizonak, ganera, agiraka eginda gero, Goterkizañak, egiñaren gora-berak begiratuta, izentauko dautsan epe barruan damutu ez egitekotan, 188, 5.ºg. arauko aginduaren kalte barik, erri-gizondu begiz.

§ 2.—Betiko berba laua emonda jaunzaletuak balira, nai Lekaidetan nai ostantxeko Jaunzaletzan, guztiok Obispoari berezitako emondako epayezko arrotzutearen azpian yausten dira.

2389g. araua. Jaunzaletzako legeak agindutako guztiak batera bardin bizitea neurri yaramongarrian ausi daroenai agiraka zorrotza egin bekie, eta ondu epalediz, autarkia nai iñor aututeko nai eurak autuak izatekoa kendu bear yake; eta Nagusiak balira, euren nausitzea kendu.

XVIII IDAZPURUA

Zeregin eta bizibideak emon, artu ta itxiari buruzko lege-ausiak

2390g. araua. § 1.—Eleiz-uteskundeak azke egitea edozelan eurak nai iñoren bitartez galazoten dabenak, edo autesleai nai autuai, legezko autetsia eginda gero, bera dala-ta, asarre egiten dautsenak, erruaren neurrian zigorkatu bediz.

§ 2.—Eleiz-gizonezko nai Jaunzaletzako batzarrak egiteko autetsian erritarrak nai Laterri-agintariak legearen aurka legezko azkatasunaren kaltez nastuten aurtu balediz, nastute ori eskatu nai pozik ontzat emoten daben autesleak beste barik aututeko eskubidea artako txandarako galdu egiten dabe; eta olango autestea zelangoa izan dan yakinda bere ederra emon dautsana, barriz, autukizun izan dan zeregin edo bizibiderako gaieztuta gelditzen da.

2391g. araua. § 1.—Gai eztana yakinda autesten dauan batzarra, beste barik, oraingo txandan autetsi barria egiteko eskubidea galduta yarten da.

§ 2.—Autespena benetako autespina izateko auteskera erabilli eztauan autesle bakotxa, barriz, Obispoak erruaren neurrian zigorkatu begi.

§ 3.—Gai eztana aurkeztu nai izentau oker egiten ebala yakinda egin daben eleiz-gizonak nai erri-gizonak oraingo txandan aurkeztu nai izentauteko eskubidea galduta yari dira.

2392g. araua. 729g. arauko aginduaren kalte barik, edozein eleiz-zeregin, bizibide nai nausitzeari buruz simonkerizko lege-
-ausia legikenak:

1.º Aita Santuarentzat berezitako emondako epayezko arroztutzearen azpian yausten dira.

2.º Leukakena autesteko, aurkeztuteko, izentauteko eskubidea beste barik betiko kenduta gelditzen dira.

3.º Eleiz-gizonak balira, ganera eten bediz.

2393g. araua. Autu, aurkeztu nai izentauteko eskubidea dauken guztiak, autespene ontzat emotea ta zeregiñean nai bizibidean ezartea legez dagokionaren eskubidea ostikopetuta, eleiz-zeregiña, bizibidea nai nausitzea emoten ausartu balediz, bider artan beste barik euren eskubidea galduta gelditzen dira.

2394g. araua. Eleiz-bizibide, zeregin nai nausitzearen yabe inork emon barik egiten dana; nai bertarako autuak, aurkeztuak, izentauak, autu-aurkeztua-izentaua nagusi egokiak legez osotu barik, edo yabeteza emon bear eutsan legezko Eleiz-Nagusaren idazkia artu barik, edo idazki ori artu-arren, legez erakutsi bear eutsanari erakutsi barik aren yabeteza artzen dauana:

1.º Beste barik zeregin-bizibide-nausitza orretarako gaieztu egiten da, eta ganera Obispoak zigortu egin bear dau erruaren neurrian.

2.º Etenaz eta lendik eukan bizibidea, zeregiña, nausitzea kenduaz, ta, bear izan ezkerro, eleiz-gizonen artetik egotziaz beartu bedi, agiraka eginda, bizibidea, yaurbidea, nausitzea yabe lez eukitetik eta eurak yaurri ta zaintzetik alde egiten.

3.º Onetarilo autuak, aurkeztuak nai izentauak legezko agiria erakutsi barik euren legezko nagusitzat artzen dabezan batzar, Jaunzale-etxe artan zer-ikusida dauken edonortzuk, beste barik aututeko, aurkeztuteko nai izentautzeko eskubideari buruz etenda gelditzen dira Aita Santuak erabagiko dauan artean.

2395g. araua. Legez utsik eztagoan zeregin, bizibide edo nausitzearen emona ontzat artu ta bere yabe egiteari ezetik esan eztautsana, beste barik eurok gero artu ta erabilteko gai-etzuta gelditzen da, ta ganera beste zigor batzukaz be yo bear da.

2396g. araua. Lengoagaz alkartu ezin dan zeregin nai bizibide barriaren yabe bakez eginda gero, lengoa be beretzakotzat 156, 1439g. arauen aginduaren aurka leukakena, beste barik biak barik gelditzen da.

2397g. araua. Norbaitek Kardenal izentauta, 234g. arauak aginduten dauan zin-itza emon gura ezpalegi, kardenaltzea betiko galduta gelditu bedi.

2398g. araua. Norbaitek, Obispo eginda 33g. arauaren aginduaren aurka iru illabete barru Obispo-ikurtona nagikeriz artu barik balego, bizibidearen etorriak eztitu bereak eta Obispo-elexearenak egiten dira; eta nagikerian beste ainbesteko epean yarra balegi, beste barik obispo-izatea galduta gelditzen da.

2399g. araua. Goiko malletako eleiz-gizonai, euren Goterkizañak emondako zeregiña Goterkizain orren baimen barik zeregiña izten ausartu diranai Goterkizañak berari deritxon eperako Jaureskizunai buruzko etena ezarri begioe.

2400g. araua. Eleiz-zeregiña, bizibidea nai nausitzea erri-gizonen eskuetan izten ausartu dan eleiz-gizonak beste barik Jaureskizunai buruzko etena dauko.

2401g. araua. Legez kenduta edo aldatuta euki arren, len eukan zeregiña, bizibidea ta nausitzea eukiten yarrantzen dauanari edo ez iztearren legezko eztearen luzapenak yarten dituanari, agiraka eginda gero itxi-erazo begio yaureskizunai buruzko etenaren eta beste zigorren bidez, baita, bear izan ezkerro, eleiz-gizonen artetik egotzita be.

2402g. araua. Inongo goterkiko eztan barrutiaren Buru direan Lekai-puru ta Jaurburuak. 322, § 2g. arauaren aginduaren aurka onespene artu eztabenak, beste barik yaurbideari buruz etenda dagoz.

2403g. araua. 1406g. arauaren aginduaren aurka eragozpen barik bere siñestearen autortzea egiteko nagi danari, agiraka egin begio, epe egokia be izentatzen yakola; epe au alperrik yoan baledi. buru-gogorra zeregiña, bizibidea, nausitzea, ardurea kenduagaz be zigorkatu bedi; eta bitartean eztauz bereak egiten zeregiñaren, bizibidearen, nausitzearen, ardurearen irabaziak.

XIX IDAZPURUA

Eleiz-alaren nai eleiz-zeregiñen geyegikerizko lege-ausiak

2404g. araua. Eleiz-alaren geyegikeriak legezko Nagusi zurraren eritxiz erruaren neurrian zigortu bediz, geyekeri batzuen aurka an-or-emen ezarrirako zigorren kalte barik.

2405g. araua. Batzar-Ordezkoak eta bazkide guztiak, nai ostantxeakoak, Obispoaren idazkolako edozein agiri nai agerkai, bai norberak bai inoren bitartez ostu nai ausi nai ostondu nai osoan aldatzen dabenak, Aita Santuarentzat berezitako arroztutzearen azpian yausten dira, eta Obispoak zeregiña, bizibidea kenduagaz be zigortu dagikez.

2406g. araua. § 1.—Bere zeregiñak beartuta Obispoaren Idazkolako agiri ta agerkayak eta parroki-liburuak ezarri, idatzi ta zaintzen dabezanak eurok guzurrezkotu, aldatu, suzitu nai ostonduen ausartuko balira, euren zeregiña kenduagaz eta Obispoaren eritxizko beste zigorrakaz be astindu bediz.

§ 2.—Legez eskatuten dautsazanari agiri, agerkai nai idaztiok bir-idaztea, bialtzea nai erakustea maltzurkeriz ukatu edo beste edozelan bere zeregiña bete nai eztauana, zeregiña kenduagaz edo berari buruz etenda eta diruzko zigorrakaz erruaren neurrian Obispoak deritxon lez yo begi.

2407g. araua. Obispoaren lantegietako zeregin-buruak nai edozein langille epaikari-lege-gizonak eta ordelariak eskupekoakaz edo dirua aginduagaz euren egin-bearraren aurkazo zerbaitegiten zirikatuten dauzana, zigor egokiagaz yo bedi, eta kalterik egin balegi, ordaintzen beartu bedi.

2408g. araua. Ekanduzkoak direan eta 1507g. arauaren neurrian ontzat emondako lan-sariak azi edo eurok baño geyago zerbaite emon-erazoten dabenak diruzko zigor azitxoagaz zigortu bediz, ta barriro be yausiko litzakena, eskubide barik irabazia atzera emon bearraren kalte barik, erruaren neurrian zeregiñari buruz nai eten nai bertatik urrindu bedi.

2409g. araua. 958. § 1 3.ºg. arauaren aginduaren aurka goiko malle-tako eleiz-gizontzak artzeko eskubidea emoten dauan Bazar-Ordezkoa beste barik eleiz-gizonaren eskubideai buruzko etenak yoten dau.

2410g. araua. 965-967g. arauen aurka euren menpekoak eleiz-gizondu-teko eurenaz Obispoagana bialtzen ausartu dan Jaunzale-nagusiak beste barik illabeteaz yaupa egiteko etena dauko.

2411g. araua. 541g. arauaren aurka legez osoan gai eztana, edo 544g. arauak aginduten bere gaitasunari buruzko barriak emoten dautsazan agiri idatziak artu barik, azi-ezi-aroan 571, § 1g. arauaren agin-duaren aurka jaunzaletzea egiten artzen dauan Jaunzale-nagusiak eleiz-gizonen eskubideai buruzko etenagaz nai beste zigor batzukaz zigortu bediz, eta, bear izan ezkeru, nagusitza kenduagaz be bai.

2412g. araua. Andrazko jaunzaleen Nagusia, arkatuetakoa balitz be, tokiko Goterkiñak erruaren neurrian zigortu begi, baita, bear izan ezkeru, nagusitza kenduta be:

1.º 552g. arauaren aurka jaunzaleen bizi-sariak edozelan eralgi balegiz, 551g. arauak aginduaren kalte barik.

2.º 552g. arauko aginduaren aurka laster azi-ezi-arora nai jaunzaletzara artzekoari buruz Goterkiñak yakitun ezpalegi.

2413g. araua. § 1.—Legezko Eleiz-Nagusiak jaunzaleak zelan bizi direan ikusten yoateko asmua iragarrita gero, Jaunzale-Andreak, Eleiz-Nagusi orren baimen barik, bere menpeko jaunzaleak etxe batetik bestera aldatu balegiz; baita edozein jaunzale andrazko, nagusi nai menpeko ezer eztakiela erantzuten edo egia edozelan estaldu nai ez esatera jaunzalekideak ekarri dabezanak; edo Ikusleari emondako erantzunakaitik, edozein atxakigaz txarto darabizanak, Ikusleak iñori agintzeko karguetarako gai-ezagaz lotuta izentau begiz; eta Andra Nagusiak dauken nagusitza ken begioe.

§ 2.—Or § 1garrenean agindua bete bedi gizonezko Jaunzaletzetan be.

2414g. araua. 521, § 3, 522, 523g. arauen aginduen aurka yardun dauan andrazko jaunzaleen Nagusiari Goterkiñak agiraka begio; ta barriro be legea ausi balegi, nagusitza ken begi, baña Jaunzaleai buruzko Bazkun Gurena bertatik yakitun eginda.

ELEXEAREN ARAUDIAREN BILLABIDEA

LELENGO IDAZTIA (LIBURUA) = LIBER PRIMUS

Zer askotarako arauak = normae generales (1-86).

I Idazpurua — Eleiz-legeai buruzkoak (8-24).

II Idazpurua — Ekanduari buruzkoak (25-30).

III Idazpurua — Aldi-epeak zelan neurtu? = de temporis supputatione (31-35).

IV Idazpurua — Erantzun idatziak = de rescriptis (36-62).

V Idazpurua — Kutun-legeak = de privilegiis (63-79).

BIGARREN IDAZTIA = LIBER SECUNDUS

NORTZUK = DE PERSONIS (87-725)

Lelengo Zatia = Pars prima

Lelengo Txatala.

Eleiz-gizonai buruzkoa = de clericis (108-488).

Lelengo Zatikia.

Eliz-gizon guztiai buruzkoa = de clericis in genere (108-214).

I Idazpurua — Eleiz-gizona zein goterkiko = de clericorum adscriptione alicui dioecesi (111-117).

II Idazpurua — Eleiz-gizonen eskubide ta kutun legeak (118-123).

III Idazpurua — Eleiz-gizonen egin-bearrak = de obligationibus clericorum (124-144).

IV Idazpurua — Eleiz-zeregiñak = de officiis ecclesiasticis (145-195).

I Atala — Eleiz-zeregiñak zelan emon = de provisione officiorum ecclesiasticorum (147-195).

I Atalkia — Nagusiak beste barik emonda = de libera collatione (152-159).

II Atalkia — Autespena = de electione (160-178).

III Atalkia — Eskatutea = de postulatione (179-182).

II Atala — Eleiz-zeregiñak zelan galtzen direan = de amissione officiorum ecclesiasticorum (183-195).

V Idazpurua = Norbere-norberena dan eta ifiorik bere ordezkia egiteko emona dan alari buruzkoa = de potestate ordenaria et delegata (196-210).

VI Idazpurua — Eleiz-gizonen erri-gizontzea = de reductione clericorum ad statum laicalem (211-214).

Bigarren Txatala.

Eleiz-gizon batzui buruzkoa = de clericis in specie (215-488).

VII Idazpurua — Elexako gorengo alari eta eleiz-legez bere zatiren bat daukenai buruzkoa = de suprema potestate deque iis qui eiusdem sunt ecclesiastico iure participes (218-328).

I Atala — Erroma'ko Obispo edo Aita Santua = de Romano Pontifice (218-221).

II Atala — Elexa osoaren Batzarra = de Concilio Oecumenico (222-229).

III Atala — Erroma'ko Elexa Santuaren Kardenalak = de Sanctae Romanae Ecclesiae Cardenalibus (230-241).

IV Atala — Aita Santuaren Lantegiak = de Curia Romana (242-264).

I Atalkia — Bazkun Gurenak = de Sacris Congregationibus (246-257).

II Atalkia — Aita Santuaren Erroma'ko Epaitegiak edo Auzitegiak = de Tribunalibus Curiae Romanae (258-259).

III Atalkia — Aita Santuaren etxeko Idazkolak = de Officiis Curiae Romanae (260-264).

V Atala — Aita Santuaren Ordezkoak = de Legatis Romani Pontificis (265-270).

VI Atala — Erkabak, Lenengoak, Obispo-Buruak = de Patriarchis, Primatibus, Metropolitibus (271-280).

VII Atala — Batzarrak: a) Beteak; b) Obispo-buru-erkikoak = de Conciliis plenariis et provincialibus (281-292).

VIII Atala — Aita Santuaren Ordezkoak eta Erki-Buruak = de Vicariis et Praefectis Apostolicis (293-311).

IX Atala — Aita Santuaren bein-beineko Goterkizañak = de Administratoribus Apostolicis (312-318).

X Atala — Eleiz-Nagusi apalagoak = de Praelatis inferioribus (319-328).

VIII Idazpurua — Obispoen aginpidea ta aren zerbait artzen dabena buruzkoa = de potestate episcopali deque iis qui de eadem participant (329-486).

I Atala — Obispoai buruzkoa = de Episcopis (329-349).

II Atala — Obispoen Lankide ta Laguntzalleak = de Coadiutoribus et Auxiliariibus Episcoporum (350-355).

III Atala — Goterki-batzarra = de Synodo dioeclesana (356-362).

IV Atala — Obispoaren etxekoak = de Curia dioeclesana (363-390).

I Atalkia — Danerako Ordezkoa = de Vicario Generali (366-371).

II Atalkia — Idazkaria (Zadorlaria) ta beste Ziñaldariak eta goterkiko agiritegia = de Cancellario aliisque notariis et archivo episcopali (372-384).

III Atalkia — Batzar-azterzalleak eta parroki-zain aolkariak = de examinatoreibus synodalibus et parochis consultoreibus (385-390).

V Atala — Legezko eleiz-gizonezko Batzarrak = de Capitulis canonicorum (391-422).

VI Atala — Goterki-aolkariak = de consultoreibus dioeclesanis (432-428).

VII Atala — Obispo-aulkia eragotzi edo utsari ta Batzar-Ordezkoari buruzkoa = de sede impedita aut vacante ac de Vicario Capitulari (429-444).

VIII Atala — Parroki-zain-buruak = de vicariis foraneis (445-450).

IX Atala — Parroki-zañak = de parochis (451-470).

X Atala — Parroki-zain-ordezkoak = de vicariis parochialibus (471-470).

XI Atala — Eleiz-zañak = de ecclesiarum rectoribus (479-486).

Bigarren Zatia = Pars secunda (487-681)

Jaun-zaleai buruzkoa = De Religiosis

IX Idazpurua — Jaunzaletzea bera ta aren erki ta etxeak zelan sortu ta il = de erectione et suppressione religionis, provinciae, domus (492-499).

X Idazpurua — Jaunzaletzak zelan zaindu = de religionum regimine (499-537).

I Atala — Nagusi ta Batzarrak = de superioribus et de Capitulis (517).

II Atala — Autortza-entzuleak eta eleiz-zañak = de confessariis et cappellanis (518-530).

III Atala — Ondasunak eta eurok zaintzea = de bonis temporalibus eorumque administratione (531-537).

XI Idazpurua — Jaunzaletzako zelan egin = de admissione in religionem (538-586).

I Atala — Jaunzale ateaurrekoak = de postulatu (539-541).

II Atala — Azi-ezitaroa = de novitiatu (542-571).

I Atalkia — Azi-ezitarora artzeakoak zertzuk bear dabezan = de requisitis ut quis in novitiatum admittatur (542-552).

II Atalkia — Jaunzalegayen azi-ezikerea = de novitiorum institutione (553-571).

III Atala — Jaunzaletzea = de professione religiosa (571-586).

XII Idazpurua — Eleiz-gizonezko Jaunzaletzetako ikasketak = de ratione studiorum in religionibus clericalibus (587-591).

XIII Idazpurua = Jaunzaleen egin-beirak eta kutun-legeak = de obligationibus et privilegiis religiosorum (592-623).

I Atala — Eginbeirak = de obligationibus (592-612).

I Atala — Kutun-legeak = de privilegiis (613-623).

III Atala — Elexako Nagusitzen batera edo parrokien bat zaintzeko izentaua i an dan Jaunzalearen eginbeirak eta kutun legeak = de obligationibus et privilegiis religiosi ad ecclesiasticam dignitatem promoti vel parochiam regentis (626-631).

XIV Idazpurua — Beste Yaunzaletza batera igaroteaz = de transitu ad aliam religionem (632-636).

XV Idazpurua — Jaunzaletzatik alde egiteaz = de egressu e religione (637-645).

XVI Idazpurua — Jaunzaleen yaurtigitea = de dimissione religiosum (646-672).

I Atala — Bein-beineko berbea emonak yaurtigitea = de dimissione religiosum qui vota temporaria nuncupaverunt (647-648).

II Atala — Betiko berbea emonak eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatu ba-koan edo erri-gizonezkoetan jaunzaletzatik yaurtigiteari buruzkoa = de dimis-

ne religiosorum qui vota perpetua nuncuparunt in religione clericali non exempta vel in religione laicali (649-653).

III Atala — Eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatuetan betiko berbea nai ospea nai laua emondako jaunzaleak yaurtigiteko ibilli bear dan auzibidea (654-669) = de dimissione religiosorum qui vota perpetua nuncuparunt in religione clericali non exempta vel in religione laicali.

IV Atala — Betiko berbea emondako Jaunzale yaurtigiak — de religiosis nunciatis qui vota perpetua nuncuparunt (669-672).

XVII Idazpurua — Jaunzaleen agiriko iru gauzak zaintzeko berbarik emonik batera bizi direan nai gizonezko nai andrazko alkargoak = de societatibus virorum sive mulierum in communi viventium sine votis (673-681).

Irugarren Zatia = Pars tertia (682-725)

Erritarrak = de laicis (682-683)

XVIII Idazpurua — Kistar erritarren Alkargo guztiai buruzkoa = de fidei associationibus in genere (684-699).

XIX Idazpurua — Kistarren Alkarko bakotxari buruzkoak = de fidelium associationibus in specie (700-725).

I Atala — Gizarteko Eren-Jaunzaleak = de Tertiis Ordinibus saeculari (702-706).

I Atala — Anai-arreba-bazkunak eta Onegintza-bazkunak = de confraternibus et piis unionibus (707-719).

III Atala — Anai-arreba-Bazkuna-Buruak eta Onegintza-Bazkuna-Buruak = de Archiconfraternitatibus et primariis unionibus (720-725).

IRUGARREN IDAZTIA = LIBER TERTIUS

ZERTZUK = DE REBUS (726-1551)

Lelengo Zatia = Pars prima

Ikurtonak = De Sacramentis (731-1153)

I Idazpurua — Ugutzari buruzkoa = de baptismo (737-779).

I.—Atala — Ugutza nork emon? = de ministro baptismi (738-744).

II Atala — Ugutza nork artu edo nori emon? = de subiecto baptismi (745-754).

III Atala — Zelan ugutzatu? = de ritibus et caeremoniis baptismi (755-769).

IV Atala — Aita-amatxiak (aita-amabitxiak) = de patrinis (762-769).

V Atala — Ugutza noiz eta non emon? = de tempore et loco baptismi ferendi (770-776).

VI Atala — Emondako ugutza zelan egiztatu = de collati baptismi adnotatione et probatione (777-779).

II Idazpurua — Sendotza = de confirmatione (780-800).

I Atala — Sendatu ¿nork? = de ministro confirmationis (782-785).

II Atala — ¿Nor sendotu? = de subiecto confirmationis (786-788).

III Atala — ¿Noiz eta non sendotu? = de tempore et loco confirmationis conferendae (790-792).

IV Atala — Atia-amatxiak = de patrinis (794-797).

V Atala — Sendotua izan dala zelan egiztau? = de collatae confirmationis adnotatione et confirmatione (798-800).

III Idazpurua — Geure Jaunaren Ikurtona = de sanctissima Eucharistia (801-869).

I Atala — Yaupa oso santua = de sacrosancto Missae sacrificio (802-844).

I Atalkia — Yauparia = de sacerdote Missae sacrificium celebrante (802-813).

II Atalkia — Yaupako egin-esanak eta egikera-esakerak = de Missae ritibus et caeremoniis (814-819).

III Atalkia — Noiz eta non Yaupera egin? = de tempore et loco Missae celebrandae (820-823).

IV Atalkia — Yaupa-ukar edo sariak = de Missarum eleemosynis seu stipendiis (824-844).

II Atala — Geure Jaunaren ikurtona (845-869) = de sanctissimo Eucharistiae sacramento.

I Atalkia — Geure Jauna nork emon? = de ministro sacrae communionis (845-852).

II Atalkia — Geure Jauna nork artu edo nori emon? = de subiecto sacrae communionis (853-866).

III Atalkia — Geure Jauna noiz eta non emon daiteken? = de tempore et loco quo sacra communio distribui potest (867-869).

IV Idazpurua — Autortza edo damu-ikurtona = De poenitentia (870-910).

I Atala — Parkatu ¿nork? = de ministro sacramenti poenitentiae (871-892).

II Atala — Pekatuen berezpena = de reservatione peccatorum (893-900).

III Atala — Ikurton au nori emon? = de subiecto sacramenti poenitentiae (901-907).

IV Atala — Ikurton au non emon? = de loco ad confessiones excipiendas (907-910).

V Atala — Nekazkak = de Indulgentiis (911-936).

I Atalkia — Nekazkak nork emon? = de indulgentiarum concessione (911-924).

II Atalkia — Nekazkak nork eta zelan irabazi? = de indulgentiarum acquisitione (925-936).

V Idazpurua — Azken-igurtzia = extrema unctione (991-947).

I Atala — ¿Nork emon? = de ministro extremae unctionis (938-939).

II Atala — ¿Nori emon? = de subiecto extremae unctionis (940-944).

III Atala — ¿Zelan emon? = de ritibus et caeremoniis extremae unctionis (945-947).

VII Idazpurua — Eleiz-gizontze-Ikurtona = de Ordine (948-1.011).

I Atala — Eleiz-gizondu ¿nork? = de ministro sacrae ordinationis (951-967).

II Atala — ¿Nor eleiz-gizondu? = de subiecto sacrae ordinationis (968-982).

I Atalkia — Eleiz-gizontzekoak zer bear? = de requisitis in subiecto sacrae nationis (973-982).

II Atalkia — Nortzuk eleiz-gizondu ez? = de irregularitaribus aliisque edimentis (983-991).

III Atala — Eleiz-gizondu-aurretik egitekoak = de iis quae sacrae ordinationi praeire debent (992-1001).

IV Atala — Eleiz-gizontzako egin-esanak eta egikera-esakerak = de ritibus caeremoniis sacrae ordinationis (1006-1009).

V Atala — ¿Noiz eta non eleizgizondu? = de tempore et loco sacrae ordinationis (1006-1009).

VI Atala — Eleizgizontzea zelan egiztatu? = de adnotatione et testimonio sacrae ordinationis (1010-1011).

VII Idazpurua — Ezkontza-ikurtona = de matrimonio (1012-1143).

I Atala-Ezkontza-aurretik egitekoak eta batez be aren iragarketak = de quae celebrationi matrimonii praemitti debent et praesertim de publicationis matrimonialibus (1019-1034).

II Atala — Eragozpide guztiai buruzkoak = de impedimentis in genere (1055-1057).

III Atala — Ezkontzea galazo bakarrik egiten daben eragozpideak = de edimentis impedientibus (1058-1066).

IV Atala — Ezkontzea galazo ta ausi egiten daben eragozpideak = de impedimentis dirimentibus (1067-1080).

V Atala — Ezkontzeari buruzko bayetza = de consensu matrimoniali (1081-1083).

VI Atala — ¿Ezkontzea zelan egin? = de forma celebrationis matrimonii (1094-1103).

VII Atala — Ixileko ezkontzea = de matrimonio conscientiae (1104-1107).

VIII Atala — Ezkontzea ¿noiz eta non egin bear? = de tempore et loco celebrationis matrimonii (1108-1109).

IX Atala — Ezkontzearen atzeak = de matrimonii effectibus (1110-1117).

X Atala — Ezkontzideen banandutea = de separatione coniugum (1118-1122).

I Atalkia — Ezkontza-lokarria azkatutea = de dissolutione vinculi (1118-1127).

II Atalkia — Ezkonduak oe, mai ta etxeari buruz banandutea = de separatione tori, mensae et habitationis (1128-1132).

XI Atala — Ezkontza utsa zelan gauzazkotu? = de matrimonii convalidatione (1133-1141).

I Atalkia — Gauzaztute utsa = de convalidatione simplici (1133-1137).

II Atalkia — Susterretiko gauzaztutea = de sanatione in radice (1138-1141).

XII Atala — Bigarren ezkontzea = de secundis nuptiis (1142-1142).

VIII Idazpurua — Ikurton antzekoak = de Sacramentalibus (1144-1153).

Bigarren Zatia = Pars secunda

Toki ta aldi santuak = de locis et temporibus sacris (1154-1254)

Lelengo Txatala — Toki santuak = de locis sacris (1154-1242).

IX Idazpurua — Elexak = de ecclesiis (1161-1187).

X Idazpurua — Otoiztegiak = de oratoriis (1188-1196).

XI Idazpurua — Yaupamayak = de altaribus (1197-1202).

XII Idazpurua — Eleiz-obiratzea = de sepultura ecclesiastica (1203-1242).

I Atala — Obitegiak edo Il-erriak edo kanpo santuak = de coemeteriis (1205-1214).

II Atala — Gorpua elexara eroatea, eleizkariak eta obitegiratzea = de cadaveris translatione ad ecclesiam, funere ac depositione (1215-1238).

III Atala — Eleiz-obia nortzui emon eta nortzui ukatu = De iis quibus sepultura ecclesiastica concedenda est aut neganda (1239-1242).

Bigarren Txatala — Aldi santuak = de temporibus sacris (1243-1254).

XIII Idazpurua — Yai-egunak = de diebus festis (1247-1249).

XIV Idazpurua — Aragi-iztea ta barau-egunak = De abstinentia et ieiunio (1250-1254).

Irugarren Zatia = Pars tertia (1255-1321)

Jaunaren yaureskuntzea = De cultu divino (1255-1264)

XV Idazpurua — Geure Jauna non eta zelan zaindu ta yauretsi? = de custodia et cultu sanctissimae Eucaristiae (1265-1275).

XVI Idazpurua — Santuai ta Santuen irudiai eta gorpuzkiñai egin bear yaken gurtzaketea = de cultu Sanctorum, sacrarum imaginum et reliquiarum (1276-1289)

XVII Idazpurua — Elexako yoa-erriak = de sacris processionibus (1290-1295).

XVIII Idazpurua — Elexen yantziketee = de sacra suppellectili (1296-1306).

XIX Idazpurua — Berba (itz) emona ta Zin egitea (1307-1321).

I Atala — Berbea emotea = de voto (1307-1315).

II Atala — Zin egitea = de iureiurando (1316-1321).

Laugarren Zatia = Pars quarta (1322-1428)

Elexearen Irakaskintzea = de magisterio ecclesiastico (1322-1428).

XX Idazpurua — Jaunaren berbea (Itza) aldarrikatzea = de divini verbi praedicatione (1327-1351).

I Atala — Kistar-Ikaspidearen irakaskintzea = de catechetica institutione (1329-1336).

I Atala — Eleiz-itzaldiak — de sacris concionibus (1337-1348).

III Atala — Misiñoak = de sacris missionibus (1349-1351).

XXII Idazpurua — Ikastolak = de scholis (1372-1383).

XXIII Idazpurua — Idaztien (liburuen) argitara orduko azterpena ta epaya ta argitaratuak irakurtea galazoteari buruzkoa = de praevia censura librorum eorumque prohibitione (1384-1405).

I Atala — Idaztien argitara orduko azterpena ta epaya = de praevia librorum censura (1385-1394).

II Atala — Idaztien galazotea = de prohibitione librorum (1395-1405).

XXIV Idazpurua — Sinestearen autortza = de fidei professione (1406-1418).

Boskarren Zatia = Pars quinta

Bizibideak eta batzarrezko ezterean Elexearen zer-norbaitzuk (1409-1488).

XXV Idazpurua — Eleiz-bizibideak = de beneficiis ecclesiasticis (1409-1418).

I Atala — Bizibideak eregitzea = de constitutione seu erectione beneficio (1414-1418).

I Atala — Bizibideak batu, aldatu, zatitu, zatia kendu, bestelakotu ta kenburuzkoa = de unione, traslatione, divisione, dismembratione, conversio-suppressione beneficiorum (1419-1430).

II Atala — Eleiz bizibideak nork, nori, noiz, non, nola emon = de beneficiorum collatione (1431-1447).

V Atala — Patroitzeari buruzko legeak = de iure patronorum (1448-1472).

VII Atala — Bizibidedunen eskubide ta egin-bearrak = de iuribus et obli-gationibus beneficiariorum (1472-1483).

VI Atala — Eleiz-bizibideak itxi nai truke-egiteari buruzkoa = de dimissionibus et permutatione beneficiorum (1483-1488).

XXVIII Idazpurua — Batzarrezko ezterean Elexearen beste zer-norbaitzui buruzkoa = de aliis institutis ecclesiasticis non collegialibus (1489-1494).

Seigarren Zatia = Pars sexta

Uren emeko bizitzarako ondasunak = de bonis Ecclesiae temporalibus (1495-1551).

XXVII Idazpurua — Ondasunak norberenak zelan egin? = de bonis ecclesiae acquirendis (1499-1517).

XXVIII Idazpurua = Eleiz-ondasunak zelan zaindu? = de bonis ecclesiae administrandis (1518-1528).

XXIX Idazpurua — Itunbenak = de contractibus (1529-1543).

XXX Idazpurua — Jaureskizunak, onegintzak = de piis foundationibus (1544-1551).

LAUGARREN IDAZTIA = LIBER QUARTUS

EPAIBIDEAK = DE PROCESSIBUS (1552-2194)

Lelengo Zatia = Pars prima

Auziak = de iudiciis (1552-1998)

I Lelengo Txatala = Auzi guztiai buruzkoa = de iudiciis in genere (1556-1568).

II Idazpurua = Auzitegi legezkoa = de foro competenti (1556-1568).

III Idazpurua — Auzitegien malla ta motak = de variis tribunalium gradibus et speciebus (1569-1607).

I Atala — Lelengo mallako geyenbateko auzitegia = de tribunalibus ordinario primae instantiae (1572-1593).

II Atalkia — Epaikaria = de iudice (1572-1579).

III Atalkia — Epaikariaren lagunak; Entzule ta Edeslariak = de Auditoribus et Relatoribus (1580-1584).

IV Atalkia — Ziñaldaria, zuzenaren eta legezko lokarrien Aldezlariak = de Notario, Promotore iustitiae, vinculi defensore (1585-1590).

V Atalkia — Geznari ta amabiak = de Cursoribus et Apparitoribus (1591-1593).

VI Atala — Bigarren mallako legezko Auzitegia nai epaitegia = de tribunalibus ordinario secundae instantiae (1594-1596).

VII Atala — Aita Santuaren betiko legezko Epaitegiak = de ordinariis Apostolicae Sedis tribunalibus (1597-1605).

I Atalkia — Erroma'ko "Rota Santua" = de Sacra Romana (1598-1601).

II Atalkia — Aita Santuaren gorengo epaitegia "Signatura Apostolica" = de Signatura Apostolica (1602-1605).

III Atala — Epaitegi Ordezkoa = de tribunalibus delegato (1606-1607).

IV Idazpurua — Epaitegietan zaindu bear dan yardunbidea = de disciplina in tribunalibus servanda (1608-1645).

I Atala — Epaikariaren eta Auzitegi Otseñen zeregiña = de officio iudicis et tribunalium ministrorum (1608-1626).

II Atala — Auziak zein lenago zein geroago epaitu? = de ordine cognitionum (1627-1633).

III Atala — Auzika ekiteko eskubidea zelan luzatu ta zelan amaitu = de dilationum terminis et fatalibus (1634-1635).

IV Atala — Auziak non eta noiz amaitu = de loco et tempore iudicii (1636-1639).

V Atala — Auzia eztabaidatzera nortzuk artu ta agiriak zelan egin eta zelan zaindu? = de personis ad disceptationem iudicalem admittendis et de modo confectionis et conservationis actorum (1604-1645).

VI Idazpurua — Auzikariak = de partibus in causa (1646-1666).

I Atala — Auzilaria ta auzitua = De actore et reo convento (1646-1654).

II Atala — Auzi-ordezkolari ta aldezlariak = de procuratoribus ad lites et advocatis (1655-1666).

III Idazpurua — Auzibideak eta Aldezbideak = de actionibus et exceptionibus (1667-1705).

I Atala — Zerak baitu ta eskubideak lotu = de rei sequestratione et inhibitione exercitii iuris (1671-1675).

II Atala — Lan barritiko ta egindako kaltetiko auzibideak = de actionibus ex novi operis nuntiatione et damno infecto (1676-1678).

III Atala — Egin utsakaitiko auzibideak = de actionibus ob nullitatem actorum (1679-1683).

IV Atala — Egiñak austeko eske yoateko auzibideak eta auzi-gaya beñolako egokerara itzulitea eskatuteko auzibidea = de actionibus rescissoriis et de restituendis in integrum (1684-1689).

Atala — Ordain-salakuntzako auzibidea = de mutuis petitionibus seu onibus reconventionalibus (1600-1692).

Atala — Zerbait eukiteari buruzko auzibidea = de actionibus seu repossessoriiis 1694-1700).

I Atala — Auzibideen atzena = de extinctione actionum (1701-1705).

Idazpurua = Auziaren auzitegian sartera = de causae introductione (1725).

Atala — Auzi-sartzeari buruzko Idaztiñoa = de libello litis introducto (1606-1710).

Atala — Auzitegirako deya ta auzitegian egiten danaren iragarria = de denuntiatione actorum iudicialium (1711-1725).

Idazpurua — Auziari erantzuna = de litis contestatione (1726-1731).

I Idazpurua — Auziari ekiten = de litis instancia (1732-1741).

Idazpurua — Auzikariari epaitegian egin bear yakezan itaunketai buru- de interrogationibus partium in iudicio faciendis (1742-1746).

Idazpurua — Egizpideak = de probationibus (1747-1836).

Atala — Auzikariaren autortzak = de confessione partium (1750-1753).

Atala — Lekukoak eta euren esanak = de testibus et attestationibus (1753).

Atalkia — Nortzuk lekuko? = qui testes esse possunt (1756-1758).

Atalkia — Nortzuk, zeinbat eta zelan lekukoak aurkeztu ta nortzuk artu- ta quibus, quomodo et quot testes induci et qui excludi possunt (1759-1759).

Atalkia — Lekukoen ziñ-egitea = de iureiurando testium (1767-1769).

Atalkia — Lekukoen aztertzea = testium examine (1770-1781).

Atalkia — Lekukoen esanak argitaratzea ta txartzat emotea = de testi- m evulgatione eorumque reprobatione (1782-1786).

Atalkia — Lekukoen ordaña = de indemnitate testium (1787-1788).

Atalkia — Lekukoen esanen indarra = de testimoniorum fide (1789-1789).

Atala — Yakitunak = de peritis (1792-1805).

Atala — Epaikariaren epaikizunaren tokira yoatea ta tokia begiratzea = de recognitione iudiciali (1806-1811).

Atala — Agiri bidezko egizpidea = de probatione per instrumenta (1814-1824).

Atalkia — Agirien izakerea ta egizpide-indarra = de natura et fide ins- trum (1812-1818).

Atalkia — Agirien aurkeztutea ta aurkeztu-erazoteko auzibidea = de actione instrumentorum et actione ad exhibendum (1819-1824).

Atala — Yakin barik egizkotzat emonak = de praesumptionibus (1828).

Atala — Auzikariaren ziñ-egitea = de iureiurando partium (1829-1836).

Idazpurua — Bide batezko auziak = de causis incidentibus (1837-1837).

Atalkia — Lekukoak = de testibus (1974-1975).

I Atala — Setakeria = de contumacia (1842-1851).

II Atala — Auzian nastuten dan irugarrena = de interventu tertii in cau- sa (1852-1853).

III Atala — Auzi-bitarteko ausiak = de attentatis lite pendente 1854-1857).

XII Idazpurua — Epaibidearen argitaratzea, epaiketearen atzena ta epaiki- zunari buruzko eztabaidatzea = de processus publicatione, de conclusione in causa et de causae discussione (1858-1867).

XIII Idazpurua — Epaya — de sententia (1868-1877).

XIV Idazpurua — Epayaren aurkazko zuzen-bideak eta iges-bideak = de iuris remediis contra sententiam (1878-1904).

I Atala — Gora yotea = de appellatione (1879-1891).

II Atala — Epai alperren aurkazko auzibidea = de querela nullitatis contra sententiam (1892-1897).

III Atala — Epayaren irugarren arerioa = de oppositione tertii (1898-1901).

XV Idazpurua — Betiko epaitutako auzia ta dana beñolako egokerara biur- tzea = de re iudicata et de restitutione in integrum (1902-1907).

XVI Idazpurua — Auziko eralgiak eta urruriko babesa = de expensis iu- dicialibus et de gratuito patrocinio 1908-1916).

I Atala — Auziko eralgiak = De expensis iudicialibus (1903-1913).

II Atala — Urruriko babesa nai auzi-eralgiak gitxituteko bidea = de gra- tuito patrocinio aut expensarum iudicialium diminutione (1914-1916).

XVII Idazpurua — Epaya betetea = de executione sententiae (1917-1924).

Bigarren Txatala = Sectio II — Auzi berezi batzuetan erabilli bear direan- arau bedegararak = de peculiaribus normis in certis quibusdam iudiciis servan- dis (1925-1998).

XVIII Idazpurua — Eztabaidazko auzia barik, eztabaidok bakez ebazteko bideak = de modis vitandi iudicium contentiosum (1925-1932).

I Atala — Alkarregaz ituntzea = de transactione (1925-1928).

I Atala — Ebazleai buruzko alkar aitutea — de compromisso in arbitros (1929-1932).

XIX Idazpurua — lege-ausizko auzia = de iudicio criminale (1933-1959).

I Atala — Lege-ausia nork salatu ta nork iragarri = de accusatoria actione et denuntiatione (1934-1938).

II Atala — Lege-ausiaren billa ekiten = de inquisitione (1939-1946).

III Atala — Lege-ausleari agiraka egitea = de correptione delinquentis (1947-1953).

IV Atala — Lege-ausizko epaibidea zelan egin eta lege-auslea epaitegira deitutea = de instructione processus criminalis et de rei correptione (1954-1959).

XX Idazpurua — Ezkontza-auziak = de causis matrimonialibus (1960-1962).

I Atala — Legezko auzitegia = de foro competenti (1960-1965).

II Atala — Auzitegia zelan yarri? = de tribunali constituendo (1966-1969).

III Atala — Ezkontzea salatuteko ta ezkontza burutu bakoa azkatuteko es-

abidea = de iure accusandi matrimonium et petendi dispensationem super rato (1970-1973).

IV Atala — Egizpideak = de probationibus (1974-1982).

II Atalkia — Soñaren (gorputzaren) azertutea = de inspectione corporali (1976-1982).

V Atala — Epaibidearen argitaratzea, ebazketearen atzena ta epaya = de publicatione processus, conclusionem in causa et sententia (1983-1985).

VI Atala — Gora yoteak = de appellationibus (1986-1984).

VII — Orain artean agindutako epaikera-legeetatik berezitako auziak = de causis exceptis a regulis hucusque traditis (1990-1992).

XXI Idazpurua — Eleiz-gizontze santuaren aurkako auziak = de causis contra sacram ordinationem (1933-1998).

Bigarren Zatia = Pars secunda

Jaunaren seme-alaben Zoriontzea ta Zorionekoen santutzeari buruzko auziak = de Causis beatificationis servorum Dei et canonizationis Beatorum (1999-2141)

XXII Idazpurua — Auzi oneitan zer ikusi ta zer egin daben norbaitzuk = de nonnullis personis quae in his processibus partes habent (2003-2018).

I Atala — Auzilaria ta Eskekoa = de Actore et Postulatore (2003-2008).

II Atala — Kardenal Txostenlaria, siñeskintzaren Aldezlariak eta Aldezlariordeak = de Cardinali Relatore, Promotoribus fidei et Subpromotoribus.

III Atala — Ziñaldaria. Agiri-zaña ta lege-gizon Aldezlariak = de notario, cancellario et advocatis (2013-2018).

XXIII Idazpurua — Auziotan zeintzuk egizpide? = de probationibus in his processibus adhibendis (2019-2036).

I Atala — Egizpide guztiai buruzkoak = de probationibus generatim (2019-2022).

II Atala — Lekukoak eta Yakitunak = de testibus et peritis (2023-2031).

III Atala — Epaibidean sartu bear direan agiriak = de documentis processibus inserendis (2032-2036).

XXIV Idazpurua — Gurtzabako bidez Jaunaren semea nai alabea zorionekotzat emoteko epaibidea = de processu beatificationis Servorum Dei per viam non cultus (2037-2124).

I Atala — Goterkizañak bere eskubidez dagikezan egizpideak = de processibus a loci Ordinario iure proprio instruendis (2034-2064).

I Atalkia — Jaunaren seme nai alabearen idatziak billatzea (2038-2048).

II Atalkia — Argi billako bide-arloa = de processu informativo (2049-2056).

III Atala — Gurtza-etzako epaibidea = de processu super non cultu (2057-2064).

IV Atalkia — Jaunaren seme edo alabearen idatziak eta agiriko gurtzazari buruzko epaibideak Bazkun Gurenari bialtzea = de transmissione processus scriptorum Servi Dei, processus informativi et de non cultu ad Sacram Congregationem (2061-2064).

II Atala — Jaunaren seme edo alabearen auziaren sarrerea Bazkun Gurenaren aurrean = de causae introductione apud Sacram Congregationem (2065-2086).

I Atalkia — Idatziak azterketea = de revisione scriptorum (2065-2072).

II Atalkia — Argi-billako epaibidearen eztabaidatzea = de discussione processus informativi (2073-2084).

III Atalkia — Gurtza-etzako epaibidearen eztabaidatzea = de discussione processus super non cultu (2085-2086).

III Atala — Aita Santuaren epaibideak = de processibus Apostolicis (2087-2113).

I Atalkia — Aita Santuaren epaibidea zelan egin? = de processu apostolico instruendo (2087-2097).

II Atalkia — Aita Santuaren epaibidearen gauzazkotasunari buruzko ebazkizuna = de processu apostolici validitate diiudicanda (2098-2100).

III Atalkia — Ekandu on bakotxaren santutasunari edo ziñopeari ta bere zioyai buruzko ebazkizuna = de iudicio super heroicitate virtutum in specie vel super martyrio eiusque causa (2101-2115).

IV Atalkia — Jaunaren seme edo alabearen mirari bakotxaren epaibidea = de iudicio super Servi Dei miraculis in specie (2116-2124).

XXV Idazpurua — Gurtza-bidez edo legetik kanporako bidezko Jaunaren Seme edo alabea Zorionekotzat emoteko epaibidea = de processu beatificationis Servorum Dei per viam cultus seu casus excepti (2125-2135).

XXVI Idazpurua — Zorionekoak santu agertutea = de Beatorum canonizatione (2136-2141).

Irugarren Zatia = Pars tertia (2141-2194)

Arazo batzuk ebazteko ta zigor batzuk ezateko zelan yardun = De modo procedendi in nonnullis expediendis negotiis vel sanctionibus poenalibus applicandis

XXVII Idazpurua — Parroki-zain aldagatxak aldentuteko ebazpidea = de modo procedendi in amotione parochorum inamobilium (2147-2156).

XXVIII Idazpurua — Parroki-zain aldakorak aldentzeko zelan yardun bear = de modo procedendi in amotione parochorum amobilium (2157-2161).

XXIX Idazpurua — Parroki-lzañak aldatuten zelan yardun = de modo procedendi in traslatione parochorum (2162-2167).

XXX Idazpurua — Bear daben tokian bizi ez tirean eleiz-gizonakaz zelan yardun = de modo procedendi contra clericos non residentes (2168-2175).

XXX Idazpurua — Eleiz-gizon oelagundunaren aurka zelan yardun = de modo procedendi contra clericos concubenarios (2176-2181).

XXXII Idazpurua — Parroki-zain-egin-bearrak betetan alperra dan parroki-zañaren aurka zelan yardun = de modo procedendi contra parochum in adimplendis paroecialibus officiis negligentem (2182-2185).

XXXIII Idazpurua — Zelan yardun Goterkizañak bere barruan ostonduta daukazan zioyakaitik eleizgizonari bere eskubideak erabiltea bein-beinean galazoteko = de modo procedendi in suspensione ex informata conscientia infligenda (2186-2194).

BOSKARREN IDAZTIA = LIBER QUINTUS

LEGE-AUSIAK ETA ZIGORRAK = DE DELICTIS ET POENIS (2195-2214).

Lelengo Zatia = Pars Prima

Lege-ausiak = de delictis

I Idazpurua — Lege-ausia zer eta zenbatarikoa dan = de natura delicti et divisione (2195-2198).

II Idazpurua — Lege-ausiaren errua; errua azi nai txikitu egiten dabene eta lege-ausiaren legezko ondorenak = de imputabilitate delicti, de illam aggravantibus vel minuentibus et de iudicis delicti effectibus (2211).

III Idazpurua — Legea austeko alegia = de conatu delicti (2212-2213).

Bigarren Zatia = Pars secunda

Zigorak = De Poenis (2214-2313)

I Idazpurua — Zigorak: zer direan, zeinbatarikoa, adierazpena ta na.

II Idazpurua — Zigorak zer direan, zeinbatarikoa, ulertzea ta ezartzea = de poenarum notione, speciebus, interpretatione atque applicatione (2215-2219).

III Idazpurua — Zigor-eskubidea nork? = de superiore potestatem coactivam habente (2220-2225).

IV Idazpurua — Zigor-erantzukizuna? = de subjecto potestati coactivae obnoxio (2226-2235).

V Idazpurua — Zigorren parkatzea = de poenarum remissione (2263-2264).

VI Idazpurua — Zigorren Txatela — Ari bakotzeko zigorrei buruzkoa = de poenis in speciebus (2214-2313).

VII Idazpurua — Zigor osagarriak = de poenis medicinalibus seu censuris. Atala — Zigor osagarri guztiai buruzkoa = de censuris in genere (2241-2242).

Atala — Zigor osagarri-ari bakotxari buruzkoa = de censuris in speciebus (2255-2256).

Atalka — Arrotzuteari buruzkoa = de excommunicatione (2257-2267).

Atalka — Eragoziari buruzkoa = de interdicto (2277).

Atalka — Etenari buruzkoa = de suspensione (2278-2285).

VIII Idazpurua — Zigor garbi edo aspergarri guztiai buruzkoa = de poenis vindicativis (2286-2303).

Atala — Kistar guztientzako zigor garbiak = de poenis vindicativis communi (2286-2290).

Atala — Eleiz-gizonen zigor garbi bereziak = de peculiaribus clericorum poenis vindicativis (2298-2305).

IX Idazpurua — Osapide mingarriak eta erru-ordañaak = de remediis poenitentiae et poenitentiae (2305-2313).

Atala — Osapide mingarriak = de remediis poenalibus (2306-2311).

Atala — Zigor-ordañaak = de poenitentiae (2312-2313).

Irugarren Zatia = Pars tertia

Lege ausi bakotxari ezarteko zigorrak = de poenis in singula delicta (22-14-2414)

XI Idazpurua — Siñeskizunen eta Elexearen batasunaren aurkako lege-ausiak = de delictis contra fidem et unitatem Ecclesiae (2314-2319).

XII Idazpurua — Jaureskuntzearen aurkako lege-ausiak = de delictis contra religionem (2320-2329).

XIII Idazpurua — Eleiz-nagusien, eleizgizonen ea eleiz-zeren aurkako lege-ausiak = de delictis contra auctoritates, personas, res ecclesiasticas (2330-2349).

XIV Idazpurua — Biziazen, azkatasunaren, yabetasunaren, izen onaren eta ekanduen aurkako lege-ausiak = de delictis contra vitam, libertatem, proprietatem, bonam famam et bonos mores (2350-2359).

XV Idazpurua — Guzur-lege-ausiak = de crimine falsi (2360-2363).

XVI Idazpurua — Eleiz-gizontzea ta beste ikurtonak emon-artzeango lege-ausiak = de delictis in administratione vel susceptione ordinum aliorumque sacramentorum (2364-2373).

XVII Idazpurua — Eleiz-gizon nai Jaunzale-bizikerako egin-bear berezien aurkako lege ausiak = de delictis contra obligationes proprias status clericalis vel religiosi (2376-2389).

XVIII Idazpurua — Nagusitzeak, zeregiñak eta bizibideak emon, artu ta itxiari buruzko lege-ausiak = de delictis in collatione, susceptione et dimissione dignitatum, officiorum et beneficiorum ecclesiasticorum (2390-2403).

XIX Idazpurua — Eleiz-alaren nai yaurbidearen geyegikerizko lege-ausiak = de abusu potestatis vel officii ecclesiastici (2404-2414).

